Euskal Autonomia Erkidegoa

MEMORIA

Sozioekonomikoa 2018

CES EGAB

Consejo Económico y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea



EZKUTUKOA IKUSGAI BIHURTZEA

Joan den uztailaren 16an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen 2018ko Memoria Sozioekonomikoa eta, modu horretan, bere lege arautzailearen agindua bete zuen. Nolanahi ere, horren arabera, beste zereginen artean, memoria egin behar du, Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia- eta gizarte-egoerari buruzko gogoetak azaltzeko. Memoria sozioekonomikoa lankidetza-lana da eta urtean zehar zabaltzen da, pertsona askoren jardunari esker. Ondorioz, zilegi da dokumentu hau ahalbidetu duten guztiei esker onak eman eta beren lana gorestea. Bereziki, memoria sozioekonomikoa egiteko batzordea osatzen duten batzordekideak aipatu nahi ditut, laguntza teknikoa eskaini dutenekin batera.

Memoria gauzatzea erronka zaila, konplexua eta neketsua da. Izan ere, ahal diren datu guztiak bildu behar dira, Euskadiko ekonomia- eta gizarte-egoerari buruzko irudi leiala egin eta urteko bilakaera definitzeko. Datuak bildu ostean, alderatu, aztertu, eztabaidatu eta batzordean dauden ekonomia- eta gizarte-eragileen proposamenak sartzen dira, erabakiak hartu eta gehieneko babes adostua duten politikak bultzatzeko orduan, erakundeei laguntzeko. Horiek memoria sozioekonomikoak erantsitako gogoetetan ageri dira.Lan sakonak kapitulu desberdinetan EGABk interesa eta aginpidea duen eremu guztien erradiografia xehatua adierazten du. Hortaz, demografia-bilakaeran hasi eta abagune ekonomikoa aztertu arte iristen da, hurrengo aztergaietatik pasata: sektore bakoitzean ekonomiaren egoera, lan-merkatuaren bilakaera, langabezia, lan-baldintzak, produkzio-azpiegiturak edo zientzia, teknologia eta berrikuntza. Halaber, besteak beste, EAEko bizi-baldintzak, bere biztanleen bizi-kalitatea, osasuna, gizarte-desberdintasunak eta pobrezia, gizarte-babesa, mendekotasunarekiko arreta, irakaskuntza, kultura, kontsumoa edo lan, familia eta norberaren bizia bateratzea lantzen dira.

Adierazitako eremuak EGABren memoria sozioekonomikoa egituratzen duten kapituluetan biltzen dira eta oraingoan, lehenengoz, monografiko bat jaso du. Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak ezin zituen aipatu gabe utzi 2018. urtean izandako mobilizazioak, erreibindikazioak eta salaketak, gure gizartearen eztabaida-mamira berdintasunaren gaia ekarri baitzuten. Zereginean barrentzeko eta sentsibilizazio- nahiz mobilizazio-prozesuan laguntzeko, EGABk atal berezia burutu du, Euskadiren errealitate sozioekonomikoan emakumeen egoeraren ikuspegi sakona izateko. Datuak biltzea garrantzitsua da, lehenengo urratsa baita antzemandako arazoak ikusi eta, gero, aztertu nahiz aurre egiteari begira. Aurrekoari eutsiz, berdintasunaren arloan egiaztatutakoarekin bat, onartutako arauak eta politika publikoetan generoaren ikuspegia sartzeko borondatea ez dira nahikoak desberdintasunarekin amaitzeko. Gaiaren inguruan, Mercedes D´Alessandro ekonomialariak azpimarratutakoari jarraiki, “datuetan ezkutatua dagoena, politiketan ere ez da ikusten”. Isiltasuna eta ikusgai ez izatea arma hilgarriak dira. Clara Campoamor Bigarren Errepublikako Gorte Konstituziogileetan emakumearen botoaren buru izan zen eta emakumeak botatzeko eskubidearen aldeko argudioak ez zirela eztabaidatzen, “isildu besterik ez zela egiten” salatu zuen. Hala gogorarazten du “El voto femenino y yo: mi pecado mortal” urte haietako bere borrokari buruzko oroitzapenen liburuak.

Isilaldi horien aldean, joan den urtean gure gizartearen egiturazko desberdintasuna salatzen zuten mobilizazioak zalapartatsuak suertatu ziren. Beraz, gertaerak aipagarriak izan ziren eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak ezin zituen baztertu. Erakunde gisa ezkutuan dagoena azaleratzen, gordeta ageri dena ikusgai bihurtzen lagundu behar dugu. Memoria honetan aurkezten ditugun datuek emakumeen egoera eta hobetzeko premia ikusgaia izateko ekarpen xumea izan nahi dute.

Emilia M. Málaga Pérez, Euskadiko Ekonomia eta
Gizarte Arazoetarako Batzordearen presidentea

CES EGAB
Consejo Económico y Social Vasco
Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea

EMAKUMEAK EAEKO ERREALITATE SOZIOEKONOMIKOA CAPV

1. DEMOGRAFIA ETA OSASUNA 3

1.1. Bizi-itxaropena jaiotzean (BI) eta Bizitza Urte Osasuntsuak jaiotzean (BUO)

1.2. Mendekotasuna

2. HEZKUNTZA ETA JAKINTZA 5

2.1. Lanbide Heziketako eta Unibertsitate Ikasketetako matrikulazioa

2.2. Eskola behar baino lehenago lagatzea

2.3. Ikaskuntza iraunkorrean parte hartzea

2.4. I+G jardueretan ari diren emakumeak

3. ERRENTA, SOLDATAK ETA GIZARTE BABESA 8

3.1. Errenta pertsonala

3.2. Soldatak

3.3. Gizarte babes

4. LAN MERKATU 10

4.1. Jarduera

4.2. Okupazioa

4.3. Langabezia

5. KONTZILIZAZIOA ETA BATERAKO ERANTZUKIZUNA 11

I. KAPITULUA EAEKO DEMOGRAFIA

1. OINARRIZKO ADIERAZLE DEMOGRAFIKOEN BILAKAERA 16

1.1. BIZTANLERIAREN BEREZKO MUGIMENDUA 16

1.1.1. Jaiotzak
1.1.2. Heriotzak

1.2. MIGRAZIO-MUGIMENDUAK 19

1.2.1. Migrazio-mugimenduen estatistika

1.3. EIN-EN 2018-2033RAKO BITANLERIAREN AURREIKUSPENAK 21

1.4. EZKONTZAK 23

1.4.1. Ezkontzak
1.4.2. Ezkontzak desegiteak

2. IMMIGRAZIOA EAE-N 26

2.1. TESTUINGURUA: IMMIGRAZIOA EUROPAR BATASUNEAN 26

2.2. IMMIGRAZIOAK EAE-KO DEMOGRAFIAN DUEN ERAGINA 27

2.3. ELKARBIZITZA. 2018KO BAROMETROA 31

3. EAE-KO DEMOGRAFIA: LABURPENA ETA GOGOETAK 34

II. KAPIUTULA EKONOMIA EAEN

1. KANPOALDEKO INGURUNE EKONOMIKOA 39

1.1. FAKTORE EKONOMIKO NAGUSIAK 39

1.2. EUROPAR BATASUNA. EUROGUNEA 41

1.3. ESPAINIAKO EKONOMIA ETA ATUNOMIA ERKIDEGOAK 44

1.1.1. Espaniako ekonomia
1.1.2. Autnonomia erkidegoak

2. EAE-KO ABAGUNE EKONOMIKOA 49

2.1. BILAKAERA OROKORRA 49

2.2. BARNE-ESKARIAREN AGREGATUAK 52

2.3. KANPO ESKARIA 53

2.4. ATZERRIKO INBERTSIOA 57

2.4.1. Atzerriko inbertsia EAEnInversión extranjera en la CAPV
2.4.2. Inversión vasca en el extranjero

2.5. PREZIOAK, KOSTUAK ETA ERRENTAK 63

3. EKOIZPEN SEKTOREAK 69

3.1. ENPRESA-EGITURA ETA -DEMOGRAFIA 69

3.1.1. Empresa egitura
3.1.2. Enpresa-demografia

3.2. LEHEN SEKTOREA 75

3.2.1 Nekazaritza, abeltzaintza eta baso-ustiapena
3.2.2. Enpresa-demografia

3.3. INDUSTRIA 77

3.4. ERAIKUNTZA 83

3.5. ZERBITZUAK 85

3.5.1. Merkataritza
3.5.2. Ostalaritza eta turismoa
3.5.3. Finantza sektorea

4. SEKTORE PUBLIKOA 98

4.1. DIRU SARRERAK 98

4.2. GASTUAK 102

4.3. AURREKONTUKO SALDOA 105

4.4. SEKTORE PUBLIKOA 106

4.5. ERAKUNDEETAKO TRANSFERENTZIAK 107

4.6. ENPLEGUA HERRI ADMINISTRAZIOETAN 110

5. AZPIEGITURA PRODUKTIBOAK 112

5.1. GARRAIOA: AZPIEGITURAK ETA TRAFIKOA 112

5.1.1. Azpiegiturak
5.1.2. Lur, trenbide, aire eta itsasoko trafikoa

5.2. ENERGIA: EKOIZPEN ETA KONTSUMOA 121

6. ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA 126

6.1. I+G+b jarduerak 126

6.1.1. I+G+b-ko Euskal Sistemaren adierazle nagusiak
6.1.2. I+D jarduerak
6.1.3. Berrikuntza jarduerak
6.1.4. EUROPAKO BERRIKUNTZA ADIERAZLEEN PANELA- European Innovation Scoreboard (EIS), 2018

6.2. INFORMAZIOAREN TEKNOLOGIAK ETA KOMUNIKAZIOAK 128

6.2.1. iKTen ekipamenduak eta erabilerak EAEko enpresetan
6.2.2. P 6.2.2. EAEko enpresetako web guneetan ematen diren prestazioak
6.2.3. Merkataritza elektronikoa EAEn
6.2.4. Administrazio elektronikoa EAEn

7. GIZARTE EKONOMIAREN KONTUAK EAE-N 151

7.1. EMPLEGUAREN BILAKAERA 151

7.2. EMAITZA EKONOMIKOAK 155

7.3. GIZARTE EKONOMIA MODU BERRIAK 157

7.4. ERKAKETA AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA 158

8. EKONOMIA EAEN: LABURPENA ETA GOGOETAK 159

CES EGAB
Consejo Económico y Social Vasco
Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea

III. KAPITULUA LAN MERKATUA EAEN

1. JARDUERAREN OKUPAZIOAREN ETA LANGABEZIAREN BILAKAERA 176

1.1. JARDUERA 176

1.2. OKUPAZIOA 178

1.2.1. Okupazioaren kopuruak
1.2.2. Gizarte Segurantzako afiliazioa

1.3. LANGABEZIA 183

1.3.1. Langabeziaren kopuruak
1.3.2. LANBIDEK erregistraturiko langabezia

2. KONTRATAZIOEN BILAKAERA, ALDI BATERAKO KONTRATUEN AMAIERA ETA IRAIZPENAK 192

2.1. PANORAMA DE CONTRATACIÓN 192

2.2. IRAIZPENEN ETA ERREGULAZIO ESPEDIENTEEN BILAKAERA 200

2.2.1. Banako iraizpenak eta objetiboak
2.2.2. Enplegua erregulatzeko espedienteak
2.2.3. Iraizpenen bilakaera agregatua

3. LAN HARREMANAK 204

3.1. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA: SOLDATA IGOERA, LANALDIA ETA LANA ETA FAMILIA UZTARTZE 206

3.2. LAN GATAZKAK 206

3.3. LAN EGINDAKO DENBORA ETA LAN EGIN GABEKO DENBORA 207

4. SOLDATAK EAE-N 211

4.1. SOLDATEN EGITURARI BURUZKO 2017KO INKESTAREN EMAITZAK 211

4.2. LAN-KOSTUEI BURUZKO INKESTAREN EMAITZAK 213

4.2.1. Lan-kostuei buruzko urteko inkesta
4.2.2. Lan-kostuei buruzko hiruhilekoetako inkesta

4.3. LANEKO PREZIOEN INDIZEAREN (2016) EMAITZAK 2016 215

4.4. SOLDATEN BANAKETA: BAI-REN 2017KO EMAITZAK 216

5. ENPLEGU POLITIKAK 219

5.1. ENPLEGU POLITIKA AKTIBOAK 219

5.1.1. Enplegurako 2020 Euskal Estrategia. Martxan jartzearen eta ezarpenaren lehen fasearen ebaluazioa (2017)
5.1.2. 2017-2020ko Enplegu Plana. Jarraipen txostena
5.1.3. LANBIDEren jardunera
5.1.4. Etengabeko trebakuntza

5.2. ENPLEGU POLITIKA PASIBOAK 228

5.2.1. Prestazioen hartzaileak eta langabezia-estaldura
5.2.2. Gastua eta sarrera langabeziarako babesean

5.3. EZINDUEN ETA GIZARTEAN BAZTERTUAK IZATEKO ARRISKUAN DAUDEN PERTSONEN ENLEGUGARRITASUNERAKO ETA GIZARTE-LANERATZEKO POLITIKAK 232

5.3.1. Ezinduen enplegu arrunta
5.3.2. Enplegu Zentro Bereziak
5.3.3. Laneratze enpresak

6. LAN OSASUNA 237

7. LAN-MERKATUA EAE-N: LABURPENA ETA ONDORIOAK 241

IV. KAPITULUA BIZI-KALITATEA ETA GIZARTE BABESA EAEN

1. BIZI BALDINTZAK 253

1.1. EAE-KO BIZI-BALDINTZAK EUROPAKO INGURUNEA: "AROPE" TASA" 253

1.1.1. Pobrezia atalasearen azpitik dagoen biztanleria
1.1.2. Gabezia material larria
1.1.3. Oso lan intentsitate txikia duen biztanleria

1.2. 2017KO BIZI-BALDINTZEI BURUZKO INKESTAREN EMAITZAK 257

1.2.1. Errenta
1.2.2. Gabezia materiala

1.3. FAMILIAK ETA LANA, BIZITZA PERTSONALA ETA FAMILIA UZTARTZEA 260

1.3.1. Uztartzeko beharrak
1.3.2. Familiei laguntzeko politika publikoak

2. GIZARTE BABESA 269

2.1. GIZARTE BABESAREN KONTUA 269

2.2. GIZARTE SEGURANTZAKO PRESTAZIOAK 271

2.2.1. Transferitu gabeko kudeaketa duten prestazioak
2.2.2. Kudeaketa transferitua duten prestazioak: kotizaziopeko prestazioak

2.3. POBREZIAREN ETA GIZARTE BAZTERKETAREN KONTRAKO NEURRIAK EAE-N 275

2.3.1. 2017-2021eko Gizarteratze Plana
2.3.2. Sarrerak Bermatzeko Sistemaren prestazioak
2.3.3. Gizarteratzea bultzatzeko programak: Hirugarren Sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak gizarte eskuhartzearen arloan

2.4. MENDEKOTASUNAREN ARRETA 285

2.4.1. Datu ofizialak. IMSERSOREN 2018ko balantzea
2.4.2. Sektorearen balantzea. Mendekotasunaren behatokia

2.5. GIZARTE AURREIKUSPENEKO SISTEMA OSAGARRIAK EAE-N 288

2.5.1. Magnitude nagusiak
2.5.2. Zerga araubidea

3. BIZI BALDINTZAK: LABURPENA ETA ONDORIOAK 292

V. KAPITULUA BIZI KALITATEA EAE-N

1. HEZKUNTZA ETA KULTURA 301

1.1. UNIBERTSITATEZ KANPOKO IRAKASKUNTZAK 301

1.1.1. Araubide orokorreko irakaskuntzetan matrikulaturiko ikasleak
1.1.2. Lanbide-heziketako prestakuntza-zikloak: matrikulaturiko ikasleak

1.2. UNIBERTSITATEKO IKASKUNTZAK 307

1.3. HEZKUNTZA ADIERAZLEAK 309

1.3.1. Eskolatze-adierazleak eta hezkuntza ingurunea
1.3.2. Hezkuntza finantzaketaren adierazleak
1.3.3. Hezkuntza emaitzen adierazleak
1.3.4. Unibertsitate adierazleak

1.4. KULTURA 331

1.4.1. Kultura ohiturak aisialdian
1.4.2- Kultura enpresak eta kulturako enplegua
1.4.3. Gastu publikoa kulturan
1.4.4. Etxeen kultura kontsumoaren gastua

2. INGURUNE NATURALAREN EGOERA EAE-N 336

2.1. AIREAREN KALITATEA 336

2.2. UR GEZA BILTZEA ETA KONTSUMITZEA 337

2.3. HONDAKINEN SORKUNTZA ETA KUDEAKETA 338

2.3.1. Hiriko hondakinak
2.3.2. Hondakin arriskutsuak eta ez-arriskutsuak

2.4. INGURUMENAREN BABESA ETA MANUFAKTURA-INDUSTRIA 342

3. OSASUNA ETA OSASUN SISTEMA 344

3.1. OSASUN EGOERA 344

3.1.1 Bizi-itxaropena jaiotzean (BI) eta Bizitza Urte Osasuntsuak jaiotzean (BUO)
3.1.2 Ospitaleko erikortasuna
3.1.3 Heriotza-tasa

3.2. OSASUNAREN DETERMINANTE EZ MEDIKOAK 352

3.3. OSAKIDETZAREN LAGUNTZA JARDUERA 355

3.4. OSASUN ARRETA PRIBATUAREN ESTATISTIAK: ASEGURU LIBREKO ENTITATEAK 357

3.5. OSASUN SISTEMAREN GASTUA ETA FINANTZAKETA 358

3.5.1 Osasunaren Kontua
3.5.2 Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren gastua Gasto de Osakidetza
3.5.3 Osakidetzaren gastua

3.6. 2013-2020KO OSASUN PLANAREN EBALUAZIOA 363

4. ETXEBIZITZA 369

4.1. ETXEBIZITZAREN ESKAINTZA 369

4.1.1. Salgai dauden etxebizitzen eskaintza eta salneurriak
4.1.2. Alokairu araubidea
4.1.3. Etxebizitzaren prezioen erkaketa, autonomia erkidegoen arabera
4.1.4. Etxebizitzaren alokairuko errenten erkaketa autonomia erkidegoen arabera

4.2. ETXEBIZITZAREN ERAIKUNTZAREN JARDUERA 376

4.2.1. Etxebizitzaren eraikuntza EAEn
4.2.2. Etxebizitzaren babestuaren eraikuntza. Autonomia erkidegoen araberako azterketa

4.3. ETXEBIZITZA ESKARIA 379

4.3.1. Etxebizitza beharra eta eskaria
4.3.2. Familien finantza-ahalegina
4.3.3. Etxebiden erregistraturiko etxebizitza babestuaren eskaria

4.4. HIGIEZINEN ARLOKO JARDUERA: ETXEBIZITZA SALEROSKETA 388

4.5. KRISIAREN ERAGINA: HIPOTEKA-BETEARAZPENAK, JABE-BOTATZEAK ETA UTZARAZPENAK 389

4.5.1. Hipoteka-betearazpenak
4.5.2. Jabe-botatzeak eta etxegabetzeak

4.6. BIZILAGUNIK GABEKO ETXEBIZITZAK ETA ETXEBIZITZA HUTSAK: 2017KO DATUAK 391

4.7. ETXEBIZITZA POLITIKA 393

4.7.1. Eusko Jaurlaritzako etxebizitza politika
4.7.2. Foru Aldundien etxebizitza politika

5. BIZI-KALITATEA: LABURPENA ETA ONDORIOAK 402

VI. KAPITULUA ARAUGINTZA EAE-N **417**

DEFINIZIOEN ETA KATEGORIZAZIOEN GLOSARIOA 423

Emakumeak EAEko errealitate sozioekonomikoan

EMAKUMEAK EAE-KO ERREALITATE SOZIOEKONOMIKOAN

2018an, mobilizazio, aldarrikapen eta salaketa ugari izan ziren eta, horren ondorioz, berdintasuna gure gizartearen eztabaidaigai nagusietako bat bihurtu da.

Hala ere, jakin badakigu estatistika datuek ez dutela aldaketa sozioekonomiko garrantzitsurik erakutsiko, zeren eta 2018an izandako ekimenek datozen urteetan izango baitute eragina eta, gainera, dekalajea dago Memoria honen edizioaren (2019) eta eskuragarri dagoen azken datu ofizialaren artean (2018koa edo aurrekoa izan daiteke). Batzorde honetan, lagungarri izan nahi dugu berdintasunean aurre egiteko bidean eta sentsibilizazio eta mobilizazio prozesuan, eta hartara, berariazko atala bildu dugu gure Memoria Sozioekonomikoaren edizio honetan. Izan ere, haren xedea da euskal emakumeek gure Erkidegoaren errealitate sozioekonomikoan duten egoerari buruzko ikuspegia ematea, Memoria honetako ataletako zenbait adierazle esanguratsu bereiziz.

BERDINTASUNEAN DAGOEN ALDEA (2018)



Osasuna: bizitza-itxaropena osasun onean
Hezkuntza: eskola-uzte goiztiarra
Presentzia zientzia: enplegua I+G-n
Errenta: errenta pertsonal eskuragarria
Enplegua: okupazio-tasa
Enpleguaren kalitatea: behin-behinekotasuna
Baterako erantzukizuna: etxeko eta zaintzako lanetan emandako denbora

Iturria: Geuk egina

1. DEMOGRAFIA ETA OSASUNA

1.1. Bizi-itxaropena jaiotzean (BI) eta Bizitza Urte Osasuntsuak jaiotzean (BUO)

1. GRAFIKOA. BIZI-ITXAROPENA JAIOTZEAN ETA BIZITZA URTE OSASUNTSUAK JAIOTZEAN



	GIZONAK	EMAKUMEAK	Gizonen eta emakumeen arteko diferentzia
EVn (2016)	80,3	86,5	6,2
EVBSn 2015)	68,3	68,8	0,5

Iturria: EUSKO JAURLARITZA: "2016ko Heriotza-tasa EAEn"

Eusko Jaurlaritzaren "EAEko Heriotza-tasa, 2016" txostenak erakusten duenez, emakumeak gizonak baino 6,2 urte gehiagoz bizi dira (86,5 urtez eta 80,3 urtez); alabaina, jarduera mugarik gabeko urteen batez bestekoa urte erdi handiagoa baino ez da (68,8 urte eta 68,3 urte). Hortaz, jarduera mugarik gabe bizi izandako 17,7 urte dira emakumezkoetan eta 12 gizonezkoetan.

Bestela esanda, BIn sexuen arabera dauden diferentziak nabarmen murrizten dira jarduera mugarik gabe bizi izandako urteak hartzen badira kontuan, halako moldez non emakumeen BI gizonezkoena baino handiagoa baita gehienbat jarduera mugarekin bizi izandako urteen kontura. Izan ere, azterlaneko adierazlean jarduera muga hartzen bada kontuan, bizi-itxaropen osasuntsua aztertuta, bizi-itxaropenak berdintzeko joera du.

1.2. Mendekotasuna

Mendekotasunaren arretari dagokionez, IMSERSOren datuek erakusten dutenez, 2018ko abenduaren 31n, hauxe zen Mendekotasunaren Arretarako Sistemaren arreta eskatzen duen pertsonaren profila: emakumea (eskatzaile guztien % 64,1), 80 urtekoa edo gehiagokoa (eskatzaileen % 54,1). Horrez gain, zenbat eta zaharragoa izan, orduan eta pisu handiagoa dute emakumeek. Izan ere, % 73 gainditzen dute talde nagusian, laurogei urtekoen taldean.

2.GRAFIKOA: MENDEKOTASUNAREN ARRETA: EMAKUME ESKATZAILEEN EHUNEKOA, ADIN-TALDEEN ARABERA. 2018



Iturria: IMSERSO. Geuk egina.

2. HEZKUNTZA ETA JAKINTZA

Hezkuntza da pertsonen eta gizarteen aurrerapenean gehien eragiten duten faktoreetako bat; izan ere, beharrezkoa da ongizatean eta gizarte-kohesioan eta hazkunde ekonomikoan mailarik onenak lortzeko, baita zientzia, teknologia eta berrikuntza sustatzeko ere, besteak beste. Garrantzitsua izan da beti garapen ekonomikorako eta sozialerako, baina gaur egungo munduan, neurri batean zientziaren aurrerapenak eta horren aplikazioek eragindako eraldaketa sakonak bizi diren munduan, gero eta garrantzi handiagoa hartu du, baita horiek bezain azkar garatzen diren IKTek eragindako eraldaketengatik ere.

Ekonomia modernoetan, ekoizpenaren faktorerik garrantzitsuenetako bat bilakatu da jakintza. Arlo ekonomikoan eta sozialean gehien aurreratu diren gizarteak dira jakintzan oinarrituriko aurrerapena lortu dutenak, eskolaren bidez transmititzen den jakintzan nahiz ikerketaren bidez sortzen den jakintzan. Hezkuntzak, zientziak eta berrikuntza teknologikoak gero eta eragin handiagoa dute produktibitatean eta lehiakortasun ekonomikoan, baita nazioen garapen sozialaren eta kulturaren zati handi batean ere

2.1. Lanbide Heziketako eta Unibertsitate Ikasketetako matrikulazioa

EUSTATen “Eskola-jardueraren Estatistika”ren datuek agerian uzten dutenez, emakumeek parte-hartze txikiagoa duten lanbide ikasketetan gizonezkoek baino. 2017-18 ikasturtean, Gradu Ertainean ikasle guztien % 34,3 emakumeak ziren eta Goi-mailako Graduan % 35,2. Gizonak, berriz, % 65,7 eta % 64,8.

Lanbide-adarrak bereiziz ikusten denez, emakumeen matrikulazioa txikiagoa da gizonezkoena baino profil teknikoagoko adarretan. Aldiz, oso presentzia handia du irudi pertsonalean (% 90 inguru emakumezkoak dira, gradu ertainean nahiz goi-mailako graduan), Osasunean, Gizarte-kulturako Zerbitzuetan eta Komunitaterako Zerbitzuetan eta Ehungintzan, ebaketan eta larrugintzan (% 75 - % 90 bitarteko ratioak, graduaren eta familiaren arabera), Nekazaritzako elikagaien industrietan (% 63,3ko ratioa goi-mailako graduan) eta Administrazioan eta Kudeaketan (% 57,8 gradu ertainean eta % 62,4 goi-mailako graduan). Emakumeen eta gizonen arteko ratio orekatuagoekin daude adar hauetan: Kimika (% 53,5 emakumeak dira gradu ertainean eta % 51,3 goi-mailako graduan) eta Merkataritzan eta marketinean (% 50,7 gradu ertainean eta % 47,2 goi-mailako graduan).

3. GRAFIKOA. LANBIDE-ADARRETAN MATRIKULATURIKO EMAKUMEAK, GRADUAREN ARABERA. 2017-2018 IKASTURTEA (EMAKUMEEN %-A GUZTIZKOAREKIKO)



Iturria: "Eskola jardueraren estadistika"eta geuk egina

Bestalde, EUSTATen "Unibertsitate Estatistikak" erakusten duenez, emakumeak gehienak dira unibertsitateko ikasleen artean. 2016-17 ikasturtean, ikasle guztien % 53,5 emakumeak ziren. Gizonak, berriz, % 46,5, eta jokabide hori gertatzen da ikasle mailen arabera: graduetan % 53,9 emakumeak dira, masterretan % 50,9 eta doktorego ikasketetan % 51,7.

1. TAULA. UNIBERTSITATE-IKASKETETAN MATRIKULATURIKO PERTSONAK, SEXUAREN ARABERA, 2016-17 (EMAKUMEEN ETA GIZONEN %-A, IKASLE GUZTIEKIKO)

	GUZTIRA	EMAKUMEEN %-A	GIZONEN %-A
GUZTIRA	**66.286**	**53,5**	46,5
1. eta 2. zikloan matrikulatuak	3	33,3	66,7
Graduan matrikulatuak	56.177	53,9	46,1
Graduatu-ondokoan matrikulatuak	10.106	51,3	48,7
Master ofizialak	5.934	50,9	49,1
Doktoregoa	4.172	51,7	48,3
GUZTIRA, JAKINTZA EREMUAREN ARABERA			
Arteak eta Humanitateak	6.290	62,1	37,9
Zientziak	4.037	53,0	47
Osasun Zientziak	8.871	75,4	24,6
Gizarte eta Zuzenbide Zientziak	31.950	58,1	41,9
Ingeniaritza eta Arkitektura	15.138	27,4	72,6
Ez dago jasota	-	-	

Iturria: EUSTAT. Unibertsitate Estatistika

Lanbide Heziketako matrikulazioan gertatzen den bezalaxe, titulazioak sexuaren arabera hautatzean dauden aldeei eusten zaie. Hala, kopuru agregatuetan ikusten denez, emakumeek unibertsitateko adar teknikoetan duten parte-hartzea (Ingeniaritza eta Arkitektura) gizonezkoena baino txikiagoa da (% 27,4 eta % 72,6).

Emakumeen erdiak zortzi titulazio aukeratu zituen: Enpresen administrazioa eta zuzendaritza, Lehen hezkuntza, Psikologia, Zuzenbidea, Haur hezkuntza, Medikuntza, Erizaintza eta Gizarte hezkuntza.

Gizonen artean, erdia hamaika karreratan banatu zen, horietako lau ingeniaritzetan, hain zuzen ere Enpresen administrazioan eta zuzendaritzan, Ingeniaritza mekanikoan, Lehen hezkuntzan, Zuzenbidean eta Teknologia industrialeko ingeniaritzan, Ingeniaritza elektroniko industrialean eta automatikoan, Ingeniaritza informatikoan, Jarduera fisikoaren eta kirolaren zientzietan, Psikologian, Negozioen kudeaketan eta Medikuntzan.

2.2. Eskola behar baino lehenago lagatzea.

Eskola-uzte goiztiarrari dagokionez[1], Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren arabera, EAEk, 2017an % 7ko ratioa izanik, askoaz gainditu du Europako % 10eko helburua, eta nabarmentzekoa da euskal emakumeek gizonen aldean duten posizio hobea. Izan ere, emakumeen eskola-uzte goiztiarreko tasa gizonezkoena baino 3 puntu handiagoa da (% 5,5 eta % 8,5).

4. GRAFIKOA. HEZKUNTZAKO ETA PRESTAKUNTZAKO ESKOLA-UZTE GOIZTIARRA, 2017, SEXUAREN ARABERA (GUZTIZKOAREKIKO %-A, EUROPAKO HELBURUA <%10).



Iturria: Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa eta geuk egina

[1] *Gehienez bigarren hezkuntzako lehen etapa edo aurreko hezkuntza-mailak dituzten (INSN 0, 1 eta 2) eta ezelako hezkuntzarik edo prestakuntzarik jarraitzen ez duten 18-24 urte bitarteko pertsonen ehunekoa da.*

2.3. Ikaskuntza iraunkorrean parte hartzea

Europako Kontseiluak 2009ko maiatzeko bilkuran ondorioztatu zuenez, Europako herrialdeek ikaskuntza bizitza osoan sustatu beharko lukete, helduek beren trebakuntza, prestakuntza eta eguneratzea hobetzeko prozesuetan duten parte-hartzea handituz, ikaskuntza iraunkorraren ikuspegitik, hezkuntzako sistema formaletan nahiz bestelako jarduera ez-formalen bidez.

5.GRAFIKOA. HEZKUNTZA IRAUNKORREAN PARTE HARTZEN DUTEN GIZONAK ETA EMAKUMEAK, 2017, SEXUAREN ARABERA (GUZTIZKOAREKIKO %-A, EUROPAKO HELBURUA: % 15).



Iturria: Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa eta geuk egina

Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren arabera, 25-65 urteko emakumeek parte-hartze handiagoa dute ikaskuntza iraunkorreko jardueretan gizonek baino (% 14,7 vs % 11,6, 2017an), eta Europako helburutik 3 hamarrenera dago (% 15).

Eta gizonek eta emakumeek landunen enplegurako trebakuntzako jardueretan duten parte-hartzeari dagokionez, FUNDAEren datuen arabera (Enplegurako Trebakuntzarako Estatuko Fundazioa) Euskadin 2017. urtean, trebaturiko 134.962 langile gehienak gizonezkoak ziren, % 57,9, eta alde nabarmena dago sexu baten eta bestearen arteko estaldura-tasen artean: % 35,6 gizonentzat eta % 30,6 emakumeentzat.

2.4. I+G jardueretan ari diren emakumeak

EUSTATen "I+G jarduerei buruzko estatistika"ren arabera, 2017an, I+G jardueretan lanean ari ziren langileen % 35,8 (lanaldi osokoko lanpostuak) baino ez ziren emakumeak.

2. TAULA. I+G JARDUERETAKO ENPLEGUA (AOB), SEXUAREN ETA BURUTZAPEN-SEKTOREAREN ARABERA

	GUZTIRA		EMAKUMEAK (% horizontalak)		GIZONAK (% horizontalak)	
	2016	2017	2016	2017	2016	2017
Guztira	**17.898,0**	**18.577,3**	**35,6**	**35,8**	64,4	64,2
Enpresak eta IAgEP	12.637,3	13.154,3	29,1	29,4	70,9	70,6
Administrazio publikoa	1.255,7	1.283,1	55,0	54,6	45	45,4
Goi irakaskuntza	4.005,0	4.139,9	50,1	50,4	49,9	49,6

Iturria: EUSTAT, I+G jarduerei buruzko estatistika

Burutzapen-sektoreen arabera bereiziz ikusten denez, emakumeen ratioa gizonezkoena baino handiagoa da Administrazioan (% 54,6 eta % 45,4) eta Goi-mailako irakaskuntzan gutxi gorabehera nahikoa orekatua bada ere (% 50,4 emakumeak dira eta % 49,6 gizonak), IAgEP Enpresen sektorean askoz txikiagoa da emakumeen presentzia I+G jardueretan gizonena baino (% 29,4 eta % 70,6).

3. ERRENTA, SOLDATAK ETA GIZARTE BABESA

3.1. Errenta pertsonala

EUSTATen "Errenta Pertsonalaren eta Familiakoaren Estatistikak" Euskadiko biztanleen batez besteko errenta pertsonalari buruz eskaintzen duen azterketaren arabera, banaketa desberdina dago gizonen eta emakumeen artean, zeren eta gizonek, 2016an, eskuraturiko errenta pertsonala (zergak baino lehen) emakumeena baino 10.000 € handiagoa izan baitzen (25.696 € eta 15.578 €).

3. TAULA. EAE-KO B.B. ERRENTA PERTSONALA, ERRENTA MOTAREN ETA SEXUAREN ARABERA (€).2016

	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK	% GIZONAK/EMAK.
Errenta, guztira	**20.443**	**25.696**	**15.578**	**65,0**
Laneko errenta	12.182	15.394	9.207	67,2
Kapital higigarrien errenta	1.236	1.508	985	53,1
Kapital higiezinen errenta	425	388	459	-15,5
Jardueren errenta	963	1.356	598	126,8
Transferentziak	5.637	7.051	4.328	62,9
Errenta eskuragarria (zerga ondoren)	17.149	21.288	13.315	59,9

Iturria: EUSTAT. Errenta Pertsonalaren eta Familiakoaren Estatistika

Horrez gain, adin-taldeen arabera, alderik handiena 65-69 urtekoen taldean ageri da: gizonen batez besteko errenta emakumeena baino ia 17.000 € gehiagokoa baita.

3.2. Soldatak

Sexuen arabera soldatetan dauden aldeei dagokienez, EINen "*Soldaten egiturari buruzko inkesta*"ko datuek erakusten dutenez, EAEko emakumeek, oro har, urteko 24.166 euroko irabazia izan zuten urte horretan (datu gordinak, PFEZko konturako atxikipenak baino lehen eta Gizarte Segurantzako kotizazioak baino lehen), hots, gizonek irabazitakoa baino % 23,6 gutxiago. Horrez gain, ratio horrek nahikoa egonkor eutsi izan dio azken urteetan, estatuko datuetatik oso gertu, baina azken urtean estatuan beheranzko joera izan zen. Euskadin, aldiz, gora egin zuen pixka bat.

4. TAULA. BATEZ BESTEKO IRABAIA, SEXUAREN ARABERA, EAE-N (€). 2016-2017

	URTEKO IRABAZIA		ORDUKO IRABAZIA	
	2016	2017	2016	2017
GIZONAK	31.003	31.619	19,37	19,55
EMAKUMEAK	**23.428**	**24.166**	**16,60**	**17,04**
GUZTIRA	27.481	28.204	18,17	18,48
% GIZONAK/EMAK.	24,4	23,6	14,3	12,8

Iturria: EIN. Soldaten egiturari buruzko inkesta. Geuk egina.

Orduko irabaziak erkatzen badira, aldea nabarmen txikiagoa da. 2017an, gizonek 19,55 euro irabazi zituzten orduko, batez beste. Emakumeek, berriz, 17,04 euro, eta aldea % 12,8koa da, hain zuzen puntu eta erdi gutxiago aurreko urtearen aldean.

3.3. Gizarte babesa

Alde hori, lehenik eta behin, emakumeek eta gizonek gure Erkidegoan erretiroaren zioz jasotzen dituzten pentsioen batez besteko kopuruetan gertatzen da. 2018an, GSINen datuak baliatuz, emakumeen batez besteko pentsioa 934,43 € zen hilean EAEn. Gizonentzat, berriz, 1.592,25 € zen. Hortaz, % 70,4ko aldea da bi sexuen artean.

5. TAULA. ERRETIRO PENTSIOAREN HILEKO ZENBATEKOA, SEXUAREN ARABERA, EAE-N (€).URTEKO B.B. 2018.

	PENTSIOAK GUZTIRA	ALTA BERRIAK
GIZONAK	1.592,25	1.795,91
EMAKUMEAK	**934,43**	**1.389,02**
GUZTIRA	1.347,32	1.625,28
% GIZONAK/EMAK.	70,4	29,3

Iturria: GSIN. Datu-basea.

Alabaina, soilik erretiroa hartu berri duten pertsonen pentsioen zenbatekoak hartzen baditugu kontuan (urteko alta berriak), bi sexuen arteko aldea % 29,3 txikiagoa da. Ratio hori, jakina, askoz hurbilago dago soldatetan ikusi dugunetik, zeren eta lan-merkatua utzi berri duten pertsonen pentsioak izango bailirateke.

Ikusitako sarreren iturri desberdinetan sexuaren arabera gertatzen diren aldeen ondorioz, nagusiki emakumeak dira gure gizarte sistema osatzen duten bestelako prestazioen titularrak. Prestazio horietako garrantzitsuena da horren erakusgarria, hots, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta. 2018ko abenduan, honako hau zen DSBEren titularraren profila: emakumea (espediente aktiboen % 57,8), 40-59 urtekoak (% 47) eta oinarrizko ikasketak dituztenak (guztizkoaren % 68,4).

Horrez gain, DSBEren hartzaileen kopuruak azken urtean behera egin bazuen ere, sexuaren aldetik, murrizketa hori ez da homogeneoagoa izan, zeren eta 2018ko abenduan gizon titularren kopurua % 9,8 murritzagoa baitzen (2.546). Emakumeei dagokienez, berriz, % 7,1ekoa izan da beherakada (2.479 gutxiago). Gizonengan izandako murrizketa handiago horrek areagotu egin du betidanik emakumeen alde izandako diferentzia. Izan ere, 2017ko abenduen titular hartzaile guztien % 57 baziren ere, urtebete geroago % 57,8 ziren.

4. LAN-MERKATUA

4.1. Jarduera

Emakumeek lan-merkatuan duten parte-hartzea oraindik txikia da gizonezkoen aldean. Halaxe egiaztatzen da jarduera-tasa ikusita. EUSTATen BJAren arabera, 2018. urteko laugarren hiruhilekoan % 52koa zen emakumeen jarduera-tasa EAEn. Gizonezkoena, berriz, % 61,1ekoa (% 56,6 batez beste). Alde hori nabarmen murriztu da azken urteetan, eta agerian uzten du gero eta emakume gehiago sartzen direla lan-merkatuan, hots, 2000an 25,6 puntu izatetik 2018an 9,6 puntura igaro da eta, gainera, pertsona aktiboak zenbat eta gazteagoak izan, orduan eta txikiagoa da diferentzia.

6. TAULA. LAN-MERKATUA EAE-N: ADIERAZLE GARRANTZITSUAK SEXUAREN ARABERA. 2018.

	GUZTIRA	GIZONAK	EMAK.
JARDUERA-TASA	56,6	61,6	52,0
OKUPAZIO-TASA	68,0	71,4	64,6
ENPLEG. HAZK. %-A 17/18	2,1	1,8	2,3
LANALDI PART. ENPLEG. %-A	16,4	7,1	26,5
ALDI BATERAKO ENPL.%-A	26,5	24,0	29,1
KONTRAT. HAZKUNDEA 17/18	4,5	4,4	4,6
KONTRATUEN TXANDAK. %-A*	3,19	3,01	3,39
LANGABEZIA-TASA	10,3	10,1	10,5
LANGABE ESKATZAILEEN %-A	100,0	44,3	55,7
IRAUPEN LUZEKO LANG. %-A**	50,2	44,0	55,2

Iturria: Geuk egina EUSTATen, EINen eta Gizarte Segurantzaren datuak erabiliz.
**Pertsona bakoitzak urtean sinaturiko b.b. kontratu kopurua.*
*** Langabezian urtebetetik gora daramaten pertsonen ehunekoa.*

4.2. Okupazioa

Emakumeen eta gizonen arteko parte-hartze desberdinak, bigarrenik, okupazio-adierazleetan du isla. 2018ko amaieran, emakumezkoen okupazio-tasa % 64,4 zen, hots, gizonezkoena baino 6,8 puntu txikiagoa. Horrez gain, baldintza okerragoetan sartzen dira lan-merkatuan emakumeak, zeren eta aldi baterako lanpostuetan hasten baitira neurri handiagoan (% 29,1 eta % 24) eta, batez ere, lanaldi partzialean (% 26,5 eta % 7,1 gizonetan).

Hala ere, enpleguaren bilakaera azken urtean positiboagoa izan zen emakumezkoentzat, okupazioaren aldetik (igoera % 2,3 izan da emakumezkoentzat eta % 1,8 gizonentzat), nahiz kontratuen aldetik. Izan ere, azken urtean izandako bilakaera pixka bat hobea izan zen emakumeetan (+% 4,6) gizonetan baino (+% 4,4). Kontratazioaren arloan, ordea, gogorarazi beharra dago sexu bien arteko txandaketa-tasen arteko aldeari ia egonkor eutsi izan zaiola, eta ia 4 hamarrenekoa izan zen 2018an gizonen alde.

4.3. Langabezia

Aldagai horien eta beste batzuen ondorioz, langabezia-tasak urtearen amaieran antzekoak dira bi sexuen artean: % 10,5 emakumeentzat eta % 10,1 gizonentzat (% 10,3 batez beste), baina esan behar dugu iraupen luzeko langabezia, hots, urtebetetik gorakoa, desberdina dela sexuen arabera: Emakumeen % 55i eragiten dio eta gizonezkoen % 44ri. Horrez gain, nahiz eta 2015etik eta gaur egunera arte iraupen luzeko langabeziaren joera argi eta garbi beheranzkoa izan sexu bietan, eutsi egiten zaio bien arteko diferentziari.

Bestalde, erregistraturiko langabetu guztietatik % 55,7 emakumeak ziren 2018ko abenduan, hots, 2017ko abenduan baino 2 hamarren gehiago.

5. KONTZILIZAZIOA ETA BATERAKO ERANTZUKIZUNA

Gaur egun, emakumeak lan-merkatuan sartzearen eta familietan zaintza-lanak eta etxeko lanak banatzearen inguruan kulturaren aldetik dauden desberdintasun ereduei eustearen ondorioz, emakumeek bereziki arazo larriak dituzte lana eta bizitza pertsonala bateratzeko eta beren lanbide-karrerak garatzeko.

2016ko "*Eusko Soziometroa*"ren arabera, pertsonen % 44k uste du seme-alabak izatea nahikoa eragozpena dela emakumearen lanbide ibilbidean, eta % 26k uste du "asko" eragozten duela. Gizonezkoen ustez, aldiz, galdeturikoen %13k baino ez du uste emakumeek eragozpen asko edo nahikoak dituztela lanbide karreran seme-alabak izateagatik.

6.GRAFIKOA: AMATASUNA/AITATASUNA, LANBIDE-KARRERARAKO OZTOPO. EAE. 2016



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. 62 Eusko Soziometroa (Familia)

Lanaren eta familiako bizitzaren arteko gatazka bi unetan areagotzen da: haurrak txikiak direnean, baina geroz eta sarriago mendeko adineko pertsonei arreta eman behar zaienean ere. Hori dela-eta, herritarrek euren familia bizitza eta norberaren konpromisoak eta lana bateratu ahal izatea gizarte politikari buruzko eztabaidaren ardatzetako bat bihurtu da.

"*Lana, bizitza pertsonala eta familia bateratzeari buruzko inkestak*" (LBBI) erakusten duenez, EAEko landunen % 35,5ek zailtasunak ditu lana eta mendekotasuna uztartzeko, eta ehuneko txikiago bateak (% 28k) seme-alaba adingabeak zaintzeko (2017ko datuak). Datu horietan ez da ikusten diferentziarik sexuaren aldetik.

Alabaina, etxetik kanpora lan egiten duten emakumeek gizonezkoek baino % 55 ordu gehiago erabiltzen dituzten seme-alaba adingabeak eta mendekotasuna duten pertsonak zaintzen, eta % 43 denbora gehiago etxeko lanetan. Gizonezkoek, ordea, 3,3 ordu erabiltzen dituzte egunean-egunean adin txikikoak zaintzeko; emakumezkoek, ordea, 5,1 ordu. Alde hori pixka bat txikiagoa da menpeko pertsonen zaintza kontsideratzen badugu; izan ere, gizonek egunean 1,4 ordu ematen dute jarduera horretan eta

7.GRAFIKOA. LANDUNEK EGUNEAN ETXEKO LANETAN EMANDAKO ORDUAK, EZAUGARRIEN ARABERA. EAE. 2017



Iturria: EUSTAT. LBBI, 2017

emakumeek, berriz, 2 ordu. Horrez gain, etxeko lanetan, emakumeek 2,2 ordu ematen dituzte batez beste egunean, eta gizonek, berriz, 1,5 ordu.

Azkenik, Laneko Harremanen Kontseiluaren (LHK) txosten batek agerian utzi duenez, 2018ko abenduko 31n EAEn indarrean zeuden 717 hitzarmen kolektiboetatik % 45,2tan lana eta familia bateratzeko neurriak zituzten ezarriak (% 45,7an 2017an). Enpresa hitzarmenetatik % 46,4k bateratzeko neurriak abiarazi ditu, baina sektoreko hitzarmenetan kopuru txikiagoa da, % 39 hain zuzen ere.

Hitzarmen horietako gehienetan bildutako neurriek edoskitzarorako eskubidea lanaldi osoetan metatzeko aukerarekin dute zerikusia, baita indarreko legerian ezarrita dauden eta familiaren edo norberaren inguruabarren zioz ordaindutako zenbait baimenekin ere.

I. KAPITULUA

EAEko demografia

Kapitulu honek, lehenik eta behin, biztanleriaren berezko mugimenduari (jaiotzak eta heriotzak), migrazio-mugimenduei eta ezkontzei (ezkontzak eta desegiteak) buruzko oinarrizko adierazle demografikoen datu nagusiak ematen ditu, betiere Estatuan eta Europar Batasunean izandakoarekin erkatuta. Ondoren, Euskadiko migratzaileen azken zifrak emango dira (demografikoak, bizikidetza eta ongizatekoak eta inpaktu ekonomikokoak).

Nazio Batuen Arabera, munduan 7.600 milioi biztanle zeuden 2017an (2016an baino +% 2,2 gehiago). Bestalde, EUROSTATek, 2009ko urtarrila erreferentzia gisa hartuta, Europar Batasunean 512,6 milioi biztanle kalkulatu zituen, 2017ko urtarrilean baino 1,1 milioi gehiago.

Milako 2,1eko hazkunde honi esker (aurreko urtean milako 3koa izan zen), 1960az geroztik dagoen goranzko joera etengabea beste urte batez mantendu da. 1960an gaurko Europar Batasuneko biztanle kopurua 400 milioi zen. Bilakaera positibo hori berriro ere immigrazioaren portaeraren ondorioa izan da; izan ere, berezko hazkundea (jaiotza eta heriotzen arteko alde positiboa) zerokoa izan da, Europar Batasunean lehen aldiz 2015ean gertatu zena.

I.0.1. TAULA. EAE-KO BIZTANLERIAREN BILAKAERA BERRIA. 2012-2018

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018*	17-18ko ald.*
ARABA	322.557	321.417	321.932	323.648	324.126	326.574	328.741	+2.167
BIZKAIA	1.158.439	1.156.447	1.151.905	1.148.775	1.147.576	1.148.302	1.149.569	+1.267
GIPUZKOA	712.097	713.818	715.148	716.834	717.832	719.282	720.347	+1.065
EAE	**2.193.093**	**2.191.682**	**2.188.985**	**2.189.257**	**2.189.534**	**2.194.158**	**2.198.657**	**+4.499**

Iturria: EIN. Biztanleen Udal Errolda.
**** Behin-behineko datuak.***

EAEn, Biztanleen Udal Erroldak[1] emandako 2018ko urtarrileko azken datuen arabera, EAEko biztanleriak pixka bat gora egin zuen azken urtean, 4.499 biztanle gehiago, eta 2.198,657 biztanle zituen. Lurralde historikoei dagozkien datuek erakusten dutenez, biztanleria bereziki Araban handitu da (+% 0,7), 2.167 biztanle), eta neurri txikiagoan Bizkaian (+%0,1, 1.267 biztanle gehiago) eta Gipuzkoan, (+0,1, 1.065 biztanle).

2018ko biztanleriaren kopuruarekin batera, geroago ikusiko denez, EAEn bizi diren atzerritar jatorriko biztanleen % 9,4 dugu. 2017ko urtarrilaren 1ean, berriz, % 9 zen. Era berean, atzerritarren pisuak berriz ere egin du gora Estatu osoan, % 13,6raino, lau urtez ez aurrera ez atzera egon ondoren, edo atzerakada txikian izanda. Hala ere, EAEko datua orain ere oso urruti dago Espainiako batez bestekotik –erroldaren azken eguneratzearen arabera, atzerritarrak 6,4 milioi inguru dira-.

[1] *Udal errolda administrazio-erregistro bat da eta horren eraketa, mantentzea eta kudeaketa Espainian dauden 8.000 udal baino gehiagori dagokio. paña. Datuen bidez frogatzen da herritarra benetan udalerrian bizi dela eta aipatu erroldako egiaztapenek izaera publikoa eta fede-emailea dute administrazioaren ondorio guztietarako.*

1. OINARRIZKO ADIERAZLE DEMOGRAFIKOEN BILAKAERA

1.1. BIZTANLERIAREN BEREZKO MUGIMENDUA

Euskal Autonomia Erkidegoan 2017ko behin-behineko datuek hazkunde begetatibo negatiboa erakusten dute bosgarren urtez jarraian (jaiotza eta heriotzen arteko aldea), saldo positiboak izandako 9 urteren ondoren: urte horretan 17.076 jaiotza gertatu dira, aurreko urtean baino %6,5 gutxiago, eta 21.632 heriotza, 2009an baino %1,9 gehiago. Horren ondorioz, hazkunde begetatiboa -4.556koa izan da, hots, milako -2,1ekoa. 2017ko saldo negatiboa, beraz, 2016koa baino txikiagoa da, bai jaiotzen jaitsieragatik, bai heriotzen kopurua pixka bat handitu izanagatik.

I.1.1. EAE-KO BIZTANLERIAREN BEREZKO MUGIMENDUA

	BIZIRIK JAIOAK	TASA	HERIOTZAK	TASA	BEREZKO HAZKUNDEA	TASA
2010	21.159	9,7	19.357	8,9	1.802	0,8
2011	21.180	9,7	19.832	9,1	1.348	0,6
2012	20.533	9,4	20.281	9,3	252	0,1
2013	19.118	8,8	19.692	9,0	-574	-0,2
2014	19.378	8,9	20.157	9,3	-779	-0,4
2015	18.851	8,7	21.509	9,9	-2.658	-1,2
2016	18.240	8,4	21.223	9,8	-2.983	-1,4
2017*	**17.076**	**7,8**	**21.632**	**9,9**	**-4.556**	**-2,1**

(*) Behin-behineko datuak. Mila biztanleko tasak.
Iturria: EUSTAT. "Jaiotzen eta Heriotzen Estatistika" eta testuaren egileak egindakoa.

Ohikoa denez, joera desberdina da lurraldeak aintzakotzat hartuz gero: Bizkaiak, 2016. urtean 2.608 biztanle galdu zituenak, 2017an berriro ere galdu ditu 3.291 biztanle, behin-behineko datuen arabera. Bestalde, Arabak urte horretan joera positiboari eutsi dio, eta biztanleria 148 pertsonan hazi da (+386 2016an); aitzitik, Gipuzkoak 1.463 biztanleko saldo negatiboa dauka (-761 2016an).

I.1.2. TAULA. JAIOTZAK ETA HERIOTZAK EBn MILA BIZTANLEKO. 1975 ETA 2017 URTEEN ARTEKO ALDERAKETA

	JAIOTZAK		HERIOTZAK	
	1975	2017	1975	2017
28KO EB	14,7	9,9	10,7	10,3
ALEMANIA	9,9	9,5	12,6	11,3
AUSTRIA	12,4	10,0	12,7	9,5
BELGIKA	12,2	10,5	12,2	9,6
BULGARIA	16,6	9,0	10,3	15,5
ZIPRE	16,3	10,7	9,8	7,0
DANIMARKA	14,2	10,6	10,1	9,2
ESLOVAKIA	20,6	10,7	9,5	9,9
ESLOVENIA	16,6	9,8	10,1	9,9
ESPAINIA	18,8	8,4	8,4	9,0
ESTONIA	14,9	10,5	11,6	11,8
FINLANDIA	13,9	9,1	9,3	9,8
FRANTIA	14,1	11,4	10,6	9,0
KROAZIA	:	8,9	:	12,9
GREZIA	15,7	8,2	8,9	11,6
HERBEHEREAK	13,0	9,9	8,3	8,8
HUNGARIA	18,4	9,7	12,4	13,5
IRLANDA	21,1	12,9	10,4	6,3
ITALIA	14,9	7,6	10,0	10,7
LETONIA	14,2	10,7	12,2	14,8
LITUANIA	15,7	10,1	9,5	14,2
LUXENBURGO	11,1	10,4	12,2	7,1
MALTA	18,8	9,2	9,5	7,6
POLONIA	19,0	10,6	8,7	10,6
PORTUGAL	19,8	8,4	10,8	10,6
ERRESUMA BATUA	12,4	11,4	11,8	9,2
TXEKIAR ERREPUBLIKA	19,1	10,8	12,4	10,5
ERRUMANIA	19,6	9,7	9,3	13,3
SUEDIA	12,6	11,5	10,8	9,1
EAE	**19,1**	**7,8**	**7,1**	**9,9**

Iturriak: EUROSTAT eta EUSTAT.

1.1.1. Jaiotzak

Jaiotzetan jaitsierak ageri dira hiru lurraldeetan: 2017an, EAEko jaiotzen batez besteko jaitsiera %6,4 izan zen. Araban 2.961 haur jaio ziren (-%3,7 2016koaren aldean). Bizkaian, berriz, 8.522 jaiotza izan ziren, aurreko urtean baino %-6,9 gutxiago, eta Gipuzkoan, azkenik, 5.593 jaiotza (%-7).

Datu horiek erakusten dutenez, jaiotza-tasa EAEn, milako 7,8 da (8,4 2016an). 1975eko ratio hori milako 19,1 zen, Estatuko batez bestekoaren gainetik hain zuzen. Gaur egun, EAEk estatuko eta EBko batez bestekoak (milako 8,4 eta 9,9 EBn) baino tasa baxuagoei eusten die. Lurraldez lurralde, Arabak milako 9,1eko jaiotza-tasa du –hiru lurraldeetatik handiena-, Bizkaiak 7,5ekoa –txikiena- eta Gipuzkoak milako 7,8koa.

Horrez gain, jaiotza-tasak oso desberdinak dira amaren herritartasuna kontuan hartzen bada. Espainiako nazionalitatea duten amen artean, jaiotza kopurua %7,5 jaitsi zen. Atzerritarren artean, berriz, %2,4ko jaitsiera gertatu zen. 2017. urtean bizirik jaio ziren 17.076 haurretatik 3.820ek ama atzerritarra dute, alegia, jaiotakoen % 22,3k (%21,4 2016an), herritartasun atzerritarra duten biztanleen proportzioa nahikoa txikiagoa denean, dagoeneko ikusi den moduan. Jatorriko herrialderik ohikoenak Maroko (735 ama), Errumania (347) eta Kolonbia (247) dira.

I.1.1. GRAFIKOA. JAIOTZE-TASEN BILAKAERA LURRALDEEN ARABERA ETA AMA EZKONGABEARENGANDIK JAIOTAKOEN EHUNEKOAREN BILAKAERA, EAE.



Iturria: EUSTATen datuekin eginikoa. Jaiotzen Estatistika.

Beste urte batez, azpimarratu behar da ama ezkongabeengandik jaiotakoen portzentajea gero eta handiagoa dela[2]. 2017. urtean ezkontzatik kanpo jaiotakoak 7.492 izan ziren, guztien % 43,9 (% 43,1 aurreko urtean) eta %4,7ko jaitsiera 2016ko datuen aldean. Bizkaiak eta Arabak EAEko batez bestekoa baino ehuneko handiagoak dituzte, % 45,4 eta % 44,1 hurrenez hurren. Gipuzkoak, berriz, balio erlatibo txikiagoa du (% 41,4). Egungo ehunekoa aurreko hamarkadakoarekin (%27 2007an) alderatuz gero, ikusten da ama ezkongabeengandik jaiotako haurren ratioa ia bikoiztu egin dela.

I.1.2. JAIOTZEN BILAKAERA AMAREN ADINAREN ARABERA. EAE.



Iturria: EUSTAT. Jaiotzen Estatistika.

[2] *Ama ezkongabeengandik / ezkontzatik kanpoko amengandik izandako jaiotzek ez dakarte, ezinbestean, bikoterik eza, zeren eta ezkontzarik izan gabe eta ezkontzatik kanpora izan baitaiteke bikotea.*

Herrialdeen arabera, honako hauen arteko ehunekoak ageri dira ama ezkongabeengandik jaiotakoen artean EBn (2015eko datua): % 58aren inguruan dabiltza Bulgaria, Estonia eta Eslovenia, eta baxuenak, berriz, Zipren (% 16,6) edo Grezian (%8,8). EBko batez bestekoa 2014an (azken datu eskuragarria) % 42 zen, eta handik kanpora, Islandiako proportzio handia nabarmentzen da, non ama ezkongabeengandik jaio zirenak % 66,9 izan baitziren 2012an.

Bestalde, EUROSTATen datuek erakusten dutenez, guztira 5,1 milioi jaiotza izan ziren 2017an EBn (mila biztanleko 9,9), aurreko hiru urteen antzera. Jaiotza-tasarik handiena Irlandan (milako 12,9), Suedian eta Frantzian (bietan milako 11,5) eta Erresuma Batuan (milako 11,4) daude. Txikienak, berriz, Italian (milako 7,6l) eta Portugalen eta Espainian (bietan milako 8,4).

Azken urteetan jaiotza-tasa jaisteari mesede egin dion faktoreetako bat, jakina den bezala, amatasuna pixkanaka atzeratu izana da. 2011n joera bera egon da, eta haurrak izan zituzten emakumeen %80,8k 30 urte edo gehiago zituzten. Talderik jendetsuena 30 eta 34 urte bitarteko emakumeena da, jaiotza guztien %36 hartzen baitu.

Ondoren, 35-39 urteko amek izandako haurren jaiotza kopurua dator (%34,7), eta 25 eta 29 urte arteko taldea (% 13,5) nabarmen gainditzen du. Ama nerabeak guztizkoaren %1,2 dira. Espainiar nazionalitateko amen batez besteko adina 34,3 urtekoa izan zen. Ama atzerritarrena, berriz, 30,8 urtekoa (33,5 emakume guztiak hartuta). Halaber, lehen haurra izan duten amen batez besteko adina, 2017an, 32,6 urtekoa da.

Jaiotzetatik 2.195 (% 51,9) lehen seme-alabak izan ziren, 1.584 (% 37,4) aurretik beste seme-alaba zegoeneko familietara iritsi ziren eta hirugarren seme-alabak eta ondorengoak 452 izan ziren (% 10,7).

1.1.2. Heriotzak

Heriotzei dagokienez, 2017an 21.632 lagun zendu ziren EAEn, aurreko urtean baino % 1,9 gehiago; haietatik, % 50 gizonak eta % 50 emakumeak. (10.825 gizon eta 10.807 emakume). 2017an zendutakoen %26,6 tumoreengatik hil ziren. Haien atzean, zirkulazio sistemaren gaitzak datoz, % 26,6, eta hirugarren tokian, urrunago, arnas eritasunak, % 10,8[3]. Lurraldeen arabera, Araban 2.813 pertsona hil ziren (+%4,7 2016aren aldean), 11.813 Bizkaian (+0,5) eta 7.006 Gipuzkoan (+% 3,4) aurreko urtearen aldean).

I.1.3. GRAFIKOA. EAE-KO JAIOTZEN ETA HERIOTZEN BILAKAERA.



*Iturria: EUSTATEN datuak erabiliz eginikoa. * Behin-behienko datuak*

Europar Batasuneko kopuruak direla eta, 2017an 5,26 milioi heriotza izan ziren, hots, aurreko urtean baino 130.000 lagun gutxiago (milako 10,3ko tasa gordinaren ondorioz). Horrenbestez, berezko hazkundea (jaiotzak ken heriotzak) nulua izan zen Europar Batasunean (-204.000 lagun inguru, milako -0,4).

[3] *Memoria honetako "Osasuna eta osasun sistema" deritzon V.3. kapituluan zehatz aztertzen dira euskal biztanleriaren heriotzaren kausak.*

Bestalde, EUSTATen Heriotzen Estatistikan ageri denez, EAEko heriotza-tasa, 2017an, milako 9,9 zen (milako 9,8 2016an). 2017an hildako pertsonen batez besteko adina, 2017an, 80,4 urtekoa zen gure Erkidegoan, 77,2 gizonentzat eta 83,6 emakumeentzat. Hala, azken hamarkadan gure autonomiako bizi-esperantza gizonentzat 4,1 urte handitu da eta emakumeentzat, berriz, 2,7. Gainera, 2017an EAEn hildako pertsonen 345ek 100 urte edo gehiago zituzten, eta horietatik %87,2 emakumezkoak ziren. 100 urte beteta hiltzen diren pertsonen ehunekoa, %1,6, bikoiztu egin da azken hamarkadan.

1.2. MIGRAZIO-MUGIMENDUAK

1.2.1. Migrazio-mugimenduen estatistika

EUSTATen "*Migrazio-mugimenduen Estatistikak*" zenbatu duenez, 10.725 pertsona zeuden gure Erkidegoan urte horretan (2016an baino gehiago, urte horretan 8.871 pertsona gehiago izan baitziren). Lurraldeen arabera, Bizkaiak 5.461 lagun gehiago ditu, Arabak 2.349 eta Gipuzkoak 2.915.

I.1.3. TAULA. MIGRAZIO-SALDOEN BILAKAERA EAE-N

	ATZERRA REKIKO	ESTATUKO GAIN. LURRALD.	MIGRAZIO-SALDOA*			
			EAE	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
2011	1.554	6.638	8.192	2.386	3.490	2.316
2012	-5.468	5.241	-227	-1.714	-935	2.422
2013	-5.176	3.220	-1.956	82	-3.426	1.388
2014	-2.207	5.809	3.602	1.326	81	2.195
2015	2.415	947	3.362	555	970	1.837
2016	6.897	1.974	8.871	1.474	4.320	3.077
2017	**10.005**	**720**	**10.725**	**2.349**	**5.461**	**2.915**

(*) Estatuarekiko eta atzerriko herrialdeekiko migrazio-saldoarekin batuketa.
Iturria: EUSTAT. "Migrazio-mugimenduen Estatistika".

EAEren eta gainerako autonomia-erkidegoen artean izandako mugimenduei dagokienez, 2017. urtean 720 pertsonako saldo positiboa izan zen, hau da, immigrazioak gehiago izan ziren emigrazioak baino. Saldo hori, ordea, aurreko urtekoa baino heren bat handiagoa da. Bestalde, atzerriko herrialdeekiko saldoa positiboa (10.005) da, atzerrira pertsona gehiago doazelako beste herrialde batzuetatik datozenak baino (2016an 6.897 izan ziren).

EAEren eta gainerako autonomia-erkidegoen artean izandako mugimenduei dagokienez, EUSTATen datuek erakusten dute, 90eko hamarkadan jaitsiera handia izan ondoren, nazioarteko migrazio-fluxuen saldo positiboa EBn datu positiboan egonkortu zela 2003tik hona, finkaturiko datuen arabera.

I.1.4. GRAFIKOA. EAE-KO MIGRAZIO-SALDOEN BILAKAERA



Iturria: EUSTAT. Migrazio-mugimenduen Estatistika.

Bestalde, 2017an migrazio saldoa 1,22 milioi lagunekoa (+1,33 milioi aurreko urtean) izan da; migrazio-tasa gordina milako 2,6koa izan da 28-EBrako eta milako 2,8koa eurogunerako. Saldo positiboaren %35,8 Alemaniari dagokio, eta %21,2 Erresuma Batuari eta %12,3 Espainiari. Bestalde, Batasuneko bost herrik (Bulgaria, Kroazia, Lituania, Letonia eta Errumania) migrazio-saldo negatiboak dauzkate.

Bestalde, 2017. urtean, 221.506 lagunek -aurreko urteko datu bertsua- bizileku aldaketaren bat egin zuten EAEn (EAEko biztanleen %10,2k); aipaturiko mugikortasun horren %44,3 udal beraren barruan izan zen (98.140 joan-etorri guztira). Erkidego barneko mugikortasunak (jatorria eta helmuga EAEko udalerrien artean) 50.369 mugimendu gehiago dakartza. Gainontzekoetan, 41.861 mugimendu kanpoko immigrazioari dagozkio (jatorria erkidegotik kanpo eta helmuga EAEn, horietatik 21.873 atzerrikoak dira) eta 31.136 kanpoko emigrazioari (jatorria EAEn eta helmuga hortik kanpora), eta haietatik 11.868 helmuga atzerrian dute (-%2,6 2016aren aldean).

2017an EAEko mila biztanletik 34ri eragin zien kanpoko edo erkidegoaz kanpoko mugikortasun geografikoak (Araban milako 38,8ri, Bizkaian milako 32,1i eta Gipuzkoan milako 33,5i). Tasa horiek baxu samarrak dira gainerako autonomia erkidegoekin alderatuz gero, batez beste mila biztanleko 40 ingurukoak baitira. Estatu Autonomia Erkidego guztiek, Kataluniak, Madrilek, Nafarroak eta U. Balearrek izan ezik, biztanle gehiago ematen diote EAEri handik jasotzen dutena baino; EAEko migratzaileentzat erakarpen-gune diren erkidegoak, berriz, hauexek dira ordena honen arabera. Sei erkidego horien artean, EAE uzten duten pertsonen %65 jasotzen dute.

Bestalde, atzerriko nazionalitateko pertsonen immigrazioak, 2017an, 24.297 pertsona bildu zituen, 2016an baino 1.946 gehiago. Horietatik 5.620 beste erkidego batzuetakoak dira, eta 18.677 atzerritik datoz zuzenean. Atzerritarren emigrazioak, berriz, 2017an 13.665 lagunenak izan ziren, 2016an baino 16 gutxiago.

Azkenik, Migrazio Mugimenduen Estatistikak agerian uzten duenez, etorkinen eta migratzaileen batez besteko adina desberdina da (33,1 eta 36,4 urte hurrenez hurren), baina kasu bietan 21-40 urtekoek migrazioen erdia egiten dute, eta mugimenduak egiten dituzten biztanleen generoa kontuan hartuz gero, etorkinen %51 gizonezkoak dira (%49 emakumezkoak). Emigrazioetan, berriz, sexuen arteko alde handiagoa da: %54 gizonak eta %46 emakumeak.

Migratzaileen titulazioari dagokionez, EUSTATen estatistikak erakusten duenez, EAEko migrazio-saldoa 2017an positiboa izan zen (hots, Erkidegorako etorkin gehiago etorri zirela emigratzen zutenak baino epealdi horretan) oinarrizko mailetan, lanbide heziketan (LHko maila guztiak), bigarren hezkuntzan eta erdiko/goiko hezkuntzan (diplomaturak,

ingeniaritza teknikoak, irakasle-ikasketak, erizaintza eta maila bereko beste batzuk), eta negatiboa goi-mailako titulazioetan bakarrik (graduak, lizentziaturak, graduatu ondokoak, masterrak, doktoretzak eta espezializazioa).

I.1.5. GRAFIKOA. EAE-KO MIGRAZIO-SALDOEN BILAKAERA IKASKETA MAILAREN ARABERA (5 URTETIK GORAKOAK)



Iturria: EUSTAT. EMM. Datu-bankua.

I.1.5. grafikoan ageri denez, migrazio-mugimenduen zati handi bat, kontsideraturiko seriean, oinarrizko ikasketak dituzten pertsonei dagokie nagusiki (beteak edo bete gabeak) eta, gainera, bilakaera markatzen duen lerroa oso aldakorra izan, ziklo ekonomikoaren araberakoa: saldo positibo handiak krisiaren aurreko urteetan eta jaitsiera handiak gure ekonomiaren daturik okerrenak izan ziren urteetan. Saldo positiboetara itzuli da azken hiru urtean, migrazio-mugimenduen joera orokorrarekin bat, migrazioen multzorako emaitzetan ageri den legez. 2017an, migrazio saldo positiboaren % 52,5 dira. Eta bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonekin batera, talde horren % 90,8 izango litzateke.

Datu absolutuetan, 5 urtetik gorako pertsonen migrazio-saldoa 9.804 lagunekoa da, eta horietatik 5.145ek oinarrizko ikasketak zituzten, 3.721ek bigarren mailakoak, 678k lanbide ikasketak, 465ek goi mailako ikasketak eta 205ek (negatiboa bada ere) unibertsitateko titulazioak zituzten.

Hortaz, goi mailako titulazioetan bakarrik bildu da saldo negatiboa, -205 pertsona (+465 maila ertain edo goi mailako titulazioetan). Azken urtean, goi-mailako titulazioa dutenen 4.288 emigrazio izan ziren (5 urtetik gorako emigrazioen %15,1) eta 4.223 immigrazio (guztizkoaren %10,7). Hortaz, -205 laguneko saldoa dago; migrazio-saldoa, berriz, positiboa da, hain zuzen ere +9.804.

I.1.4. TAULA GOI MAILAKO IKASKETAK DITUZTENEN MIGRAZIO-MUGIMENDUEN BILAKAERA ETA 5 URTETIK GORAKO BIZTANLEEKIKO ALDERAKETA. EAE.

	GOI-MAILAKO IKASKETAK DITUZTEN BIZTANLEAK			5 URTETIK GORAKOAK, GUZTIRA		
	IMMIGRAZIOA	EMIGRAZIOA	SALDOA	IMMIGRAZIOA	EMIGRAZIOA	SALDOA
2008	3.498	2.163	1.335	42.317	28.456	13.861
2009	2.817	2.249	568	36.221	30.482	5.739
2010	2.814	1.963	851	36.345	32.091	4.254
2011	1.655	1.211	444	38.513	31.405	7.108
2012	5.463	3.930	1.533	32.358	33.080	-722
2013	3.736	3.886	-150	31.765	34.031	-2.266
2014	4.086	4.213	-127	33.101	30.384	2.717
2015	3.772	4.677	-905	33.655	31.178	2.477
2016	3.793	4.288	-495	37.650	29.722	7.928
2017	4.223	4.428	-205	39.490	29.686	9.804
2008-17	35.857	33.008	2.849	361.415	310.515	50.900
2013-17	19.610	21.492	-1.882	175.661	155.001	20.660

Iturria: EUSTAT. "Migrazio-mugimenduen Estatistika". Geuk egina.

Goi mailako titulazioetan saldo positiboak izan dituzte betidanik, baina beste ikasketa mailak baino txikiagoak dira. Hala ere, lau urtez jarraian datu negatiboak izan dituzte (irteera gehiago sarrerak baino), halako moldez non 2013-2017 aldian gure Erkidegoak goi-mailako ikasketak dituzten 1.882 pertsona galdu baititu. 2008-2017 aldia kontsideratuz gero, aldiz, +2.849ko saldo metatua da, guztizko igoeraren %5,6.

1.3. EIN-EN 2018-2033RAKO BITANLERIAREN AURREIKUSPENAK[4]

EINek biztanleriari buruzko aurreikuspen gehiago egin ditu 50 urterako Estatu osoan eta 15 urterako autonomia erkidegoen araberako xehetasunean, 2033ra arte. Izan ere, azken hori aurkeztuko da Memoria honetan. Espainian bizi diren biztanleen tamaina eta egitura demografikoaren gaineko estatistika simulazioa da aurreikuspen hori, betiere egun ikusitako joera, eta jokabide demografikoek beren horretan jarraitzen badute ugalkortasunaren, heriotza-tasen eta migrazioen aldetik.

Nabarmentzekoa da, lehenik eta behin, egungo joerei eutsiz gero, bilakaera demografiko desberdinak izango direla Autonomia Erkidegoen arabera datozen 15 urteetan. Hala, 9tan gora egingo luke biztanleriak eta beste 8etan, berriz, behera. Ondorioz, +2,3 milioi pertsonako saldo positiboa izango litzateke guztira, hau da, +% 5,1eko igoera. Hazkunderik handienak B. Uharteetan (+% 22,2koa 2018rako zenbatetsitako biztanleriaren aldean), K. Uharteetan (+% 17,2koa) eta Madrilgo Erkidegoan (+% 12,9) izango lirateke, eta jaitsierarik handienak, berriz, Gaztela eta Leonen (-%8,6), Asturiasen (-%8,5) eta Extremaduran (-%6,6).

[4] *Atal honek Memoria honetako 2016ko edizioan azterturiko EINen "2016-2031ko biztanleen gaineko aurreikuspenak" deritzenen edukia gaurkotzen du; haren datuek garrantzitsuak izateari utzi diote.*

Biztanleriaren hazkundea aurreikusten zaien erkidegoen multzoan sartzen da EAE, baina hazkundea ez da oso handia, +% 1ekoa hain zuzen, hots, 22.562 biztanle gehiago aurreikusten dira, berezko saldo negatiboaren ondorioz (jaiotzak ken heriotzak). Izan ere, jarraian ikusiko denez, migrazio-saldo positiboarekin konpentsatuko litzateke, eta bereziki azpimarragarria da hirugarren herrialdeetatiko migrazioei dagokienez.

Bilakaera demografikoaren osagaiei erreparatuz gero, lehenik eta behin berezko saldoa dugu. Jaiotza-tasaren beherakadaren eta biztanleriaren zahartzearen aurretan, EINek eginiko zenbatespenen arabera, Espainian jaiotza baino heriotza gehiago izango dira (berezko hazkunde negatiboa) zenbatespenaren aldi osoan. Izan ere, Estaturako azterturiko aldi osoan, hots, 2068ra arte, mila biztanleko saldoa, Estatuan, -20,4 izango da, eta EAEko jaitsiera batez besteko horren bikoitza izango da (milako -42). Erkidego gehienek saldo negatiboa izango dute, bereziki Asturiasen (milako -124), Gaztela eta Leonen (milako -99,1) eta Galizian (milako 98,9). Autonomia Erkidegoentzat zenbatetsitako aldian (2033ra arte), jaiotzen kopuruak beherantz jarraituko du 2022ra arte, hau da, 2009an hasitako joerari eutsiko zaio. Hala, 2018 eta 2032 bitartean 5,7 milioi haur jaioko lirateke Estatuan, aurreko 15 urteetan baino % 15,8 gutxiago (2017rako behin-behineko datuak). Alabaina, 2023tik hasita, gorako bidean hasiko litzateke jaiotzen kopurua, hain zuzen ere 90eko bigarren zatitik hasita jaiotakoengandik. Hala, 2033. urtean 403.718 jaiotza izango lirateke, gaur egun baino % 3,5 gehiago. EAEn, aurreikusitako aldian zenbatetsi denez, 254.000 ume inguru jaioko dira, aurreko 15 urteetan baino % 14,4 gutxiago. 2032an 18.402 haur jaioko lirateke, 2018an baino % 9,6 gehiago.

I.1.5. TAULA. BIZTANLERIAREN AURREIKUSPENAK AA.EE.EN ARABERA. 2018-2033. OSAGAIAK 1.000 BIZTANLEKO

	ALDAKUNTZA,GUZT.		BEREZKO SALDOA	MIGRAZIO-SALDOA	
	ABS.	%		KANPOK.	BARRUK.
ANDALUZIA	274.240	3,3	-11,6	55,1	-11,6
ARAGOI	-1.071	-0,1	-49,6	47,5	1,3
ASTURIAS	-87.119	-8,5	-124,0	40,9	-5,2
B. UHARTEAK	259.033	22,2	16,8	152,1	28,7
K. UHARTEAK	374.081	17,2	-15,6	168,1	3,5
KANTABRIA	-15.541	-2,7	-75,2	40,7	7,4
GAZTELA-MANTXA	-206.948	-8,6	-34,5	31,3	-29,2
GAZTELA-LEON	-64.632	-3,2	-99,1	36,8	-27,1
KATALUNIA	728.072	9,7	3,5	88,3	0,4
VALENTZIAKO E.	290.589	5,9	-26,9	73,7	9,9
EXTREMADURA	-70.789	-6,6	-55,9	15,4	-27,8
GALIZIA	-138.799	-5,1	-98,9	47,4	-1,0
MADRIL	842.479	12,9	18,4	81,5	19,9
MURTZIA	102.454	6,9	31,4	38,2	-2,7
NAFARROA	53.253	8,3	-5,9	56,5	28,6
EAE	**22.562**	**1,0**	**-42,0**	**44,2**	**8,1**
ERRIOXA	-1.033	-0,3	-40,7	37,6	-0,1
CEUTA	5.753	6,8	96,1	46,8	-77,7
MELILLA	9.172	10,8	192,3	72,3	-161,6
GUZTIRA	**2.375.776**	**5,1**	**-20,4**	**69,7**	**-**

Iturria: EIN. Biztanleriaren gaineko aurreikuspenak 2018-2033.

I.1.6. GRAFIKOA. BIZTANLERIAN AURREIKUSTEN DEN HAZKUNDEA AA.EE.EN ARABERA. 2018-2033. DATUAK EHUNEKOTAN.



Iturria: EIN: Biztanleriaren aurreikuspenak 2018-2033

Heriotzei dagokienez, biztanleriak behera egin arren eta bizi-esperantza handitu arren, kopuru absolutuetan hazten jarraituko du biztanleriaren zahartzearen ondorioz. Hala, 2018-2032 6,5 milioitik gora heriotza izango lirateke, aurreko 15 urteetan baino % 14,8 gehiago (2003-2017). 2032an 471.621 heriotza izango lirateke; 2017an, berriz, 421.269 izan ziren. EAEn, zenbatetsiko aldian 347.352 heriotza izango lirateke, aurreko 15 urteetan baino % 16,6 gehiago. 2032an 24.078 heriotza izango lirateke, 2018an baino %9 gehiago.

I.1.7. GRAFIKOAK. JAIOETZEN ETA HERIOTZEN AURREIKUSPENAK EAE-N 2018-2033 ALDIRAKO



Iturria: EIN. Biztanleriaren gaineko aurreikuspenak 2018-2033.

Migrazio-mugimenduen zifrei gagozkiola, EINen aurreikuspenetan lehen aldiz hartu dira kontuan, 2017ra arte ikusitako balioak, demografiako adituen lan-talde baten ondorioak. Metodologiaren hobekuntza horretatik abiatuta, migrazioaren osagaien aurreikuspenak egiten dira bi aldiak kontuan izanik eta demografoentzako inkestaren erreferentziako balioak hartuta. Hala, aurreikuspenaren 15 urteen gainekoa egiteko, ikusitako joera eta 2033rako zenbatetsitako baterakuntzako balioa erabili dira. Uztarketa hori halako moldez egiten da non lehen osagaia pisua galduz baitoa urteen poderioz eta bigarrena, berriz, irabaziz. Hala izango balitz, Espainiak 1,3 milioi biztanle gehiago izango lituzke azterturiko lehen 5 urteetan atzerriarekiko biztanleen trukeetan. Joera horrek jarraituko du datozen urteetan eta, hala, biztanleriaren igoera garbia izango da, ia 3,4 milioi pertsonaren migrazioengatik 2033. urtera arte (milako 69,7ko ratioaren emaitza). Kanpoko migrazio-saldo hori positiboa izango litzateke Autonomia Erkidego guztietan, eta bereziki handia K. Uharteetan eta B. Uharteetan (milako 168,1 eta 152,1, hurrenez hurren. EAE, berriz, milako 44,2 izango litzateke.

Barne-migrazioari dagokionez, Estatuko gainerako tokietatik biztanle gehien erakarriko lituzketen erkidegoak B. Uharteak, Nafarroa eta Madrilgo Erkidegoa izango lirateke termino erlatiboetan. Ceutak, Melillak eta Gaztela-Mantxak autonomien arteko migrazio-saldorik negatiboenetakoak izango lituzkete. EAE eremu positiboan kokatzen da, milako 8,1 irabazita.

1.4. EZKONTZAK

1.4.1. Ezkontzak

"*Ezkontzen Estatistika*", Jaiotzenarekin eta Heriotzenarekin batera, Biztanleriaren Mugimendu Naturala da. EUSTATen arabera, 2017. urtean EAEn 8.060 ezkontza izan ziren, 2016an baino %0,4 gehiago. Haien artetik 7.861 sexu diferenteko pertsonen artean izan ziren (13 ezkontza gehiago eta %0,2ko igoera) eta 199 sexu bereko pertsonen artean (+% 10,6). Horietatik 116 emakumeen artean eta 83 gizonen artean.

Bestalde, azken urteetan ezkontza zibiletan izandako igoera handia nabarmendu behar da; izan ere, 1990ean %23 izatetik 2017an %83,1era izatera igaro da. Lurraldez lurralde, Bizkaian izan zuten ezkontza zibilek pisurik handiena (%85,9, ondoren Gipuzkoan (%83,7) eta Araban (%83,1). Guztira, EAEn 2017an 6.530 elkartze zibil egon dira, 1304 ezkontza katoliko eta beste erlijio batzuetakoak, berriz, 27 izan dira.

I.1.8. GRAFIKOA. EZKONTZA ZIBILEN EHUNEKOAREN BILAKAERA EAE-N



Iturria: EUSTAT. Ezkontzen Estatistika.

Gainera, nabarmentzekoa da ezkontzeko adina atzeratzeko joerak dirauela. Izan ere, erreferentziako urtean, ezkondu ziren gizonezko ezkongabeen batez besteko adina 37,1 urte zen, eta emakumezkoena, berriz, 34,9. Azken 25 urteetan, senarren batez besteko adina 7,7 urtetan igo da, eta emazteenak 7,8. Eta, ezkontza aurretiko egoera zibila kontuan izanik, gizon ezkongabeak %85,8 izan ziren, emakume ezkongabeak, berriz, % 85,5.

EAEko ezkontzen tasa, 2017an, 3,4koa da 1.000 biztanleko (tasa bera 2016an), Estatukoa baino txikiagoa (3,6 2015ean), eta Europar Batasuneko batez bestekoa baino txikiagoa; izan ere, milako 4,3koa zen 2015ean. Hona hemen ezkontza tasa handiena duten Europako herrialdeak, 2015erako behin-behineko datuekin: Zipre (7,5), Lituania (7,4) eta Letonia (6,6). Ratiorik txikienekoak, berriz, hauexetan: Portugalen eta Eslovenian (3,1 ezkontza 1.000 biztanleko), Eslovenia eta Luxenburgo (bietan milako 3,2ko tasak) eta Italia (3,4).

I.1.6. TAULA. EUROPAR BATASUNEKO EZKONTZAK. ADIERAZLEAK 1.000 BIZTANLEKO.

	EZKONTZAK		DIBORTZIOAK	
	2015	2016	2015	2016
EB	4,3	:	1,9	:
ALEMANIA	4,9	5,0	2,0	2,0
AUSTRIA	5,1	5,1	1,9	1,8
BELGIKA	4,0	3,9	2,2	2,1
BULGARIA	3,9	3,8	1,5	1,5
ZIPRE	7,2	7,5	2,1	2,3
DANIMARKA	5,1	5,4	2,9	3,0
ESLOVAKIA	5,3	5,5	1,8	1,7
ESLOVENIA	3,1	3,2	1,2	1,2
ESPAINIA	3,6	3,7	2,1	2,1
ESTONIA	5,2	4,8	2,6	2,5
FINLANDIA	4,5	4,5	2,5	2,5
FRANTZIA	3,6	3,5	1,9	1,9
GREZIA	5,0	4,6	1,4	1,0
KROAZIA	4,7	4,9	1,4	1,7
HERBEHEREAK	3,8	3,8	2,0	2,0
HUNGARIA	4,7	5,3	2,1	2,0
IRLANDA	4,7	4,8	0,7	:
ITALIA	3,2	3,4	1,4	1,6
LETONIA	6,9	6,6	2,6	3,1
LITUANIA	7,6	7,4	3,2	3,1
LUXENBURGO	3,6	3,2	2,4	2,1
MALTA	6,7	6,7	0,8	0,8
POLONIA	5,0	5,1	1,8	1,7
PORTUGAL	3,1	3,1	2,3	2,2
ERRESUMA BATUA	4,4	:	1,7	1,8
TXEKIAR ERREP.	4,6	4,8	2,5	2,4
ERRUMANIA	6,3	6,8	1,6	1,5
SUEDIA	5,3	5,4	2,5	2,4
EAE	**3,3**	**3,4**	**1,9**	**1,9**

Iturria: EUROSTAT, EUSTAT eta EIN.

1.4.2. Ezkontzak desegiteak

EINen "Baliogabetzeen, Banantzeen eta Dibortzioen Estatistikak" [5] igoera dakar dibortzioen eta banantzeen kopuruan, bai gure Erkidegoan, bai Estatu osoan. 2017an, guztira, 3.865 dibortzio eta 139 banantze izan ziren. Baliogabetze bakarra izan da 2017an; izan ere, urteko kopurua 5 ingurukoa izan da batez beste informazio hori dugunetik.

Guztira, erreferentziako urtean 3.928 ezkontza desegin ziren, 2016an baino %2 gutxiago (Estatuan %1eko igoera izan da), hots, 1,8 desegite mila biztanleko. Estatuko batez bestekoa, berriz, 2,2 da milako. Desegite tasarik handiena izan duten autonomia erkidegoak Ceuta eta Kanaria Uharteak dira (biak 2,4 milako). Haustura tasarik txikienak, berriz, Gaztela eta Leonen eta Aragoin daude (1,7 eta 1,8 desegite mila biztanleko, hurrenez hurren).

Nazioarteko konparazioa eginez, dibortzioen tasa gordina azken urteetan milako biaren ingurukoa da Europar Batasunean (milako 1,9 2015ean) baina maila ezberdinak daude: 0,7 milako Irlandan, 0,8 Maltan, eta 3,1 milako Lituanian eta Letonian (EUROSTATen azken datuak, 2016. urtekoak).

I.1.9. GRAFIKOA. EZKONTZAK DESEGITEAK EAE-N: BANANTZEEN ETA DIBORTZIOEN BILAKAERA



Iturria: EIN. Desegiteen, banantzeen eta dibortzioen estatistika.
(*) I Desegiteen guztizko kopuruan, elizako desegiteak barne daude.

Autonomia erkidegoak erkatuta ikusten denez, legea aldatu aurretik zein ondoren EAE maila txikietan dago, erregistro gutxien izandako laugarren erkidegoa izan baitzen.

EAEn banantzen edo dibortziatzen diren pertsonen profilari dagokionez, EINen datuek erakusten dute gehienak 40 eta 49 urte bitartekoak direla gizonezkoetan nahiz emakumezkoetan, eta emakumeen batez besteko adina 45 urtekoa izan zen. Gizonena, berriz, 47,4 urtekoa. Gainera, desegindako ezkontzen batez besteko iraupena 16,6 urtekoa da, eta kasuen %56,7ean seme-alabak dituzten ezkontideek, %46 adingabeak.

[5] *Banatzeen, "Dibortzioen eta Baliogabetzeen Estatistika" lehen auzialdiko, instrukzioko eta Emakumeen aurkako Indarkeriaren epaitegiek emandako informazioaren bidez egiten da; informazio hori ezkontza bidezko loturaren baliogabetze-prozesuari buruzkoa da.*

2. IMMIGRAZIOA EAE-N

2.1. TESTUINGURUA: IMMIGRAZIOA EUROPAR BATASUNEAN

Nazioarteko migrazioak, denbora laburrean, nazioarteko agenda politikoaren eta garapenaren funtsezko gaietako bat bihurtu da; izan ere, gizarte eta ekonomia globalen egungo berezitasunetako bat da.

I.2.1. GRAFIKOA. EB-KO HAZKUNDE DEMOGRAFIKOAREN BILAKAERA OSAGAIEN ARABERA. 1.000 BIZTANLEKO RATIOAK



Iturria: EUROSTAT.

Aurreko atalean ikusi denez, Europar Batasuneko biztanleria etengabe haziz doa azken urteetan (+1,1 milioi 2017an, milako 2,1), immigrazioagatik, zeren eta azken urteko berezko hazkundea (jaiotzak ken heriotzak) negatiboa izan baita (milako -0,4). Migrazio-saldoa, berriz, positiboa izan da (milako +2,5). Hala, migrazio-mugimenduen araberakoak dira, beste urte batez, EBko herrialdeetako dinamika demografikoak.

Eusko Jaurlaritzaren Immigrazioaren Euskal Behatokiak (Ikuspegi) 2018ko abuztuko bere 70. buletineko datuen aurrerapenari buruz egiten duen azterketaren arabera, atzerritar jatorriko (atzerrian jaioak) 57,3 milioi biztanle bizi ziren EBn, biztanle guztien % 11,2. Lurraldeen arabera, Luxenburgok du atzerritarren tasarik handiena (%45,7), ondoren Ziprek (% 20,3) eta Austriak (% 18,8). Nolanahi ere, nabarmentzekoa da ezen, hiru herrialdeetako tasa handiak gorabehera, atzerritar guztien batura EB bizi diren atzerritarren % 3,7 besterik ez dela. Bestalde, Polonia, Errumania eta Bulgaria dira atzerritarren proportziorik txikiena dutenak, % 2 inguru. Herrialde horietan, oso desberdina da bertako herritarren eta atzerritarren banaketa: guztizko populazio handia dute, kopuru absolutuetan, eta immigrazio txikia.

EBn, atzerritar jatorriko pertsonen % 73 bost herrialdetan bizi dira: Alemanian, Erresuma Batuan, Frantzian, Espainian eta Italian. Izan ere, Alemanian bizi dira EBko atzerritar jatorriko pertsonen % 20tik gora. Biztanle autoktonoen portzentajea % 62koa eta, beraz, dimentsio handiagoarekin batera, atzerritarrak erakartzeko gune ere badira –ekonomia eta merkatu zabalagoak-.

2009 eta 2017 artean, nabarmen hazi da EBko atzerritarren kopurua, hain zuzen 47,6 milioitik 57,3 milioira (+% 20,4). Kopuru horiek biztanleria osoarekin erlazionatuta, igoera izan da, % 10,3tik % 11,2ra hain zuzen. Alabaina, hazkundea ez da modu berean gertatu EBn, zeren eta ildo desberdinak ezar baitaitezke Europar desberdinetan: alde batetik, 28ko EB handituko herrialdeek, 2009tik eta gaur egunera arte, atzerritarren tasa txikiagoak izan dituzte EB osokoek baino: 2009ko % 3,5etik 2017ko % 5,4ra. Bestalde, 15eko EBk atzerritarren tasa handiagoak izan ditu, hain zuzen ere % 11,4tik % 13,1era aldi berean.

Espainiako tasak behera egin zuen 2009tik 2017ra, % 13,5etik % 12,9ra. Izan ere, 2012tik hasita beherakada izan zen tasa horretan krisi ekonomikoaren eragin handiagatik. Era berean, EAE, I.2.3. grafikoan ageri denez, ildo desberdinetik doa: 15eko EBren antz handiagoa du, baina tasa txikiagoekin, Europako batez bestekoen azpitik betiere.

I.2.2. GRAFIKOA. ATZERRITARREN EHUNEKOAREN BILAKAERA EAE-N, ESPAINIAN ETA EB-N



Iturria: IKUSPEGI, EINren eta EUROSTATen datuekin.

Hortaz, EAE ez dago azaldutako errealitate horretatik aparte, eta hazi egin da kultur aniztasunaren aldetik, biztanle-talde berriak sartu izanaren ondorioz. Inguruko gizarteen mailetara iritsi gabe, nabarmen egin du gora atzerritarren immigrazioak gure Erkidegoen azken urteetan, eta aniztasuna ekarri du. Izan ere, metaka eta epe laburretan gertatu den immigrazioak ekonomiaren eta gizartearen epe luzerako joerak aldarazi ditu: biztanleria zahartzeko joera geldiarazi eta belaunaldien arteko berriztapena bideratu du, baita gizarte jokabide berriak ekarri ere.

2.2. IMMIGRAZIOAK EAE-KO DEMOGRAFIAN DUEN ERAGINA

Udal Erroldaren arabera, 2018. urtean 206.175 atzerritar bizi ziren EAEn. Lau urtez jarraian hazi da, 9.585 pertsona gehiago (+%4,9), 2013-2014 biurtekoan jaitsiera txikia izan ondoren eta 90eko hamarkadaren amaieran hasitako igoera nabarmeneko aldia igarota.

I.2.3. GRAFIKOA. ESTATUKO ETA EAE-KO ATZERRITARREN EHUNEKOAREN BILAKAERA



Iturria: IKUSPEGI, EINen datuen bidez.

I.2.4. GRAFIKOA. ATZERRITARREN URTE ARTEKO HAZKUNDE ABSOLUTUA EAE-N. 1999-2018

Iturria: IKUSPEGI, EINen datuen bidez.

Bizkaian bizi dira atzerritar gehien (100.611, guztizkoaren %48,8), 2017an baino % 5,3 gehiago, eta ondoren Gipuzkoa dator 68.288 erroldaturekin (+% 4,3) eta Araban 37.276 (+% 4,8). Hortaz, atzerriko jatorriko biztanleen igoera gertatu da hiru lurraldeetan. 2005etik 2012ra bitartean Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatutako atzerriko biztanleak bikoiztu ziren eta urteko igoerarik handiena 2008. urtean izan zen, urte horretan erroldatutako atzerriko biztanleria 20.000 pertsonan hazi baitzen (ikus I.2.3 grafikoa). Krisiaren eraginez 2013-2014 biurteko jaitsieraren ondotik, azken lau urtetan igoera txikia izan da, goranzko joera ageri da, baina ez krisiaren aurreko oparoaldian bezain indartsua.

2018ko urtarrilean erroldatuta zeuden 206.175 lagunak biztanleriaren %9,4 dira, 2017an baino lau hamarren gehiago. Estatuan, berriz, %13,6ko ratioa zen 2018an: 4 hamarren hazi da hiru urtean behera egin ondoren.

I.2.5. GRAFIKOA. BIZTANLE ATZERRITARREN EHUNEKOA BIZNTALERIA OSOAREKIKO, AA.EE.EN ARABERA. 2017-2018.



Iturria: IKUSPEGI, EINen datuen bidez.

Eusko Jaurlaritzaren Immigrazioaren Euskal Behatokiak (Ikuspegi) 2018ko maiatzeko bere 69. buletineko datuen aurrerapenari buruz egiten duen azterketaren arabera, Euskadi da, Nafarroarekin eta K. Uharteekin batera, biztanle atzerritarren igoera handiena izan duen Erkidegoa 2018. urtean. Kopuru absolutuetan, Katalunian, Madrilen eta Valentziako Erkidegoan erregistratu da atzerritarren igoerarik handiena.

Immigrazioak gure erkidegoko dinamika demografikoan duen eragina ere aintzat hartu beharrekoa da: 1998 eta 2018 bitartean, 100.029 biztanle gehiago izan ditu EAEk, hain zuzen ere atzerritarrak gurera etorri izanari esker; izan ere, epealdi berean, 26.334 erroldatu izatetik 206.175 erroldatu izatera (+179.841) igaro da. Biztanle autoktonoei dagokienez, berriz, 79.812 pertsona gutxiago izan direla esan beharra dago. Hortaz, Euskadin izandako biztanleriaren galerako dinamika iraultzea lortu du atzerritar jatorriko biztanleriak.

I.2.1. TAULA. EAE-KO BIZTANLERIAREN BILAKAERA 1998-2018: BIZTANLE AUTOKTONOAK ETA ATZERRITARRAK. URTEKO ALDAKUNTZA TASAK .

	BIZT. GUTIRA	BIZTANLE AUTOKTONOAK		BIZTANLE ATZERRITARRAK		
		ABS.	ALDAK. %	ABS.	ALDAK. % .	% S/ GUZTIRA
1998	2.098.628	2.072.294	-	26.334	-	1,3
1999	2.100.441	2.071.418	0,0	29.023	10,2	1,4
2000	2.098.596	2.063.453	-0,4	35.143	21,1	1,7
2001	2.101.478	2.057.655	-0,3	43.823	24,7	2,1
2002	2.108.281	2.052.413	-0,3	55.868	27,5	2,6
2003	2.112.204	2.044.675	-0,4	67.529	20,9	3,2
2004	2.115.279	2.037.073	-0,4	78.206	15,8	3,7
2005	2.124.846	2.030.818	-0,3	94.028	20,2	4,4
2006	2.133.684	2.025.590	-0,3	108.094	15,0	5,1
2007	2.141.860	2.019.664	-0,3	122.196	13,0	5,7
2008	2.157.112	2.014.628	-0,2	142.484	16,6	6,6
2009	2.172.175	2.012.538	-0,1	159.637	12,0	7,3
2010	2.178.339	2.010.957	-0,1	167.382	4,9	7,7
2011	2.184.606	2.009.567	-0,1	175.039	4,6	8,0
2012	2.193.093	2.009.321	0,0	183.772	5,0	8,4
2013	2.191.682	2.008.399	0,0	183.283	-0,3	8,4
2014	2.188.985	2.007.268	-0,1	181.717	-0,9	8,3
2015	2.189.257	2.005.060	-0,1	184.197	1,4	8,4
2016	2.189.534	2.000.938	-0,2	188.596	2,4	8,6
2017	2.194.158	1.997.567	-0,2	196.589	4,2	9,0
2018*	2.198.657	1.992.482	-0,3	206.175	4,9	9,4
Aldak. guztira	**100.029**	**-79.812**	**-3,9**	**179.841**	**682,9**	**-**

Iturria: IKUSPEGI, EINen datuen bidez.
** Behin-behineko datuak.*

EAEko atzerritarrak ia erdi bana daude banatuta sexuaren arabera% 48,4 gizonezkoak dira eta % 51,6 emakumezkoak, baina alde txikiak ikusten dira lurraldeen arabera: Bizkaian emakume gehiago dira (% 53,3). Araban, aldiz, oreka dago bi sexuen artean, % 50 bakoitzean. Alde hori gertatu da Bizkaian Latinoamerikako biztanle gehiago direlako (emakumeek pisu handiagoa dute), eta Araban afrikarrak dira nagusi: horietan gizonak dira nagusi.

Atzerriko jatorriko biztanleak eta atzerritar nazionalitatekoak erkatuta ikusten denez, atzerritar nazionalitatekoa atzerrian jaiotakoak baino gutxiago dira eta, neurri handi batean, azken urteetan izandako nazionalitateengatik gertatu da. Gaur egun, 55.000 lagunetik gorakoa da bien arteko diferentzia. Hala, atzerritar nazionalitatekoak 151.126 ziren 2018ko urtarrilean, atzerritar jatorrikoen % 73,3 hain zuzen.

I.2.6. GRAFIKOA. EAE-KO ATZERRITARRAK: ATZERRIKO NAZIONALITATEA DUTEN PERTSONEN ETA ATZERRIAN JAITAKOEN ARTEKO ERLAZIOA. EHUNEKOA.



Iturria: IKUSPEGI, EINen datuen bidez.

Ildo horretan, IKUSPEGIk 2018ko azaroko bere "Panoramika 71" delakoan nabarmendu duenez (izenburua: "*Nazionalizazioen prozesuaren bilakaera EAEn*", 2003 eta 2017 bitartean 44.000 nazionalizazio baino gehiago izan dira EAEn, eta arrazoi nagusia etengabe bi urtez bizitzea izan da aldi osoan. Aitzitik, 2010etik hasita, eta migrazio-prozesua finkatu izanaren ondorioz, arrazoi hori pisua galtzen hasi eta beste batzuk agertzen hasi dira hala nola hamar urteko bizilekua izatea (ohikoa afrikarren artean) edo Espainian jaio izana. 2017an (informazioa dugun azken urtea), nazionalitateen % 61,9 bi urteko bizilekuari dagokio, % 19 hamar urteko bizilekuari, % 10,9 Espainian[6] jaio izanagatik eta % 6,8 espainiar batekin ezkondu izanagatik. Gainerakoa (% 1,4) gehienbat jatorriko alabei edo ilobei dagokie.

I.2.7. GRAFIKOA. EAE-KO ATZERRITARREN JATORRIKO ERMEU NAGUSIEN PISUAREN BILAKAERA, EHUNEKOTAN



Iturria: EINen datuekin eginikoa.

Bestalde, etorkinen jatorriko eskualdearen eta nazionalitatearen bilakaeraren azterketak erakusten duenez, horien osaera aldatuz joan da, baina ildo argiari eusten dio: gehienak orain ere Latinoamerikakoak dira (%47,8), eta ondoren EBko beste herrialde batzuetakoak (%18,6), pisua galduz joan direnak hain zuzen ere. Bestalde, jatorri afrikarren presentziak gora egin du 2003tik hona; hala, Magrebeko kasua nabarmentzen da (gaur egun %14). Asiar jatorriko biztanleei dagokienez, presentzia txikia bada ere, gora egin du pixka bat.

I.2.8. GRAFIKOA. EAE-N BIZI DIREN ATZERRITARREN JATORRIKO HAMAR HERRIALDEEN BILAKAERA. 2008-2018



Iturria: IKUSPEGI, EINen datuen bidez.

[6] *Erregela orokorra dira nazionalitatea eskatzeko legezko egonaldiko 10 urteetan, eta iheslari-estatusarekiko pertsonen kasuan epea da 5 urteko. Bere aldetik, nazionalitate latinoamerikarren, baita ere Andorra bezala herrien gehiengoa, Filipina, Ekuatore Ginea, Portugal edo komunitate sefardiaren pertsonak, nazionalitatea lor dezakete jarraitutako legezko bizilekuko 2 urteren ondoren. Azkenik, Espainian espainiar/batekoak zuzeneko ondorengo ahaideengandik jaiotako pertsonek, nazionalitatea eska dezakete bizileku-urte batekin.*

Interesgarria da ikustea zelako bilakaera izan den hamar nazionalitaterik garrantzitsuenen presentzian 2008 eta 2018 bitartean: epealdi horretan gehien hazi diren jatorriak latinoamerikarrak izan dira –Nikaragua eta Paraguai- eta afrikar bat –Maroko- Krisialdian (2009tik hasita), bereziki nabarmentzekoa da Nikaraguako jatorriko biztanleen igoera, eta 10 horietatik 8 emakumezkoak dira.

Herrialdeka, 2018an, lehenengo hamar garrantzitsuenen artean sei Latinoamerikakoak dira (Kolonbia, Bolivia, Ekuador, Nikaragua, Brasil, Paraguai eta Venezuela), bi komunitarioak (Errumania eta Portugal), bat afrikarra (Maroko). Hamar jatorri horien batura atzerritar jatorriko biztanleriaren %54,5 bada ere, 2008ra atzera eginez gero, pilaketa hori handiagoa zela ikusiko dugu, eta horrek jatorriko herrialde desberdinen presentzia handiagoa eta dibertsifikazioa erakusten ditu, gaur egun, EAEn bizi diren atzerriko jatorriko taldeen osaeran.

Gaur egun, eta 2014. urteaz gero, marokoarra da atzerriko nazionalitate nagusia EAEn, 22.695 erroldatu 2018an, hots, atzerriko jatorriko pertsona guztien %12,5 EAEn. Bigarren nazionalitatea Kolonbiakoa da, guztizkoaren %10,8.

2.3. ELKARBIZITZA. 2018KO BAROMETROA

I.2.9. GRAFIKOA. IMMIGRAZIOA ARAZO PERTSONALA EDO EUSKADIKOA IZATEARI BURUZKO IRUDIPENAREN BILAKAERA. BAIEZKO ERANTZUNAREN EHUNEKOA *. EAE.



Iturria: IKUSPEGI. 2018ko Barometroa.
** Aipamenak guztira, gehienez hiru.*

Ikuspegiren 2018ko urriko Barometroaren arabera, euskaldunentzat immigrazioa ez da arazo. %1,3k soilik dio aurretiaz galdetu gabe EAEko arazo nagusia dela (%2,4k zioen 2017an), eta aipamenak guztira %7,7 dira (%12,3 2017an), gehienez hiru erantzunekin. Iradokiz gero, halaxe dela aipatzen du elkarrizketaturikoen % 8,2k. 2017an, berriz, % 13,6k. Norberari dagokionez, gehien aipatzen diren gaiak langabezia (% 40,3) eta ekonomiaren ingurukoak dira (% 28,5), eta immigrazioa elkarrizketaturiko pertsonen % 1,7arentzat baino ez da arazo pertsonal nagusia (%4,5arentzat aipamen guztiak aintzat hartuz gero).

Enpleguari dagokionez, immigrazioak lan-merkatuan duen ikuspegi funtzionalak nabarmen egin du okerrera krisiaren ondorioz: 2014an % 80k uste zuen atzerritarrak behar genituela zenbait sektoretan lan egiteko. 2014an, berriz, % 30,4 ziren. Alabaina, gorabehera txiki batzuk tarteko, badirudi 2015etik berriz handitu dela ikuspegi utilitarista, 2018an % 50,5.ean kokatzeraino.

Antzeko zerbait gertatu da beste baieztapen batekin ere, hain zuzen etorkinek bertakoek nahi ez dituzten lanpostuak hartzen dituztela. 2014an % 32,8 zegoen ados baieztapen horrekin (kontsideraturiko serie osoko ratiorik txikiena) eta, berriz ere zenbait gorabehera izanik, % 49,2raino iritsi da 2018an.

Datu horiek agerian uzten dutenez, immigrazioaren gaineko irudipen positiboa edo ez hain positiboa ziklo ekonomikoaren araberakoa da.

Bestalde, atzerritar guztiek osasun laguntza eskuratzearen aldekoa da euskal gizartea 2018an, 2017ko datuen antzera (% 71,5, aurreko urtean baino -3,5 puntu gutxiago), baita seme-alaben hezkuntza ere (% 81,7, +5,9 puntu). Alabaina, bi zerbitzu horietan izan ezik (eskubide unibertsaltzat jotzen dira oro har), euskal gizartearen gehiengoak uste du, aurreko urteetan bezala, erregularizazioarekin lotuta egin behar duela beste eskubide batzuk baliatzeak. % 57,5eko ratioa dago laguntza juridikoaren kasuan, % 65 familia batzeko, % 70,7 botoa emateko eskubiderako eta % 65,8 gizarte laguntzak eskuratzeko.

I.2.10. GRAFIKOA. IMMIGRAZIOAREN IKUSPEGI UTILITARISTA EAE-N: PERTSONEN EHUNEKOA, AIPATURIKO BAIEZTAPENEN ARABERA



Iturria: IKUSPEGI. 2018ko Barometroa.

Immigrazio politikei dagokienez, etorkinak sartzeko lege eragozpenik ez jartzearen aldekoa zen euskal herritarren % 18 2018an (% 18,3 2017an). % 1,8, berriz, beste bitarteko batzuk erabiliz galaraztearen aldekoa zen (% 4,4 2017an). Portzentaje zabal bat, % 35,8, lan-kontratuaren truke sartzen uztearen aldekoa da (behera egin du, ordea: % 43,4 zen 2017an). % 34,5, berriz, beste lege beharkizunak beteta sartzen uztearen alde dago (familia batzea, ikasleak, errefuxiatuak…) (% 28 2017an).

I.2.11. GRAFIKOA. ZEIN ETORKINEK IZAN BEHARKO LITUZKETE ESKUBIDE HAUEK? EAE, 2018



Iturria: Ikuspegi Barometroa, 2018.

Azkenik, urteko bere inkestan bildutako datuak oinarri hartuta, IKUSPEGIk euskal herritarrek immigrazioarekin duen "*tolerantzia-indizea*" egiten du. 2018ko Barometroak 2017koa baino indize handiagoa ematen du (59,71 puntu, aurreko urtean 58,48 puntu), azken urteetan konfiantza berreskuratu izanaren ildotik (serie historikoko handiena da).

I.2.12. GRAFIKOA. IMMIGRAZIO POLITIKA EGOKIAGOA EUSKAL BIZTANLERIAREN ARABERA. 2018.



Iturria: IKUSPEGI. 2018ko Barometroa.

I.2.13. GRAFIKOA. IMMIGRAZIOAREKIKO TOLERANTZIA INDIZEAREN BILAKAERA EAE-N



Iturria: IKUSPEGI. 2018ko Barometroa.

3. LABURPENA ETA GOGOETAK

3.1. LABURPENA

EAEn, Biztanleen Udal Erroldak emandako 2018ko urtarrileko azken datuen arabera, EAEko biztanleriak pixka bat gora egin du azken urtean, 4.499 biztanle gehiago, eta 2.198,657 biztanle ditu. Lurralde historikoei dagozkien datuek erakusten dutenez, biztanleria bereziki Araban handitu da (+%0,7), 2.167 biztanle), eta neurri txikiagoan Bizkaian (+%0,1, 1.267 biztanle gehiago) eta Gipuzkoan, (+0,1, 1.065 biztanle).

Bestalde, EUROSTATek, 2009ko urtarrila erreferentzia gisa hartuta, Europar Batasunean 512,6 milioi biztanle kalkulatu zituen, 2017ko urtarrilean baino 1,1 milioi gehiago. Milako 2,1eko hazkunde honi esker (aurreko urtean milako 3koa izan zen), 1960az geroztik dagoen goranzko joera etengabea beste urte batez mantendu da. 1960an gaurko Europar Batasuneko biztanle kopurua 400 milioi zen. Bilakaera positibo hori berriro ere immigrazioaren portaeraren ondorioa izan da; izan ere, berezko hazkundea (jaiotza eta heriotzen arteko alde positiboa) zerokoa izan da, Europar Batasunean lehen aldiz 2015ean gertatu zena

EAEn 2017ko behin-behineko datuek hazkunde begetatibo negatiboa erakusten dute berriz ere bosgarren urtez jarraian (jaiotza eta heriotzen arteko aldea), saldo positiboak izandako 9 urteren ondoren: urte horretan 17.076 jaiotza gertatu dira, aurreko urtean baino %6,5 gutxiago, eta 21.632 heriotza, 2009an baino %1,9 gehiago. Horren ondorioz, hazkunde begetatiboa -4.556koa izan da, hots, milako -2,1ekoa 2017ko saldo negatiboa, beraz, 2016koa baino txikiagoa da, bai jaiotzen jaitsieragatik, bai heriotzen kopurua pixka bat handitu izanagatik

EUSTATen "*Migrazio Mugimenduen Estatistikak*" zenbatu duenez, 10.725 pertsona zeuden gure Erkidegoan urte horretan (2016an baino gehiago, urte horretan 8.871 pertsona gehiago izan baitziren. Lurraldeen arabera, Bizkaiak 5.461 lagun gehiago ditu, Arabak 2.349 eta Gipuzkoak 2.915. Saldoaren hazkunde hori oinarrizko ikasketetan, lanbidekoetan, bigarren mailakoetan eta ertain-goi maila guztietan gertatu da, eta goi mailetan bakarrik izan da negatiboa.

Migrazio-mugimenduen zati handi bat, kontsideraturiko seriean, oinarrizko ikasketak dituzten pertsonei dagokie nagusiki (beteak edo bete gabeak) eta, gainera, bilakaera markatzen duen lerroa oso aldakorra izan, ziklo ekonomikoaren araberakoa: 2017an, migrazio-saldo positiboaren % 52,5 dira. Eta bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonekin batera, talde horren % 90,8 izango lirateke. Datu absolutuetan, 5 urtetik gorako pertsonen migrazio saldoa 9.804 lagunekoa da, eta horietatik 5.145ek oinarrizko ikasketak zituzten, 3.721ek bigarren mailakoak, 678k lanbide ikasketak, 465ek goi mailako ikasketak eta 205ek (negatiboa bada ere) unibertsitateko titulazioak zituzten.

Hortaz, goi mailako titulazioak dira saldo negatiboak dituzten bakarrak. Goi mailako titulazioetan saldo positiboak izan dira betidanik, baina beste ikasketa mailak baino txikiagoak dira. Hala ere, lau urtez jarraian datu negatiboak izan dituzte (irteera gehiago sarrerak baino), halako moldez non 2013-2017 aldian gure Erkidegoak goi-mailako ikasketak dituzten 1.882 pertsona galdu baititu. 2008-2017 aldia kontsideratuz gero, aldiz, +2.849ko saldo metatua da, guztizko igoeraren %5,6.

Bestalde, EINek biztanleriari buruzko aurreikuspen gehiago egin ditu 50 urterako Estatu osoan eta 15 urterako autonomia erkidegoen araberako xehetasunean, 2033ra arte. Nabarmentzekoa da, lehenik eta behin, egungo joerei eutsiz gero, bilakaera demografiko desberdinak izango direla Autonomia Erkidegoen arabera datozen 15 urteetan Hala, 9tan gora egingo luke biztanleriak eta beste 8etan, berriz, behera. Ondorioz, +2,3 milioi pertsonako saldo positiboa izango litzateke guztira, hau da, +% 5,1eko igoera. Hazkunderik handienak B. Uharteetan (+% 22,2koa 2018rako zenbatetsitako biztanleriaren aldean), K. Uharteetan (+% 17,2koa) eta Madrilgo Erkidegoan (+% 12,9) izango lirateke, eta jaitsierarik handienak, berriz, Gaztela eta Leonen (-%8,6), Asturiasen (-%8,5) eta Extremaduran (-%6,6). EAErako hazkundea ez da oso handia, +% 1ekoa hain zuzen, hots, 22.562 biztanle gehiago aurreikusten dira, berezko saldo negatiboaren ondorioz (jaiotzak ken heriotzak). Izan ere, jarraian ikusiko denez, migrazio saldo positiboarekin konpentsatuko litzateke, eta bereziki azpimarragarria da hirugarren herrialdeetatiko migrazioei dagokienez.

Immigrazioari dagokionez, Udal Erroldaren arabera, 2018. urtean 206.175 atzerritar bizi ziren EAEn. Lau urtez jarraian hazi da, 9.585 pertsona gehiago (+%4,9), 2013-2014 biurtekoan jaitsiera txikia izan ondoren eta 90eko hamarkadaren amaieran hasitako igoera nabarmeneko aldia igarota. 2018ko urtarrilaren erroldaturiko 206.175 atzerritarrak biztanleriaren % 9,4 dira, 2017an baino lau ehunen gehiago. Estatuko 2018ko ratioa, berriz, 4 ehunen hazi da (% 13,6), hiru urtean zero hazkundea izan ondoren).

Bestalde, atzerrian jaio ondoren EB bizi ziren 57,3 milioi lagun, biztanle guztien % 11,2 hain zuzen ere.

Herrialdeka, 2018an, lehenengo hamar garrantzitsuenen artean sei Latinoamerikakoak dira (Kolonbia, Bolivia, Ekuador, Nikaragua, Brasil, Paraguai eta Venezuela), bi komunitarioak (Errumania eta Portugal), bat afrikarra (Maroko). Gaur egun, eta 2014tik, marokoarrak dira atzerritar nagusiak EAEn, 22.695 erroldatu guztira, hots, EAEn dauden atzerritar guztien % 12,5. Bigarren tokian kolonbiarrak daude, guztizkoaren % 10,8.

Herritarrek immigrazioari buruz duten iritziari dagokionez, euskaldunentzat immigrazioa ez da arazo. %1,3k soilik dio aurretiaz galdetu gabe EAEko arazo nagusia dela (%2,4k zioen 2017an), eta aipamenak guztira %7,7 dira (%12,3 2017an), gehiene hiru erantzunekin. Hala iradokitzen du elkarrizketaturikoen % 8,2k. 2017an, berriz, % 13,6k. Norberari dagokionez, gehien aipatzen diren gaiak langabezia (% 40,3) eta ekonomiaren ingurukoak dira (% 28,5), eta immigrazioa elkarrizketaturiko pertsonen % 1,7arentzat baino ez da arazo personal nagusia (%4,5arentzat aipamen guztiak aintzat hartuz gero). Enpleguari dagokionez, immigrazioak lan-merkatuan duen ikuspegi funtzionalak nabarmen egin du okerrera krisiaren ondorioz: 2014an % 80k uste zuen atzerritarrak behar genituela zenbait sektoretan lan egiteko. 2014an, berriz, % 30,4 ziren. Alabaina, gorabehera txiki batzuk tarteko, badirudi 2015etik berriz handitu dela ikuspegi utilitarista, 2018an % 50,5.ean kokatzeraino. Antzeko zerbait gertatu da beste baieztapen batekin ere, hain zuzen etorkinek bertakoek nahi ez dituzten lanpostuak hartzen dituztela. 2014an % 32,8 zegoen ados baieztapen horrekin (kontsideraturiko serie osoko ratiorik txikiena) eta, berriz ere zenbait gorabehera izanik, % 49,2raino iritsi da 2018an.

Azkenik, urteko bere inkestan bildutako datuak oinarri hartuta, IKUSPEGIk euskal herritarrek immigrazioarekin duen "*tolerantzia-indizea*" egiten du. 2018ko Barometroak 2017koa baino indize handiagoa ematen du (59,71 puntu, aurreko urtean 58,48 puntu), azken urteetan konfiantza berreskuratu izanaren ildotik (serie historikoko handiena da).

3.2. GOGOETAK

Beste urte batez, migrazio-saldo positiboei esker, berezko hazkunde negatiboa (jaiotzak ken heriotzak) konpentsatu eta biztanleriari eusteko modua izan da, bai gure Erkidegoan, bai EB osoan.

Euskadiko biztanleriari buruz eginiko aurreikuspenek erakusten dutenez, gainera, denbora luzean izango da joera hori. Beste herrialdeetako biztanleen ekarpenek jarraituko dute aurrerantzean ere, eta egoki kudeatuz gero, ekonomiak eta gizarteak oro har beren ekoizpen, ongizate eta aberastasun mailei eutsi ahal izango diete. Hortaz, migrazio prozesuen kudeaketa eta jarraipen egokiak egin behar dira (besteak beste, lan-esku gaituenarena), zeren eta, ekonomian eragina izateaz gain, biztanleriaren egituraren osaera kualitatiboari eta gure gizarteko eremu guztiei eragiten baitiete.

Alabaina, immigrazioak kopuruen aldetik eragin positiboa badu ere, gure Erkidegoak orain ere azaro demografiko larria du berezko hazkunde negatiboarekin (edo berezko saldo negatiboa), jaiotzen eta heriotzen arteko diferentziagatik: urtetik urtera handituz doa eta 2018an areagotu da.

Uste sendoa dugu "Familien eta Haurren Aldeko Euskal Itun"ean. Izan ere, bere helburuen artean, egungo demografiaren erronkari aurre egitea da, jaiotze-tasa sustatuz, eta "Familien eta Haurren Aldeko Euskal Estrategiak" egungo joera irauliko duelakoan gaude.

Eta migrazio-mugimenduei dagokienez, beraz, ekarpen hori ekonomiaren, demografiaren eta kulturaren aldetik baloratu beharra dago immigrazioa; eta etorkinen enplegagarritasuna hobetze aldera, zubi-lana egin eta etorkinen

prestakuntza bideratzeko konpromisoak hartu behar dira. Horretarako, bide administratiboak, sozialak, ekonomikoak, etab. izan behar dira etorkizunak benetan laneratzeko eragozpenak desagerrarazteko.

Testuinguru horretan (migrazio-mugimenduak), bost urtez jarraian eutsi zaio goi mailako titulazioa duten pertsonen migrazio-saldo negatiboari. Kopuruaren aldetik galera handira ez bada ere (izan ere, azken urtean erdira baino gehiago murriztu da), alde kualitatibotik, azken urteetako joera mantenduz eta sakonduz gero, giza kapitala galaraz dezake, eta horrek ondorioak dakartza gizarte eta ekonomia mailan. Horregatik, arreta jarri behar da migrazioan, eta zergatik gertatzen ari den sakontzen jarraitu beharra dago, baita giza kapitala atxikitzeko neurriak hartu ere.

Hori dela-eta, Batzorde honek EAErako demografia eta migrazio eredu orokorra eskatu izan du ondoz ondoko memorietan, horri buruzko politika publikoak bideratu ahal izateko, halako moldez non zeharkakoagoak eta koordinatuagoak izango baitira, funtsezkoak direlako garapen sozialerako eta ekonomikorako.

KAPITULUKO ITURRIAK:

1. **EIN**: Biztanleen Udal Errolda. 2018ko datuak. Urterokoa. Abagunekoa.
2. **EUSTAT**: Jaiotzen Estatistika (ENAC). 2017. Urterokoa. Abagunekoa.
3. **EUSTAT:** Heriotzen Estatistika (EDEF). 2017. Urterokoa. Abagunekoa.
4. **EUROSTAT:** Demografia Estatistikak. 2017. Urterokoa. Abagunekoa.
5. **EUSTAT:** Migrazio-mugimenduen Estatistika (EMM). 2017. Urterokoa. Abagunekoa.
6. **EIN**. 2018-2033ko Biztanleriaren gaineko aurreikuspenak. 2018. Urterokoa. Estrukturala.
7. **EUSTAT:** Ezkontzen Estatistika (EMAT). 2017. Urterokoa. Abagunekoa.
8. **EIN.** Ezkontzen, Banantzeen eta Dibortzioen Estatistika. 2017. Urterokoa. Abagunekoa.
9. **IKUSPEGI.** Atzerriko biztanleriari buruzko azterketa. EINen mikrodatuekin eginikoa. 2018. Urterokoa. Abagunekoa.
10. **IKUSPEGI**. Atzerriko biztanleria Europar Batasunean. 2017ko datuak. (Panoramika 70, 2018ko abuztua). Unekoa.
11. **IKUSPEGI.** 2018ko Barometroa. Geure inkesta. Urterokoa. Abagunekoa.

II KAPITULUA

Ekonomia EAEn

1. KANPOALDEKO INGURUNE EKONOMIKOA

"EAEko ekonomia" II. Kapitulu honetan lehen atal hau hiru epigrafetan dago banatuta. Lehenik eta behin, munduko abagune ekonomikoa azaltzeko faktore ekonomiko nagusiak aztertuko dira, arlo ekonomiko nagusien arteko desberdintasunak aintzat hartuta. Bigarrenik, eurogunearen egoera zehatza aztertzen da, baita 28ko EBrena eta estatu kide bakoitzarena ere (Per capita BPGd-a, BPGd-aren egiazko hazkundea, langabezia-tasak, produktibitateak, inflazioa eta finantza publikoak. Azkenik, hirugarren epigrafeak, alde batetik, Estatuko egoera ekonomikoa aztertzen du (egoera makroekonomikoa, ordainketa-balantza, agente publikoen gastua, zerga-bilketa eta Estatuak aintzatetsitako betebeharrak), eta bestetik, autonomia erkidegoetan BPGd-aren eta langabezia-tasen aldetik gertaturikoari buruzko ikuspegi laburra emango da.

1.1. FAKTORE EKONOMIKO NAGUSIAK[1]

Bi urtez iraun zuen hazkunde aldia oro har moteldu ondoren, munduko ekonomiaren hedapena hoztu egin zen 2018ko bigarren seihilekoan, eta agerian gelditu ziren motelaldiren zantzuak, baina jokabide desberdinak gertatu ziren eremu geografikoen arabera.

NMFren zenbatespenen arabera, BPGd-aren hazkunde erreala % 3,8 izan zen 2018ko lehen seihilekoan, baina % 3,2ra egin zuen behera bigarrenean, halako moldez non urteko hazkundea % 3,6 izan baitzen.

Ekonomia aurreratuek % 2,2 egin zuten gora urte arteko kopuruetan eta bolumenean; aurreko urtean, berriz, % 2,4, non euroguneko BPGd-a % 1,8 hazi baitzen (2017an baino 6 hamarren gutxiago. AEBetakoak % 2,9 egin zuen gora (2017an baino 7 hamarren gehiago).

Goranzko merkatuetako eta garapen bidean diren merkatuetako ekonomietan, 2017koa baino %0,3 handiagoa izan da hazkundea (%4,8tik %4,5era. Europako goranzko ekonomietan % 3,6ko hazkundea izan zen (2017ko hazkundea baino 2,4 puntu azpitik), Asiakoetan % 6,4 (%6,6 2017an) et Amerika Latinoko eta Karibeko ekonomietan % 1, 2017an % 1,2 hazi ondoren. Bestalde, Errusiako ekonomiak % 2,3 egin zuen gora (2017ko ratioa baino 7 hamarren gehiago).

II.1.1. TAULA. ALDAGAI EKONOMIKO NAGUSIEN LABURPENA

	2017	2018
BPG (URTEKO ALDAKUNTZA EHUNEKOTAN)		
MUNDUKOA	**3,8**	**3,6**
EKONOMIA AURRERATUAK (1)	**2,4**	**2,2**
AEB	2,2	2,9
JAPONIA	1,9	0,8
EUROGUNEA	2,4	1,8
BESTE EKONOMIA AURRERATU BATZUK	2,7	2,2
GORAKA ETA GARAPENEAN DIREN EKONOMIAK	4,8	4,5
AMERIKA LATINOA ETA KARIBEA	1,2	1,0
BRASIL	1,1	1,1
MEXIKO	2,1	2,0
ESTATU INDEPENDENTEEN KIDEGOA	2,4	2,8
ERRUSIA	1,6	2,3
GAINERAKOA, ERRUSIA KENDUTA	4,1	3,9
GORAKA ETA GARAPENEAN DIREN EKONOMIAK ASIAN	6,6	6,4
TXINA	6,8	6,6
INDIA	7,2	7,1
GORAKA ETA GARAPENEAN DIREN EKONOMIAK EUROPAN	6,0	3,6
EKIALDE HURBILA, AFRIKAKO IPARRALDEA, AFGANISTAN ETA PAKISTAN	2,2	1,8
AFRIKA BELTZA	2,9	3,0
ONDASUNEN ETA ZERBITZUEN MUNDUKO MERKATARITZA (HORIEN MUNDUKO ESPORTAZIOEN ETA INPORTAZIOEN URTEKO BATEZ BESTEKO ALDAKUNTZA (%)	**5,4**	**3,8**
KONTSUMITZAILEARENTZAKO PREZIOAK		
EKONOMIA AURRERATUAK	1,7	2,0
GORAKA ETA GARAPENEAN DIREN EKONOMIAK	4,3	4,8
LEHENGAIEN PREZIOAK ($) (ABENDU-ABENDUKO ALD.)		
ELIKAGAIAK	-5,2	-2,6
INDUTRIAKO PRODUKTUAK	7,5	-7,7
INDUSTRIAKO PRODUKTUAK (EZ METALAK)	-3,3	-8,4
INDUSTRIAKO PRODUKTUAK (METALAK)	12,4	-7,4
NORTH SEA BRENT PETROLIOAREN PREZIOA ($/UPELA, ABE.-ABE. ALDAK.-)	22,3	-13,4

(1) Ekonomia aurreratuak: AEB, Kanada, Japonia, Eurogunea, Erresuma Batua, Danimarka, Suedia, Norvegia, Zipre, berriki industrializatu diren Asiako ekonomiak, Israel, Islandia, Australia eta Zeelanda Berria. Berriki industrializatu diren Asiako ekonomiak: Hego Korea, Taiwan, Hong-Kong, Singapur.
(2) Bermerik gabeko maileguen interes tasa egun batera.
Iturria: NMF "Munduko ekonomiaren ikuspegiak" (2019ko apirila) eta Ekonomia eta Enpresa Ministerioa "Adierazle ekonomikoen laburpena. Taulak eta grafikoak. 2019ko otsaila"

[1] *Epigrafe honetan agertzen den informazioa hainbat iturritatik dator: Nazioarteko Moneta Funtsa, Europako Banku Zentrala, Espainiako Bankua eta Ekonomia eta Enpresa Ministerioa.*

Nazioarteko merkataritza ahuldu egin zen 2018an, hazkunde errealeko % 3,8ko hazkunde-tasekin, 2017ko ratioa baino 1,6 puntu gutxiago.

Salneurriei dagokienez, herrialde aurreratuetako inflazio orokorra % 2koa izan zen urte arteko kopuruetan, baina igoera txikiagoa izan zen urteko bigarren zatian, gehienbat petrolioaren prezioek behera egin izanaren ondorioz. Bestalde, ezkutuko inflazioak (energia eta elikagaiak kenduta) egonkor eutsi zion nolabait.

Zehazki, Brent upelaren prezioa % 13,4 jaitsi zen 2017tik 2018ra bitartean. Urrian 86 €/upeleko maximoa lortu ondoren, urtearen bukaeran 86 €/upelean kokatu zen, munduko eskari txikiagoaren gaineko aurreikuspenen eta espero zena baino eskaintza handiagoaren ondorioz, hain zuzen AEBetako ekoizpen handiagoagatik eta Irani ezarritako zigorren salbuespenengatik. Alabaina, abenduaren hasieran, OPEPek eta Errusiak petrolio ekoizpena gutxitzea erabaki zuten prezioak egonkortzeko asmoarekin. Bestalde, elikagaien salneurriek % 2,6 egin zuten gora, industriako produktu ez metalikoena % 8,4 eta industriako metalezko produktuena % 7,4, horiek guztiak dolarretan neurtuak.

Egoera horretan, nazioarteko finantza-merkatuek ere jokabide bereizia izan dute eremu geografikoen arabera: zuzenketa handiak burtsa aurreratuetan eta nolabaiteko egonkortasuna gorazko merkatuetan.

Europako Banku Zentralak, 2018an, ez zuen aldatu egun baterako esku hartzeko tasa eurogunean, eta % 0,00an eutsi zion epealdi osoan. Japoniako Bankuak ere, bestalde, esku hartzeko tasari eutsi zion 2017. urte osoan, 2016an itxi zuen moduan, hau da, -%0,10aren inguruan. AEBetako Erreserba Federalak, bestalde, lautan igo zituen tasak, martxoan %1,75, ekainean %2. Irailean % 2,25 eta abenduan %2,5[2].

II.1.2.TAULA. FINANTZA-ETA MONETA BALDINTZAK

	2017	2018
ESKU-HARTZEAREN INTERES-TASA (EPEALDIAREN AMAIERAN)		
EBB	0,00	0,00
AEB. – FUNTS FEDERALEN TASA OBJEKTIBOA	1,50	2,50
JAPONIA – CALL MONEY (1)	-0,10	-0,10
ERRESUMA BATUA	0,50	0,50
EUROAREN TRUKE-TASA **(EUROAREN BALIO-IRABAZIAREN (+) EDO GALERAREN (-) %-A, ABENDUTIK ABENDURA)**		
DOLARRA EUROKO	12,3	-3,8
LIBRA ESTERLINA EUROKO	4,5	1,7
JAPONIAKO YENA EUROKO	9,2	-4,3
BURTSA: KOTIZAZIO-INDIZEA (PORTZ. ALDAKUNTZA ABENDUTIK ABENDURA)		
DOW JONES (NEW YORK)	25,1	-5,6
NIKKEI	19,1	-12,1
EURO STOXX ZABALA	10,1	-14,8
IBEX 35	7,4	-15,0

Iturria: Ekonomia eta Enpresa Ministerioa : "Adierazle ekonomikoen laburpena". Taulak eta grafikoak. 2019ko otsail"
(1) Japoniako esku-hartzearen interesa-tasa.

2018ko lehen hiruhilekoaren eta azkenekoaren arteko aldakuntza honako hau da: hilabeterako Euriborrak eutsi egin zion -%0,37an; 3 hilabeterako Euribor -%0,33tik -%0,32ra igaro zen sei hilabeterako Euribor -%0,27tik -%0,25era igaro zen eta urtebeterako Euribor -%0,17tik -%0,14ra igaro zen. Betalde, gora egin zuen EBBko bizi diren familien zerbitzurako irabazteko asmorik gabeko etxeei eta erakundeei kreditua ematen dieten erakundeen tasak (IPSLSH) UTBren kopuruetan (komisioak barne), kontsumorako prezioetan (% 8,27tik % % 8,29ra) nahiz etxebizitzarako kredituetan (%2,05etik %2,24ra).

Dibisen merkatuari dagokionez, euroaren balio-galera bereziki nabarmena izan zen AEBetako dolarrarekiko eta Japoniako yenarekiko. Aldi berean, euroak balioa hartu zuen libra esterlinarekiko eta, nabarmen, gorazko ekonomietako moneta gehienekiko, bereziki Txinako renminbiarekiko.

Zehazki, dolarren egiazko truke-tasa 1,138 $/€ izan zen 2018ko abenduan, 2017ko abenduan 1,184 $/€ izan ondoren, hots, euroak balioa galdu zuen dolarrarekiko: % 3,8.

Munduko burtsa merkatuetan, IBEX35ek nahiz Dow Jonesek, Nikkeik eta Euro Stoxxek atzera egin zuten 2017ko abendutik 2018ko abendura. Zehazki, -% 15 IBEX 35ek, -%14,8 Euro Stoxxek, -% 12,1 NIKKEIk eta -% 5,6 Dow Jonesek.

[2] *Ekonomia eta Enpresa Ministerioaren 2019ko apirilaren Adierazle Ekonomikoen Laburpenean bildutako datuak.*

1.2. EUROPAR BATASUNA. EUROGUNEA

Esku artean dugun informazioaren arabera (NMF, Europako Banku Zentralaren urteko txostena eta ekonomia aldizkaria eta Espainiako Bankuaren ekonomia aldizkaria), eurogunean luzatu egin zen hasieran ikusitako hazkunde txikiagoaren aldia 2018ko bigarren seihilekoan, urtean agertutako kontrako zenbait faktorek eraginda. Hala, BPGd-aren hazkundeak (kopuru errealetan) indarra galdu zuen: 2017ko % 2,4koa izatetik 2018ko % 1,8koa izatera.

Munduko merkataritzaren ahultze nabarmenak eta herrialde eta sektore jakin batzuekin lotutako beste faktore batzuek eragina izan zuten kanpoko sektorean eta manufakturaren sektorean (industriak, oro har, % 1,3ko hazkundea izan zuen urte arteko kopuruetako bolumenean, 2017an baino 2,1 puntu gutxiago. Faktoreetako bat, hain zuzen ere, ibilgailuen igorpen kutsatzaileei buruzko arau berria sartzeak autogintzan izan duen eragina izan da.

Esportazioen ahuleziagatik gertatu zen motelaldia, munduko merkataritzaren hazkunde txikiagoaren eraginez, ziurgabetasun handiagoko ingurunean, hain zuzen zenbait ekonomiatako joera protekzionistagatik eta brexitaren azken akordioaren baldintzei buruzko zalantzengatik. Barne-eskariak, aldiz, jokabide sendoagoari eutsi zion, indarreko finantza-baldintza onetan, enpleguaren dinamismoan eta familien eta enpresen errentaren hazkundean oinarrituta. Alabaina, enpresen inbertsioaren hazkundea moteldu egin zen, eta ziurgabetasunaren ingurunea enpresek inbertsioak egiteko hartzen dituzten erabakietan eragina izaten ari den zantzua izan daiteke hori; izan ere, dagoeneko enpresen konfiantzak okerrera egin du.

Lan-merkatuari dagokionez, % 1,5 egin zuen gora enpleguak, eta langabezia-tasa % 7,9raino jaitsi zen abenduan, tasarik txikiena 2008ko urritik.

Inflazio orokorrak % 1,5 egin zuen gora aurreko urtearen aldean 2017ko abendutik 2018ko abendura, gehienbat energiaren prezioen igoeragatik. Bestalde, ezkutuko inflazioaren gaineko neurriek oro har jokabide egonkorra erakutsi zuten urtean zehar.

II.1.3. TAULA. EUROGUNEKO ADIERAZLE EKONOMIKO NAGUSIAK (URTEKO ALDAKUNTZA-TASAK)

	2016	2017	2018	2018			
				I	II	III	IV
BPG MERKATUKO PREZIOETAN	**1,9**	**2,4**	**1,8**	**2,4**	**2,2**	**1,6**	**1,2**
BARNE-ESKARIA							
AMAIERAKO KONTSUMO PRIBATUKO GASTUA	1,9	1,8	1,3	**1,7**	**1,4**	**1,0**	**1,9**
AMAIERAKO KONTSUMO PUBLIKOKO GASTUA	1,8	1,2	1,1	1,1	1,2	0,8	1,2
IOK FINKOA *(AKTIBO FINKO MATERIALAK, ETXEBIZITZAK ETA BESTE ERAIKIN ETA ERAIKUNTZA BATZUK; MAKINERIA, EKIPO-ONDASUNAK ETA ARMAMENTU-SISTEMAK; ETA JABETZA INTELEKTUALEKO PRODUKTUAK)*	4,0	2,9	3,3	3,4	2,9	3,4	3,5
KANPO-ESKARIA							
BPG-AREN ALDAKUNTZA-TASARAKO EKARPENA	-0,4	0,8	0,1	0,6	0,7	-0,2	-0,5
ESPORTAZIOAK	3,0	5,5	3,1	3,9	4,0	2,8	1,9
INPORTAZIOAK	4,2	4,1	3,1	2,9	2,8	3,6	3,2
EGIAZKO BEG							
NEKAZARITZA	-1,4	0,8	0,8	1,7	1,5	0,1	-0,1
INDUSTRIA	3,4	3,4	1,3	3,2	2,4	0,8	-1,1
ERAIKUNTZA	2,8	2,6	1,9	2,7	2,0	1,5	1,5
MERKATUKO ZERBITZUAK	1,5	2,2	1,9	2,3	2,1	1,8	1,7
ENPLEGUA, GUZTIRA (URTE ARTEKO ALDAKUNTZA-TASA)	1,4	1,6	1,5	1,6	1,6	1,4	1,4
LANGABEZIA-TASA (BIZTANLERIA AKTIBOAREKIKO %)	10,0	9,1	8,2	8,5	8,3	8,1	7,9

Iturria: Espainiako Bankua, Adierazleen Laburpena. 2019ko maiatzak 8.

EBko herrialdeen multzoari gagozkiola, EUROSTATen arabera, hona hemen egoera.

Per capita BPGd-a, PPSen neurtua[3]. Mailaren araberako analisia egiten da, ez bilakaeraren araberakoa, eta 28ko EBren batez bestekoa hartzen da kontuan; 28ko EB=100. Hona hemen eurogunearen batez bestekoaren balio berdina edo handiagoa duten herrialdeak gaineko balioa[4] (106), 2017an: Luxenburgo (253), Irlanda (181), Herbehereak eta Danimarka (128 bakoitzean), Austria (127), Alemania (124), Suedia (121), Belgika (117) eta Finlandia (109).

Euroguneko batez bestekoaren azpitik, baina %100ren gainetik ondorengoak daude: Erresuma Batua (105) eta Frantzia (104).

80 eta 100 bitartekoak dituzte Italiak eta Maltak (96 bakoitzean), Espainiak (92), Txekiar Errepublikak (89) eta Ziprek eta Esloveniak (85 bietan).

BPGaren aldaketa-tasa egiazko baldintzetan. 2018an, %2ko hazkundea izan zen 28ko EBn eta % 1,8koa eurogunean, 2017an bai 28ko EBn bai eurogunean izandako % 2,4ko ratioen azpitik.

Hona hemen hazkunde-tasarik handienak, %3aren gainetik: Irlanda (% 6,7), Malta (% 6,6), Polonia (% 5,1), Hungaria (% 4,9), Letonia (% 4,8), Eslovenia (% 4,5), Errumania eta Eslovakia (bietan % 4,1), Estonia eta Zipre (bietan % 3,9), Lituania (% 3,5) eta Bulgaria (% 3,1).

%3aren azpitik baina 28ko EBko batez bestekoaren gainetik (% 2) honako hauek daude: Txekiar Errepublika (% 2,9), Herbehereak eta Austria (bietan % 2,7), Espainia, Kroazia eta Luxenburgo (hiruretan % 2,6) eta Finlandia eta Suedia (bietan % 2,3).

EBko estatu gehienetan izan da hazkunde txikiagoa. Salbuespenak: Grezia, Luxenburgo, Hungaria, Austria, Polonia, Eslovakia eta Italia.

Langabezia-tasa. 2018an, 28ko EBn % 6,8 zen eta % 8,2 eurogunea. Tasarik txikienak dituztenak: Txekiar Errepublika (% 2,2), Alemania (% 3,4), Hungaria eta Malta (bietan % 3,7), Herbehereak (% 3,8), Polonia (% 3,9) eta Erresuma Batua (%4). 28ko EBko handienak, berriz, Grezian (% 19,3), Espainian (% 15,3), Italian (% 10,6) eta Frantzian (% 9,1)

Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuak (KPIH) Europar Batasuneko inflazioaren batez besteko komuna ematen du[5]. Eurogunean aipatu bezala, KPIHak % 1,5 egin zuen gora 2017ko abendutik 2018ko abendura. Espainiako estatuan % 1,2ko igoera izan zen. Azterketa sakonagoa egin nahi izanez gero, jo beza irakurleak kapitulu honetako "II.2. Abagune ekonomikoa" deritzon atalera.

---

[3] *PPS: erosahalmenaren parekotasuna*

[4] *19ko Eurogunea: Alemania, Austria, Belgika, Zipre, Eslovakia, Eslovenia, Espainia, Estonia, Finlandia, Frantzia, Grezia, Irlanda, Italia, Lituania, Letonia, Luxenburgo, Malta, Herbehereak eta Portugal.*

[5] *Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuak (KPIH) Europar Batasuneko inflazioaren batez besteko komuna ematen du. Alderaketa homogeneo hauek lortzeko, KPIan biltzen diren eta haren %5 inguru hartzen duten kontsumoko partida jakin batzuk kanpoan utzi behar izan dira (horrela, adibidez, KPIHtik kanpo geratzen dira Osasun zerbitzuak, Irakaskuntza arautua, Sendagaiak eta diruz lagundutako farmaziako produktuak, eta abar.).*

Lan-produktibitatea lan egindako ordu bakoitzeko. Lan egindako ordu bakoitzeko lan-produktibitatea kalkulatzeko, ekoizpena bide lan-eskuko unitatea egiten da (lan egindako guztizko ordu kopurua). Lan egindako ordu bakoitzeko lan-produktibitatearen neurketak irudi hobea ematen du ekonomiaren produktibitatearen bilakaeraren gainean enplegatu bakoitzeko lan-produktibitateak baino, zeren eta ezabatu egiten baititu lanaldi osoko edota lanaldi partzialeko lan-indarraren eraketako desberdintasunak herrialdeetan eta urteetan.

Mailaren araberako analisia egiten da, ez bilakaeraren araberakoa, eta 28ko EBren batez bestekoa hartzen da kontuan; 28ko EB=100. 2017an, eskuetan dugun azken datuen arabera, 19ko euroguneko batez bestekoa 111,3 izan zen 100eko oinarrian. Hona hemen produktibitate handieneko estatuak: Irlanda (176), Luxenburgo (174,2), Belgika (135,8), Danimarka (135,1), Alemania (127,6), Herbehereak (126,3), Frantzia (123,1), Austria (117,4) eta Suedia (113,4).

Euroguneko batez bestekoaren azpitik baina 28ko EBko batez bestekoaren gainetik: Finlandia (108,7) eta Italia (101,6). 28ko EBko batez bestekoaren ondotik Erresuma Batua (97,9) eta Espainia (97,5) daude.

II.1.4. EUROPAR BATASUNEKO EKONOMIAREN BILAKAERA

	PER CAPITA BPG (1)		EGIAZKO BPG-AREN HAZKUNDEA		LANGABEZIA-TASA		LANGABEZIA-TASA		INFLAZIOA (KPIH) (ALD.: ABENDUTIK ABENDURA)	LAN EGINDAKO ORDUKO PRODUKTIBITATEA (2)	
	2016	2017	2017	2018	2017	2018	2018	Objetivo	2018	2016	2017
28KO EB	**100**	**100**	**2,4**	**2**	**7,6**	**6,8**	**73,2**	**75**	**1,6**	**100**	**100**
EUROGUNEA (19)	**106**	**106**	**2,4**	**1,8**	**9,1**	**8,2**	**72**	**:**	**1,5**	**111,7**	**111,3**
BELGIKA	118	117	1,7	1,4	7,1	6	69,7	73,2	2,2	137,3	135,8
BULGARIA	48	49	3,8	3,1	6,2	5,2	72,4	76	2,3	45,2	45,2
TXEKIAR E.	88	89	4,4	2,9	2,9	2,2	79,9	75	1,6	73,6	74,6
DANIMARKA	126	128	2,3	1,4	5,7	5	78,2	80	0,7	132,5	135,1
ALEMANIA	124	124	2,2	1,4	3,8	3,4	79,9	77	1,7	127,9	127,6
ESTONIA	77	79	4,9	3,9	5,8	5,4	79,5	76	3,3	64,9	65,4
IRLANDA	177	181	7,2	6,7	6,7	5,8	74,1	69	0,8	173,4	176
GREZIA	68	67	1,5	1,9	21,5	19,3	59,5	70	0,6	65,6	64,1
ESPAINIA	**91**	**92**	**3**	**2,6**	**17,2**	**15,3**	**67**	**74**	**1,2**	**97,5**	**97,5**
FRANTZIA	104	104	2,2	1,5	9,4	9,1	71,3	75	1,9	123,3	123,1
KROAZIA	61	62	2,9	2,6	11	8,5	65,2	62,9	1,0	64,5	64,3
ITALIA	97	96	1,7	0,9	11,2	10,6	63	67	1,2	102,5	101,6
ZIPRE	84	85	4,5	3,9	11,1	8,4	73,9	75	1,0	76,7	76,3
LETONIA	64	67	4,6	4,8	8,7	7,4	76,8	73	2,5	55,6	58,3
LITUANIA	75	78	4,1	3,5	7,1	6,2	77,8	72,8	1,8	62,7	66,6
LUXENBURGO	260	253	1,5	2,6	5,6	5,4	72,1	73	1,9	178,7	174,2
HUNGARIA	67	68	4,1	4,9	4,2	3,7	74,4	75	2,8	62,3	63,1
MALTA	94	96	6,7	6,6	4	3,7	75	70	1,2	78,7	81,6
HOLANDA	128	128	2,9	2,7	4,9	3,8	79,2	80	1,8	126,3	126,3
AUSTRIA	128	127	2,6	2,7	5,5	4,9	76,2	77	1,7	118,9	117,4
POLONIA	68	70	4,8	5,1	4,9	3,9	72,2	71	0,9	59	60,7
PORTUGAL	77	77	2,8	2,1	9	7	75,4	75	0,6	67,9	65,6
ERRUMANIA	59	63	7	4,1	4,9	4,2	69,9	70	3,0	57,1	58,8
ESLOVENIA	83	85	4,9	4,5	6,6	5,1	75,4	75	1,4	79,9	82,4
ESLOVAKIA	77	76	3,2	4,1	8,1	6,5	72,4	72	1,9	76,9	76,6
FINLANDIA	109	109	2,7	2,3	8,6	7,4	76,3	78	1,3	108,1	108,7
SUEDIA	122	121	2,1	2,3	6,7	6,3	82,6	80	2,2	113,4	113,4
ERRESUMA B	107	105	1,8	1,4	4,4	4	78,7	:	2,1	98,2	97,9

(1) PP-tan. 28ko EB=100 (2) PPS-tan. 28ko EB=100
Iturria: EUROSTAT

Herri finantzak: Egonkortasun eta Hazkuntza Itunaren xedapenekin bat, Estatu kideek bi balioen azpitik mantentzeko konpromisoa hartzen dute: %3ko defizit/BPG ratioa eta %60ko zor/BPG ratioa. Itun horretan, zuzenketa egiteko asmoak eraentzen du gehiegizko defizitaren protokoloa, hain zuzen ere defizit publiko handiegiak edo zor publiko handiegia berehala zuzentzeko xedez.

Euroguneko herri administrazioen zorra berriz ere murriztu zen 2018an EBko ia estatu guztietan, Grezian, Frantzian (eutsi egiten zaio) Italian eta Zipren izan ezik.

EUROSTATen datuen arabera, 2018. urtean eurogunea19n BPGaren gainean herri-zorra %85,1ekoa izan zen, 2017. urteko %87,1en aldean.

% 60ko atalasea gainditu zen Erresuma Batuan (% 86,8), Espainian (% 97,1), Frantzian (% 98,4), Belgikan (% 102), Zipren (% 102,5), Portugalen (% 121,5), Italian (% 132,2) eta Grezian (% 181,1).

Defizitari dagokionez, 19ko eurogunean, defizit publikoa BPGd-aren %0,5eko maila baliokidean kokatu zen. 2017an, berriz, %1 zen.

Soilik Ziprek (-% 4,8) gainditu zuen BPGd-aren % 3ko muga. -% 0,6 eta -%3 bitartean daude Estonia (-% 0,6), Finlandia, Eslovakia, Belgika, Letonia, Erreuma Batua, Italia, Hungaria, Frantzia, Espainia eta Errumania (-%3). Irlandak ratio nulua izan zuen eta gainerakoek superabita.

II.1.5.TAULA. HERRI-FINANTZAK EB-N

	GOBERNUAREN ZOR PUBLIKOAREN % BPG-AREKIKO		DEFIZIT(-)/ SUPERABIT (+)PUBLIKOAREN % BPG-AREKIKO (NAZIO MONETETAN)	
	2017	2018	2017	2018
28KO EB	81,7	80	-1	-0,6
EUROGUNEA (19)	87,1	85,1	-1	-0,5
BELGIKA	103,4	102	-0,8	-0,7
BULGARIA	25,6	22,6	1,2	2
TXEKIAR E.	34,7	32,7	1,6	0,9
DANIMARKA	35,5	34,1	1,4	0,5
ALEMANIA	64,5	60,9	1	1,7
ESTONIA	9,2	8,4	-0,4	-0,6
IRLANDA	68,5	64,8	-0,3	0
GREZIA	176,2	181,1	0,7	1,1
ESPAINIA	98,1	97,1	-3,1	-2,5
FRANTZIA	98,4	98,4	-2,8	-2,5
KROAZIA	77,8	74,6	0,8	0,2
ITALIA	131,4	132,2	-2,4	-2,1
ZIPRE	95,8	102,5	1,8	-4,8
LETONIA	40	35,9	-0,6	-1
LITUANIA	39,4	34,2	0,5	0,7
LUXENBURGO	23	21,4	1,4	2,4
HUNGARIA	73,4	70,8	-2,2	-2,2
MALTA	50,2	46	3,4	2
HOLANDA	57	52,4	1,2	1,5
AUSTRIA	78,2	73,8	-0,8	0,1
POLONIA	50,6	48,9	-1,5	-0,4
PORTUGAL	124,8	121,5	-3	-0,5
ERRUMANIA	35,2	35	-2,7	-3
ESLOVENIA	74,1	70,1	0	0,7
ESLOVAKIA	50,9	48,9	-0,8	-0,7
FINLANDIA	61,3	58,9	-0,8	-0,7
SUEDIA	40,8	38,8	1,4	0,9
ERRESUMA B.	87,1	86,8	-1,9	-1,5

Iturria: EUROSTAT

1.3. ESPAINIAKO EKONOMIA ETA AUTONOMIA ERKIDEGOAK

1.3.1. Espainiako ekonomia

Eskuragarri dugun informazioaren arabera (besteak beste, EINen Hiruhilekoetan Nazio Kontabilitatea eta Espainiako Bankuaren Ekonomia Aldizkaria), Espainia ez da egon kanpoko gorabeheretatik aparte, eta halaxe gelditu zen agerian 2018ko azken zatian, esportazioek indar nabarmena galdu zutenean.

EINen arabera, 2018ko BPGd-ak urte arteko % 2,6ko hazkundea izan zuen batez beste, 2016an baino 4 hamarren txikiagoa, baina eurogunekoa baino 8 hamarren handiagoa (% 1,8).

Hainbat faktore daude kanpoko sektorearen dinamismoaren galera hori azaltzeko, eta horien artean funtseko eginkizuna betetzen du munduko gainerako herrialdeetatiko eskariaren indarra galtzeak. Bilakaera horretan zerikusia izan dute euroak 2017an izan zuen balio galeraren ondorio desfasatuek eta, turismoaren zerbitzuen arloan, Mediterraneoko jomuga lehiatzaileek indarra berreskuratu izana (aurreko urteetan, kaltetuak izan ziren segurtasunik ezagatik).

Alabaina, barne-eskariaren dinamismoak kanpoko ingurunearen okertzea konpentsatu zuen, halako moldez non ez baita gertatu EBBn izandakoa bezalako jarduera motelaldia.

Bereziki, Kontsumo pribatuak indartsu eusten dio, atzean honako ezaugarri hauek direla betiere: enpleguaren sorkuntza, errenten erosahalmen handiagoa inflazioak behera egin izanaren ondorioz (zati batez, petrolioaren prezioen jaitsieragatik), familien errentaren aurrekontu handiagoa (batez ere 2018ko bigarren zatitik hasita) eta aurrezpen-tasaren beherakada. Inbertsio pribatua, aldiz, kanpoko ingurunearen egoera okerragoaren eragina jasaten ari dela ematen du. Izan ere, ekoizpen-adarren aldetik, manufaktura-jardueraren beherakadan islatu da egoera txarrago hori, baina zerbitzuek indarra hartu dutela dirudi.

Inflazioaren arloan, kontsumoko prezioen adierazle orokorrak motelaldi nabarmena izan zuen 2018ko amaieran, % 1,2an hain zuzen. Ezkutuko osagaiak, ordea, nahikoa ibilbide egonkorra erakutsi du urteko azken hileetan.

BPGd-aren bilakaeraren ildo beretik, %2,5ekoa izan zen LOPLko biztanleriaren batez besteko hazkundea 2018. urtean, Kontabilitate Nazionalaren arabera, 2017. urteko ratioa baino %0,4 gutxiago. Soldatapekoen aurrerapena %3,2koa izan zen, 2017ko ratio bera.

Bestalde, EINen Biztanleria Aktiboaren Inkestak (BAI) agerian uzten du langabezia-tasaren gorako joera (16 urtetik gorakoena), % 15,4ra murriztu zen, urte osoan beherazko profila izanda: lehen hiruhilekoan %16,7 eta laugarren hiruhilekoan, berriz, %14,5.

II.1.6. TAULA. ESTATUKO EGOERA MAKROEKONOMIKOA.
URTEKO ALDAKUNTZA-TASAK. BOLUMEN KATEATUA. URTAROKO ETA EGUTEGIKO ONDORIOEN DATU ZUZENDUAK.

	2017	2018	2017				2018			
			I. H	II.H	III.H	IV.H	I.H	II.H	II.HI	IV.H
ESKARI NAZIONALA (*)	**2,9**	**2,9**	**2,5**	**2,6**	**3,2**	**3,3**	**3,1**	**3,3**	**2,7**	**2,5**
AMAIERAKO KONTSUMOKO GASTUA	**2,4**	**2,3**	**2,0**	**2,3**	**2,4**	**2,7**	**2,8**	**2,2**	**2,0**	**2,0**
ETXEETAKO AMAIERAKO KONTSUMOKO GASTUA	2,5	2,3	2,3	2,5	2,6	2,7	3,0	2,3	2,0	2,0
AA.PP.EN AMAIERAKO KONTSUMOKO GASTUA	1,9	2,1	1,2	1,7	2,0	2,6	2,2	2,0	2,2	2,2
KAPITAL FINKOAREN ERAKETA GORDINA	**4,8**	**5,3**	**4,7**	**3,6**	**5,8**	**5,2**	**3,9**	**7,5**	**5,3**	**4,4**
AKTIBO FINKO MATERIALAK	5,1	5,8	5,0	3,6	6,0	5,6	4,1	8,4	5,9	4,8
ETXEBIZITZAK ETA BESTE ERAIKIN ETA ERAIKUNTZA BATZUK	4,6	6,2	3,9	4,1	5,7	4,8	5,8	7,0	5,7	6,3
MAKINERIA, EKIPO ONDASUNAK ETA ARMAMENTU SISTEMAK	6,0	5,4	7,0	3,3	6,8	7,0	1,9	10,6	6,3	2,8
JABETZA INTELEKTUALEKO PRODUKTUAK	3,5	2,1	3,1	3,5	4,5	3,1	2,9	2,3	1,5	1,9
KANPOKO ESKARIA (*)	0,1	-0,3	0,4	0,5	-0,3	-0,2	-0,2	-0,7	-0,2	-0,2
ONDASUNEN ETA ZERBITZUEN ESPORTAZIOA	5,2	2,3	6,1	5,4	5,4	4,2	3,8	2,6	1,7	1,0
ONDASUNEN ETA ZERBITZUEN INPORTAZIOAK	5,6	3,5	5,5	4,4	7,0	5,4	4,8	5,1	2,3	1,7
BARNE PRODUKTU GORDINA MERKATUKO PREZIOETAN	**3,0**	**2,6**	**2,9**	**3,1**	**2,9**	**3,1**	**2,9**	**2,6**	**2,5**	**2,3**
NEKAZARITZA, ABELTZAINTZA, BASOGINTZA ETA ARRANTZA	-0,9	2,6	-0,7	-2,5	-0,8	0,4	2,8	4,8	-0,5	3,6
INDUSTRIA	4,4	1,1	4,6	4,2	4,0	4,9	2,6	2,0	1,1	-1,3
- MANUFAKTURA-INDUSTRIA	4,4	1,4	3,7	3,7	4,6	5,4	2,8	2,5	1,0	-0,5
ERAIKUNTZA	6,2	7,6	5,3	6,5	6,0	6,8	7,5	7,5	8,1	7,2
ZERBITZUAK	2,5	2,7	2,3	2,6	2,5	2,5	2,6	2,5	2,7	3,0
- MERKATARITZA, GARRAIOA ETA OSTALARITZA	3,4	3,0	3,8	3,6	3,4	2,9	2,9	3,0	3,0	3,2
- INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOAK	4,1	4,6	4,3	3,6	4,3	4,1	4,9	5,6	4,1	3,9
- FINANTZA- ETA ASEGURU-JARDUERAK	0,4	2,3	-1,8	1,5	2,2	-0,5	1,6	1,3	2,0	4,6
- HIGIEZINEN ARLOKO JARDUERAK	0,1	0,6	0,4	0,1	-0,3	0,0	0,1	0,4	0,7	1,2
- LANBIDE JARDUERAK	5,3	6,1	4,3	5,2	5,9	5,9	6,0	5,9	6,2	6,1
- ADMINISTRAZIO PUBLIKOA, OSASUNA ETA HEZKUNTZA	1,7	2,2	1,3	1,8	1,6	2,2	2,1	2,0	2,4	2,5
- ARTE- ETA JOLAS-JARDUERAK ETA BESTE ZERBITZU BATZUK	1,6	-0,2	0,8	1,7	1,4	2,6	1,4	-1,9	0,1	-0,5
PRODUKTUEN GAINEKO ZERGA GARBIAK	3,3	1,4	3,4	4,2	3,1	2,7	3,0	1,0	0,9	0,9
LAN-MERKATUA										
LANALDI OSOKO LANPOSTUAK										
LANDUNAK	2,9	2,5	2,7	2,9	2,9	2,9	2,6	2,5	2,4	2,6
SOLDATAPEKOAK	3,2	3,2	2,9	3,3	3,3	3,4	3,2	3,2	3,2	3,3
16 URTE ETA GEHIAGOKOEN LANGABEZIA-TASA (BAI)	17,3	15,4	18,8	17,2	16,4	16,6	16,7	15,3	14,6	14,5

(*) Merkatuko prezioetako BPGd-ari egindako ekarpena.
Iturria: EIN (Hiruhilekoko Kontabilitatea eta BAI) eta Espainiako Bankua. Adierazle ekonomiko orokorrak

Ordainketaren balantzari dagokionez, 2018. urtean ekonomiak berriz ere finantzazio-gaitasuna[6]. Alabaina, finantza-ahalmen hori (superabita) 17.705 milioi eurokoa izan zen, hots, BPGd-aren % 1,5. Aurreko aldian, berriz, % 2,2 izan zen, % 2,4 2016an.

Estatuko administrazio publikoek defizitarekin bukatu zuten 2018. urtean, Nazio Kontabilitatearen arabera neurtua: 29.982 milioi (behin-behineko datuak), hots, BPGD-aren %3,1etik %2,5era igarotzea 2017 eta 2018 bitartean.

Banakapena eginez, administrazio zentralak nahiz autonomia erkidegoak eta Gizarte Segurantzak defizitarekin itxi zituzten kontuak: %1,4, %0,2 eta %1,4 hurrenez hurren. Tokiko Korporazioek (TTKK), aldiz, %0,5eko superabita izan zuten.

II.1.7. TAULA. ESPAINIAKO EKONOMIAREN ORDAINKETA-BALANTZA *(MILIOI EUROTAN)*

	2016 bb	2017bbp	2018bbp
PPG BB	1.118.743	1.166.319	1.208.248
FINANTZAKETA GAITASUNA/BEHARRA	26.646	25.096	17.705
BPG-AREKIKO (%)	2,4	2,2	1,5
KONTU KORRONTEKO SALDOA ETA KAPITALA	27.786	24.196	17.642
KONTU KORRONTEA	25.245	21.512	11.260
ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK	35.965	33.628	23.527
ERRENTAK	-10.720	-12.116	-12.266
KAPITAL KONTUA	2.541	2.684	6.381
FINANTZA-SALDOA	24.824	21.536	22.341
GUZTIRA, ESPAINIAKO BANKUA IZAN EZIK	77.457	53.600	37.190
ZUZENEKO INBERTSIOA	14.430	16.901	-10.141
ZORRO INBERTSIOA	39.176	18.196	1.537
BESTE INBERTSIO BATZUK	26.793	20.730	44.895
FINANTZA-DERIBATU GARBIAK	-2.941	-2.228	899
ESPAINIAKO BANKUA	-52.634	-32.064	-14.849
ERRESERBAK	8.233	3.533	2.136
POSIZIO GARBIA EB EUROSISTEMAREN AURREAN	-59.707	-31.266	-9.487
BESTE EB BATZUK	-1.159	-4.331	-7.499

bb: behin-behinekoa
Iturria: Espainiako Bankua. "Adierazle ekonomikoak"

II.1.8.TAULA. SALDO PUBLIKOA AGENTEEN ARABERA (MILIOI EUROTAN)

	MILIOI €				BPG-AREN %			
	2015 b	2016 b	2017 b	2018 bb	2015 b	2016 b	2017 b	2018bp
ADMINIS. PUBLIKOEN FINANTZAZIO GAIT. (+) /BEHARRA (-) CNE-REN ARABERA	**-57.004**	**-49.996**	**-35.903**	**-29.982**	**-5,3**	**-4,5**	**-3,1**	**-2,5**
ADMINISTRAZIO ZENTRALA	-29.846	-29.632	-22.036	-16.376	-2,8	-2,6	-1,9	-1,4
AUTONOMIA ERKIDEGOAK	-18.701	-9.629	-4.231	-2.810	-1,7	-0,9	-0,4	-0,2
TOKIKO KORPORAZIOAK	4.581	6.985	7.139	6.292	0,4	0,6	0,6	0,5
GIZARTE SEGURANTZAREN ADMINISTRAZIOAK	-13.038	-17.720	-16.775	-17.088	-1,2	-1,6	-1,4	-1,4

bB: behin-behinekoa
Iturria: Espainiako Bankua. "Adierazle ekonomikoak"

Diru-sarrerak direla eta zerga nagusietako zerga-bilketak, autonomia erkidegoen eta tokiko korporazioen partaidetza aintzat hartuta, hazkundea izan zuen (+%7,6). Igoera gertatu da gehienbat zuzeneko zergen bilketan izandako %7,6ko hazkundeagatik (sozietateen gaineko zergan %7,3, PFEZ %7,6 eta "beste batzuk" partidak %8,5 igota); hala ere, zeharkakoek ere gora egin dute, %7,7 hain zuzen (BEZ %10,3, zerga bereziena %1,1 eta "beste batzuk" partida %0,3 igota).

Bestalde, estatuak aitortutako obligazioek % 2,5 egin zuten gora, kapitulu hauen igoeraren ondorioz: inbertsioak (% 64), pertsonala eta ohiko transferentziak (bi partidetan % 3,5eko igoerak) eta kapital transferentziak (% 2,1), baina jaitsierak gertatu dira interesetan (-%0,9) eta ondasunen eta zerbitzuen erosketan (-%0,6).

[6] *Eginiko inbertsioari aurre egiteko ekonomiaren sektoreek sortutako aurrezpena nahikoa ez denean sortzen da, eta Kontu Korronteko Balantzaren eta Kapitalaren saldoen eta kanpoan bizi diren egoiliarren inbertsioen batura eginez kalkulatzen da.*

II.1.9. TAULA. ESTATUAREN ZERGEN BILKETA (AA.EE.EK ETA TOKIKO KORPORAZIOEK PFEZ-N, BEZ-N ETA ZERGA BEREZIETAN DUTEN PARTAIDETZA BARNE) (MILIOI EUROTAN)											
	ZUZENEKO ZERGAK				ZEHARKAKO ZERGAK				GUZTIRA		
	GUZTIRA	PFEZ	SOZIETAT.	BESTE	**GUZTIRA**	BEZ	BEREZIAK	BESTE	ESTATUA	AA.EE. TT.KK.	**GUZTIRA**
2013	**94.040**	69.946	19.964	4.130	**73.733**	51.939	19.073	2.722	97.796	69.977	**167.773**
2014	**95.571**	72.655	18.694	4.221	**78.225**	56.166	19.104	2.956	101.933	71863	**173.796**
2015	**97.789**	72.346	20.649	4.795	**82.726**	60.305	19.147	3.275	107.354	73.161	**180.516**
2016	**98.854**	72.416	21.678	4.760	**86.122**	62.845	19.866	3.410	104.915	80.061	**184.976**
2017	**105.402**	77.038	23.143	5.221	**87.518**	63.647	20.308	3.563	104.541	88.379	**192.920**
2018	**113.363**	82.859	24.838	5.667	**94.278**	70.177	20.528	3.573	115.287	92.354	**207.641**
16-17 ald.	**6,6**	6,4	6,8	9,7	**1,6**	1,3	2,2	4,5	-0,4	10,4	**4,3**
17-18 ald.	**7,6**	7,6	7,3	8,5	**7,7**	10,3	1,1	0,3	10,3	4,5	**7,6**

Iturria: Ekonomia eta Enpresa Ministerioa. Adierazle Ekonomikoan Laburpena. Taulak eta grafikoak, 2018ko otsaila.

II.1.10. TAULA. AURREKONTU-BETEARAZPENA. ESTATUAK ONARTUTAKO OBLIGAZIOAK (MILIOI EUROTAN)							
	PERTSONALA*	ONDASUN ETA ZERBIT. EROSK.	INTERESAK	PHI-KO TRANSFERENTZIAK*	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	INBERTSIOAK	**GUZTIRA**
2013	15.708	3.190	28.410	101.314	7.163	5.457	**161.242**
2014	15.640	3.307	31.818	95.367	8.630	5.161	**159.922**
2015	16.088	3.511	31.745	91.291	9.730	5.281	**157.645**
2016	16.205	3.286	32.063	87.005	7.843	3.932	**150.333**
2017	15.966	3.472	30.325	85.379	8.241	5.603	**148.987**
2018	16.527	3.452	30.047	88.341	8.413	5.962	**152.742**
16-17 ald.	-1,5	5,7	-5,4	-1,9	5,1	42,5	-0,9
17-18 ald.	3,5	-0,6	-0,9	3,5	2,1	6,4	2,5

(*) 2014. urtean izandako aldaketarekiko datu homogeneizatuak. Estatuak ordaindutako pentsioak tratatu dira. Datu bateratuak 2014an sartutako aldaketari dagokionez, estatuak ordaindutako pentsioen trataerari buruzkoak.
Iturria: Ekonomia eta Enpresa Ministerioa. Adierazle Ekonomikoan Laburpena. Taulak eta grafikoak, 6.4. obligazioak.2018ko otsaila.

1.3.2. Autonomia erkidegoak

EINen Eskualde Kontabilitatearen datu ofizialen arabera, biztanleko BPG izendunari erreparatuta, Madrilgo Erkidegoak izan zuen kopururik handiena, 34.916 euro biztanleko 2018an. Ondoren datoz EAE (34.079 euro), Nafarroa (31.809 euro) eta Katalunia (30.769 euro Beste muturrean, Gaztela-Mantxa (20.645 euro biztanleko), Ceuta (20.032 euro) eta Andaluzia (19.132 euro), Melilla (18.482 euro) eta Extremadura (18.174 euro). Estatuko batez bestekoa 25.854 izan zen.

BPGd-aren hazkunde handienak izan zituzten eskualdeak, 2018an, hauexek izan ziren bolumenean: Madril (% 3,7), Kantabria (% 3,4), Nafarroa (% 3,0), Gaztela-Mantxa (% 2,8) eta Galizia (% 2,7). Horietan guztietan, estatuko batez betekoak

II.1.11. TAULA. AA.EE.EN BPG-AREN HAZKUNDEA, ENPLEGUA ETA LANGABEZIA-TASAK							
	LANGABEZIA-TASA (16-64 URTE)		BPG BOLUMEN-ALDAKETA		BIZNTALEKO BPG		
	2017	2018	2017 a	2018 z	2016 a	2017 z	
					ESTATUA = 100	ESTATUA = 100	BIZTANLEKO €
GUZTIRA	**17,3**	**15,4**	**3,0**	**2,6**	**100**	**100**	**25.854**
ANDALUZIA	25,7	23,1	2,7	2,4	70,8	71,3	19.132
ARAGOI	11,7	10,7	3,4	2,5	105,6	106,7	28.640
ASTURIAS	13,9	13,8	3,8	2,3	84,9	86,0	23.087
BALEAR U.	12,6	11,6	2,4	2,2	100,4	99,7	26.764
KANARIAR U.	23,6	20,2	2,7	2,4	78,6	78,4	21.031
KANTABRIA	13,6	10,8	3,4	3,4	86,7	88,8	23.817
GAZTELA ETA LEON	14,2	12,2	1,7	2,5	89,5	90,9	24.397
GAZTELA-MANTXA	20,8	18,3	2,4	2,8	75,7	76,9	20.645
KATALUNIA	13,5	11,6	3,2	2,3	114,8	114,7	30.769
VALENTZIAKO E.	18,3	15,7	3,1	2,1	84,1	84,4	22.659
EXTREMADURA	26,4	23,8	2,1	2,0	67,0	67,7	18.174
GALIZIA	15,8	13,5	3,1	2,7	85,5	86,8	23.294
MADRIL	13,4	12,3	3,3	3,7	129,1	130,1	34.916
MURTZIA	18,1	16,9	3,1	1,5	78,8	78,8	21.134
NAFARROA	10,3	10,1	2,8	3,0	117,8	118,5	31.809
EAE	**11,4**	**10,1**	**3,1**	**2,2**	**125,9**	**127,0**	**34.079**
ERRIOXA	12,1	10,5	1,5	1,6	100,0	100,0	26.833
CEUTA	22,6	29,2	1,6	1,5	74,7	74,7	20.032
MELILLA	27,9	26,1	1,8	1,6	68,8	68,9	18.482

a: aurrerapena. z: zenbatespena
Iturria: EIN. Eskualde Kontabilitatea eta BAI

baino hazkunde erreal handiagoa izan zuten BPGan (estatukoa %2,6 da). EAEk %2,2ko hazkunde-tasa du (estatuko batez bestekoaren azpitik), eta bitarteko postuetan kokatu zen hazkundearen sailkapenean.

Estatuko langabezia-tasa (16-64 urtekoak) % 15,4 izan zen 2018an (2017an baino 1,9 puntu gutxiago). 2016 eta 2017 bitartean, berriz ere egin zuen behera langabezia-tasa autonomia erkidego guztietan (Ceuta hiri autonomoan baino ez zuen gora egin). Tasarik baxuenak dituztenak: EAE eta Nafarroa (bietan %10,1arekin), Errioxa (% 10,5), Aragoi (% 10,7), Kantabria (% 10,8), Katalunia eta Balearrak (bietan % 11,6), Gaztela eta Leon (% 12,2) eta Madril (% 12,3). Altuenak, berriz, Ceutan (% 29,2), Melillan (% 26,1), Extremaduran (% 23,8), Andaluzian (% 23,1), K. Uharteetan (% 20,2) eta Gaztela-Mantxan (% 18,3).

ITURRIAK

1. **NMF:** Munduko ekonomiaren ikuspegiak. 2019ko apirila. 2018ko datuak. Urterokoa. Abagunekoa
2. **EKONOMIA ETA ENPRESA MINISTERIOA:**
   Adierazle ekonomikoen laburpena. 2019ko otsaila. 2018ko datuak. Urterokoa. Abagunekoa.
   Adierazle ekonomikoen laburpena Taulak eta grafikoak. 2019ko otsaila. 2018ko datuak. Urterokoa. Abagunekoa
3. **ESPAINIAKO BANKUA:**
   Estatistikak. 2018ko datuak. Urterokoa. Abagunekoa
   Estatistika aldizkaria. 2018ko datuak. Urterokoa. Abagunekoa
   Adierazle ekonomikoak. 2018ko datuak. Urterokoa. Abagunekoa
4. **EUROSTAT**: Datu-basea. 2018. Urterokoa. Abagunekoa
5. **EUROPAKO BANKU ZENTRALA:**
   Urteko txostena. 2019ko apirila. Urterokoa. Abagunekoa
   Ekonomia aldizkaria. 2019ko maiatza. Urterokoa. Abagunekoa
6. **EIN:** Nazio kontabilitatea. 2018. Urterokoa. Abagunekoa
7. **EIN:** Kontabilitate nazioa. 2018. Urterokoa. Abagunekoa
8. **EIN:** BAI. 2018. Urterokoa. Abagunekoa

2. EAE-KO ABAGUNE EKONOMIKOA

Epigrafe honetan, EAEko abagune ekonomikoa aztertuko da. Lehenik eta behin, abagunearen adierazle nagusiak jorratuko dira, haien bilakaera zehaztuta. Ondoren, zehatzago aztertuko da eskariaren bilakaera: barnekoa eta kanpokoa. Laugarren atala atzerriko inbertsioei buruzkoa da, atzerritarrek gure Erkidegoan eginiko inbertsioaren nahiz EAEk atzerrian eginiko inbertsioaren gainekoa. Eta azken atalean, kontsumorako prezioak, errentaren banaketa funtzionala, laneko kostuak, produktibitatea eta errenta pertsonalaren banaketa aztertuko dira errenta-segmentuen arabera.

2.1. BILAKAERA OROKORRA

EUSTATen "*Hiruhilekoen Ekonomia Kontuak"* direlakoen arabera (2019ko martxoan argitaratuak), EAEko ekonomiak % 2,8ko hazkundea izan zuen 2018an benetako kopuruetan (2017an baino hamarren bat gutxiago), eta haren BPGd-a kopuru korronteetan 76.605 milioi eurokoa izan zen.

Hiruhilekoen profilak hazkundearen moteltzea erakusten du urtean zehar, zeren eta lehen hiruhilekoa urte arteko %3,1eko aldakuntza-tasarekin hasi eta laugarrenean %2,4ko tasarekin bukatu baitzen. Hiruhilekoen arteko aldakuntza-tasa % 0,5 izan zen laugarren hiruhilekoan, hiruhilekoan izandako bera.

Bestela esanda, aurrera darrai hazkunde ekonomikoko aldiak, baina nolabaiteko motelaldia ageri da produktuaren aurrerakadan.

Ildo beretik, Ogasun eta Ekonomia Sailaren informazioaren arabera, 2018ko abenduan, euskal ekonomiaren termometroak[7] hazkunde sendoa erakusten du, baina motelaldi argia izan da urtearen barruan.

Lurralde historikoen arabera, BPGd-aren eboluzioa ere 2018. urtean, EUSTATen datuekin bat, positiboa izan da. Arabak eta Gipuzkoak batez bestekoaren hazkunde bera izan dute (% 2,8). Bizkaian, berriz, % 2,7ko hazkundea erregistratu da.

Ekoizpenaren hazkundea handiagoa da EAEn eurogunean baino (% 2,8, % 1,8aren aldean), eta Estatukoa baino handiagoa (% 2,6), EUROSTATen arabera.



[7] *Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailak eginiko adierazle sintetiko berria da. Euskal BPGd-arekin erlazio handia duten hileko ehun bat aldagaien uztartzen ditu. Serieak leundu egin direnez gero, aldagaiaren joera gisa uler daiteke haren ibilbidea.*

II.2.1. GRAFIKOA. EAE-KO BPGD-A. ALDAKUNTZA-TASAK BOLUMEN KATEATUAN. 2015EKO OINARRIA



Iturria: EUSTAT. HEK

a) Eskaria

Eskariaren inguruko azterketak erakusten duenez, hazkundea ageri da Barne-eskarian, % 2,8 2018 urte osoan; hazkunde horren oinarria, gehienbat, Kapitalaren Eraketa Gordina izan da.

Kapitalaren eraketa osoa %4,1eko tasarekin hazi da, hots, 2017an erregistraturikoa baino zortzi hamarren gehiago. Bi bilakaera desberdin ikusten dira kapitalaren eraketa osoan: Ekipo ondasunen KEGaren hazkundea nabarmen moteldu zen hirugarren hiruhilekotik hasita (lehen hiruhilekoa % 4,8ko hazkundearekin hasita, % 6,1eraino hazi zen bigarrenean eta laugarrenean % 2,1eko ratioarekin bukatu zuen; Gainerakoetan, berriz, goranzko joera izan zuen urte osoan (lehen hiruhilekoa % 3ko hazkunde-tasarekin hasi zen, eta laugarrenean % 5,2koarekin bukatu).

Bestalde, amaierako kontsumoko gastuaren tasa % 2,4raino hazi da, 2017an erregistraturikoa baino 2 hamarren gehiago. Hazkunde txikiago hori gertatu da bereziki kontsumo publikoaren hazkunde txikiagoagatik (% 1,7koa, 2017an % 2,4koa izan ondoren), baina kontsumo pribatuan ere moteldu da hazkundea (% 3ko aldakuntza-tasatik % 2,6kora igaro da 2017 eta 2018 bitartean.

b) Eskaintza

Eskaintzaren aldetik, ekonomiaren sektore handi guztietan izan da hedapenerako jokabidea. Nabarmentzekoa da Eraikuntzaren sektorea, urteko % 4,3ko hazkundearekin. Ondoren datoz Zerbitzuen sektorea (%2,9), Lehen Sektorea (%2,3) eta, azkenik, Industria (% 2,1). Eraikuntzaren eta Zerbitzuen sektoreek hazkundea areagotu zuten 2018an. Industrian, berriz, motelaldia gertatu zen, eta batez ere Lehen Sektorean.

Zerbitzuen sektorean, Merkataritza, ostalaritza eta garraioen adarretan moteldu egin da hazkundea (% 2,8, % 4aren aldean); Herri administrazioa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuen adarrean, 2017an izandako aldakuntzatik gora jarri zen (% 2,4, % 2,2aren aldean), eta Gainerako zerbitzuetan, % 3,1eko hazkundea izan zen, aurreko aldian % 2,2koa izan ondoren.

c) Enplegua

Enpleguaren bilakaera, lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtua, positiboa izan da, zenbatetsitako % 2,1eko hazkundearekin (2017ko ratio bera). Enpleguaren jokabide hobea Eraikuntzan kokatu da, % 3,6 hazita (aurreko urtean baino % 1,6 gehiago). Zerbitzuen sektoreko enpleguak % 2,1 egin du gora (2017ko ratio bera), hots, 19.000 lanpostu garbi

baino gehiago sortu dira. Industriaren sektoreko enpleguko hazkundea % 1,7an kokatu da, 2017ko hazkundean baino hiru hamarren azpitik.

II.2.1. TAULA. EAEKO AGERTOKI MAKROEKONOMIKOAREN EBOLUZIOA. SEC 2010. 2015EKO OINARRIA.
Urtetik urterako aldakuntza-tasa. Urtaroko eta egutegiko ondorioen datu zuzenduak

	2016	2017	2018 a	I	II	III	IV
BPG ERREALA MERKATUKO PREZIOETAN	3,3	2,9	2,8	3,1	2,9	2,6	2,4
ARABA	3,1	2,8	2,8	3,3	3,0	2,8	2,2
BIZKAIA	3,5	3,0	2,7	2,9	2,8	2,4	2,6
GIPUZKOA	3,3	2,9	2,8	3,4	2,9	2,8	2,3
ESKARIA							
BARNE ESKARIA (HAZKUNDEA)	3,6	3,0	2,8	3,0	3,0	2,5	2,6
AMAIERAKO KONTSUMOKO GATUA	3,0	2,9	2,4	2,8	2,5	2,0	2,2
ETXEBIZITZETAKO AZKEN KONTSUMOKO GASTUA	3,3	3,0	2,6	2,9	2,6	2,3	2,6
HH.AA.ETAKO AZKEN KONTSUMOKO GASTUA	1,8	2,4	1,7	2,6	2,0	1,2	0,8
KAPITALAREN ERAKETA GORDINA (KEG)	5,5	3,3	4,1	3,7	4,8	4,0	4,1
EKIPAMENDU ONDASUNETAKO KEG	8,6	3,2	4,0	4,8	6,1	2,9	2,1
GAINERAKO KEG	-	3,4	4,2	3,0	4,0	4,6	5,2
KANPOKO SALDOA							
ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK ESPORTATZEA	1,8	4,7	3,0	6,7	2,9	2,2	0,3
ESTATUA	3,2	2,8					
ATZERRIA	0,7	6,4					
ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK INPORTATZEA	2,2	4,8	3,0	6,4	3,1	2,1	0,6
ESTATUA	3,7	0,1					
ATZERRIA	0,3	11,1					
ESKAINTZA							
OINARRIZKOA	1,0	6,8	2,3	-3,0	0,8	-4,6	17,1
INDUSTRIA ETA ENERGIA	4,2	3,1	2,1	3,7	3,1	1,9	-0,2
MANUFAKTURA-INDUSTRIA	-	3,2	2,2	3,9	3,1	2,0	-0,1
ERAIKUNTZA	0,2	3,8	4,3	2,7	4,1	4,8	5,6
ZERBITZUAK	2,8	2,7	2,9	3,1	2,8	2,7	2,9
MERKATARITZA. OSTALARITZA ETA GARRAIOA	3,6	4,0	2,8	3,1	2,7	2,5	3,0
HERRI ADMINISTRAZIOA, HEZKUNTZA, OSASUN ETA GIZARTE ZERBITZUAK	2,4	2,2	2,4	2,9	2,3	2,1	2,2
GAINERAKO ZERBITZUAK	2,5	2,2	3,1	3,1	3,0	3,2	3,1
OINARRIZKO PREZIOEI ERANTSITAKO BALIO OSOA	3,0	2,9	2,8	3,1	2,9	2,6	2,4
ZERGA GARBIAK PRODUKTUEN GAINEAN	6,8	2,8	2,7	3,1	2.8	2,6	2,5
BPG NOMINALA MERKATUKO PREZIOETAN	**4,0**	**3,6**	**3,8**	**4,1**	**3,9**	**4,0**	**3,1**
LANPOSTU BALIOKIDEAK. GUZTIRA							
NEKAZARITZA, ABELTZAINTZA ETA ARRANTZA	0,7	1,0	0,2	-0,4	-0,3	-1,5	3,1
INDUSTRIA	1,9	2,0	1,7	1,7	1,8	1,8	1,5
ERAIKUNTZA	0,3	2,0	3,6	2,9	3,4	3,8	4,1
ZERBITZUAK	2,5	2,1	2,1	2,3	2,2	1,9	1,9
GUZTIRA	2,2	2,1	2,1	2,2	2,1	2,0	2,0

(a) Aurrerapena
Iturria: EUSTAT. Kontu Ekonomikoak eta Hiruhilekoen Ekonomia Kontuak (2018ko otsaila)

2.2. BARNE-ESKARIAREN AGREGATUAK

II.2.2. GRAFIKOA. BARNE- ETA KANPO-ESKARIAK BPGD-AREN HAZKUNDEARI EGINIKO EKARPENA



Iturria: Eustat. HEK (a: aurrerapena)

II.2.1. taulako datuek erakusten dutenez, barne-eskariaren hazkundea moteldu egin zen. Hala, 2016an hazkundea % 3,6 izan bazen ere, % 3an kokatu zen 2017an, eta 2018an berriz ere galdu zuen indarra, % 2,8 hazita.

BPGd-aren hazkundea gertatu da barne-eskariaren jokabideagatik, zeren eta, II.2.2 GRAFIKOAN agerian gelditu denez, % 2,8 hori, gehi BPGd-aren % 2,8ko hazkundea, kanpo-eskariaren ekarpena nulua da BPGd-aren hazkundean.

Dagoeneko esana dugunez, amaierako kontsumoko gastuaren nahiz kapitalaren eraketa osoaren hazkundean oinarritu da Kanpo-eskariaren aldakuntza-tasa positiboa 2018 urte osoan. Alabaina, inbertsioen osagaien gaineko analisiak erakusten duenez, urteko aldakuntza positiboak ageri dira guztietan, baina hiruhilekoen arteko profil desberdinak izanik. Hala, ekipamendu ondasunetan % 4,8 egin zuen gora lehen hiruhilekoan, bigarrenean % 6,1eraino, hazkunde moteldu egin zen hirugarrenean (% 2,9) eta berriz ere indartu zen laugarrenean (% 2,1). Bestalde, eraikuntzarekin lotuago dauden ondasunen inbertsioak eutsi egiten dio goranzko joerari urte osoan: lehen hiruhilekoan, % 3ko aldakuntza-tasarekin hasi zen, bigarrenean % 4 erregistratu zen, % 4,6 hirugarrenean eta laugarrenean % 5,2ko hazkunde-ratioaren bukatu zuen.

Amaierako kontsumoko gastuari dagokionez ikusten denez, % 2,9ko hazkundearen hasi zen kontsumo pribatua lehen hiruhilekoan, bigarrenean eta hirugarrenean moteldu eta berriz ere indartu zen laugarrenean. Hala, urtearen bukaera % 2,6ko hazkundea izan zen. Bestalde, herri administrazioen gastuaren hazkundea moteldu egin da hiruhilekotik hiruhilekora: lehenbizikoan % 2,6 hazita laugarrenean %0,8arekin bukatu zuen.

II.2.3. GRAFIKOA. BARNE-ESKARIA. URTE ARTEKO BENETAKO ALDAKUNTZA-TASAK



Iturria: EUSTAT. HEK

Erakutsitako informazioaren ildotik, EUSTATen emandako informazioaren arabera, nolabaiteko moteltzea erakusten dute kontsumoko eta inbertsiorako zenbait adierazle koiunturalek.

Hala, kontsumo pribatuko gastuaren hazkundeak jaitsiera txikia izan du. Kontsumoko ondasunen IPI % 0.7 hazi zen 2018an. 2017an, berriz, % 2,6. Aldi berean, txikizkako merkataritzaren indizea etengabeko prezioetan % 0,9 hazi zen, 2017an baino hamarren 1 gehiago baina 2016an baino 6 gutxiago.

Bestalde, hoteletako gau-emateen kopuruak (EAEko berezko bidaiariak baztertuta) %8,38 egin du gora, eta bost urtez jarraian hazkundeak metatu dituzte, baina hazkunde-ratioa txikiagoa da 2016an jasotakoa baino (% 10,8). Eta EAEko bertako bidaiarien hoteletako gau-emateen kopuruak berriz ere egin zuen behera azken urtean, % 3,8 hain zuzen.

Inbertsioaren adierazleei dagokienean, inbertsio-ondasunen Industria Produkzioaren Indizea % 2,5 igo zen (2017an % 0,1eko jaitsiera).

2.3. KANPO-ESKARIA

"Kanpoko Merkataritzaren Estatistikak" (Aduanetako Erregistroak oinarri hartuta) ondasunen kanpoarekiko merkataritzari buruz emandako behin-behineko datuek erakusten dutenez, gora egin zuen esportazioen ohiko balioak 2018an, % 6,8 hain zuzen (orotara 25.487,5 milioi euro, hau da, 2017an baino 1.631 milioi gehiago): ez-energetikoetan % 5,9ko hazkundea izan da (guztizkoaren % 89,9) eta energetikoetan %16,3koa. Esportazioen urteko kopuru hori 1990etik izandako serie historiko osoko altuena da.

II.2.2. TAULA. BARNE-ESKARIAREN ADIERAZLE BATZUEN BILAKAERA
(Urtetik urterako aldakuntza-tasa)

	2016	2017	2018 bb
KONTSUMO PUBLIKOAREN ADIERAZLEAK			
ADMIN. PUBLIKOEN KONTSUMO-GASTUA (HEKEN ARABERA)	1,8	2,4	1,7
KONTSUMO PRIBATUAREN ADIERAZLEAK			
KONTSUMO PRIBATUKO GASTUA (HEKEN ARABERA)	3,3	3,0	2,6
IPI KONTSUMOKO ONDASUNAK	0,2	2.6	0,7
BARNE MERKATARITZAREN SALMENTEN INDIZEA (P. KORR.)	1,5	0,8	0,9
BESTE BATZUK			
HOTELETAN IGAROTAKO GAUAK (EAEKOAK BERTAKOAK KENDUTA)	10,8	4,4	8,3
HOTELETAKO IGAROTAKO GAUAK (EAEKO BIDAIARIENAK)	-4,3	-11,5	-3,8
INBERTSIOAREN ADIERAZLEAK			
EKIPAMENDU-ONDASUNEN IPI	8,7	-0,1	2,5

bb: behin-behinekoa
Iturria: EUSTAT

Bestalde, guztizko inportazioek % 8,8 egin zuten gora (20.288,8 milioi euroan kokatuta, 2017an baino 1.636,2 milioi euro gehiago), non inportazio ez-energetikoen balioa (inportazio guztien % 71,8) % 6,8 handitu den eta energetikoena % 14,1.

Energiakoak ez diren EAEko esportazioen aduana sarien taldeko azterketan agerian gelditu denez, lehenik eta behin, ekipo ondasunak nabarmentzen dira, esportaturiko guztizkoaren %46,3 baitira (makinak, 4.931,1 milioi euro, eta garraio materiala, 6.886,7 milioi euro). Garraio materialarena, berriz, % 0,2 jaitsi. Aldi berean, metal arruntak eta horien manufakturak nabarmentzen dira; izan ere, esportaturiko guztiaren % 22,8 dira eta % 9,6 hazi da.

Aurreko esportazioetatik urrunago dagoen rankingean, plastikoak eta kautxua nabarmentzen dira, guztizkoaren % 6,3 izanik, eta horren aldakuntza-tasa positiboa da (% 9,4).

Energiakoak ez direnen esportazioei dagokienez, Ekipamendu-ondasunak ere nabarmentzen dira (makinak eta aparatuak, 3.635,7 milioi euro, eta garraio materiala, 1.306,3 milioi euro), hots, inportazio guztien %24,3. Izan ere, inportazioek gora egin dute bi kasuotan: makinak eta aparatuak (% 5,72) eta garraio materialak behera egin du (-% 0,8). Aldi berean, metal komunak eta horren manufakturak nabarmentzen dira, inportazio guztien %20,8 baitira, baina haien inportazioak behera egin du, %10,2 hain zuzen ere.

Kanpo-saldoak 5.199 milioi euroko superabita izan zuen 2018an (2017an erregistraturikoa baino 5,3 milioi gutxiago). Portzentaje hori % 6,8koa da BPGd-arekiko, 2017an izandakoa baino % 0,3 gutxiago (% 7,1 izan zen)

Ondasun eta produktu energetikoak eta ez-energetikoak bereizita, berriz ere ikusten da saldo energetikoa defizitarioa dela (-3.162,7 milioi euro. Ez-energetikoenak, aldiz, berriz ere izan zuen superabita, 8.361,4 milioi, hots, BPGd-aren % 10,9, 2017an izandako ratio bera hain zuzen ere.

Lurraldeka, EUSTATen arabera, joera berari eutsi zion bi fluxuen bilakaerak 2018an. Hala, Araban gora egin zuten bi fluxuek, esportazioek % 3,3 eta inportazioek % 4,8. Bizkaian gauza bera gertatu zen, % 9,8 hazita esportazioetan eta % 10 inportazioetan. Gipuzkoan joera bera errepikatu zen, eta % 6,5eko eta % 9,6ko hazkundeak izan ziren.

II.2.3. TAULA. EAE-K ATZERRIAREKIN DUEN ONDASUN ETA ZERBITZUEN KANPOKO MERKATARITZA (milioi eurotan) (muga-zergako taldeen araberako sailkapena)											
		ESPORTAZIOAK				INPORTAZIOAK				SALDOA	
		2017 (bb)	2018 (bb)	Bert. %	Aldakuntza	2017 (bb)	2018 (bb)	Bert. %	Aldakuntza	2017 (bb)	2018 (bb)
		Milioi euro				Milioi euro				Milioi euro	
GUTIRA		**23.856,7**	**25.487,5**	**100**	**6,8**	**18.652,6**	**20.288,8**	**100,0**	**8,8**	**5.204,0**	**5.198,7**
TARIK-EN (TARIFA INTEGRATU KOMUNITARIOA) MUGA-ZERGAKO TALDEEN SAILKAPENA											
PROD. ENERGETIKOAK (TARIK-EN 27. KAP.)		2.206,6	2.566,8	10,1	16,3	5.020,2	5.729,5	28,2	14,1	-2.813,6	-3.162,7
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK (TARIFEN GAINERAKO KAPITULUAK)		21.650,0	22.920,7	89,9	5,9	13.632,4	14.559,3	71,8	6,8	8.017,6	8.361,4
MUGA-ZERGEN ATALEN ARABERAKO SAILKAPENA											
		M€	M€	% bert.	aldakuntza	M€	M€	% bert.	aldakuntza	M€	M€
1. ANIMALIA BIZIAK ETA ANIMALIEN PRODUKTUAK	NEKAZARITZA PRODUKTUAK	241,4	266,3	1,0	10,3	440,1	425,5	2,1	-3,3	-198,8	-159,2
2. LANDARE-PRODUKTUAK		63,0	46,8	0,2	-25,8	117,0	400,6	2,0	242,3	-54,0	-353,8
3. MEA EDO LANDARE KOIPEAK ETA OLIOAK		19,3	47,8	0,2	147,7	209,4	168,1	0,8	-19,7	-190,1	-120,3
4. ELIKAGAI INDUSTRIETAK O PRODUKTUAK ETA TABAKOA		620,9	629,8	2,5	1,4	337,7	311,4	1,5	-7,8	283,2	318,3
5. MEA PRODUKTU ENERGETIKOAK*		2.285,8	2.646,2	10,4	15,8	5.177,4	5.937,1	29,3	14,7	-2.891,7	-3.291,0
6. PRODUKTU KIMIKOAK		574,9	717,4	2,8	24,8	1.232,3	1.257,0	6,2	2,0	-657,4	-539,5
7. PLASTIKOAK ETA KAUTX.		1.472,2	1.609,9	6,3	9,4	910,7	928,9	4,6	2,0	561,5	681,0
8. LARRUAK, LARRUGINTZA ETA HORIEN MANUFAKTURA		6,4	5,9	0,0	-7,4	21,5	21,2	0,1	-1,4	-15,1	-15,3
9. ZURA, LANDARE-IKATZA, KORTXOA ETA HORIEN MANUFAKTURAK		106,8	119,7	0,5	12,0	96,0	104,1	0,5	8,5	10,8	15,6
10. PAPERA		616,2	648,1	2,5	5,2	398,9	458,3	2,3	14,9	217,3	189,7
11. EHUNGINTZA ETA HORREN MANUFAKTURAK		128,2	117,7	0,5	-8,2	303,6	292,2	1,4	-3,8	-175,3	-174,4
12. OINEZKOAK ETA JANTZI-OSAGARRIAK		12,2	14,0	0,1	14,4	55,2	57,9	0,3	4,8	-43,0	-43,9
13. ERAIKUNTZA MATER., ZERAMIKA ETA BEIRA		321,3	308,2	1,2	-4,1	148,9	178,2	0,9	19,7	172,4	130,0
14. BITXIGINTZA ETA BIS.		13,5	19,6	0,1	45,9	56,5	45,2	0,2	-20,1	-43,0	-25,5
15. METAL KOMUNAK ETA HORIEN MANUFAKTURAK		5.306,1	5.817,7	22,8	9,6	3.828,4	4.219,6	20,8	10,2	1.477,7	1.598,1
16. MAKINAK ETA APARATUAK	EKIP. ONDASUNAK	4.602,7	4.931,1	19,3	7,1	3.439,9	3.635,7	17,9	5,7	1.162,8	1.295,4
17. GARRAIO MATERIALA		6.898,4	6.886,7	27,0	-0,2	1.317,2	1.306,3	6,4	-0,8	5.581,2	5.580,4
18. OPTIKA ETA ZEHAZTASUNEKO TRESNAK ETA APARATUAK		212,6	204,8	0,8	-3,7	321,4	296,7	1,5	-7,7	-108,8	-91,9
19. ARMAK ETA MUNIZ., ZATIAK ETA OSAGARRIAK		88,9	95,1	0,4	7,0	35,4	50,9	0,3	43,7	53,5	44,2
20. ASKOTARIKO SALGAIAK ETA PRODUKTUAK		182,6	194,0	0,8	6,3	201,4	182,6	0,9	-9,3	-18,8	11,4
21. ARTE, BILDUMA EDO ANTZINAKO OBJEKTUAK		1,0	0,6	0,0	-41,7	1,4	1,9	0,0	33,6	-0,4	-1,3
SAILKATU GABEAK		82,4	160,2	0,6	94,4	2,4	9,5	0,0	301,2	80,0	150,7

P provisionales.
Muga-zergen atalen arabera, 5. atala, Produktu eta mea energetikoak eta bolumena, ez da TARIKen 27. kapituluaren berdina
Iturria: EUSTAT. Kanpo-merkataritzaren Estatistika-ECOMEX.

Kanpoko merkataritzari dagokionez eta jatorri-helmugako herrialdeen arabera, ELGAko herrialdeetarako esportazioek % 7,9 egin dute gora eta 28ko EBrakoek % 7,7 (% 7,1 eurogunera eginikoak). Inportazioen aldetik, ELGAtik datozenetan % 4,4ko igoera izan da eta eurogunetik eginikoetan % 4,7 (hala ere, 28ko EB osorik hartuta, % 0,8ko jaitsiera ageri da).

Esportatzaileen rankineko lehen tokietan dauden herrialdeek (ikusi II.2.5. taula) erakusten dutenez, horietarako gure esportazioek gora egin dute (ikusi II.2.6 taula), bereziki hauexetarakoak: Herbehereak (% 45eko hazkundea), AEB (% 16,4ko hazkundea), Erresuma Batua (% 14,5), Italia (% 13,8) eta Portugal (% 11,9). Lehenbiziko 15 herrialdeen artean, hauexetan baino ez daude beherakada nabarmenak: Turkian (% 23,1), Marokon (-% 12,8) eta Txinan (-% 13,2).

II.2.4. TAULA. ESPORTAZIOEN ETA INPORTAZIOEN RANKINA 2018 *(MILA eurotan)*

ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
1	FRANTZIA	3.887.297	1	ALEMANIA	2.919.386
2	ALEMANIA	3.835.396	2	FRANTZIA	1.914.329
3	AEB	2.118.448	3	TXINA	1.148.758
4	ERRESUMA BAT.	1.731.785	4	ITALIA	994.894
5	ITALIA	1.252.164	5	MEXIKO	914.966
6	HEREBEHEREAK	1.094.693	6	LIBIA, JAMAHIRIYA ARAB.	822.541
7	PORTUGAL	1.054.287	7	ERRESUMA BATUA	755.557
8	BELGIKA	979.930	8	IRLANDA	645.067
9	MEXIKO	643.464	9	HERBEHEREAK	640.089
10	POLONIA	538.052	10	BRASIL	637.647
11	TXINA	469.744	11	NORVEGIA	600.823
12	TXEKIAR E.	379.449	12	NIGERIA	552.488
13	AUSTRALIA	356.912	13	AEB	504.465
14	TURKIA	353.554	14	PORTUGAL	473.817
15	BRASIL	328.382	15	BELGIKA	453.108

bb: behin-behinekoak
Iturria: EUSTAT. Kanpoko Merkataritzaren Estatistika

Inportazioei dagokienez, eta inportatzaileen rankinean lehen tokietan dauden herrialdeak direla-eta, nabarmentzekoa da herrialde hauetatik datozenen igoera handia: Libia, Jamahiriya arabiarra (% 185,6), Brasil (% 125,7) eta Mexiko (% 30); baita Erresuma Batuetatik datozenen beherakada ere (-% 43). Libiako (Jamahiriya arabiarra), Brasilgo eta Mexikoko inportazioak gehienbat petrolioaren deribatuak eta horrekin lotutakoak dira (zehazki, eta hurrenez hurren, inportazio guztien % 99,6, % 64 eta % 96.

II.2.5. TAULA. EAEKO ESPORTAZIOEN JOMUGA ETA INPORTAZIOEN JATORRIA. MERKATARITZA-BAZKIDE NAGUSIAK (MILA *euro*)

	ESPORTAZIOAK					INPORTAZIOAK				
	2017	2018 p	Pisua 2017	Pisua 2018	Aldak. 2017-18	2017	2018 bb	Pisua 2017	Pisua 2018	Aldak. 2017-18
GUZTIRA	**23.856.666**	**25.487.514**	**100**	**100**	**6,8**	**18.652.648**	**20.288.821**	**100**	**100**	**8,8**
28KO EB	15.515.268	16.712.511	65,0	65,6	7,7	10.557.284	10.476.868	56,6	51,6	-0,8
EUROGUNEA	12.261.630	13.127.202	51,4	51,5	7,1	8.251.696	8.642.096	44,2	42,6	4,7
ELGA	19.467.424	21.000.782	81,6	82,4	7,9	12.849.884	13.416.170	68,9	66,1	4,4
ALEMANIA	3.775.467	3.835.396	15,8	15,0	1,6	2.783.049	2.919.386	14,9	14,4	4,9
AUSTRALIA	177.186	356.913	0,7	1,4	101,4					
BELGIKA	986.550	979.931	4,1	3,8	-0,7	387.119	453.108	2,1	2,2	17,0
BRASIL	291.818	328.382	1,2	1,3	12,5	282.539	637.647	1,5	3,1	125,7
TXINA	535.668	469.744	2,2	1,8	-12,3	1.049.146	1.148.759	5,6	5,7	9,5
AEB	1.820.755	2.118.449	7,6	8,3	16,4	444.640	504.464	2,4	2,5	13,5
FRANTZIA	3.693.804	3.887.297	15,5	15,3	5,2	1.812.194	1.914.329	9,7	9,4	5,6
IRLANDA						706.141	645.067	3,8	3,2	-8,6
ITALIA	1.100.425	1.252.165	4,6	4,9	13,8	930.302	994.893	5,0	4,9	6,9
LIBIA, JAMAHIRIYA ARABIARRA						287.979	822.542	1,5	4,1	185,6
MEXIKO	653.771	643.464	2,7	2,5	-1,6	703.918	914.966	3,8	4,5	30,0
NIGERIA						467.235	552.489	2,5	2,7	18,2
NORVEGIA						473.956	600.823	2,5	3,0	26,8
HERBEHEREAK	755.168	1.094.693	3,2	4,3	45,0	650.117	640.088	3,5	3,2	-1,5
POLONIA	507.976	538.052	2,1	2,1	5,9					
PORTUGAL	941.890	1.054.286	3,9	4,1	11,9	453.070	473.817	2,4	2,3	4,6
ERRESUMA BATUA	1.511.955	1.731.786	6,3	6,8	14,5	1.325.744	755.558	7,1	3,7	-43,0
TXEKIAR E.	376.794	379.450	1,6	1,5	0,7					
TURKIA	459.801	353.555	1,9	1,4	-23,1					

Bb: behin-behineko datuak.
Iturria: EUSTAT. Kanpoko Merkataritzaren Estatistika

2.4. ATZERRIKO INBERTSIOA

Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioko Kanpoko Inbertsioen Erregistroaren datuen arabera[8], 969,3 milioi eurokoa izan zen EAEn atzerriko inbertsioa 2018an, gure Erkidegoak atzerrian inbertitu zituen 942,5 milioien aldean.

II.2.6. TAULA. ATZERRIKO INBERTSIOA EAE-N*-EAE-KO INBERTSIOA ATZERRIAN (MILA EURO)
(ATZERRIKO BALIOAK DITUZTEN ENPRESAK KENDUTA)

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018 bb
ATZERRIKO INBERTSIOA EAEN	432.039,2	1.100.022,5	1.414.606,1	834.755,1	2.019.122,5	2.691.092,2	969.258,5
EAEKO INBERTSIOA ATZERRIAN	444.752,0	1.314.285,0	732.342,1	512.846,9	3.322.610,8	1.954.397,7	942.489,0

(*) Inbertsio gordina ABDEak kenduta.
bb: behin-behineko datuak
Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa

2.4.1 Atzerriko inbertsioa EAEn

II.2.4. GRAFIKOA. ATZERRIKO INBERTSIO GORDINA* EAE-N



** ABDEak kenduta.*
Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa

Datu-iturri beraren arabera, atzerriak EAEn eginiko inbertsioak behera egin zuen 2017 eta 2018 bitartean, atzerritar balioak dituzten enpresak kenduta (ABDE)[9]. Guztira, 969,3 milioi euro jaso zituen EAEk.

Estatuko datuaren gainean EAEk duen proportzioa hazi egin da: 2017ko % 8,2tik 2018ko % 2,1era. Madrilgo Erkidegoak jasotzen duen inbertsioa deskontaturik, % 14rainokoa da, eta % 28koa 2017an.

Hala, 2018. urtean, EAEk hirugarren lekua hartu du berriz ere inbertsio-bolumenean, Madrilen (39.935,4 milioi euro jasotzen baititu, ABDEak kenduta) eta Kataluniaren atzetik (2.985,7 milioi euro jasotzen baititu).

[8] *Estatistika honek inbertsiotzat jotzen du estatuko inbertsioa eta, beraz, EBkoa eta ELGAkoa sartzen dira kopuru horietan.*

[9] *ABDE: bere sozietate xedean, Espainiako lurraldeko egoiliarrak ez diren erakundeen berezko funtsen balio nagusiak kudeatzeko eta administratzeko jarduera bildu behar da, betiere baliabide materialak eta giza baliabideak antolatuta. ABDEen zerga-araubidea dela-eta, zergak ordaintzetik salbuetsita daude Euskadiko egoiliarrak ez diren sozietateen dibidenduak eta sozietate horietako partaidetzen salmentaren ondoriozko errentak.*

II.2.7. TAULA. ATZERRIKO INBERTSIO GORDINA * AA.EEN ARABERA (mila eurotan)							
	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
GUZTIRA	**14.449.941,5**	**17.277.936,4**	**20.647.546,0**	**24.802.946,2**	**26.173.600,9**	**27.346.085,6**	**46.827.625,1**
ANDALUZIA	615.147,0	353.404,2	351.811,9	601.715,5	465.908,5	443.014,0	422.764,9
ARAGOI	151.294,2	168.856,2	113.779,4	79.162,7	37.838,6	83.629,4	180.243,6
KANTABRIA	22.032,6	15.545,3	11.206,6	8.950,3	20.351,9	1.391,8	185.790,0
GAZTELA LEON	56.408,4	175.794,1	149.247,0	50.337,1	68.269,3	55.020,5	47.421,7
GAZTELA-MANTXA	51.658,8	24.544,4	129.958,8	54.338,4	107.816,7	183.775,3	311.443,5
KATALUNIA	2.723.788,0	3.672.657,7	3.064.203,7	5.488.764,0	8.273.813,7	3.382.673,3	2.985.652,7
CEUTA ETA MELILLA	1.403,7	397,1	3.727,2	16.335,5	618,6	479,8	65,1
MADRIL	9.086.975,1	8.876.026,0	11.157.281,3	10.966.677,7	11.587.979,2	17.722.522,8	39.925.364,9
VALENTZIA	103.626,3	174.426,5	825.699,2	261.497,9	173.226,1	1.180.750,2	965.230,2
EXTREMADURA	31.578,9	15.953,9	250.608,9	44.198,7	62.408,3	23.957,5	11.848,7
GALIZIA	186.685,2	227.392,5	57.627,5	86.643,3	104.523,7	112.035,0	65.452,7
U. BALEARRAK	296.851,8	790.095,3	291.551,5	338.924,0	585.525,9	321.337,8	118.213,0
U. KANARIARRAK	70.457,2	45.594,8	151.664,1	87.772,2	46.107,5	191.961,2	173.228,8
ERRIOXA	10.267,5	62.219,3	3.358,3	30.751,2	7.619,4	25.443,3	186.531,1
NAFARROA	161.343,3	19.056,9	28.681,2	19.332,8	836.302,7	47.020,7	202.325,9
EAE	**432.039,2**	**1.100.022,5**	**1.414.606,1**	**834.755,1**	**2.019.122,5**	**2.691.092,2**	**969.258,5**
ASTURIAS	62.737,4	872.497,6	487.174,1	1.510.230,8	292.504,7	31.710,4	24.504,9
MURTZIA	26.249,4	54.938,3	46.868,3	521.524,0	67.244,8	38.783,2	22.070,3
ESLEITU GABE	359.397,6	628.513,9	2.108.490,9	3.801.035,2	1.416.419,0	809.487,3	30.214,9

(*)Inbertsio osoa ABDE gabe. b-b: behin-behineko datuak.
Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa

Sektoreen ikuspegitik, bereziki nabarmenak dira guztizkoan duen pisuagatik honako hauetan eginikoak:

- Motordun ibilgailuen eta beste garraio material batzuen fabrikazioa, EAEn eginiko inbertsioaren % 55,5 da, eta sektore horretan Estatuan eginikoaren % 47,6.
- Elikadura, Edariak eta Tabakoa: EAEn eginiko inbertsioaren % 32,8 eta Estatuan sektorearen eginikoaren % 24,9.
- Finantza- eta aseguru-jarduerak: EAEn eginiko inbertsioaren % 4 eta estatuan sektore horretan eginikoaren % 1,6.

[19] *Haietan, sozietatearen kapitalaren gehiena langile bazkideena da. Bazkide bakoitzak gehienez eduki dezakeen kapital soziala ezin daiteke izan guztiaren herena baino handiagoa (partaidetza publikoarekin salbuespen batzuk gertatu ohi dira). Horregatik, gutxieneko bazkide kopurua 3 da. Kapital soziala akzio izendunetan banatzen denean, lan sozietate anonimoa da (SAL). Partaidetza sozialetan banatzen denean, izaera juridikoa lan-erantzukizun mugatuko sozietateena da (SLL). Nolanahi ere, bai akzioak bai partaidetzak bi taldetan banatzen dira: bazkide langileenak eta beste pertsona batzuenak.*

3.1.2. Enpresa-demografia

Enpresa-txandakatzeari buruzko azterlana (altak, bajak eta saldoa) funtsezkoa da enpresen dinamismoari buruzko ezaugarriak ondorioztatzeko, hots, enpresa berriak sortzeko ahalmenari buruzkoak[20].

EUSTATen "Enpresen sorrerari eta galerari buruzko estatistika"ri esker, sortzen eta denborarekin desegiten diren enpresen kopurua zenbatetsi daiteke. Informazio demografiko hori zuzenean lortzen da JEGIDetik, eta gainera, iraupenari eta galerari buruzko tasak ere lor daitezke.

2018ko urtarrilaren 1ean, enpresen kopurua murriztu egin da 14.603 enpresa berrik jarduera hasi dutelako eta 16.161 enpresek utzi dutelako euren jarduera. Horrela, saldo gordina -1.558koa da. Bestalde, enpresak sortzeko tasa gordina, urte zehatz bateko alten kopurua zati aurreko urtean zegoen enpresa-kopurua bezala kalkulatuta, % 9,3koa da; itxitako enpresa-tasa, aldiz, % 10,3koa izan zen[21] .

II.3.6. TAULA. ENPRESEN ALTAK, BAJAK ETA SALDO GARBIA

	2014/1/1	2015/1/1	2016/1/1	2017/1/1	2018/1/1
AURREKO URTEAN DAGOEN ENPRESA KOP*	161.067	159.001	158.810	158.436	156.528
ALTAK	16.144	17.690	17.485	16.179	14.603
BAJAK	18.210	17.881	17.850	16.529	16.161
SALDO GARBIA	-2.066	-191	-365	-350	-1.558
ENPRESEN SORRERA-TASA GORDINA (%)	10,0	11,1	11,0	10,2	9,3
ENPRESEN GALERA-TASA GORDINA (%)	11,3	11,2	11,2	10,4	10,3

** Aurreko urtea amaitzean eta hurrengoaren hasieran zenbatuta*
Iturria: Enpresen sorrerari eta galerari buruzko estatistika, Eustat

II.3.7. koadroan 2013. urtearen hasieran alta emanda zeuden eta hurrengo bost urteetan jardunean aritu diren enpresen bilakaera dago jasoa. Hala, 2013an sortutako enpresen % 45,1 aktibo mantentzen zen (14.977 guztira) bost urte geroago (6.750) eta alderantziz, enpresen % 54,9a desagertu zen (8.227).

Egoitza EAEn dutenak ardatz hartuta, era berean, 2013an sortutako enpresen %45,1ek jardunean jarraitzen dute bost urteren buruan, eta %54,9 desagertu da (kopuru absolutuetan, 8.337 enpresa gutxiago). Enpleguan eragina negatiboa da baina enpresa-kopuruan baino arinagoa. Aurrera egitea lortu duten enpresetan dago hasierako lanpostuen % 72,8; hau da: lanpostuak galdu diren arren (lanpostu-kopurua 31.707tik 23.070ra jaitsi da), galera-portzentajea (%27,2 puntu) enpresa-kopuruaren bilakaera baino txikiagoa da, argi eta garbi (portzentajezko -54,9 puntu).

Lurralde historikoen arabera, Araban 2013an alta emandako enpresen % 46,6k aktibo jarraitzen dute (hasierako lanpostuen % 63,8); Bizkaian % 44,4k (hasierako lanpostuen % 71,6) eta Gipuzkoan % 45,6k (hasierako lanpostuen % 77,9).

Gauzak horrela, 2013an alta egindako enpresetan (egoitza EAEn dutenak), batez beste, 2,2 lagun zeuden lanean, eta gaur egun 3,5.

Aurreko urteetan legez, txandaketarik handiena establezimendu hauetan izan da: *Handizkako eta txikizkako merkataritza; motordun ibilgailuen motozikleten konponketa*, 2 lanpostu edo gutxiagokoak eta pertsona juridikoa formula juridikopean sortuta.

[20] *Kontuan hartu behar da jardueren alta eta bajako egoeren zati bat ondokoen ondorioz gertatzen direla: erregistroko aldaketa, izen-aldaketak, bategiteak, erosketa-eragiketak... Alta edo bajaren arrazoia ez baita jasotzen*
[21] *Hilkortasun-tasaren kasuan, bajekin kalkulatzen da zatidura.*

II.3.7. TAULA. ENPRESAK ETA ENPLEGATUAK, 2012/01/01EAN ALTAN EMANA ETA JARDUNEAN AZKEN BOST URTEAN												
	Altak 2013/01/01ean		Jardunean									
			2014		2015		2016		2017		2018	
	ENPRESAK	LANPOS.	ENPRESAK	LANP.	ENPRESAK	LANP.	ENPRESAK	LANP.	ENPRES.	LANP.	ENPRES.	LANP.
GUZTIRA	**14.977**	**34.096**	**12.996**	**32.307**	**10.672**	**30.644**	**8.952**	**28.751**	**7.871**	**27.701**	**6.750**	**26.253**
EGOITZA EAEN	14.608	31.707	12.671	29.297	10.419	27.824	8.731	25.773	7.680	24.467	6.588	23.070
ARABA	2.220	3.683	1.882	3.159	1.566	2.998	1.325	2.653	1.183	2.481	1.034	2.350
BIZKAIA	7.556	17.621	6.553	16.125	5.353	15.301	4.494	14.248	3.943	13.397	3.353	12.617
GIPUZKOA	4.832	10.403	4.236	10.013	3.500	9.525	2.912	8.872	2.554	8.589	2.201	8.103
Biziraupen-tasa												
GUZTIRA	**100**	**100**	**86,8**	**94,8**	**71,3**	**89,9**	**59,8**	**84,3**	**52,6**	**81,2**	**45,1**	**77,0**
EGOITZA EAEN	**100**	**100**	**86,7**	**92,4**	**71,3**	**87,8**	**59,8**	**81,3**	**52,6**	**77,2**	**45,1**	**72,8**
ARABA	100	100	84,8	85,8	70,5	81,4	59,7	72,0	53,3	67,4	46,6	63,8
BIZKAIA	100	100	86,7	91,5	70,8	86,8	59,5	80,9	52,2	76,0	44,4	71,6
GIPUZKOA	100	100	87,7	96,3	72,4	91,6	60,3	85,3	52,9	82,6	45,6	77,9

Iturria: EUSTAT. Enpresen sorrerari eta galerari buruzko estatistika

3.2. LEHEN SEKTOREA

EUSTATen "Kontu Ekonomikoen" datuen arabera (2019ko martxokoak), 2018an, lehen sektorea (energia barne), 617,8 milioi eurorekin eta lanaldi osoko 12.639 lanposturekin (LOL), guztizko BPGd-aren % 0,8 izan da prezio korronteetan eta lanaldi osoko enpleguaren % 1,3.

3.2.1. Nekazaritza, abeltzaintza eta baso-ustiapena

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako Saileko Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordetzaren Estatistika Organoak 2018an argitaraturiko Nekazaritza sektorearen makromagnitudeei buruz dagoen azken datuen arabera, Amaierako Nekazaritza Ekoizpena (nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta beste ekoizpen batzuk) % 2,3 handiagoa izan zen 2017an 2016an baino, ekoizpenak % 1,6 egin zuelako behera eta prezioek % 3,9 egin zutelako gora.

Bestalde, egiazko Nekazaritza Errenta aztertuta ondorioztatzen denez, nekazaritza ustiapenen erosahalmenak beherazko joera du argi eta garbi, baina gorantz egin du azken urteetan. 1985 eta 2017 bitartean, % 43ko jaitsiera izan zen.

Sektoreko makromagnitudeei buruzko argibide gehiago nahi izanez gero, jo beza irakurleak 2017ko Memoriara, kapitulu hau bukatzean ez dagoelako datu berririk argitaratuta.

3.2.2. Arrantza

Ekonomia Garatzeko eta Lehiakortasuna Sustatzeko Sailaren Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politika Sailburuordetzaren estatistika organoak argitaraturiko azken datuen arabera, euskal arrantza-ontziteriak gora egin zuen kopuruaren aldetik nahiz landunen aldetik. 2017an baino 4 itsasontzi gehiago zeuden 2018an (196tik 200era) Bestalde, enpleguen kopuruak ere behera egin du (itsasoan eta lehorrean), 1.866 lagun ziren.

II.3.8. TAULA EAE-KO ARRANTZAKO ITSASONTZI HANDIAK ETA TRIPULAZIOA					
	2014	2015	2016	2017	2018
ITSASONTZI HANDIAK	207	195	187	196	200
ENPLEGATUAK (ITSASOAN ETA LEHORREAN)	2.229	2.112	2.027	1.866	-

Iturria: Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako Sailburuordetzaren Estatistika Organoa eta EUSTAT

EAEko baxurako lonjetan 2018. urteetan egindako enkanteak guztira 45.453 tona izan ziren (2017an baino +%5,8 gehiago). 83,8 milioi euro bildu dira, eta sarrerak 2017koak baino txikiagoak izan dira, %6,2 txikiagoak (89,3 milioi euro).

Enkantean jarritako arrainaren batez besteko salneurria 1,6 €/Kg izan da, 2017ko batez bestekoaren azpitik (1,76 €/kg.). Batez besteko salneurririk handiena atun gorriari dagokio (7,56 €/Kg), ondoren legatzari (4,43 €/kg) eta hegaluzeari (3,58 €/kg).

Lurraldez lurralde, Gipuzkoa nabarmentzen da enkantean jarritako arrain kantitatearen (Tm) nahiz enkanteko balioaren (eurotan) aldetik, guztizkoaren %5536 eta %65 hurrenez hurren.

II.3.9. TAULA. EAEko BAXURAKO LONJETAN ENKANTEAN JARRITAKO ARRAINEN BILAKAERA

	2014	2015	2016	2017	2018
KOPURUA, GUZTIRA (TM) (A)	**49.111**	**45.876**	**45.972**	**50.687**	**53.611**
GIPUZKOA	27.411	26.669	26.006	27.270	29.625
BIZKAIA	21.699	19.207	19.966	23.418	23.986
MILA € (B)	**65.702**	**67.939**	**79.768**	**89.325**	**83.778**
GIPUZKOA	38.970	43.087	52.941	55.736	54.438
BIZKAIA	26.732	24.853	26.827	33.59.	29.340
BATEZ B. PREZIOA (€/KG) (B/A)	1,34	1,48	1,74	1,76	1,56

Iturria: Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako Sailburuordetzaren Estatistika Organoa

II.3.10. TAULA. ENKANTEAK EAE-KO BAXURAKO LONJETAN, 2018

	HEGALUZEA	ANTXOA	BERDELA / ESTORNINOA	SARDINA	LEGATZA	TXITXARROA	HEGAL AB.	BESTE ESPEZ.	GUZTIRA
KOPURUA, G. (TM)	8.442	15.164	16.218	8.221	845	1.568	148	3.006	53.611
GIPUZKOA	6.997	6.260	8.491	4.759	698	329	139	1.951	29.625
BIZKAIA	1.445	8.904	7.727	3.462	147	1.238	9	1.054	23.986
MILA €	30.255	19.516	12.530	6.103	3.741	1.706	1.121	8.806	83.778
GIPUZKOA	25.054	8.290	6.513	3.573	3.126	300	1.054	6.527	54.438
BIZKAIA	5.201	11.225	6.017	2.529	615	1.406	67	2.280	29.340
BATEZ B. PREZIOA (€/KG)	3,58	1,29	0,77	0,74	4,43	1,09	7,57	2,93	1,56

Iturria: Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako Sailburuordetzaren Estatistika Organoa

3.3. INDUSTRIA

EUSTATen "*Ekonomia kontuak*" direlakoen arabera (2019ko martxokoak), 2018an industriako sektorea guztizko BPGd-aren %22 zen prezio korronteetan eta guztizko enpleguaren %21,4 (LOE); izan ere, 16.819 milioi euroko BEG du (energia barne) eta lanaldi osoko 204.517 lanpostu

Ekonomia kontuek erakusten dutenez, 2018an, industriako BEGaren urte arteko aldakuntza-tasa errealaren hazkunde moteldu egin da, azken hiruhilekoan negatiboa izanik (-%0,2). 2018 urte osoan, industriako BEGaren urte arteko aldakuntza erreala %2,1 da (2017an erregistraturiko ratioa baino %0,1 gutxiago).

II.3.11. TAULA. INDUSTRIAKO ENPLEGUAREN ETA BEG-AREN BILAKAERA (urte arteko aldakuntza-tasa)

	2016	2017				2018			
	T4	T1	T2	T3	T4	T1	T2	T3	T4
Industriako BEGaren aldakuntza-tasak bol.	4	3,2	2,9	3	3,5	3,7	3,1	1,9	-0,2
Industriako enpleguko aldakuntza-tasa (LOE*)	2,2	2	1,9	2,1	1,8	1,7	1,8	1,8	1,5

**** Lanaldi osoko enplegua***
Iturria: EUSTAT, HEKT

Ekonomia Kontuen datuek erakusten dutenez, 2018an hazkundea motelduz joan zen industriako BEGaren urte arteko egiazko aldakuntza-tasa, halako moldez non azken hiruhilekoan negatiboa baita aldakuntza (-%0,2). 2018. urtean, % 2,1ekoa da industriako BEGaren urte arteko aldakuntza.

EAEko industriako BEGaren urteko batez besteko hazkunde hori Estatukoa baino txikiagoa da. Izan ere, EINen arabera, %1,1 da Estatuan.

Enpleguari dagokionez, zifrek agerian uzten dutenez (arestian esana dugunez, lanaldi osoko 204.517 lanpostu), urte batezko besteko hazkundea %1,7 da, 2017an ikusitako ratioa baino 3 hamarren gutxiago. 2018ko hiruhilekoetako profila ikusita, hala ere, lanpostuen hazkundea moteldu egin da bigarren hiruhilekotik, hirugarrenean baino 3 hamarren gutxiago hazita.

Sektorearen produktibitatearen batez besteko hazkundea %0,4koa da urtean.

II.3.12 TAULA. INDUSTRIAKO SEKTOREKO ADIERAZLEAK

	2013	2014	2015	2016	2017	2018
BPG PREZIO KORRONTEETAN (MILIOIAK)	14.283	14.391	15.020	15.625	16.166	16.819
LANPOSTUAK (LOE)*	193.070	191.050	193.550	197.199	201.084	204.517
BEG ALDAKUNTZA (ERREALA)	-2,8	2,2	3,1	4,2	3,1	2,1
ENPLEGU ALDAKUNTZA	-4	-1	1,3	1,9	2	1,7
PRODUKTIBITATEA (LOEN NEURTUTA)	1,2	3,2	1,8	2,3	1,1	0,4

**** Lanaldi osoko enplegua***
Iturria: EUSTAT, Ekonomia Kontuak

II.3.3. GRAFIKOA. INDUSTRIAKO SEKTOREAREN BILAKAERA



Iturria: HEK. EUSTAT

EUSTATen "*Industriako Produkzioaren Indizea*" (IPI) aztertuko dugu orain. Industriako BEGaren bolumenak faktore-kostuetan izandako bilakaera neurtzea du helburu adierazle koiuntural horrek.

Bestalde, EUSTATen "Industria Produkzioaren Indizeak (IPI) urteko batez besteko % 2ko hazkundea eman zuen 2018an (datu osoekin eta 2015eko oinarriarekin) EAE osorako, 2017an erregistraturikoa baino ehunekozko puntu 5,7 puntu handiagoa (2016ko abe-2017ko abe.). Lurraldez lurralde, hazkunderik handiena Gipuzkoan dago, % 4,8 (%5,6, aurreko urteko hazkundea izan zen), ondoren Bizkaian % 1,1 (%6,3 aurreko urtean) eta Araban -% 0,5 (%5,1 aurrekoan).

EUROSTATen darabera, industriako ekoizpenaren urteko aldakuntza -%4,2 zen eurogunean 2017 eta 2018 bitartean (serie doituak eta 2015eko oinarra), -%2,7 28ko EBn ta -%6,7 Espainiako estatuan.

Ondasunen helburu ekonomikoa aztertuz, EUSTATen arabera, EAEn, aipatutako batez besteko hazkundearen jatorria ekipamendu-ondasunen produkzioaren hazkundean dago, baina gehienbat iraunkorrak ez diren ondasunen hazkundean (% 6), iraunkorretan (+% 4,2) eta ekipo ondasunetan (+% 3,3), eta neurri txikiagoan bitarteko ondasunetan (+%1,1) eta energiakoetan (%1,4).

IPIren analisi sektorialetik ondorioztatzen denez (datu osoekin), manufaktura-industriaren baitan, EAErentzat garrantzitsuenak diren hiru azpisektore industrialek urte arteko batez besteko aldakuntza positiboak izan zituzten: Metalurgia (BPG industrialaren %28,5 eta enplegu industrialaren %33,9 2017an) [22]), Makineria eta ekipoa (BPG industrialaren %10,7 eta enplegu industrialaren %10,9) eta Garraio materiala (BPG industrialaren %10,5 eta enplegu industrialaren %9,3), baina kopuru desberdinekin. Hala, makineria eta ekipoa % 4,9 hazi da, garraio materiala % 1,9 eta metalurgia % 0,3. Soilik makineria eta ekipoa da industriako batez bestekoa baino handiagoa (% 2).

Hazkunderik handienak izan dituztenak: Erauzketa-industriak (+%13,7), kokea eta petrolioa fintzea (+9,7), produktu informatikoak eta elektronikoak (+%8,5) eta material eta ekipo elektrikoa (+% 6,9).

[22] *Ikusi gainera, II.3.4 eta II.3.5 GRAFIKOAK eta II.3.20 TAULA.*

II.3.4. GRAFIKOA. INDUSTRIAKO BPG-AREN BANAKETA, SEKTOREEN ARABERA, 2017



Iturria: EUSTAT, Industria estatistika

II.3.5.GRAFIKOA. INDUSTRIAKO ENPLEGUAREN BANAKETA, SEKTOREEN ARABERA, 2017



Iturria: EUSTAT, Industria estatistika

II.3.16. TAULA. IPI-REN BILAKAERA LURRALDEEN ETA ONDASUNEN JOMUGA EKONOMIKOAREN ARABERA. 2015eko oinarria. Datu gordinak. Urteko batez besteko igoera

	Guztira EAE	Lurralde historikoak			Ondasunen jomuga ekonomikoa					
					Kontsumo-ondasunak			Ekipo-ondasunak	Bitarteko ondasunak	Energia
		Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Guztira	Iraunkorra	Ez iraunkorra			
2012-12	-5,2	-4,7	-7	-3,7	-2,5	-4,4	-2,1	-5,4	-6,5	-2
2013-12	-3,4	-3	-4,2	-2,7	-4,9	-11	-3,4	-3,6	-2,9	-3
2014-12	1,2	0,4	2	1	-0,1	-16,9	3,8	1,5	2,1	0,1
2015-12	3,3	1	4,6	3,3	2,9	17,5	0,2	7,1	1	1,4
2016-12	3,1	9,3	1,6	0,8	1,5	2,7	1,2	8,6	2,3	-3,6
2017-12	5,7	5,1	6,3	5,6	5,6	12,3	4,1	3,3	7,7	3
2018-12	2	-0,5	1,1	4,8	5,7	4,2	6	3,3	1,1	1,4

Iturria: EUSTAT IPI (2019ko ekaineko datuak)

II.3.14.TAULA. IPI JARDUERAKO AZPISEKTOREEN ARABERA. 2015eko oinarria. Datu gordinak. Urteko batez beteko hazkundea

	2012-12	2013-12	2014-12	2015-12	2016-12	2017-12	2018-12
IPI	**-5,2**	**-3,4**	**1,2**	**3,3**	**3,1**	**5,7**	**2**
02. ERAUZKETA-INDUSTRIAK	-8,2	-23,4	6,9	-2,1	-18,9	-2,6	13,7
03. ELIKAGAIEN, EDARIEN, TABAKOAREN IND.	1,1	0,3	3,7	1,1	0,9	5,9	7,4
04. EHUNG., LARRUGINTZA ETA OINETAKOAK	-22,4	-14,8	4,8	-2,2	3	2,7	-7,4
05. ZURA, PAPERA ETA ARTE GRAFIKOA	-4	-2,8	5,7	6,3	0,3	1,5	0,7
06. KOKEA ETA PETROLIOA FINTZEA	-6,5	14,6	16	5,4	-0,5	2,3	9,7
07. INDUSTRIA KIMIKOA	-11,9	-2	4,7	4,7	1,6	7,3	0,9
08. PRODUKTU FARMAZEUTIKOAK	-15	1,5	6,9	-6,2	6,2	-2,4	2,5
09. AKUTXUA ETA PLASTIKOAK	-13,7	-6,1	-0,4	-0,3	4,7	8,6	0,4
10. METALURGIA	-4,4	-3,2	2,1	1	1,8	7,9	0,3
11. PRODUK. INFORMATIKOAK ETA ELETKRONIK.	1,5	-6,4	6,9	15,4	-3,5	17,5	8,5
12. MATERIAL ETA EKIPO ELEKTRIKOA	-4,2	-7,6	-8,4	-0,5	-2,7	2,5	6,9
13. MAKINERIA ETA EKIPOA	0	-0,7	0,5	6,9	2,4	-0,1	4,9
14. GARRAIO MATERIALA	-8,8	-3,7	0,4	3	20,3	6,5	1,9
15. ALTZARIAK ETA BESTE MANUFAK. BATZUK	-9	-6,3	-0,3	22,1	6,3	3	2,1
16. ENERGIA ELEKTRIKOA, GASA ETA LURRUNA	-0,9	-6,4	-3,4	0,1	-5	3,7	-1,4
17. URA	-	-	-	-	-1,1	-0,2	-

Iturria: EUSTAT IPI (2019ko ekaineko datuak)

EUSTATen "Industria Prezioen Indizea" (IPRI) produktuak merkaturatzeko lehen urratsean industria prezioen bilakaeraren koiuntura-adierazlea da, hots, ekoizleak transakzioan benetako jasotako prezioena, zeharkako zergak eta diru-laguntza garbiak sartu barik (horrelakorik balego). Indize horrek 2018an %1,3 egin zuen gora gure Erkidegoan 2017ko abenduaren eta 2018ko abenduaren artean (2015eko oinarria).

Igoerarik handienak, berriz: Erauzketa-industriak (%6,4), Ehungintza, larrugintza eta oinetakoak (%6,3). Industria kimikoa (%5,6) Sektore hauetan, berriz, behera egin dute prezioek: Produktu informatikoak eta elektronikoak (-%2,1) eta Kokea eta petrolioaren finketa (-%1,1).

Manufaktura-industriaren barruan eta EAEko hiru azpisektore industrial garrantzitsuenetariko bakoitzean arreta jarriz, jotzen da Metalurgian eta metalezko produktuen industrian % 1,2ko hazkundea egon dela; Makinak eta ekipoan % 2,1ekoa eta Garraio materialean % 0,1.

Ondasunen jomugaren arabera, kontsumo iraunkorreko ondasunen prezioan izan ezik, gainerakoetan aldakuntza positiboak izan dira. Handiena energiaren kontsumo ez iraunkorreko ondasunen prezioan dago (%2,2), ondoren bitarteko ondasunen prezioan (%1,4), eta ekipo-ondasunenean (%1,3) eta energiakoetan (%1).

2017ko otsaileko datuen arabera, Industria Prezioen Indizearen aldakuntza 2017ko abenduan, 2016ko abenduarekin alderatuta, +% 2,6koa da EAEn (EUSTATek emandako ratio bera).

EINen behin-behineko datuen arabera, EAEko IPRIk % 2,7ko urteko aldakuntza-tasa izan zuen 2018ko abenduaren 2017ko abenduarekiko (2015eko oinarria. Estatuko aldakuntza, EINen arabera % 1,6 da.

2018ko otsaileko datuen arabera, Industria Prezioen Indizearen aldakuntza 2018ko abenduan, 2017ko abenduarekin alderatuta, +% 3koa da eurogunean eta +%3,1ekoa 28ko EBn.

II.3.15. TAULA. ONDASUNEN JOMUGA EKONOMIKOAREN ETA JARDUERA AZPISEKTOREEN ARABERAKO IPRI. 2015EKO OINARRIA CNAE-2009 (aurreko abenduarekiko aldakuntza)

	2012-IV	2013-IV	2014-IV	2015-IV	2016-IV	2017-IV	2018-IV
AURKIBIDE OROKORRA	2,4	-0,6	-1,1	-2,6	-2,9	2,8	1,3
ONDASUNEN JOMUGA EKONOMIKOA							
KONTSUMO ONDASUNAK	-2,5	-4,9	-0,1	-1,1	2,2	-0,1	1,9
---KONTSUMO IRAUNKORREKO ONDASUNAK	-4,4	-11	-16,9	-0,4	-0,6	2,4	-0,2
---KONTSUMO EZ IRAUNKORREKO ONDASUNAK	-2,1	-3,4	3,8	-1,2	2,7	-0,5	2,2
EKIPO ONDASUNAK	-5,4	-3,6	1,5	0,7	1,1	2,8	1,3
BITARTEKO ONDASUNAK	-6,5	-2,9	2,1	-1,9	-0,5	2,8	1,4
ENERGIA	-2	-3	0,1	-4,9	1,4	2,7	1
JARDUERA-SEKTOREAK							
-ERAUZKETA-INDUSTRIAK	-1,5	-1,4	-2,8	-0,4	-1,2	0,1	6,4
--ERAUZKETA-INDUSTRIAK	-1,5	-1,4	-2,8	-0,4	-1,2	0,1	6,4
-MANUFAKTURA-INDUSTRIA	2	-0,7	-1,4	-3,3	-2,4	3,3	1
--ELIKAGAI, EDARI ETA TABAKOAREN IND.	3	-0,6	-0,1	-1	1,1	-0,1	1,8
--OIHAL PROD., JANTZIGINTZA, LARRU PROD. ETA OINETAKOAK	2,2	0,6	-0,6	0,8	0,3	2,8	6,3
--ZURA, PAPERA ETA ARTE GRAFIKOAK	-0,2	-1,1	0,7	-0,3	-0,2	1,9	3,9
--KOKEA LORTZEKO ETA PETROLIOA FINTZEKO FABRIKAK	10,1	-2,6	-6,5	-21,1	-13,3	13,7	-1,1
--INDUSTRIA KIMIKOA	2,8	0,4	-0,4	-1,8	-0,7	4,8	5,6
--PRODUKTU FARMAZEUTIKOAK	0,2	1,5	0,4	1,3	3,8	3,1	2,6
--KAUTXUA ETA PLASTIKOAK	0,2	3,8	-0,7	-0,1	-1,5	-1	0,2
--METALURGIA ETA METALEZKO PRODUKTUAK	-0,3	-2,7	-0,8	-1	-3,4	3,8	1,2
--PROD. INFORMATIKOAK ETA ELEKTRONIKOAK	0,5	-1,7	0,1	-0,2	-3	2,9	-2,1
--MATERIAL ETA EKIPO ELEKTRIKOA	3,3	-0,3	-1	-0,1	0,2	0,3	0,1
--MAKINERIA ETA EKIPOA	0,5	2,2	0,1	-0,2	0,7	3,2	2,1
--GARRAIO MATERIALA	0,1	1,2	-0,8	1	1,5	1,1	0,1
--ALTZARIAK ETA BESTELAKO MANUFAKTURAK	2,3	-0,3	-1,3	-0,7	-0,1	2,1	1,5
-ENERGIA ELEKTRIKOA, GASA ETA LURRUNA	5,6	-0,1	1,1	1,6	-5,9	-0,6	2,8
--ENERGIA ELEKTRIKOA, GASA ETA LURRUNA	5,6	-0,1	1,1	1,6	-5,9	-0,6	2,8
-AGUA	-	-	-	0	-0,6	3,5	3,2
--AGUA	-	-	-	0	-0,6	3,5	3,2

Iturria: EUSTAT. IPRI. (2019ko ekaineko datuak)

EUSTATen "Industria Estatistikaren" operazio estatistikoaren helburua da informazio ekonomikoa eskuratzea sektorearen makromagnitude nagusiak kalkulatzeko; hala, horrek erakusten du, 2019ko apirilean argitaratutako 2017ko

datuekin, 2016 eta 2017 bitartean, sektore industrialaren faktore-kostuen gaineko BEGak % 5,4ko hazkunde izenduneko tasa erregistratu zuela. Igoera hori mugatu egin zen hornidura gastuen igoerak eraginda, eta balio erantsiaren hazkundea mugatu zen faktore kostuetan kopuru nominaletan: % 2. 2016an izandakoa baino hazkunde txikiagoa bada ere (%4,5), laugarren aldiz bildu dira erregistro positiboak, hainbat urtetan balio positiboen eta negatiboen artean ibili ondoren.

Bestalde, enplegua %2,7 hazi zen (hirugarren urtez jarraian), 2008an hasitako epealdi negatiboaren ondotik. Inbertsioak bilakaera negatiboa izan zuen, % 4,9 jaitsia, bi urtez aldakuntza positiboak eta zergen ondorengoko etengabeko eragiketen emaitzen ostean (zergen aurretik ken etekinen gaineko zergaren emaitza), % 38,5 jaitsita.

Lurraldez lurralde, enplegua eta BEG bb hiru lurraldeetan hazi ziren. Araban enplegua %2,5 hazi zen, % 2,6 Bizkaian eta % 2,9 Gipuzkoan. Alde handiena Gipuzkoak erakusten du, bai negozio bolumenean (% 2,6an hazita; Bizkaian eta Araban, berriz, % 7,3 eta % 5,7 hurrenez hurren), bai balio erantsian, % 1,2ko hazkundearekin; Araban eta Bizkaian, aldiz, % 2,6 eta % 2,5 hurrenez hurren, betiere 2016arekiko.

Sekzioen arabera, landunen % 95,4, negozio bolumenaren % 87,6 eta BEG fk-aren % 87,4 Manufaktura-industrian biltzen da (C sekzioa). Energia elektrikoa, gasa eta lurruna (D sekzioa) eta Uraren hornidura eta saneamendua (E sekzioa) enpleguaren % 1,2 eta % 3,2 hurrenez hurren, negozio bolumenaren % 1,8 eta BEG fk-ren % 3,5. Bestalde, B sekzioa (Erauzketa-industriak) enpleguaren % 0,2 baino ez dira, negozio bolumenaren % 0,3 eta BEG fk-ren % 0,2.

II.3.16. TAULA. INDUSTRIAREN SEKTOREKO MAGNITUDEAK ATALEN ARABERA

		Banaketaren % (Industria = 100) 20157					2016/17 aldak.				
		BEG fk	Enplegua (perts.)	Inbertsioa	Negozioen zifra (salm. garbiak)	Zergen ondorengo emaitzak*	BEG fk	Enplegua	Inbertsioa	Negozioen zifra	Zergen ondorengo emaitzak
Guztira, industria		100	100	100	100	100					
	MILA EURO	**14.443.320**	**203.497**	**1.897.278**	**56.490.135**	**1.634.673**	**2,0**	**2,7**	**-4,9**	**5,4**	**-38,5**
B atala	ERAUZKETA-INDUSTRIA	0,2	0,2	0,2	0,3	-0,6	7,3	1,8	18,7	16,4	-5,9
C atala. Manufaktura-industria	ELIKAGAIEN, EDARIEN ETA TABAKOAREN INDUSTRIA	6,4	7,4	6,7	8,1	9,1	3,5	3,2	-12,9	8,2	-30,7
	EHUNGINTZA, EBAK. LARRUGINTZA ETA OINET.	0,7	1,3	0,1	0,5	1,6	9,3	2,6	-47,9	6,5	14,3
	ZURA, PAPERA ETA ARTE GRAFIKOAK	4,8	5,7	2,6	4,0	7,2	5,3	1,3	-50,1	5,1	14,6
	KOKEA EGITE ETA PETROLIOA FINTZEA	2,5	0,5	4,5	9,5	10,8	-20,7	0,2	22,1	16,5	-20,8
	INDUSTRIA KIMIKOA ETA PRODUKTU FARMAZEUTIKOEN FABRIKAZIOA	3,4	2,4	3,0	3,0	9,4	3,9	1,8	13,3	6,2	7,1
	KAUTXUA ETA PLASTIKOAK	7,2	7,0	8,7	6,0	12,2	2,1	4,3	6,4	7,2	-11,5
	EZ METALEZKO BESTE PRODUKTU BATZUK	2,3	2,5	0,9	1,7	0,5	7,7	0,2	-65,5	5,9	176,0
	METALURGIA ETA METALEZKO PRODUKTUAK	28,5	33,9	28,3	25,0	23,2	4,7	2,6	-2,3	9,1	-4,0
	PROD. INFORMATIKOAK ETA ELEKTRIKOAK ETA OPTIKOAK	2,4	3,2	2,7	1,7	3,9	11,2	5,6	48,7	13,5	10,2
	MATERIAL ETA EKIPO ELEKTRIKOA (ETXEKO TRESNA	3,5	4,4	1,9	3,1	-1,5	4,1	0,8	-7,3	1,9	294,3

	ELEKTRIKOAK BARNE)										
	MAKINERIA ETA EKIPOA	10,7	10,9	9,6	8,5	16,6	1,1	1,7	27,3	1,5	-2,8
	GARRAIO MATERIALA	10,5	9,3	9,9	13,9	17,1	3,0	3,2	-13,2	7,1	44,7
	ALTZARIAK ETA BESTE MANUFAKTURA BATZUK	4,4	7,0	1,6	2,6	5,0	6,6	2,2	5,8	-1,1	35,3
D atala	ENERGIA ELEKTRIKOA, GASA ETA LURRUNA	8,9	1,2	14,8	10,1	-18,6	-10,0	7,3	-4,0	-11,5	-143,0
E atala	UR HORNIDURA ETA SANEAMENDUA	3,5	3,2	4,3	1,8	4,1	10,2	6,1	-25,1	0,3	39,8

**** Eragiketa guztien ustiapenaren eta finantzen emaitza barne***
Iturria: EUSTAT. Industria Estatistika

EAEko manufaktura-industrian pisurik handiena duten adar/azpisektoreak ardatz hartuta nabarmentzekoa da Metalurgiaren eta Produktu Metalikoen sektorearen bilakaera, haren balio erantsiaren % 4,7 eta landunen % 2,6, aurreko urtearen aldean, Antzeko aurrerapena ageri da Garraio materialaren sektorean, % 3,2ko igoera izanik enpleguan, % %3ko balio erantsian eta % 7,1ekoa salmentetan. Bestalde, Makineria eta ekipoaren sektoreak hazkundea, positiboak izanik ere, industriako batez bestekoaren azpitik daude: % 1,7 enpleguan, % 1,1 gehiago balio erantsian eta % 1,5 negozio bolumenean.

Ondoko taulan (II.3.17), enpleguaren bilakaera, ikuspegi banakatua eta BEG kf bildu dira hiru jarduera-adar horietan.

II.3.17. TAULA. EAE-KO INDUSTRIAKO HIRU SEKTORE NAGUSIEN FAKTOREEN ETA ENPLEGUAREN KOSTUA

	ENPLEGUA			FAKTORE KOSTUEN BEG		
	2015	2016	ALDAK.	2016	2017	ALDAK.
METALURGIA ETA METALEZKO PRODUKTUAK	**67.179**	**68.937**	**2,6**	**3.939.119**	**4.122.837**	**4,7**
25/26 SIDERURGIA/BURD. EZ DIREN METALEN PRODUK.	9.648	9.803	1,6	668.119	752.034	12,6
27 – METALEN GALDAKETA	6.775	7.003	3,4	419.345	417.629	-0,4
28 – METALEZKO ERAIKUNTZA	9.823	9.949	1,3	417.444	428.651	2,7
29 – FORJAKETA ETA ESTANPAZIOA	6.790	7.187	5,8	455.156	470.729	3,4
30 – INGENIARITZA MEKANIKOA	19.089	19.792	3,7	1.059.410	1.121.911	5,9
31 – METALEZKO ARTIKULUAK	15.054	15.203	1,0	919.645	931.883	1,3
MAKINERIA ETA EKIPOA	**21.857**	**22.234**	**1,7**	**1.535.118**	**1.551.562**	**1,1**
35 – ERABILERA OROKORREKO MAKINAK	17.798	18.026	1,3	1.248.103	1.253.241	0,4
36 – ERREMINTA-MAKINAK	4.059	4.208	3,7	287.015	298.321	3,9
GARRAIO MATERIALA	**18.371**	**18.963**	**3,2**	**1.474.242**	**1.518.456**	**3,0**
37 – MOTORDUN IBILGAILUEN FABRIKAZIOA	11.362	11.967	5,3	906.165	962.015	6,2
38 - ONTZIGINTZA	906	785	-13,4	24.962	-15.200	-160,9
39 – BESTELAKO GARRAIO MATERIALA	6.103	6.211	1,8	543.115	571.641	5,3

Iturria: EUSTAT. Industria estatistika

Eduki teknologikoari dagokionez[23], EUSTATen datuen arabera, 2017an eta aurreko urteetan bezala, enpleguaren zatirik handiena, faktore-kostuen gaineko BEGd eta salmenta garbiak eduki teknologiko ertain baxuko eta ertain altuko sektoreetan biltzen dira. Hala ere, 2011 eta 2017 bitartean, antzeman da maila teknologiko altuaren pisua handitu dela hiru adierazleetan.

Horrela, enpleguaren terminoetan, maila teknologiko ertain baxuko eta ertain altuko sektoreetan okupatutako langileak, hurrenez hurren, industriako enpleguaren guztizko kopuruaren % 47,4 eta % 26,2 dira, hurrenez hurren.

[23] *ELGAren sailkapenaren arabera (EUSTATek darabilena), hauexek biltzen ditu maila teknologiko altuak: 1. Produktu farmazeutikoen fabrikazioa, 2. Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioa, eta 3. Aireontzien eta espaziontzien eraikuntza. Maila ertain-altuan, berriz, hauek 4. Industria kimikoa, 5. Armen eta munizioen fabrikazioa, 6. Material eta ekipo elektronikoenaren fabrikazioa, makinen eta ekipoen fabrikazioa eta ibilgailuen fabrikazioa, 7. Beste garraio material baten fabrikazioa, ontzigintza eta aireontzien eraikuntza izan ezik eta 8. Tresna eta hornidura medikoen eta odontologikoen fabrikazioa. Maila ertain-baxuan: 9. Euskarri grabatuen erreprodukzioa, 10. Kokea eta petrolioa fintzea, 11. Kautxuaren eta plastikoen produktuen fabrikazioa, metalezkoak ez diren beste produktu mineralen batzuen fabrikazioa. Metalurgia, 12. Metalezko produktuen fabrikazioa, makinak eta armak eta munizioak izan ezik, 13. Ontzigintza, eta 14. Makinen eta ekipoen konponketa eta instalazioa. Maila baxuan: 15. Elikagaien, edarien, tabakoaren, ehungintzaren eta ebaketaren industria. Larrugintza eta oinetakoen industria. Zurgintza eta papergintza eta kortxoaren industria, 16. Arte grafikoak, 17. Altzarien fabrikazioa, 18. Bestelako manufaktura-industriak; eta 19. Sailkatu barik..*

Bilakaeraren aldetik, 2012 eta 2017 bitartean gora egin du maila teknologiko altuko eta ertain-altuko sektoreen pisuak, eta jaitsi egin da maila baxukoa eta maila ertainekoa.

Faktore-kostuen gaineko BEGaren terminoetan, maila baxu ertainean eta maila altuan biltzen dira balio erantsiaren % 42,5 eta 26,4, hurrenez hurren. 2012 eta 2017 bitarteko bilakaerak erakusten duenez, maila ertain baxuko sektoreek BEGan duten pisuari eusten zaio, eta gora egin du maila teknologiko ertain baxuko, ertain altuko eta altuko sektoreetakoa pisuak.

Bestalde, salmentarik gehienak eduki teknologiko ertain baxuko sektoreetan egiten dira (sektore industrialeko salmenten % 43,5) eta ertain altukoetan (% 26,3). Halaber, 2012 eta 2017 bitartean, eduki teknologiko ertain baxuko eta baxuko sektoreekin lotutako salmenten pisua murriztu da eta eduki teknologiko altuko sektoreetako salmentak hazi egin dira.

II.3.18. TAULA. INDUSTRIAK EAE-N DUEN EDUKI TEKNOLOGIKOA ELGA-REN SEKTOREEN ARABERA. (Guztizkoarekiko pisua)

	2012	2013	2014	2015	2016	2017
LANEAN ARI DIREN LANGILEAK						
GUZTIRA (kopurua)	203.174	195.633	192.387	194.458	198.141	203.497
TEKNOLOGIA-MAILA ALTUA	4,4	4,6	4,5	4,8	4,7	4,8
TEKNOLOGIA-MAILA ERTAIN ALTUA	25,8	26,3	25,9	25,7	26,4	26,2
TEKNOLOGIA-MILA ERTAIN BAXUA	47,7	47,1	47,5	47,8	47,4	47,4
TEKNOLOGIA-MAILA BAXUA	17,7	17,6	17,3	17,3	17,0	16,9
SAILKATU GABE	4,5	4,4	4,7	4,4	4,5	4,6
Balio Erantsi Gordina faktore kostuetan						
GUZTIRA (kopurua)	13.983.941	12.950.224	13.101.641	13.542.946	14.154.616	14.443.320
TEKNOLOGIA-MAILA ALTUA	4,0	4,4	4,4	4,8	4,9	5,1
TEKNOLOGIA-MAILA ERTAIN ALTUA	25,7	26,2	25,6	25,9	26,1	26,4
TEKNOLOGIA-MILA ERTAIN BAXUA	40,7	40,1	40,2	42,5	42,5	42,5
TEKNOLOGIA-MAILA BAXUA	13,6	14,3	13,9	13,5	13,1	13,4
SAILKATU GABE	16,1	15,1	15,9	13,4	13,5	12,6
Salmenta garbiak						
GUZTIRA (mila euro)	55.661.105	54.443.484	55.865.644	54.890.865	53.574.121	56.490.135
TEKNOLOGIA-MAILA ALTUA	3,2	3,5	3,3	3,5	4,0	4,2
TEKNOLOGIA-MAILA ERTAIN ALTUA	23,2	22,6	22,0	23,5	26,3	26,3
TEKNOLOGIA-MILA ERTAIN BAXUA	47,0	46,6	45,4	43,6	41,9	43,5
TEKNOLOGIA-MAILA BAXUA	12,6	13,5	13,1	13,6	13,6	13,7
SAILKATU GABE	14,0	13,8	16,2	15,8	14,2	12,4

Iturria: EUSTAT. Industria estatistika

3.4. ERAIKUNTZA

EUSTATen "Kontu Ekonomikoen" datuen arabera (2019ko martxoan argitaratutakoak), 2018an, eraikuntzaren sektorea, 4.141 milioi eurorekin eta lanaldi osoaren pareko gisa neurtutako 59.328 lanposturekin, guztizko BPGd-aren % 5,4 izan da eta lanaldi osoaren pareko guztizko enpleguaren % 6,2.

Kontu horien arabera, sektorea urte arteko %2,7ko aldakuntza-tasarekin hasi zen urtea eta laugarreneko hazkunde-tasa % 5,6koa izan zen. Hala, eraikuntzaren sektoreko BEGak urte arteko %4,3ko aldakuntza-tasa zuen 2018an, 2017koa baino %0,5.

II.3.19.TAULA. BEG-AREN ETA ENPLEGUAREN BILAKAERA ERAIKUNTZAN (urte arteko aldakuntza-tasak)

	2016	2017				2018			
	T4	T1	T2	T3	T4	T1	T2	T3	T4
BEGaren aldakuntza-tasa bol.	0,9	2,5	3,9	4,7	4	2,7	4,1	4,8	5,6
Enpleguaren aldakuntza-tasa (LOE*)	0,8	1,1	1,2	2,5	3	2,9	3,4	3,8	4,1

***Lanaldi osoko enplegua*
Iturria: EUSTAT, HKE

Eraikuntzako BEGaren urteko batez besteko aldakuntza Estatuan, EINren arabera, %7,6koa zen.

Enpleguaren arloan, lanaldi osoko lanpostuen neurturiko horretan, EUSTATen Kontu Ekonomikoek urte arteko hazkunde tasa % 3,6 zen 2018an, 2017an ikusitako igoera baino 3,6 hamarren gehiago. 2018ko hiruhilekoen profilak erakusten duenez, enpleguaren hazkundea finkatu egin zen urte osoan (ikusi II.3.19 taula). Sektorearen produktibitatea % 0,7 handitu da.

EUSTATen "Eraikuntzaren Koiuntura-indizea"[24] eraikuntzaren sektoreko produkzioaren eta enpleguaren bilakaera aztertzen duen koiuntura-adierazlea da eta berriz erakusten du hazkundea egon dela aurreko urtearekiko. Horrela, produkzioaren urteko batez besteko aldakuntza, 2018an, % 12,5ekoa izan da, Aldakuntza hori gertatu da gora egin dutelako bai eraikuntzakoak (% 13,4ko hazkunde-tasa), bai obra zibilekoak, eta aldakuntza-tasa % 5,3. Bigarren urtez jarraian, urteko batez besteko aldakuntza-tasa positiboa du enpleguak; 2018an +%4,4koa, 2017ko igoera baino % 3,1 puntu gehiago.

EUROSTATen datuen arabera, 2019ko otsailean argitaratutakoak, Eraikuntzaren Produkzio Indizearen batez besteko aldakuntza, 2018an, +% 1,7koa da eurogunean eta +%2koa EB28an

II.3.20. TAULA. ERAIKUNTZA SEKTOREAREN BILAKAERA

	HIRUHILEKOETAKO KONTU EKONOMIKOAK. (DATU ZUZENDUAK) URTEKO ARTEKO ALDAKUNTZA-TASAK			ERAIKUNTZAKO ABAGUNE-INDIZEA URTEKO BATEZ BESATEKO HAZKUNDEA			
	BPG BOLUMEN KATEATUA	LANPOSTU OSOA (LOL)	PRODUKTIBITATEA	GUZTIRA	ERAIKUNTZA	OBRA ZIBILA	ENPLEGUA
				ÍNDICE DE PRODUCCIÓN			
2012	-7,7	-12,9	5,2	-16,4	-15,7	-21,3	-12,9
2013	-4,6	-11,9	7,3	-24	-25,2	-15,9	-12,9
2014	-1,7	-3,4	1,7	-4,6	-6,6	7,1	-5,6
2015	1,1	2,2	-1,1	-0,1	1,8	-10	-1,7
2016	0,2	0,3	-0,1	2,4	4,9	-12,2	-0,7
2017	3,8	2,0	1,8	5,7	7,7	-8,6	1,3
2018	4,3	3,6	0,7	12,5	13,4	5,3	4,4

Iturria: EUSTAT

[24] *Indize honek eraikuntza obra mota biak bereizten ditu: eraikinak egitea (eraikuntza iraunkor oro, bereizia edo independentea, etxebizitza familiar edo kolektiborako egiten dena, edo nekazaritzarako, industriarako, zerbitzuak emateko edo, oro har, jarduera bat egiteko —eskolak, siloak, eta abar— egiten dena) eta obra zibila (azpiegitura obra oro, eraikinak egitea ez dena, kolektiboki edo publikoki erabiltzeko dena).*

II.3.6. GRAFIKOA. ERAIKUNTZA SEKTOREAREN BILAKAERA



Iturria: HEK. EUSTAT

EUSTATen "Eraikuntzako Kostuen Indizea" aztertuko dugu orain. Abagune-adierazlea da. Kostu horien bilakaera neurtzen du, eraikuntza sektoreko lehengaien edo bitarteko kontsumoen (lehengaien eta materialen kostuen, energia kostuen eta askotako gastuen kostuen batura; hori sektoreko lehengai nagusien prezioen bidez zenbatesten da) eta langileria kostuen (soldata gordinen eta gizarte kotizazioen batura, sektoreko hitzarmen kolektiboen bidez zenbatetsia) indize baten bidez).

2017ko abendutik 2018ko abendura, eraikuntzaren kostuak %2,1 hazi dira; eskulanaren kostua % 1,8 hazi da eta lehengaien kostuak % 2,1.

Eraikuntza eta Obra Zibila deritzen azpisektoreetako kostuen bilakaera positiboa da, eta handiagoa da bigarrenekoak lehengoak baino. Obra zibilekoak %2,1 hazi dira eta eraikuntzakoak %1,9.

II.3.21.TAULA. TAULA. EAE-KO ERAIKUNTZAKO KOSTUEN URTE ARTEKO ALDAKUNTZA-TASA (aurreko abenduarekiko aldakuntza)

	Kostuak			Lehengaien prezioak			Lanesku aren kostua
	Guzt.	Guzt.	Eraikun tza	Obra zibila	ERAIKUNTZA	OBRA ZIBILA	
2012-12	-0,6	-0,5	-0,8	-1	-1	-1,3	1
2013-12	0,4	0,4	-0,1	0,2	0,3	-0,4	1
2014-12	-1,2	-0,9	-2,6	-2	-1,7	-3,9	1,8
2015-12	0,2	0,4	-1,1	0,2	0,4	-1,5	0,3
2016-12	0,1	-0,1	1,1	-0,1	-0,3	1,2	0,7
2017-12	0,5	0,4	1	0,3	0,1	0,9	1,4
2018-12	2,1	2,1	1,9	2,1	2,2	2	1,8

Iturria: EUSTAT. EKI

3.5. ZERBITZUAK

EUSTATen "Ekonomia Kontuen" datuen arabera (2019ko martxoan argitaratutakoak); 2018an, zerbitzuen sektorea, 7.679 milioi eurorekin eta lanaldi osoaren pareko 681.378 lanposturekin, guztizko BPGd-aren % 62,2 izan da eta lanaldi osoaren pareko guztizko enpleguaren % 71,2.

II.3.22. TAULA. ZERBITZUEN SEKTOREAREN BILAKAERA. DATU ZUZENDUAK. URTEKO ARTEKO ALDAKUNTZA-TASAK

	Zerbitzuen BEG. Bolumen indizea				Lanpostuak (LOE)	Produktibitatea
	Guztira	Merkat., ostal. eta garraioa	Ad. Publ.. Hezkuntza, Osasun eta G. Zerbitzuak	Gainerako zerbitzuak		

2012	-0,4	-2,4	0,4	0,5	-1,6	1,2
2013	-1	-1,5	0,7	-1,6	-1,6	0,6
2014	1,7	1,9	2,6	1	1	0,7
2015	3,5	5	1,5	3,6	2,4	1,1
2016	2,8	3,6	2,4	2,5	2,5	0,3
2017	2,7	4	2,2	2,2	2,1	0,6
2018	2,9	2,8	2,4	3,1	2,1	0,8

Iturria: EUSTAT

2018. urtean, EAEko zerbitzuen sektorea %2,9 hazi zen 2017aren aldean, 2016an baino %0,2 gehiago. *Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioa* sektorea %2,8 hazi da (2017an baino %1,2 gehiago), *Administrazio Publikoa, Hezkuntza, Osasuna eta Gizarte Zerbitzuak* %2,4 (2017an baino 2 hamarren gehiago) eta *Gainerako zerbitzuak %3,1* (2017an baino 0,9 gehiago).

Zerbitzuen sektoreko BEGaren egiazko hazkundea (%2,9) handiagoa da estatukoa baino, non EINen datuen arabera, % 2,7 hazi baita.

Zerbitzuen sektoreko enplegua (LOL) gure Erkidegoan, EUSTATen arabera, % 2,1 hazi da, 2017ko ratio bera.

Zerbitzuen sektorean, nabarmena da azken urtean ere Merkataritza eta ibilgailuen konponketa, BPGd-aren kopuruetan nahiz enpleguaren aldetik: zerbitzuen sektoreko BPG korrontearen % 15,7 2017an (azken datuaren arabera) eta enpleguaren % 20,6 (azken datua 2016koa da). Baita BPG korrontearen aldetik ere: Higiezinen arloko jarduerak (zerbitzuen sektoreko BPGd-aren %16,6), Osasun jarduerak (% 7,9), Hezkuntza (% 7,7), Ostalaritza (% 7,3), Garraioa eta bilegiratzea (% 7,2) eta Herri administrazio eta defentsa (% 7,1). Eta enpleguaren aldetik: Hezkuntza (zerbitzuen sektoreko LOL lanpostuen %10,7), Zerbitzu osagarriak (% 9,5), Herri administrazioa eta defentsa (% 8,9), Ostalaritza (% 8,8), Osasun jarduerak (% 7,4), Garraioa eta biltegiratzea (% 6,8) eta Aholkularitza eta jarduera teknikoak (% 6,7).

II.3.7. GRAFIKOA. ZERBITZUEN SEKTOREKO BPG-AREN BANAKETA, SEKTOREEN ARABERA, 2017



Iturria: EUSTAT. Ekonomia Kontuak

II.3.8. ZERBITZUEN SEKTOREKO ENPLEGUAREN BANAKETA, SEKTOREEN ARABERA, 2016



Iturria: EUSTAT. Ekonomia Kontuak

2013 eta 2017 bitartean, BPGd-aren urteko batez besteko aldakuntza-tasa, kopuru errealetean, +%2,7 izan zen. BPGd-aren hazkunderik handienak hauexetan izan ziren: Jolas- eta kultura-jarduerak (% 4,7, urteko batez besteko tasa), Zerbitzu osagarriak eta ostalaritza (adar bietan % 4,1arekin); Informatika (% 3,8) eta Garraioa eta biltegiratzea).

Enpleguari dagokionez, 2012 eta 2016 bitartean hazkundeak ageri dira hauexetan: Gizarte zerbitzuetako jarduerak (%2,9), Jolas- eta kultura-jarduerak (%2,8) eta Etxeetako jarduerak (%2,4). Jaitsierak, berriz, hauetan: Telekomunikazioak -%6,3), Finantza- eta aseguru-jarduerak (-%3,2), Edizioa, irudia, irratia eta telebista (-%1,5) eta Merkataritza eta ibilgailuen konponketa (-%0,1).

Zerbitzuen sektoreko prezioen batez besteko urteko aldakuntza -% 0,1 izan zen 2103 eta 2017 bitartean.

II.3.23. TAULA. EAE-K0 ZERBITZUEN SEKTOREAREN EGITURA ETA BILAKAERA													
	BPG korrontea (zerbitzuen sektoreko BEGd-arekiko)					Enplegua (zerbitzuen sektoreko enpleguarekiko %)					BPG*	Prezioak	Enpleg
	2013	2014	2015	2016	2017	2012	2013	2014	2015	2016	2013-16		2012-16
19. IBILGAILUEN MERKATURATZEA ETA KONP.	15,7	15,8	15,7	15,6	15,7	20,7	19,9	19,8	20,1	20,6	3,4	-0,1	-0,1
20. GARRAIOA ETA BILTEGIRATZEA	6,8	6,8	7,0	7,1	7,2	6,5	6,3	6,4	6,6	6,8	3,7	0,8	1,1
21. OSTALARITZA	6,8	6,9	7,0	7,2	7,3	8,1	8,0	8,2	8,5	8,8	4,1	0,9	2,2
22. EDIZIOA, IRUDIA, IRRATIA ETA TELEBISTA	0,9	0,9	0,9	0,8	0,8	0,9	0,9	0,8	0,9	0,9	0,9	0,1	-1,5
23. TELEKOMUNIKAZIOAK	2,2	2,1	2,0	2,0	1,9	0,5	0,4	0,4	0,4	0,4	1,9	-1,6	-6,3
24. INFORMATIKA	1,5	1,5	1,6	1,6	1,6	1,9	1,9	2,0	2,1	2,1	3,8	0,5	1,8
25. FINANTZA- ETA ASEGURU-JARDUERAK	5,6	5,8	5,6	5,6	5,6	3,1	2,9	2,9	2,7	2,7	1,6	1,4	-3,2
26. HIGIEZINEN ARLOKO JARDUERAK	16,6	16,4	16,8	16,7	16,6	0,8	0,8	0,8	0,8	0,8	2,2	1,0	0,4
27. AHOLKULARITZA ETA JARDUERA TEKNIKOAK	6,9	6,7	6,6	6,6	6,6	6,4	6,2	6,2	6,4	6,7	0,9	1,1	1,2
28. IKERKETA ETA GARAPENA	0,9	0,9	0,9	0,9	0,9	1,1	1,1	1,1	1,1	1,2	3,2	0,8	1,9
29. BESTE JARDUERA PROFESIONAL BATZUK	1,1	1,1	1,1	1,1	1,1	1,7	1,7	1,7	1,8	1,9	2,9	0,8	2,3
30. LAGUNTZA ZERBITZUAK	4,2	4,1	4,2	4,4	4,4	8,8	8,7	8,8	9,1	9,5	4,1	0,8	1,9
31. ADMINISTRAZIO PUBLIKOA ETA DEFENTSA	7,7	7,8	7,5	7,3	7,1	8,9	9,0	8,8	8,9	8,9	1,0	0,2	0,0
32. HEZKUNTZA	7,7	7,7	7,6	7,6	7,7	10,0	10,0	10,3	10,5	10,7	2,9	0,4	1,8
33. JARDUERA SANITARIOAK	8,1	8,1	7,9	7,9	7,9	7,0	6,9	7,1	7,2	7,4	2,4	0,2	1,5
34. GIZARTE ZERBITZUEN JARDUERAK	1,5	1,5	1,5	1,5	1,5	3,7	3,8	3,9	4,0	4,2	2,9	0,3	2,9
35. JOLAS ETA KULTUR JARDUERAK	2,2	2,3	2,2	2,3	2,3	1,9	2,0	2,0	2,1	2,2	4,7	0,1	2,8
36. BESTELAKO ZERBITZUAK	2,1	2,1	2,3	2,2	2,2	3,5	3,5	3,5	3,7	3,7	3,3	0,7	1,5
37.ETXEETAKO JARDUERAK	1,4	1,4	1,4	1,4	1,4	4,5	4,5	4,7	4,8	4,9	2,8	0,6	2,4
38. LURRALDEZ KANPOKO ERAKUNDEAK				0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
ZERBITZUAK GUZTIRA (BPG MILA EUROTAN ETA LANALDI OSOKO ENPLEGUAN)	40.381.762	41.174.557	42.713.574	44.247.550	45.847.954	626.662	616.627	622.737	637.482	653.581	2,7	0,5	1,1
EKONOMIA, GUZTIRA (BPG MILA EUROTAN ETA LANALDI OSOKO ENPLEGUAN)	64.923.009	66.378.235	68.496.577	71.239.291	73.821.178	905.545	879.100	881.112	899.438	919.453	2,7	0,5	2,1

**** Egiazko BPG (bolumen kateatua)***
Iturria: EUSTAT. Ekonomia kontuak

3.5.1. Merkataritza

EUSTATen "Ekonomia Kontuen" eskuragarri dauden azken datuen arabera, ibilgailuen merkaturatzearen eta konpontzearen sektoreak EAEko BPG korrontearen balioaren % 9,8 inguru hartzen du (7.213,7 milioi euro; 2017ko datua) eta enpleguaren % 14 inguru (lanaldi osoaren pareko 126.906 lanpostu; 2016ko datua).

Lehenik eta behin, EUSTATen "Txikizkako Merkataritza Indizea (TMI)" aztertuko dugu. EAEko txikizkako merkataritzaren sektoreko merkataritzako eta laneko koiunturaren bilakaeraren zuzeneko adierazlea da, eta informazioa jaso deneko bi aldagaien jokabidearen azterketan du oinarria: "salmentak" eta "landunak".

Txikizkako merkataritzaren salmenten indize orokorrak %0,9ko hazkunde izan zuen EAE osoan 2017 eta 2018 bitartean, 2017an baino %0,1 gehiago baina 2016an baio 7 hamarren gutxiago.

Gehikuntza hori gertatu da gehienbat espezializatu gabeko elikagaien salmenten (%3,6) autogintzarako erregaien (%2,7) igoeren ondorioz; neurri txikiagoan egin dute gora etxeko salmentek etxeko horniduran (% 0,8) eta pertsonaren horniduran (% 0,2). Aitzitik, behera egin dute produktu hauen salmentek: elikagai espezializatuak (-%1,7), kontsumoko besten ondasun batzuak (-% 1,6) eta espezializatu gabeko beste produktu batzuk (-%1).

Lurraldez lurralde, 2017 eta 2018 bitartean, joera berari eutsi zioten guztiek, baina aldeak ikusten dira, zeren eta Arabako indize orokorra %1,4 hazi baita, Bizkaiko %0,7 eta Gipuzkoakoa %1.

EUROSTATen datuen arabera, Industria Prezioen Indizearen batez besteko aldakuntza, 2018an (2019ko otsaileko datuen arabera, datu doituak), %0,8 da eurogunean eta %1,2 28ko EBn.

II.3.24. TAULA. TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN SALMETEN INDIZEAREN BILAKAERA (urteko b.b. hazkundea prezio iraunkorretan)

	LL.HH.			EAE										
					Elikadura			Gainerako produktuak						
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	**Indize orokorra EAE**	Guzt.	Espezializatua	Ez espezializat	Guzt.	Pertsona hornitzekoak	Etxe hornitzekoak	Beste konts. ondas.	Ez espezial.	Autogintzarako erregaia	Zerbitzuen sektoreko indize orokorra
2012	-3,5	-4,7	-5,2	**-4,7**	-2,3	-4,4	-1,2	-6,3	-5,9	-9,8	-4,6	-3,6	-5,6	-4,6
2013	-2,3	-3,7	-4,6	**-3,8**	-2,4	-0,2	-3,5	-5,4	-8,7	-6,7	-2,2	2,9	-0,8	-4,1
2014	1,1	-0,8	0,8	**0**	-2,2	-2,2	-2,2	1,7	2,9	2,8	-1	1	0,8	0
2015	4,9	0,5	2	**1,7**	1,4	-2,8	3,7	2,1	0,6	3,6	3,8	0,9	0,5	1,8
2016	1,2	1,4	1,9	**1,5**	2,9	-1,1	4,8	0,6	-1,1	3,2	0,8	1,2	0,7	1,6
2017	0,5	0,5	1,2	**0,8**	1,1	-5,2	4	1,2	-0,8	-0,5	4,7	4,1	-2,7	1,1
2018 p	1,4	0,7	1	**0,9**	2	-1,7	3,6	-0,2	0,2	0,8	-1,6	-1	2,7	0,8

bb: behin-behineka
Iturria: EUSTAT, TMI

Txikizkako merkataritzaren okupazioari buruzko datuek erakusten dutenez, %0,2ko igoera izan zen 2018an, 2017ko ratioa baino %0,8 handiagoa. Aurreko urtean legez, elikagaien dendetako (%2,9) enpleguan eta autogintzako erregaietan (% 5,2) izandako gehikuntzagatik gertatu da hala. Gainerako produktuetan, berriz, behera egin zuen enpleguak, -%2.

II.3.25 TAULA. TXIKIZKAKO MERKATARITZAN DIHARDUEN PERTSONALAREN INDIZEA. EAE (urte arteko tasak)

	Indize orokorra	Elikadura	Gainerako produkt.	Autogintzarako erregaia
2012	-3,2	-0,4	-5,2	4,1
2013	-3,9	-2,3	-5	-2,8
2014	-1,3	-2	-1	2,3
2015	0,1	-0,1	0	7,3
2016	0,9	3,8	-0,7	-7,5
2017	1	3,2	-0,5	-2,1
2018 p	0,2	2,9	-2	5,2

bb: behin-behinekoak. Iturria: EUSTAT,TMI

Orain EUSTATen "Saltoki handietako eta elikagai-kateetako merkataritza indizea (IGSC) [25] aztertuko dugu. Saltoki handietako eta elikagai-kateetako merkataritzaren sektorearen salmenten bilakaera komertzialari eta langileei buruzko abagune-adierazlea da[26].

II.3.26. TAULA. SALTOKI HANDIETAKO ETA ELIKAGAI-KATEETAKO MERKATARITZA INDIZEA (urte arteko tasak)

	LL.HH. INDIZE OROKORRA			SALMENTAK (PREZIO IRAUNKORRAK)			LANDUN PERTSONALA
	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	AURKIBIDE OROKORRA	ELIKADURA	GAINERAKO PROD.	
2016	0,5	3,4	1,4	**2,3**	2,3	1,8	3,3
2017	1,7	1,7	2,4	**1,9**	2	1,4	3
2018 p	-0,2	2	3	**2**	2,2	0,9	3,3

bb: behin-behinekoa
Iturria: EUSTAT, , Saltoki handietako eta elikagai-kateetako merkataritza indizea

[25] *2015etik, aldaketak antzeman ziren saltoki handietako kontsumitzaileek erosteko dituzten ohituretan, hain zuzen kontsumitzailearengandik hurbilago dauden beste banaketa modu batzuetara. Hori dela-eta, EUSTATek Saltoki Handietako Merkataritza Indizea argitaratzeari utzi eta saltoki handietako eta elikagai-kateetako merkataritza indizea ezarri zuen".*

[26] *Pertsonei ostatua emateko helburu nagusia duen establezimendua, maiztasunez eta profesionaltasunez, batzuekin edo batzuk gabe. Euskal Autonomia Erkidegoan kokaturiko osalaritzako establezimenduek –hotelak eta ostatua- eta landa-turismoko establezimenduek eta landa-etxeek osatzen dute ikerturiko biztanleria.*

Indize horren arabera, EAEko saltoki handien eta elikagai-kateen salmentek gora egin zuten 2017 eta 2018 bitartean, %2 hain zuzen (2017an baino %0,2 gehiago). Hazkundea gertatu da elikagaietan (%2,2) nahiz gainerako produktuetan (%0,9) izandako gehikuntzagatik. Langileen kopurua %3,3 handitu da epealdi berean.

3.5.2. Ostalaritza eta turismoa

El sector turístico ha alcanzado una relevancia económica y social en nuestra Comunidad. Turismoaren sektoreak garrantzi handia hartu du gure Erkidegoan arlo ekonomikoan eta sozialean. EUSTATen Kontu Ekonomikoek eskura jarritako azken datuen arabera, Ostalaritza sektoreak EAEko BPGd-aren balioaren % 4,6 inguru hartzen du (3.364,3 milioi euro; 2017ko datua) eta enpleguaren % 6 inguru (lanaldi osoaren pareko 55.326 lanpostu; 2016ko datua).

3.5.2.1. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta 2018

EAEko hoteletan ostatu hartutako bidaiarien inguruko EUSTATen "Establezimendu turistiko hartzaileen Inkestaren" datuek erakusten dute, EAEko bidaiariak eta berezko ostatu-gauak zenbatuz[27], gorantz jarraitzen dute gau-emateek, okupazio-graduak eta batez besteko egonaldiak..

Zehazki, 2018an %4,4ko igoera izan zen bidaiarien sarreretan eta %7,2koa gau-emateetan (%2,6, 2017an). Eskainitako hoteleko plazen kopurua %2,3 hazi da aurreko urtearen aldean.

II.3.27. TAULA. BIDAIARIAK, GAU-EMATEAK, B.B. EGONALDIA, OKUPAZIO-MAILA ETA ESKAINITAKO HOTELEKO PLAZAK EAE-KO OSTALARITZAKO ESTABLEZIMENDUETAN

	Ostatua hartu duten bidaiariak	Guzt. okupatut. plazak (igarotako gauak)	b.b. egonald egunet.	Okupazio-maila plaza bakoitzeko	Okupazio-maila gela bakoitzeko	Hoteletan eskainitako plazak
2013	2.368.080	4.478.672	44	54	1,9	10.115.592
2014	2.424.832	4.657.505	46	56	1,9	10.042.348
2015	2.637.385	5.041.338	50	61	1,9	10.122.621
2016	2.837.225	5.490.499	53	64	1,9	10.364.353
2017	2.940.493	5.635.712	54	65	1,9	10.399.052
2018	3.071.130	6.040.523	57	68	2,0	10.638.286
16-17 ald.	3,6	2,6	2,3	1,7		0,3
17-18 ald.	4,4	7,2	4,8	3,2		2,3

Iturria: EUSTAT, Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

[27] *Pertsonei ostatua emateko helburu nagusia duen establezimendua, maiztasunez eta profesionaltasunez, batzuekin edo batzuk gabe. Euskal Autonomia Erkidegoan kokaturiko osalaritzako establezimenduek –hotelak eta ostatua- eta landa-turismoko establezimenduek eta landa-etxeek osatzen dute ikerturiko biztanleria.*

Ostatu hartutako bidaiarien kopurua hazi da atzerritik datozen bidaiaren kopurua ere hazi delako (% 6,9), eta Estatukoen hazkundea ere gertatu delako (% 2,8). Aurreko urteetako hazkundeetara gehitzen dena: Hala ere, EAEko berezkoetan igoerak izan dira atzera (-%2,6), hiru urtez jarraian jaitsierak izanik.

II.3.9. GRAFIKOA. BIDAIARIEK EAE-N EGINIKO SARREREN BILAKAERA OSTALARITZAKO ESTABLEZIMENDUAK.



Iturria: EUSTAT

Hala, EAEko bertako bidaiariak alde batera utzita ikusten dugunez, gora egin du EAEko hoteletan ostatu hartutako bidaiarien kopuruak 2017 eta 2018 bitartean, %5,3 hain zuzen ere (aurreko urteko ratio bera), eta guztira 2.766.652 lagun dira. Hortaz, batez besteko egonaldia 2 egunekoa da, eta 1,66koa da Estatuko bisitarien nahiz Estatutik kanpoko bisitarien kasuan

II.3.28. TAULA. BIDAIARI KOPURUAREN, GAU-EMATEEN ETA BATEZ BESTEKO EGONALDIAREN (EGUNETAN) BILAKAERA EAE-N, BIDAIARIAREN JATORRIAREN ARABERA

	2016			2017			2018			Aldakuntza		
	Bidaiariak	Gau-emateak	B.b. egonaldia (egun)	B	P	BE	B	P	BE	B (%)	P (%)	BE (Dif)
GUZTIRA, EAE BARIK	2.495.805	4.896.359	1,96	2.627.923	5.109.651	1,94	2.766.652	5.534.394	2,00	5,3	8,3	0,06
ESTATUA, EAE BARIK	1.397.909	2.757.533	1,97	1.437.105	2.797.668	1,95	1.493.086	3.004.769	2,01	3,9	7,4	0,07
ATZERRIT.	1.097.896	2.138.826	1,95	1.190.818	2.311.983	1,94	1.273.566	2.529.625	1,99	6,9	9,4	0,04
EAEKO BERTAKOAK	341.420	594.140	1,74	312.570	526.061	1,68	304.478	506.129	1,66	-2,6	-3,8	-0,02

Iturria: EUSTAT, Establezimendu turistiko hartzaileei buruzko inkesta

3.5.2.2. Asialdiagatik egiten den turismoa: kultura turismoa

Ondoren, IBILTUR estatistika-eragiketaren (bi urterik behingoa) zenbait datu emango dira, zehazki, Basquetourrek 2017an argitaraturiko txosten honetan bilduak: "*IBILTUR Aisialdia 2017-2016 – Euskadira aisialdiagatik datozen turisten profila eta jokabidea".*

Establezimenduetan ostatua hartu zuten pertsonen artean (hotelak, landa-ostatuak eta kanpinak) bildu zen informazioa (turisten neurketa), bidaia egiteko arrazoia edozein zelarik ere. Hala, % 79,2ren arrazoia "aisialdia eta oporraldia" zen, % 17,1ena "lana, negozioak, azokak eta kongresuak", % 0,4k zioen "borondatezko osasun tratamenduak"

zirela-eta bidatu zutela, % 0,3k erlijioagatik eta gainerakoak (% 3) ikasketengatik, senideak eta laguntzak bisitatzeagatik, erosketak egiteagatik eta beste arrazoi batzuengatik.

Aisialdiari buruzko inkesta (aisialdiagatik Euskadira datozen pertsonak ezaugarritzea eta tipifikatzea du helburu) eta gastuari buruzko inkesta (bidaia egiten duten turistek eginiko gastu objektiboa zehazteko informazioa lortzea du xede) soilik aplikatu zitzaien Euskadira etortzeko arrazoi nagusi hau zuten eta ostatua izan zuten pertsonei: "aisialdia eta oporraldia", "erlijio arrazoiak" edo "borondatezko osasun tratamenduak". Bestela esanda, azterlan horretan ez ziren sartu "lana, negozioak, azokak, kongresuak" direla-eta bidaiatzen duten turistak, edo "ikasketak (arrazoi akademikoak)", "erosketa eta zerbitzu pertsonalak" etab. direla-eta bidaiatzen dutenak.

Xedeko turistek 1etik (garrantzi gutxien) 5erako (garrantzirik handiena) eskata batean baloratu zuten Euskadi turismo jomugatzat aukeratzean izandako zenbait arrazoiren garrantzi maila. Arrazoien artean: hiriko turismoak, kultura eta ekitaldiak, gastronomia eta ardoa, landa-turismoa, kostaldeko turismoa, touring ibilbide turistikoak eta natura-abendura.

2014-15ean bezala, hirietako turismoarekin zuzenean lotutakoa da turistak Euskadira erakartzeko arrazoi nagusia. Kategoria horretan sartzen da hiriko turismoaren arrazoia bera (% 21,9), gastronomiarekin eta ardoarekin lotutakoak (% 20,2) eta kultura eta ekitaldiak (% 13,5).

Alabaina, hiru arrazoiak batera kontuan hartzen baditugu (% 55,6) eta touring ibilbide turistikoak egiteko arrazoiarekin erkatuz gero ikusten denez, lehengoak behera egin zuen 2014-2015 eta 2016-17 bitartean (% 61etik % 55,6ra), baina gora egin zuen touring ibilbide turistikoak egiteko Euskadira datozen turisten ehunekoak (% 12tik % 20,9ra).

II.3.10. GRAFIKOA. EAE-RA BIDAIATZEKO ARRAZOI NAGUSIA. 2016-2017



Iturria: BASQUETOUR. Txostena: IBILTUR aisialdia 2017-2016.

Bidaian eginiko gastuari dagokionez, turistek 140,2 euroko gastua egiten dute EAEn egunean batez beste (jatorriko tokian bidaian ordaindutako gastuak aparte).

Bidaia egiteko arrazoiaren arabera Euskadin pertsonako eta eguneko eginiko gastuaren azterketak erakusten duenez, gasturik handiena kultura eta ekitaldiak direla-eta bidaiatzen duten turistek (113,7 euro) egiten dute. Turista horiek kulturaren arloarekin lotutako jarduerak egitea da gainerakoetatik bereizten dituena hala nola monumentuak edo ondareak bisitatzea, museoak, erakusketak edo galeriak eta kultura eta tradizioak ezagutzea. Hala ere, gastronomiarekin lotutako aisialdi jarduerak ere aukeratzen dituzte.

II.3.29. TAULA. PERTSONAKO ETA EGUNEKO GASTUA, TURISTEK BIDAIA EGITEKO ARRAZOI NAGUSIAREN ARABERA. 2016-2017

	GUZTIZKO GASTUA PERTSONAKO ETA EGUNEKO (€)	GUZTIZKO GASTUA PERTSONAKO ETA EGUNEKO EAE-N (€)
GUZTIRA	**157,7**	**104,2**
KOSTALDEKO TURISMOA	136,6	93,3
LANDA-TURISMOA	142,6	103,8
KULTURA ETA EKITALDIAK	175,0	113,7
NATURA ETA ABENTURA	142,6	91,7
HIRIKO TURISMOA	164,4	103,8
IBILBIDE TURISTIKOAK	158,7	98,8
GASTRONOMIA ETA ARDOA	178,1	109,3

Iturria: BASQUETOUR. Txostena: IBILTUR Aisialdia 2017-2016

3.5.2.3. Negozio turismoa (MICE)

MICE (Meetings, Incentives, Conventions and Exhibitions) kontzeptuak negozio turismoa biltzen du, hain zuzen bidaia egiteko arrazoi nagusia lanarekin, lanbidearekin edo elkartegintzarekin lotutako jarduera hauetarako turismo jokabideen multzoa: negozio bilerak egitea, kongresuak, biltzarrak, sustapen bidaiak eta horen antzeko beste bilkura batzuk (jardunaldiak, produktuen aurkezpenak, hitzaldiak, sinposiumak, foroak, mintegiak, ikastaroak…). MICErekin lotutako jarduera negozio aukeren eragilea bilakatu da.

Ondoren, IBILTUR estatiketa-eragiketak bildutako zenbait datu emango dira, zehazki, Basquetourrek 2017an argitaraturiko txosten hontakoak: "*IBILTUR MICE 2017-2016 – Kongresuetara eta konbentzioetara datozen turisten profila eta jokabidea*".

Datu-iturri horren arabera, 2017an kongresuekin eta konbentzioekin lotutako 83.255 ekitaldi egin ziren EAEn, 64.296 kongresu (guztizkoaren % 77,2) eta 18.959 konbentzio (% 22,8).

II.3.30 TAULA. KONGRESUEN ETA KONBENTZIOEN JARDUERA EUSKADIN. 2017

	GUZTIRA	GASTEIZ	BILBO	DONOSTIA
GUZTIRA	**83.255**	**4.380**	**48.131**	**30.744**
KONGRESUAK	64.296	4.080	30.600	29.616
KONBENTZIOAK	18.959	300	17.531	1.128

Iturria: BASQUETOUR. Txostena: IBILTUR MICE 2017-2016

Banaketa geografikoari dagokionez, ekitaldien % 57,8 Bilbon egin ziren, % 36,9 Donostian eta % 5,3 Gasteizen.

2014an bezala, hona hemen sektore garrantzitsuenak: zientifikoa (guztizkoaren % 28,3) eta mediko-sanitarioia (%21,7). Urrutiago daude ekonomiko-komertziala (%13), kulturala eta teknologikoa (bietan % 10,9). Unibertsitatearekiko lotutakoak % 2,2 dira. Gainerakoa, guztira, % 13 da.

II.3.11. GRAFIKOA. EKITALDIEN JARDUERA SEKTOREA. 2017 (GUZTIZKAREKIKO %)



Iturria: BASQUETOUR. IBILTUR MICE 2017-2016 txostena

Ekitaldi horretako partaideen batez bestekoa 492 lagunekoa da, eta ohiko lagun kopurua 151 eta 250 bitartekoa da (guztizkoaren % 41) eta 251 eta 500 bitartekoa (% 33).

Gastuari dagokionez, batez beste Euskadin persona bakoitzeko eginiko gastua handiagoa da nazioarteko turisten artean (525 €) estatuko jatorrikoen artean (385 €) baino. Eguneko aurrekontuko pertsonala dela-eta, ostatua kontuan hartu gabe, eguneko gastuaren batez bestekoa 44 € da estatuko turistentzat eta 66 € nazioarteko turistentzat.

Makina-erremintaren Biurtekoaren 30. Edizioaren balantzea

Bilbao Exhibition Centre-BECren arabera, 42.000 lagunek baino gehiagok hartu zuten parte, 2018an, BIEMHren 30. edizioan, hots, 2016an baino % 5 gehiago.

Bisitarien jatorriari dagokionez, profesionalen % 40 EAEtik kanpokoak izan ziren, eta % 5, berriz, 61 herrialdetakoak. Estatuko bisitariak Kataluniakoak, Nafarroakoak, Madrilgoak, Kantabriakoak, Gaztela-Leongoak eta Valentziakoak izan ziren, gehienbat. Nazioarte mailan, Portugaleko profesionalen presentzia handia nabarmendu zen. Izan ere, kopuruak nabarmen egin zuen gora aurreko edizioaren aldean, eta lehen tokian jarri zen herrialde hori. Alemaniako eta Italiako profesionalen kopuruak ere gora egin zuen.

Hona hemen sektorerik interesgarrienak: prozesuen automatizazioa eta fabrikazioa (% 14), makina-erremintarako osagarriak (% 13,6), erremintak (% 10,4), makina-erremintarako osagaiak (% 10), fabrikazio gehigarria eta 3D-ko inprimaketa (% 7,7), arranke bidezko makina-erreminta (% 6,3), piezak eta erremintak maneiatzea (%6,2), digitalizazioa (% 6,1), robotika (% 4,5), oxiebaketa eta soldadura makina (% 3,7), metrologia eta kalitate kontrola (% 3,3) eta deformazio bidezko makina-erreminta (% 2,8), nagusiki. Bertaraturiko profesional profila: zuzendari edo gerenteak, jabeak, saileko buruak eta teknikariak.

Topaketak, guztira, 21 herrialdetako 1.751 enpresa bildu zituen erakusketan.

Ekonomian duen eraginari dagokionez, EBZren arabera, 2018ko BIEMHek 42,7 milioi eurotik gorako eragin ekonomiko izan zuen BPGd-aren kopuruetan. Hots, zuzeneko 896 lanpostu sortu ziren, eta 5,3 milioi euroko sarrerak Foru Ogasunerako. Makina-erremintaren Nazioarteko Azoka da EAEko "negozio turismo"rako ekitaldirik garrantzitsuenetakoa. Urteko indizerik handiena izan zuen hotelen, jatetxeen, merkataritza-establezimenduen eta aisialdi-establezimenduen

okupazioak, horiek izan zirenko datetan; izan ere, gelen % 100eko erreserba okupazioa izan zen ekitaldiaren egun nagusietan.

3.5.3. Finantza-sektorea

EUSTATen "Ekonomia kontuen" azken datuen arabera, finantza- eta aseguru-jardueren sektorea EAEko BPG korrontearen % 3,5 da (2.559,3 milioi euro, 2017ko datua), eta enpleguaren % 1,8 (lanaldi osoko 16.862 lanpostu, 2016ko datua).

Finantzen arloa ardatz hartuta, Ekonomia eta Enpresa Ministerioaren 2019ko apirileko "Adierazle Ekonomikoen Laburpen"ean bildutako datuen arabera, eta II. Kapitulu honetako 1. Atalean azaldu denez, 2018an EBZak ez zuen aldatu egun baterako esku hartzeko tasa eurogunean, eta % 0,00an eutsi zion urte osoan. Japoniako Bankuak, bestalde, urte osoan mantendu zuen 2017an eta 2016an bukatu zuen bezala, hots, -0,10ean. Eta AEBetako Erreserba Federalak lau alditan handitu zuen, martxoan % 1,75ean, ekainean % 2an, irailean % 2,25ean eta abenduan % 2,5ean.

Euroguneko moneta merkatuaren interes-tasei dagokienez (gordailuak), berriz ere negatiboak dira, urteko batez bestekoan, epe guztietan. Hona hemen 2018ko lehen eta azken hiruhilekoen arteko aldakuntza: hilabeterako Euriborrek -%0,37an eusten dio, 3 hilabeteko Euribor jaitsi egin da, -% 0,33tik -%0,32ra; sei hilabeterako Euribor ere jaitsi egin da, -%0,27tik -%0,25era eta urtebetarako Euribor -%0,17tik -%0,14ra igaro da.

II.3.31. TAULA. MONETA MERKATUKO ESKU HARTZEKO TASAK ETA MERKATUKO INTERES-TASAK

	ESKU HARTZEKO TASAK (*)				INTERES-TASAK EUROGUNEKO MONETA MERKATUAN, GORDAILUAK. EURIBOR			
	EBB	AEB	JAPONIA	ERRES. BATUA	HIL.	3 HIL.	6 HIL.	URT.
2012	0,75	0,25	0,10	0,50	0,33	0,57	0,83	1,11
2013	0,25	0,25	0,10	0,50	0,13	0,22	0,34	0,54
2014	0,05	0,25	0,10	0,50	0,13	0,21	0,31	0,48
2015	0,05	0,50	0,10	0,50	-0,07	-0,02	0,05	0,17
2016	0,00	0,75	-0,10	0,25	-0,34	-0,26	-0,16	-0,03
2017	0,00	1,50	-0,10	0,50	-0,37	-0,33	-0,26	-0,15
2018	0,00	2,50	-0,10	0,50	-0,37	-0,32	-0,27	-0,17
2018KO LEHEN HIRUHILEKOA					-0,37	-0,33	-0,27	-0,17
2018KO LAUGARREN HIRUHILEKOA					-0,37	-0,32	-0,25	-0,14

** Datuak epealdiaren bukaeran*
Iturria: Ekonomia eta Enpresa Ministerioa

Finantza-erakundeetako gordailuen azterketak erakusten duenez, Espainiako Bankuaren "Estatistika Aldizkaria"ren arabera, titularrak herri administrazioak direnekoen saldoa, EAEn, 4.407 milioi euro zen 2018. urtearen bukaeran, hots, urteko % 36,6ko igoera, eta estatuko gordailuen % 6,2 dira. Beste sektore egoiliar batzuen gordailuak (OSR) 77.110 milioi euroan kokatu dira, hots, % 0,9ko igoera aurreko urtearen aldean, eta estatuko guztizkoarekiko ratioa % 6,6 da.

Beste sektore egoiliar batzuen gordailuak modalitateen arabera aztertuz gero (agerikoak, eperakoak eta aktiboen behin-behineko lagapena (ABL), % 73,7 ageriko gordailuak dira (% 71 2017an), % 18,5 eperako gordailuak eta % 2,4 ABLei dagokie. Ageriko gordailuek gorantz jarraitzen dute (aurten % 6,2, eta aurreko urtean % 66), baina eperako godailuek beherantz. Tasen egungo egoeragatik gertatzen da hala orain ere.

II.3.32. TAULA. SEKTORE PRIBATUAREN ETA HERRI ADMINISTRAZIOAREN GORDAILUAK GORDAILU-ERAKUNDEETAN (SALDOAK XII-31N)

	MILIOI EURO					BANAK.	ESTATUA	ESTATUKO GUZTIZ. %	ALDAK. %	
	2014	2015	2016	2017	2018				2015-16	2016-17
PRIBATUA ETA PUBLIKOA, GUZTIRA	72.269	74.676	76.117	79.661	81.517	100	1.236.892	6,6	4,7	2,3
SEKTORE PUBL. GUZTIRA	2.822	2.907	2.902	3.226	4.407	5,4	70.862	6,2	11,2	36,6
SEKTORE PRIBATUA, GUZT. (OSR)	69.448	71.770	73.216	76.435	77.110	94,6	1.165.030	6,6	4,4	0,9
AGERIKO GORDAILUAK	24.883	29.633	34.084	56.570	60.083	73,7	931.180	6,5	66,0	6,2
AURREZKI GORDAILUAK	10.419	12.089	14.059			0,0				
EPERAKO GORDAILUAK	34.145	30.048	25.073	18.219	15.061	18,5	210.957	7,1	-27,3	-17,3
ABL-ak				1.646	1.967	2,4	22.893	8,6		19,5

Iturria: Espainiako Bankua. Estatistika Aldizkaria

Kreditu-erakundeei EBBko egoiliarrak diren familien zerbitzurako irabazteko asmorik gabeko erakundeei eta amiliei emandako interes-tasari (IPSLSH) dagokionez, UTB kopuruetan (komisioak barne), Espainiako Bankuaren "Estatistika aldizakaria"ren rabera, 2017 eta 2018 bitartean gora egon zuen, kontsumorako (% 8,27tik % 8,29ra) nahiz etxebizitzarako krediturako (%2,05etik % 2,24ra).

II.3.33. TAULA. KREDITU-ERAKUNDEEI FAMILIEI ETA ISFLSH-RI EMANDAKO INTERES-TASA* (EBB-KO EGOILIARRAK)

	DMTE (DEFINZIO MUGATUKO TASA EFEKTIBOA, HOTS, UTB KOMISIORIK GABE** B.B. TASA HAZTATUA			UTB (URTEKO TASA BALIOKIDEA)		
	ETXEBIZITZARAKO KREDITUA (A)	KONTSUMORAKO KREDITUA (B)	BESTE HELB.	ETXEBIZITZ ARAKO	KONTSUMIT ZAILEARENT.	BESTE HELB.
2014	2,56	7,74	4,64	2,64	9,10	4,93
2015	1,98	7,56	3,77	2,31	8,45	4,19
2016	1,91	7,12	3,62	2,19	8,05	4,27
2017	1,83	7,24	3,36	2,05	8,27	4,01
2018	1,99	6,90	3,54	2,24	8,29	4,12

**Familien zerbitzurako irabazteko asmorik gabeko erakundeak*
***DMTEk ez du komisiorik biltzen, UTBek bai.*
(a) Zorpekoak eta kreditu-lerroak aparte
(b) Ez da sartzen kreditu-txartelaren bidez emandako kreditua
Iturria: Espainiako Bankua. Estatistika Aldizkaria

Gordailu-erakundeek EAEn emandako guztizko kredituaren saldo biziak berriz ere behera egin zuen 2018an, eta 70.862 milioi eurotik 68.467 milioi eurora igaro da (-%3,4). Beherakada hori gertatu da sektore pribatuari emandako kredituaren saldoaren jaitsieragatik (-%4,6), herri administrazioei emandakoak gora egin baitu (+%8,1), baina lehena guztizkoaren % 89,6 da.

II.3.34. TAULA. GORDAILU-ERAKUNDEEK SEKTORE PUBLIKOARI ETA PRIBATUARI EMANDAKO KREDITUA (SALDOAK ABENDUAREN 31N)

	MILIOI EUROTAN						BANAKETA EAE 2018	ESTATUA 2018	ESTATU AREK. %	2017-18
	2013	2014	2015	2016	2017	2018				
GUZTIRA	73.237	69.177	70.037	71.564	70.862	68.467	100	1.215.968	5,6	-3,4
ADM. PUBLIKOA	4.862	6.008	6.636	6.997	6.612	7..148	10,4	66.740	10,7	8,1
SEKTORE PRIBAT. (OSR)	68.375	63.169	63.400	64.566	64.250	61.319	89,6	1.150.228	5,3	-4,6

Iturria: Espainiako Bankua. Estatistika Aldizkaria

Beste sektore egoiliarrei etxebizitza erosteko hipoteka-bermea duten kreditu-saldoei dagokienez, Espainiako Bankuaren arabera, Estatuan (ez dago autonomia erkidego mailako daturik), berriz ere egin zuen behera magnitude horrek 2017 eta 2018 bitartean, % 1,4 hain zuzen (497.700 milioi eurotik 490.806 milioi eurora).

II.3.12. GRAFIKOA. ESTATUAN ETXEBIZITZA ESKURATZEKO HIPOTEKA-BERMEA DUTEN KREDITUAK (IV hiruhilekoa). SALDO BIZIAK



Iturria: Epainiako Bankua

Bestalde, EINen "Hipoteka estatistika"n Espainiako Jabetzaren, Merkataritzaren eta Ondasun Higigarrien Erregistratzaileen Elkargoak argitaraturiko datuen arabera, berriz ere egin zuen gora EAEn eraturiko hipoteken kopuruak, zehazki, % 3,9 2017 eta 2018 bitartean (behin-behineko datuen arabera). Hipotekaturiko finkaren gainean emandako batez besteko zenbatekoak % 5,5 egin zuen gora, hots, 167.949 euro; aurreko ekitaldian, berriz, 159.212. Hipoteken kopuruaren hazkunde hori (%3,9) gertatu da hiriko finken gaineko hipoteken igoeragatik (+%4,2), zeren eta landa finken gaineko hipoteken kopurua % 12,3 murriztu baita.

Etxebiziten gaineko hipoteka ratioak % 4 egin du gora, eta hipotekaturiko etxebizitzaren gaineko batez besteko zenbatekoa % 5,4 hazi da, 132.825 eurotik 139.981 eurora.

II.3.35.TAULA. EAE-KO LANDA ETA HIRI FINKEN HIPOTEKAK

	2016			2017			2018 bb			ALDAKUNTZA 2017-18		
	Kopurua	Zenbat. (Mila €)	B.b. zenbat. (€)	Kop.	Zenbat. (Mila €)	B.b. zenb. (€)	Kop.	Zenbat. (Mila €)	B.b. zenb. (€)	Kop.	Zenb. (Mila €)	B.b. zenb. (€)
HIPOTEKAK GUZT.	21.884	3.408.034	155.732	22.668	3.609.019	159.212	23.558	3.956.546	167.949	3,9	9,6	5,5
LANDA FINKAK	293	50043	170.795	413	52411	126.903	362	60261	166.467	-12,3	15,0	31,2
HIRI FINKAK	21.591	3.357.991	155.527	22.255	3.556.608	159.812	23.196	3.896.285	167.972	4,2	9,6	5,1
ETXEBIZITZAK	15.574	2.049.431	131.593	16.799	2.231.329	132.825	17.473	2.445.887	139.981	4,0	9,6	5,4
ORUBEAK	309	456.960	1.478.835	272	505.994	1.860.272	350	437.223	1.249.209	28,7	-13,6	-32,8
BESTE HIRI FINKA BAT.	5.708	851.600	149.194	5.184	819.285	158.041	5.373	1.013.175	188.568	3,6	23,7	19,3

bb: ***behin-behinekoa. Iturria: EIN. Hipoteken Estatistika (Espainiako Jabetza, Merkataritza eta Ondasun Higigarrien Erregistratzaileen Espainiako Elkargoa)***

Burtsari dagokionez, Espainiako Bankuaren "Estatistika Buletinaren" datuen arabera, IBEX-35 indizeak % 15 egin zuen behera 2017ko abendutik 2018ko abendura bitartean.

II.3.36. TAULA. BALIOEN BIGARREN MAILAKO MERKATUA. MADRILGO BURTSA

	IBEX 35 ABENDUA	KAPITALIZAZIOA (Sozietate egoiliarrak, milioi euro)	KONTRATAZIO BOLUMENA (milioi euro)
2016	9.352,1	667.764	651.389
2017	10.043,9	740.212	651.244
2018	8.539,9	630.628	587.203

Iturria: Espainiako Bankua. Estatistika bolumena

Madrilgo Burtsaren urteko batez besteko kapitalizazioa, 630.628 milioi euro orotara 2018an, % 14,8 jaitsi zen aurreko urtearen aldean, eta batez besteko kontratazio bolumena, 587.203 milioi euro, %9,8 jaitsi zen 2018an aurreko urtearekiko.

Bestalde, Bilboko Burtsaren 2000 indizeak 1.330,1 puntu izan zituen 2018ko abenduan, hau da, % 15,7 jaitsi zen aurreko urteko abenduko datuekin alderatuta.

II.3.37. TAULA. BILBOKO BURTSA

	Indizea abenduaren 31n (2000 oinarria 1999ko abenduaren 31n)	KONTRATATZIO BOLUMENA (milioi euro)
2015	1.578,5	182.570,3
2016	1.486.2	109.248,1
2017	1.577,5	117.825,3
2018	1.330,1	112.921,6

Iturria: Bilboko Burtsa

Bilboko Burtsaren kontratazio bolumena (erosketak eta salmentak), 2018an, 112.291,6 milioi euroan kokatu zen, hots, %4,2ko jaitsiera 2017aren aldean.

ITURRIAK

1. **EUSTAT.** Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (DIRAE). 2018. Urterokoa. Abagunekoa
2. **EUROSTAT**. Datu-basea. 2018. Urterokoa. Abagunekoa.
3. **EUSKO JAURLARITZA.** Lan eta Gizarate Politiketako Saila. 2018ko Kooperatiben Erregistroa. Urterokoa. Abagunekoa
4. **EUSTAT.** 2018ko enpresen sorkuntzari eta desegiteari buruzko estatistika. Urterokoa. Abagunekoa
5. **EUSTAT.** Ekonomia Kontuak. 2018. Urterokoa. Abagunekoa
6. **EIN.** Eskualde Kontabilitatea. 2018. Urterokoa. Abagunekoa
7. **EUSTAT.** Industriako Produkzioaren Indizea (IPI). 2018. Urterokoa. Abagunekoa
8. **EUSTAT.** Industriako Prezioen Indizea (IPRI). 2018. Urterokoa. Abagunekoa. 2016.
9. **EUROSTAT.** *Industrial production*-i buruzko prentsa-oharra. 2018. Urterokoa. Abagunekoa
10. **EUROSTAT.** *Industrial production prices*-i buruzko prentsa-oharra. 2018. Urterokoa. Abagunekoa
11. **INE.** IPI. 2018. Urterokoa. Abagunekoa
12. **EUSTAT.** Industriako estatistika. 2016. Urterokoa. Abagunekoa
13. **EUSTAT.** Eraikuntzaren Abagune-indizea (EAI). 2018. Urterokoa. Abagunekoa
14. **EUSTAT.** Eraikuntzako Kostuen Indizea (EKI). 2018. Urterokoa. Abagunekoa
15. **EUROSTAT**. *Construction production*i buruzko prentsa-oharra. 2018. Urterokoa. Abagunekoa
16. **EUSTAT.** Txikizkako merkataritzaren salmenten indizea (TMSI). 2018. Urterokoa. Abagunekoa
17. **EUROSTAT**. *Retail Trade*-ri buruzko prentsa-oharra. 2018. Urterokoa. Abagunekoa
18. **EUSTAT.** Saltoki handien eta elikadura-kateen indizea. 2017, lehen urtea. Urterokoa. Abagunekoa
19. **EUSTAT.** Turismo establezimendu hartzaileei buruzko inkesta. 2018. Urterokoa. Abagunekoa
20. **EKONOMIA, INDUSTRIA ETA LEHIAKORTASUN MINISTERIOA.** *Adierazlen Ekonomikoen Laburpena. Taulak eta grafikoak. 2019ko martxoa.* 2017ko datuak. Urterokoa. Abagunekoa
21. **ESPAINIAKO BANKUA.** Estatistika buletina. 2018ko datuak. Urterokoa. Abagunekoa
22. **EIN.** Hipotekei buruzko estatistika. 2018. Urterokoa. Abagunekoa
23. **Bilboko burtsa.** Datu-eskaera. 2018. Urterokoa. Abagunekoa
24. **BIZKAIA EXHIBITION CENTRE.**

4. SEKTORE PUBLIKOA

Atal honetan, 2018erako finantza publikoen kopuru nagusiak emango dira, sarreren, gastuen eta aurrekontuko saldoaren aldetik eta EAEko administrazio maila ezberdinen arteko transferentzien eta zorpetzearen bilakaeraren aldetik, betiere Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailak emandako informazioa eta EUSTATen estatistikak oinarri hartuta betiere.

Nabarmentzekoa da, lehenik eta behin, sarrera publikoek %4,2 egin zutela gora 2018an, baina 2017an baino gutxiago (%6,3). Bestalde, Euskal Sektore Publikoaren guztizko gastuak %3,2 hazi ziren, aurreko urteko %5,3aren aldean.

Diru-sarreren eta gastuen bilakaeraren ondorioz, aurrezki publikoa % 28,1 gehitu da (BPGd-aren % 2,6 izan arte), eta aldi berean defizit publikoa (finantziazio premia). Aldi berean, 2017ko superabita bikoiztu da, 832 milioi gaindituta (2018rako zenbatetsitako BPGaren % 1,1).

Superabit hori BPGaren %0,7 da (% 1,5 2017an), +507 milioi euro, kontuan hartzen badugu Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioko eskualde-administrazioen berrorekarako Plan Ekonomiko Finantzarioen ondoriozko defizitaren kalkulua (EAEko Administrazio Orokorraz gain, haren erakunde autonomoen, LANBIDEren eta Osakidetzaren zifrak ere kontsideratu dira). Horixe da erakunde komunitarioei dagokien erreferentzia, EBk ezarritako helburuak betetzen dituena

II.4.1. TAULA. EAE-KO SEKTORE PUBLIKOA. ERREFERENTZIAKO ADIERAZLEAK

	ZERGA ITUNDUENG. BILKETAREN ALDAK. %	BPG-AREN GAINEKO AURREKONTU SALDOA		ZORPETZEA ESP*	
		AURREZ. GORD.	SUPERABIT A/DEFIZITA	ALDAK. %.	% / BPG
2014	+4,8	1,2	-0,3	+7,0	15,7
2015	+2,4	1,0	-0,4	+4,8	15,4
2016	+2,7	1,3	-0,03	+4,6	15,6
2017	+11,8	2,1	+0,6	+2,3	15,5
2018	**+3,5**	**2,6**	**+1,1**	**-0,2**	**14,9**

** Zor bizia epealdiaren amaieran.*
Iturria: EUSTAT eta Eusko Jaurlaritzaren datuekin eginikoa.

Beste alde batetik, EAEko sektore publiko osoaren guztizko zorpetzea (toki-erakundeak kanpoan utzita) negatibo bihurtu zen; hala, urtearen amaieran, zor bizia 11.384,5 milioi euroko izan zen (-%0,2, 2017aren aldean).

4.1. DIRU-SARRERAK

Eusko Jaurlaritzaren "*Aurrekontuen Betearazpenari buruzko Estatistika*"ren arabera, Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru aldundiek 17.331,6 milioi euroko sarrerak likidatu zituzten orotara, hots, %4,2ko igoera aurreko urtearen aldean (hain zuzen ere +% 6,3koa 2017. urtean), honako hauek uztartu izanagatik: zeharkako zergen bilketaren hazkunde handia (% 11,3 hazita) eta zeharkako zergen balizko jaitsieragatik (-% 1,5), baina 2017an igoera nabarmen izan zen (neurri handi batean BEZaren doikuntza positiboagatik, 2007-2016 aldiko kupoaren likidazioak eraginda). Bi partidok EAEko Sektore Publikoaren sarreren %86,3 ziren 2018an.

Bestalde, eta aurreko bi ekitaldietan ez bezala, % 25,4ko igoera izan da finantza-pasiboen aldakuntzan (-% 7,9 2016an eta -% 11,7 2017an), zorpetze handiagoarekin lotuta, baina soilik Eusko Jaurlaritzaren aldetik (+% 30,6), zeren eta Foru Aldundiek negatiboan jarraitzen baitute (-% 1,7).

Sarreren gorakada bi administrazioetan gertatu da; izan ere, Eusko Jaurlaritzaren kasuan % 3,8koa da. Foru Aldundietakoa, berriz, % 2,5eko hazkundea da.

II.4.2. TAULA. EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN DIRU-SARREREN LIKIDAZIOA. MILA EUROTAN									
	2017			2018			2017-18 ALD. %		
	EJ	FF.AA.	ESP	EJ	FF.AA.	ESP	EJ	F.A.	ESP
Zuzeneko zergak	-	6.570.557	6.570.557	-	7.309.835	7.309.835	-	11,3	11,3
Zeharkako zergak	3.992	7.766.654	7.770.646	4.134	7.647.387	7.651.520	3,6	-1,5	-1,5
Tasak eta bestelako diru-sar.	178.022	277.685	455.707	170.011	269.351	349.362	-4,5	-3,0	-3,6
Transferentzia arruntak	9.944.282	484.638	443.103	10.099.606	254.733	247.076	1,6	-47,4	-44,2
Ondareko diru-sarrerak	2.152	1.536	3.715	1.663	2.461	4.125	-22,7	57,5	11,0
Eragiketa arruntak, guzt.	10.128.447	15.101.098	15.243.728	10.275.414	15.483.768	15.651.919	1,5	2,5	2,7
Inbertsio errealen bester.	177	2.174	2.351	12.074	3.391	15.465	6.720,7	56,0	557,8
Kapital transferentziak	137.005	16.343	149.754	106.385	19.105	122.866	-22,3	16,9	-18,0
Kapital eragiketak, guzt.	137.182	18.516	152.105	118.459	22.496	138.332	-13,6	21,5	-9,1
Finantza-aktiboen aldak.	23.787	58.900	82.687	23.447	59.970	83.417	-1,4	1,8	0,9
Finantza-pasib. aldak. (Zorra)	975.047	187.288	1.162.335	1.273.711	184.186	1.457.897	30,6	-1,7	25,4
Finantza diru-sarrerak, guzt.	998.834	246.188	1.245.022	1.297.158	244.156	1.541.313	29,9	-0,8	23,8
DIRU-SARRERAK GUZT.	**11.264.464**	**15.365.802**	**16.640.855**	**11.691.031**	**15.750.419**	**17.331.564**	**3,8**	**2,5**	**4,2**
Sarreren % / BPGd-a	15,3	20,8	22,5	15,3	20,6	22,6			
Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Aurrekontuen Betearazpenari buruzko Estatistika.									

Balantzea emate aldera, EAEko Sektore Publikoen sarrerek EAEko BPGd-arekiko duten portzentajeak hamarren bat egin zuen gora 2018an (2017ko % 22,5etik %22,6ra, behin-behineko datuekin betiere), BPGd-a diru-sarrera publikoak baino gutxiago hazi baita

Itundutako zergen bilketa 2018an

II.4.3. TAULA. FORU ALDUNDIAK: ITUNDUTAKO ZUZENEKO ETA ZEHARKAKO ZERGENGATIKO DIRU-SARREREN LIKIDAZIOA (mila eurotan)								
	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		FF.AA.GUZTIRA	
	ZUZENEK.	ZEHARKAKOAK	ZUZENEK.	ZEHARKAKOAK	ZUZENEK.	ZEHARKAKOAK	ZUZENEK.	ZEHARKAK.
2014	877.909	1.011.000	3.183.988	3.237.331	1.802.454	2.103.112	5.864.350	6.351.443
2015	910.000	1.067.582	3.150.808	3.303.292	1.897.769	2.167.902	5.958.577	6.538.776
2016	943.926	1.081.833	3.270.337	3.371.562	1.954.663	2.207.704	6.168.926	6.661.099
2017	1.028.748	1.265.395	3.513.024	3.919.666	2.074.124	2.566.173	6.615.897	7.751.233
2018	**1.158.369**	**1.234.852**	**3.860.775**	**3.813.991**	**2.273.296**	**2.521.752**	**7.292.440**	**7.570.595**
16/17 %	9,0	17,0	7,4	16,3	6,1	16,2	7,2	16,4
17/18 %	12,6	-2,4	9,9	-2,7	9,6	-1,7	10,2	-2,3
Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN datuekin eginikoa. Ogasun eta Ekonomia Saila.								

Zerga Itunduen barruan, zuzeneko zerga eta zeharkako zerga gehienak sartzen dira, eta guztizkoaren % 90etik gora. Hala, 2018an, 14.473,9 milioi euro bildu ziren, aurreko ekitaldian baino % 3,5 gehiago, eta 2018ko urriko aurreikuspenaren gaineko betearazpena % 101,9 izan zen (Aurrekontuen % 104,1).

Alabaina, komeni da gogoraraztea desitxuratuta dagoela urte arteko alderaketa, arestian esan bezala, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren 2017ko maiatzeko akordioek 2017ko bilketan izandako eraginagatik. Izan ere, akordio horien bidez, 2008-2016 aldiko kupoak arautu ziren. Ondorio hori aparte utzita, 2018ko bilketa 1.107,5 milioi euro gehiago izango ziren eta % 8ko hazkunde-tasa izango zuen.

Oro har ikusten denez, 2018an, aurreko ekitaldian ez bezala, joera hobea izan du zeharkako zerga-ordainketak (+%10,2) zuzenekoak baino (-%2,3), Jokabide hori, gainera, bertsua da gure Erkidegoan, halako moldez non zeharkako zergen bilketak gora egin baitu %9tik gora. Zuzeneko zergen bilketak ere gora egin du, baina behera egin du zeharkakoetan: Gipuzkoan (-%1,7), Bizkaian (-%2,7) eta Araban (-%2,4).

2018an, oro har, zuzeneko zergapetzearen jokabide hobea ageri da (+%10,2) zeharkakoan baino (-%2,3), aurreko ekitaldian ez bezala, 2017ko aipaturiko erregularizazioaren ondorioz. Bilakaera hori, gainera, gure erkidegoko hiru lurralde historikoetan gertatu da, halako moldez non zuzeneko zergen bilketa % 9tik gora hazi baita. Zeharkakoena, berriz, jaitsi egin da: Gipuzkoa (-% 1,7), Bizkaia (-% 2,7) eta Araba (-% 2,4).

Guztira, bildutako bolumen osoa Bizkaian 7.740,1 milioi euro da (2017an baino %11,7 gehiago), Gipuzkoan 4.837,4 (+%11,3) eta Araban 2.404,1 milioi (+%13).

II.4.1. GRAFIKOA. EAE-N ITUNDUTAKO ZERGEN BILKETAREN BILAKAERA INDIZE ZENBAKIETAN: OINARRIKO URTEA=2007.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Geuk egina.

Zuzeneko zergetan, arestian esan bezala, aurreko urtean baino % 10,2 gehiago bildu ziren 2018an (7.292,4 milioi euro), PFEZren igoerak eraginda (+%5,4). Aldi berean, Sozietateen gaineko Zerga, bigarren garrantzitsuenak, azken urtetetako igoerarik handiena izan zuen, % 32,8 hazi baitzen (+% 10,1 2017an), kuota diferentzialean izandako hazkunde nabarmenen ondorioz (+% 41,9). Ondarearen gaineko Zergaren bilketa %13,3 handitu zen; Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga, berriz, %12ko igoera izan zuen.

Aurreko guztiaren emaitzaz, PFEZ zerga EAEko guztizko bilketaren % 74,2 izan zen eta Sozietateen gaineko zerga, berriz, % 20,2koa. Gainerako zuzeneko zerga guztiak bilketaren % 5,6 izan ziren.

II.4.4. TAULA. EAE-KO FORU ALDUNDIETAKO ZERGA ITUNDUETATIK BILDUTAKOA (MILA EUROTAN)

	EAE 2017	2018				2016-17 ALD. %	2017-18 ALD. %
		AFA	BFA	GFA	EAE		
ZUZENEKO ZERGAK	6.615.897	1.158.369	3.860.775	2.273.296	7.292.440	7,2	10,2
PFEZ	5.132.194	875.211	2.760.016	1.770.387	5.407.614	6,0	5,4
SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA	1.111.661	227.568	914.472	333.969	1.476.010	10,9	32,8
EZ EGOILIAR. ERRENTAREN G. ZERGA	33.233	11.209	5.734	15.495	32.349	-	-2,4
OINORDETZAK ETA DOHAINTZAK	117.912	12.979	63.869	132.079	117.912	6,2	12,0
ONDAREAREN GAINEKO ZERGA	163.227	22.385	83.505	78.987	184.877	1,2	13,3
KREDITU ENT. GORDAIL. ZERGA	24.823	3.286	13.621	7.658	24.565	2,1	-1,0
ARGIND. EKOIZPENAREN G. ZERGA	32.847	5.730	17.557	11.569	34.857	2,2	6,1
ZEHARKAKO ZERGAK	7.751.233	1.234.852	3.813.991	2.521.752	7.570.595	6,4	-2,3
BEZ	6.036.326	959.437	2.939.590	1.936.966	5.835.994	20,4	-3,3
- KUDEAKETA PROPIOKO BEZ	3.762.184	667.459	2.045.006	1.347.503	4.059.967	2,3	7,9
- BEZ-AREN DOIKUNTZA	2.274.142	291.979	894.585	589.463	1.776.026	70,0	-21,9
OEZ	144.420	19.580	80.371	60.096	160.048	19,0	10,8
EJDZ	38.854	7.057	22.779	17.134	46.970	-0,9	20,9
GARRAIOAREN GAINEKO ZERGA	21.733	4.593	12.670	8.810	26.073	21,1	20,0
FABRIKAZIOKO Z.B.	1.431.701	233.664	715.917	471.735	1.421.315	2,5	-0,7
ASEGURU-PRIMEN ZERGA	75.694	10.415	43.085	25.640	79.140	2,0	4,6
TASAK ETA BESTE DIRU-SARRERA B.	106.798	10.863	65.330	42.317	118.510	-11,5	11,0
JOKO TASAK	44.272	6.276	26.134	13.098	45.509	0,1	2,8
ERREKAR., BERAND. ETA ZEHAPENAK	62.526	4.587	39.195	29.219	73.001	-18,2	16,8
ZERGA ITUNDUAK GUZTIRA	**14.473.928**	**2.404.083**	**7.740.095**	**4.837.366**	**14.981.545**	**11,8**	**3,5**

Iturria: Ogasun eta Ekonomia Saila EUSKO JAURLARITZA.

Zeharkako zerpagetzeari dagokionez, negatiboa izan da (-%2,3), dagoeneko azaldu den arrazoiagatik: Kudeaketa propioko BEZa %7,9 hazi zen eta doikuntza % 21,9 jaitsi da, aldi berean, fabrikazioko zerga bereziek %0,7 egin zuten behera 2017aren aldean (bi zergak zeharko bilketaren % 95 baino gehiago dira).

Hala, zeharkako zergak, 2018an, guztizkoaren % 48,7 ziren, eta zuzenekoak, berriz, % 50,5 (tasen eta beste sarrera batzuk % 0,8). Aurreko ekitaldiaren aldean, zeharkako zergak % 3 irabazi du, zeharkakoak galdutakoak.

Labur adieraztearren, bildutako bolumen osoa 14.981,5 milioi eurokoa da. Zenbateko hori, behin-behineko datuen arabera, EAEko BPGd arruntaren % 19,6 izan da 2018. urtean (2017ko ratio bera). Bilketa horrek dagoeneko bigarren urtez jarraian gainditu ditu 2007ko kopuruak krisi ekonomikoa hasi zenetik. Guztizko horretatik % 36,1 PFEZri dagokio, %

39 BEZari (kudeaketa propiokoa eta barne eragiketen eta aduanen ziozko doikuntzakoak), % 9,9 Sozietateen gaineko Zergari eta gainerako % 15 hainbat Zerga Bereziri.

II.4.5. TAULA. EAE-KO FORU ALDUNDIETAKO ZERGA ITUNDUEN BILKETAREN BILAKAERARI BURUZKO AZTERKETA: URTEKO BILAKAERA ETA 2007KO (OINARRIKO URTEA) EMAITZEKIKO ERKAKETA									
	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
ZENBATEKOA (MILA €									
Zuzen. zergak	5.258.435	5.644.160	5.698.787	5.793.064	5.864.350	5.958.577	6.168.926	6.615.897	7.292.440
Zehark. zergak	6.331.514	5.726.581	5.599.729	5.845.450	6.351.443	6.538.776	6.661.099	7.751.233	7.570.595
Tasak /beste b.	110.058	110.172	109.708	113.602	103.970	115.277	120.701	106.798	118.510
BILKETA, GUZT.	11.700.007	11.480.913	11.408.224	11.752.116	12.319.763	12.612.630	12.950.926	14.473.928	14.981.545
Urteko aldak. (%)									
Zuzen. zergak	-2,5	7,3	1,0	1,7	1,2	1,6	3,5	7,2	10,2
Zehark. zergak	19,5	-9,6	-2,2	4,4	8,7	2,9	1,9	16,4	-2,3
Tasak /beste b.	9,1	0,1	-0,4	3,5	-8,5	10,9	4,7	-11,5	11,0
BILKETA, GUZT.	8,4	-1,9	-0,6	3,0	4,8	2,4	2,7	11,8	3,5
(2007=100)									
Zuzen. zergak	78,4	84,2	85,0	86,4	87,4	88,8	92,0	98,6	108,7
Zehark. zergak	91,1	82,4	80,6	84,1	91,4	94,1	95,9	111,6	109,0
Tasak /beste b.	92,9	93,0	92,6	95,9	87,8	97,3	101,9	90,2	100,0
BILKETA, GUZT.	85,0	83,4	82,8	85,3	89,5	91,6	94,0	105,1	108,8
Iturria: Ogasun eta Ekonomia Sailaren datuekin eginikoa. EUSKO JAURLARITZA									

Sarreraren murrizpena dakarten partidei dagokienez, aurrekontuaren arabera 2016rako gastu fiskala[28] -urte hori baita informazio xehea daukagun azken urtea-, (hau da, beren zergetan eta foru aldundien ekarpenetan kontabilizatutako zergetan eragina duten onura fiskalen zenbatekoak: salbuespenak, gastu kengarriak, murrizpenak, kenkariak, hobariak, diferimenduak eta abar izan daitezkeenak) 6.015,3 milioi eurotara iristen dira, aurreko urtean baino %7,7 gehiago, hau da, sarrera teorikoen %31,2 (aurrekontuan sartutako sarrerak eta gastu fiskalak).

Gastu fiskalen % 40,8 (2.454,3 milioi) araudi autonomoko zerga itunduei dagokiePFEZ, Sozietateen gaineko Zerga (Gipuzkoako Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zerga) eta OEZ-AED.

Aurreko ekitaldiaren aldean, nabarmentzekoa da ezen, 2015. urteaz geroztik, Elektrizitatearen gaineko Zerga, lehen Fabrikazioaren gaineko Zergen artean sartua, ez dela halakotzat hartzen, eta kontsumorako edo ekoizleek beren kontsumorako eurek sortutako energia elektrikoaren hornidura zergapatzen duen zerga bihurtu da. Horregatik, terminologia eta ordena egokitu behar izan dira (ikus II.4.6. taula).

II.4.6. TAULA. ZERGA GASTUAK ITUNDUTAKO ZERGEN ARABERA. MILA EUROTAN.							
	2014	2015	2016				2015/16 ALD. %
			ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE	
PFEZ	1.824.501	1.639.473	275.002	874.417	613.090	1.762.508	7,5
ONDAREAREN ZERGA	343.336	317.614	65.003	203.447	125.907	394.356	24,2
SOZIETATEAREN ZERGA	171.290	181.285	34.371	94.752	35.744	164.867	-9,1
GUZTIRA ZUZENEKO Z.	2.339.127	2.138.372	374.376	1.172.615	774.740	2.321.732	8,6
BEZ	2.907.757	3.166.064	551.241	1.704.203	1.109.886	3.365.330	6,3
OEZ-EJD	117.786	94.432	44.809	51.480	38.763	135.052	43,0
GARRAIOEN Z.B.	3.980	3.905	530	1.452	2.142	4.124	5,6
FABRIKAZIOAREN Z.B.	150.161	159.310	26.624	82.312	53.606	162.542	2,0
ELEKTRIZITAT. Z.	-	-	339	1.047	682	2.068	-
ASEGURU PRIMEN Z.	21.963	23.422	4.012	12.405	8.079	24.496	4,6
GUZT. ZEHARKAKO Z.	3.201.647	3.447.133	627.555	1.852.899	1.213.158	3.693.612	7,2
GUZTIRA	**5.540.774**	**5.585.505**	**1.001.931**	**3.025.514**	**1.987.898**	**6.015.344**	**7,7**
Iturria: ZERGAK KOORDINATZEKO ORGANOAREN DATUEKIN EGINA.							
****2016tik (lehen Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien barruan sartua).***							

[28] *Gastu fiskalaren kontzeptuak ez du ondo argitutako eta denek onartutako definiziorik ogasunaren doktrinaren barruan. Hala ere, gastu fiskalen aurrekontua honela defini dezakegu: zerga sarreren murriztapenaren aurreikuspenaren zenbatekoa, politika ekonomiko eta sozialeko zenbait helburu lortzeko asmoz onura fiskalak aplikatzearen ondorioz. ELGAren definizioaren arabera, zergaren egitura ;arruntaren; edozein desbiderapen dira gastu fiskalak. Arruntenak eta erabilienak zerga oinarrian egindako murriztapenak eta kuotako kenkariak dira.*

4.2. GASTUAK

Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailaren "Aurrekontuen Betearazpenaren Estatistika"ren arabera, Eusko Sektore Publikoaren guztizko gastua, 16.652,3 milioi euro (tokiko erakundeak alde batera utzita) zen 2018an, eta %3,2 hazi zen 2017aren aldean (+% 5,3 aurreko urtean). Hala, magnitude horrek EAEko BPGean duen portzentajea hamarren bat murriztu da, hots, %21,8tik %21,7ra hain zuzen.

Gastuaren bilakaera positiboa izan da bai Eusko Jaurlaritzan (+%4,6) bai foru aldundietan (+%1), eta agregatuaren aldakuntza %3,2koa da, zeren eta zenbait partida erakundeen artean konpentsatzen baitira (transferentzien zati bat, esate baterako).

II.4.7. TAULA. EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN GASTUEN LIKIDAZIOA. MILA EUROTAN.

	2017			2018			2017-18 ald. %		
	EJ	FF.AA.	ESP	EJ	FF.AA.	ESP	EJ	FF.AA.	ESP
Langileen Gastuak	2.020.971	363.027	2.383.998	2.043.784	374.936	2.418.719	1,1	3,3	1,5
Funtzionamendu gastuak	3.448.881	602.270	4.051.150	3.524.471	579.722	4.104.193	2,2	-3,7	1,3
Finantza gastuak (interesak)	185.398	42.010	227.408	180.111	38.779	218.890	-2,9	-7,7	-3,7
Ohikio transferentziak	3.509.835	13.524.533	7.048.550	3.383.589	13.670.922	6.947.249	-3,6	1,1	-1,4
Eragiketa korronteak, guztira	9.165.084	14.531.839	13.711.107	9.131.955	14.664.359	13.689.051	-0,4	0,9	-0,2
Egiazko inbertsioak	202.006	192.636	394.642	178.622	243.963	422.585	-11,6	26,6	7,1
Kapital transferentziak	697.675	185.975	880.056	694.347	154.659	846.382	-0,5	-16,8	-3,8
Kapital eragiketak, guztira	899.681	378.611	1.274.698	872.969	398.622	1.268.967	-3,0	5,3	-0,4
Finantza aktiboen aldak.	104.945	130.757	235.702	97.619	113.238	210.857	-7,0	-13,4	-10,5
Finantza pasiboen aldak. (zor ad.)	654.023	253.949	907.972	1.215.003	268.447	1.483.450	85,8	5,7	63,4
Finantza gastuak guztira	758.969	384.706	1.143.647	1.312.622	381.685	1.694.307	72,9	-0,8	48,1
GASTUA, GUZTIRA	**10.823.734**	**15.295.156**	**16.129.479**	**11.317.546**	**15.444.666**	**16.652.325**	**4,6**	**1,0**	**3,2**
GASTU LIKIDATUA % / BPG	14,7	20,7	21,8	14,8	20,2	21,7			

Iturria. EUSKO JAURLARITZA. Aurrekontuen Betearazpenari buruzko Estatistika.

Euskal Sektore Publikoaren gastuaren kapituluetan (tokiko erakundeak aparte), aldakuntza nabarmenetan zenbait desberdintasun ageri dira aurreko urteekiko. Lehenik eta behin, langileria gastua 2017an baino puntu bat gutxiago hazi da (+%1,5), eta neurri handiagoan aldundietan (+%3,3), Eusko Jaurlaritzan baino (+%1,1). Ohiko tranferentziek, berriz, aurreko bost ekitaldietako joera positiboa hautsi dute eta, oro har, % 1,4 egin dute behera (-% 3,6 Eusko Jaurlaritzan, baina foro aldundietan joera positiboari eusten diote, +%1,1arekin). Bestalde, funtzionamendu gastuek (ondasunen eta zerbitzuen erosketakoak), aurreko lau urteetako joera positiboari eusten diote, baina beherantz eginik pixka bat (% 1,3 haditu da, aurreko urtean % 2,4 hazi ondoren). Egiazko inbertsioei dagokienez, 2017an jaitsiera txikia izan ostean (-% 0,3), hain zuzen Eusko Jaurlaritzan (-%11,8) eta foru aldundietan (+%15,5) bilakaeragatik gainera, 2018an hazkunde nabarmena izan zen (+%7,1), joera positiboa foro aldundietan finkatu izanagatik (+%26,6); izan ere, Eusko Jaurlaritzak negatiboan jarraitzen du (-% 11,6).

II.4.8. TAULA. EUSKO JAURLARITZAREN ETA FORU ALDUNDIEN GASTU BATERATUA. URTEKO HAZKUNDE-TASA INTERES PARTIDETAN

	LANGIL.	FUNTZIONA MENDUA	OHIKO TRANSF.	EGIAZKO INBERTSIOAK	ZORPETZEA	ZOR INTERESAK	GUZT.
2009	6,3	10,4	-1,5	4,7	-42,0	1,3	5,0
2010	-0,6	-0,3	-6,0	-1,0	49,2	79,5	-3,3
2011	-0,5	0,1	2,3	-13,2	72,9	70,9	-1,1
2012	-6,4	-2,2	-6,5	-12,1	1,7	22,3	-2,6
2013	4,3	-1,6	1,3	-9,6	8,3	9,4	-2,6
2014	1,3	2,7	3,4	-23,8	66,5	10,8	4,1
2015	2,0	1,1	3,9	-27,4	26,7	-12,8	1,9
2016	2,0	2,9	1,2	4,7	-11,6	-12,9	0,9
2017	2,5	2,4	7,3	-0,3	9,6	-8,1	5,3
2018	1,5	1,3	-1,4	7,1	63,4	-3,7	3,2

Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN datuak erabiliz eginikoa. Ogasun eta Ekonomia Saila.

Bestetik, nabarmen egin zuten gora 2018an zorpetzearen ondoriozko gastuek, finantza-pasiboen bilakaeragatik (zorraren amortizazioa, % 63,4 hazi baita. Halaxe gertatu da neurri handi batean partida horrek Eusko Jaurlaritzan (+% 85,8) izan duen bilakaeragatik, zeren eta foro aldundietan, positiboa izanik ere, txikiagoa baita (+%5,7). Azkenik, finantza-gastuak (interesak) % 3,7 murriztu dira, eta negatiboak dira beste urte batez, EJrentzant nahiz aldundientzat.

Bestalde, 2019ko maiatzean eguneraturiko 2018ko "EAEko Aurrekontu Orokorren Betearazpena"ren arabera, behin betiko likidazioaren zain, Eusko Jaurlaritzaren gastua % 7 gin zuen gora 2017an betearazitako gastuaren aldean (urte horretan % 4,4 hazi zen 2016arekiko). Orain ere bi hauek dira sail nagusiak gastu bolumenaren aldetik: Hezkuntza, gastu osoaren % 23,7, eta Osasuna (%31,9). 2018rako gastu osoa, 2019ko maiatzean eguneraturiko datuekin, 11.586 milioi euro da, hots, gure erkidegoaren urte horretako BPGd-aren %15,1, behin-behineko datuen arabera.

II.4.8. TAULA. EUSKO JAURLARITZAREN GASTUA SAILEN ARABERA. MILA EURO.

	MIL EURO			2018	16/17 %	17/18 %
	2016	2017	2018 AUR.*	BAN. %		
00 PARLAMENTUA	28.441	29.400	30.250	0,3	3,4	2,9
01 GOBERNU LEHENDAKARITZA	72.063	79.407	87.213	0,8	10,2	9,8
02 ADMINISTRAZIO PUBLIKOA ETA JUSTIZIA	231.311					
02 GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA**		141.794	133.263	1,2		-6,0
03 EK. ETA LEH. Z. / AZPIEGITURAKO Z. EK.**	525.463	824.411	985.493	8,5	56,9	19,5
04 LAN ETA GIZARTE POLITIKAK	1.077.796	952.975	1.017.177	8,8	-11,6	6,7
12 LANA ETA JUSTIZIA		192.011	210.572	1,8		9,7
05 OGASUN ETA FINANTZAK / OG. ETA EKONOMIA**	118.345	88.865	60.137	0,5	-24,9	-32,3
06 HEZKUNTZA, HIZKUNTZA P. ETA KULTURA	2.930.789					
07 HEZKUNTZA**		2.788.757	2.742.323	23,7		-1,7
10 KULTURA ETA HIZKUNTZA P.**		248.645	259.366	2,2		4,3
11 SEGURTASUNA	591.743	590.078	640.600	5,5	-0,3	8,6
08 OSASUNA	2.524.031	3.612.479	3.695.656	31,9	43,1	2,3
09 INGURUMENA ETA LURRALDE POLITIKA	401.577					
05 INGURUMENA, LURRALDE P. ETA ETXEBIZITZA**		213.041	213.596	1,8		0,3
51 LAN HARREMANETAKO KONTSEILUA		37.282	41.106	0,4		10,3
52 EKONOMIA ETA GIZARTE KONTSEILUA	2.390	2.419	2.454	0,0	1,2	1,4
53 KOOPERATIBEN KONTSEILU GORENA	1.347	1.363	1.390	0,0	1,2	2,0
54 KONTUEN EUSKAL AUZITEGIA	901	929	942	0,0	3,1	1,4
55 DATUAK BABESTEKO EUSKAL AGENTZIA	7.326	7.414	7.519	0,1	1,2	1,4
90 ZOR PUBLIKOA	1.349	1.365	1.605	0,0	1,2	17,6
95 ERAKUNDEEN BALIABIDEAK ETA KONP.	772.970	838.819	1.346.775	11,6	8,5	60,6
99 HAINBAT SAIL	76.796	172.280	90.864	0,8	124,3	-47,3
GUZTIRA			17.868	0,2		
BPG % bb	**10.364.639**	**10.823.734**	**11.586.168**	**100,0**	**4,4**	**7,0**
% PIB pm	14,6	14,7	15,1			

Iturria: EUSKO JAURLARITA. EAEko Aurrekontu Orokorren Betearazpena.
****2019ko maiatzean eguneraturiko 2018ko aurrekontua, azarora arteko betearazpena kontuan izanik.***
*****Aldaketak sailetan XI. Legealdiaren hasieran.***

Bestalde, Finantzen Euskal Kontseiluak azterlan hau egin zuen 2018an: "Euskal autonomia Erkidegoko maila instituzionalen berezko eskumenen eta finantzazioaren gaineko azterketa orokorra". Horri esker, herri administrazioen gastu bateratuaren banaketa zein den jakin daiteke (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta tokiko erakundeak) arloen eta programen arabera 2015eko ekitaldian.

Lehenik eta behin nabarmentzen da gasturik handiena biltzen duen arloa hiru maila instituzionaletan desberdina dela. Hasteko, Eusko Jaurlaritzaren gastuaren ia bi herenak lehentasunezko ondasun publikoen ekoizpenari dagozkio (% 63,3). Beste herena modu orekatuan dago banatuta gastuaren lau arloren artean: Zor publikoa (gastuaren % 9,1), Oinarrizko zerbitzu publikoak (%8,9), Gizarte babesteko eta sustapeneko jarduketak (%8,1) eta Jarduketa ekonomikoak (% 8,1). Gainerako % 2,3a jarduketa orokorrei dagokie.

Foru Aldundien aldetik, gastuaren % 38 Gizarte babesteko eta gizarte sustapeneko jarduketetan biltzen da. Bigarren gastu arlorik garrantzitsuena Jarduketa ekonomikoei dagokie (% 27,4), eta oso urruti gelditzen dira Jarduketa orokorrak (% 15,7) eta Zor publikoa (%11,7). Gastu arlorik nabarmenenak Lehentasunezko ondasun publikoen ekoizpena (%4,2) eta Oinarrizko zerbitzu publikoak (% 3,2).

Eta tokiko erakundeei dagokienez, gastuaren ia %60 bi arlori dagozkio: Oinarrizko zerbitzu publikoak (% 38,3) eta lehentasunezko ondasun publikoen ekoizpena (% 20,1). Ondoren, Gizarte babeseko eta gizarte sustapeneko jarduketak (% 13,9), Jarduketa ekonomikoak (% 6,3) eta Zor publikoa (% 3,2) datoz.

II.4.2. GRAFIKOA. EAE-KO HERRI ADMINISTRAZIOEN GASTU BATERATUA GASTU ARLOAREN ETA MAILA INSTITUZIONALAREN ARABERA (%). 2015



Iturria: HERRI-FINANTZEN ESUKAL KONTSEILUA (2018).

Bestalde, politiken araberako gastuaren banakapenean ere zehazten da hiru maila intituzionalen eskumenen eratxikipena. Eusko Jaurlaritzari dagokionez, Osasun eta Hezkuntza politikek gastuaren erdia baino gehiago biltzen dute (% 34,3 eta % 26,4 hurrenez hurren), hauexetarako gastuaren pisua baino narbarmen handiagoa: Zor publikoa (% 9,1), Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena (% 64), Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna (% 5,7), Azpiegiturak (% 3,8) edo Kultura (%2,4).

II.4.10. TAULA. EAE-KO HERRI ADMINISTRAZIOA. ARLOEN, GASTU POLITIKEN ETA MAILA INSTITUZIONALAREN ARABERA BATERATUTAKO GASTUA (%). 2015.

	EUSKO JAURLARITZA	FORU ALDUNDIAK	TOKIKO ERAKUND.	GUZT.
ZOR PUBLIKOA	9,1	11,7	3,2	8,4
JUSTIZIA	1,5	0,0	0,0	1,0
HERRIT. SEGURTASUNA ETA MUGIKOR.	5,7	1,7	8,9	5,6
KANPOKO HARREMANAK	0,5	0,0	0,0	0,3
ETXEBIZITZA ETA HIRIGINTZA	1,0	0,4	10,7	2,8
GIZARTE ONGIZATEA	0,0	0,0	15,8	3,1
INGURUMENA	0,2	1,2	3,0	0,9
PENTSIOAK	0,0	3,1	0,0	0,5
ENPL. ALDEKO BESTE PREST. BATZUK	0,0	0,0	0,2	0,0
GIZARTE ZERBITZUAK ETA SUSTAPENA	6,4	34,3	12,0	12,1
ENPLEGUAREN SUSTAPENA	1,9	0,7	1,7	1,7
OSASUNA	34,3	0,0	0,6	22,1
HEZKUNTZA	26,4	0,1	4,4	17,8
KULTURA	2,4	3,1	9,7	3,9
KIROLA	0,1	0,8	5,4	1,2
NEKAZARITZA, ABELTZAINTZA ETA AR.	1,0	2,9	0,3	1,2
INDUSTRIA ETA ENERGIA	0,7	2,5	0,2	0,9
MERKATARITZA, TURISMOA ETA ETE-AK	0,6	0,9	1,9	0,9
GARRAIO PUBLIKOA	0,0	4,9	2,5	1,3
AZPIEGITURAK	3,8	15,0	1,4	5,2
I+G+B	1,8	0,2	0,0	1,2
LAN HARREMANAK	0,0	0,0	0,0	0,0
BESTE JARDUK. EKONOMIKO BATZUK	0,3	0,9	0,1	0,4
GOBERNU ORGANOAK	0,5	1,3	1,7	0,9
ZERBITZU OROKORRAK	1,5	9,0	13,8	5,1
FINANTZA ETA ZERGA ADMINISTRAZ.	0,4	5,2	2,6	1,6
BESTE AA.PP.ETAKO TRANSF.	0,0	0,1	0,1	0,0
GASTU BATERATUA, GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: HERRI-FINANTZEN EUSKAL KONTSEILUA (2018).

Foru aldundiak osotasunean hartuta, gastuaren heren bat baino gehiago Gizarte zerbitzuen eta gizarte sustapenaren politikari dagokio (% 34,3), azpiegituretarako erabilitakoaren bi halako baino gehiago (% 15) eta zorpetzea hirukoiztuta (% 11,7). Zerbitzu orokorrek (%9), Finantza eta zerga administrazioak (%5,2), Garraio publikoak (%4,9) edo Kulturak (%3,1) duten pisu erlatiboa ere nabarmentzen da.

Bukatzeko, EAEko tokiko erakundeek zazpi politikatarako erabiltzen dute batez beste bere gastuaren % 75: Gizarte ongizatea (% 15,8), Zerbitzu orokorrak (% 13,8), Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena (% 12), Etxebizitza eta hirigintza (% 10,7), Kultura (% 9,7), Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna (% 8,9), Kirola (% 5,4).

Azkenik, herri administrazioen agregatuaren gastu programak taldeka banakatzeari esker, gure erkidegoan gastu publikoak zein arlotarako erabiltzen den jakin daiteke. Lehenengo biek, berez, gastu osoaren ia herena hartzen dute. Ospitaleak, laguntza zerbitzuak eta osasun zentroak dira (% 18,4) eta Gizarte ekintza (% 11,77). Ondoren, ordena horretan: Zor publikoa (% 8,4), DBH eta Lanbide heziketa (% 6,8), Haur eta lehen hezkuntza (% 6,4), Segurtasuna eta ordena publikoa (%4,8), Administrazio orokorra (% 4,3), Farmazia (% 3,2) Trena eta metroa (% 2,4) eta Unibertsitateko irakaskuntza (guztizkoaren % 2,1).

II.4.11. TAULA. EAE-KO HERRI ADMINISTRAZIOEN GASTU BATERATUA: PROGRAMA TALDE NAGUSIAK (%). 2015.

	GASTU OSOAREKIKO %
OSPITALEAK, LAGUNTZA ZERBITZ. ETA OSASUN ZENTROAK	18,4
GIZARTE EKINTZA	11,7
ZOR PUBLIKOA	8,4
DBH ETA LANBIDE HEZIKETA	6,8
HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA	6,4
SEGURTASUNA ETA ORDENA PUBLIKOA	4,8
ADMINISTRAZIO OROKORRA	4,3
FARMAZIA	3,2
TRENA ETA METROA	2,4
UNIBERTSITATEKO IRAKASKUNTZA	2,1
GAINERAKOAK	31,7
GUZTIRA	100,0

Iturria: HERRI-FINANTZEN EUSKAL KONTSEILUA (2018).

4.3. AURREKONTUKO SALDOA

2017an, EAEko Sektore Publikoaren (Eusko Jaurlaritza gehi foru aldundiak) ohiko sarrerek %2,7 egin zuten gora, baina gastu horiek behera egin zuten (%0,2). Hori dela-eta, %28,1 hazkundea izan da aurrezpen gordinean, 1.963,9 milioi euro izan artean. Zenbateko hori gure Erkidegoaren BPGaren %2,6 da (behin-behineko datuak).

II.4.3. GRAFIKOA. EAE-KO SUPERABITA/DEFIZIT PUBLIKOAREN (FINANTZAZIO GAITASUNA/BEHARRA) ETA AURREZPENAREN BILAKAERA. BPG-AREKIKO %-a.



Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN datuekin egina.

Horrez gain, 832,2 milioi euroko (BPGaren %1,1) superabit publikoa izan da (finantzatzeko ahalmena), finantzakoak ez diren gastuak (ohikoak gehi kapitalekoak) txikiagoak baitira horrelako sarrerak baino. Aurreko ekitaldian ere izan zen superabita, 410 milioi eurokoa (+%103).

Finantza-aldagaia sartuta, eta funtsean zorpetzeari esker, 832,2 milioiko superabit publikoa 679,2 milioi euroko aurrekontuko superabit bihurtu da, BPGaren %0,9, aurreko ekitaldikoa baino %32,8 handiagoa.

II.4.12. TAULA. EUSKO JAURLARITZAREN ETA FORU ALDUNDIEN ZORPETZEAREN BILAKAERA. (MILA EURO)

	2016	2017	2018	16/17%	17/18%
1.- SARRERA KORRONTEAK	14.013.669	15.243.728	15.651.919	8,8	2,7
2.- GASTU KORRONTEAK	13.096.041	13.711.107	13.689.051	4,7	-0,2
2.1.- LANGILEEN GASTUAK	2.324.924	2.383.998	2.418.719	2,5	1,5
2.2.- FUNTZIONAMENDU GASTUAK	3.955.233	4.051.150	4.104.193	2,4	1,3
2.3.- FINANTZA-GASTUAK	247.555	227.408	218.890	-8,1	-3,7
2.4.- OHIKO TRANSFERENTZIAK	6.568.328	7.048.550	6.947.249	7,3	-1,4
3.- AURREZPEN GORDINA (1-2)	917.628	1.532.622	1.962.867	67,0	28,1
4.- KAPITAL SARRERAK	201.125	152.105	138.332	-24,4	-9,1
5.- KAPITAL GASTUAK	1.140.465	1.274.698	1.268.967	11,8	-0,4
5.1.- EGIAZKO INBERTSIOAK	395.746	394.642	422.585	-0,3	7,1
5.2.- KAPITAL TRANSFERENTZIAK	744.719	880.056	864.382	18,2	-3,8
6.- FINANTZAZIO GAITASUNA (+) / BEHARRA (-) (3+4-5)	-21.711	410.028	832.232	-	103,0
7.- FINANTZA AKTIBOEN ALDAKUNTZA GARBIA	-127.268	-153.015	-127.440	-	-
7.1.- FINANTZA AKTIBOEN ALDAKUNTZA. SARRERAK	118.939	82.687	83.417	-30,5	0,9
7.2.- FINANTZA AKTIBOEN ALDAKUNTZA. GASTUAK	246.207	235.702	210.857	-4,3	-10,5
8.- FINANTZA PASIBOEN ALDAKUNTZA GARBIA	488.013	254.363	-25.554	-47,9	-110,0
8.1.- FINANTZA PASIBOEN ALDAKUNTZA. SARRERAK	1.316.530	1.162.335	1.457.897	-11,7	25,4
8.2.- FINANTZA PASIBOEN ALDAKUNTZA. GASTUAK	828.517	907.972	1.483.450	9,6	63,4
9.- AURREKONTUKO SUPERABITA / DEFIZITA (6+7+8)	339.034	511.376	679.239	50,8	32,8
9.1.- KOBRATU GABEKO BETEBEHARRAK	1.041.907	1.240.933	1.249.736	19,1	0,7
9.2.- KOBRATU GABEKO ESKUBIDEAK	1.187.271	674.812	703.428	-43,1	4,2
10.- AURREK. SUPERABITA / DEFIZITA KUTXARI DAGOKIONEZ	193.670	1.077.497	1.225.547	456,4	13,7

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Aurrekontuaren betearazpenari buruzko estatistika.

4.4. SEKTORE PUBLIKOAREN ZORPETZEA

Eusko jaurlaritzaren Aurrekontuaren Betearazpenari buruzko Inkestak erakusten duenez, lehenik eta behin, EAEko sektore publikoaren (Eusko Jaurlaritza gehi foru aldundiak) zorpetze garbia jaitsi egin da lau urtez jarraian, 2018an; izan ere, negatiboa da, krisiaren lehenbiziko urteetan igoerak izan ostean.

Euko Jaurlaritzaren Aurrekontuen Betearazpenaren Estatistikak agerian uzten duenez, lehenik eta behin, EAEko sektore publikoaren zorpetze garbiak (Eusko Jaurlaritza gehi Foru Aldundiak) behera egin zuen 2018an laugarren urtez jarraian; izan ere, negatiboa da, krisiaren lehenengo urteetan igoerak izan ondoren.

II.4.13. TAULA. EUSKO JAURLARITZAREN ETA FORU ALDUNDIEN ZORPETZEAREN BILAKAERA (MILA EUROTAN)

	ZORPETZE GARBIA		AMORTIZAZIOA	ZORPETZE GARBIA		URTE AMAIERAKO ZOR BIZIA	
	(1)	ALDAK. %	(2)	(1) -(2) = (3)	ALDAK. %	GUZTIRA	ALDAK. %
EUSKO JAURLARITZA							
2015	1.163.018	2,1	686.326	476.692	-27,7	8.578.210	5,9
2016	1.106.042	-4,9	572.331	533.711	12,0	9.111.921	6,2
2017	975.047	-11,8	654.023	321.024	-39,9	9.432.945	3,6
2018	1.273.711	30,6	1.215.003	58.708	-81,7	9.491.653	0,6
FORU ALDUNDIAK							
2015	265.900	0,9	250.403	15.497	-148,7	2.043.438	0,8
2016	210.488	-20,8	256.186	-45.698	-394,9	1.997.740	-2,2
2017	187.288	-11,0	253.949	-66.661	45,9	1.931.079	-3,3
2018	184.186	-1,7	268.447	-84.261	26,4	1.846.818	-4,4
ESP GUZTIRA							
2015	1.428.918	1,9	936.729	492.189	-25,8	10.667.648	4,8
2016	1.316.530	-7,9	828.517	488.013	-0,8	11.155.661	4,6
2017	1.162.335	-11,7	907.972	254.363	-47,9	11.410.024	2,3
2018	1.457.897	25,4	1.483.450	-25.553	-	11.384.471	-0,2

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Aurrekontuen betearazpenari buruzko estatistika. Geuk egina

Bestalde, zorpetze gordina %25,4 igo da 2018an, eta orotara 1.457,9 milioi eurokoa da. Horietatik 1.273,7 milioi Eusko Jaurlaritzari dagozkio (%30,6ko igoera nabarmena 2017aren aldean) eta gainerako 184,2 foru aldundiei (-%1,7).

Zorpetze handiago horrekin batera, ordea, zorraren amortizazio handia dago (1.483,5 milioi euro, eta horietatik 1.215 Eusko Jaurlaritza dagozkio). Hori dela-eta, zor bizia ez da handitu ekitaldiaren bukaeran. Arestian azaldutakoaren emaitzaz, Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek 11.384,5 milioi euroko zorra izan zuten ekitaldiaren amaieran, 2017ko ekitaldian baino % 0,2 gutxiago). Kopuru hori BPGren % 14,9koa izan zen, behin-behineko datuen arabera, (2017ko ekitaldian, berriz, % 15,5ekoa izan zen).

Horrela, beste urte batez, zorrik handiena Eusko Jaurlaritzak dauka (osoaren %83,4, %82,8 aurreko urtean).

Beste alde batetik, EUSTATen Sektore Publikoaren aurrekontuko estatistika (eskuragarri dagoen azken informazioa 2016koa da) txostenari esker foru aldundi bakoitzaren eta udal bakoitzaren zorpetze kopurua ezagut dezakegu, baita EAEko Administrazio osoarena ere (Jaurlaritza + Aldundiak + udalak).

II.4.4. GRAFIKOA. EAE-KO ADMINISTRAZIOEN FINANTZA-ZORRA (MILA EUROTAN).



Iturria: EUSTAT. Sektore Publikoaren Aurrekontuen Estatistika.

Foru aldundiei dagokienez, 2016an 271,6 milioi euroko zorra jaulki zuten (aurreko ekitaldian baino % 4,8 gutxiago). Hauen artetik 44,9 milioi Arabako Foru Aldundiari dagozkio, 62 Gipuzkoakoari eta gainontzeko 164,7ak Bizkaikoari. Horrez gain, 307,7 milioi euroko balioarekin amortizatzen dute, aurreko ekitaldian baino %28,4 gehiago. Amortizatutako kopurutik 148,5 milioi Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio, 114,3 Gipuzkoakoari eta gainerako 44,9 Arabako Foru Aldundiari. Aldundien zorraren saldo bizia %1,6 jaitsi da aurreko urtekoaren aldean. BPGd-arekiko harremanean ere hala egin du: 2015ean %3,2 izan zen eta 2016an %3,1.

EAEko udalei dagokienez, arestian aipatutako estatistikan oinarri harturik, badakigu 2016an 56,3 milioi euroko zorra jaulki zutela, eta 80,7 milioi euro amortizatu zutela. Beraz, ekitaldiaren amaieran, ordaindu gabeko zorra 24,4 milioi euro gutxitu zen eta 478 milioi eurokoa izan zen.

Beste alde batetik, guztira hartuta, EAEko herri-administrazio guztiek (gobernuak, foru-aldundiek eta udalek), 2016ko ekitaldian, 11.424 milioi euroko zor bizia izan zuten urtearen amaieran (hau da, 2015ean baino % 4,3 gehiago). Zenbateko hori aipatutako urteko BPGren % 16koa izan zen (2015eko ratio bera).

Guztizko zorraren %76,7 Eusko Jaurlaritzari dagokio, %10,6 Bizkaiko Foru Aldundiari, %4,5 Arabakoari eta %4,1 Gipuzkoako Foru Aldundiari. Gainerakoa, 478,1 milioi euro, EAEko udaletako finantza zorrari dagokio, eta EAEko administrazioen zor osoaren %4,2 da (2015ean %4,6).

4.5. ERAKUNDEETAKO TRANSFERENTZIAK

EAEk bere jarduera finantzatzeko sistema berezia dauka. Zergarik gehienak biltzeko gaitasuna du. Kupoa deritzonaren bidez EAEk jaso ez dituen eskumenetan, estatuaren gastuak ordaintzen laguntzen du. EAEren eskumenen banaketaren barruan, zerga-bilketa lurralde historiko bakoitzeko Foru Aldundiek egiten dute batez ere. Eusko Jaurlaritzaren finantzazioan laguntzen dute, ekarpenen bidez. Udalek ere zerga-bilketa egiten dute.

EAEko administrazio publikoek jasotzen dituzten baliabide propioez gain, Europar Batasunak eta estatuak zenbait fondo ematen diete, arrazoi desberdinengatik: BEZaren bidez eta zerga berezien bidez bildutako dirua egokitzeko, foru aldundiek eta udalek zerga ez itunduetan duten partaidetzagatik, elkarrekiko, kiroleko eta ongintzako apustuetatik eta Estatuko Loteria eta Apustuen Erakunde Nazionaletik bildutako diruaren partaidetzagatik, eta estatu administrazioek eta erakunde autonomoek egiten dituzten finantzazio hitzarmen eta akordioen ondorioz.

Lehenik eta behin, Foru Aldundiek Eusko Jaurlaritzari egiten dizkioten ekarpenak aipatu behar ditugu, bolumen handia baitute. Baliabideak banatzeko metodologia Ekarpenen Legean jasota dago. Hamabost egunean behin Foru Aldundiek biltzen dituzten zerga itunduetatik zein zati transferitu behar dioten Aldundiek Eusko Jaurlaritzari erabakitzen du legeak, gastu komunak ordaintzeko ekarpen gisa (horrela, Eusko Jaurlaritzak jasotzen dituen diru-sarreren %90 baino gehiago ekarpen horietatik datoz).

2018an, ekarpen horiek 9.997,4 milioi eurokoak izan ziren, 2017an baino % 1,7 gehiago, eta aurrekontuan ezarritakoa baino 474,1 milioi gehiago.

II.4.14. TAULA. FORU ALDUNDIEK EAE-KO ERAKUNDE ERKIDEEI EGITEN DIZKIETEN EKARPENEN BILAKAERA (MILA EUROTAN)

KONTZEPTUA	2013	2014	2015	2016	2017	2018	16/17 ald. %	17/18 ald. %
EK. OROKORRA	7.428.008	7.845.378	7.987.883	8.224.923	8.134.577	9.366.098	-1,1	15,1
EK. ESPEZIFIKOAK	392.825	416.055	451.723	509.580	1.698.393	631.329	233,3	-62,8
GUZTIRA, EAE	**7.820.933**	**8.261.433**	**8.439.606**	**8.734.503**	**9.832.970**	**9.997.427**	**12,6**	**1,7**
ARABAKO EK.	1.269.337	1.321.829	1.386.627	1.430.712	1.617.523	1.643.577	13,1	1,6
BIZKAIKO EK.	3.969.124	4.208.374	4.265.377	4.423.152	4.981.382	5.035.704	12,6	1,1
GIPUZKOA EK.	2.582.472	2.731.230	2.787.602	2.880.639	3.234.064	3.318.146	12,3	2,6
ARABA %	16,23	16,00	16,43	16,38	16,45	16,44		
BIZKAIA %	50,75	50,94	50,54	50,64	50,66	50,37		
GIPUZKOA %	33,02	33,06	33,03	32,98	32,89	33,19		

Iturria: Kupo eta Finantza-ekarpenen Zuzendaritzrekin datuekin egina. Ogasun eta Ekonomia Saila. EUSKO JAURLARITZA.

2007-2011 denboraldiko[29] berrikuntzen artean, Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak zenbait aldaketa ezarri zituen Aldundien ekarpenak zehazteko eta baliabideak banatzeko metodologian. Aldaketa horien artean, besteak beste, ondoko hauek nabarmendu behar ditugu: koefiziente bertikala % 70,44tik % 70,04ra jaitsi zen, toki erakundeen partaidetza areagotzeko; Foru Aldundien artean BEZagatik biltzen duten diruan doikuntza berria egin zen; eta Doikuntzako Fondo Orokorra sortu zen (lehen Elkartasun Fondoa zena), lurralde historikoentzako berme mekanismo gisa; EAEko erakundeen artean banatu beharreko baliabideetan lurralde historikoen zenbatekoa % 0,75 izatetik % 1 izatera igaro zen.

Bestalde, Europar Batasunaren fondoetatik datozen diru-laguntzak Europar Batasunak hartutako aurrekontu konpromisoen arabera gauzatzen dira. Diru-laguntza horien forma aurrerakinena edo behin betiko ordainketena izan daiteke, kasu bakoitzean araututa dagoenaren arabera. 2016an –informazioa dagoen azken urtea- %55,3 hazi ziren, aurreko ekitaldian %50,4 jaitsi ondoren, eta guztira 106 milioi euro izan ziren.

Partida nagusia Bermerako Nekazaritzako Europako Funtsa da (2007. urtean sortua Landa Garapenerako Nekazaritzako Europako Funtsarekin batera, nekazaritzarako Europako laguntzak kudeatzeko), 57,5 milioi eurorekin, guztizkoaren %54,3. Zenbateko horri LGENF fondoaren 5,4 milioiak gehituz gero, 63 milioi ditugu, Europako fondoen % 59,4 nekazaritza sektorerako ematen da.

[29] *2/2007 Legea, martxoaren 23koa, Baliabideen banaketarako eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzekoak egin beharreko ekarpenak zehazteko 2007-2011 aldian aplikatuko den metodologiari buruzkoa. Oraindik ere indarrean dago, ez baitu geroagoko beste batek ordeztu.*

Bigarren mailan, NBEUFren ondotik, EGEFren bitartez 29,3 milioi euro jaso ziren (Eskualde Garapenerako Europako Fondoa, Batasunaren barruan kohesio sozioekonomikoa indartzeko helburua duena), eskualdeen arteko desorekak zuzenduta.

II.4.15. TAULA. EUSKO JAURLARITZAK LIKIDATURIKO DIRU-SARRERAK JATORRIAREN ARABERA. (MILA EURO)

	2013	2014	2015	2016	2016 BAN. %	14/15 ALD. %	15/16 ALD. %
1. FORU ALDUNDIEN EKARPENAK	7.820.933	8.261.433	8.439.606	8.734.503	83,9	2,2	3,5
. Ekarpen orokorrak	7.428.008	7.845.378	7.987.883	8.224.923	79,0	1,8	3,0
. Berariazko ekarpenak	392.925	416.055	451.723	509.580	4,9	8,6	12,8
2. ERAKUNDEEN BESTELAKO DIRU-SARRERAK	494.634	390.451	212.397	266.144	2,6	-45,6	25,3
. EAEko erakundeetako transferentziak	5.091	361	618	2.725	0,0	71,2	340,9
. Estatuaren transferentziak	366.280	252.402	143.543	157.453	1,5	-43,1	9,7
. Europar Batasunaren funtsak	123.263	137.688	68.236	105.966	1,0	-50,4	55,3
- EGIF	4.637	4.388	1.005	9.296	0,1	-77,1	825,0
- EGEF	37.395	61.235	357	29.313	0,3	-99,4	8110,9
- NBBEF - Orientazioa	17.661	10.574	7.285	5.448	0,1	-31,1	-25,2
- LGENF	52.392	55.164	55.582	57.541	0,6	0,8	3,5
- NBEUF	7.244	5.740	-	1.813	0,0	-	-
- ABFT	3.934	586	4.007	2.555	0,0	583,8	-36,2
- Beste funts batzuk	1.493.702	1.455.646	1.450.309	1.405.625	13,5	-0,4	-3,1
3. BESTELAKO BALIABIDEAK	1.175.253	1.139.367	1.163.018	1.106.042	10,6	2,1	-4,9
- Zor publikoa	6.079	5.700	3.941	3.918	0,0	-30,9	-0,6
- Zeharkako zergak	48.005	48.139	35.409	36.198	0,3	-26,4	2,2
- Ondareko diru-sarrerak	16	1.966	1.467	946	0,0	-25,4	-35,5
- Inbertsioen errealen besterentzea	5.160	10.980	13.518	36.198	0,3	23,1	167,8
- Bestelako transferentziak	63.531	36.122	52.592	66.574	0,6	45,6	26,6
- Finantza-aktiboen aldakuntza	195.659	213.372	180.367	181.564	1,7	-15,5	0,7
- Tasa eta prezio publikoak	**9.809.269**	**10.107.529**	**10.102.312**	**10.406.271**	**100,0**	**-0,1**	**3,0**

Iturria: ZERGAK KOORDINATZEKO ORGANOA

Beste partida interesgarri bat estatuarentzako kupoa da. Kupoaren zenbateko likidoa, Kupoaren Bost Urteko Legearen bidez urtero zehazten dena, 2018. urtean (behin-behineko likidazioen arabera) 946,6 milioi eurokoa da. 2017. urtearen aldean %21,6 hazi da.

II.4.16. TAULA. EAE-K ESTATUARI ORDAINDUTAKO KUPOAREN BILAKAERA. MILA EUROTAN.

	2015	2016	2017	2018	17/18 ALD.
KUPO JASOA	823.780	761.814	867.834	1.028.790	18,5
KONPENTSAZIOAK*	-65.404	-60.399	-89.332	-82.226	-8,0
KUPO ORDAINDUA	758.076	701.416	778.502	946.564	21,6

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Ogasun eta Ekonomia Saila.
(*) Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien ziozko finantza-konpentsazioa.

Amaitzeko, Estatuari egiten zaizkion ordainketa horiek ez ezik, zenbait zenbateko ere jasotzen dira; horietatik nabarmenena Balio Erantsiaren gaineko Zergaren doikuntza da, barne merkatuan eta inportazioetan (azken hori Estatuko Ogasunak soilik egiten du) egindako eragiketengatik. Doikuntza hori Estatuko administrazioen eta EAEko administrazioaren arteko finantza-doikuntza da, zerga administrazioen artean zerga-bilketa teorikoak eta errealak egokitu beharra dagoelako, zerga administrazio horiek beren lurraldean jarduten baitute muga fiskalik gabeko espazio batean.

Doikuntza horiei zerga bereziei dagozkienak erantsi zitzaizkien 1997. urtean. Zerga berezi horiek beharrezkoak dira honako honetatik ondorioztatutako distortsioa zuzentzeko: zerga horiek kargatzen dituzten produktuen behin betiko kontsumoa produktua fabrikatu den lurraldetik kanpo egiten da.

2016. urtean (informazioa duen azken urtea) BEZagatiko doikuntza 1.337,9 milioi eurokoa izan zen EAEn. Kopuru hori % 3 handitu zen, aurreko urtekoarekin erkatuta. Aduanetako eta barneko eragiketen ziozko bilketa horretako doikuntzak %50ean banantzen dira gutxi gorabehera. Lurralde banaketa urtero egiten da, koefiziente horizontalen arabera.

II.4.5. GRAFIKOA. BEZ-AREN ZIOZKO DOIKUNTZAREN BILAKAERA EAE-N, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA. MILA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Zergak Koordinatzeko Organoa.

4.6. ENPLEGUA HERRI ADMINISTRAZIOETAN

EAEko herri administrazioek 134.440 enplegatu zituen 2017ko abenduaren 31n[30], EUSTATen "*Herri Administrazioen Direktorioa*"ren arabera. Hau da, aurreko urtean baino %1,9 gehiago eta EAEn 2017ko laugarren hiruhilekoan lan egiten zuten guztien %14,6 (2015eko eta 2016ko ratio bera), BJAren okupazioari buruzko kopuruak kontuan hartuz gero.

Datu horietan ez da kontuan hartu Estatuko administrazioaren eta Gizarte Segurantzaren sistemako langileen kopurua, baina Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioak, 2018ko urtarrileko bere buletinean eginiko zenbatespenen arabera, Estatuko herri administrazioak egun horretan 10.746 langile zituen EAEn (3.974 Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzuan eta 6.772 funtsean estatuko segurtasun indarrak eta kidegoak biltzen dituen "beste batzuk" kategorian). Bi kopuruok batuz gero, 2017ko amaieran, 145.186 lagun ziren (+% 1,5 % aurreko urtearen aldean). Hala ere, soilik zenbatespentzat hartu behar da kopuru hori, erreferentziako datak eta erabilitako metodologiak desberdinak direlako[31].

EUSTATen kopuruak berriz ere aztertuta, 2017ko abenduan ziren 134.440 enplegatu publikoetatik %65,6 EAEko administraziokoa zen, %19,4 tokiko erakundeetakoa, %7,9 foru aldundietakoa eta gainerako %7,1a unibertsitatekoa, fundazioetakoa eta beste erakunde publiko batzuetakoa.

II.4.17. TAULA. EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO LANGILEAK ABENDUAREN 31N

	2012	2013	2014	2015	**2016**	2017	15/16 %	16/17 %
EUSKO JAURLARITZA	84.386	82.458	82.085	85.389	86.406	88.137	1,2	2,0
FORU ALDUNDIAK	12.018	10.083	10.154	10.174	10.387	10.560	2,1	1,7
TOKIKO ERAKUNDEAK	24.278	24.441	24.943	25.573	25.792	26.106	0,9	1,2
FUNDAZIOAK ETA IAGE*	2.244	2.377	2.369	2.515	2.587	2.754	2,9	6,5
BESTE ERAKUNDE PUBLIKO B.	364	372	369	371	372	373	0,3	0,3
UNIBERTSITATEAK	6.414	6.379	6.392	6.425	6.429	6.510	0,1	1,3
GUZTIRA	**127.704**	**126.312**	**126.312**	**130.447**	**131.973**	**134.440**	**1,2**	**1,9**

Iturria: EUSTAT. Administrazio Publikoen Direktorioa.
** Irabazteko asmorik gabeko erakundeak*

2016ko abenduaren aldean, euskal administrazioetan 2.465 lagun gehiago ari ziren lanean, %1,9ko igoera, eta ehunekoetan nabarmentzen da Eusko Jaurlaritzaren bilakaera, % 2 hazita, eta ondoren foru aldundiak, +% 1,7arekin. Tokiko erakundeetan eta horien menpko erakundeetan, berriz, % 1,2ko jaitsiera izan zen. Gainerako erakunde publikoetan %0,3 hazi da enplegatuen kopurua, eta %1,3 unibertsitateetan.

[30] *Lanaldi osoarekin lanen ari direnak.*

[31] *Ministerioaren datuetan, adibidez, egonkortzat jotzen duen plantilla hartzen du aintzat, 6 hilabetetik beherako aldi baterako kontratuak alde batera utzita.*

II.4.18. TAULA. HERRI ADMINISTRAZIOETAKO ENPLEGATUAK 2017KO ABENDUAREN 31N MARKO ARAUTZAILEAREN ARABERA					
	GUZTIRA	EUSKO JAURLARITZA ETA MENPEKO ERAK.	FORU ALDUNDIAK ETA MENPEKO ERAKUNDEAK	TOKIKO ERAK. ETA MENPEKO ERAK.	GAINERAKO ERAKUNDE PUBL.
KARGU NAGUSIAK	1.206	315	128	605	158
FUNTZIONARIOAK	83.462	58.442	6.855	14.659	3.506
- FINKOAK	62.077	45.024	4.711	9.557	2.785
- BITARTEKOAK	21.385	13.418	2.144	5.102	721
LAN-ITUNPEKOAK	49.772	29.380	3.577	10.842	5.973
- FINKOAK	17.718	7.724	2.135	5.531	2.328
- ALDI BATERAKOAK	32.054	21.656	1.442	5.311	3.645
GUZTIRA	**134.440**	**88.137**	**10.560**	**26.106**	**9.637**
Iturria: EUSTAT. Administrazio Publikoen Direktorioa.					

Bestalde, funtzionarioak langile guztien %62,1 ziren, %37 lan-itunpeko pertsonala zen, kasu bietan Osakidetzaren estatutuetako pertsonala barne; %0,9 goi-mailako kargudunak ziren. Gainera, pertsonal finkoa (funtzionarioak, lan-itunpekoak eta estatutuetakoak) pertsonalaren %59,4 zen, %15,9 bitarteko funtzionarioak ziren eta %23,8 aldi baterako lan-itunpeko pertsonala zen.

II.4.6 GRAFIKOA. EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOKO ENPLEGATUEN BILAKAERA, SEXUAREN ARABERA. ABENDUKO 31KO



Iturria: EUSTAT. Herri Administrazioen Direktorioa.

Sexuari dagokionez, 2017ko abenduaren 31n, euskal administrazio publikoetako enplegatu guztien %37,4 gizonezkoak ziren, eta emakumeak %62,6. Emakumeen nagusitasun hori areagotu egin da 2011tik: emakumeen kopurua %7,7 hazi da, eta gizonena, berriz, %0,2 gutxitu. Así, las mujeres han ganado 1,8 puntos porcentuales sobre el total. Hala, emakumeek %1,8 puntu irabazi dituzte.

ITURRIAK

1. **EUSKO JAURLARITZA.** Aurrekontuen betearazpenari buruzko estatistika 2018ko IV. Hiruhilekoa. Hiruhilekoa. Abagunekoa.
2. **EUSKO JAURLARITZA.** Zerga itunduen ziozko bilketaren zenbakiak. 2018ko abendua. Hilekoa. Abagunekoa.
3. **OGASUN ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA.** AAEEen defizitaren zenbakiak. 2018ko hiruhilekoa. Abagunekoa.
4. **EUSKO JAURLARITZA.** Zergak Koordinatzeko Organoa. EAEko Ogasunaren Urteko Txossten Integratua 2016. Urtekoa. Estrukturala.
5. **EUSTAT**. Sektore Publikoaren Aurrekontuen estatistika. 2016. Urtekoa. Estrukturala.
6. **EUSKO JAURLARITZA**. Ogasun eta Ekonomia Saila. Kupoari eta Foru Aldundien gaineko datuak. 2018. Urtekoa. Abagunekoa.
7. **EUSTAT**. Administrazio Publikoen Direktorioa 2017. Urtekoa. Estrukturala.
8. **OGASUN ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA**. Administrazio publikoaren zerbitzuko pertsonalaren estatistika buletina. 2018ko urtarrila. Seihilekoa. Estrukturala.
9. **OGASUNEKO MINISTERIOA ETA FUNTZIO PUBLIKOA**. Administrazio Publikoen zerbitzura Pertsonalaren Buletin Estatistikoa. 2018, urtarrila. Sei hilekoa. Egiturazkoa.

5. AZPIEGITURA PRODUKTIBOAK

Azpiegitura fisikoak oinarrizko elementua dira garapen ekonomikoa, ongizate orokorra eta edozein gizarteren kohesioa posible izan daitezen, eta herrialde baten ekonomia orokorraren jardunaren gainean eragin garrantzitsua dute. Zehazki, produktibitatea eta hazkundea areagotzen laguntzen dute.

Atala bi bloke handitan dago banatuta. Lehenbizikoa garraioari buruzkoa eta bigarrena energiaren ekoizpenaren eta kontsumoaren gainekoa. Garraioaren atalari dagokionez, lehenik eta behin, Estatuko erakunde publikoek (AENA, ADIF, PORTUAK eta RENFE) ingeniaritza zibilean EAEn eginiko esleipenei buruzko datuak aztertuko dira eta, ondoren, errepideko garraioaren, trenbideko garraioaren (horren barnean euskal Y-a), airetiko garraioaren eta itsasoko garraioaren gaineko hainbat adierazle aurkeztuko dira. Energiaren ekoizpenari eta kontsumoari buruzko atalean, barne kontsumo gordina edo energiaren eta azken kontsumoaren eskariaren bilakaera aztertuko da, baita energia primarioaren ekoizpenarena, energia intentsitatearena eta energiaren fakturarena ere.

5.1. GARRAIOA: AZPIEGITURAK ETA TRAFIKOA

5.1.1. Azpiegiturak

Egoera estrategikoagatik nahiz industria jarduera handiagatik, EAE mota guztietako trafikoen maila handienetakoa ageri duen Europako zona bat da. Errepide sare trinkoa, trenbideak, bi itsas portu handi eta hiru aireportu dira barruko trafikoan nahiz kanpokoan ageri diren beharrak estaltzen saiatzen direnak, egunetik egunera osatuagoak eta kalitate handiagokoak diren zerbitzu batzuk eskainita. Ondoko taulan, gure Erkidegoko Garraio Sistemaren osaera ageri da, azpiegituraren titulartasuna eta operadorea kontuan izanik betiere.

II.5.1. TAULA. EAE-KO GARRAIO SISTEMAREN ERAKETA

SISTEMA	AZPIEGITURA	ORGANO TITULARRA	ERAKUNDEA/OPERADOREA
BIDERIA SISTEMA	Errepideen Sare Nagusia	Foru Aldundiak	Garraioaren zerbitzu publikoaren emakidaduna/hura ematen duena.
	Hiri sarea	Udalak	
	A-68 autobidea	Estatua	
TRENBIDE SISTEMA	Europaz gaindiko sarea Penintsulako sarea	Estatua	ADIF[32] (RENFE)
	Sare metrikoa	EAE	EUSKOTREN ETS[33]
		Estatua	ADIF (FEVE**)
	Metroa/Tranbia	EAE	Metro Bilbao, EUSKOTREN ETS
	Zubi esekia	Bilboko Portuko Agintaritza	Pribatua
PORTUEN SISTEMA	Interes orokorreko portuak	Estatua	Portuko Agintaritza
	Portu autonomoak	EAE	EAE
AIRETIKO SISTEMA	Interes orokorreko aireportuak	Estatua	AENA
KABLE SISTEMA	Igogailuak eta funikularrak	EAE	Pribatuak Publikoak
GARRAIO INTERMODALEKO SISTEMA	Garraio eta logistika zentroak	Partzuergoak/Erakunde publikoak, pribatuak, mistoak	Operadore logistikoak

Bide estuko trenbide sarea.
Iturria: Geuk egina.

[32] *ADIF, Trenbide Azpiegituren Administratzailea, Sustapen Ministerioaren menpeko enpresa-erakunde publikoa da. Trenbide azpiegituren administrazioa (trenbideak, geltokiak, salgaien terminalak, etab.), trenen zirkulazioaren kudeaketa, tren operadoreen ahalmenaren esleipena eta azpiegitura, geltokiak eta salgai terminalak erabiltzeagatiko kanonak hartzen ditu bere gain.*
Trenbide jardueren gero eta espezializazio handiagoa dela eta, Sustapen Ministerioari atxikitako bi enpresa-erakunde publikotan banatu da ADIF: ADIF eta ADIF Abiadura Handia. Bere nortasun juridikoarekin eta ondarearekin sortu da eta, besteak beste, abiadura handiko trenbide azpiegituren eraikuntzaren eta administrazioaren arloko eskumenak hartzen ditu bere gain.

[33] *ETS, Euskal Trenbide Sarea/Red Ferroviaria Vasca EAEren eskumeneko trenbide azpiegituren administrazioaz arduratzen den Eusko Jaurlaritzaren erakunde publikoa da. Haren xede nagusia Euskal Autonomia Erkidegoaren menpeko trenbide azpiegiturak eraikitzea, artatzea, kudeatzea eta administratzea da, trena garraio sistema modernoa, eraginkorra eta iraunkorra izan dadin.*

Estatuko Erakunde Publikoek (AENA, ADIF, PORTUAK eta RENFE) ingeniaritza zibilean EAEn eginiko esleipenei buruzko datuek erakusten dutenez, jaitsierak ageri dira 2017 eta 2018 bitartean, ADIFen kasuan izan ezik.

Horrela, datuon arabera, ADIF Estatuko Sozietate Publikoak (trenbide-azpiegituren administratzailea) ingeniaritza zibilean EAEn[34] egindako inbertsioak handitu ziren, 16,6 milioi eurotik 400,8 milioi eurora; bestetik, RENFE erakundeak egindako inbertsioak 42,2 milioi eurotik 11,9 milioi eurora jaitsi ziren; AENA erakundearenak 20,7 milioi eurotik 10,4 milioira jaitsi ziren.

II.5.2. TAULA. SUSTAPEN MINISTERIOAREN, ERAKUNDE AUTONOMOEN ETA ESTATUKO ERAKUNDE PUBLIKOEN INGENIARITZAKO ESLEIPENAK ESTATUAN ETA EAE-N (*mila euro*)

	EAE						ESTATUA			EAE/Estatua (%)	
	2014	**2015**	**2016**	**2017**	**2018 bb**	**Aldak. 2017-18**	**2016**	**2017**	**2018 bb**	**2017 bb**	**2018 bb**
MINISTERIOA, ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA ESTATUKO ERAK. PUBLIKOAK	81.062	300.302	189.105	51.894	419.212	707,8	1.043.676	899.904	1.721.550	5,0	46,6
ESTATUKO ERAKUNDE PUBLIKOAK	81.062	300.302	189.105	51.894	419.212	707,8	973.834	691.027	1.204.973	5,3	60,7
AENA	1.437	8.339	4.363	20.680	10.391	-49,8	300.834	312.670	318.132	6,9	3,3
ADIF	69.030	292.211	73.388	16.560	400.873	2.320,7	398.983	171.379	881.059	4,2	233,9
PORTUAK	9.854	11.093	114.661	42.205	11.911	-71,8	272.290	374.398	260.029	15,5	3,2
RENFE ERAKUNDEA	4.986	3.100	1.907	1.218	408	-66,5	33.335	36.329	12.225	3,7	1,1

bb: behin-behinekoa
Iturria: Geuk egina Sustapen Ministerioaren datuak erabiliz

5.1.1.1. Errepide sarea

Sustapen Ministerioak 2018an argitaraturiko *2017ko Estatistika Urtekariaren* arabera, gure Erkidegoko errepide sarea Europako sarerik trinkoenetakoa da, azalerako dentsitaterik handienetakoa baitu (0,58 km errepide km^2-ko, Estatuaren ia bikoitza hain zuzen ere (0,33), baina dentsitate txikiagoa du biztanleko (1,91 Km errepide 1.000 biztanleko, Estatuko 3,5 km errepide 1.000 biztanleko dentsitatearen aldean) eta % 15 edukiera handiko errepideak dira, % 10,4 Estatuan. Edukiera handiko errepideen % 40,9 bidesaria duten autobideak dira, % 17,7 estatuan.

II.5.3. TAULA. ERREPIDE SAREAREN INDIZEEN BILAKAERA (Km)

	EAE					ESTATUA	
	2013	2014	2015	2016	2017	2016	2017
Errepide Km-ak	2013	2014	2015	2016	2017	2016	2017
Biztanleak	4.175	4.169	4.178	4.180	4.161	165.483	165.686
Sare osoa (km) / azalera	0,58	0,58	0,58	0,58	0,58	0,33	0,33
Sare osoa (km) / 1.000 biztanle	1,90	1,90	1,91	1,91	1,90	3,55	3,56

Iturria: Sustapeneko 2017ko Estatistika Urtekaria, 2018an argitaratua

[34] *ADIFek egiten dituen EAEn Abiadura Handiko Linea osoko gainegiturako obrak (trenbide obra).*

II.5.4. TAULA. ERREPIDE SAREA, MOTA ETA ALDIAREN ARABERA. (Km)					
	2013	2014	2015	2016	2017
ESTATUA					
Errepideen km guztira	165.361	165.639	166.003	165.483	165.686
Edukiera handiko bideak guztira	16.582	16.705	17.021	17.108	17.163
Bidesaridun autobideak	3.026	3.020	3.040	3.039	3.039
Autobiak	11.955	12.029	12.296	12.405	12.484
Errei askoko errepideak (1)	1.602	1.656	1.686	1.665	1.640
EAE					
Errepideen km guztira	4.175	4.169	4.178	4.180	4.161
Edukiera handiko bideak guztira	600	602	617	624	624
Bidesaridun autobideak	248	243	255	255	255
Autobiak	285	231	234	241	241
Errei askoko errepideak (1)	68	127	128	128	128

1) 2015etik hasita, galtzada bikoitzeko errepidearen definizioa aldatu eta errei askoko errepideak deitzen dira (Errepideei buruzko irailaren 29ko 37/2015 Legea). Edukiera handiko bideen barruan sartzen dira. Nazioarteko konparazioari begira, halakotzat hartzen dira bidesaridun autobideak, autobide libreak eta autobiak.
Iturria: Sustapeneko 2017ko Estatistika Urtekaria, 2018an argitaratua.

5.1.2. Lur, trenbide, aire eta itsasoko trafikoa

5.1.2.1. Euskal Y-a

Gure 2017ko Memoria Sozioekonomikoan azaldu genuenez, Eusko Jaurlaritzak bere gain hartu zuen jarduketa gehiagoren burutzapena Euskal Y-aren Bergara-Lezoko zatian. Zehazki, Ezkioko geltokia egitea, Astigarragako geralekua eraikitzea eta jarduketa berriak burutzea Bergara-Lezoko zatian (tuneletako larrialdi irteerak, EB 1303/2014 Erregelamenduaren arabera, eta jarduketa osagarriak: magalak egonkortzea eta bertako iturburuetan izandako ukipenen ondoriozko birjarpenak).

Hitzarmen berriak Bergara eta Irun arteko zatia burutzeko kostuaren inguruan onartutako eta aurreikusitako kontratuko gorabehera barne hartzen ditu, non Astigarraga-Oiartzun-Lezoko zatia eta Donostia hirian sartzeko zatia barne direla ulertzen baita. Izan ere, Donostia hiriko geltokia bertan sartuko da egungo Iparreko geltokia.

Bergarako lotunea Sustapen Ministerioarekin adosturikoaren arabera doa, eta 2018ko uztailean izandako batzarraren ondotik, Euskal Y-a 2023an jar liteke martxan.

Batzar horretan, honako gai hauek jorratu ziren besteak beste:

Astigarraga-Oiartzun-Lezoko zatia	2017ko urrian, 2015ean izapideturiko Informazio Azterlana baliogabetzea eta ibilbide berria aztertzea erabaki zen. Gaur egun, Ministerioa, INECOren bitartez, Informazio Azterlan berria egiten ari da. Erabakitakoaren arabera, azterlan berria 2019rako izapidetuko da, Euskal Y-a Pasaiako Portuarekin lotzeko, Lezoko plataforma multimodala gauzatzeko edo salgaiak Donostiako erdigunetik igarotzea saihesteko.
Ezkio-Itxasoko geltokia.	Eusko Trenbide Sareak (ETS) eraikuntza proiektua idazteko lanak esleitu zituen 2018ko maiatzean, eta 6 hilabeteko epea du. Obraren kostua, gutxi gorabehera, 4,1 milioi eurokoa da (BEZ barne).
Astigarragako geralekua.	Eusko Trenbide Sareak (ETS) eraikuntza proiektua idazteko lanak esleitu zituen 2018ko maiatzean, eta 6 hilabeteko epea du. Obraren kostua, gutxi gorabehera, 4,7 milioi eurokoa da (BEZ barne).
Larrialdi galeriak Bergara-Astigarragako zatian.	ADIFek, 2018ko otsailean, Bergara eta Astigarraga arteko tuneletako larrialdietako galeria berriak eraikitzeko proiektua idatzi eta onetsi zuen, 14,89 milioi euroko aurrekontuarekin (BEZ barne). Proiektuen azken gainbegiratzea egiten ari dira elkarrekin ADIS eta ETS, obren lizitazioari ekiteko.
Sarbideak, lurperatzea eta geltoki berria Gasteizen	Eusko Jaurlaritzak eta Sustapen Ministerioak erabakitakoaren arabera, talde teknikoek (Sustapen Ministeriokoak, ADIFekoak, Garapen Ekonomiko eta Azpiegitura Sailekoak, ETSkoak eta Gasteizko Udalekoak) lehentasun osoarekin egin zituzten lurperatzeko eta Gasteizko geltoki berria egiteko proiektuko azken prestakuntza-lanak.
Sarbideak, lurperatzea eta geltoki berria Bilbon (Abando)	Informazio Azterlana berehala egitea eta izapidetzea erabaki zen, baita Ingurumen-eraginaren Adierazpena egitea ere.

Donostiako Abiadura Handiko Geltokia	ETSk, 2018ko maiatzean, Eraikuntza Proiektu idazteko lanak esleitu zituen, eta 10 hilabeteko epea dago proiektua idazteko. 2019ko erdialdean obren lizitazioa egin ahal izatea espero da.

Hala, Euskal Y-aren egungo egoera ondoko trafikoan zehaztuko da, Euskal Trenbide Sareak (ETS) 2018ko abenduaren 31n argitaraturko "EAEko Gipuzkoako Lurralde Historikoko trenbide sare berria (Bergara-Lezo). Obren hiruhilekoen txostena" dokumentuak dakarrenez.



Bergara-Lezoko adarra

Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren arabera, 2022an bukatuko dira abiadura handiko Trenbide Sare Berriko plataforma eraikitzeko lan guztiak Gipuzkoa osoan, baita agindutako gainerako proiektuak ere hala nola Atotxako eta Ezkioko geltokiak edo larrialdi galeria berriak.

Aurreikuspenen arabera, 2019an bukatuko dira Antzuola-Ezkio, Hernialde-Zizurkil-Andoain eta Adoain-Hernani zatietako obrak eta Hernani-Astigarragan egiteke dauden obren lizitazioa gauzatuko da kontratua suntsiarazi ondoren, baita Ezkioko geltokia ere.

Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren arabera, "proiektuaren puntu kritikoa dagoeneko ez da Bergarako lotunea[35] , hirietako sarbideak baizik. Bilbon eta Gasteizen oraindik ez da onetsi informazio azterlana eta, hori dela-eta, atzerapen handia dago jada".

"EAEko Gipuzkoako Lurralde Historikoko trenbide sare berria (Bergara-Lezo). Obren hiruhilekoetako txostena" dokumentuaren arabera, Gipuzkoako igarobidean (2018ko abenduan), 20 zatietatik 17 esleituta zeuden. 17 horietatik 5 burutzen ari ziren eta 12 bukatuta zeuden. Kilometroen aldetik, 68,7 kilometroetatik 59 esleituta zeuden. 59 km horietatik, 22 burutzen ari ziren eta 37 bukatuta zeuden.

"Idazteko proiektuan" diren hiru zatiak Astigarraga-Lezoko adarrari dagozkio (laranja kolorea grafikoan).

Zehazki, hona hemen obren egoera, zatien arabera (berdea: bukaturiko tartea eta zuria: egiteko bidean).



[35] *2018an, Arrasate-Elorrio-Bergara (3. sektorea) zatiaren lizitazioa egin da, 134 milioi euroko eskaintzarekin, Arrasate-Elorrio-Bergara zatiko 2. sektorea, 255,6 mlioi euroko aurrekontuarekiin eta Arrasate-Bergara (3. sektore) zatia, 89 milioirekin.*

II.5.5. TAULA. KONTRATUEN EZAUGARRIAK						
TARTEA	km	ESLEIPENA	ONARTUTAKO ZATIA, DATAREKIN	EPEA (HILEAK)		
				LIZITAZIOA	ESLEIPENA	INDARREAN
Bergara-Antzuola	**4,29**	2011/03/02	2016/06/30	36,5	35,5	71
Bergara-Bergara	**3,16**	2010/04/13	2016/06/30	34	34	60
Antzuela-Ezkio/Itsaso	**3,56**	2010/12/23	Aribidean. Burutzapenaren aurrerakada % 98koa dela zenbatetsi da	65	63	92
Antzuela-Ezkio/Itsaso. Ekialdea	**3,40**	2011/03/14	2017/10/4	63	63	76
Ezkio/Itsaso-Ezkio/Itsaso	**2,84**	2011/12/01	2016/11/17	30	28	57
Ezkio/Itsaso-Beasain	**2,49**	2010/11/15	2014/02/2	32	30	35
Beasain Mendebaldea	**1,87**	2009/11/03	2015/04/28	32	25	62
Beasain Ekialdea	**2,16**	28/07/2009	25/09/2012	35	32	32
Ordizia-Itsasondo	**2,86**	2007/12/04	2012/04/18	31	27	46
Legorreta	**3,59**	2009/10/20	2015/04/18	36	30	60,5
Tolosa	**3,79**	2009/10/13	2016/11/17	36	28	80,5
Tolosa-Hernialde	**3,81**	2010/11/29	2015/03/12	31	26	48
Hernialde-Zizurkil	**5,87**	2012/06/20	Aribidean. % 95 burututa dagoela zenbatetsi da.	42	42	80
Zizurkil-Andoain	**4,97**	2012/03/05	Aribidean. % 99 burututa dagoela zenbatetsi da.	46	46	84
Andoain-Urnieta	2,81	2010/12/24	2016/06/30	34	34	64
Urnieta-Hernani	**5,25**	2010/12/22	Obra bukatzeko azken lanak egiten ari dira, eta eginda daude jada azpiegitura eraikitzeko lanak	35	33	99
Hernani-Astigarraga	**2,48**	2011/12/02	2018/11/22	28	27	66
			2018ko urriaren 24an, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura sailburuak NFRV plataformako Hernani-Astigarraga zatia eraikitzeko obren kontratu administratiboa eta kontratu osagarria suntsiarazteko prozedura bukatzeko agindua eman zuen. 2018ko azaroaren 22an, eginiko obren onarpena formalizatu zen Sustapen Ministerioak ikuskatuta.			
Iturria: Eusko Trenbide Sarea						

Bergara-Lezoko adarreko aurrekontua, guztira, 1.843,81 M€-koa da. "Aldatuak, osagarriak, larrialdi obrak eta indarreko azken neurketak" horien zenbatekoa esleituriko aurrekontuaren % 9,19 dira eta obren lizitazio aurrekontuaren % 8,52.

II.5.6. TAULA. EGUNO AURREKONTUAREN EGOERA

		Adjudikazioa rekiko %-a	Lizitazioare kiko %-a
ADJUDIKAZIOAK	1.575.3 M€		
ALDATUAK, OSAGARRIAK, LARRIALDI OBRAK ETA INDARREKO AZKEN NEURKETAK	131,53 M€	%8,35	%7,74
OBRA LIKIDAZIOAK	13,31 M€	%0,84	%0,78
BEZAREN ZERGA-DOIKUNTZAK	32,56 M€		
PREZIOEN BERRIKUSPENA	79,41 M€		
GUZTIRA	256,8 M€		
INDARREKO GUZTIZKO AURREKONTU LIKIDOA	**1.832,11 M€**		
ERAGINPEKO ZERBITZUAK	5,45 M€		
ONDARE-ERREKLAMAZIOAK	6,25 M€		
GUZTIRA	**1.843,81 M€**		

Iturria: Eusko Trenbide Sarea

5.1.2.2. Errepideko garraioa

Sustapen Ministerioaren arabera, jomuga edo jatorria EAEn duten errepideko salgaien trafikoa (nazioarteko igarotze-trafikoa alde batera utzita), behera egin zuen 2018an (97,2 milioi Tm-tik 95,7 milioi Tm-ra).

Jaitsiera hori gertatu da nazioarteko eta eskualde barruko desplazamenduetan garraiaturiko salgaietan izandako beherakadagatik (-% 3,7 eta -% 4,7 hurrenez hurren), zeren eta eskualde arteko desplazamenduan gora egin baitu trafikoak (+% 1,4) .

Eskualde arteko trafikoari dagokionez, azken datuen arabera, Gaztela-Leon, Nafarroa, Kantabria eta Katalunia erkidegoekin egiten da.

II.5.7. TAULA. ERREPIDEKO MERKANTZIEN JOMUGA ETA JATORRIA EUSKAL AUTONOMIEN ARABERA. (milaka tona)

	2016		2017	
	Jomuga EAE	Jatorria EAE	Jomuga EAE	Jatorria EAE
ANDALUZIA	730	685	695	781
ARAGOI	1.774	1.708	1.756	2.421
ASTURIAS	882	546	975	819
BALEARRAK	-	-	-	-
U. KANARIARRAK	-	-	-	-
KANTABRIA	3.844	2.554	2.763	1.861
GAZTELA-MANTXA	693	450	890	838
CASTILLA Y LEÓN	4.702	4.450	5.273	5.064
KATALUNIA	1.483	1.648	2.217	1.685
VALENTZIAKO E.	606	1.219	845	1.223
EXTREMADURA	122	66	152	53
GALIZIA	1.206	1.094	1.662	1.301
MADRIL	1.309	1.382	1.642	1.441
MURTZIA	174	229	121	215
NAFFARROA	3.659	3.617	3.951	4.267
EAE	**42.644**	**42.464**	**43.859**	**43.859**
ERRIOXA	1.022	853	1.177	784
CEUTA-MELILLA	-	-	-	-
GUZTIRA	**64.683**	**62.996**	**67.978**	**66.649**

Iturria: Sustapeneko Estatistika Urtekaria, 2017. 2018an argitaratua

II.5.8. GARRAIATURIKO TONAK, BIDAIA MOTAREN ARABERA, JOMUGA EDO JATORRIA EUSKADIN IZANIK (milaka Tm)

		2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2017-18 ald.
GUZTIRA		**88.505**	**84.376**	**94.875**	**91.024**	**91.691**	**97.157**	**95.738**	**-1,5**
ESKUALDE BARRUAN	**GUZTIRA**	**42.076**	**40.922**	**50.203**	**41.109**	**42.464**	**43.859**	**44.490**	**1,4**
	UDAL BARRUAN	8.669	8.395	9.033	8.528	7.229	7.830	7.953	1,6
	UDAL ARTEAN	33.406	32.527	41.170	32.581	35.235	36.029	36.537	1,4
ESKUALDE ARTEAN	**GUZTIRA**	**41.606**	**38.799**	**39.321**	**44.396**	**42.751**	**46.908**	**45.157**	**-3,7**
	JASOA	22.301	19.818	20.204	23.674	22.219	24.119	23.717	**-1,7**
	IGORRIA	19.305	18.981	19.117	20.722	20.532	22.789	21.440	**-5,9**
NAZIOARTEAN	**GUZTIRA**	**4.823**	**4.655**	**5.352**	**5.519**	**6.477**	**6.390**	**6.092**	**-4,7**
	JASOA	2.308	2.092	2.729	2.755	3.405	3.157	3.070	**-2,8**
	IGORRIA	2.514	2.563	2.622	2.764	3.071	3.233	3.022	**-6,5**

Iturria: Sustapen Ministerioa. Datu-basea

5.1.2.3. Trenbideko garraioa

Sustapen Ministerioak 2018an argitaraturiko *2017ko Estatistika Urtekariaren* arabera, bide elektrifikatuko 544,18 kilometrok osatzen zuten EAEko trenbide sarea, eta horietatik % 66,5 ADIFi dagozkio, berak kudeatzen baitu penintsularako distantzia ertaineko eta luzeko zerbitzuekin loturiko azpiegitura, baita Bizkaiko eta Gipuzkoako aldiriko zerbitzuak eta FEVEren bide estuko trenenak ere (Bilbo-Santander, Bilbo-Leon lineak eta Bilbo Handiko eskualde barruko loturakoak). Bestalde, % 33,5 Eusko Trenena da (Bilbo-Donostia-Hendaia linea barne).

II.5.9. TAULA. TRENBIDE KM EAE-N

	2016				2017			
	Elektrifikatu barik	Elektrifikatua	Bide bakarra	Bide bikoitza	Elektrifikatu barik	Elektrifikatua	Bide bakarra	Bide bikoitza
GUZTIRA	**20,45**	**539,42**	**272,19**	**287,67**	**19,27**	**544,18**	**266,72**	**296,72**
ADIF	14,38	360,88	144,95	230,31	14,38	361,67	144,95	231,09
EUSKOTREN ETS	6,07	178,53	127,24	53,36	4,89	182,51	121,77	65,63

Iturria: Sustapeneko 2017ko Estatistika Urtekaria, 2018an argitaratua

5.1.2.4. Airetiko garraioa

Abiazio zibilaren arabera[36], EAEko hiru aireportuetatik, 2018. urtean, guztira 5,9 milioi bidaiari igaro ziren (% 92,7 Bilboko aireportuan), hots, % 10,5eko igoera 2017ko datuen aldean. Salgaien trafikoari dagokionez, % 1,5 egin zuen gora aldi berean, eta guztira 63,4 Tm bildu ditu (% 98,1 Gasteizko aireportuan erregistratu da).

Bilboko aireportutik, guztira, 5,5 milioi bidaiari igaro ziren 2018an, hots, % 10eko igoera 2017. urtearen aldean. Salgaien trafikoan, berriz, % 37,8 egin zuen behera salgaien bolumenak aldi berean, aurreko urteko % 34,2koari gehituta.

Forondako aireportuak %2,8ko gorakada izan zuen 2017 eta 2018 bitartean, salgaien garraioari dagokionez, guztira garraiaturiko 62.1562 Tm. Hala, Gasteizko aireportuak laugarren tokia du aireportuen rankingean garraiaturiko salgaien bolumenaren aldetik, honako hauen atzetik AS Madril-Barajas, Bartzelona-El Prat eta Zaragoza. Bestalde, bidaiarien kopuruak % 67,5 egin zuen gora, 140.945 pertsona izateraino.

Gasteizko Udalak H24 kalifikazioa berreskuratu zuen apirilaren 25ean, eta berriz jardungo da aireportuan eguneko 24 orduetan, Aenak 2012an soilik gauez funtziona dezan erabaki ondoren.

Donostiako aireportuan, 2017 eta 2018 bitartean, bidaiarien kopuruak % 2,5 egin zuen gora (289.444 bidaiari 2017an) eta salgaiena, berriz, 3 Tm-tik 7 Tm-ra.

[5] *2015ean, metodologia aldaketa garrantzitsua izan zen Abiazio Zibilak eskaintzen dituen datuetan (AENAk emanak), zeren eta zenbatetsi egin baitzen bestelako trafiko moten bidez (BTM) egiten den garraioa. Izan ere, ordura arte garraio erregularraren eta ez erregularraren bidezkoa baizik ez zen zenbatesten. Jakin egin behar dugu salgaien garraioaren zatirik handiena BTMren bitartez egiten dela.*

II.5.10 TAULA. AIRETIKO GARRAIO ZIBILAREN BILAKAERA KONTZEPTU ETA AIREPORTUAREN ARABERA												
	EAE GUZTIRA			Gasteiz			Bilbo			Donostia		
	Aire-ontziak	Bidaiariak (milak.)	Salgaiak (Tm.)	Aire-ontziak	Bidaiariak (milak.)	Salgaiak (Tm.)	Aire-ontziak	Bidaiariak (milak.)	Salgaiak (Tm.)	Aire-ontziak	Bidaiariak (milak.)	Salgaiak (Tm.)
2014	54.536	4.268	45.047	5.890	7	42.161	42.590	4.015	2.856	6.056	245	31
2015	57.507	4.544	49.246	6.840	11	46.371	43.862	4.277	2.872	6.805	255	3
2016	58.747	4.889	55.114	6.692	37	52.135	45.105	4.588	2.974	6.950	264	5
2017 bb	62.348	5.340	62.444	8.434	84	60.484	46.989	4.974	1.956	6.925	282	3
2018 bb	66.136	5.900	63.379	9.755	141	62.156	49.966	5.470	1.216	6.415	289	7
2016-17 aldak.	**6,1**	**9,2**	**13,3**	**26,0**	**129,4**	**16,0**	**4,2**	**8,4**	**-34,2**	**-0,4**	**6,6**	**-30,4**
2017-18 aldak.	**6,1**	**10,5**	**1,5**	**15,7**	**67,5**	**2,8**	**6,3**	**10,0**	**-37,8**	**-7,4**	**2,5**	**118,8**

bb behin-behinekoa
Iturria: Sustapen Ministerioa. Abiazio zibila

5.1.2.5. Portuko grafikoa

Sustapen Ministerioaren arabera, itsas garraioa (salgaiak, hornidura eta arrantza) 2017 eta 2018 bitartean % 4 hazi zen Bilboko Portuan, eta guztira 35,7 milioi Tm izan ziren. Horietatik 25,2 milioi ontziratu gabe ziren, eta azken horietatik %81,2 (20,5 milioi Tm) likidoak. Bestela esanda, garraiaturiko salgaien % 57,4 ontziratu gabeko likidoak dira, gehienbat petrolioaren produktuak. Bestalde, 70 ontzi gehiago daude, 2.855etik 2.925era; eta bidaiarien kopuruak gora egin du (+%7,6), guztira 200.631 lagun erregistratuta.

Pasaiako portuak askoz kopuru txikiagoak biltzen ditu, eta horietan ere igoera izan da salgaien trafikoaren aldetik (+% 5,5), guztira 3,q milioi Tm. Igoera hori gertatu da solido solteen trafikoan izandako gorakadagatik (+% 19,4), salgai orokorren trafikoaren igoera % 0,3koa baita eta arrantzakoarenak behera egin baitu(-% 9,1). Bestalde, ontzien kopurua handitu egin da (46 gehiago) eta 911 daude. Bidaiarien kopurua, aldiz, 813tik 1.394ra igo da.

II.5.11. TAULA. ONTZIAK, BIDAIARIAK ETA ITSASOKO GARRAIOAK MUGITUTAKO SALGAIAK, MOTAREN ARABERA SAILKATUTA										
		2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018p	%	2017-18 aldk. %
Bilbo	**PORTUKO TRAFIKOA, GUZTIRA (MILA TM.)**	29.507	30.073	31.009	32.875	32.067	34.308	35.697	100,0	4,0
	LIKIDO SOLTEAK	15.061	15.761	16.351	18.200	18.087	19.784	20.490	57,4	3,6
	SOLIDO SOLTEAK	4.262	4.422	4.588	4.258	4.362	4.543	4.758	13,3	4,7
	SALGAIAK OROKORREAN	9.631	9.419	9.883	9.672	9.500	9.870	10.337	29,0	4,7
	BESTELAKO TRAFIKOA	553	470	187	475	119	112	112	0,3	0,0
	ONTZIAK, GUZTIRA (KOPURUA)	2.808	2.789	2.862	2.816	2.815	2.855	2.925	8,2	2,5
	BIDAIARIAK, GUZTIRA (KOPURUA)	142.754	141.979	161.242	165.522	190.626	186.546	200.631	562,0	7,6
Pasaia	**PORTUKO TRAFIKOA, GUZTIRA (MILA TM.)**	3.094	2.955	3.503	3.794	3.458	2.974	3.139	100,0	5,5
	LIKIDO SOLTEAK	0	0	0	0	0	0	0		
	SOLIDO SOLTEAK	1.420	1.212	1.509	1.694	1.099	834	996	31,7	19,4
	SALGAIAK OROKORREAN	1.622	1.694	1.943	2.044	2.295	2.085	2.092	66,6	0,3
	BESTELAKO TRAFIKOA	52	50	51	55	61	55	50	1,6	-9,1
	ONTZIAK, GUZTIRA (KOPURUA)	895	879	921	991	994	865	911		5,3
	BIDAIARIAK, GUZTIRA (KOPURUA)	0	0	0	0	758	813	1.394		71,5

**: Behin-behinekoa*
Iturria: Sustapen Ministerioa. Portuak

5.2. ENERGIA: EKOIZPENA ETA KONTSUMOA

Inportatutako energiaren eraldaketa EAEren jarduera ekonomikoaren barruan pisu adierazgarria duen industria da, petrolioa fintzeko eta energia elektrikoa sortzeko sektoreekin batera. Aldi berean, azken urteetan gas eta elektrizitateko azpiegitura berriek izandako sarrerak energiaren euskal eskaintzaren kalitatea indartzeko joera du.

Energia balantzeetan ezberdindu egiten da barne kontsumo osoaren edo energia eskariaren eta amaierako kontsumoa. Energia eskaria edo barne kontsumo osoa, funtsean, lurraldean bertan sortutako lehen mailako energia gehi inportazioen, esportazioen eta galeren (garraioagatik, biltegiratzeagatik, banaketagatik) arteko orekaren berdina da. Amaierako kontsumoa amaierako kontsumitzaileen sektoreetako kontsumoen batura da, hau da, industriaren, garraioaren, lehen sektorearen, zerbitzuen eta egoitzen kontsumoaren batura .

II.5.1. GRAFIKOA.BARNEKO KONTSUMO GORDINA ETA ENERGIAREN AMAIERAKO KONTSUMOA



Iturria. EEE

Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) argitaraturiko *Euskadi Energia, 2017. Energiari buruzko datuak* txostenak erakusten duenez, amaierako kontsumoa %3. igoi zen 2017an, hau da, amaierako kontsumitzaileen sektoreetako kontsumoen batura da, hau da, industriaren, garraioaren, lehen sektorearen, zerbitzuen eta egoitzen kontsumoaren batura, 6.440 Ktep-ekoa da.

Bestalde, energiaren amaierako kontsumoa % 5,5 hazi zen. Garraioa (guztizkoaren % 40,3) eta industria (% 39) izan ziren amaierako kontsumorik handieneko sektoreak. Bizitegien sektorea % 8,7 hazi zen, garraioa % 5,8, industria % 5,1, lehen sektorea % 4,6 eta zerbitzuak % 2,2.

II.5.12. TAULA. EAE-REN ENERGIARI BURUZKO BALANTZEA (Ktep)														
	2017							2016-17 aldak.						
	ERREGAI SOLIDOAK	PETROLIOA ETA DERIBAT.	GAS NATURALA	ENER-GIA DERIBAT.	ENERGIA BERRIZTAGARRIAK	ENERGIA ELEKTRIKOA	GUZT.	ERREGAI SOLIDOAK	PETROLIOA ETA DERIBAT.	GAS NATURALA	ENERGIA DERIBATUAK	ENERGIA BERRIZ	ENERGIA ELEKTRIK.	GUZT.
OINARRIZKO ENERGIAREN EKOIZPENA	0	0	0	25	458	0	483				-10,7	10,4		9,0
BARNE KONTSUMO GORDIN BALIAGARRIA (ESKARIA)	37	2830	2146	26	536	865	6440	19,4	-0,4	6,2	-7,1	14,5	0,3	3,0
TRANSFORMAZIO SARRERAK	0	9129	731	10	135	0	10005		-1,7	7,2	-9,1	17,4		-0,9
TRANSFORMAZIO IRTEERAK	0	9038	0	1	0	458	9497		-1,0		0,0		7,0	-0,7
ENERGIAREN AMAIERAKO KONTSUMOA	37	2323	1326	16	342	1240	5284	19,4	4,9	7,5	-11,1	16,7	1,6	5,5
INDUSTRIA	37	168	953	16	180	704	2058	19,4	3,1	4,3	-5,9	14,6	4,0	5,1
GARRAIOA	0	2019	0	1	96	15	2131		4,7			35,2	0,0	5,8
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	0	65	1	1	1	4	72		5,2	0,0	0,0	0,0	0,0	4,6
ZERBITZUA	0	18	110	0	20	293	441		22,7	7,8		5,3	-1,0	2,2
BIZITEGIAK	0	53	260	0	45	223	581		11,9	20,9		0,0	-1,8	8,7

Iturria: EEE

II.5.2. GRAFIKOA. OINARRIZKO ENERGIAREN EKOIZPENA (KTEP)



Iturria: EEE

Halaber, 2016 eta 2017 bitartean, oinarrizko energiaren ekoizpena %9 hazi zen, hain zuzen ere 443 Ktep-etik 483 Ktep-era; eta ekoizpen horren oinarria, nagusiki, energia berriztagarriak (iturri propio nagusia), hain zuzen ere %10,4 hazita (415 Ktep-etik 458 Ktep-era).

Oinarrizko energiaren ekoizpen propio horri esker (483 Ktep), EAEren energia-eskariaren (6.440 Ktep) % 7,5 baino ezin izan zen bete (barneko kontsumo gordina). Horren ondorioz, EAEren kanpoko energiarekiko mendekotasuna % 92,5ean kokatzen zen, Estatukoa (% 72,4) eta 28ko EBkoa (% 54) baino handiagoa (datu biak 2016koak dira); izan ere, EBko herrialde guztietakoa baino kopuru handiagoa da hori, Luxenburgokoa izan ezik. Mendekotasun mailarik txikiena

duten herrialdeak petrolioa eta gas naturala (Erresuma Batua eta Danimarka), energia berriztagarriak (Herrialde Eskandinaviarrak) eta energia nuklearra (Frantzia eta Suedia) ekoizten dituztenak dira.

Iturri berriztagarrietan oinarrituriko ekoizpenari esker (458 Ktep), barne-kontsumo gordinaren %7,1 (6.440 Ktep) baino ezin izan zen bete, hots, energia berriztagarriek barne-kontsumo gordinean duten parte-hartzea Estatukoa eta 28ko EBkoa baino askoz txikiagoa da (%14 eta %13 2016an) eta gure Erkidegoak Euskadi 2020 Energia Estrategian (3E020) ezarritako %14ko helburutik urrun[37].

II.5.13. TAULA. ENERGIA BERRIZTAGARRIEK ENERGIAREN AMAIERAKO KONTSUMOAN DUTEN PARTE-HARTZEAREN RATIOA

	2011	2013	2014	2015	2016
EAE	**7**	**7**	**7**	**7**	**7**
28KO EB	10	12	13	13	13
ESTATUA	11	15	15	14	14

Iturria: EEE

Izan ere, energia motaren arabera aztertzen badugu amaierako kontsumoa (oso interesgarria da ingurumenaren aldetik, zeren eta energia mota bakoitzak eragin desberdinak baitakartza), hauxe ikusiko dugu: petrolioaren eta horren deribatuen kontsumoa orain ere nagusia da kontsumo horretan, %44, eta gainera, igoera izan zen Ktep-etan aurreko urtearen aldean, %4,9koa hain zuzen. Ondoren, gas naturala (amaierako kontsumoaren %5,16) eta argindarra (% 23,5) dira. Horietako bakoitzean igoerak izan dira Ktep kopuruetan (lehenbizikoan % 7,5 eta argindarrean % 1,6. Oso urruti energia berriztagarriak, erregai solidoak (ikatza eta deribatuak) eta energia deribatuak daude (horien barruan, gehienbat, industria prozesuetatik edo energia eraldatzeko prozesuetatik (baterako sorkuntza, adibidez) berreskuraturiko beroa sartzen da.

Energiaren intentsitateari dagokionez (ekonomiaren energia-eraginkortasunaren adierazlea, honela neurtzen dena: amaierako kontsumoa –Ktep- zati BPGd-a) ikusten dugunez, 2017an 7 puntu txikiagoa izan zen 2009koa baino (Ikusi II.5.3, eta II.5.4. grafikoak). 2016aren aldean, %2ko beherakada izan zen, kontsumoak 6 puntutan egin baitu gora BPGd-aren %3ko hazkundean.

II.5.3. GRAFIKOA. ENERGIAREN INTENTSITATEAREN BILAKAERA



Iturria: EEE

[37] *Gogoratu Europako 2020 Estrategian EBrako helburua %20koa dela.*

II.5.4. GRAFIKOA. ENERGIAREN INTENTSITATEAREN BILAKAERA SEKTOREEN ARABERA



	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Energia intsentitea	100	102	98	99	99	96	94	91	93
Industriako energia-intentsitatea	100	108,2	102,9	102,1	102,2	99,8	93,6	88,1	90,3
Garraioko energia-intentsitatea	100	98,2	96,5	103,1	106,4	105,5	105,9	107,2	110,1
Zerbitzuetako energia-intentsitatea	100	102,8	99,8	101,5	98,3	94,4	95,5	90,2	89,6

Iturria: EEE

Sektoreka, EEEren datuen arabera, industriako energia-intentsitatea eta zerbitzuena hobetu egin dira (gutxituta) 2016 eta 2017 bitartean; garraioenak, aldiz, okerrera egin zuen (handitu egin zen).Energiaren fakturari dagokionez, kontsumoa % 9,8 handitu zen lau urtean murrizketak izan ondoren, orotara 5.468 milioi euro. Kostu horretatik, % 50 garraioaren sektoreari dagokio, % 21 industriari, % 16 bizitegien sektoreari, % 12 zerbitzuen sektoreari eta % 1 lehen sektoreari.

II.5.14. TAULA. ENERGIAREN FAKTURAREN BILAKAERA AMAIERAKO KONTSUMITZAILARENTZAT, SEKTOREEN ARABERA (M€)

	2016	2017	2016-17 ald.
INDUSTRIA	1.102	1.172	6,4
GARRAIOA	2.373	2.723	14,7
NEKAZARITZA ETA ARRANT.	62	70	12,9
ZERBITZUAK	637	644	1,1
BIZITEGIAK	803	858	6,8
GUZTIRA(BIRIBILDUA)	4.978	5.468	9,8

Iturria: EEE

2016 eta 2017 bitartean, % 14,7 egin zuen gora energiaren kostuak garraioan, % 12,9 lehen sektorean, % 6,8 etxebizitzaren sektorean, % 6,4 industrian eta % 1,1 zerbitzuetan.

Petrolioaren deribatuak garraioaren fakturaren %93,7 dira. Industrian, argindarra fakturaren %63 da eta gas naturala, berriz, %34.

II.5.4. GRAFIKOA.ENERGIAREN FAKTURAREN BILAKAERA AMAIERAKO KONTSUMITZAILEARENTZAT



Iturria: EEE

Arestian esan bezala, Bizitegien sektorearen faktura % 6,8 igo zen 2017an. Etxeko fakturaren igoera % 6,7 izan zen, eta biztanleko eta etxeko (kasu bakoitzean). Hala, guztira 967 euro da etxeko eta 395 euro biztanleko.

II.5.15. TAULA. ENERGIAREN FAKTURAREN ADIERAZLEAK BIZITEGIEN SEKTOREAN								
	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
KONTSUMOA BIZTANLEKO (€ BIZTANLEKO)	363	394	440	432	408	421	370	395
KONTSUMOA ETXEKO (€ ETXEKO)	932	1.008	1.127	1.081	1.011	1.037	906	967
Iturria: EEE								

ITURRIA:

1. **SUSTAPEN MINISTERIOA.** Datu-basea. 2018ko datuak. Urterokoa. Estrukturala.
2. **SUSTAPEN MINISTERIOA.** 2017ko estatistika urtekaria. 2018an argitaratua. Urterokoa. Estrukturala.
3. **EUSKO TRENBIDE SAREA.** Web orria.
4. **ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA (EEE).** *Euskadi Energia 2017 txostena. Energiari buruzko datuak*. 2019an argitaratua. Urterokoa. Estrukturala, 2018 urtea. Urterokoa. Abagunekoa.

6. ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA

Kapituluko atal hau bi bloke handitan dago banatuta; alde batetik, I+G+b jarduerak aztertzen dira eta bestetik Informazioaren eta Komunikazioen Teknologiak (IKT).

I+G+b jardueren blokearen barruan, Euskal Sistemako adierazle nagusiak aztertzen dira, enpresa-sareko I+G jarduerak, Universidad del País Vasco – Euskal Herriko Unibertsitatearenak eta berrikuntza jarduerak, baita Europako Berrikuntzako Adierazleen Paneleko zenbait adierazle ere, IUS. Eta azkenik, Eusko Jaurlaritzaren "Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2014-2020" (ZTBP) delakoaren jarraipena egiten da, EJk igorritako aginte-taula oinarri hartuta.

Izan ere, Gizarte berritzailea lagungarria izan daiteke enpresentzat balio erantsi handiagoko produktuak garatzeko, haien lehia-abantailari eusteko, jarduera ekonomikoa bultzatzeko eta, horren bidez, lanpostuak mantendu edota sortzeko. Aldi berean, ikerkuntza eta berrikuntza lagungarriak izan daitezke gizartearen erronka nagusietako zenbaiti irtenbidea aurkitzeko hala nola biztanleria zahartzeari, segurtasun energetikoari, klima-aldaketari, hondamendien arriskua kudeatzeari, edo gizarteratzeari.

Hainbat faktoreren araberakoa da ikerkuntza, ezagutza eta berrikuntzarako ahalmena (hala nola hezkuntza eta prestakuntzako erakundeak, enpresa-kultura, gaitasunak, trebetasunak eta sormena, berrikuntza bultzatzeko zerbitzuak, teknologiaren transferentziarako mekanismoak, azpiegiturak, ikerlarien mugikortasuna eta finantzabideak). Hezkuntza, prestakuntza eta etengabeko ikaskuntza funtsezkoak dira berrikuntzarako gaitasuna garatzeko, enpresa-sarean eta transferentzian eta ikerkuntzaren emaitzak merkaturatzeko prozesuan gero eta parte hartze handiagoa duten ikerkuntza eta garapen teknologikoko zentroekin eta unibertsitateekin.

Bestalde, Informazioaren eta Komunikazioen Teknologien blokearen barruan, EAEko IKT ekipamenduak eta erabilerak aztertzen dira, biztanleenak nahiz enpresenak, merkataritza elektronikoa (biztanleen eta enpresenak) eta administrazio elektronikoa.

Enpresek IKTen inguruan duten erabilerei buruzko epigrafean, teknologia digitalak sartzea aztertzen da. Ezin ahantzi dezakegu ekoizpen-prozesuen antolaketa eta zerbitzugintza iraultzen ari direla IKTen arloko aldaketa bizkorrak, lan prozesuen digitalizazioa, ekoizpenaren robotizazioa, etab. Hots, 4.0 testuingurua, 4.0 gizartea, 4.0 industria edo 4.0 ekonomia.

4.0 izendapena ezarri da munduko laugarren industria iraultza izango litzatekeelako, ekoizpenaren gehikuntza handiak eta gizarte aldaketak mundu osoan eragin zituzten aurreko hiru iraultzen ondoren.

II.6.1. TAULA. INDUSTRIA IRAULTZAK

IRAULTZAK	ALDIA	TEKNOLOGIAK
Lehena	1784-XIX. mendeko erdialdea	Fabrikazio mekanikoa (energia hidrauliko eta lurrun-motorra)
Bigarrena	XIX. mendearen amaiera-1970	Masako fabrikazioa, lanaren banaketan oinarrituta (muntaketa-katea), energia elektrikoa
Hirugarrena	1970-Gaur egun	Elektronikak eta informazioaren teknologiek ataza konplexuen automatizazio maila berriak bultzatu zituzten.
Laugarrena	Gaur egun	Sentsoreen teknologiari, konektibitateari eta datuen analisiari esker, "kustomizazio" masiboa, balio-kateen integrazioa eta eraginkortasun handiagoak lor daitezke

Iturria: European Parliamentary Research Service, Briefing September 2015, Industry 4.0 Digitalisation for productivity and growth

6.1. I+G+B JARDUERAK

6.1.1. I+G+b-ko Euskal Sistemaren adierazle nagusiak

I+G-ko gastua. "*EUSTATen ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko jarduerei buruzko estatistika*"ren arabera, 2017an 1.290,9 M€ euro inbertitu ziren EAEn, hots, azken urtean baino %5,6 gehiago, eta hiru urtez jarraian kopuru negatiboak izan ondoren bilakaera positiboa itzuli da. Gainera, 2010etik izandako gehikuntzarik handiena da.

II.6.2. TAULA. EAE-KO ZIENTZIARI ETA TEKNOLOGIARI BURUZKO ADIERAZLEAK

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
I+G-ko gastuak										
Orotara (mila euro)	1.263,9	1.280,9	1.360,3	1.366,2	1.372,9	1.316,8	1.289,8	1.273,2	1.290,9	1.363,2
Urteko hazk. (%)	15,9	1,3	6,2	0,4	0,5	-4,1	-2,1	-1,3	1,4	5,6
BPGd-arekiko (%)	1,84	1,97	2,04	2,04	2,09	2,03	1,94	1,86	1,81	1,85 (bb)
Langileak (AOB)										
Orotara	15.373,2	16.690,4	17.531,9	17.879,2	18.681,9	18.279,5	18.535,4	18.217,1	17.898,0	18.577,3
Urteko hazkundea	6,5	8,6	5,0	2,0	4,5	-2,2	1,4	-1,7	-1,8	3,8
Ikerlariak (AOB) **Guztira**	9.640,1	10.386,2	11.070,8	11.283,1	11.771,7	11.959,3	12.030,3	12.089,1	11.915,5	12.607,9
Urteko hazkundea	4,6	7,7	6,6	1,9	4,3	1,6	0,6	0,5	-1,4	5,8

(bb) behin-behinekoa. Iturria: EUSTAT. ***Ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko jarduerei buruzko estatistika***

I+G-ko gastua BPGd-arekiko (ahalegina). EUSTATen arabera, %1,85ean kokatu zen 2017an, hots, 4 ehunen gehiago 2016aren aldean. Portzentaje hori eurogunean ikusitakoa (% 2,17) eta arloko erreferentziako herrialdeetan bildutakoa baino txikiagoa da: Suedia (% 3,3), Austria (% 3,16), Danimarka (% 3,06), Finlandia (% 2,76), Alemania (% 3,02), Belgika (% 2,58), Frantzia (% 2,25, 2016ko datua), Islandia % 2,13) eta Norvegia (% 2,11), EUROSTATen arabera.

II.6.3 TAULA. I+G-AN EGINIKO AHALEGINAREN BILAKAERA ETA EUROPAKO HELBURUAK HERRIALDEKA. ERREFERENTZIAKO HERRIALDEAK

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2020KO HELBURUA
EAE	**2,04**	**2,09**	**2,03**	**1,94**	**1,86**	**1,81**	**1,85**	**:**
ESPAINIA	1,33	1,29	1,27	1,24	1,22	1,19	1,2	2
EUROGUNEA	2,04	2,1	2,1	2,12	2,13	2,13	2,17	EB = 3
SUEDIA	3,25	3,38	3,3	3,14	3,26	3,27	3,33	4
AUSTRIA	2,67	2,91	2,95	3,08	3,05	3,13	3,16	3,76
DANIMARKA	2,94	2,98	2,97	2,91	3,06	3,12	3,06	3
ALEMANIA	2,8	2,87	2,82	2,87	2,91	2,92	3,02	3
FINLANDIA	3,64	3,42	3,29	3,17	2,9	2,74	2,76	4
BELGIKA	2,16	2,27	2,33	2,39	2,46	2,55	2,58	3
FRANTZIA	2,19	2,23	2,24	2,23	2,27	2,25	-	3
ISLANDIA	2,41	-	1,7	1,95	2,12	2,03	2,13	3
NORVEGIA	1,63	1,62	1,65	1,71	1,93	2,03	2,11	3

Iturria: EUSTAT eta EUROSTAT

EINen "*I+G jarduerei buruzko estatistikak*" EAErako erregistraturiko ahalegina BPGd-aren %1,88 izan zen 2017an (% 1,89 2016an). Estatuko batez bestekoa % 1,2 zen (% 1,19 2017an), eta hona hemen ratiorik handienak dituzten autonomia erkidegoak, EAEz gain: NAFARROA (% 1,73) Madril (%1,68) eta Katalunia (%1,47).

Ikerketari eta berrikuntzari buruzko oinarrizko helburua EBn gastu publikoaren eta pribatuaren %3 lortzea da BPGd-aren portzentaje gisa, Europar Batasun osoari dagokiona. Hartara, helburu zehatzak finkatu dira herrialdeetarako, hots, BPGd-aren %0,5 eta %4 bitartean, kasuan kasuko estatu kidearen arabera. Espainiari dagokionez, 2020an %2ra iristea da helburua. Horren ondorioz, 2016ean I+G arloan eginiko ahaleginaren beherakadak berriz jartzen du gure erkidegoa Europako helburu lortzeko xedetik urrun, xede horretara gehien hurbiltzen den autonomia erkidegoa bada ere.

I+G langileria egikaritze-sektorearen arabera[38]. Gastu gehien enpresetan egin zuten, % 75,1 (91.023,2 milioi euro) hain zuzen ere; % 17,4 (237,1 milioi euro) goi-mailako hezkuntzan, eta gainerakoa, % 7,5 (102,9 milioi euro) administrazioaren mende dauden erakundeetan. Kopuru horiek ikusita esan daiteke behera egin zutela enpresen sektoreko gastuak, administrazio publikoaren gastuak eta goi-mailako irakaskuntzaren sektoreko gastuak gora egin zuten aurreko urtearen aldean, % 5,2, % 11,8 eta % 4,9 hurrenez hurren.

EAEko enpresa-sektorea da beste behin gastu gehien egin duena, baina jaitsiera txikia izan du partaidetza portzentajean (% 75,4tik % 75,1era).

Egitura hori ez dator bat estatuan dagoen batez bestekoarekin, non partaidetza txikiagoa baitute guztizkoarekiko eta handiagoa goi-mailako irakaskuntzaren sektorearekiko (% 54,9 eta % 27,1 hurrenez hurren). Administrazio publikoaren partaidetza-ratioa %17,8 da.

II.6.4. TAULA. I+G ARLOKO BARNE-GASTUAK, ARLO ZIENTIFIKOAREN, EGIKARITUTAKO SEKTOREAREN ETA FONDOEN JATORRIAREN ARABERA (MILAKA EURO)

	2017						Aldak. % 2016-17					
	Guzt.	Fondoen jatorria					Guzt.	Fondoen jatorria				
		Admin.	Goi-irakask.	Enpr	IAGEP	Atzer.		Admin.	Goi-irakask.	Enpr	IAGEP	Atzer.
Guztira	1.363.176	457.376	40.777	745.946	4.652	114.424	5,6	5,8	1,3	3,7	19,9	20,6
Enpresak eta IAGEP	1.023.215	198.107	398	729.182	1.358	94.170	5,2	5,9	135,5	3,3	-5,4	19,8
Herri admins.	102.903	92.990	126	4.464	1.452	3.870	11,8	11,6	-10,6	-2,7	8,6	45,4
Goi-mailako irakask.	237.058	166.279	40.253	12.300	1.842	16.384	4,9	2,7	0,7	30,4	66,4	20,2
Zientzia arloa												
Z. Zehatzak	122.830	87.898	5.975	16.506	580	11.872	10,9	12,1	-10,9	6,5	46,1	22,6
Ingeniaritza	965.529	205.774	20.767	656.852	931	81.205	6,5	13,5	13,6	2,7	-2,8	23,1
Medikuntza Z.	152.313	96.707	1.789	42.689	2.409	8.718	7,4	9,3	-7,8	0,6	64,3	17,1
Nekazaritza Z.	45.353	19.020	611	18.545	44	7.134	8,7	-18,5	1,3	52,9	22,2	26,6
Gizarte Z.	77.150	47.976	11.635	11.355	689	5.495	-14,7	-20,9	-8,6	15,0	-32,6	-10,8

Iturria: EUSTAT. Ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko jarduerei buruzko estatistika

I+G arloko gastuaren finantzazioa (funtsen jatorriaren araberako gastua). Sektore pribatuak gastuaren finantzazioan (746 milioi euro) duen partaidetza jaitsi egin da, %55,7tik % 54,7ra (11,3ra puntura Europako helburutik: I+G arloko gastu guztiaren %66 funts pribatuekin finantzatzea). Bestalde, administrazioak gastuaren %33,6 finantzatzen du (432,2 milioi), 2016an izandako ratioa baino handiagoa (%33,5).

II.6.5. TAULA. SEKTORE PRIBATUAK ETA SEKTORE PUBLIKOAK FINANTZATURIKO I+G ARLOKO GASTUA (guztizko gastuarekiko portzentajea)*

	Sektore pribatuak finantzatutakoa					Herri administrazioak finantzatutakoa				
	2013	2014	2015	2016	2017	2013	2014	2015	2016	2017
EAE (EUSTAT)	57,1	56,7	55,7	55,7	54,7	34,9	32,6	33,4	33,5	33,6
ESTATUA (EIN)	46,3	46,4	45,8	46,7	47,7	41,6	41,4	40,9	40,0	38,9
EUROG. (EUROSTAT)	56,8	57,3	57,3	57,6	nd	33,1	32,5	31,8	31,9	nd

**Guztira ez dira 100, beste finantzabide batzuk daudelako*
Iturria: EUSTAT, EIN, EUROSTAT

Estatuan, EINen arabera, sektore pribatuak gastuaren % 47,7 finantzatzen du (Europako helburuaren 18,3 puntu azpitik dago) eta herri-administrazioak % 38,9. Eurogunean, EUROSTATen datuei jarraiki, 2016an kopuruak % 57,6 eta % 31,9koak izan ziren, hurrenez hurren. Herrialde hauetan I+G arloko gastuaren finantzaketa pribatuaren ratioa oso handia da: Japonia (%78), Txina, Hong Kong izan ezik (% 74,7), Hego Korea (% 74,5), Eslovenia (% 69,2), Alemania (% 65,6), AEB (% 64,2), Danimarka (% 59,1 2015ean), Suedia (% 57,3 2015ean), eta Finlandia (% 57).

[38] *Komeni da kontuan hartzea administrazioaren I+G arloko gastuaren zati handi bat Zentro Teknologikoen Sarearen bitartez bideratzen dela; izan ere, zentro horiek, euren izaera juridikoa dela eta, enpresa-sektorearen parte dira estatistikako eragiketa horretan.*

Kontuan hartzen badugu EAEko BPG 2015an 73.821,5 [39] milioi eurokoa izan zela (EUSTAT, sektore pribatuak finantzatutako I+G arloko gastua (746 milioi euro) BPGd-aren % 1,01 da. Europako 2020. urterako helburua % 2 da. Aldiz, herri-administrazioak finantzatzen duen I+G gastua (457,4 milioi euro) EAEko BPGd-aren % 0,62 da (2016ko antzeko ratioa). Europako helburua % 1 da.

I+G arloko gastua arlo zientifikoaren arabera. Ingeniaritza eta teknologia nagusitu dira berriz (gastu osoaren % 70,8); horien atzetik datoz, alde handiarekin, medikuntza-zientziak (% 11,2), zientzia zehatzak (% 9) eta gizarte-zientziak (% 5,7). Eta, azkenik, nekazaritza-zientziak (% 3,3).

Funtsen jatorriari dagokionez, ingeniaritza eta teknologia batik bat sektore pribatuak finantzatzen ditu. Zehazki, % 68 sektore pribatuak finantzatzen du eta % 21,3 sektore publikoak. Medikuntza-zientzietan, zientzia zehatz eta natura-zientzietan, gizarte-zientzietan eta nekazaritza-zientzietan kontrakoa gertatzen da, herri-administrazioak gastuaren %71,6, %63,5 eta % 66,2 finantzatzen baitu. Nekazaritza zientzien finantzaketak banaketa orekatuagoa du enpresen eta administrazioaren artean (% 40,9 eta % 41,9).

I+G-ko langileak (aritze osoko baliokidetzan neurtua, (AOB). EUSTATen arabera, 18.577,2 lagun, hots, % 3,8ko jaitsiera 2016koaren aldean.

Egikaritze-sektoreen arabera, 13.154,3 langile enpresetan daude (langile guztien %70,8, 4.139,9 goi-mailako irakaskuntzan (%22,3) eta 1.283,1 herri administrazioan (%6,9).

Lanbideari dagokionez (ikertzaileak, teknikariak eta laguntzaileak), % 67,9 ikertzaileak dira (hazi egin da berriz talde hori aurreko urtearen aldean: % 66,6), % 24,9 teknikariak eta % 7,3 laguntzaileak. Dena den, sektore guztietan ez da berdin gertatzen: goi-mailako irakaskuntzan, esate baterako, ikertzaileen ratioa % 87 da.

Gora egin du ikerlarien proportzioak kopuru absolutuetan eta erlatiboetan. Kopuru absolutuetan, % 5,8 egin zuen gora 2016 eta 2017 bitartean, eta % 30,8 nabarmena 2008tik hona. Bestalde, ikerlariek I+G-ko langile guztiekiko duen portzentajeak gora egin zuen 2016 eta 2017 bitartean, % 66,6tik % 67,9ra.

Langileak sexuaren arabera sailkatuz gero, ikusten da langile guztien %35,8 baino ez dela emakumezkoa (2016an baino 2 hamarren gehiago). Alde horretatik, herri administrazioan eta goi-mailako irakaskuntzan langile gehienak emakumeak dira (%54,6 eta %50,4, hurrenez hurren), eta enpresetan, berriz, emakumeen ratioa oso txikia da, %29,4 (%29,1 2016an eta % 28,9 2015ean).

II.6.6. TAULA. I+G-ko LANGILEAK (AOB), EGIKARITZE-SEKTOREAREN ETA OKUPAZIOAREN ARABERA

	GUZTIRA		EMAKUMEAK		Ikertzaileak		Teknikariak		Laguntzaileak	
	2016	2017	2016	2017	2017					
					Kop.	% (horizont. guzt.)	Kop.	% (horizont. guzt.).	Kop.	% (horizont. guzt.)
GUZT.	**17.898,0**	**18.577,3**	**6.374,6**	**6.657,4**	**12.607,9**	**67,9**	**4.622,5**	**24,9**	**1.347,6**	**7,3**
ENPRESAK IAgEP	12.637,3	13.154,3	3.678,3	3.869,4	8.336,3	63,4	3.833,8	29,1	984,9	7,5
HERRI ADMINISTRAZIOA	1.255,7	1.283,1	691,2	700,7	669,1	52,1	502,6	39,2	111,4	8,7
GOI-MAILAKO IRAKASK.	4.005,0	4.139,9	2.005,1	2.087,3	3.602,5	87,0	286,1	6,9	251,3	6,1

Iturria: EUSTAT, I+G jarduerei buruzko estatistika

[39] *2019ko otsailaren 19an ateratako datua.*

Aktibo intelektualak.

Geroago sakonago aztertuko den "*Berrikuntzako adierazleen panela, IUS*" deritzonak dakarren informazioan oinarrituta aurkeztuko dugu adierazle honen azterketa.

Datuek erakusten dutenez, gure Erkidegoak 0,48ko balioa du *Berrikuntzako adierazle sintetikoa, 2018* delakoan, Estatukoaren gainetik (0,40) eta 28-EBtik (0,50) eta "berrikuntza maila handiko herrialdeak" deritzon taldetik gertu. Izan ere, 28ko EBko batez bestekoa % 90etik gorakoa da, % 94,7 hain zuzen ere.

Hala ere, berrikuntza-prozesuetako errendimendu gisa sortutako jabetza intelektualeko eskubide modu ezberdinak atzematen dituen IUSen "Aktibo intelektual" dimentsioa 0,25 da, 28ko EBko batez bestekoa (0,43), edo Estatukoa (0,31) baino txikiagoa.

II.6.7 TAULA. AKTIBO INTELEKTUALEN ADIERAZLEAK, IUS 2018.

	IUS 2018 Rankinga	AKTIBO INTELEKTUALAK			
		Indize konposatua	Patente eskaria BPGko bilioi bakoitzeko (EAP)	EBko marka komertzialak, BPGko bilioi bakoitzeko	EBko diseinuak BPGko bilioi bakoitzeko (EAP)
SUEDIA	0,71	0,68	9,08	11,44	4,67
DANIMARKA	0,67	0,71	6,05	12,79	7,94
FINLANDIA	0,65	0,63	7,43	12,30	4,11
HERBEHEREAK	0,65	0,55	5,82	9,78	4,34
ERRESUMA B.	0,61	0,35	3,06	6,95	3,07
LUXENBURGO	0,61	0,66	1,75	37,70	7,40
ALEMANIA	0,60	0,64	6,11	9,51	6,72
BELGIKA	0,59	0,36	3,16	8,11	2,72
IRLANDA	0,58	0,20	1,80	5,08	1,09
AUSTRIA	0,58	0,63	4,70	13,09	6,98
FRANTZIA	0,55	0,37	3,98	6,04	2,96
28-EB	0,50	0,43	3,53	7,86	4,44
EAE	**0,48**	**0,25**	**1,59**	**5,94**	**2,24**
ESLOVENIA	0,47	0,35	1,65	11,09	2,97
TXEKIAR E.	0,42	0,27	0,93	5,09	4,07
PORTUGAL	0,41	0,32	0,95	8,10	4,04
MALTA	0,40	0,72	1,31	40,88	13,05
ESPAINIA	**0,40**	**0,31**	**1,45**	**8,99**	**2,97**

Iturria: EUSTAT Berrikuntza-adierazleen panela

Izan ere, Beste lurralde eremuekin erkatuta, hauxe ondoriozta daiteke: 1,59 adierazlea duela EAEk BPGko bilioi bakoitzeko EEP[40] patenteen eskarietan (EAP eurotan), 5,94 adierazlea BPGko bilioi bakoitzeko EBko merkataritza-marketan (EAP eurotan) eta 2,24koa PGBko bilioi bakoitzeko (EAP eurotan) EBko diseinuetan. Beraz, estatuko batez bestekoen eta 28ko EBkoen (3,53/7,86 / 4,44) azpitik dago eta urruti erreferentziako herrialdeetatik EBko merkataritza marketan eta diseinuetan.

Ikuspegi historikoari buruzko azterketak erakusten duenez, EAEk inbertsio handia egin izan du I+G jardueretan, baina bazirudien zailtasunak zituela inbertsioa emaitzetara ekartzean, zeren eta, aktibo intelektualek txikiak izaten jarraitu izan baitute (alabaina, egia da beherazko joera dela). Horrek eraginkortasun edo produktibitate txikiagoa uzten du agerian.

II.6.8. TAULA. I+G-KO AHALEGINAK ETA AKTIBO INTELEKTUALEN ADIERAZLEAK. EAE. 2010-2017

	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
I+G-KO GASTUA (GASTUA BPGD-AREKIKO)	2,04	2,04	2,09	2,03	1,94	1,86	1,81	1,85 (p)
PCT PATENTEEN ESKAERAK BPGD-AREN BILIOIKO (PPC EUROTAN)	2,04	1,48	1,53	1,59	1,59	**1,59**		
EBKO MARKA KOMERTZIALAK BPGD-AREN BILIOIKO (PPC EUROTAN)	6,07	6,78	6,94	6,19	5,66	5,86	5,94	**5,94**
EBKO DISEINUAK BPGD-AREN BILIOIKO (PPC EUROTAN)	2,08	2,03	2,21	2,28	1,58	1,25	1,74	**2,24**

Oharra: IUS 2018 egitean, letra lodiko datuak erabili dira
Iturria: EUSTAT. Berrikuntzako adierazleen panela.

[40] *Patenteen gaineko Lankidetza Ituna.*

6.1.2. I+D jarduerak

EAEko enpresen sektoreko I+G jarduerak, ZTESeko zentro teknologikoak alde batera utzita

Eustaten datuen arabera, 2017. urtean[41] (1.312 enpresak (hots, berriz ere gora aurten, % 4,6 hain zuzen ere) egin zituzten I+G jarduerak (Zientzia eta Teknologiako Euskal Sareko zentro teknologikoak alde batera utzita); horietatik 600 industria-sektorekoak dira (2016an baino 23 gehiago, +% 4), 663 zerbitzuen sektorekoak (25 gehiago, +% 3,9), 36 eraikuntzakoak (10 gehiago, + % 38,5) eta 13 lehen sektorekoak (aldaketarik ez aurrekoaren aldean). Jarduera horietako enpresen guztizko gastuak ere % 5 egin du gora 2016 eta 2017 bitartean, eta aldeak daude sektoreen artean. Orotara, 799.792 mila euro.

II.6.9. TAULA. ENPRESEN KOPURUAREN ETA I+G-KO BARNE-GASTUAREN BILAKAERA (ZTESeko ZTak gabe)

	GUZT.		Nek.- abeltz., arrantza, erauzketa eta energia		Industria		Eraikuntza		Zerbitzuak	
	Enpresa kop. guztira	Gastua (mila eurotan)	Enpresa kop. guztira	Gastua (mila eurotan)	Enpresa kop. guztira	Gastua (mila eurotan)	Enpresa kop. guztira	Gastua (mila eurotan)	Enpresa kop. guztira	Gastua (mila eurotan)
2011	1.488	808.245	14	20.463	691	417.078	46	10.184	737	360.520
2012	1.565	822.805	17	19.629	716	449.135	50	9.816	782	344.225
2013	1.537	793.295	15	16.702	712	421.639	48	9.831	762	345.122
2014	1.612	780.219	18	20.060	763	406.190	48	8.674	783	345.295
2015	1.502	759.655	18	19.533	718	380.397	48	14.045	718	345.680
2016	1.254	761.561	13	21.785	577	376.978	26	7.154	638	355.644
2017	1.312	799.792	13	22.825	600	411.694	36	8.932	663	356.341
16-17 dif.	58	38.231	0	1.040	23	34.716	10	1.778	25	697
16-17 ald. %	4,6	5,0	0,0	4,8	4,0	9,2	38,5	24,9	3,9	0,2

Jarduera horietako lanaldi osoko langileei dagokienez, hor ere behera egin du berriz ere: lanaldi osoko 9.857,3 lagunetik 10.265,6 lagunera. Langile horiek gehienak industrian eta zerbitzuetan daude bilduta: %45,5 industrian (4.565 AOB) eta %50,9 (5.228,3 AOB) zerbitzuetan.

10.265,3 lagun horiek enpresaren sektoreko (ZTESeko zentro teknologikorik gabe) lanpostu guztien %1,1 dira (AOB); ratioak behera egin du azken urteetan. Adar handietan banakatuta, industriako lanpostu guztitik %2,6 I+G jardueretarako erabiltzen da (2016ko ratio bera). Eraikuntzaren sektorean, gora egiten du ehunekoak, %0,2tik %0,3ra, eta zerbitzuen sektoreko ratioak egonkor eusten dio %0,8an.

II.6.10. TAULA. I+G ARLOKO LANGILEEN BILAKAERA (ZTESeko ZTak gabe)

	2014		2015		2016		2017	
	Guzt.	**Sektoreko lanpostu guztien %-a**	**Guzt.**	**Sektoreko lanpostu guztien %-a**	**Guzt.**	**Sektoreko lanpostu guztien %-a**	**Guzt.**	**Sektoreko lanpostu guztien %-a**
GUZT.	**10.815,5**	**1,3**	**10.573,8**	**1,2**	**9.857,3**	**1,1**	**10.265,6**	**1,1**
NEK.- ABELTZ, ARRANTZA, ERAUZK. ETA ENERGIA	420,7	2,5	289,9	1,8	269,0	1,7	333,6	2,1
INDUSTRIA	5.097,8	3,0	4.843,8	2,9	4.482,4	2,6	4.565,0	2,6
ERAIKUNTZA	133,1	0,3	233,5	0,5	110,1	0,2	138,7	0,3
ZERBITZUAK	5.163,9	0,8	5.206,6	0,8	4.995,8	0,8	5.228,3	0,8

Iturria.- EUSTAT, I+G jarduerei buruzko Estatistika

[41] *Nahiz eta 2016an metodologia estatistikoa aldatu CNAEren eta hainbat iturriren aldaketaren ondorioz, I+G egiten duten establezimenduen kopurua aztertu da, eta epigrafe honetan agertzen den informazioa orain ere enpresen kopuruari buruzkoa da.*

I+G [42] arloko jarduera-adarra eta bestelako enpresa jarduerak alde batera utzita. Honako hemen I+G-ko jardueretarako langile gehien dituzten sektoreak: makineria, % 7,9; jarduera informatikoak, % 7,6; garraio materiala, % 7,2; metalezko artikuluak, % 6,1 eta makineria-erraminta eta zehaztapen materiala (bietan % 3,7). Aldi berean, euskal enpresek gastu horiek finantzatzen jarraitzen dutela ikusten da, ehuneko handi batean enpresaren beraren funtsekin.

Azkenik, nabarmentzekoa da I+G egiten duten euskal enpresen batez besteko tamaina handia; izan ere, 77 lanpostu ditu, euskal enpresen batez besteko tamaina baino askoz gehiago (5,7 lanpostuko batez bestekoa da), eta egoera hori gertatzen da ia jarduera-sektore guztietan, Memoria honetako *II. EAE-ko Ekonomia* kapitulu honetako *"Ekoizpen sektoreak"* deritzon atalak dakarrenez.

II.6.11. TAULA. ENPRESA-SEKTOREKO ADIERAZLEAK (ZTESeko ZTak gabe) I+G JARDUERA-ADARREN ARABERA. 2017

		Enpresa kop.	Lanpostuak, b.b.	Langileak, AOB	Barne gastua	Beren funtsen %-a	Inoren funtsen %-a	EAEko I+Gko langil. %-a
GUZTIRA			**77**	**10.265,6**	**799.792**	**73,6**	**26,4**	**895.704**
NEKAZARITZA-ABELTZ. ETA ARRANTZA, ERAUZKETA ETA ENERGIA		**13**	**97**	**333,6**	**22.825**	**97,8**	**2,2**	**16.102**
INDUSTRIA			**109**	**4.565,0**	**411.694**	**79,1**	**20,9**	**176.413**
M-A		Kimika eta petrolio-finketa	73	254,7	25.786	94,3	5,7	5.379
M-B	KAUTXUA ETA PLASTIKOA	35	236	194,3	15.876	73,1	26,9	13.519
M-B	METALARENAZ APARTEKO INDUSTRIA	13	69	57,8	3.637	78,5	21,5	4.094
M-B	METALURGIA	35	244	237,9	21.708	68,5	31,5	16.505
M-B	METALEZKO GAIAK	135	77	624,4	41.662	85,1	14,9	42.733
M-A	MAKINA-ERREMINTA	35	84	384,0	26.784	75,0	25,0	3.554
M-A	ETXETRESNAK	2	354	47,3	4.340	95,2	4,8	1.156
M-A	BESTE MAKINA BATZUK	106	97	814,5	85.804	56,7	43,3	23.818
M-A	MATERIAL ELEKTRIKOA	37	98	319,8	25.919	84,0	16,0	7.139
A	MATERIAL ELEKTRONIKOA	21	90	328,2	22.025	83,2	16,8	4.263
A	DOITASUN-MATERIALA	37	47	374,9	26.613	72,0	28,0	3.322
M-A	GARRAIO-MATERIALA	26	328	735,1	96.218	95,3	4,7	18.680
	BESTE MANUFAKTURA BATZUK	76	57	192,1	15.322	83,0	17,0	32.251
ERAIKUNTZA			**42**	**138,7**	**8.932**	**65,9**	**34,1**	**50.505**
ZERBITZUAK			**51**	**5.228,3**	**356.341**	**79,1**	**20,9**	**652.684**
A	INFORMATIKA JARDUERAK	107	45	779,5	42.435	77,6	22,4	14.454
A	I+G JARDUERAK	134	18	1.931,0	143.880	49,6	50,4	7.344
	BESTE ENPRESA JARDUERA B.	199	32	1.407,1	94.169	74,3	25,7	63.938
	BESTE ZERBITZU BATZUK	223	85	1.110,7	75.857	79,5	20,5	566.948

Iturria.- EUSTAT, Ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko jarduerei buruzko estatistika

Ikerketa unibertsitateetan. Euskal Herriko Unibertsitatea[43]

Analisia egiten hasi aurretik, komeni da kontuan hartzea ikerketa-taldeen deialdia hiru urtean behin egiten duela Eusko Jaurlaritzak eta, beraz, jarduera horien zenbatekoak zenbait urtetik zenbait urtetara nabarmen aldatzen delako asko. Ondorioz, urtetik urterako analisia egiteko ikerketa-taldeei dagokien zenbatekoa kentzea komeni da.

UPV/EHUk Ikerkuntza Erretoreordearen arabera, arestian aipaturiko partidatik kenduta, UPV/EHUk 2017an eginiko jarduera 56,4 milioi eurokoa izan zen, hots, %6,2ko igoera aurreko aldiarekin erkatuta. Gehienak (% 46,2, 26,1 milioi euro)

[42] *Jarduera nagusitzat I+G jarduerak dituzten enpresak biltzen ditu (hots, ingeniaritza eta aholkularitza enpresak) eta, beraz, haien profila, helburuak eta finantzazioa ez da gainerakoena bezalakoa.*

[43] *Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) egiten dituzten I+G+B jarduerei eta jarduera horien neurriari dagokienez, bereizi behar dira, batetik, funts espezifikoak (kanpo-finantziaziodun proiektuak, kontratuak eta hitzarmenak, ikerketa-bekak eta ikerketa-azpiegiturako inbertsioak); eta bestetik, funts orokorrak, zeinak irakasleek ikerketa-jardueretan ematen duten denboraren eta horrek eragiten duen kostu orokorraren zenbatespenean oinarrituta dauden. Gastu horiek dira, zehazki, irakasleen gastuak, ondasun eta zerbitzuen gastuak, inbertsioak eta beste gastu batzuk. Epigrafe honetan aztertzen diren datuak lehenbiziko multzoko funtsei dagozkie, hau da, funts espezifikoei.*

ikerkuntza proiektuei dagozkie, eta ondoren, prestakuntzarako pertsonalaren funtsak datoz (% 27,4, 15,5 M€) eta Unibertsitatea Antolatzeko Legearen (LOU) 83. artikuluaren itzalpean sinaturiko kontratuak, hots, funts guztien % 16,6 (9,3 M).

II.6.12. TAULA. I+G+B JARDUERA ONARTU / KONTRATATU MOTEN BILAKAERA (eurotan)

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2015-16 aldak.	2016-17 aldak.
IKERKETA PROIEKTUAK	29.380.420	22.128.122	19.890.219	26.987.400	24.185.858	26.075.288	-10,4	7,8
I+G KONTRATUAK, UALEKO 83. ARTIKULUAREN ARABERA	9.417.928	6.873.277	8.540.024	7.411.502	9.338.563	9.349.396	26,0	0,1
IKERKETA TALDEAK*	391.414	24.921.615	428.702	24.011.497	650.315	1.978.107	-97,3	204,2
IKERTZAILEEN ETA TEKNIKARIEN KONTRATAZIOA	3.851.768	3.810.399	3.763.459	4.872.250	5.059.221	3.246.600	3,8	-35,8
PRESTATZEN ARI DIREN LANGILEAK	11.781.818	12.104.551	12.914.319	11.377.329	12.030.101	15.458.582	5,7	28,5
AZPIEGITURA ZIENTIFIKOA	599.585	468.581	568.010	1.688.461	604.340	452.929	-64,2	-25,1
IKERTZAILEEN MUGIKORTASUNA	527.045	319.380	547.847	488.388	634.903	583.895	30,0	-8,0
EKINTZA BEREZIAK	194.608	32.490	43.228	13.800	6.700	3.000	-51,4	-55,2
IKERKETA ZERBITZU OROKORREK (SGIKER) EMANDAKO ZERBITZUAK	1.269.502	1.183.832	1.177.644	1.283.998	1.248.281	1.230.148	-2,8	-1,5
GUZT., IKERKETA TALDE GABE	**57.022.674**	**46.920.632**	**47.444.750**	**54.123.128**	**53.107.967**	**56.399.838**	**-1,9**	**6,2**
GUZT., IKERKETA TALDEEKIN	**57.414.088**	**71.842.247**	**47.873.452**	**78.134.625**	**53.758.282**	**58.377.945**	**-31,2**	**8,6**

***Ikerketa-taldeentzat Eusko Jaurlaritzak ematen dituen diru-laguntza osoei buruzkoak dira 2013ko eta 2015eko datuak, zenbatekook hainbat urtetan erabiltzen badira ere, gainerako jardueren finantzazioa adierazteko erabilitako irizpideekin bat eginez. 2012an Eusko Jaurlaritzak ikerketa-taldeen beste deialdi bat finantzatu zuen, baina 2013ra arte ez zen UPV/EHUko aurrekontuan sartu; beraz, deialdiak 2013ko estatistika datuetan du eragina.*
Iturria: UPV/EHU zenbakitan. Ikerketa

Funtsen jatorriari dagokionez, 2013-14 aldian funts autonomikoak izan ziren finantzabide nagusia (guztizkoaren % 39,7), eta gauza bera gertatu zen 2015ean. 2016an eta 2017an, estatuaren eta autonomiaren finantzaketa eta finantzaketa propioa dira finantzabide nagusia, hots, guztizkoaren % 24, % 22,9 eta % 20,4 hurrenez hurren. Zehazki, 14,2, 13,4 eta 11,9 M€.

Arlo zientifikoen arabera, I+G+b jardueretako gastua batez ere zientziei eta ingeniaritzari eta arkitekturari dagokie. Zehazki, 2017an gastuen % 38,9 (22,7 milioi euro) zientziei zegokien, %26,7 (15,6 milioi euro) jarduera teknikoei (ingeniaritzari eta arkitekturari). Ondoren, osasun zientziei % 13,5 (7,9 milioi euro) eta % 13,3 (7,8 milioi euro) gizarte- eta zuzenbide-zientziei eta arte eta % 7,6 arte eta giza zientziei (7,6 milioi euro).

II.6.13. TAULA. I+G+B JARDUERETARAKO FUNTSEN JATORRIA, EUSKO JAURLARITZAREN IKERKETA-TALDEEN DEIALDIEN ARABERA

	2013-14 aldia		2015		2016		2017	
	Guzt. (euroak)	% bertikala	Guzt. (euroak)	% bertikala	Guzt. (euroak)	% bertikala	Guzt. (euroak)	% bertikala
AUTONOMIAKOA	47.550.641	39,7	34.730.791	44,4	12.012.645	22,3	13.360.360	22,9
ESTATUKOA	19.434.467	16,2	7.998.193	10,2	12.928.275	24	11.891.657	20,4
ZUZENEKO KONTRATAZIOA	16.796.216	14	15.396.801	19,7	9.936.019	18,5	9.804.457	16,8
BEREZKO FINANTZ. (PROGRAMA-KONTRATUA)	23.299.423	19,5	11.210.211	14,3	11.667.553	27,1	14.213.131	24,4
NAZIOARTEKOA	12.634.950	10,6	8.798.627	11,3	7.213.789	13,4	9.108.340	15,6
GUZT.	119.715.698	100	78.134.624	100	53.758.282	100	58.377.945	100

Iturria: UPV/EHU. Ikerketa

II.6.14. TAULA. I+G+B JARDUEREN BILAKAERA ZIENTZIA-EREMUEN ARABERA

	2012	2013	2014	2015	2016	2017
ZIENTZIAK	27.318.492	30.838.204	19.219.258	33.857.063	19.362.184	22.702.052
INGENIARITZA ETA ARKITEKTURA	9.356.914	16.258.017	11.645.721	21.864.854	16.028.669	15.611.155
OSASUN ZIENTZIAK	7.147.028	8.612.482	4.171.620	9.014.132	8.688.911	7.903.601
GIZARTE ETA LEGE ZIENTZIAK	8.688.210	10.691.236	6.959.962	7.872.085	4.926.394	7.751.967
ARTEAK ETA HUMANITATEAK	4.903.444	5.442.307	5.876.891	5.526.489	4.752.124	4.409.170
GUZT.	**57.414.088**	**71.842.247**	**47.873.451**	**78.134.624**	**53.758.282**	**58.377.945**

Iturria: UPV/EHU. Ikerketa

Patenteen arloan, emaitza urriak dira orain ere. Gainera, 2016 eta 2017 urte bitartean, jaitsiera izan zen. Hala, 2017an 43 patente erregistratu ziren. Aurreko urtean, berriz, 35. Patenteak ezin bereiz daitezke zientziaren arloen arabera, zeren eta ez baitira zientziaren arloaren arabera sailkatzen, PNSren arabera baizik (Patenteen Nazioarteko Sailkapena). Hori dela-eta, patente bat jakintzaren hainbat arlotan aplika daiteke (9 mota), eta horiek ere ez datoz bat oinarrizko 5 jakintza-arlorekin.

Bestalde, zientzia argitalpenetan goranzko joerari eusten zaio, eta berriz hazi da 2017an, 3.108 izateraino. Gehienak Zientzien, Osasun Zientzien, Ingeniaritzaren eta Arkitekturaren arloan erregistraturiko argitalpenak izan ziren (2.708).

Azkenik, irakurritako doktorego tesien kopuruak gora egin zuen 2016koaren aldean; 2017an 624 izan ziren.

II.6.15. TAULA. BESTE EMAITZA BATZUK. ARGITALPENAK ETA ERREGISTRATURIKO PATENTEAK

	ZIENTZIA ARGITALPENAK			PATENTEAK							IRAK. DOKTORE GO TESIAK
	ZIENTZIAK, OSASUN ZIENTZIAK , INGEN. ETA ARKITEKTURA	GIZARTE ETA LEGE ZIENTZIAK, ARTEAK ETA HUMANITATEAK	GUZT.	ESPAINIAR.	EUROPAR.	PCT** (BERRIAK ETA LUZAPENAK)	AMERIKAR.	JAPONIAR .	B.B.	GUZT.	
2012	1.993	298	2.253	22	11	11	13	2	30	89	327
2013	2.204	325	2.294	8	6	16	4	0	29	63	383
2014	2.518	376	2.854	7	9	9	5	0	2	32	479
2015	2.697	418	3.051	8	4	5	8	3	14	42	410
2016 p	2.757	443	3.123	10	9	5	3	1	7	35	522
2017 p	2.708	482	3.108	8	7	8	2	0	18	43	624

Bb: behin-behinekoak
Iturria: UPV/EHU zenbakitan. Ikerketa eta Ikerketaren emaitzak

6.1.3. Berrikuntza jarduerak

a) Enpresa berritzaileak

Euskal Autonomia Erkidegoko "Berrikuntzari buruzko galdeketa"ko datuen arabera (EUSTAT)[44], 2014-2016 eta 2015-2017 aldien artean enpresa berritzaileen ehunekoak behera egin zuen. Hala, 2015-2017 aldian enpresen % 16 izan ziren berritzaileak (aurreko aldian baino 4 hamarren gehiago). Portzentaje hori ateratzen da kontuan hartuta hala berrikuntza teknologikoko enpresak (produktuak eta/edo prozesuak berritzen dituzte eta enpresen % 10,9 dira; aurreko aldian % 11,4) nola teknologiaz aparte berrikuntza-jardueretan aritzen diren enpresak (antolamendua eta/edo merkaturatzea berritzen dituzte eta enpresen % 9,5 dira, %9,4 aurreko aldian).

Soilik hamar lanpostu eta gehiago enpresak bakarrik aintzat hartuz gero (EINekoekin alderatu ditzakegu, horiek ez baitute hamar lanpostu baino gutxiagoko enpresei buruzko informaziorik), enpresa berritzaileen (teknologikoen eta teknologikoak ez direnen) portzentajea handiagoa da, % 32,6 hain zuzen ere (aurreko aldian % 1,4 gutxiago). %32,6 horretatik, % 27,3 berrikuntza teknologikoari dagokio eta % 19 berrikuntza EZ teknologikoa).

[44] *Inkesta hori edozein neurri eta edozein jarduera-sektoretako establezimenduei egiten zaie, salbu honako hauei: lehen sektorea, herri-administrazioa, elkarteen jarduerak, etxeko jarduerak eta lurraldez kanpoko antolaketa-jarduera eta erakundeak. Hau da, Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalekoei (JESN-2009 2. Berrikuspena), salbu jarduera nagusitzat 01-03, 84, 94, 97, 98 eta 99 ataletako jardueraren bat duten establezimenduei.*

II.6.16. TAULA. JARDUERA BERRITZAILEAK GAUZATZEN DITUZTEN ENPRESEN PORTZENTAJEAREN BILAKAERA (EAEko ENPRESA GUZTIEN ALDEAN)								
		2009-11	2010-12	2011-13	2012-14	2013-15	2014-16	2015-17
ENPRESAK, GUZT.	**ENPRESA BERRITZAILEAK (BERRIKUNTZA TEKNOL. ETA TEKNOLOGIAZ APARTEKOA) (1)**	**17,3**	**16,7**	**16,5**	**16,9**	**16,4**	**16,4**	**16,0**
	BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOKO ENPRESAK (1)	12,3	11,6	12,7	12,2	11,9	11,4	10,9
	TEKNOLOGIAZ APARTEKO BERRIKUNTZA JARDUERAK DITUZTEN ENPRESAK	10,7	10,0	9,1	9,5	9,5	9,4	9,5
	EBE, BERRIKUNTZA TEKNOL. EDO TEKNOLOGIAZ APARTEKO JARDUERAK DITUZTENAK	18,3	17,7	17,1	17,0	17,3	17,0	16,6
9 LANPOSTU BAINO GEHIAGOKO ENPRESAK (EINEKO ETA EUROSTATEKO DATUEKIN ALDERATZEKO)	**ENPRESA BERRITZAILEAK (BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOA ETA EZ TEKNOLOGIKOA) (1)**	**37,8**	**36,2**	**34,7**	**34,5**	**34,6**	**34,0**	**32,6**
	BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOKO ENPRESAK (1)	30,7	28,6	28,4	27,5	28,2	27,9	27,3
	TEKNOLOGIAZ APARTEKO BERRIKUNTZA JARDUERAK DITUZTEN ENPRESAK	23,7	23,1	20,0	20,5	19,9	19,4	19,0
	EBE, BERRIKUNTZA TEKNOL. EDO TEKNOLOGIAZ APARTEKO JARDUERAK DITUZTENAK	39,8	38,3	37,6	37,1	37,2	35,6	35,2

1) Ez dira sartzen berrikuntza jarduerak erabat gauzatu gabe dituzten eta arrakastarik gabeko berrikuntzak egin dituzten establezimenduak, zeren eta produktua (ondasuna edo zerbitzua) enpresaren, lantokiko enpresaren edo barne-harremanetako barne-jardunaren barruan sartu behar izan baita.
EIN: enpresa berritzaileak edo aribideko edo arrakastarik gabeko berrikuntzak dituztenak
Iturria: EUSTAT. Berrikuntzari buruzko inkesta

Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoan 10 lanpostutik gorako enpresen % 28,4 dira berritzaileak (% 29,1 aurreko aldian), ondoren Bizkaia, % 27,1arekin (% 28 aurreko aldian) eta Araba, % 25,48arekin (% 25,2 aurreko aldian).

Deba Goiena, Durangaldea eta Arabako Lautada nabarmentzen dira beren lurraldeetan 10 langile edo gehiagoko langileak dituzten enpresa berritzaileen artean.

Sektoreka, 10 lanpostutik gorako industria-enpresen % 39 berritzaileak dira (% 39,5 aurreko aldian), zerbitzu-establezimenduen % 24,1 (% 25,2 aurrekoa aldian) eta eraikuntza-enpresen % 16,2 (% 10,2 aurreko aldian) dira berritzaileak. Bestela esanda, industria-enpresa berritzaileen ratioak hobera egin du bi aldien artean, baina ez du konpentsatzen beste jarduera-adar bietan izandako beherakada.

Jarduera-azpisektoreei dagokienez, industrian hauek dira nagusi: makineria eta ekipamendua (% 63,2), produktu informatikoak eta elektronikoak; material eta ekipo elektrikoa (% 59,3 aurreko aldian); energia elektrikoa, gasa eta lurruna (%56,8,) eta garraio materiala (% 57,3). Zerbitzuetan: osasun- jarduerak (% 66,7) eta finantza- eta aseguru-jarduerak (% 57,8) eta Telekomunikazioak, informatika eta hedabideak (% 44,7).

II.6.17. TAULA. 10 LANGILE ETA GEHIAGOKO ESTABLEZIMENDUEN %-a (EZ DA SARTZEN ARIBIDEAN DAGOENA ETA HUTS EGINDAKOA) JARDUERA-ADARRAREN LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA ARABERA		
	2014-16	2015-17
GUZT.	**27,9**	**27,3**
ARABA	25,2	25,4
BIZKAIA	28,0	27,1
GIPUZKOA	29,1	28,4
INDUSTRIA	**39,5**	**39,0**
ERAUZKETA-IND., KOKEG. ETA PETROLIO-FINKETA	20,0	30,0
ELIKAGAIEN ETA EDARIEN INDUSTRIA ETA TABAKOA	25,0	32,4
EHUNA, JANTZIGINTZA, LARRUA ETA OINETAKOAK	24,4	37,0
EGURRA, PAPERA ETA ARTE GRAFIKOAK	18,0	21,3
INDUSTRIA KIMIKOA ETA FARMAZIA-PRODUKTUAK	48,8	46,4
KAUTXUA ETA PLASTIKOAK	39,3	37,0
METALURGIA ETA METALEZKO PRODUKTUAK	38,0	34,1
PROD. INFORMATIKOAK ETA ELEKTRONIKOAK. MATERIAL ETA EKIPO ELEKTRIKOA	65,3	59,3
MAKINERIA ETA EKIPOA	57,6	63,2
GARRAIO-MATERIALA	57,3	53,7
ALTZARIAK ETA BESTE MANUFAKTURA BATZUK	35,3	33,0
ENERGIA ELEKTRIKOA, GASA ETA LURRUNA	30,0	56,8
URA HORNIDURA ETA SANEAMENDUA	24,1	24,9
ERAIKUNTZA	**10,2**	**16,2**
ZERBITZUAK	**25,2**	**24,1**
MERKATARITZA ETA IBILGAILUEN KONPONKETA	21,7	20,6
GARRAIOA ETA BILTEGIRATZEA	14,2	11,4
OSTALARITZA	6,6	10,1
TELEKOMUNIKAZIOA, INFORMATIKA ETA HEDABIDEAK	43,5	44,7
FINANTZA- ETA ASEGURU-JARDUERAK	41,8	57,8
HIGIEZINEN ARLOKO JARDUERAK	41,2	22,9
I+G, AHOLKULARITZAK ETA BESTELAKO JARDUERA PROFESIONALAK ETA TEKNIKOAK	42,4	37,2
ZERBITZU OSAGARRIAK	7,7	6,6
BIDAIA-AGENTZIAK ETA TURISMO OPERADOREAK	24,9	25,8
HEZKUNTZA	30,9	27,8
OSASUN JARDUERAK	70,6	66,7
GIZARTE, JOLAS, KULTUR ETA BESTELAKO JARDUERAK	16,2	16,6

Iturria: EUSTAT. Berrikuntzari buruzko inkesta

Enpresen %63,9k uste du berrikuntza teknologikoa zailtzen duten faktoreak daudela, bereziki ekonomikoak. Enpresek arrisku ekonomikoak nabarmentzen dituzte, gehiegizkoak direla iritzita, baita berrikuntzak dakartzan kostu handiak eta finantzabiderik eza ere. Zenbait barne-faktore ere adierazten dituzte hala nola antolaketaren zurruntasunak, langile gaiturik eza edo teknologiari edo merkatuei buruzko informaziorik eza.

b) Berrikuntza teknologikorako jardueretako gastua

Berrikuntza teknologikoa duten enpresen analisiari gagozkiolarik (arestian esana dugunez: enpresa guztien %11,4), 2017an behera egin zuen berrikuntza teknologikorako jardueretan eginiko guztizko gastuak, % 11,4tik % 10,9ra. Zehazki, %5,7 hazi zen 2016 eta 2017 bitartean, guztira 2.668,1 M€ (igoerarik handiena 2009tik), hots, BPGd-aren %3,6 (%3,5 aurreko aldian), EUSTATen "*Berrikuntza Teknologikoari buruzko inkesta*"ren arabera.

10 lanpostu eta gehiagoko enpresetan (tamaina horretako enpresa guztien %27,3), gastua 2.245,8 milioi euro da, hots, %5,7ko igoera aurreko urtearen aldean, baina BPGd-aren %3aren inguruan eusten dio egonkor, aurrekoaren portzentaje bera.

Beste urte batez, gastu horretatik gehiena barneko I+G-ri dagokio (BPGd-aren % 1,8 enpresa berritzaileen multzoan eta % 1,7 10 langile edo gehiagoko enpresak aintzat hartuz gero) eta makineriaren eskuraketari (BPGd-aren % 0,7 enpresa berritzaile guztietan eta % 0,6 10 langile edo gehiagoko enpresak aintzat hartuz gero.

Jarduera-sektoreka eta 10 lanpostu eta gehiagoko enpresen artean, industrian, gastua gehienbat garraio-materialean biltzen da, gastuaren % 13,5; ondoren, metalurgian eta metalezko produktuetan, % 11,2; produktu informatikoetan eta elektronikoetan; material eta ekipo elektrikoan (% 6,2); eta makineria eta ekipoan (biotan % 5,7).

Bestalde, zerbitzuen sektorean nabarmentzekoa da I+G arloa, aholkularitza eta beste jarduera profesional eta tekniko batzuk, gastuaren % 24,7arekin, eta hezkuntzaren sektorea, % 11,4arekin. Ondoren, nahikoa urrun, osasun jarduerak (% 5,2), telekomunikazioak, informatika eta hedabideak daude, % 4,3arekin.

II.6.18. TAULA. BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKORAKO JARDUEREN GASTUA BPG-DAREN GAINEAN

	ENPRESAK, GUZTIRA						>= 10 LANGILE					
	2012	**2013**	**2014**	**2015**	**2016**	**2017**	**2012**	**2013**	**2014**	**2015**	**2016**	**2017**
GUZTIRA (M€)	**2.583,7**	**2563,5**	**2.474**	**2.443,2**	**2.524,6**	**2.668,1**	**2.179,5**	**2.197,7**	**2.067,7**	**2.080,1**	**2.123,9**	**2.245,8**
BPGD-AREKIKO %	**4**	**3,9**	**3,7**	**3,5**	**3,6**	**3,6**	**3,4**	**3,3**	**3,1**	**3,0**	**3,0**	**3,0**
BARNEKO I+G	2,1	2	1,9	1,8	1,8	1,8	2	1,9	1,8	1,7	1,7	1,7
KANPOKO I+G	0,6	0,6	0,6	0,6	0,6	0,6	0,5	0,5	0,5	0,5	0,4	0,4
MAKINERIA	0,8	0,8	0,9	0,7	0,7	0,7	0,6	0,6	0,6	0,5	0,6	0,6
BESTE JAKINTZA BATZUK	0,1	0,1	0	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0	0,1	0,0	0,1
TREBAKUNTZA	0	0	0	0	0,1	0,0	0	0	0	0	0,0	0,0
MERKATURATZEA	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0	0,1	0	0	0,0	0,0
DISEINUA ETA PRESTAKETA-LANAK	0,3	0,2	0,2	0,2	0,2	0,3	0,2	0,2	0,1	0,2	0,2	0,2

Iturria: EUSTAT. Berrikuntzari buruzko Inkesta

II.6.18 TAULA. BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKORAKO JARDUERETAKO GASTUA, JARDUERA-SEKTOREEN ARABERA, 10 LANPOSTU BAINO GEHIAGOKO ENPRESETAN							
	2013	2014	2015	2016	2017		2016/17
	Bertik. %	Bertik. %	Bertik. %	Bertik. %	Milakoak	Bertik. %	aldak. %
GUZT.	**2.197,7**	**2.067,7**	**2.080,1**	**2.123,9**	**2.245,8**	**100**	**5,7**
INDUSTRIA	**44,3**	**42,3**	**41,8**	**42,5**	**1.060,9**	**47,2**	**17,7**
ERAUZKETA-IND., KOKEG. ETA PETROLIO-FINKETA	0,1	0,2	0,2	0,2	10,7	0,5	105,8
ELIKAGAIEN ETA EDARIEN INDUSTRIA ETA TABAKOA	1,4	0,9	0,6	0,3	15,9	0,7	174,1
EHUNA, JANTZIGINTZA, LARRUA ETA OINETAKOAK	0,2	0,2	0,1	0,1	1,7	0,1	-5,6
EGURRA, PAPERA ETA ARTE GRAFIKOAK	0,1	0,3	0,7	1,1	25,3	1,1	9,5
INDUSTRIA KIMIKOA ETA FARMAZIA-PRODUKTUAK	1,3	1,1	1,3	1,4	31,3	1,4	6,1
KAUTXUA ETA PLASTIKOAK	2,0	1,8	1,6	1,6	82,7	3,7	145,4
METALURGIA ETA METALEZKO PRODUKTUAK	9,2	8,9	8,2	9,4	252	11,2	26,0
PROD. INFORMATIKOAK ETA ELEKT. MATERIAL ETA EKIPO ELEKTRIKOA	7,0	6,4	5,9	6,1	127,6	5,7	-1,2
MAKINERIA ETA EKIPOA	4,5	5,4	5,9	6,1	140,3	6,2	8,6
GARRAIO-MATERIALA	15,8	15,0	15,1	14,1	303,8	13,5	1,2
ALTZARIAK ETA BESTE MANUFAKTURA BATZUK	1,4	1,0	1,0	1,0	22,7	1,0	8,6
ENERGIA ELEKTRIKOA, GASA ETA LURRUNA	1,1	0,8	1,0	0,7	41,1	1,8	175,8
URA HORNIDURA ETA SANEAMENDUA	0,2	0,2	0,2	0,4	6,1	0,3	-21,8
ERAIKUNTZA	**2,4**	**3,0**	**0,9**	**0,6**	**36,5**	**1,6**	**164,5**
ZERBITZUAK	**53,3**	**54,7**	**57,2**	**56,9**	**1.148,4**	**51,1**	**164,5**
MERKATARITZA ETA IBILGAILUEN KONPONKETA	1,4	2,7	2,9	3,4	21	0,9	-5,0
GARRAIOA ETA BILTEGIRATZEA	0,5	0,4	2,2	1,6	2,2	0,1	-70,8
OSTALARITZA	0,2	0,1	0,0	0,3	28,1	1,3	-93,5
TELEKOMUNIKAZIOA, INFORMATIKA ETA HEDABIDEAK	6,4	5,3	6,1	6,4	95,5	4,3	360,7
FINANTZA- ETA ASEGURU-JARDUERAK	0,8	0,8	2,4	2,0	57,6	2,6	-29,3
HIGIEZINEN ARLOKO JARDUERAK	0,0	0,0		0,0	0,2	0,0	34,0
I+G, AHOLKULARITZAK ETA BESTELAKO JARDUERA PROFESIONALAK ETA TEKNIKOAK	26,6	27,4	27,1	26,1	555,4	24,7	-66,7
ZERBITZU OSAGARRIAK	0,1	0,1	0,0	0,0	1,7	0,1	0,3
BIDAIA-AGENTZIAK ETA TURISMO OPERADOREAK	0,0		0,0	0,0	0,2	0,0	240,0
HEZKUNTZA	11,5	13,7	12,7	11,9	256,9	11,4	100,0
OSASUN JARDUERAK	5,0	3,9	3,7	4,9	117	5,2	1,3
GIZARTE, JOLAS, KULTUR ETA BESTELAKO JARDUERAK	0,9	0,3	0,1	0,2	12,7	0,6	11,3
Iturria: EUSTAT. Berrikuntzari buruzko inkesta							

EUSTATen arabera, enpresa berritzaileek finantzaketa publikoko laguntzak jaso ditzakete erakunde publiko baten baino gehiagoren eskutik. Hala, berrikuntza teknologikoko enpresen % 29,1ek finantzazio publikoa jasotzen du. Laguntzen jatorriari erreparatuz gero, nabarmentzekoak dira Eusko Jaurlaritzatik datozenak, enpresa berritzaile guztien % 20,4. Horrek esan nahi du Eusko Jaurlaritzak osorik edo zati batez ordaintzen duela laguntza jasotzen duten eta berrikuntza duten enpresa guztien % 70,3.

10 lanpostu eta gehiagoko enpresetan, % 45,7k laguntzak jasotzen ditu, eta Eusko Jaurlaritza da gehien finantzatzen duena, hain zuzen ere enpresen % 32,2ari, tamaina horretako berrikuntzako gastuetan. Eusko Jaurlaritzak finantzatzen du osorik edo zati batez laguntza jasotzen duten eta berrikuntza duten enpresa guztien % 70,5.

6.1.4. EUROPAKO BERRIKUNTZA ADIERAZLEEN PANELA- European Innovation Scoreboard (EIS), 2018

Europako Berrikuntza Adierazleen Panela herrialdeen ekonomiek berrikuntza jarduerak egiteko zenbaterainoko gaitasuna duten eta zenbateraino garatzen dituzten neurtzen saiatzen da. Panela osatzen duten adierazleen etengabeko berrikuspena egiten da, baita panela eta datuak eguneratuago kalkulatzeko modua ere. Baina urtero herrialdeen datu eguneratuagoak sartzen direlako. Hortaz, serie osoa kalkulatu beharra dago berriz ere.

EB28ko herrialdeak lau mailatan daude sailkatuta, lortu duten puntuazioa aintzat hartuta. Lehenbizikoan, "berrikuntzako herrialde liderrak" deritzonean, batez bestekoaren % 120tik gorako puntuazioa lortzen duten herrialdeak daude: Suedia (berrikuntzako adierazle sintetikoa, 0,71), Danimarka (0,67), Finlandia (0,65), Herbehereak (0,64), Erresuma Batua (0,62) eta Alemania (0,61), baina Europako lehen tokia Suitzari dagokio (0,81).

Bigarren taldea, "berrikuntza handiko herrialdeak", Europako batez bestekoaren % 90 eta % 120 bitarteko puntuazioa lortzen duten herrialdeek osatzen dute. Beherazko hurrenkeran, hauexek ditugu: Alemania, Irlanda, Austria, Frantzia eta Eslovenia, 0,60 eta 0,47 bitarteko puntuazioekin

Hirugarren taldean, "berrikuntza ertaineko herrialdeak" (batez bestekoaren % 50 eta % 90 bitartean) delakoan, Txekiar Errepublika, Portugal, Estonia, Lituania, Espainia, Malta, Italia, Zipre eta beste sei herrialde daude, 0,42 eta 0,26 bitarteko balorazioekin. Espainiak 0,40 du.

II.6.1. GRAFIKOA. EUROPAKO BERRIKUNTZA AIDERAZLEEN PANELA IUS 2018. EAE ETA 28-EB



Iturria.- EUSTAT eta Europar Batasuna

Eta "berrikuntza txikiko herrialdeak" deritzon laugarren taldean (Europako batez bestekoaren % 50etik behera), Bulgaria eta Errumania daude, 0,23 eta 0,16 puntu artean lortuta.

EAEk 0,48ko puntuazioa du, eta Estatuaren gainetik kokatzen da (0,40), baina 28ko EBren batez bestekoaren bi hamarrenera gelditzen da (0,50). Hala, "berrikuntza maila handiko herrialdeen" taldearen mailan kokatzen da, 28-EBren batez bestekoaren %90etik gorakoa baita (% 94,7 zehazki). 2007aren aldean, EAEko indizea 7 ehunenetan hobetu da

Europako Berrikuntza Adierazleen Panela lau bloke nagusitan (Esparru baldintzak, Inbertsioak, Berrikuntzako jarduerak eta Eraginak) eta hamar dimentsiotan dago egituratuta, guztira 27 adierazle.

- ***Esparru baldintzetan,*** hiru dimentsio daude: giza baliabideak, ikerkuntza sistema erakargarriak eta berrikuntzarako ingurune egokia.
- ***Inbertsioetan*** bi dimentsio daude: finantzazioa eta laguntza, eta enpresetarako inbertsioak.
- ***Berrikuntzako jardueretan*** hauexek biltzen dira: berritzaileak, loturak eta aktibo intelektualak.
- ***Eraginetan*** hauexek daude: eraginak eta enpleguan eta eraginak salmentetan.

II.6.20. TAULA. EUROPAKO BERRIKUNTZA ADIERAZLEEN PANELA. 4 BLOKE ETA 10 DIMENTSIO. INDIZE KONPOSATUAK. 2018.

	28KO EB	EAE	ESTATUA
EIS 2018	**0,50**	**0,48**	**0,40**
ESPARRU BALDINTZAK	**0,47**	**0.63**	**0,49**
Giza baliabideak	**0,47**	**0,74**	**0,56**
Ikerkuntza sistema erakargarriak	0,45	0,56	0,39
Berrikuntzarako ingurune egokia	0,51	0,59	0,54
INBERTSIOAK	**0,51**	**0,36**	**0,38**
Finantzazioa eta laguntza	**0,60**	**0,25**	**0,48**
Enpresentzako inbertsioak	0,46	0,44	0,31
BERRIKUNTZA JARDUERAK	**0,47**	**0,36**	**0,28**
Berritzaileak	0,49	0,46	0,21
Loturak	0,47	0,36	0,33
Aktibo intelektualak	0,43	0,25	0,31
ERAGINAK	**0,62**	**0,56**	**0,49**
Eraginak enpleguan	0,54	0,40	0,49
Eraginak salmentetan	0,67	0,61	0,49

Iturria.- EUSTATeta Europar Batzordea

28ko EBren batez bestekoaren aldean, EAE lehen ***blokean nabarmentzen da (Esparru baldintzak)***. Hala:

- "Giza baliabideak" dimentsioan, hura osatzen duten hiru adierazleetan nabarmentzen da Euskadi: *25 eta 34 urte bitarteko graduatu edota doktore berriak* (3,73 milako, eta 2,01 milako 28ko EBn), *hirugarren mailako hezkuntza duten 25-34 urteko biztanleen %-a* (% 53,8, eta % 39 28ko EBn). Bestalde, *etengabeko irakaskuntzan parte hartzen duten 25-64 urteko biztanleen %-a* (% 9,1, eta % 10,9).

- "Ikerkuntza sistema erakargarriak" dimentsioan, hura osatzen duten hiru adierazleetan ere nabarmentzen da Euskadi: *baterako nazioarteko zientzia argitalpenen kopurua milioi bat biztanleko* (939, eta 517 28ko EB), *Nazioartean gehien aipatzen diren argitalpenen %-a* (bikainak) (%10,91, eta %10,57) eta *doktore atzerritarrak eta herrialdeko doktore guztien %-a* (%30,7 eta %26,07).

- "Berrikuntzarako ingurune egokiak" abiadura handiko banda zabaleko sareen ezarpena eta ekintzailetza neurtzen ditu, eta arlo horretan, *Banda zabalaren sartze-maila* nabarmentzen da Euskadi (%27,5, eta %16).Lehiakortasunak bultzaturiko ekintzailetzan (motibazio indizea), berriz, 28-ko EBk gainditu egiten baitu: 3,34, eta Euskadin, 1,88.

Bigarren ***blokean (Inbertsioak)***, nabarmentzekoa da "Enpresen inbertsioa", non EAEk 28ko EBren moduko emaitza duen indize konposatuan. Hiru adierazle horietatik bitan kopuru handiagoak ditu: *Gastu pribatuan I+G-n eta BPGd-aren gaineko %-a* (%1,37, eta %1,32) eta *Beren pertsonalak IKTetan dituen ahalmenak garatzeko edo hobetzeko prestakuntza ematen duten enpresak* (%21,8, eta %21). Honako honetan, berriz, 28ko EBkoa baino ratio txikiagoa du (0,58 eta % 0,76) *Gastua berrikuntzan, ez I+G-koan, negozio-zifraren ehuneko gisa.*

Hirugarren ***blokean (Berrikuntza jarduerak),*** EAE "Berritzaileak" dimentsioan nabarmentzen da. Hain zuzen adierazle hauetan: *Produktuan edo prozesuan berritzaileak diren ETEak ETEen % gisa (%*34,1, eta %30,9) eta *barne berrikuntza duten ETEak ETEen % gisa* (%32,2, eta %28,8). Hirugarren adierazlean, marketinean edo antolaketan berritzaileak diren ETEak ETEen % gisa, emaitzak ez dira hobeak (%21,1, eta %34,9).

Gainerako dimentsioetan, "Finantzaketa eta laguntza", "Loturak", "Aktibo intelektualak", "Eragina enpleguan" eta "Eragina salmentetan", lorturiko puntuazioak Europako batez bestekoak baino txikiagoak dira. Hala ere, horien artean ere bi adierazle aipa daitezke, zeinen emaitzak handiagoak diren Euskadin 28ko EBn baino. Hauexek dira: *Beste batzuekin kolaboratzen duten ETE berritzaileak* (% 11,34 eta % 11,22) eta *Produktu berrien salmentak merkaturako eta enpresarako, negozio-zirareko % gisa* (% 18,74 eta % 13,37).

Euskadin EISren barruko dimentsioen eta adierazleen bilakaerari dagokionez, esan beharra dago aurrerapenak izan direla Giza baliabideak, Ikerkuntza sistema erakargarriak, Berrikuntzaren aldeko ingurunea, Berritzaileak, Aktibo intelektualak eta Enpleguan nahiz salmentetan izandako eragina deritzen dimentsioetan. Ez da gauza bera gertatzen Finantzaketa eta laguntza, Enpresen inbertsioak eta Loturak dimentsioetan: bilakaera negatiboak izan dituzte.

2014-2020ko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Planaren jarraipena

Planaren ezarpen maila zehazteko, ondoren azalduko den aginte-taula egiten du Eusko Jaurlaritzak (Lehendakaritza, 2019ko otsaila), eta horren kopuruetatik ondorio hauek atera daitezke:

a) Helburuak hauexetan lortu dira: RIS3ren lehentasunekin parekaturiko zentro teknologikoen eta ikuspegi askotariko ikerketa zentroen ikerkuntza portzentajea, lehen kuartilean indexa jarria duten argitalpenen portzentajea, produktu berriek fakturazioan duten salmenten portzentajea, euskal finantzazioak esparru programaren fondo guztiekiko portzentajea, atzerriko I+G+b-ren finantzaketaren %-a eta euskal finantzaketak esparru-programaren funts guztietan duen %-a.
b) Bilakaera norabide onean doala irizten zaio honako hauetan: doktoreek ikerlari guztiekiko duten portzentajea eta enpresetako ikerlariak.
c) Ezarritako helburuetatik urruntzen da bilakaera hauexetan: argitalpen indexatuen portzentajea lehen kuartilean, atzerriko I+G+b-ko finantzazioaren portzentajea, nazioarteko urteko finantzazio pribatua eta 10 lanpostutik gorako enpresa berritzaileek guztiarekiko duten portzentajea.
d) Aldi berean, zalantzak sortzen dira ea egoki aurreratzen den I+G+b-ko jardueren Mix-erantz (oinarrizko ikerkuntzaren %/industriako ikerkuntzaren %/garapen esperimentalaren %).

I+G gastuari dagokionez, goranzko joera ikusten da bada ere, bidea dago egiteko helburuak lortzeari begira. Eta 2014-2017ko aldian egin beharreko inbertsiorako aurreikuspenei dagokienez, aurreikuspenen % 91,2 bete dira. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak aurreikusiekiko burutze-maila % 104,4 da.

II.6.21 TAULA. ZTBP-REN BALANTZEA (2017)						
HELBURUAK	**ADIERAZLEA**	**ITURRIA**	**HASIERAKO EGOERA**	**BITARTEKO EGOERA**	**EGUNGO EGOERA**	**2020 HELBURUA**
1. I+G+B-KO INBERTSIOAK ETA BALIABIDEAK ESPEZIALIZAZIO ESPARRUETAN METATZEA	RIS3ren lehentasun estrategikoekin parekaturiko ikerkuntzaren portzentajea	Eusko Jaurlaritza/ SPRI	%76 2013	D/E	**D/E**	% 82
	RIS3ren lehentasunekin parekaturiko ikuspegi askotariko teknologia zentroen ikerkuntzaren portzentajea (1)	Eusko Jaurlaritza/ SPRI		%94,52 2014	**%94,84** **2016**	% 90
2. OINARRIZKO IKERKUNTZA ETA GARAPEN ESPERIMENTALA INDARTZEA	I+G+b jardueren mixa (Oinarrizko inb. %a/industriako inb. %a/garap. esp. %a)	Eustat	14/47/39 2012	15/44/41 2014	**16/44/39** **2016**	15/30/55
3. EMAITZETARA BIDERATZEA ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA SISTEMA	Zientzia argitalpen indexatuak	Ikerbasque	4.637 2013	5.425 2014	**6.020** **2017**	7.500
	Zientzia argitalpen indexatuen portzentajea lehen kuartilean	Ikerbasque	%54,70 2013	%53,70 2014	**%57,59** **2017**	%55
	EPO patenteen eskaerak EPO(2)	Patenteen Europako Bulegoa	195 2014	192 2015	**212** **2017**	287
	Produktu berrien salmentak fakturazioan duen portzentajea	Eustat	%12,48 2010	%16,23 2013	**%18,50** **2016**	%15
4. I+G+B-KO NAZIOARTEKO FUNTS GEHIAGO ERAKARTZEA	Atzerriko I+G+b-ren finantzazioaren %-a	Eustat	%5,0 2012	%7,7 2014	**%8,4** **2017**	%8
EUSKADIK H2020 DELAKOAN DUEN PARTAIDETZA INDARTZEA	Euskadik esparru programaren funts guztietan duen finantzazioaren %-a	Innobasque	%0,89 FP7	%1,48 (2014)	**%1,28** **(2017)**	%1,00
			(461 M€) FP7	(140 M€) 2014	**(411 M€)** **2014-2017**	(805 M€)
I+G+B-KO NAZIOARTEKO INBERTSIO PRIBATUAK ERAKARTZEA	Nazioarteko urteko finantzazio pribatua	Eustat	6 M€ 2012	20 M€ 2014	**12 M€** **2016**	18 M€
5. ENPRESA BERRITZAILEEN KOPURUA HANDITZEA	10 lanpostutik gorako enpresa berritzaileek guztizkoan duten portzentajea	Eustat	%45,50 2012	%44,40 2014	**%44,10** **2016**	%50
	I+G egiten duten enpresak guztizkoarekiko (3)	Eustat	%0,95 2012	%1,02 2014	**DE**	N/A
6. IKERLARIEN PRESTAKUNTZA HOBETZEA	Doktoreen portzentajea ikerlari guztiekiko	Eustat	%29,0 2012	%29,4 2014	**%31,0** **2016**	%35
	Doktoreen portzentajea enpresetako ikerlari guztiekiko	Eustat	%8,6 2013	D/E 2014	**D/E**	%10
	Doktorego titulua duten enpresetako ikerlariak. Guztizko kopuruak (4)	Eustat	5.779 2013	5.932 2014	**5.607** **2016**	6.719
ADIERAZLEA		**Iturria**	**Zenbatetsia 2014**	**Benetakoa 2014**	**Benetakoa 2017**	**Helburua 2020**
GASTUA I+G-N GUZTIRA		Eustat	1.326 M€	1.290 M€	**1.364 M€**	1.909 M€
GASTUA I+G-N FINANTZABIDEEN ARABERA	Herri administrazioak eta Goi-mailako ikask.	Eustat	461 M€	457 M€	**503 M€**	590 M€
	Enpresen finantzazio pribatua	Eustat	779 M€	734 M€	**746 M€**	1.167 M€
	Kanpoko finantzazioa (Europa eta nazioartea)	Eustat	86 M€	99 M€	**114 M€**	152 M€
AURREIKUSITAKO INBERTSIOAK 2014-20176 (ITURRIA: ZTBP)		**BENETAKO INBERTSIOAK 2014-2017** (ITURRIA: EUSTAT)				
Guztira: 5.721 M €		Guztira: 5.217 M € (% 91,2)				
Eusko Jaurlaritza 1.485 M €		Eusko Jaurlaritza: 1.551 M € (% 104,4				

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Lehendakaritza, 2018ko otsaila.

- ***Eusko Jaurlaritzaren estatistika agentzia ofizialen azken datuen arabera, hala denean.***
- ***Oharra: koloretan oinarrituriko gradazioa geuk eginikoa da, Planean ezarritako helburutik hurbil egotearen edo ez egotearen arabera***

6.2. INFORMAZIOAREN TEKNOLOGIAK ETA KOMUNIKAZIOAK

EUSTATen "*Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak*"[45] eta "*Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Enpresak*" direlakoetan ageri denez, oso zabalduta dago IKTen ezarpena, bai EAEko biztanleen artean, bai enpresa-sarean. Hala, 10 langile edo gehiago dituzten euskal enpresek[46] 28ko EBko batez besteko ehuneko handiagoak izan zituzten Interneteko sarbidearen inguruan (% 99 eta % 97), eta gainera, web orria duten enpresen ehuneko handiagoa zegoen EAEn, % 88 2017an, eta EBko 28an, berriz, % 77 batez beste. Soilik Danimarka eta Suedia zituen aurretik.

Ondorioz, bereziki baliagarria da, Memoria honen baitan, IKTek erabileraren aldetik eskaintzen dituzten posibilitateak aztertzea.

Nabigatzea, txateatzea, online erostea, etab. dira informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) erabiltzen diren eguneroko gure jarduerak. Gaur egun, "on line" ematen dugu gure denboraren zati handi bat, lantokietan, ikastetxeetan, etxean edo mugitzean. Gero eta maizago gaude gailu digitalen menpe familiarekin, lagunekin edo herri administrazioekin harremanetan izateko; kokapenak eskuratzeko, gure banku-kontuak egiaztatzeko, erosketak egiteko, etab. Azken finean, gizarte digitala gara.

Aldi berean, enpresek ere badihardute ingurune digitalean. Hala, IKTak neurri handiagoan sartzen dira ekoizpen prozesuetan eta zerbitzugintzan, eta gero maizago izaten dira bitarteko elektronikoen bidezko harremanak bazkideekin, bezeroekin, hornitzaileekin eta herri administrazioekin.

6.2.1. iKTen ekipamenduak eta erabilerak EAEko enpresetan

Teknologia digitalak ekoizpen prozesuetan eta zerbitzugintzan sartzen ari dira, IKTetan eta konputazioaren ahalmenean eta abiaduran sortzen ari diren aurrerapen handi eta bizkorren ondorioz.

Zehatzago, honela laburbildu daitezkeen zenbait garapen teknologiko berri eta berritzailerekin dago lotuta 4.0 ingurunea.

1. IKTak aplikatzea informazioa digitalizatzeko eta sistemak txertatzeko produktuak sortzeko eta erabiltzeko aldi guztietan (logistika eta hornidura barne), bai enpresen barruan, bai kanpora begira.
2. Prozesu fisikoak eta sistemak monitorizatzeko eta kontrolatzeko IKTak erabiltzen dituzten sistema zibernetikoak. Sentsore integratuak berehala sortu beharreko produktura egokitzeko beren buru konfigura dezaketen robot adimendunak edo fabrikazio gehigarriko gailuak (3Dko inprimaketa).
3. Sareko komunikazioa, haririk gabeko teknologiak eta Internet, hain zuzen makinak, produktuak, sistemak eta pertsonak lortzeko balio dutenak, bai fabrikazioko instalazioan, bai hornitzaileekin eta banatzaileekin.
4. Simulazioa, modelizazioa eta birtualizazioa produktuen diseinuan eta fabrikazio prozesuak ezartzea.
5. Datu kopuru handia biltzea, baita horien azterketa eta ustiapena ere, berehala lantegian bertan nahiz "big data" eta "cloud computing" analisien bidez.
6. "Giza langileentzako" IKTetan oinarritutako laguntza handiagoa, roboten erabilera, errealitate handitua eta tresna adimendunak barne.

EINen "*Enpresetako IKTen erabilerari eta merkataritza elektronikoari buruzko inkestak*" hainbat adierazle darabiltza IKTen erabileraren intentsitate neurtzeko. Horien artean, hauexek har daitezke aintzat: Interneteko konexioa duten enpresak, web orria eta Interneteko konexioa dituzten enpresak, Interneteko konexioa eta banda zabal mugikorra dituzten enpresak, izenpe digitala erabiltzen duten eta Interneteko konexioa duten enpresak, hodeian (cloud computing)

[45] *6 urte eta gehiago dituzten eta familia-etxeetan bizi direnen multzoa.*

[46] *Nazioarte mailan eta 28ko EBrekiko erabat bateragarria izate aldera, 10 langile edo gehiago dituzten enpresen datuak eta Eurostatek biltzen dituen jarduerak erabiltzeaz gain (ez dute kontuan finantzen sektorea, herri administrazioa, etab.), orain argitaraturikoaren aurreko urteko informazioa erabili behar da, 2017koa.*

konputazio irtenbideak erosten dituzten eta Interneteko konexioa duten enpresak, 3Dko inprimagailuak dituzten enpresak, robotak erabiltzen dituzten enpresak eta Big data aztertu duten enpresak.

2018ko lehen hiruhilekoan bildutako datuekin, gure Erkidegoak estatuko batez bestekoaren antzeko datuak ditu Interneteko konexioa duten enpresetan eta hodeian (cloud computing) [47] konputazio irtenbideak erosten dituzten eta Interneteko konexioa duten enpresetan. Bestalde, ratio handiagoak dira EAEn, estatuko batez bestekoaren aldean, Interneteko konexioa eta web orria duten enpresetan (66 pp gehiago EAEn), banda zabal mugikorra eta Interneteko konexioa duten enpresetan (+3,5 pp), 3D inprimaketa zerbitzuak erabiltzen dituzten enpresetan, norberarenak edo beste enpresa batzuek emandakoak (+3,5 pp) eta robot motaren bat erabiltzen duten enpresetan (+6,4 pp). Aldiz, ratioak txikiagoak dira EAEn, estatuarekin alderatuta, Interneteko konexioa eta izenpe digitala duten enpresetan (-3,2 pp) eta Big data aztertu duten enpresetan (-5,2 pp).

II.6.22. TAULA. IKT-EN ERABILERA ENPRESAREN SOZIETATE EGOITZA KOKATURIKO AA.EE. BAKOITZEKO. 2018KO LEHEN HIRUHILEKOA
(10 langile edo gehiago dituzten enpresak)

	Interneteko konexioa dute	Interneteko konexioa eta web gunea/orria dituzte (1)	Banda zabal mugikorra dute (1)	Izenpe digitala erabiltzen dute (1)	Cloud computing (1)	3 D-ko inprimailua rekin	Roboten erabilera	Big data analizatu dute
ANDALUZIA	98,1	70,6	80,0	79,0	19,0	2,2	11,2	12,5
ARAGOI	98,6	81,6	83,0	73,6	22,3	3,2	16,1	9,9
ASTURIAS	98,9	77,8	78,0	74,6	16,6	4,2	10,4	9,6
U. BALEARRAK	98,8	71,7	76,2	75,4	22,3	..	5,2	9,5
U. KANARIARRAK	97,4	65,3	79,7	75,8	19,8	1,7	6,3	9,3
KANTABRIA	97,4	80,8	81,5	67,4	11,8	2,2	10,9	10,1
GAZTELA ETA LEON	99,2	78,4	78,8	78,9	12,1	3,7	11,5	12,4
GAZTELA-MANTXA	98,4	75,1	79,6	83,0	11,7	2,7	10,3	7,5
KATALUNIA	99,4	84,3	82,4	70,1	31,7	3,3	10,3	12,9
VALENTZIA	98,0	77,9	83,0	81,0	18,7	3,7	12,3	12,6
EXTREMADURA	97,7	69,1	78,6	75,6	16,0	1,2	11,0	8,5
GALIZIA	98,8	73,6	79,1	77,4	14,5	3,2	12,0	9,4
MADRIK	98,9	80,9	83,6	79,7	32,4	3,6	8,2	11,9
MURTZIA	98,9	75,5	79,8	81,0	15,2	2,2	12,5	13,0
NAFARROA	97,6	82,3	81,9	82,0	16,0	3,8	18,9	9,8
EAE	**98,9**	**84,8**	**85,0**	**73,5**	**23,1**	**6,7**	**17,4**	**6,0**
ERRIOXA	98,1	**83,9**	81,6	83,8	18,4	5,1	13,9	8,4
CEUTA	100,0	44,1	55,5	84,2	11,4	0	0,8	0,8
MELILLA	100,0	49,2	55,2	70,6	8,5	0	19,2	3,8
ESTATUA	**98,7**	**78,2**	**81,5**	**76,7**	**23,2**	**3,2**	**11,0**	**11,2**

(1) Interneteko konexioa duten enpresa guztien portzentajea
Iturria: EIN. Enpresetako IKTen erabilerari eta posta elektronikoari buruzko inkesta.

6.2.2. EAEko enpresetako web guneetan ematen diren prestazioak

EUSTATen arabera, 2018an, enpresa guztien % 53,1ek zuten web orria, hots, aurreko urtean baino % 1,7 gehiago. Bestalde, 10 langile edo gehiago dituzten enpresetan, kopuru hori guztizkoaren % 92 da, % 2,9 behera egin ondoren.

Web guneetan ematen diren prestazioak aztertuz gero, ohikoenak hauexek ziren 2018an (2017an bezala): enpresari buruzko informazio orokorra izatea (establezimendu guztien % 99 eta 10 langile edo gehiago dituztenen % 99,4), informazioari buruzko aitorpena izatea (% 67,6 eta % 76,8) eta ondasunen eta zerbitzuen zerrenda edo katalogoa izatea (% 63,5 eta % 66,3, hurrenez hurren). Ondoren, portzentaje txikiagoa bada ere, hauexek daude: enpresetako profiletarako estekak dituztenak hedabide sozialetan (% 49,1 eta % 54,2), lan eskaintzak argitaratzen dituztenak (% 24,1 eta % 44,9) eta eskariak jasotzea edo erreserbak on-line egitea ahalbidetzen dutenak (% 26,8 eta % 28,8).

[47] *Horien artean daude posta elektronikoa, fitxategiak biltzea, enpresaren datu-baseen zerbitzaria eta hainbat software mota daude.*

II.6.23. TAULA. WEB PRESTAZIOAK EAE-KO WEB GUNEA DUTEN ESTABLEZIMENDUETAN ENPLEGU-MAILAREN ARABERA (WEB GUNEA DUTEN ESTABLEZIMENDUEN %-a).				
	2017		2018	
	Establezimendu guztiak	10 lanpostu edo gehiag. establez.	Establezimendu guztiak	10 lanpostu edo gehiag. establez.
ENPRESARI BURUZKO INFORMAZIO OROKORRA	98,9	98,8	99,0	99,4
ONDASUN ETA ZERBITZUEN ZERRENDA EDO KAT.	66,9	67,4	63,5	66,3
ESKARIAK ONARTZEA EDO ON-LINE ERRESERBAK	23,9	26,4	26,8	28,8
PRODUKTU/ZERBITZUEN ZUZENEKO ORDAINKETA	17,1	20,2	19,6	19,4
ESKARIEN JARRAIPENA	14,5	18,2	15,9	18,0
SALMENTA ONDOKO ZERBITZUA	21,8	23,5	26,0	25,6
ENPRESEKIKO PROFILETARAKO ESTEKAK HEDABIDE SOZIALETAN	44,0	48,1	49,1	54,2
INFORMAZIOAREN PRIBATUTASUNARI BURUZKO ADIERAZPENA	67,1	73,4	67,6	76,8
LAN ESKAINTZEI BURUZKO INFORMAZIOA	24,2	42,1	24,1	44,9
EDUKIAK OHIKO ERABILTZAILEENTZAT PERTSONALIZATZEA	12,3	16,1	14,5	20,5
EZINDUENTZAKO IRISGARRITASUNA (AA EGIAZTAGIRIA EDO MAILA HANDIAGOKOA)	14,6	21,3	18,4	24,4
PRODUKTUAK PERTSONALIZATU EDO DISEINATZEKO POSIBILITATEA	6,7	7,6	7,7	8,4

Iturria: EUSTAT. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta-IGI enpresak.

6.2.3. Merkataritza elektronikoa EAEn.

Familiak eta erabiltzaileak

EUSTATen arabera, 15 urte edo gehiagoko biztanleen %39,7k erosketaren bat egin zuen Interneten 2018. urtean, aurreko urtean baino gehiago.

Hona hemen ondasunik erosienak: kirol materiala eta arropa (%54,7), bidaiak eta oporretako ostatuak (%38, beherazko joera hautsiz) eta etxerako produktuak (%33).

Ordaintzeko moduari eta horren segurtasunari dagokienez, nahiz eta Internet bidezko ordainketak segurtasun handia edo nahikoa eskaintzen duela uste dutenen portzentajeak behera egin (% 86,1etik % 73,4ra), gora egin du kreditu-txarteleko zenbakia emanez ordaintzeak arazo handirik ez dakarrela uste dutenen ratioak, eta 2018ko lehen hiruhilekoan erosketaren bate gin duten pertsonen % 82,6 da.

II.6.24. TAULA. INTERNETEN EROSKETAK EGIN DITUZTEN EAE-KO 15 URTE ETA GEHIAGOKOAK, ESKURATURIKO ONDASUNEN ETA ORDAINTZEKO ERAREN ARABERA ETA ORDAINTZEKO SEGURTASUNARI BURUZKO IRITZIA (I HIRUHILEKOAK				
	2015	2016	2017	2018
EROSI DUTE	**35,8**	**33,8**	**34,7**	**39,7**
ESKURATURIKO ONDASUNAK (A)				
KIROL-MATERIALA, ARROPA	57,7	51,9	54,0	54,7
BIDAIAK, OPOR-OSTATUAK	62,0	31,4	26,3	38,0
BESTE PRODUKTU EDO ZERBITZU BATZUK	8,8	12,4	11,8	18,4
ETXERAKO PRODUKTUAK	30,9	18,7	22,0	33,0
ELEKTRONIKA	25,3	15,9	16,6	18,4
LIBURUAK, ALDIZKARIAK	29,6	11,0	18,0	17,4
IKUSKIZUNETAKO SARRERAK	49,4	22,5	17,7	21,7
MATERIAL INFORMATIKOA	20,0	8,4	10,0	8,7
SOFTWAREA, BIDEO-JOKOAK	14,4	4,0	4,8	3,8
MUSIKA, MUSIKA-TRESNAK	11,3	2,5	6,2	5,7
ELIKAGAI-PRODUKTUAK		9,9	9,6	11,5
EROSKETAK ORDAINTZEKO ERA (A)				
KREDITU-TXARTELAREKIN ORDAINDUTA	86,7	79,1	76,8	82,6
KONTU KORRONTEAREN BIDEZ ORDAINDUTA	21,5	9,4	5,8	4,4
JASOTAKOAN ORDAINDUTA	20,1	8,0	5,3	5,1
HARPIDETZAREN BIDEZ ORDAINDUTA	5,6	1,6	1,2	1,7
ORDAINTZEKO BESTE ERA BAT	18,6	22,4	24,2	26,0
ORDAINTZEKO SEGURTASUNARI BURUZKO IRITZIA				
ASKO	18,4	23,2	24,6	24,1
NAHIKOA	59,6	52,1	61,5	49,3
GUTXI	18,1	18,1	12,1	21,3
BAT ERE EZ	3,9	6,7	1,8	5,4

(a) erantzun bat baino gehiagoko galdera
Iturria: EUSTAT, ESIF

Enpresak

Según datos de EUSTAT, se calcula en unos EUSTATek eginiko zenbatespenen arabera, 41.400 establezimenduk egiten zuten merkataritza elektronikoa EAEn 2017an, guztizkoaren % 25,1ek, eta prozedura horren bidezko erosketak erosketa eta salmenta guztien % 36,2 dira, guztizkoaren % 41,4. Beraz, marka berria da serie historiko osoan, bai erosketetan, bai salmentetan.

Kopuru ekonomikoetan azalduta, gorantz jarraitzen du merkataritza elektronikoak EAEko enpresa-sarean. Hala, sortutako negozio-bolumenak, sarean bidez edo bestelako sistema elektronikoen bidez (EDI, datu elektronikoen trukea, etab.), % 12,6 egin zuen gora salmenta elektronikoei dagokienez, eta orotara 17.274,1 M€ dira, eta % 10,2 erosketen aldetik, guztira 12.758,9 milioi euro.

Bestalde, 2017an establezimenduen %25,1ek egin zituen merkataritza elektronikoko eragiketak (ehuneko hori aurreko urtekoa baino portzentajezko 0,9 puntu txikiagoa da). Jaitsiera hori gertatu da %1 egin baitu behera bitarteko elektronikoak erabiliz erosten duten enpresen portzentajeak, eta guztizkoaren % 23 da gaur egun. Salmenta elektronikoak egiten dituztenetan, berriz, % 0,3ko igoera ageri da, guztizkoaren % 6,8. Ikusten denez, handiagoa da bitarteko elektronikoak erabiliz erosten duten enpresen kopurua salmentak egiten dituztenena baino, % 23 eta % 6,8.

Zenbaki horiek aldatu egiten dira establezimenduen tamaina kontuan hartuz gero. Hala, 10 langile edo gehiago dituzten establezimenduetatik %29k merkataritza elektronikoa egiten du, aurreko urtean baino %0,7 gutxiago. Segmentu horretan askoz handiagoak dira erosketa elektronikoak egiten dituztenak ere, zeren eta %25,1 baitira, eta pisu txikiagoa dute erosketak bide beretik egiten dituztenek, %12,6, erosketetan 0,5 puntu portzentual jaitsi eta salmentetan 0,7 puntu portzentual handitu ondoren.

EUROSTATen arabera, % 18 egin zuen gora 2017an on-line (gutxienez aurrekontuaren % 1) saldu zuten (Internet bidez, EDI edo beste sare batzuk erabiliz) eta 10 langile edo gehiago dituzten enpresen ehunekoa (finantza sektorerik gabe). Eta enpresek %26k erosi zuten on line (eskarien % 1 gutxienez) 28ko EBn eta % 27k eurogunean.

II.6.25. TAULA. EROSKETAK ETA SALMENTAK ENPLEGU-ESTRATUAREN ARABERA (MILIOI €)

	Erosketak					Salmentak				
	2013	2014	2015	2016	2017	2013	2014	2015	2016	2017
GUZTIRA	**8.090,8**	**9.326,1**	**10.518,0**	**11.581,3**	**12.758,8**	**11.072.3**	**12.124,6**	**13.732,6**	**15.341,0**	**17.274,1**
ENPLEGU-ESTRATUAK										
0 - 9	2.610,0	3.009,4	3.347,8	3.863,6	3.949,7	2.157,1	2.165,5	2.523,8	2.798,7	3.044.4
10 ETA GEHIAGO	5.480,8	6.316,7	7.170,2	7.717,7	8.809,1	8.915,2	9.959,1	11.208,8	12.542,3	14.229,7

Iturria: EUSTAT. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta -IGI Enpresak.

II.6.26. TAULA. POSTA ELEKTRONIKOA EGITEN DUTEN ESTABLEZIMENDUEN BILAKAERA (ENNPRESAK 28KO EB-N ETA EUROGUNEAN (%)

	Establezimenduak, guztira, EAE					10 langile edo gehiagokoak										
						EAE					28KO EB**			EUROGUNEA**		
	2013	2014	2015	2016	2017	2013	2014	2015	2016	2017	2015	16	17	2015	16	17
POSTA ELEKTRONIKOA	**21,6**	**24,8**	**26,4**	**26,0**	**25,1**	**27,5**	**28,8**	**30,0**	**29,7**	**29,0**	**-**	**-**		**-**	**-**	
EROSKETAK	19,7	23,1	23,9	24,0	23,0	23,4	25,0	25,3	25,8	25,1	24	24	26	25	25	27
SALMENTAK	5,2	6,0	6,5	6,5	6,8	10,0	10,8	11,4	11,9	12,6	17	18	18	17	18	18
EROSKETEN G. %-A *	29,4	30,6	31,3	33,3	36,2	27,0	28,3	31,0	30,7	32,4	-	-	-	-	-	-
SALMENTEN G. %-A*	35,9	38,9	39,8	35,1	41,4	36,2	37,8	42,6	42,1	43,2	-	-	-	-	-	-

** Posta elektronikoa egiten duten establezimenduetan, erosketa/salmenten batez besteko %-a erosketa/salmenta guztiekiko*
*** (gutxienez % 1). Finantza sektore barik*
Iturria: EUSTAT. IGI-enpresak, EUROSTAT eta geuk egina

6.2.4. Administrazio elektronikoa EAEn.

Eskaintza elektroniko publikoa

"*Zerbitzu publiko elektronikoei buruzko estatistika, 2016*", Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publikoaren eta Autogobernuaren Sailak eginiko zentsu-eragiketa da, eta EAEko erakunde publikoek erabilitako 1.131 webguneren egitura eta ezaugarriak biltzen ditu. Hala, eskainitako 33.341 zerbitzu, prozedura eta izapide publiko eskaini dira, baita 38.838 eduki tematiko ere.

EAEko administrazioek eta sektore publikoak eskainitako 33.341 zerbitzu, prozedura eta izapide elektronikoetatik, udalek % 63,8 eskaintzen dute (21.270), ondoren Eusko Jaurlaritzak (Administrazio orokorra), % 11,7arekin[48], sozietate publikoak % 6,7, UPV-EHUk %5,6 ditu, Foru Aldundiek % 4,8 eta erakunde autonomoek % 3,6. Mankomunitateek, fundazioek, partzuergoek, kuadrillek, tokiko erakunde txikiek, irabazteko asmorik gabeko erakundeek eta beste erakunde publiko batzuek osatzen dute gainerako % 3,7a.

Datu-iturri beraren arabera, 2010 eta 2016 bitartean, EAEko administrazio guztiek eta sektore publikoak Internetez eskainitako zerbitzuen, prozeduren eta izapideen kopurua 4,5ekin biderkatu da. 2010ean administrazio elektronikoaren bidea ia abiarazi baino ez zuten zenbait erakunde motak, hala nola kuadrillek, mankomunitateek edo fundazio publikoek, hazkunde handiak izan zituzten. Bestalde, erakunde autonomoek bider 7 handitu zuten eskaintza, EHUk bider 6,5, sozietate publikoek bide 5,8 eta partzuergoek bider 5.

Udalek ere bat egin dute hazkunde handiko erakundeekin, eskaintza elektronikoa 5,4 aldiz handituta. Eusko Jaurlaritzak, ikastetxeak alde batera utzita, bikoiztu egin ditu bere zerbitzuak eta prozedurak (bider 2,3 eginda), eta Aldundiek dute hazkunderik txikiena, zeren eta haien eskaintza bider 1,4 egin baitute.

Erakunde publikoen menpeko lurralde eremuaren arabera, Bizkaiak eskaintza elektronikoaren % 38,5 kontrolatzen du, ondoren Gipuzkoak, % 34,6arekin eta Arabak % 8arekin. Bere esparruan Autonomia Erkidego osoa harten duten erakundeak (Eusko Jaurlaritza, Unibertsitate Publikoa, etab.) % 18,9a osatzen dute.

Eskainitako 33.341 zerbitzuetatik, prozeduretatik eta izapide publikoetatik, % 56,5 dira prozedura eta izapide administratiboak (18.841), zerbitzu publikoak % 36,7 (12.234), arautu gabeko prestakuntza ikastaroak eta ekintzak %4,4 (1.480), kontratugilearen profileko atalak % 1,4 (480) eta lehiaketak eta sariak % 0,9 (306).

II.6.27. TAULA. ESKAINTZA PUBLIKO ELEKTRONIKOA, ERAKUNDE PUBLIKOAREN ETA UNITATE MOTAREN ARABERA. EAE. 2016

	GUZT.	ZERBITZUAK, PROZEDURAK ETA IZAPIDEAK							EDUKI TELEMAT. / INFORMAZIOA
		Zerbitzu publikoak			Prozedura eta izapide admin.	Kontratugilearen profila	Arautu gabeko ikast. eta prestak.	Lehiaketak eta sariak	
		Guzt.	Zerbitzu pub. Iz. gabe	Zerbitzu publ. Izapid.					
GUZTIRA	**72.179**	**12.234**	**335**	**11.899**	**18.841**	**480**	**1.480**	**306**	**38.838**
ERAKUNDE PUBLIKO MOTA	**11.971**	1.568	84	1.484	1.899	1	407	38	8.058
EUSKO JAURLARITZA									
Eusko Jaurlaritza ikastetxe barik	**5.206**	508	30	478	1.368	1	290	30	3.009
Eusko Jaurlaritza: ikastetxeak	**6.765**	1.060	54	1.006	531	-	117	8	5.049
FORU ALDUNDIA	**3.401**	372	26	346	1.201	3	13	17	1.795
KUADRILLA	**194**	57	5	52	3	5	1	-	128
UDALA	**36.539**	7.113	161	6.952	13.465	233	314	145	15.269
TOKIKO ERAKUNDE TXIKIA. KONTZEJ.	**30**	3	-	3	2	-	-	-	25
MANKOMUNITATEA	**1.254**	258	2	256	198	16	16	3	763
PARTZUERGOA	**304**	59	-	59	49	10	1	2	183

[48] *Eusko Jaurlaritzan, unibertsitatetik kanpoko ikastetxe publikoen web guneek eskaintzen duten % 5,1 bereiz daiteke (lehen aldiz 2016an jasota) haren sailek gehienbat Euskadi.eus eta Egoitza Elektronikoaren bidez eskaintzen dituzten % 6,6tik.*

ERAKUNDE AUTONOMO ADMINISTRATIBOA	**3.677**	451	10	441	499	22	218	8	2.479
SOZIETATE PUBLIKOA	**7.911**	1.273	36	1.237	602	144	173	57	5.662
FUNDAZIOA	**1.381**	237	3	234	89	36	34	2	983
IRABAZTEKO ASMORIK GABEKO ERAKUNDEA	**420**	35	-	35	21	5	23	-	336
BESTE ERAKUNDE PUBLIKO BATZUK	**502**	31	-	31	38	4	-	-	429
UNIBERTSITATE PUBLIKOA	**4.595**	777	8	769	775	1	280	34	2.728

Iturria: Gobernantza Publikoaren eta Autogobernuaren Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Berariazko Estatistika Organoa ESPE 2016.

Sofistikazio mailari dagokionez, II.6.28. taulak erakusten duenez, erakunde publiko guztiek eskainitako prozeduren eta izapideen bi herenetan baino gehiagotan egin daiteke izapidetze elektroniko osoa. Izan ere, prozeduren eta izapideen analisiari gagozkiola, 2016an, EAEko erakunde publikoek eskainitako prozedura eta izapide publiko elektronikoen % 71,4k *4 motako* sofistikazio maila du: *izapidetze elektroniko osoa*.

Eskaintza numeriko erlatiborik txikiena duten zenbait erakunde ziren, 2016an, sofistikazio mailarik handiena zutenak: fundazioak, irabazteko asmorik gabeko erakundeak eta kuadrilla. Horien teleizapidetze osoko ratioak (4 mota): % 92,8, % 91,8 eta % 89,3.

Beren web guneetan eskaintzarik handiena duten erakundeetatik, udalek dute sofistikazio elektronikorik handiena.

II.6.28.TAULA. EAE-KO ERAKUNDE PUBLIKOETAKO PROZEDURA ETA IZAPIDE PUBLIKOAK, MOTAREN ETA IZAPIDETZE ELEKTRONIKOAREN SOFISTIKAZIOAREN ARABERA. 2016

	GUZT. (ABS.)	GOGOBETETASUN MAILA. TELEIZAPIDETZEA (HORIZONTALEN %)						
		1 MAILA - INFORMAZIOA	2 MAILA- FORMULARIOAK DESKARGATZEA	3 MAILA – DATUAK ON-LINE SARTZEA	4 MAILA –TELEIZAPIDETZE OSOA-			5 MAILA – IZAPIDETZE PROAKTIBOA-
					Guztira	Teleizapidetzea bi ez elektronikotik	Izapidetze elektroniko osoa	
GUZTIRA	**32.434**	**14,7**	**13,8**	**0,1**	**71,4**	**4,6**	**66,8**	**0,0**
EUSKO JAURLARITZA	3.819	17,5	20,7	0,0	61,7	2,4	59,3	0,0
Eusko Jaurlaritza ikastetxe barik		10,1	21,3	0,0	68,6	1,3	67,3	-
Eusko Jaurlaritza: ikastetxeak		27,2	20,0	-	52,8	3,9	48,9	0,1
FORU ALDUNDIA	1.572	13,7	25,5	-	60,8	2,4	58,4	-
KUADRILLA	56	8,9	1,8	-	89,3	17,9	71,4	-
UDALA	20.872	15,1	11,5	0,1	73,2	4,7	68,5	0,0
TOKIKO ERAKUNDE TXIKIA. KONTZEJ.	5	40,0	-	-	60,0	20,0	40,0	-
MANKOMUNITATEA	473	12,5	4,7	0,2	82,7	3,6	79,1	-
PARTZUERGOA	111	17,1	24,3	-	58,6	4,5	54,1	-
ERAKUNDE AUTONOMO ADMINISTRATIBOA	1.160	13,9	11,4	0,1	74,7	7,5	67,1	0,1
SOZIETATE PUBLIKOA	2.051	14,6	11,1	0,0	74,3	8,5	65,8	-
FUNDAZIOA	345	2,0	5,2	-	92,8	6,4	86,4	-
IRABAZTEKO ASMORIK GABEKO ERAKUNDEA	79	7,6	1,3	-	91,1	10,1	81,0	-
BESTE ERAKUNDE PUBLIKO BATZUK	69	10,1	14,5	-	75,4	1,4	73,9	-
UNIBERTSITATE PUBLIKOA	1.822	9,1	23,4	-	67,5	4,1	63,3	0,1

Iturria: Gobernantza Publikoaren eta Autogobernuaren Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Berariazko Estatistika Organoa. ESPE 2016.

Datu-iturri beraren arabera, 2016an, EAEko erakunde publikoek eskainitako prozeduren eta izapideen % 66,8 bitarteko elektronikoak erabiliz egin daiteke (osorik). 2010ean % 27,3 zen.

Zehazki, 2016an, Foru Aldundiak, Unibertsitate Publikoa eta sozietate publikoak batez bestekoaren azpitik daude (Foru Aldundiak: % 58,4, Unibertsitate Publikoa: % 63,3 eta Sozietate Publikoa: % 65,8%) eta udalak, Eusko Jaurlaritza eta erakunde autonomoak gainetik (Udalak: % 68,5, Eusko Jaurlaritza: % 67,1 eta erakunde autonomoak: % 67,1). Beste erakunde batzuen ratioen berri izateko, ikusi II.6.3. grafikoa.

II.6.2. GRAFIKOA. EAE-KO ADMINISTRAZIOETAN ETA SEKTORE PUBLIKOAN INTERNENTEN BIDEZ OSORIK EGIN DAITEZKEEN PROZEDURAK ETA IZAPIDEAK, ERAKUNDE MOTAREN ARABERA (EUSKO JAURLARITZA, IKASTETXE BARIK) 2010-2016 %



Fuente: *Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno. Dirección de Servicios. Órgano Estadístico Específico. ESPE 2016.*

Administrazioarekin bitarteko elektronikoen bidez diharduten enpresak

EUSTATek argitaraturiko azken datuek erakusten dutenez, enpresen multzoan (Interneteko konexiorik ez duten enpresak barne), enpresa guztien % 91ek egiten zituen izapide elektronikoak herri administraziorekin 2018. urtean, eta 10 langile edo gehiago dituzten enpresen % 96k.

Izapidetze zuzena izan daiteke, hirugarrenen bitartez (aholkularitza-enpresak…) edo bi prozedurok erabiliz. EUSTATen arabera, enpresen % 46k egiten ditu izapideak zuzenean, eta % 71,5 da hirugarrenen bitartez izapideak egiten dituztenen enpresen portzentajea (horietako zenbaitek zuzenean ere egin ditzakete). Bestalde, 10 langile edo gehiago dituzten enpresek, handiagoak direnez bitarteko gehiago izanik, neurri handiagoan egiten dituzten izapideak zuzenean. Hala, hauexek dira portzentajeak, hurrenez hurren: % 84,2 eta % 52,9.

Enpresek administrazioarekin egiten duten izapidetza motari dagokionez, nabarmentzekoak dira hauexek establezimendu guztietan: BEZ aitortzea (guztizkoaren % 74,6), informazioa eskuratzea (% 66,5), inprimakiak eta formularioak eskuratzea (% 65,1), langileen kotizazio sozialak aitortzea (% 57,5) eta sozietateen gaineko zerga aitortzea (% 57,1). 10 langile edo gehiagoko establezimenduei gagozkiolarik, hauexek nabarmentzen dira: informazioa eskuratzea (tamaina horretako establezimenduen % 87,3), inprimakiak eta formularioak eskuratzea (% 84,5), inprimakiak eta formularioak beteta itzultzea (% 80,2), BEZ aitortzea (% 75,6) eta langileen kotizazio sozialak aitortzea (% 75,4).

II.6.29. TAULA. HERRI ADMINISTRAZIOAREKIKO IZAPIDE ELEKTRONIKOAK ERABILIZ INTERNETEKO SARBIDEA DUTEN ESTABLEZIMENDUETAN EAE-N, EGINIKO IZAPIDEAREN ETA TAMAINAREN ARABERA (establ. %).				
	2017		2018	
	Orotara	10 langile eta +	Guztira	10 langile eta +
IZAPIDE ELEKTRONIKOAK EGITEN DITUZTEN HERRI ADMINISTRAZ.	**87,8**	**94,6**	**91**	**96**
--ZUZENEAN	40,9	81	46	84,2
--HIRUGARRENEN BITARTEZ (AHOLKULARITZA-ENPRESAK...)	68,9	51	71,5	52,9
INFORMAZIOA ESKURATZEA	58	82,8	66,5	87,3
INPRIMAKIAK ETA FORMULARIOAK ESKURATZEA	57,1	80,2	65,1	84,5
INPRIMAKIAK ETA FORMULARIOAK BETETA ITZULTZEA	45,3	74,5	55,4	80,2
ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERABAT ELEKTRONIKOKI IZAPIDETZEA	37,3	64	50,3	71,2
PROPOSAMENAK LIZITAZIO ELEKTRONIKOKO SISTEMAN AURKEZTEA (E-PROCUREMENT)	9,8	20,3	15,8	24,3
LANGILEEN KOTIZAZIO SOZIALAK AITORTZEA	56,7	72,6	57,5	75,4
SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA AITORTZEA	62,9	71,9	57,1	72
BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA AITORTZEA (BEZ)	72,8	73,2	73,3	75,6
ZERGA BEREZIAK EDO ADUANA ESKUBIDEAK AITORTZEA	9,2	26,6	11,6	28,6
BESTE IZAPIDE EDO ZERBITZU BATZUK	6,1	5,2	7,5	7,8
Iturria: EUSTAT. IGI-Administrazioa				

Euskal enpresek izapide horiek bitarteko elektronikoak erabili zein administraziorekin egiten duten galdetuta, Foru Aldundiak (% 83,5) eta Administrazio Zentrala (% 67,6) nabarmentzen dira, eta zerga nagusien gaineko eskumenek dute eragina portzentaje horietan. Ondoren, Eusko Jaurlaritza ageri da (% 48,7), eta gero tokiko erakundeak (% 26,5) eta Europar Batasuna eta beste batzuk (% 8,8). Portzentaje horiek, beste behin, handiagoak dira soilik 10 langile edo gehiago dituzten enpresak hartzen badira kontuan. Tamaina horretan, Foru Aldundiak nabarmentzen dira, zeinekin bitarteko elektronikoak erabiltzen dituzten tamaina horretako enpresen % 86,1ek. Jarraian, hauexek ageri dira: Administrazio Zentrala (% 85,3), Eusko Jaurlaritza (% 75,4), tokiko erakundeak (% 45,8) eta, azkenik, Europar Batasunarekin eta beste batzuekin (% 22,9).

II.6.4.HERRI ADMINISTRAZIOEKIKO IZAPIDEAK BITARTEKO ELEKTRONIKOEN BIDEZ EGITEN DITUZTEN EAE-KO ESTABLEZIMENDUAK (%)



Iturria: EUSTAT. IGI-Administrazioa.

Herritarren erabilera

e-Administrazioaren Barometroaren arabera, EAEko 16-74 urte bitartekoen % 45,3k erabili zituen, 2016ko datuen arabera, Herri Administrazioek herritarrekin elkarreragiteko eskaintzen dituzten aukeretako zenbait.

Herri Administrazioetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen ondoriozko administrazio elektronikoaren gaineko xedapenak 2018ko urrian indarrean sartuta (horien bidez, herritarrek zerbitzu publikoak eskuratzeko modua eman behar zaie herritarrei), gora egin dute, seguru asko, Administrazioarekiko izapidetze elektronikoaren zifrek.

FUENTES

1. **EUSTAT.** Ikerketa zientifiko eta garapen teknologikoko jarduerei buruzko estatistika. 2017. Urterokoa. Koiunturala.
2. **EUSTAT**. Enpresen I+G jarduerei buruzko eskaera. 2017. Urterokoa. Koiunturala.
3. **EIN**. I+G jarduerei buruzko estatistika. 2017. Urterokoa. Koiunturala.
4. **EUROSTAT**. Science and Technology. Datu-basea. 2017. Urterokoa. Koiunturala.
5. **UPV-EHU**. UPV-EHU zenbakietan. Urterokoa. Koiunturala.
   Ikerketa Errektoreordetza. I+G jarduerei buruzko eskaera. 2017. Urterokoa. Koiunturala.
6. **EUSTAT**. Berrikuntzari buruzko inkesta. 2015-2017 aldia. Urterokoa. Koiunturala.
7. **EIN**. Enpresetan berrikuntzari buruzko Inkesta. 2017. Urterokoa. Koiunturala.
8. **EUSTAT**. Europako berrikuntzako adierazleen panela. IUS 2018. Urterokoa. Koiunturala.
9. Lehendakaritza. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren jarraipena. Urteko eskaera
10. **EUSTAT**. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak. 2018. Urterokoa. Koiunturala.
11. **EUSTAT**. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Enpresak. 2018. Urterokoa. Koiunturala.
12. **EUSTAT**. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Administrazioa. 2018. Urterokoa. Koiunturala.
13. **EIN**. Etxeetako informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilerari eta ekipamenduari buruzko inkesta. 2017. Urterokoa. Koiunturala.
14. **EIN**. Enpresetako IKTen eta merkataritza elektronikoaren erabilerari buruzko inkesta. 2018ko lehen hiruhilekoa. Urterokoa. Koiunturala.
15. **EUROSTAT**. Digital Economy and Society. Datu-basea. 2018. urtea. Urterokoa. Koiunturala.

7. GIZARTE-EKONOMIAREN KONTUAK EAE-N[49]

II.7.1.GRAFIKOA. GIZARTE-EKONOMIAK EAE-N DUEN PISUAREN BILAKAERA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte-ekonomiaren Estatistika.

II.7.2. GRAFIKOA. GIARTE-EKONOMIAREN ENPLEGUAREN ETA FAKTURAZIOAREN BILAKAERA EAE-N



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte Ekonomiaren Kontuak.

Nazio Kontabilitateak bi atal nagusi bereizten ditu Gizarte-ekonomiaren baitan: a) merkatukoa edo enpresena eta b) ekoizleena, ez merkatukoa, "hirugarren sektorea" esan ohi zaiona. Azken sailkapen hori oso erabilgarria da estatistikak egiteko eta jarduera ekonomikoaren analisiak egiteko orduan, gaur egun indarrean dauden kontabilitate nazionaleko sistemekin bat etorriz.

Horrela, merkatu edo enpresako gizarte ekonomia, funtsean, kooperatibek eta lan sozietateek eta mutuek osatuko lukete. Bestalde, merkatukoa ez den gizarte ekonomia batez ere elkarteek eta fundazioek osatzen dute. Beste forma juridiko batzuk dauzkaten erakundeak ere egon litezke. Kontabilitate nazionalean ezarritako irizpideen arabera, merkatuz

---

[49] *Gizarte-ekonomiari buruzko martxoaren 29ko 5/2011 Estatu Legea mugarria izan da. Haren arabera, gizarte-ekonomiaren erakunde dira "kooperatibak, mutualitateak, fundazioak eta jarduera ekonomikoa garatzen duten elkarteak, lan sozietateak, gizarteratzeko enpresak, enpleguko zentro bereziak, arrantzaleen kofradiak, eraldaketako nekazaritza sozietateak", eta baita jarduera ekonomikoa eta enpresakoa egiten duten erakundeak ere, betiere, haien funtzionamenduak arauaren 4. artikuluan bildutako printzipio multzoari erantzuten badie. Printzipio horiek honakoak dira:*

a) Pertsonak eta gizarte-xedea gailendu egingo zaizkio kapitalari; horretarako, kudeaketa autonomo eta gardena, demokratikoa eta partaidea egingo da, eta erabakiak hartzerakoan pertsonak eta horiek erakundeari eskaini dizkioten lana edo zerbitzuak zein gizarte-xedea gehiago hartuko dira kontuan sozietatearen kapitalari egindako ekarpenak baino.

b) Jarduera ekonomikoaren bidez lortutako emaitzak batez ere egindako lana eta zerbitzua zein bazkide edo kideek egindako jarduera kontuan hartuta aplikatzea, edo erakundearen gizarte-xedean aplikatzea.

c) Erakunde barruko eta gizartearekiko elkartasuna sustatzea, tokiko garapenarekiko, gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunarekiko, gizarte-kohesioarekiko, gizarte-bazterkeria jasateko arriskua duten pertsonen gizarteratzearekiko, kalitatezko enplegu egonkorra sortzearekiko, bizitza pertsonala, familiarra eta lanekoa bat egitearekiko eta iraunkortasunarekiko konpromisoa bultzatze aldera.

d) Botere publikoekiko mendekotasunik eza.

kanpoko ekoizleak diren gizarte-ekonomiako erakundeek osatzen dute, hau da, beren ekoizpena batez ere dohainik edo prezio ekonomikoi ez-esanguratsuetan hornitzen dituzten erakundeek osatzen dute.

EAEn, Gizarte Ekonomiaren estatistikako azken datu finkatuen arabera, 2015-2016 biurtekoari dagozkionak, gizarte ekonomia guztira 2.455 enpresak osatzen dute, EAEn 3.193 establezimendu dauzkatenak. Aipatutako denboraldian 57.018 pertsonari lan eman zieten (erkidegoko lanpostuen % 4,6) eta 2.911,7 milioi euroko Balio Erantsi Gordina (BEG) sortu zuten (euskal ekonomiaren BEGd-aren %4,6).

Jarraian, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Politiketako Sailak eginiko estatistika horren emaitzen txostenetik ateratako kopuru nagusiak emango dira, baita enpleguak gizarte-ekonomian duen egoeraren erkaketa laburra ere Autonomia Erkidegoen arabera, betiere Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren datuak erabiliz.

7.1. ENPLEGUAREN BILAKAERA

II.7.3. GRAFIKOA. GIZARTE-EKOMIAK ENPLEGUAN DUEN GARRANTZI ERLATIBOAREN BILAKAERA: PISUKO PORTZENTAJEA JARDUERA-ARLOEN ARABERA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte-ekonomiaren Kontuak.

2014 eta 2016 bitartean, EAEko kooperatibek eta lan sozietateek sortutako enpleguak gora egin du lehen aldiz krisia hasi zenetik, eta gainera, euskal ekonomia osoa baino neurri handiagoan (% 4,5 hazi da; guztizkoa, berriz, % 2,6). Alabaina, 2008-2016ko krisialdiak gizarte-ekonomiaren % 14 galtzea ekarri du, hots, EAEko enplegu osoan baino beherakada handiagoa. Izan ere, enplegu osoa % 8,4 jaitsi da EUSTATen datuen arabera.

Gizarte-ekonomiako lanpostuen kopurua, 2016an, 57.018 zen, EAEko landun guztien % 6,3. 2014an, berriz, % 6,1 zen. Beraz, 2008an eta 2010ean kokaturiko mailetan dugu ratio hori, baina urruti oraindik ere 2014ko % 6,6tik eta 2002an izan zen maila gorenetik (% 6,8).

Arloei dagokienez, kopuru absolutuetan, zerbitzuetan ia 30.000 langile ari ziren lanean (29.937). Hala ere industria da, 25.240 lanposturekin, sektorerik dinamikoena enpleguaren sorkuntzaren aldetik (+% 6, eta zerbitzuena +% 3,3). 2014-2016 biurtekoan, bilakaera positiboa izan zuten sektore guztiek, eta gora egin zuten enpleguaren aldetik (nekazaritzan + % 8,8, guztira 168 lanpostu; eraikuntzan, + % 1,3, guztira 1.619 lanpostu).

II.7.1. TAULA. GIZARTE-EKONOMIAREN ENPLEGUAREN ARLOKAKO BANAKETA. 2014-2016.

	2014		2016		Ald. % 2014-16
	ABS.	BET. %	ABS.	BERT. %	
LEHEN SEKTOREA	171	0,3	186	0,3	8,8
INDUSTRIA	23.807	43,6	25.240	44,3	6,0
ERAIKUNTZA	1.599	2,9	1.619	2,8	1,3
ZERBITZUAK	29.005	53,2	29.973	52,6	3,3
GUZTIRA	**54.582**	**100,0**	**57.018**	**100,0**	**4,5**

Iturria. EUSKO JAURLARITZA. Gizarte-ekonomiaren Estatistika.

Euskal ekonomia ukitzen duen tertziarizaioa ere gertatu da gizarte-ekonomiaren arloan. Hala, 2008. urtean zerbitzuetako enpleguaren pisu erlatiboak (% 51,1) lehen aldiz gainditu zuen industriakoa (% 46,4), eta joera hori finkatu da, halako moldez non 2016an zerbitzuetako enplegua gizarte-ekonomiako enplegu osoaren % 52,6 baitzen.

Bestalde, industriaren sektorea EAEko gizarte-ekonomiaren % 44,3 da (horren hazkunde garbia +1.433 lanpostukoa da), baina 2016. urtean 25.000 lanpostutik gora zuenez gero, urruti dago 2006an lortutako gehieneko 32.250 lanpostuetatik. Hortaz, argi ikusten da industriak gizarte-ekonomian duen garrantzi erlatiboa. Izan ere, pisuaren % 44,3ak askoz gainditu zuen enplegu osoak EAEn duen % 20,9a. Kontrakoa gertatzen da zerbitzuen arloan, zeren eta gizarte-ekonomiaren pisua % 46,3koa baita. EAEko enplegu osoaren, berriz, % 72,8.

II.7.4. GRAFIKOA. GIZARTE-EKONOMIAK EAE-KO ENPLEGUAN DUEN GARRANTZI ERLATIBOA. PORTZENTAJEA ENPPLEGU OSOAREKIKO.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte-ekonomiaren Estatistika.

Lurraldeen aldetik, gizarte-ekonomiarekin lotutako enpleguaren hazkundea izan da hiru lurraldeetan azken biurtekoan. Gipuzkoan izandako susperraldia nabarmentzen da, non, 2016an 29.537 lanpostu izanik, % 6,6ko igoera gertatu baita 2014aren aldean. Industriaren kasu zehatzean, % 7,7rainoko tasa ageri da. Bizkaiak guztira 21.807 lanpostu ditu, eta bere aldetik, % 2,3ko hazkundea izan du. Arabak, berriz, 5.674 lanpostu ditu, eta okupazio zifretan % 1,8ko igoera izan da 2014aren aldean.

Pisu erlatiboari dagokionez, Gipuzkoak du bilakaera hobea besteen aldean. Lurralde horretan, % 9,8koa da gizarte-ekonomiaren enpleguak landun guztien aldean duen pisua (% 9,2 2014an). Bizkaiko eta Arabako pisu erlatiboak askoz txikiagoak dira: % 4,7 eta % 4,2, hurrenez hurren, ia 2014koaren berdinak. Horren ondorioz, gizarte-ekonomiaren presentziarik handiena duen lurralde gisa indartu da Gipuzkoa 2016an; izan ere, enplegu horren % 51,8 biltzen du, 2014an baino % 1 gehiago. Bigarren tokian, Bizkaiak % 28,2ko pisua du eta Arabak % 10ekoa gizarte-ekonomiaren enpleguan.

II.7.5. GRAFIKOA. GIZARTE-EKONOMIAKO ENPLEGUAREN LURRALDE BANAKETA EAE-N. %.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte-ekonomiaren Estatistika.

Kontratazio motaren arabera, Eusko Jaurlaritzaren txostenean nabarmentzen denez, gizarte-ekonomiako enpleguaren % 64,1ekoa da, eta gainerakoa soldatapekoei dagokie, zeinaren barruan % 18,7k kontratu finkoa baitu eta % 17,3k aldi baterako pertsonala. Soldatapeko talde horretan 20.500 lanpostu inguru daude, hain zuzen ere 2012an eta 2014an hasitako goranzko dinamikaren baitan (+% 9,6), eta susperraldian jarraitzen du, azken bi urtekoan % 12,8 hazita. Horrixe dagokio enpleguaren % 96 inguruko hazkunde garbia 2016an, zeren eta sozietate-taldea % 0,3 beterik ez baita hazi.

II.7.2. TAULA. GIZARTE-EKONOMIAREN ENPLEGUAREN BILAKAERA FORMA JURIDIKOAREN ARABERA. 2014-2016

	2014		2016		ALD. % 2014-16
	LANPOST.	%	LANPOST.	%	
KOOPERATIBAK	47.322	86,7	49.883	87,5	5,4
LAN-SOZIETATEAK	7.259	13,3	7.136	12,5	-1,7
---L.S.A.	3.177	5,8	2.848	5,0	-10,4
---E.M.L.S.	4.082	7,5	4.288	7,5	5,0
GUZTIRA	**54.582**	**100,0**	**57.018**	**100,0**	**4,5**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte-ekonomiaren Estatistika.

Forma juridikoari dagokionez, 2016ko Gizarte-ekonomiaren Estatistikak erakusten duenez, kooperatiben bilakaera positiboa da gizarte-ekonomiaren enpleguaren hazkundea azken bi urtean (+% 5,4, eta -% 1,4 aurreko biurtekoan), halako moldez non forma juridiko horrek urteko 2.561 lanpostuko saldo positiboa baitu. Bestalde, lan sozietate mugatuak (LSM) lagungarriak dira hazkunde horretan 206 lanpostu garbi sortuta (+% 5), 2012-2014 biurtekoan hasitako susperraldiari jarraipena emanda, noiz-eta % 6,8aren inguruko hazkundea izan zenean enpleguan. Lan sozietate anonimoetan (LSA), aldiz, lanpostuak galtzen ari dira orain ere (-% 10,4); izan ere, jaitsiera handia bada ere, 2012an eta 2014an izandakoa baino txikiagoa da (-% 20,7). Hala, LSAen enplegua urrutik dago krisiaren hasieran izandakotik (2.848 lanpostu 2016an eta 2008, berriz, 7.451.

II.7.3. TAULA. EAE-KO GIZARTE-EKONOMIAREN ZENBAIT ADIERAZLEREN BILAKAERA (EHUNEKOAK). 2006-2017.

	ENPLEGUA	ESTABLEZIMENDUAK	FAKTURAZIOA	ETEKINAK	ESPORTAZIOAK
2006/08	-1,4	-3,6	2,4	-52,9	:
2008/10	-4,3	0,4	-12,2	-59,8	-7,2
2010/12	-6,9	2,7	-3,3	-20,5	18,8
2012/14	-2,2	1,6	-7,1	16,2	-0,7
2014/16	4,5	2,1	1,4	449,8	3,5
2016/17*	**2,5**	**:**	**4,0**	**:**	**:**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte-ekonomiaren Estatistika. Geuk egina.
** Behin-behineko datuak. Sektoreko zenbatespenak.*

Enpresen tamainari dagokionez, gizarte-ekonomiako enpleguaren dinamika positiboa, neurri handi batean, enpresa handien susperraldiarekin dago lotuta. Aurreko biurtekoan enpleguaren % 4,8 galdu zuten 500 langiletik gorako enpresak % 5,5 hazi dira azken biurtekoan, halako moldez non gizarte-ekonomiako enpleguaren % 38,1 biltzen duten.

Ildo horretan, 50 lanpostutik gorako enpresetara igaro da susperraldia. Alabaina, 50 lanpostutik beherako enpresetan, establezimenduen kopurua % 10 handitu bada ere, 2014ko okupazio mailei eusten zaie. Nolanahi ere, 16-50 langileko enpresa txikietan eta ertainetan, 2014 eta 2016 bitartean % 0,9ko jaitsiera izanik, bilakaera positiboa dela ulertu beharko litzateke 2012 eta 2014 bitartean izandako beherakada handiarekin alderatuz gero (-% 10,7). Azkenik mikroenpresak deritzenetan (5 lanpostutik beherakoak), establezimenduen aldetik igoera izan arren, lanpostu gutxiago dituzte orain, % 0,4 gutxiago.

II.7.4.TAULA. GIZARTE-EKONOMIAKO ENPRESEN LANPOSTU KOPURUAREN BILAKAERA TAMAINAREN ARABERA. 2014-2016.

	LANPOSTUAK		
	2014	2016	ALD. % 2014-16
GEHIENEZ 5 LANP.	4.208	4.193	-0,4
6 – 15 LANPOSTU	4.421	4.499	1,8
16 – 50 LANPOSTU	5.929	5.875	-0,9
51 – 100 LANPOSTU	5.844	6.176	5,7
101 – 200 LANPOSTU	6.227	6.466	3,8
201 – 500 LANPOSTU	7.345	8.071	9,9
500 LANPOSTU +	20.608	21.737	5,5
GUZTIRA	**54.582**	**57.018**	**4,5**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte-ekonomiaren Estatistika

7.2. EMAITZA EKONOMIKOAK

Enpresa establezimendu berriak irekitzeko dinamika positibo horretan (% 2,1eko igoera), azken biurtekoan 66 establezimendu gehiagorekin, euskal gizarte-ekonomiak estatistikako eragiketa horretan 1994. urtean hasitako serie historikoko gorengo maila jo du, orotara 2.455 enpresarekin eta 3.193 establezimendurekin.

Enpresa horien negozio bolumenak (7.800 milioiko fakturazioa), aldiz, igoera txikia izan du 2014aren aldean, % 1,4koa hain zuzen. Hots, 2010eko 8.500 milioi euroko eta 2008ko 9.800 milioi euroko fakturazioa baino txikiagoa. Arloetan, alde nabariak daude bilakaera horretan: industriaren sektorearen fakturazioak % 5,2ko gorakada bizi badu ere, hirugarren sektorean, % 3,7ko jaitsierak eragin negatiboa du gizarte-ekonomian oro har. Eraikuntza eta lehen sektorea % 12 inguruko ratioekin hazi dira bietan.

Eta fakturazioaren igoera txikia bada ere, ia 507 milioi euroko etekinak izan dira, 2014koak baino nabarmen positiboagoak (92 milioi eurokoak). Hala, krisiaren aurreko kopuruak berreskuratu ditu, hain zuzen ere 2006koak. Sektoreen arabera, industriak 267 milioi euro sortu zituen 2016an, gizarte-ekonomiaren etekinen erdia, eta 2014an lorturikoak hiru halako. Eta etekin globalen beste erdia inguru, 222 milioi euro orotara, zerbitzuen sektorearen susperraldiari zor zaio; izan ere, aurreko ekitaldietan galerak izan (-28 milioikoak 2012an eta -7,8koak 2014an). 2014an zenbaki gorrietan zegoen eraikuntza ere emaitza positiboetara itzuli da: 16,1 milioi euroko etekinak 2016an.

Bilakaera on hori gizarte-ekonomiak sortutako BEGan ere; izan ere, 2016an 2.911 milioi euro izan zen (2014an baino % 11,3 gehiago, aurreko biurtekoan % 1,1 jaitsi ondoren), eta horietatik erdia baino pixka bat gehiago industria-sarearekin dago lotuta (% 51,2) eta gizarte zerbitzuekin (% 46,4). Bilakaeraren aldetik, industriako BEG % 11,7 hazi da 2014aren aldean (-%2,1 aurreko biurtekoan). Zerbitzuetan, berriz, % 10, hain zuzen ere2012-2104 biurtekoan igoera txikia izan ondoren (+% 0,6).

II.7.5. TAULA. EAE-KO GIZARTE-EKONOMIAREN BEG-AREN DINAMIKA 2014-2016 BIURTEKOAN. SEKTOREAREN BILAKAERA. BALIO ABSOLUTUAK OHIKO PREZIOETAN MILAKA EURO.

	2014			2016		
	ABS.	BERT. %	SEKTOREKO PARTAID. % *	ABS.	BERT. %	SEKTOREKO PARTAID. %*
LEHEN SEKT.	3.746	0,1	:	4.522	0,2	:
INDUSTRIA	1.334.364	51,0	9,3	1.490.118	51,2	9,7
ERAIKUNTZA	49.864	1,9	1,3	66.652	2,3	1,8
ZERBITZUAK	1.227.155	46,9	2,9	1.350.368	46,4	3,1
GUZTIRA	**2.615.128**	**100,0**	**4,3**	**2.911.659**	**100,0**	**4,6**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. GIZARTE-EKONOMIAREN KONTUAK.
** EAEko sektore osoarekiko partaidetza. EUSTATen 2016ko Ekonomia Kontuetako datuak.*

II.7.6. GRAFIKOA. ESPORTAZIOEN PISUAREN BILAKAERA FAKTURAZIO OSOAREKIKO. EAE-KO GIZARTE-EKONOMIAKO ENPRESAK.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte-ekonomiaren estatistika.

Gizarte-ekonomiaren BEGd-ak bilakaera hobea izan du (+% 11,3) EAEko ekonomia orokorrak baino, eta horren BPGd-a % 7,1 hazi baitzen 2014 eta 2016 bitartean. Hori dela-eta, **gizarte-ekonomiak ekarpen handiagoa egiten dio euskal BPGd-ari**. Hala, ekarpen hori % 4,3tik % 4,6ra igaro da, baina 2010ean izandakoaren azpitik (% 4,8). Sektoreen arabera, bilakaera hori agerikoagoa da industrian. Izan ere, sektorearen % 9,3koa izatetik % 9,7ra igaro da, hor ere 2010ean eta 2012an izan zen % 9,9aren inguruko ehunekoen azpitik. Bestalde, BPG tertziarioaren % 2,1 izan ziren zerbitzuak, 2016an, eta % 1,8 eraikuntzarena.

Esportazioei dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren txostenean nabramentzekoa da EAEko gizarte-ekonomiaren esportazioen bolumena 2,75 milioi eurokoa zela 2016an, 2014an baino % 3,5 gehiago. Kopuru hori dela eta, kanpoko salmentek 2016an fakturaturiko euroen multzoan duen partaidetza % 35,2 da, hots, 2014ko ratioa baino 7 hamarren handiagoa.

Kanpoko merkatuetako salmentek enpresa esportatzaileen fakturazio mailan duten protagonismoa % 62,9 da 2016an, hots, enpresa esportatzaile taldeen horren salmenten % 63 inguru (aldi berean, EAEko gizarte-ekonomia osoaren negozio bolumenaren % 56 esportatzen dute) EAEko eta Estatuko mugetatik kanpora egiten da. Laburbilduta, oro har euskal esportazioak baino gehiago hazi dira esportazioak; izan ere, azken biurtekoan % 2,9 murriztu dira eta oro har euskal esportazioen % 13 zen 2016 urtean, betiere EUSTATen Kanpoko Merkataritzaren Estatistikak iturritzat hartuta.

II.7.7. GRAFIKOA. EAE-KO GIZARTE-EKONOMIAREN ESPORTAZIOEN JOMUGA. 2016.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte-ekonomiaren kontuak.

Jomuga geografikoaren arabera, Europako merkatuek haien esportazioen % 63 baino pixka bat gehiago metatzen dute, eta aurreko bi biurtekoetan baino erritmo motelagoan bada ere, goranzko joerari eusten diote: % 2,7 inguruko hazkundea erakusten du. Aitzitik AEBkoak dira azken biurtekoan gehien hazi diren esportazioak, % 12 hain zuzen ere, hots, euskal gizarte-ekonomiaren esportazioen % 8tik gora. Asiako merkatuek, berriz, gizarte-ekonomiaren esportazioen gaineko % 14ko pisua dute, eta azken biurtekoan % 3,9 behera egin badu ere, bigarren tokian kokatzen dira gehien esportatzen dutenen artean azken hamarkadan, Europako merkatuetatik urrun bada ere.

II.7.6 GIZARTE-EKONOMIAREN ESPORTAZIOEN BILAKAERA EREMUEN ARABERA. KOPURU ABSOLUTUAK MILA EUROTAN ETA PARTAIDETZA. 2014-2016.

	2014		2016		Ald. % 2014-16
	ABS.	BERT. %	ABS.	BERT. %	
EUROPA	1.695.499	64,0	1.740.434	63,4	2,7
ASIA	400.880	15,1	385.066	14,0	-3,9
AEB	202.273	7,6	226.195	8,2	11,8
HEGO AMERIKA	212.963	8,0	232.294	8,5	9,1
BESTE BATZUK	141.853	5,3	162.572	5,9	14,6
GUZTIRA	**2.653.470**	**100,0**	**2.746.561**	**100,0**	**3,5**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte-ekonomiaren estatistika.

Azkenik, Latinoamerikako merkatuetako salmentek % 9,1 egin dute gora, 2016an AEBetako merkatuaren antzeko bolumena eskuratuta (232 eta 226 milioi hurrenez hurren).

Enpresa esportatzaileek 2014an baino % 7,4 gehiago saltzen zuten 2016an, eta soilik etxeko merkatuan merkaturatzen duten enpresek, berriz, fakturazioaren % 5 baino pixka bat gehiago galdu zuten, 2012-2014 biurtekoan gertatu zenaren ildotik.

Amaitzeko, inbertsioen kapituluari dagokionez, 2015 eta 2016 bitartean inbertsioen aldetik eginiko ahaleginak 317 milioi euroko zenbatekoan gauzatu dira, eta horietatik % 87 inguru ibilgetu materialeko inbertsioei dagokie eta % 70 gutxi gorabehera industriaren sektorean metatzen da.

7.3. GIZARTE-EKONOMIA MODU BERRIAK

Eusko Jaurlaritzaren Gizarte-ekonomiaren Estatistikak zenbait kopururekin osatzen ditu estatistikako eragiketa horren gune historikoaren analisia (kooperatibak eta laneko sozietateak), eragiketan sartu ez diren erakundeen gainean, baina beren beregi aipatzen dira 2011ko Gizarte-ekonomiaren Legean: Fundazioak eta elkarteak, enplegurako zentro bereziak, laneratze enpresak, BGAE, arrantzale-kofradiak eta eraldaketako nekazaritzako sozietateak dira.

II.7.7. TAULA. GIZARTE-EKONOMIAREN MODU BERRIAK EAE-N: ADIERAZLE NAGUSIAK. 2014-16.

	2014			2016			ALD. % 2014-16		
	KOP.	ORDAINDUTAKO LANA	BOLUNTARIOAK %/ORDU*	KOP.	ORDAINDUTAKO LANA	BOLUNTARIOAK %/ORDU*	KOP.	ORDAINDUTAKO LANA	BOLUNT. %
1. FUNDAZIOAK	619	10.482	9,1	608	11.174	3,0	-1,8	6,6	-67,0
2. ELKARTEAK	184	3.593	16,6	239	3.704	17,4	29,9	3,1	4,8
3. ENPLEGU ZENTRO ESP.	42	7.920	0,5	40	8.526	1,1	-4,8	7,7	120,0
4. LANERATZE ENPRESAK	76	846	14,5	65	924	5,0	-14,5	9,2	-65,5
5. BGAE	179	239	:	165	79	:	-7,8	-66,9	:
6. ARRANTZALE-KOFRADIAK	15	63	0,0	15	62	0,0	0,0	-1,6	:
7. TRANS. NEKAZARITZA ELKART.	87	95	23,0	79	170	12,4	-9,2	78,9	-46,1
GUZTIRA	**1.201**	**23.238**	**7,6**	**1.211**	**24.639**	**4,6**	**0,8**	**6,0**	**-39,5**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte-ekonomiaren Estatistika.
** Urteko borondatezko enpleguaren portzentajea ordaindutako enpleguaren gainean.*

2016rako zenbatespenean, azterturiko sei kategorien multzo agregatuak 1.211 erakunde biltzen ditu EAEn, honelaxe: 608 fundazio, 239 elkarte, enplegu-zentro berezietako 40 entitate, 65 laneratze enpresa, 165 BGAE, 15 arrantzale-kofradia eta eraldaketako 75 nekazaritza-sozietate. Entitate horien ordainpeko enpleguaren bolumena, aipaturiko urtean, 24.639 lanpostukoa da gutxi gorabehera, 2014an baino 1.401 gehiago, eta boluntarioen portzentajea % 4,6 da batez beste ordainpeko enpleguaren aldean.

7.4. ERKAKETA AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA

Azkenik, eta gainerako Autonomia Erkidegoekin alderatuta Gizarte-ekonomiak gure erkidegoan duen garrantzia jakiteko xedez, Sozietate Kooperatiboetako eta Lan-sozietateetako langileen eta forma hori duten enpresen kopurua aurkeztu dugu Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren datuak oinarri hartuta (jakin dakigu EAEko kopuruak ez datozela bat Gizarte-ekonomiaren Kontuetako Estatistikan aurkeztutakoekin).

II.7.8. TAULA. KOOPERATIBA ETA LAN SOZIETATEAK: GIZARTE SEGURNANTZAN ALTA EMANDA DAUDEN ENPRESEN ETA LANGILEN KOPURUA (3. HIRUHILEKOA)

	ENPRESAK			LANGILEAK		
	2014	2016	2018	2014	2016	2018
ANDALUZIA	6.400	6.172	5.809	55.420	59.053	62.506
ARAGOI	1.108	1.048	1.032	9.299	10.955	11.367
ASTURIAS	632	582	530	5.019	5.406	4.932
B. UHARTEAK	306	274	256	2.703	2.762	2.584
K. UHARTEAK	595	535	481	6.339	6.370	6.360
KANTABRIA	196	193	196	2.022	2.140	2.048
GAZTELA-MANTXA	2.272	2.242	2.074	17.037	17.674	17.890
GAZTELA-LEON	1.789	1.727	1.710	13.325	13.190	13.122
KATALUNIA	5.153	5.152	4.765	46.392	51.376	53.279
VALENTZIA	3.422	3.250	3.138	41.741	45.010	45.281
EXTREMADURA	917	902	836	7.986	7.948	7.685
GALIZIA	1.496	1.439	1.223	11.392	11.958	11.423
MADRIL	2.093	1.914	1.790	22.279	23.446	24.733
MURTZIA	2.006	2.078	2.050	19.866	21.870	22.719
NAFARROA	684	719	779	9.622	11.040	13.128
EAE	**2.175**	**2.208**	**2.202**	**60.335**	**61.826**	**65.962**
ERRIOXA	162	167	165	1.990	1.903	1.930
CEUTA ETA MELILLA	44	36	36	558	550	454
GUZTIRA	**31.450**	**30.638**	**29.072**	**333.325**	**354.477**	**367.403**

Iturria: LAN, MIGRAZIO ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTERIOA.

Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren datuen arabera, 2018an (irailaren 30eko datuak) EAEn 2.200 enpresa egon dira (irailaren 30eko datuak) Gizarte Segurantzan alta emanda, beraz, Sozietate Kooperatibo eta Lan-sozietate gehien duen seigarren Autonomia Erkidegoa da (%-0,32016aren aldean, Estatuko batez bestekoa %-5,1 delarik).

Sozietate Kooperatiboetan eta Lan-sozietateetan lan egiten duten langileen kopuruaren araberako garrantzia neurtuz gero, aldiz, estatuko lehen Autonomia Erkidegoa da EAE (65.962, aurreko bi urtean baino %6,7 gehiago), eta ondoren Andaluzia dator (62.506 langile).

ITURRIAK:

1. **EUSKO JAURLARITZAKO LAN ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA:** Gizarte Ekonomiaren Estatistika 2016 (2017ko aurrerapena). Bi urterik behinekoa. Estrukturala.
2. **LAN, MIGRAZIO ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTERIOA**: Aurrerapena. Gizarte Segurantzan inskribaturiko gizarte ekonomiako enpresen eta bere langileen egoeraren laburpena. 2018ko III. Hiruhilekoa. Hiru hilerik behinekoa. Abagunekoa.

8. EKONOMIA EAEN: LABURPENA ETA GOGOETAK

8.1. LABURPENA

2018an, munduko ekonomiaren hedapena gelditu egin zen bigarren seihilekoan, eta agerian gelditu ziren motelaldiaren zantzuak. Horrez gain, jokabide desberdinak antzeman ziren eremu geografikoen arabera. NMFren arabera, ekonomia aurreratuen hazkundea % 2,2 izan zen (% 2,4 2017. urtean), eta gorazko ekonomietan, berriz, % 4,5 (% 4,8 2017an).

Jarduera moteltze horrekin batera, munduko merkataritza ahuldu egin zen, zenbait ekonomiatan izandako protekzionismorako joerak eragindako ziurgabetasun handiagoko ingurunean.

Salneurriei dagokienez, herrialde aurreratuetako inflazio orokorra % 2koa izan zen urte arteko kopuruetan, baina igoera txikiagoa izan zen urteko bigarren zatian, gehienbat petrolioaren prezioek behera egin izanaren ondorioz. Bestalde, ezkutuko inflazioak (energia eta elikagaiak kenduta) egonkor eutsi zion nolabait.

Egoera horretan, nazioarteko finantza-merkatuek ere jokabide bereizia izan dute eremu geografikoen arabera: zuzenketa handiak burtsa aurreratuetan eta nolabaiteko egonkortasuna gorazko merkatuetan.

Europako Banku Zentralak, 2018an, ez zuen aldatu egun baterako esku hartzeko tasa eurogunean, eta % 0,00an eutsi zion epealdi osoan. Japoniako Bankuak ere, bestalde, esku hartzeko tasari eutsi zion 2017. urte osoan, 2016an itxi zuen moduan, hau da, -% 0,10aren inguruan. AEBetako Erreserba Federalak, bestalde, hirutan igo zituen tasak, martxoan % 1, ekainean % 1,25 eta abenduan % 1,5[50].

Dibisen merkatuari dagokionez, euroaren balio-galera bereziki nabarmena izan zen AEBetako dolarrarekiko eta Japoniako yenarekiko. Aldi berean, euroak balioa hartu zuen libra esterlinarekiko eta, nabarmen, gorazko ekonomietako moneta gehienekiko, bereziki Txinako renminbiarekiko.

Munduko burtsa merkatuetan, IBEX35ek nahiz Dow Jonesek, Nikkeik eta Euro Stoxxek atzera egin zuten 2017ko abendutik 2018ko abendura. Zehazki, -% 15 IBEX 35ek, -%14,8 Euro Stoxxek, -% 12,1 NIKKEIk eta -% 5,6 Dow Jonesek.

Eurogunean, BPGd-aren benetako hazkundearen erritmoak indarra galdu zuen, eta behera egin zuen 2017ko % 2,5etik 2018ko % 1,8ra, Espainiako Bankuaren arabera. Munduko merkataritzaren ahultze nabarmenak eta herrialde eta sektore espezifikoekin lotutako beste faktore batzuek bereziki eragin zieten kanpoko sektoreari eta manufaktura-sektoreari. Faktoreetako bat, hain zuzen ere, ibilgailuen igorpen kutsatzaileei buruzko arau berria sartzeak autogintzan izan duen eragina izan da.

Barne-eskariak, aldiz, jokabide sendoagoa izan zuen, finantzaketaren arloko indarreko baldintza hobeetan, enpleguaren dinamismoan (enpleguak % 1,5 egin zuen gora eta langabezia-tasa % 7,9raino jaitsi zen abenduan, mailarik txikiena 2008ko urritik) eta familien eta enpresen errenten hazkundean oinarrituta.

Inflazio orokorrak % 1,5 egin zuen gora aurreko urtearen aldean 2018ko abendutik 2018ko abendura, gehienbat energiaren prezioen igoeragatik. Bestalde, ezkutuko inflazioaren gaineko neurriek oro har jokabide egonkorra erakutsi zuten urtean zehar.

Herri administrazioen zorra berriz ere jaitsi zen 2017an ia estatu guztietan, Frantzian izan ezik (gutxi gorabehera berdintsu eusten dio), baita Luxenburgon eta Eslovakian ere (hazi egin da bertan). 19ko eurogunean, zor publikoa % 85,1ekoa izan zen BPGd-arekiko. 2017an, berriz, %87,1ekoa izan zen.

Defizitari dagokionez, eurogunean, defizit publikoa BPGd-aren % 0,5 izan zen. 2017an, berriz, %1. Bakarrik Zipren gainditu zen BPGd-aren %3 ko muga (-% 4,8). -% 0,6 eta -%3 bitartean daude Estonia (-% 0,6), Finlandia, Eslovakia, Belgika,

[50] Ekonomia eta Enpresa Ministerioaren 2019ko apirileko Adierazle Ekonomikoen Sintesian (AES) bildutako datuak.

Letonia, Erresuma Batua, Italia, Hungaria, Frantzia, Espainia eta Errumania (-% 3). Irlandak ratio nulua izan zuen eta gainerakoek superabita.

Espainiako ekonomiari gagozkiola, kanpoko faktoreek eragina izan zutela esan behar da, eta halaxe gelditu zen agerian 2018ko azken zatitik hasita, esportazioek indarra nabarmen galduta. Alabaina, barne-eskariaren dinamismoak kanpoko ingurunearen okertzea konpentsatu zuen, halako moldez non ez baita gertatu EBBn izandakoa bezalako jarduera motelaldia.

EINen arabera, 2018ko BPGd-ak urte arteko % 2,6ko hazkundea izan zuen batez beste, 2016an baino 4 hamarren txikiagoa, baina eurogunekoa baino 8 hamarren handiagoa (% 1,8).

Kontsumo pribatuak indartsu eusten dio, atzean honako ezaugarri hauek direla betiere: enpleguaren sorkuntza, errenten erosahalmen handiagoa inflazioak behera egin izanaren ondorioz (zati batez, petrolioaren prezioen jaitsieragatik), familien errentaren aurrekontu handiagoa (batez ere 2018ko bigarren zatitik hasita) eta aurrezpen-tasaren beherakada. Inbertsio pribatua, aldiz, kanpoko ingurunearen egoera okerragoaren eragina jasaten ari dela ematen du. Izan ere, ekoizpen-adarren aldetik, manufaktura-jardueraren beherakadan islatu da egoera txarrago hori, baina zerbitzuek indarra hartu dutela dirudi.

Inflazioaren arloan, kontsumoko prezioen adierazle orokorrak motelaldi nabarmena izan zuen 2018ko amaieran. Ezkutuko osagaiak, ordea, nahikoa ibilbide egonkorra erakutsi du.

BPGd-aren bilakaeraren ildotik, AOBko landunen batez besteko hazkundea, Nazio Kontabilitatearen arabera, % 2,5 izan zen 2018an, 2017an baino ehuneko 4 hamarren bat gutxiago. Soldatapekoen aurrerakada % 3,2 izan zen, 2017ko ratio bera. Bestalde, EINen Biztanleria Aktiboaren Inkestak (BAI) agerian utzi duenez, langabezia-tasak (16 urtetik gorakoak) % 15,4raino egin zuen behera, eta beherazko profila erakutsi zuen urte osoan.

Ingurumari horretan, Espainiako ekonomiaren finantza-egoera hobetu zen munduaren gainerakoaren aldean. Berriz ere superabita izan zuen. Alabaina, finantza-ahalmen hori (superabita) 17.705 milioi eurokoa izan zen, hots, BPGd-aren % 1,5. Aurreko aldian, berriz, % 2,2 izan zen. Hala eta guztiz ere, Estatuko Administrazio Publikoek, guztira 29.982 milioi euroko defizita izan zuten 2018an; horren ondorioz, BPGd-aren ratioa % 3,1etik % 2,5era igaro zen 2017 eta 2018 urteen artean. Datuak bereizita, Administrazio Zentralak, autonomia-erkidegoek (AAEE) eta Gizarte Segurantzak defizita zutela itxi zuten ekitaldia, hurrenez hurren, % 1,4, % 0,2 eta % 1,4.

Diru-sarrerak direla eta zerga nagusietako zerga-bilketak, autonomia erkidegoen eta tokiko korporazioen partaidetza aintzat hartuta, hazkundea izan zuen (+% 7,6). Bestalde, Estatuak onartutako obligazioak %2,5 hazi ziren.

Ondoko lerro hauetan, ***EAEko bilakaera ekonomia*** jorratuko dugu.

EUSTATen Jarduera Ekonomikoen Direktorioaren (JEGID) 2018ko azken datuen arabera, guztira 156.528 enpresa ziren jardunean EAEn (lehen sektorekoak barne), eta otora 889.853 pertsonari ematen zieten lana. Beraz, batez besteko tamaina 5,7 lanpostukoa da enpresako.

2017 eta 2018 urte bitartean, enpresa kopurua % 1 jaitsi zen, baina enplegua %1,8 hazi zen. 1.925 enpresa eskasek, kopuru osoaren % 1,2k, hain zuzen, 50 enplegu edo gehiago zituzten, guztira 442.331 lanpostu (guztien %49,7). Aitzitik, 117.919 enpresa, kopuru osoaren % 75,3 hain zuzen, ez da iristen 3 lanpostura eta enplegu osoaren % 16,2 bakarrik hartzen dute.

Euroguneko batez besteko tamaina 5,2 lanpostukoa da enpresako (2016. urteko datuak), eta EAEkoa baino pixka bat txikiagoa (5,7). Batez besteko horien gainetik daude Alemania (10,2 lanpostu), Luxenburgo (10,1), Erresuma Batua (8,6), Danimarka (7,9), Austria (7,5), Kroazia (7), Errumania (6,1), Irlanda (5,9), Bulgaria (5,8), Finlandia (5,6) eta Estonia (5,4).

Enpresa-errotazioari buruzko azterketak agerian uzten duenez, 2018ko urtarrilaren 1ean, enpresa-kopuruaren (lehen sektorekoak aintzat hartuta) jaitsieraren ondorio nagusia ondokoa izan zen: 14.603 enpresa hasi ziren jardueran data horretarako eta, 16.161 enpresak, berriz, itxi egin zuten. Horrela, saldo garbia -1.558 enpresakoa da. Beste alde batetik, enpresak sortzeko tasa gordina, dena delako urteko enpresa sortu berrien kopurua zati aurreko urtean zegoen enpresa-kopurua, % 9,3koa da; itxitako enpresa-tasa, aldiz, % 10,3koa izan zen[51].

Ekonomia Kontuek erakusten dutenez, EAEko ekonomiaren BPGd-ak %2,8ko hazkundea izan zuen 2018. urte osoan kopuru errealetan (2017an baino hamarren bat gutxiago). Ekoizpenaren gehikuntza, hortaz, handiagoa da EAEn eurogunean baino (EAEn % 2,8 eta eurogunean % 1,8), eta estatukoa baino handiagoa ere (% 2,6), EUROSTATen arabera.

Hiruhilekoen profilak hazkundearen moteltzea erakusten du urtean zehar, zeren eta lehen hiruhilekoa urte arteko % 3,1eko aldakuntza-tasarekin hasi eta laugarrenean % 2,4ko tasarekin bukatu baitzen. Bestela esanda, aurrera edo hazkunde ekonomikoaren aldia, baina produktuaren aurrerakada moteldu dela ikus daiteke.

2015ean eta 2016an gertatu bezala, BPGd-aren hazkundea gertatu da funtsean barne-eskariaren jokabideagatik. Izan ere, % 2,8 hazi zen, eta BPGd-aren %2,8ko igoerarekin batera, kanpo-eskariak ekarpen negatibo txikia izan du BPGd-ren hazkundean.

Barne-eskariaren aldakuntza-tasa positiboaren oinarria, nagusiki, Kapitalaren Eraketa Gordinaren hazkundea da. Alabaina, inbertsioaren osagaien analisiak erakusten duenez, urteko aldakuntza positiboak ageri dira guztietan, baina hiruhilekoen profil desberdinak dira. Hala, ekipamendu-ondasunen inbertsioak % 4,8 egin zuen gora lehen hiruhilekoan, % 6,1era iritsi zen bigarrenean, hazkundean moteldu egin zen hirugarrenean (% 2,9) eta berriz ere indarra galdu zuen laugarrenean (% 2,1). Bestalde, eraikuntzarekin lotuago dauden ondasunen inbertsioak goranzko joerari eutsi zion urte osoan: lehen hiruhilekoan % 3ko aldakuntza-tasarekin hasi, % 4koa bigarrenean, % 4,6koa hirugarrenean eta laugarrenean % 5,2ko hazkunde-ratioarekin bukatu zuen.

Amaierako kontsumoko gastua denaz bezainbatean ikusten dugunez, kontsumo pribatuko gastua % 2,9ko hazkundearekin hasi zen 1. hiruhilekoan, 2.ean eta 3.ean moteldu eta berriz ere indarra hartu zuen laugarrenean. Urtearen amaieran, % 2,6ko hazkundea izan zuen. Bestalde, herri administrazioen gastuaren hazkundea moteldu egin zen hiruhilekotik hiruhilekora; lehenengoan % 2,6ko hazkundearen hasi eta % 0,8arekin bukatu laugarrena.

Kanpoko sektorearen bilakaeran, *"Kanpoko Merkataritzaren Estatistikak"* (Aduanetako Erregistroak oinarri hartuta) ondasunen kanpoarekiko merkataritzari buruz emandako behin-behineko datuek erakusten dutenez, gora egin zuen esportazioen ohiko balioak 2018an, %6,8 hain zuzen (orotara 25.487,5 milioi euro, hau da, 2017an baino 1.631 milioi gehiago): ez-energetikoetan % 5,9ko hazkundea izan da (guztizkoaren % 89,9) eta energetikoetan % 16,3koa. Esportazioen urteko zifra hori historia osoko handiena da 1990. urtetik hona. Bestalde, inportazioek % 8,8 egin zuten gora (20.288,8 milioi euro guztira, 2017an baino 1.636,2 milioi euro gehiago), non ez-energetikoen inportazioak (guztizkoaren % 71,8) % 6,8 hazi zen eta energetikoena % 14,1.

Kanpoko saldoak, 2018an, 5.199 milioi euroko superabita izan zuen (2017an baino 5,3 milioi gutxiago). BPGd-arekiko portzentajea % 6,8 da, 2017an erregistraturikoa baino % 0,3 puntu txikiagoko ratioa (% 7,1). Ondasun eta produktu energetikoak eta ez-energetikoak bereizita, berriz ere ikusten da saldo energetikoa defizitarioa dela (-3.162,7 milioi euro). Ez-energetikoenak, aldiz, berriz ere izan zuen superabita, 8.361,4 milioi, hots, BPGd-aren % 10,9, aurreko bi urteetan izandako ratio bera hain zuzen ere.

Eskaintzaren aldetik, ekonomiako sektore handi guztietan izan da goranzko joera. Nabarmentzekoa da Eraikuntzaren sektorea, urtean % 4,3 hazita. Ondoren Zerbitzuen Sektorea (% 2,9), Lehen Sektorea (% 2,3) eta, azkenik, Industria (% 2,1). Eraikuntzaren eta Zerbitzuen sektoreetan bizkorragoa izan zen hazkundea 2018. urtean. Industrian, berriz, motelaldia gertatu zen, eta batez ere Lehen Sektorean.

[51] *Heriotza-tasaren kasuan, bajekin kalkulatzen da zatidura.*

KPIren urte arteko aldakuntza metatua 2018ko abenduan (zuzendutako datuekin eta 2015eko oinarriarekin) +% 2 zen EAEn 2017ko abenduaren aldean. Aurreko aldian (2016. urteko abendua-2017. urteko abendua), berriz, % 5,7 izan zen.

Zerbitzuen sektorean, Merkataritza, ostalaritza eta garraioen adarrean, igoera txikiagoa izan zen (% 2,8, eta % 4); Herri administrazioaren, hezkuntzaren, osasunaren eta gizarte zerbitzuen adarrean 2017an baino pixka bat gehiago hazi zen (% 2,4 eta % 2,2) Gainerako zerbitzuak deritzenetan % 3,1eko igoera izan zen. Aurreko aldian, berriz, % 2,2koa izan zen.

2013 eta 2017 bitartean, BPGd-aren urteko batez besteko aldakuntza-tasa, benetako kopuruetan, + % 2,7 izan zen. Hona hemen BPGd-aren hazkunderik handienak: Jolas eta kultur jarduerak (% 4,7, batez besteko urteko tasa), Zerbitzu Osagarriak eta Ostalaritza (bi adarretan % 4,1), Informatika (% 3,8) eta Garraioa eta biltegiratzea (% 3,7).

Finantzen sektorea sakonduta, Espainiako Bankuaren datuen arabera, herri administrazioaren titulartasun peko gordailuen guztizko saldoa EAEn 4.407 milioi eurokoa zen 2018aren bukaeran, hots, % 36,6ko gehikuntza. Beste sektore egoiliar batzuen gordailuak 76.435 M€ izan ziren, hau da, % 4,4ko igoera 2016aren aldean. Gordailu horiek modalitateen arabera aztertzen baditugu (agerikoa, epea eta aktiboen aldi-baterako lagapena –AAL-), ikusiko dugu % 73,7 ageriko gordailuak direla, % 18,5 epe laburrerako gordailuak eta % 2,4 AALei dagokie. Ageriko gordailuek gorantz jarraitzen duten bitartean (aurten % 6,2 eta aurreko urtean % 66), eperako gordailuei beherazko joerari eusten diote. Tasen egoeragatik gertatzen da hala orain ere.

Hala, moneta-merkatuko interes-tasak eurogunean (gordailuak) negatiboak dira, eta gainera behera egin dute urteko batez bestekoan epe guztietan

Bestalde, gordailu-erakundeek EAEn emandako guztizko kredituaren saldo biziak berriz ere behera egin zuen 2018an: 70.862 milioi eurotik 68.467 milioi eurora (-% 3,4). Jaitsiera gertatu da sektore pribatuari emandako kredituaren saldoaren beherakadagatik (-% 4,6), zeren eta Herri Administrazioei emandakoak gora egin baitu (+% 8,1), baina lehenbizikoa guztizkoaren % 89,6 da.

Euroguneko kreditu-erakundeek familiei eta IPSLH egoiliarrei EBB (UTB) maileguetan ematen dien interes-tasak gora egin zuen kontsumoan, % 8,27tik % 8,29ra 2017 eta 2018 bitartean, baita etxebizitzan ere, % 2,05etik % 2,24ra hain zuzen.

Bestalde, Bilboko Burtsaren 2000 Indizeak 1.330,1 puntu izan zituen 2018ko abenduan, hau da, % 15,7 jaitsi zen aurreko urteko abenduko datuekin alderatuta. Bilboko Burtsaren kontratazio-bolumena (erosketak eta salmentak), 2018an, 112.921,6 milioi eurokoa izan zen, hau da, % 4,2 jaitsi egin zen 2017arekin alderatuz

Enpleguaren bilakaera, AOB lanpostuetan neurtua, positiboa izan da, gutxi gorabehera % 2,1 hazita batez beste 2018. urtean (2017ko ratio bera). Enpleguaren joera hobea Eraikuntzan kokatu da, % 3,6 hazita (aurreko urtean baino % 1,6 gehiago). Zerbitzuen sektoreko enplegua % 2,1 handitu da (2017ko ratio bera). Bestalde, industriaren sektoreko enpleguaren hazkundea % 1,7 da, 2017an izandakoa baino hiru hamarren azpitik.

Inflazioari dagokionez, kontsumoko prezioetan beherakada handia izan zen 2018ko amaieran. Zehazki, KPIren azken bi hileetan, puntu erdia baino gehiago jaitsi zen, eta abenduan + %1,0an kokatu zen, urteko zatirik handienean izandako % 2kotik urrun.

EINen "Laneko Kostuen Hiruhilekoen Inkesta"ko datuek erakusten dutenez, EAEn, % 3,1 egin zuen gora enpresen laneko kostuak 2018ko laugarren hiruhilekoan 2017ko epealdi beraren aldean (Estatuko hazkundea % 0,9koa izan zen), eta 3.211 euroan kokatzen da langileko eta hileko, hots, 518,5 euro gehiago Estatuan baino.

Lanaren ezkutuko produktibitateari dagokionez, 2017an % 0,7ko hazkundea izan zen kopuru errealetan, hots, aurreko urtean baino %0,2 gehiago. Mailaren gaineko analisiak –ez bilakaerari buruzkoak- Erakusten duenez, EAEk 124ko indizea zuen 2017an, hots, 28ko EBko batez bestekoa baino % 24 handiagoa, estatukoa baino % 23,1 handiagoa eta % 17,1 eurogunekoaren gainetik. Beraz, EAEk lehia-posizio hobea du 28ko EBk, estatuak eta euroguneak baino, bere lan-produktibitatea dela eta.

Batez besteko errenta pertsonala (zergen aurretik), EUSTATen "*Errenta pertsonalaren eta familiakoaren estatistika"*ren arabera, % 2,4 hazi zen 2015 eta 2016 bitartean, orotara 20.443 €. Laneko errentek % 1,9 egin zuten gora, kapitalekoek % 0,9, gainerako jardueretakoek % 1,2 eta transferentziek % 4.

Sexuen arabera, banaketa desberdina ageri da gizonen eta emakumeen artean. Gizonek, batez beste, 25.696 €-ko errenta lortu dute. Emakumeek, aldiz, 15.578 €-koa.

Errentak 18 urte eta gehiagokoen artean banatzeari dagokionez, % 60,3k EAEko batez bestekoa baino errenta pertsonal txikiagoa du (20.433 €), baina kontuan hartuta talde horretan 2016an errentarik jaso ez duten pertsonak daudela sartuta (% 13,1); kontrako muturrean, biztanleriaren % 11,6ak batez bestekoa bi halako errenta du, hots, 40.800 € baino pixka bat gehiago.

Aldi berean, adin-talde horretako % 42k 12.000 eurotik beherako errenta pertsonala du, eta % 48,8k 15.000 eurotik beherakoa (kasu bietan errentarik ez duen % 13,1 sartzen da).

Bestalde, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren Kanpo-inbertsioen Erregistroko datuen arabera, atzerriko inbertsioak EAEn % 64 egin zuen behera 2017 eta 2018 urte bitartean, atzerriko balioak dituzten enpresak deskontaturik (ABDE). Hortaz, EAEk 969,3 milioi euro jaso ditu orotara. Hala, EAEk hirugarren tokia du inbertsioen bolumenean, Madrilen eta Kataluniaren atzetik. Sektoreen ikuspegitik, bereziki nabarmenak dira guztizkoan duen pisuagatik honako hauetan eginikoak: Motordun ibilgailuen eta garraioko beste material batzuen fabrikazioa, Elikagaiak, Edariak eta tabakoa eta Finantza-jarduerak eta –asegurukoak. Lurralde ikuspegitik begiratuz gero, inbertsioaren azken titularra bizi den herrialdea ELGAko herrialde batean kokatzen da kasuen % 99,3tan. Zehatzago, % 31,5 28ko EBkoa da, % 34,4 AEBetakoa eta % 32,5 Mexikokoa.

Bestalde, Atzerriko euskal inbertsioa, ADBE kenduta, 942,5 milioi eurokoa izan zen 2018an, hots, % 51,8ko jaitsiera aurreko urtearen aldean. Hala, EAE bosgarren tokian da AAEEn rankingean atzerrian eginiko inbertsioan. Hauexek ditu aurretik: Madril, Katalunia, Kantabria eta Valentziako E. Sektoreen aldetik, hauexek nabarmentzen dira Motordun ibilgailuen eta garraioko beste material batzuen fabrikazioa; Elikagaiak, edariak eta tabakoa; Industria kimikoa eta kautxuaren eta plastikoaren eraldaketa; eta Finantza- eta aseguru-jarduerak: Lurraldeen arabera, EAEko inbertsioa ELGAko herrialdeetara bideratzen da kasuen % 42tan. % 39,4k 28ko EBko herrialdeak ditu helmuga (gehienbat Polonia, Zipre eta Erresuma Batua), eta % 44,7k Latinoamerika (bereziki, Uruguai, Guatemala eta Mexiko). Beste garrantzitsu bat Indiara bideratzen da (% 6,5).

Ekoizpen-azpiegiturei dagokienez, nabarmendu nahi dugu Estatuko erakunde publikoek (AENA, ADIF, PUERTOS eta RENFE) ingeniaritza zibilean EAEn eginiko esleipenei buruzko datuek (Sustapen Ministerioak argitaratuak) jaitsierak erakusten dituztela 2017 eta 2018 bitartean, AENAren kasuan izan ezik. Hala, ADIF Estatuko Sozietate Publikoak (Tren-azpiegituren Administratzailea) ingeniaritza zibilean EAEn eginiko esleipenek gora egin zuten, 16,6 milioi eurotik 400,8 milioi eurora; PUERTOSek eginikoak, berriz, 42,2 milioi eurotik 11,9 milioi eurora, RENFEk eginikoak 1,2 milioitik 0,4 milioira. AENArena, aldiz, 20,7 milioi eurotik 10,4 milioi eurora igaro da.[52]

Garraioaren azpiegiturei dagokienez, gure Erkidegoko errepide sarearen % 15 baino gehiago ahalmen handiko errepideak dira. Estatuan, berriz, % 10,4 da. Bidesaridun autobideak ahalmen handiko errepideen % 40,9 dira, eta estatuan, berriz, % 17,7 dira.

EAEko hiru aireportuetatik, 2018. urtean, guztira 5,9 milioi bidaiari igaro ziren (% 92,7 Bilboko aireportutik), hots, % 10,5eko igoera 2017ko datuen aldean. Salgaien trafikoari dagokionez, % 1,5 egin zuen gora aldi berean, eta guztira 63,4 Tm bildu ditu. (% 98,1 Gasteizko aireportuan erregistratu da).

[52] *ADIFek egiten ditu EAEn Abiadura Handiko Linea osoko azpiegitura obrak (trenbideko obra).*

Itsas garraioari dagokionez, 2017 eta 2018 bitartean, portuko trafikoa (salgaiak, hornidura eta arrantza) %4 hazi zen Bilboko Portuan, eta guztira 35,7 milioi Tm izan ziren. Horietatik 25,2 milioi ontziratu gabe ziren, eta azken horietatik %81 (20,5 milioi Tm) likidoak. Bestela esanda, garraiaturiko salgaien % 57,4 ontziratu gabeko likidoak dira, gehienbat petrolioaren produktuak.

Bestalde, energiari buruzko zenbait datu ematen dituzte: oinarrizko energiaren ekoizpen propio urria (483 Ktep 2017an), EAEk energiaren aldetik duen eskariaren % 7,5 betetzeko lain besterik ez. Hala, EAEren mendekotasun energetikoa % 92,5ean kokatu zen, eta portzentaje hori Estatukoa (% 72,4) eta 28ko EBko batez bestekoa (% 54) baino nabarmena handiagoa da. Adi berean, iturri berriztagarrietan oinarrituriko ekoizpenari esker (458 Ktep), barne kontsumo gordinaren % 7,1 bete ahal izan zen (6.440 Ktep); hots, energia berriztagarriek barne kontsumo gordinean duen partaidetza-ratioa askoz txikiagoa da Estatukoa eta 28ko EBkoa baino (% 14, eta % 13 2016an) eta Euskadiko 2020 Energia Estrategian (3E2020) gure Erkidegorako ezarritako %14ko helburutik urruti.

Energiaren intentsitateari dagokionez 2017an 7 puntu txikiagoa izan zen 2009an baino. 2016aren aldean, % 2ko beherakada izan zen, kontsumoak 6 puntutan egin baitzuen gora BPGd-aren %3ko hazkundean.

Energiaren fakturari dagokionez, amaierako kontsumitzailearen energiaren kostua % 9,8 handitu zen 2017an lau urtean murrizketak izan ondoren, orotara 5.468 milioi euro. Kostu horretatik, % 50 garraioaren sektoreari dagokio, % 21 industriari, % 16 bizitegien sektoreari, % 16 zerbitzuen sektoreari eta %1 lehen sektoreari. 2016 eta 2017 bitartean, % 14,7 egin zuen gora energiaren kostuak garraioan, % 12,9 lehen sektorean, % 6,8 etxebizitzaren sektorean, % 6,4 industrian eta % 1,1 zerbitzuetan.

EAEko sektore publikoari dagokionez, lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailaren "*Aurrekontu-betearazpenaren estatistika*"ren arabera, Eusko Jaurlaritzak eta hiru Foru Aldundiek 2018an, guztira, likidaturiko 17.331,6 milioi euroko diru-sarrerak izan zituzten, hots, % 4,2ko hazkundea aurreko urtearen aldean, hain zuzen ere honako hauek uztartu izanagatik: zuzeneko zergen bilketaren igoera handia (+% 11,3) eta zeharkako zergen ustezko beherakada (-% 1,5); 2017an, berriz, hazkundea gertatu zen 2007-2016 aldiko kupoaren likidazioagatik. Bi partidak Euskal Sektore Publikoko sarreren % 86,3 ziren 2018an. Bestalde, eta aurreko bi ekitaldietan ez bezala, % 25,4ko igoera izan da finantza-pasiboen aldakuntzan, zorpetze handiagoarekin lotuta, baina soilik Eusko Jaurlaritzaren aldetik (+% 30,6), zeren eta Foru Aldundiek negatiboan jarraitzen baitute (-% 1,7).

Sarreren gorakada bi administrazioetan gertatu da; izan ere, Eusko Jaurlaritzaren kasuan % 3,8koa da. Foru Aldundietakoa, berriz, % 2,5eko hazkundea da. Balantze gisa esan daiteke Euskal Sektore Publikoaren sarreren multzoak, Erkidegoko BPGd-arekiko, hamarren bateko gehikuntza izan zuela 2017aren aldean, % 22,6raino.

Zerga Itunduen barruan, zuzeneko zerga eta zeharkako zerga gehienak sartzen dira, eta guztizkoaren % 90etik gora. Hala, 2018an, 14.473,9 milioi euro bildu ziren, aurreko ekitaldian baino % 3,5 gehiago, eta 2018ko urriko aurreikuspenaren gaineko betearazpena % 101,9 izan zen (Aurrekontuen % 104,1). Alabaina, komeni da gogoraraztea desitxuratuta dagoela urte arteko alderaketa, arestian esan bezala, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren 2017ko maiatzeko akordioek 2017ko bilketan izandako eraginagatik. Izan ere, akordio horien bidez, 2008-2016 aldiko kupoak arautu ziren. Ondorio hori aparte utzita, 2018ko bilketa 1.107,5 milioi euro gehiago izango ziren eta % 8ko hazkunde-tasa izango zuen.

Guztira, bildutako bolumen osoa 14.981,5 milioi euro da. Zenbateko hori EAEko BPG arruntaren %19,6 da 2018. urtean (2017ko ratio bera). Bilketa horrek dagoeneko bigarren urtez jarraian gainditu ditu 2007ko kopuruak krisi ekonomikoa hasi zenetik. Guztizko horretatik % 36,1 PFEZri dagokio, % 39 BEZari (kudeaketa propiokoa eta barne eragiketen eta aduanen ziozko doikuntzakoak), % 9,9 Sozietateen gaineko Zergari eta gainerako % 15 hainbat Zerga Bereziri.

Bestalde, Euskal Sektore Publikoaren gastu osoa (Tokiko erakundeak alde batera utzita), 2018an, 16.652,3 milioi euro izan zen, hots, % 3,2ko hazkundea izan zuen 2017aren aldean, halako moldez non magnitude horrek EAEko BPGd-an duen portzentajeak hamarren bateko jaitsiera izan baitu, % 21,8tik % 21,7ra. Gastuaren bilakaera positiboa izan da bai Eusko

Jaurlaritzan (+% 4,6) bai foru aldundietan (+% 1), eta agregatuaren aldakuntza % 3,2koa da, zeren eta zenbait partida erakundeen artean konpentsatzen baitira (transferentzien zati bat, esate baterako).

Gastuen kapituluen arteko aldakuntza esanguratsuenek zenbait ezberdintasun dituzte aurreko urteekiko. Lehenik eta behin, langileria gastuek 2017an baino puntu bat gutxiago egin dute gora (+% 1,5), eta neurri txikiagoan Aldundietan (+% 3,3) Gobernuan baino (+% 1,1). Aldi berean, ohiko transferentziek aurreko bost urteetako joera positiboa hautsi eta, oro har, % 1,4 egin dute behera (-% 3,6 Eusko Jaurlaritzan, baina Foru Aldundiek joera positiboari eusten diote, +% 1,1). Benetako inbertsioei dagokienez, 2017an jaitsiera izan ondoren (-% 0,3), Gobernuan (-% 11,8) eta Foru Aldundietan (+% 15,5) bilakaeraren emaitza agregatuaren ondorioz, hazkunde handia izan zuen 2018an (+% 7,1), Foru Aldundietako joera positiboa indartu izanagatik (+% 26,6), Eusko Jaurlaritzak negatiboak jarraitzen baitu (-% 11,6).

Eusko Jaurlaritzaren gastuari erreparatuta, 2018ko aurrekontuko kopuruen arabera (2019ko maiatzean eguneratua), % 7 egin du gora 2017an betearazitako gastuaren aldean. Bi sail nagusiak, gastu bolumenaren arabera, Hezkuntza eta Osasuna dira orain ere, gastu osoaren % 23,7 eta % 31,9 hurrenez hurren. Gastua, orotara, 11.586 milioi euro da, gure Erkidegoaren BPGd-aren % 15,1.

Bestalde, Herri-dirubideen Euskal Kontseiluak berriki egin duen azterlanari esker, 2015eko zifrak erabiliz, Herri Administrazioek (Gobernua, Aldundiak eta tokiko erakundeak) bateratutako gastuaren banaketa zein den jakin daiteke eremuen eta programen arabera. Egiaztatu denez, hiru erakunde mailen eskumenen eratxikipena politiken araberako gastuaren banakapenean zehazten da. Eusko Jaurlaritzari dagokionez, Osasunak eta Hezkuntzak, esan bezala, gastuaren erdia baino gehiago biltzen dute (% 34,3 eta % 26,4 hurrenez hurren). Bestalde, Foru Aldundietan, gastuaren herena baino gehiago Gizarte Zerbitzuei eta gizarte sustapenari dagokie (% 34,3), azpiegituretarako erabilitakoa bi halako baino gehiago (% 15) eta zorpetzearen hiru halako (% 11,7). Azkenik, EAEko tokiko erakundeek, batez beste, bere gastuaren % 75 baino gehiago zazpi politiketarako erabili dituzte: Gizarte ongizatea (% 15,8), Zerbitzu orokorrak (% 13,8), Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena (% 12), Etxebizitza eta hirigintza (% 10,7), Kultura (% 9,7), Segurtasuna eta herritarren mugikortasuna (% 8,9) eta Kirola (% 5,4).

Halaber, Herri Administrazioen agregatuaren programak taldekako banakapenari esker ikus daiteke gure Erkidegoko gastu publikoa zein arlotarako erabiltzen diren. Lehenbiziko biek, berez, gastuaren ia herena biltzen dute: Ospitaleak, laguntza zerbitzuak eta osasun zentroak (% 18,4) eta Gizarte ekintza (% 11,7) dira. Ondoren, hauexek, ordenan: Zor publikoa (% 8,4), Bigarren hezkuntza eta Lanbide heziketa (% 6,8), Haur eta lehen hezkuntzak (% 6,4), Segurtasuna eta ordena publikoa (% 4,8), Administrazio orokorra (% 4,3), Farmazia (% 3,2), Trena eta metroa (% 2,4) eta Unibertsitate-irakaskuntza (guztizkoaren % 2,1).

Bestalde, 2017an Euskal Sektore Publikoaren (Jaurlaritza gehi foru aldundiak) sarrera arruntak %2,7 igo direnez izaera bereko gastuak %0,2 jaitsi diren bitartean, %28,1 hazi da aurrezki gordina, hau da, 1.963,9 milioi euro guztira. Zenbateko horrek gure erkidegoko BPGd-aren %2,6 hartzen du. Horrez gain, 832,2 milioi euroko (BPGd-aren % 1,1) superabit publikoa izan da (finantzatzeko ahalmena), finantzakoak ez diren gastuak (ohikoak gehi kapitalekoak) txikiagoak baitira horrelako sarrerak baino. Aurreko ekitaldian, superabita izan zen, orduan 410 milioi eurokoa (+% 103).

2018ko Aurrekontu Betearazpeneko Estatistikak erakusten du EAEko sektore publiko osoaren (Eusko Jaurlaritza gehi foru aldundiak) zorpetze garbia nabarmen jaitsi zela laugarren urtean jarraian. Bestalde, zorpetze gordina %25,4 handitu da, eta orotara 1.457,9 milioi eurokoa da. Horietatik 1.273,7 milioi Eusko Jaurlaritzari dagozkio (+%30,6 2017aren aldean) eta gainerako 184,2 foru aldundiei (-%1,7). Zorpetze handiago horrekin batera, ordea, zorraren amortizazio handia dago (1.483,5 milioi euro, eta horietatik 1.215 Eusko Jaurlaritza dagozkio). Hori dela-eta, zor bizia ez da handitu ekitaldiaren bukaeran. Hala, ekitaldiaren bukaeran, Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek 11.384,5 milioi euroko zor bolumena dute, 2017an baino % 0,2 gutxiago (BPGd-aren % 14,9). Horrela, beste urtebetez, zorrik handiena Eusko Jaurlaritzak dauka (osoaren % 83,4).

Eta azkenik, enplegu publikoari dagokionez, EAEko herri administrazioek 134.400 enplegatu zituzten 2017ko abenduaren 31n[53], EUSTATen *"Herri Administrazioen Direktorioa"*ren arabera. Hots, aurreko urtean baino % 1,9 eta EAEk landun guztien % 14,6 2017ko laugarren hiruhilekoan (2015eko eta 2016ko ratio bera).Datu horietan ez da kontuan hartu Estatuko administrazioaren eta Gizarte Segurantzaren sistemako langileen kopurua, baina Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioak, 2018ko urtarrileko bere buletinean eginiko zenbatespenen arabera, Estatuko herri administrazioak egun horretan 10.746 langile zituen EAEn.

Bi kopuruok batuz gero, 2017ko amaieran, 145.186 lagun ziren (+% 1,5 aurreko urtearen aldean)[54]. EUSTATen kopuruak berriz ere aztertuta, 2017ko abenduan ziren 134.440 enplegatu publikoetatik % 65,6 EAEko administraziokoa zen, % 19,4 tokiko erakundeetakoa, % 7,9 foru aldundietakoa eta gainerako % 7,1a unibertsitatekoa, fundazioetakoa eta beste erakunde publiko batzuetakoa. Bestalde, funtzionarioak langile guztien % 62,1 ziren, % 37 lan-itunpeko pertsonala zen, kasu bietan Osakidetzaren estatutuetako pertsonala barne; % 0,9 goi-mailako kargudunak ziren. Gainera, pertsonal finkoa (funtzionarioak, lan-itunpekoak eta estatutuetakoak) pertsonalaren % 59,4 zen, % 15,9 bitarteko funtzionarioak ziren eta % 23,8 aldi baterako lan-itunpeko pertsonala zen.

I+G+B jarduerak dagokionez, 2017an, EUSTATen arabera, 1.363,2 M€ (+% 5,6 2016aren aldean) inbertitu ziren I+G jardueretan EAEn, hots, bigarren urtez jarraian izan dira hazkunde-balio positiboak. Lurralde historikoen arabera, gastuaren % 11,9 Araban egin zuten, % 45,3 Bizkaian eta % 42,8 Gipuzkoan. Esfortzuaren aldetik, BPGd-aren % 1,85 da; hots, ehuneko 4 hamarreneko hazkundea 2016. urtearen aldean. EINek % 1,88ko ratioa erregistratu zuen EAErako eta, beraz, estatuko batez bestekoaren gainetik (% 1,2) dago gure Erkidegoa.

Iturria edozein delarik, eurogunean izandakoa baino txikiagoa da esfortzua, % 2,17, eta arlo horretako erreferentziako herrialdeen azpitik: Suedia (% 3,33), Austria (% 3,16), Danimarka (% 3,06), Alemania (% 3,02), Finlandia (% 2,76), Belgika (% 2,58), Frantzia (% 2,25, 2016ko datua) eta Islandia (% 2,3) eta Norvegia, EUSTATen arabera.

Gastua egikaritzeari dagokionez, enpresek % 75,1 egikaritu zuten, %17,4 goi-mailako hezkuntzan, eta gainerakoa, %7,5a, administrazioaren mende dauden erakundeetan. Egitura hori ez dator bat Estatuan dagoenarekin; izan ere, %54, %27,1 eta %17,8ko ehunekoak daude bertan, hurrenez hurren. Hala, enpresen arloa da orain ere gastu gehien egikaritzen duena, baina galera txikia izan du parte-hartzean duen ehunekoan (% 75.4tik % 75,1era 2016an gora egin ondoren).

Gastu horren finantzaketari dagokionez, sektore pribatuak duen parte-hartzeak behera egin du, % 55,7tik % 54,7ra (Europako helburutik 11,3 puntura, hots, I+G jardueren gastuaren % 66 funts pribatuekin finantzatzea). Herri administrazioak % 33,6 finantzatzen du, 2016aren antzeko ratioa (% 33,5). Estatuan, EINen arabera, sektore pribatuak proportzio txikiagoa finantzatzen du (% 47,7) eta herri administrazioak % 38,9. Eurogunean, EUROSTATen datuei jarraiki, 2016an kopuruak % 57,6 eta % 31,9koak izan ziren, hurrenez hurren. Herrialdeotan I+G arloko gastuaren finantzaketa pribatuaren ratioa oso handia da: Japonia (% 78), Txina, Hong Kong izan ezik (% 74,7 2015ean), Hego Korea (% 74,5), Eslovenia (% 69,2), Alemania (% 65,2), AEB (% 64,2), Danimarka (% 59,1 2015ean), Suedia (% 57,3 2015ean), eta Finlandia (% 57).

Hala, sektore pribatuak eta sektore publikoak finantzaturiko I+G BPGd-aren %1,01 eta %0,62 dira hurrenez hurren, 2016ko ratio berak. Europako helburuak % 2 eta % 1 dira 2020rako.

LOEren I+G jardueretako enplegatu kopuruak (18.577,2 lagun: enpresa sektoreko enplegatu guztien % 70,8, % 22,3 goi mailako irakaskuntzan eta % 6,9 administrazioan) berriz ere behera egin du -% 3,8 2016aren aldean. Sexuaren araberako azterketak agerian uzten duenez, jarduera horietan diharduen langile guztien % 35,8 emakumeak dira (aurreko urtean baino 2 ehunen gehiago).

[53] *Lanaldi osoko lanpostuen baliokideko pertsonala.*

[54] *Hala ere, soilik zenbatespentzat hartu behar da zifra hori, erabilitako metodologiak eta erreferentziako datuak direla eta.*

Bestalde, enplegatu ikerlarien kopuruak gora egin du kopuru absolutuetan eta erlatiboetan. Kopuru absolutuetan, % 5,8 hazi zen 2016 eta 2017 bitartean, eta % 30,8 nabarmena 2008tik. Bestalde, ikerlarien ehunekoak gora egin du I+G-ko langile guztiekiko: % 66,6tik % 67,9ra 2016 eta 2017 bitartean.

Orain, enpresa-sektoreko I+G-ko adierazleak aztertuko ditugu, betiere Zientzia eta Teknologiako Euskal Sareko zentroak alde batera utzita. Lehenik eta behin, 1.312 enpresak egin zituzten I+G jarduerak (Zientzia eta Teknologiako Euskal Sareko zentro teknologikoak alde batera utzita) 2017an, hots, % 4,5eko igoera, eta horietatik 600 industria-sektorekoak dira (2016an baino 23 gehiago, +% 4).

Jarduera horietako lanaldi osoko enplegatuei (LOE) dagokienez, gora egin du, 9.857,3 izatetik 10.265,6 izatera, hots, enpresaren sektoreko enpleguaren % 1,1 (ZTESko zentro teknologikoak aparte). Eutsi egiten zaio ratio horri 2016koaren aldean. Adar handietan banakatuta ikusten denez, industriako enplegatuaren % 2,6k I+G jardueretan dihardu, aurreko urteko ratio bera.

Jarduera horietako enpresek eginiko guztizko gastua, aldiz, handitu egin da 2016 eta 2017 bitartean: % 5. Hau da, 799.792 mila euro.

Testuinguru horretan, nabarmentzekoa da I+G egiten duten euskal enpresen batez besteko tamaina handia; izan ere, 77 langile dira, euskal enpresaren multzoaren batez besteko tamaina baino askoz handiagoa (5,7 lagunekoa).

UPV/EHUren ikerketari dagokionez, 2017an, Eusko Jaurlaritzaren ikerketa-taldeen partida guztizkotik kendua (talde horien deialdia ez baita urtero izaten), UPV/EHUk eginiko ikerketan 56,4 milioi euro erabili ziren, hots, % 6,2ko igoera aurreko urtearen aldean. Gehienak (% 46, 26,1 milioi euro) ikerkuntza proiektuei dagozkie, eta ondoren, prestakuntzarako pertsonalaren funtsak datoz (% 27,4, 15,5 M€) eta Unibertsitatea Antolatzeko Legearen (LOU) 83. artikuluaren itzalpean sinaturiko kontratuak, hots, funts guztien % 16,6 (9,3 M€).

Funtsen jatorriari dagokionez, 2016an eta 2017an finantzaketa propioa (programa kontratuaren bitartez), autonomiakoa eta estatukoa dira hiru iturri nagusi. 2017an, guztizkoaren % 24,4, % 22,9 eta % 20,4 dira hurrenez hurren. Zehatzago, 14,2, 13,4 eta 11,9 M€. Arlo zientifikoen arabera, I+G+b jardueretako gastua batez ere zientziei eta ingeniaritzari eta arkitekturari dagokie.

Enpresen berrikuntzako jarduerei dagokienez, EUSTATen "Berrikuntzari buruzko inkesta"ren arabera, 2014-2016 eta 2015-2017 aldietan 4 hamarrenetan egin zuen behera enpresa berritzaileen kopuruak. Hala, 2017an enpresen % 16 ziren berritzaileak (% 10,9 berrikuntza teknologikoarekin eta/edo berrikuntza EZ teknologikoarekin). Soilik 10 langile edo gehiagoko enpresak aintzat hartzen baditugu, enpresa berritzaileen (teknologikoak eta ez teknologikoak) % 32,6raino handitzen da (aurreko aldian baino % 1,4 gutxiago). % 27,3k berrikuntza teknologikoa egiten du eta % 19k berrikuntza EZ teknologikoa.

10 langile edo gehiagoko enpresen % 63,9k uste du berrikuntza teknologikoa zailtzen duten faktoreak daudela, bereziki ekonomikoak (arrisku ekonomiko handiegiak, berrikuntzak dakartzan kostu handiak eta finantzabiderik eza). Zenbait barne-faktore ere aipatzen dute hala nola erakundearen zurruntasuna, gaituriko langilerik eza edo teknologiari edo merkatuei buruzko informaziorik eza.

Berrikuntza teknologikoa duten enpresen analisiari gagozkiola, enpresa horiek berrikuntza teknologikorako eginiko jardueren gastuak % 5,7 egin zuen gora 2016 eta 2017 bitartean, eta guztira 2.668,1 M€-koa zen, hots, BPGd-aren % 3,6 (aurreko aldiko ratio bera). 10 lanpostuko enpresak aintzat hartuz gero, gastua 2.245,8 M€-koa da, eta hori ere % 5,7 hazi da aurreko urtearen aldean. BPGd-aren % 3 da gastu hori, aurreko urteko ehuneko bera.

Europako Berrikuntzaren Adierazleen Panela, 2017" delakoak berretsi egiten ditu arestian esandakoak, zeren eta EAEko adierazle sintetikoa 0,48 baita, Estatukoaren gainetik (0,40), baina pixka bat 28ko EBren azpitik (0,50). Hala ere, "berrikuntza maila handiko herrialde"en taldearen barruan dago, EBko 28ko batez bestekoa % 94,7 delako.

28ko EBko batez bestekoaren aldean, EAE lehen blokean nabarmentzen da, hau da, Esparru-baldintzetan (horren barruan daude dimentsio hauek: “Giza baliabideak”, “Ikerketa sistema erakargarriak” eta “Berrikuntzarako ingurune egokia”, abiadura handiko banda zabaleko sareen ezarpena eta ekintzailetza neurtzen dituena). Bigarren blokean (Inbertsioak), nabarmentzekoa da “Enpresen inbertsioa” dimentsioa. Eta hirugarren blokean (Berrikuntzako jarduerak), “Berritzaileak” deritzon dimentsioan nabarmentzen da EAE.

Gainerako dimentsioetan, “Finantzaketa eta laguntza”, “Loturak”, “Aktibo intelektualak”, “Eragina enpleguan” eta “Eragina salmentetan”, lorturiko puntuazioak Europako batez bestekoak baino txikiagoak dira.

“Aktibo intelekual”en kasu zehatzean, 28ko EBko batez betekoa (0,43) baino 0,25 txikiagoa da adierazlea, baita Estatukoa ere (0,31). Beste lurralde eremuekin erkatuta, hauxe ondoriozta daiteke: 1,59 adierazlea duela EAEk BPGko bilioi bakoitzeko EEP patenteen eskarietan (EAP eurotan), 5,94 adierazlea BPGko bilioi bakoitzeko EBko merkataritza-marketan (EAP eurotan) eta 2,24koa PGBko bilioi bakoitzeko (EAP eurotan) EBko diseinuetan, 28ko EBkoen (3,53/7,86/4,44) azpitik dago eta urruti erreferentziako herrialdeetatik; are gehiago, estatuko batez bestekoetatik ere bai EBko marka komertzialetan eta diseinuetan.

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak dagokionez, IKTen ezarpena oso hedatuta dago, bai herritarren artean, bai EAEko enpresa-sarean. Horregatik, bereziki interesgarria da, Memoria honen baitan, IKTek erabileraren aldetik eskaintzen dituzten posibilitateak aztertzea. Izan ere, gure denboraren zati handi bat “on line” ematen dugu eta “Gizarte digitala” bihurtu gara. Aldi berean, enpresek ere ingurune digitalean dihardute.

EINen “Enpresen IKTen eta posta elektronikoaren erabilerari buruzko inkestak” erakusten duenez, 2018ko lehen hiruhilekoan bildutako datuak erabiliz, gure Erkidegoak estatuko batez bestekoaren antzeko datuak ditu Interneteko konexioa duten enpresetan eta hodeiko konputazio irtenbideak (cloud computing) erosten dituzten enpresetan. Bestalde, EAEko ratioak handiagoak dira, estatuko batez bestekoaren aldean, hauexetan: web orria eta Interneteko konexioa dituzten enpresetan (% 6,6 EAEren alde), Interneteko konexioa eta banda zabal mugikorra dituzten enpresetan (% 3,5 EAEn alde), 3D inprimaketa zerbitzuak erabili dituzten enpresetan, bereak edo beste enpresa batzuek emandakoak (+% 3,5) eta robot motaren bat erabili duten enpresetan (+%6,4). EAEko ratioak txikiagoak dira estatuaren aldean honako hauetan: Interneteko konexioa eta izenpe digitala duten enpresetan (-%3,2) eta Big data aztertu duten enpresetan (-%5,2).

Transakzio elektronikoei dagokienez, EUSTATen arabera, 15 urte eta gehiagokoen % 39,7k erosketaren bat egin zuen Internetez 2018ko lehen hiruhilekoan, aurreko urtean baino ratio handiagoa. Bestalde, datu-iturri beraren arabera, enpresa-sareko posta elektronikoak gorantz jarraitzen du kopuru ekonomikoetan. Alabaina, behera egin du merkataritza elektronikoan parte hartzen duten enpresen ehunekoak.

EUROSTATen eta EUSTATen arabera, on line saldu zuten 10 lanpostu edo gehiagoko enpresen ehunekoa (finantza-sektore alde batera utzita) 28ko EBkoa baino handiagoa da (aurrekontuaren % 1 behinik behin), eta eurogunean EAEn baino handiagoa (%18 eta % 11,9); on line erosi zuten enpresen ehunekoan (eskarien %1 gutxienez) ez dago hain alde handia (%25,8 EAEn eta % 26 28ko EBn eta % 27 eurogunean).

Administrazio elektronikoari dagokionez, eta Eusko Jaurlaritzaren “2016ko Zerbitzu Publikoari eta Elektronikoari buruzko Estatistika“ren arabera, EAEko administrazioek eta sektore publikoak eskainitako 33.341 zerbitzuen, prozeduren eta izapide elektronikoen % 63,8 udal eskainitakoak dira (21.270). Ondoren Eusko Jaurlaritza dago (Administrazio Orokorra), % 11,7arekin; sozietate publikoak, % 6,7arekin; UPV-EHU, % 5,6arekin; foru aldundiak, % 4,8arekin eta erakunde autonomoak, % 3,6arekin. Mankomunitateak, Fundazioak, Partzuergoak, Kuadrillak, Tokiko Erakunde Txikiak, Irabazteko Asmorik Gabeko Erakundeak eta beste Erakunde Publiko batzuk dira gainerako % 3,7a.

2010 eta 2016 bitartean, 4,5ekin biderkatu zen EAEko administrazio guztiek eta sektore publikoak Internetez eskainitako zerbitzuen, prozeduren eta izapideen guztizkoa.

Herri erakunde guztiek eskainitako prozeduren eta izapideen bi heren baino gehiagori esker, dagoeneko izapidetze elektroniko osoa egikaritu daiteke. Hala, prozedurei eta izapideen azterketari lotuta ikusten denez, 2016. urtean, EAEko erakunde publikoek eskainitako prozedura eta izapide publiko elektronikoen % 71,4k 4 motako sofistikazio maila du –izapidetze elektroniko osoa-.

Datu iturri beraren arabera, EAEko herri erakundeek eskainitako prozeduren eta izapideen % 66,8 egin zitekeen bitarteko elektronikoak erabiliz (osorik) 2016. urtean. 2010ean % 27,3 zen. Zehatzago, 2016an, Foru Aldundiak, Unibertsitate Publikoa eta Sozietate Publikoak batez bestekoaren azpitik zeuden, eta Udalak, Eusko Jaurlaritza eta Erakunde Autonomoak, berriz, gainetik.

Administrazio elektronikoaren erabilera aztertuko dugu orain. EUSTATen arabera, % 90etik gorakoa da Herri Administrazioarekin izapide elektronikoak egiten dituzten enpresen portzentajea. Izapidetze hori zuzenean egin daiteke, hirugarrenen bitartez (aholkularitza enpresak...) edo bi prozedurak erabiliz.

Enpresak administrazioarekin egiten duen izapidetze motari dagokionez, hauexek nabarmentzen dira establezimenduetan: BEZa aitortzea (guztizkoaren % 74,6), informazioa eskuratzea (% 66,5), inprimakiak eta formularioak eskuratzea (% 65,1), langileen kotizazio sozialak aitortzea (% 57,5) eta sozietateen gaineko zerga aitortzea (%57,1). 10 langile edo gehiago dituzten establezimenduei dagokienez, hauexek nabarmentzen dira: informazioa eskuratzea (horrelako establezimenduen % 87,3), inprimakiak eta formularioak eskuratzea (% 84,5), inprimakiak eta formularioak beteta itzultzea (% 80,2), BEZa aitortzea (% 75,6), enplegatuen kotizazio sozialak aitortzea (% 75,6) eta sozietateen gaineko zerga aitortzea (% 75,4).

Horrelako izapideak egiteko Interneteko konexioa duten establezimenduek erabilitako administrazioari dagokionez, hauexek nabarmentzen dira: Foru Aldundiak (% 83,5) eta Administrazio Zentrala (% 67,6), portzentaje horietan zerga nagusien gainean dituzten eskumenak barne direla. Jarraian, Eusko Jaurlaritza ageri da (% 48,7), eta ondoren tokiko erakundeak (% 26,5) eta Europar Batasunekoak eta bestelakoak (%8,8). Portzentaje horiek berriz ere handiagoak dira 10 langile edo gehiagoko establezimenduak bakarrik hartzen baditugu kontuan.

Bukatzeko, herritarrek administrazio elektronikoa erabiltzeari dagokionez, e-Administrazioaren Barometroaren datuek erakusten dutenez, EAEko 16-74 urtekoen % 45,3k erabili zituen herri administrazioek herritarrekin jarduteko eskaintzen dituzten aukeretako batzuk, 2016ko datuen arabera.

8.2. ONDORIOAK

Azterturiko datuek erakusten dutenez, 2018. urtea positiboa izan da euskal ekonomiarentzat. Izan ere, hazkundea izan da haren jardueran, eta hori lanpostuen gehikuntzan ere islatu da. Alabaina, EAEko ekoizpenaren gehikuntza eurogunekoa eta estatukoa baino handiagoa bada ere, goranzko indarra moteldu egin dela ikusten da, eta ezin ahantzi dezakegu agertoki globalean oraindik arriskuak badirela.

Brexit-aren azken akordioaren eta autogintzaren sektoreko igorpenei buruzko araudi berriaren gaineko zalantzak kaltegarriak izan dira nazioarteko merkataritzarako, ekonomia eragileen igurikapenetarako, inbertsiorako eta euskal industriaren ekoizpenerako. Zain egon behar dugula deritzogu, horrek guztiak euskal enpresen esportazioetan izan ditzakeen ondorioengatik.

Halaber, tentuz ikusten ditugu nolabait eremu ekonomikoen arabera izandako jokabide ekonomiko desberdinak, eta egoera hori finantza-merkatuetan islatu da. Kezka agertu behar dugu zenbait ekonomiatan hartzen ari den joera protekzionista ikusita, bereziki AEBetan.

Ekoizpen-azpiegiturei dagokienez, beste urte batez ohartarazi behar dugu gure mendekotasun energetikoaz, zeren eta arazo larria baita herrialde baten lehiakortasunerako eta ekonomiaren iraunkorretarako. Ildo horretan, komenigarria izango litzateke energia berriztagarrien eta ordezkoen partaidetza areagotzeko neurriak hartzea.

Mendekotasun hori are handiagoa da EBko eta estatuko batez bestekoa baino, eta luze eta zabala ezagutarazi beharko litzateke, oro har herritarrek eta euskal administrazio publikoak partaidetza handiagoa izan dezaten alde horretan eta egungo energia eredua berriz azter dezaten. Batzorde honen iritziz, premiazkoa da trantsizio energetikoko programa estrategikoa lantzea, arazoa konpontzeko, baita horrek dakarren faktura energetikoaren arazo kezkagarria ere.

Bestalde, MSEren aurreko edizioetan azaldu izan dugunez, Garraiorako azpiegituren eskaintza zabala dago, datozen urteetan handitzeko joera duena eta, beraz, zentzuzkoa izango litzateke erakunde guztiek koordinatuago jardutea azpiegitura horien erabileran, eraginkorra izan dadin. Hots, komenigarria izango litzateke garraio-sare eraginkorra egituratzen jarraitzea, lurralde historiko guztietan berdintasunezko salneurria ekarriko dituena hain zuzen ere.

EAEko sektore publikoari dagokionez, lehenik eta behin Batzorde honek nabarmentzen du 2018. urtean bide onetik joan dela 2017ko Memorian igarritako herri finantzen susperraldia, indartu egin dela, eta beste urte batez diru-bilketa handiagoa izan da. Horrez gain, krisiaren aurreko kopuruak gainditu ditu gehikuntza horrek.

Zuzeneko zergen bilakaera positiboa aipatu nahi dugu (+% 10,2) eta, bereziki, Sozietateen gaineko Zerga (+% 32,8), horrela 2017ko emaitza onak finkatu baitira. Kopuru horiei esker, beste urte batez bateragarriak izan dira gastu publikoa eta defizitaren arloko konpromisoak betetzea. Izan ere, aurrekontuko superabitak gora egin du.

Horrez gain, benetako inbertsioen susperraldia gertatu da aurten, funtsezkoak baitira herrialdearen garapenerako, ondo bideratuta daudenean. Alabaina, azken urteetako bilakaera negatiboa ikusita, beharrezkoa izango da aurrekontuen aldetik ahalegin handiak eta etengabeak, bereziki Eusko Jaurlaritzarena, krisiaren aurreko inbertsio mailak berreskuratu ahal izateko.

Azkenik, aurten zor publiko bizia kontrolatu izana nabarmendu behar du, zeren eta izandako zergapetze handiarekin batera amortizazio nabarmena ere izan baita. Ildo horretan, jardueraren eta horrekin lotutako diru-sarrera publikoen susperraldiarekin, sektore publikoak zorpetzea gutxitzeko bidean aurrera egin izana balioesten dugu. Aldi berean, maniobra-marjina handiagoa izango da etorkizunean ziklo ekonomikoaren balizko beherazko aldietan. Hala ere, horrek ez du zerbitzu publikoen kalterako izan behar. Haien artean, Hezkuntza eta Osasuna nabarmentzen dira, herritarrei ematen zaizkiena, edo inbertsio publikoa.

I+G+B jarduerak dagokienez**,** Bigarren urtez jarraian, I+G jardueretako gastuak gora egin du kopuru absolutuetan, eta positiboa dela deritzogu. Esfortzuaren aldetik ere igoera izan da, eta horrek I+G-rako finantzaketaren helburuak lortzeko bidean jartzen gaitu.

Alabaina, ez dago alde nabarmenik EAEren eta eurogunearen egoeren artean I+G-ko gastuaren finantzaketak sektore publikoaren eta sektore pribatuaren artean duen banaketan, baina ohartarazi behar dugu finantzaketa pribatuak duen pisua txikiagoa dela EAEn I+G-ren arloan eredugarriak diren herrialdeetan baino. Alde hori nabarmena da ere, kasu honetan kontrako zentzuan, estatuko batez bestekoarekiko.

Ildo horretan, aurreko edizioetan azaldu izan dugunez, baliteke hainbat aldagaik eragin izatea enpresek I+G+b prozedurei ekiteko gaitasun txikiagoa izatean hala nola enpresen tamainak (txikiagoa da EAEn estatuan baino, baina EBn baino txikiagoa). Izan ere, ohartarazi nahi dugu alde handia dagoela tamainaren aldetik Euskadin I+G egiten duten enpresen (77 lagun batez beste) eta enpresa guztien artean (5,7 lagun).

Berrikuntzako jarduerei dagokienez, berriz ere positibotzat nabarmendu behar dugu berrikuntza teknologikorako jardueretako gastuak ere hazkundea izatea. Alabaina, enpresa berritzaileek enpresa guztiekiko duten ratioak berriz ere egin du behera, eta hori kezkagarria iruditzen zaigu.

"Europako 2018ko Berrikuntzako Adierazle Panelak" berretsi egiten ditu arestian esandakoak, zeren eta EAEko erregistraturiko adierazle sintetikoaren balioa estatukoa baino handiagoa baita, baina pixka bat 28ko EBkoaren azpitik dago. Izan ere, lorturiko puntuazioak Europako batez bestekoak baino txikiagoak dira dimentsio hauetan: "Finantzaketa eta laguntza", "Loturak", "Aktibo intelektualak", "Eragina enpleguan" eta "Eragina salmentetan".

Arduratuta gaude gure industriaren maila teknologikoagatik (ertaina-baxua) eta enpresek, 4.0 industria deritzonean sartuta daudela, maila hori igotzeko dituzten arazoengatik.

Ildo horretan, berriz ere esan behar dugu enpresetako berrikuntza eragozten duten faktoreak gutxitu behar direla, nagusiki ekonomikoak eta aldaketarako erretizentzia (I+G-k dakartzan arriskuak ez hartzeagatik), baita I+G jardueretan eginiko inbertsioa emaitzetan islatzea zailtzen dutenak ere. Izan ere, aurreko urteetan bezala, kezkagarria iruditzen zaigu ezen, EAEn I+G jardueretan inbertsio handia egin izan bada ere, badirudi zailtasunak daudela inbertsioa emaitzetan islatzeko, zeren eta baxuak izaten jarraitu baitute aktibo intelektualen adierazleek, berrikuntza-adierazle sintetikoa 28ko EBren antzekoa bada ere (0,48 eta 0,50, hurrenez hurren 2018an).

Azken finean, Espainiako eskualdeen multzoan I+G jardueren arloan liderrak garela ikusita pozik agertu behar badugu ere, jarduera horretan dugun ekarpena irmotasunez handitu behar dugula nabarmendu behar dugu, ez bakarrik lorturiko posizioari eusteko, baizik eta posizio hori hobetzeko ere bai, goi-mailan dauden herrialdeetara hurbilduta (nahikoa urrutik daude), gertatzen ari den berrikuntza teknologikoa gure gizartearen ongizatea hobetzeko aukera bihur dadin.

Informazioaren Teknologiak eta Komunikazioak dagokionez, gure Memoria Sozioekonomikoetan agerian utzi izan dugunez, IKT ekipamenduen zuzkidurak garrantzitsuak dira EAEn, norbanakoaren aldetik zein enpresen aldetik.

Alabaina, ezin ahantzi dezakegu ingurune digitalean murgilduta gaudela, eta arlo horretan, enpresek hobetzeko eremu zabala dute, bereziki cloud computing (konputazioko irtenbideen erosketa hodeian), izenpe digitalaren edo big dataren analisien arloetan.

Posta elektronikoari dagokionez, bide hori erabilita egin diren salmentak gutxiago baliatzen dituzte euskal enpresek Europakoek baino. Ondorioz, baliteke tresna horietan aukerak galtzen ari izatea euskal enpresak azken urteetan modu esponentzialean hazten ari diren salmentetan.

Azkenik, nahiz eta gora egin duen azken urteotan erabat elektronikoki egin daitezkeen prozeduren eta izapideen kopuruak, oraindik badago aurreratzeko eta hobetzeko eremu zabala administrazio elektronikoan eta prozedurak

uztartzeko prozeduran, eta horretarako, hainbat administrazio mailaren parte-hartzea behar da, are gehiago kontuan hartzen badugu ezen, Herri Administrazioetarako Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen ondoriozko administrazio elektronikoari buruzko xedapenak indarrean sartuta, zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoak erabiliz eskuratzeko modua eman behar zaiela herritarrei.

III. KAPITULUA

Lan-merkatua EAEn

Kapitulu honetan, EAEko lan-merkatuak azken urtean izan duen bilakaerari buruzko zifra nagusiak emango dira lan-merkatuaren hainbat aldetatik. Lehenik eta behin, jardueraren, okupazioaren eta langabeziaren bilakaera aztertuko da, baita gure Erkidegoak Europa mailan aldagai horiekiko duen egoera erlatiboa ere. Jarraian, lan-merkatuaren sarreren eta irteeren balantzea eskainiko da (kontratazioak, aldi baterako kontratuen amaiera eta iraizpenak), baita azken urtean gure Erkidegoan izan diren laneko harremanen balantzea ere, eta soldatei buruzko zifrekin jarraituko da Estatu mailarekin alderatuta.

Kapituluko bigarren zatiaren ardatza enplegu politikak dira: politika aktiboak, langabetuek lana eskuratzea lortzeko eta landunen enpleguari eusteko eta lanbidean promozionatu ahal izateko; politika pasiboak, berriz, langabetuen babes ekonomikora bideratuta, eta bazterketa arriskuan daudelako edo ezintasunaren bat dutelako arreta berezia behar duten pertsonentzako bestelako politika guztiak. Kapituluaren amaieran, Euskadin erreferentziako urtean lan osasunak eman dituen kopuru nagusiak ageri dira.

III.0.1. GRAFIKOA. ENPLEGUAREN BILAKAERAREN ADIERAZLEAK EAE-N: URTE ATEKO ALDAKUNTZA-TASAK.



	I 2015	II	III	IV	I 2016	II	III	IV	I 2017	II	III	IV	I 2018	II	III	IV
G.Segura afiliazioa	1,6	2,0	2,0	2,2	2,1	2,0	1,7	2,0	2,0	2,2	2,1	2,0	2,2	2,1	1,8	2,0
BAI-EIN	2,2	-0,7	1,3	2,3	3,0	4,2	3,6	0,8	-0,3	0,3	-0,3	1,5	2,1	2,8	1,8	1,6
BJA-EUSTAT	1,3	1,8	1,5	1,0	1,0	1,1	1,7	0,9	1,9	2,4	0,6	1,7	0,8	1,8	2,7	2,1

Iturria: EUSTAT, EIN eta Gizarte Segurantzaren datuak erabiliz eginikoa.

Hamabost urtez lanpostuak sortu ondoren, EAEko lan-merkatuan okupazio zifren jaitsiera aldian murgildu zen EAE, eta 2013an hala jarraitu zuen. Ondorioz, 100.000 lanpostu galdu ziren, guztizkoaren %10. 2014an, urte arteko tasa positiboak antzematen hasi ziren estatistika iturriak. 2016an, Gizarte Segurantzako kotizatzaileen kopuruan[1], % 2ko hazkundea zenbatetsi zen laugarren hiruhilekoan. EUSTATen BJAk eta EINen BJAk, aldiz, %1etik beherako kopuruak eskaintzen zituzten. Eta 2017an, berriz ere bukatu zuen %2ko hazkundearekin afiliazioan. BAIk eta BAJk, berriz, % 1,5 eta % 1,7ko hazkundeak zenbatetsi zituzten okupazioan, hurrenez hurren.

2018an, BJArekin bukatu zen, kasu honetan, % 2,1eko ratioarekin. Afiliazioak joera berari eusten dio -% 2 lau hiruhilekoekin alderatuta, +% 1,9 abendutik abendura- eta BAIk okupazio-tasaren hazkunde txikixeagoa zenbatetsi du, % 1,6 2017ko laugarren hiruhilekoaren aldean. Halaber, kapitulu honetako 2. atalean ikusiko denez, lan kontratazioak bost urtez metatu ditu bilakaera positiboak 2014az geroztik aurreko urtekoa baino hazkunde handiagoarekin (+% 4,5, eta +% 3,4 2017an).

Gainera, LANBIDEn erregistraturiko langabetuen kopurua seigarren urtez jarraian jaitsi zen 2018an, eta urtearen amaieran urte arteko -%6,2arekin bukatu zen. Bilakaera on hori gorabehera, langabezian jarraitzen zuten 2018 amaitzean 1519.700 lagun inguruk, eta kopuru hori dirudienez bat dator BJAk bere metodologia aldatu ostean zenbatetsi duenarekin.

[1] *"Kotizatzaile" terminoa erabiltzean, "afiliazio esan nahi dugu, Gizarte Segurantzan alta emanda dauden afiliatuak alegia.*

1. JARDUERAREN OKUPAZIOAREN ETA LANGABEZIAREN BILAKAERA

Atal honetan, gehienbat EUSTATen BJAren, LANBIDEren eta EUROSTATen EEZPren datuak erabili dira nazioarteko erkaketak egiteko eta Gizarte Segurantzakoak afiliazioari buruzko informaziorako. Halaber, garrantzizkotzat jotzen diren lan-merkatuko adierazleei buruz iturri horietan informaziorik izan ez denean, EINen EPAra jo dugu. Azkenik, ez dira kontuan hartzen EUSTATen Hileko Ekonomia Kontuetako (HEK) enpleguari buruzko datuak. Hori begiratzeko, jo beza irakurleak Memoriako "II. EAEko ekonomia" Kapitulura.

1.1. JARDUERA

EUSTATen Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestako (BJA) datuek erakusten dutenez, EAEko biztanleria aktiboa, 2018 bukatzean, 1.044.700 lagunekoa izan guztira, eta horietatik % 52,3 gizonezkoak dira (546.200) eta % 47,7 emakumezkoak (498.500). Ia bi hamarkada lehenago, 2000an, sexuaren araberako banaketa 60/40 zen eta, beraz, agerian gelditu da emakumeek lan-merkatuan duten presentzia erlatiboak gora egin duela.

III.1.1. GRAFIKOA. EAE-KO BIZTANLERIA AKTIBOAREN BILAKAERA SEXUAREN ARABERA. IV HIRUHILEKOAK. (MILAKOAK)



Iturria: EUSTAT. BJA.

Gizonezkoen biztanleria aktiboak nabarmen egin zuen behera 2008 eta 2012 bitartean; izan ere, lanerako aukerarik ezaren ondorioz, lan egiteko adinean zeuden landunen zati handi bat zuzenean jarduerarik ezera igaro zen. Emakumeek, aldiz, lan-merkatuan sartzen jarraitu zuten 2011. urtera arte, eta 2012an baino ez zuen behera egin emakume landunen kopuruak. Bi bilakaera batzearen ondorioz, biztanleria aktiboak gora egin zuen EAEn 2011ra arte. 2012tik eta 2017ra artea -2013an izan ezik, urte horretan % 4,6 hazi baitzen eta inoizko kopururik handienera iritsi baitzen: 1.053.700 landun laugarren hiruhilekoan-, biztanleria aktiboak beherantz jarraitu izan du, neurri desberdinean bada ere.

. 2017. urtean, jaitsiera hori gelditu eta 0 hazkundean izan zen, eta 2018an, berriz, joera-aldaketa izan daitekeena ageri da, zeren eta biztanleria aktiboak % 1,1 egin baitzuen gora, gizonezkoena (+% 1,4) nahiz emakumezkoena (+% 0,8). Kopuru absolutuetan, 11.600 lagun gehiago dira, 4.200 emakume landun eta 7.500 gizon landunen hazkundearen ondorioz (batura ez dator bat +11.600 guztizko kopuruarekin, inkesta honetan "milakoetan" biribiltzen baitira kopuruak).

III.1.1. TAULA. EAE-KO JARDUERA-TASAREN BILAKAERA SEXUAREN ETA ADIN-TALDEEN ARABERA. IV. HIRUHILEKOAK.

		2014	2015	2016	2017	2018
GUZTIRA		**57,5**	**57,3**	**56,4**	**56,2**	**56,6**
SEXUA	GIZONAK	63,2	63,0	61,3	60,9	61,6
	EMAKUMEAK	52,3	52,0	51,8	51,8	52,0
ADINA	16 - 24	28,6	27,5	23,8	21,3	25,8
	25 - 44	91,6	90,5	89,5	89,9	90,6
	45 ETA +	42,6	43,8	44,1	44,5	44,9

Iturria: EUSTAT. "Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta".

EAEko jarduera-tasa orokorra %56,6 zen 2018. urtea bukatzean (2017an baino 4 hamarren gehiago), eta emakumeak %52 ziren (2017an baino 2 hamarren gehiago). Gizonezkoen biztanleria, berriz, %61,6raino igo zen (+7 hamarren). EBn, 2018ko laugarren hiruhilekoan izandako batez bestekoa % 73,8 da (% 79,3 gizonezkoentzat eta % 68,4 emakumezkoentzat), aurreko urtean baino 3 hamarren gehiago.

Jarduera-ratio guztiek gora egin zuten 2018an adin-talde guztietan, intentsitate desberdinekin bada ere: gora egin zuen aurreko urtearen aldean, % 4,5 25 urtetik beherakoen artean (% 25,8, hots, EBko batez bestekoa baino 16 puntu gutxiago), 0,7 puntu 25-44 bitarteko urtekoen taldean (% 90,6) eta 0,4 puntu 44 urtetik gorakoen artean, % 44,9raino.

Krisiaren hasierarekin alderatuta, gazteenen jarduera-tasa 5,8 puntutan egin du behera (%31,6 zen 2008an). 25-44 urtekoen taldean, berriz, 4,9 egin du gora (% 81,7 zen 2008an) eta 13,6 puntutan 44 urtetik gorakoentzat (% 37,6 2008an).

III.1.2. GRAFIKOA. EAE-KO JARDUERA-TASAK SEXUAREN ETA ADIN-TALDEEN ARABERA. IV HIRUHILEKOAK.



Iturria: EUSTAT. BJA.

Datuen gurutzaketa kontuan hartzen badugu sexuaren eta adinaren arabera (III.1.2. grafikoa) ikusten denez, gazteenen taldeko jarduera-tasa 2016an berdintsua zen bi sexuetan. 2017ko amaieran, berriz, ia bi puntuko aldea zegoen bi sexuen artean emakumeen alde. 2018an, gizonezkoen jarduera-tasak emakumezkoenak baino hazkunde handiagoa izan zuenez gero, hamar bateko aldea baino ez zegoen (% 25,7 gizonezkoentzat eta % 25,8 emakumezkoentzat).

Bitarteko adin-taldean ere desberdina izan da intentsitatea sexuaren arabera, zeren eta gizonezkoen tasak 1,3 puntutan egin baitu gora eta emakumezkoenak 3 hamarretan, % 87,6raino. Hala, bien arteko aldea 6,1 punturaino hazi da. 45 urte eta gehiagokoen taldean, badago bien arteko aldea, baina txikiagoa: jarduera-tasa orokorrak 4 hamarreneko igoera izan du gizonezkoen taldean izandako bilakaera positiboari esker (+0,6 puntu 2017aren aldean) eta emakumezkoetan (+0,3). Horrenbestez, emakumeen eta gizonen artean dagoen aldea, adin-talde horretan, handiena da, 11,5 puntukoa, aurreko urtean baino 3 hamarren gutxiago.

Azkenik, eginiko zenbatespenen arabera, 2018ko laugarren hiruhilekoan 891.800 familia zeuden EAEn, eta horietatik 604.000k badute pertsona landunen bat (% 67,7) eta % 32,3k ez du landunik (287.700). Halaber, 520.600 familiak, erdiak baino gehiagok, kide guztiak lanean zituen (% 58,4), eta 33.000 familiatan pertsona guztiak langabezian zeuden, familia guztien % 3,7.

1.2. OKUPAZIOA

1.2.1. Okupazioaren kopuruak

BJAren datuek erakusten dutenez, gure Erkidegoan 2018. urtean enpleguan izandako bilakaeran, okupazio edo enplegu tasa % 68 zen urtearen amaieran (%71,4 gizonentzat eta % 64,6 emakumeentzat), aurreko urtean baino 1,5 puntu gehiago.

III.1.3. GRAFIKOA. EAE-KO OKUPAZIO-TASA SEXUAREN, ADINAREN ETA LURRALDEAREN ARABERA. IV. HIRUHILEKOAK.



Iturria: EUSTAT. BJA.

Lurraldeen arabera, okupazio-tasarik handiena Gipuzkoan dago (% 69,4, eta gainera 9 hamarretan handitu da aurreko urtean), eta ondoren Araban, % 69,2arekin (+2,2 puntu) eta, azkenik, Bizkaiak du tasarik txikiena, % 66,8koa hain zuzen ere (+1,6 puntu).

Bestalde, Europar Batasunak honako helburu hau du ezarria 2020rako 20-64 urte bitarteko pertsonentzat (ez 16-64 urte bitarteko pertsonentzat EUSTATek BJAn argitaratu ohi duen moduan): %75eko tasa. EBko batez bestekoa 2018ko laugarren hiruhilekoan %73,4an kokatu zen (%79,2 gizonentzat eta %67,7 emakumeentzat). 2017ko laugarren hiruhilekoaren aldean, ratio hori 0,9 puntutan hazi da (eta, sexuaren arabera, +0,8 puntu gizonentzat eta +0,9 emakumezkoentzat).

EAEn, eskuragarri ditugun azken datuak 2017koak dira. Urte horretan 20-65 urtekoen okupazio-tasa % 70,2 zen (+1,1 2016aren aldean, eta ratio hori % 74,2 da gizonentzat (+1,3 2016aren aldean) eta % 66,3 emakumeentzat (+0,9 aurreko urtearen aldean). [2]

Azken urtean, 2017ko abendutik 2018ko abendura bitartean, % 2,1 egin zuen gora (+19.100 lanpostu), 2014tik izandakoak baino handiagoa, eta emakume landunak +8.100 dira (hazkundearen % 42,4) eta gizon landunak 11.000 gehiago (% 57,6).

Enplegu horren oinarria, gehienbat, hirugarren sektorea da; izan ere, 13.600 lanpostu gehiago bildu ditu (+% 2,1), gehikuntza osoaren % 71,2. Industria 2017an % 6,9 hazi ondoren, 3.800 lanpostu gehiago baino ez ditu bildu (+% 1,9), emakumeen 2.300 lanpostu gehiago eta gizonezkoen 1.600 gehiago batzearen ondorioz[3]. Eraikuntzan, bestalde, 1.700 lanpostu gehitu dira (+% 3,5), gizonezkoen 2.100 lanpostu eta emakumeen 400 lanpostu gehiago batuta.

[2] *Iturria: EUSTAT. Europa 2020 adierazleak.*

[3] *Sexuaren aldakuntzen batura ez dator bat guztizko saldoarekin, zeren eta "milakoak" erabiltzen baitira eta BJAk biribildu egiten baitu.*

Adinaren arabera, azken urtean % 21,8 egin zuen gora 25 urtetik beherakoen enpleguak (+6.400 lanpostu), % 2,1eko batez bestekoa baino askoz handiagoa. Tasa horretatik gora daude 55 urtekoen lanpostuen tasak: % 6,9 (+12.000). 25-34 urtekoen okupazioa, aldiz, % 0,4 baino ez da hazi (+600 lanpostu) eta % 1,9, berriz, 45 eta 54 (+5.200) urtekoen artean. Hortaz, 35-44 urtekoen taldean bakarrik egin du behera enpleguak, 5.100 lanpostu galduta (-% 1,8).

III.1.2. TAULA. EAE-KO OKUPAZIOAREN BILAKAERA SEXUAREN ETA SEKTOREEN ARABERA. IV HIRUHILEKOAK.

		BATEZ BESTE (MILAKOAK)			GEHIKUNTZA (MILAKOAK)		URTE ARTEKO ALDAK.-TASA (%)	
		2016	2017	2018	16-17	17-18	16/17	17/18
GIZONAK	LEHEN SEKTOREA	7,0	7,7	7,6	0,7	-0,1	10,0	-1,3
	INDUSTRIA	149,1	159,2	160,8	10,1	1,6	6,8	1,0
	ERAIKUNTZA	42,8	43,2	45,3	0,4	2,1	0,9	4,9
	ZERBITZUAK	275,3	270,0	277,5	-5,3	7,5	-1,9	2,8
	GUZTIRA	474,1	480,1	491,1	6,0	11,0	1,3	2,3
EMAK.	LEHEN SEKTOREA	2,5	2,5	2,6	0,0	0,1	0,0	4,0
	INDUSTRIA	38,4	41,2	43,5	2,8	2,3	7,3	5,6
	ERAIKUNTZA	5,0	5,5	5,1	0,5	-0,4	10,0	-7,3
	ZERBITZUAK	382,8	388,9	395,1	6,1	6,2	1,6	1,6
	GUZTIRA	428,7	438,2	446,3	9,5	8,1	2,2	1,8
GUZTIRA	LEHEN SEKTOREA	9,5	10,2	10,2	0,7	0,0	7,4	0,0
	INDUSTRIA	187,5	200,4	204,2	12,9	3,8	6,9	1,9
	ERAIKUNTZA	47,8	48,7	50,4	0,9	1,7	1,9	3,5
	ZERBITZUAK	658,0	659,0	672,6	1,0	13,6	0,2	2,1
	GUZTIRA	902,8	918,3	937,4	15,5	19,1	1,7	2,1

Iturria: EUSTAT. "Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta".

III.1.4. GRAFIKOA. EAE-KO OKUPAZIOAREN BILAKAERA ADIN-TALDEEN ARABERA. MILAKOAK. IV. HIRUHILEKOAK.



Iturria: EUSTAT. BJA.

III.1.5. GRAFIKOA. LANALDI PARTZIALEKO OKUPAZIOAREN EHUNEKOAREN BILAKAERA, SEXUAREN ARABERA, EAE-N, ESTATUAN ETA EB-N. IV. HIRUHILEKOAK.



Iturria: EINen eta EUROSTATen datuekin eginikoa.

Lanaldi motari dagokionez, EAEko lanaldi partzialeko enpleguaren ratioa %16,4 zen 2016ko laugarren hiruhilekoan (aurreko urtean baino lau hamarren gutxiago). Estatukoa, berriz, %14,6koa da. Gure Erkidegoan nahiz Estatu osoan, alde nabarmena antzematen da sexuen arabera: EAEko lanaldi partzialeko enplegu-tasa laurden batekoa da emakumeen artean (%26,5), eta gizonena %7,1ekoa da. Espainian, berriz, emakumeen ratioa (batez bestekoa) %24,2koa da, eta gizonena, aldiz, %6,9. Euskadin azken urtean lanaldi partzialaren tasak behera egin zuen (4 hamarren, arestian esan bezala, gizonezkoen nahiz emakumezkoen artean jaitsita); horixe da desberdintasuna. Estatuko batez bestekoan, berriz, lanaldi partzialak behera egin zuen gizonentzat, baina gora egin zuen emakumeentzat. Ondorioz, tasa orokorrak berdin eutsi zion azken urtean.

EBn, lanaldi partzialeko batez besteko tasa 2018an (IV. hiruhilekoaren datuak) %19,1 izan zen (% 23,1 euro eremuan): herrialde batzuetan oso tasa txikia da (%1,6 Bulgarian, % 4,3 Hungarian eta Eslovakian) eta beste batzuetan, berriz, % 26tik gorakoak daude, esaterako Austrian (% 27,2) eta Alemanian (% 26,7), eta bereziki Herbehereetan (% 50,1). Gainera, EBko herrialde guztietan emakumeen lanaldi partziala gizonezkoena baino askoz handiagoa da (batez beste % 31,3, gizonezkoen % 8,7aren aldean), eta % 40 gainditzen da herrialdeetako bitan: Herbehereak eta Alemania.

Behin-behinekotasun mailei dagokienez, 2018ko laugarren hiruhilekoan aldi baterako lan-kontratua zuten soldatapeko pertsonen portzentajea %26,5 zen, aurreko urtean baino 4 hamarren gehiago. Estatuko batez bestekoa, berriz, %26,9 zen, bi hamarren hazita.

Sexuaren arabera, %29,1eko tasa da emakumeentzat, gizonezkoen tasa baino 5,1 puntu handiagoa. Alde horretan hamar bateko igoera izan zen azken urtean; izan ere, emakumeen aldi baterako enpleguaren proportzioa 5 hamarren handiagoa bada ere, gizonezkoen artean 4 hamarrenekoa izan da.

III.1.3. TAULA. ENPLEGUAREN ADIERAZLEAK EB-N. IV. HIRUHILEKOAK.

	LANALDI PARTZIAL. ENPL. %-A			ALDIB. ENPL. %-A		
	2017	2018	17-18*	2017	2018	17-18*
28KO EB	19,3	19,1	-0,2	14,3	14,0	-0,3
EUROGUNEA	21,5	21,3	-0,2	16,2	16,2	0,0
BELGIKA	24,6	24,3	-0,3	10,7	11,2	0,5
BULGARIA	2,0	1,6	-0,4	3,9	3,6	-0,3
TXEKIAR E.	6,2	6,3	0,1	9,4	8,1	-1,3
DANIMARKA	24,9	25,0	0,1	12,1	10,9	-1,2
ALEMANIA	27,0	26,7	-0,3	13,2	13,0	-0,2
ESTONIA	9,7	11,7	2,0	3,2	3,0	-0,2
IRLANDA	20,0	19,6	-0,4	9,9	9,5	-0,4
GREZIA	9,5	9,1	-0,4	10,4	10,6	0,2
ESPAINIA	14,6	14,6	0,0	26,8	26,9	0,1
FRANTZIA	17,9	17,7	-0,2	16,8	16,3	-0,5
KROAZIA	5,2	5,8	0,6	19,9	19,0	-0,9
ITALIA	18,4	18,5	0,1	16,2	17,3	1,1
ZIPRE	12,0	10,2	-1,8	14,9	12,6	-2,3
LETONIA	7,6	7,7	0,1	2,9	2,1	-0,8
LITUANIA	7,0	6,9	-0,1	1,4	1,2	-0,2
LUXENBURGO	19,2	17,5	-1,7	8,8	9,1	0,3
HUNGARIA	4,3	4,3	0,0	8,3	6,9	-1,4
MALTA	14,2	13,4	-0,8	6,3	8,5	2,2
HERBEHEREAK	50,1	50,1	0,0	21,8	21,4	-0,4
AUSTRIA	27,8	27,2	-0,6	8,8	9,1	0,3
POLONIA	6,4	6,3	-0,1	25,5	23,2	-2,3
PORTUGAL	8,8	8,1	-0,7	22,1	21,9	-0,2
ERRUMANIA	6,1	6,0	-0,1	1,2	1,1	-0,1
ESLOVENIA	10,1	9,1	-1,0	16,6	14,1	-2,5
ESLOVAKIA	5,7	4,3	-1,4	9,4	7,2	-2,2
FINLANDIA	15,6	16,0	0,4	14,6	14,9	0,3
SUEDIA	23,4	22,6	-0,8	15,6	15,1	-0,5
ERRESUMA BATUA	24,8	24,6	-0,2	5,6	5,5	-0,1
EAE	**16,8**	**16,4**	**-0,4**	**26,1**	**26,5**	**0,4**

Iturria: EUROSTAT eta EINen datuekin eginikoa.
**Aldakuntza ehunekoetan.*

%20tik gorako behin-behinekotasun maila horiek soilik gertatzen dira EBren barruan Holandan, Polonian eta Portugalen. Izan ere, batez bestekoa %14 da Europar Batasunean (%13,5 emakumeentzat eta %14,6 emakumeentzat) eta %16,2 euro gunean (%15,7 eta %16,6, hurrenez hurren, gizonak eta emakumeak), EUROSTATek 2018ko laugarren hiruhilekorako emandako datuen arabera.

III.1.4. TAULA. ALDI BATERAKO KONTRATUA DUTEN SOLDATAPEKOEN EHUNEKOA, SEXUAREN ARABERA. IV HIRUHILEKOAK.

		2015	2016	2017	2018	ALD. 16-17	ALD. 17-18
EAE	GUZTIRA	23,9	23,4	26,1	26,5	2,7	0,4
	GIZONAK	22,0	20,9	23,6	24,0	2,7	0,4
	EMAKUMEAK	25,8	26,9	28,6	29,1	1,7	0,5
ESPAINIA	GUZTIRA	23,9	26,5	26,7	26,9	0,2	0,2
	GIZONAK	25,6	26,1	25,8	26,2	-0,3	0,4
	EMAKUMEAK	25,8	26,9	27,7	27,6	0,8	-0,1
28KO EB	GUZTIRA	14,0	14,3	14,3	14,0	0,0	-0,3
	GIZONAK	13,8	13,8	13,8	13,5	0,0	-0,3
	EMAKUMEAK	14,5	14,7	14,9	14,6	0,2	-0,3

Iturria: EUROSTAT eta EINen (BAI) datuekin eginikoa.

Sektore pribatuko eta sektore publikoko soldatapekoen behin-behinekotasun tasak alderatuta ikusten denez, alde nabarmena dago Estatuko kopuruaren eta EAEkoaren artean. EAEn, nabarmen handiagoa da behin-behinekotasun tasa sektore publikoan sektore pribatuan baino, eta alde horri eusten zaio, zenbait gorabeherarekin, azken hamarkadan baino denbora luzeagoan.

III.1.5. TAULA. SEKTORE PUBLIKOAN ETA PRIBATUAN ALDI BATERAKO KONTRATUA DUTEN SOLDATAPEKOEN EHUNEKOAREN BILAKAERA. EAE-ESTATUAREN ARTEKO ALDERAKETA. IV. HIRUHILEKOAK.

	GUZTIRA		SEKOTRE PRIBATUA		SEKTORE PUBLIKOA	
	EAE	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE	ESTATUA
2013	21,3	23,7	20,3	24,6	25,7	19,9
2014	21,6	24,2	20,4	25,2	26,8	20,6
2015	23,9	25,7	21,8	26,6	33,1	21,9
2016	23,4	26,5	21,8	27,4	31,5	22,8
2017	26,1	26,7	24,2	27,3	34,6	24,1
2018	26,5	26,9	24,3	27,0	35,6	26,3
16-17 ALD.	2,7	0,2	2,4	-0,1	3,1	1,3
17-18 ALD.	0,4	0,2	0,1	-0,3	1,0	2,2

Iturria: EIN. BAI.

2018ko laugarren hiruhilekoan, sektore publikoko behin-behinekotasun tasa %35,6 izan zen. Sektore pribatuan, berriz, %24,3 da, eta beraz, %11,3ko diferentzia dago sektore publikoaren alde. Estatuko batez bestekoan, aldiz, %26,3ko eta %27ko ratioak ziren hurrenez hurren, eta, beraz, 7 puntu positiboko diferentzia dago, baina sektore pribatuaren alde.

1.2.2. Gizarte Segurantzako afiliazioa

Gizarte Segurantzako kotizatzaileen batez besteko kopurua, 2018ko abenduan (ikus kapitulu honetako 1 orri-oinean), 962.104 zen, eta horietatik %47,3 emakumeak ziren eta %52,7 gizonak. Hala, %1,9 egin du gora aurreko urteko hilearen aldean (+%3,1 batez beste Estatuan), eta guztira 18.117 afiliatu gehiago daude alta emanda, hain zuzen ere 2017an izandako igoerari gehituta (%2koa izan zen). Aldeak daude lurraldeen arabera, zeren eta Bizkaiak batez bestekoaren hazkunde bera baitu. Gipuzkoak, berriz, batez bestekoaren gainetik, eta Arabak % 2,1 batez bestekoaren azpitik. Azken urtean, afiliatuen kopuruaren hazkunde erlatiborik txikiena duen laugarren Autonomia erkidegoa da. Handiena Madrilgo Erkidegoari dagokio (+% 4), eta txikiena Asturiasi (+% 1).

Kopuru absolutuetan, Arabak 158.676 afiliaturekin bukatu zuen urtean, Gipuzkoak 321.516rekin eta Bizkaiak 481.912rekin. Erregimenen arabera, 786.016 Erregimen Orokorrekoak dira (754.441 Orokorrekoak, 2.171 Nekazaritzakoak eta 29.404 Etxekoak), 172.486 Autonomoak eta 3.602 Itsasokoak.

Sexuaren arabera, emakumeen afiliazioak %2,2 egin du gora; gizonezkoenak, berriz, %1,6. Bestela esanda, urtean 8.182 afiliatu gehiago zenbatu ziren Gizarte Segurantzan (hazkunde osoaren % 45,2) eta 9.942 emakume afiliatuta (% 54,8).

III.1.6. TAULA. GIZARTE SEGURANTZAKO KOTIZATZAILEAK* LURRALDEEN ETA SEXUAREN ARABERA[4]. ABENDUKO BATEZ BESTEKO DATUAK.

		ABENDUKO B.B. DATUAK				16-17 ALDAK.		17-18 ALDAK.	
		2015	2016	2017	2018	Abs.	%	Abs.	%
ARABA	GIZONAK	81.255	83.091	85.743	86.418	2.652	3,2	675	0,8
	EMAKUM.	66.911	68.663	70.568	72.258	1.905	2,8	1.690	2,4
	GUZTIRA	148.167	151.755	156.311	158.676	4.555	3,0	2.365	1,5
GIPUZKOA	GIZONAK	161.402	164.242	167.374	170.784	3.132	1,9	3.410	2,0
	EMAKUM.	140.662	143.864	147.435	150.732	3.571	2,5	3.297	2,2
	GUZTIRA	302.067	308.108	314.809	321.516	6.701	2,2	6.707	2,1
BIZKAIA	GIZONAK	238.212	242.100	245.332	249.422	3.232	1,3	4.090	1,7
	EMAKUM.	219.817	223.324	227.535	232.490	4.211	1,9	4.955	2,2
	GUZTIRA	457.731	465.427	472.867	481.912	7.440	1,6	9.045	1,9
EAE, GUZTIRA	GIZONAK	480.870	489.433	498.442	506.624	9.009	1,8	8.182	1,6
	EMAKUM.	427.091	435.852	445.538	455.480	9.686	2,2	9.942	2,2
	GUZTIRA	907.964	925.291	943.987	962.104	18.696	2,0	18.117	1,9

**Ikusi kapitulu honetako 1. orri-oina.*
Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioaren datuekin eginikoa.

[4] *Guztizko kopurua, batzuetan, ez dator bat gizonen eta emakumeen baturarekiko, zenbait erregistrotan ez dagoelako jasota afiliaturiko pertsona.*

Erregimenen arabera, alta emanda dauden 10 afiliatuetatik 8 (% 81,8), 2018ko abenduan, erregimen orokorrean zeuden, eta gainera, multzoak baino bilakaera hobea du; izan ere, % 2,3 hazi zen azken urtean. Batez bestekoa, berriz, +% 1,9. Bigarrenik, afiliazioaren % 17,9 langile autonomoei dagokie, eta horren kopurua apenas hazi da, % 0,1 2017ko abenduaren aldean. Azkenik, itsasoko afiliazioaren erregimenak guztizkoaren % 0,4 besterik ez du (+% 7,1 aurreko urtearen aldean).

III.1.7. TAULA. EAE-KO GIZARTE SEGURANTZAREN AFILIAZIOA, ERREGIMENEN ETA LURRALDEEN ARABERA. 2017-2018KO ABENDUKO BILAKAERA.

		2018				EAE 2017	Aldak. % 17/18
		ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	EAE		
ERREG. OROKORRA	OROKORRA	134.169	242.895	377.376	754.441	736.435	2,4
	NEKAZARITZ.	761	537	872	2.171	2.160	0,5
	ETXEKOA	3.109	10.179	16.117	29.404	29.758	-1,2
	GUZTIRA	138.039	253.612	394.366	786.016	768.353	2,3
AUTONOMOAK		20.637	67.258	84.591	172.486	172.272	0,1
ITSASOKOAK		0	646	2.956	3.602	3.362	7,1
SISTEMA, GUZTIRA		158.676	321.516	481.912	962.104	943.987	1,9

Iturria: ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAREN MINISTERIOA. GSZN. Geuk egina.

Jarduera-sektore handien arabera, lehen sektoreak % 1 egin zuen behera, eta eutsi egin zion alta emanda dituen afiliatuen guztizko kopuruarekiko pisuari (% 0,9). Bestalde, industria batez bestekoaren azpitik hazi zen, eta % 19,1 murriztu zen afiliazio guztien kopuruarekiko duen pisua (-2 hamarren). Eraikuntzaren bilakaera batezbestekoa baino hobea izan da, %3,9 hazi baita, eta afiliazioaren %5,9 da (2017an baino 2 hamarren gehiago). Azkenik, zerbitzuen sektorea batez bestekoaren azpitik hazi da, %2 1,5 eta alta emanda dauden afiliatuen pisuari eusten dio (%74,1), 2016an eta 2017an bezala.

III.1.8. TAULA. GIZARTE SEGURANTZAREN AFILIAZIOAREN BILAKAERA*, EKOIZPEN-ADARRAREN ARABERA. ABENDUKO BATEZ BESTEKO DATUAK.

	2015	2016	2017	2018	16/17 ald. %	17/18 ald. %
LEHEN SEKTOREA, GUZTIRA	8.470	8.441	8.461	8.379	0,2	-1,0
NEKAZARITZA, ABELTZAINTZA, BASOGINTZA, ARRANTZA	6.480	6.366	6.301	6.208	-1,0	-1,5
NEKAZARITZA SISTEMA BEREZIA	1.990	2.075	2.160	2.171	4,1	0,5
INDUSTRIA, GUZTIRA	174.939	178.311	181.761	183.531	1,9	1,0
ERAUZKETA-INDUSTRIAK	602	588	572	552	-2,9	-3,4
MANUFAKTURA-INDUSTRIAK	167.031	170.384	173.423	175.187	1,8	1,0
ENERGIA ELEKTRIKOAREN, GASAREN, LURRUNAREN HORNIDURA	1.649	1.667	1.879	1.794	12,7	-4,5
UR-HORNIDURA, HONDAKINEN KUDEAKETA	5.657	5.672	5.887	5.998	3,8	1,9
ERAIKUNTZA	52.437	52.780	53.958	56.084	2,2	3,9
ZERBITZUAK, GUZTIRA	672.119	685.760	699.810	710.509	2,0	1,5
MERKATARITZA ETA KONPONKETA	137.358	138.854	139.178	139.289	0,2	0,1
GARRAIOA ETA BILTEGIRATZEA	38.588	39.717	40.658	42.089	2,4	3,5
OSTALARITZA	61.537	63.267	65.004	66.385	2,7	2,1
INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOAK	20.579	21.391	21.650	22.769	1,2	5,2
FINANTZA- ETA ASEGURU-JARDUERAK	19.512	18.716	18.050	18.027	-3,6	-0,1
HIGIEZINEN ARLOKO JARDUERAK	4.010	3.755	3.878	3.985	3,3	2,8
PROFESIONALAK, ZIENTIFIKOAK ETA TEKNIKOAK	52.335	53.270	54.408	56.081	2,1	3,1
ADMINISTRAZIO JARDUERAK	61.404	63.237	65.548	66.795	3,7	1,9
ADMINISTRAZIO PUBLIKOA	46.766	47.096	47.179	48.159	0,2	2,1
HEZKUNTZA	64.125	66.298	71.306	73.837	7,6	3,5
OSASUN ETA GIZARTE ZERBITZUETAKO JARDUERAK	88.091	91.275	93.876	97.170	2,9	3,5
ARTE, JOLAS ETA ENTRETENIMENDU JARDUERAK	14.663	15.349	15.946	16.618	3,9	4,2
BESTE ZERBITZU BATZUK	29.033	28.956	28.807	28.740	-0,5	-0,2
FAMILIAK PERTSONAL ENPLEGATZAILE GISA	1.237	1.186	1.153	1.104	-2,8	-4,3
LURRALDEZ KANPOKO ERAKUNDEAK	42	44	49	56	10,6	14,3
ETXEKO LANGILEAK	32.839	33.349	33.120	29.405	-0,7	-11,2
GUZTIRA	**907.964**	**925.291**	**943.987**	**962.104**	**2,0**	**1,9**

Iturria. ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAREN MINISTERIOA. GSZN. Geuk egina.
**Ikusi kapitulu honetako 1. orri-oina.*

Bilakaera positiboa izan zuten ekoizpen-adarrik gehienek[5], arestian esan bezala honako hauek izan ezik: lehen sektorea (-% 1), erauzketa-industrian (% 3,4ko beherakada), energiaren hornidura (-% 4,5), finantza- eta aseguru-jarduerak (% 0,1eko beherakada txikia, hainbat urtetan bilakaera negatiboa izan ondoren), etxeko lana (-% 4,3) eta beste zerbitzu batzuk (-% 0,2). Halaber, etxeko enplegatuen araubide bereziaren afiliazioan %11,2ko jaitsiera gertatu da. Manufaktura-industriak afiliazioan bigarren pisurik handiena duen adarra da (guztizkoaren %18,2); izan ere, batez bestekoa baino pixka bat gehiago hazi zen 2017an (+%1,8, eta aurreko urtean %2). Neurri txikiagoan hazi zen 2018an, %1, eta azken urtean 1.764. lagun afiliatu gehiago daude altan (+3.000 aurreko urtean).

Zerbitzuen sektoreak, arestian esana dugunez, batez bestekoaren azpitik egin du gora afiliazioan, %1,5, hots, 10.699 afiliatu gehiago. Horrez gain, adar guztietan egin du gora, aipaturiko finantzen eta inmobiliarien arloko jarduerak izan ezik. Merkataritza da afiliaziorik handiena biltzen duen zerbitzu-adarra (guztizkoaren % 19,6), eta urte arteko oso hazkunde txikia izan du, % 0,1ekoa (111 afiliatu gehiago). Pisu nabarmena duten beste jarduera batzuetan, hala nola osasunean, hezkuntzan eta ostalaritzan, batez bestekotik gorako urte arteko tasak bildu ziren (afiliazioan %3,5eko hazkundearekin lehenengo bietan eta %2,1ekoa hirugarrenean).

Azkenik, kotizatzaile atzerritarren kopuruak (EAEko afiliazio guztien % 6,6 2018ko abenduan, aurreko urtean baino 5 hamarren gehiago) % 10 egin zuen gora azken urtean, eta aurreko urtean % 9,5 hazi zen. Gainera, bi sexuetan dago bilakaera positiboa: gizonen artean %10,9 hazi da (+% 11,9 2017an); emakumeen artean, berriz, gutxiago hazi da, % 8,8 (+% 6,7 aurreko urtean). Jokabide bera gertatzen da atzerritar horien jatorriaren arabera; izan ere, EBko beste herrialde batzuetatik datozenen artean afiliazioa %6,2 handitu da eta EBtik kanpokoen artean, berriz, % 11,8.

III.1.9. TAULA. GIZARTE SEGURANTZAKO KOTIZATZAILE* ATZERRITARRAK, JATORRIAREN ETA SEXUAREN ARABERA. ABENDUKO BATEZ BESTEKOAK.

		ABENDUKO KOTIZATZAILEAK				16-17 ALDAK.		17-18 ALDAK.	
		2015	2016	2017	2018	Abs.	%	Abs.	%
EUROPAR BATASUNA	GIZONAK	9.988	10.797	11.589	12.388	792	7,3	799	6,9
	EMAK.	6.671	7.120	7.517	7.908	397	5,6	391	5,2
	GUZTIRA	16.659	17.917	19.106	20.296	1.189	6,6	1.190	6,2
BESTE BATZUK	GIZONAK	15.958	17.173	19.713	22.328	2.540	14,8	2.615	13,3
	EMAK.	17.545	17.423	18.662	20.587	1.239	7,1	1.925	10,3
	GUZTIRA	33.503	34.597	38.375	42.915	3.778	10,9	4.540	11,8
GUZTIRA	GIZONAK	25.946	27.970	31.302	34.716	3.332	11,9	3.414	10,9
	EMAK.	24.216	24.543	26.179	28.495	1.636	6,7	2.316	8,8
	GUZTIRA	50.162	52.514	57.481	63.210	4.967	9,5	5.729	10,0

**Ikusi kapitulu honetako 1. orri-oina.*
Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren datuekin eginikoa.

1.3. LANGABEZIA

1.3.1. Langabeziaren kopuruak

EAEko lan-merkatuak 2018an izandako bilakaeraren ondorioz, BJAren langabezia-tasa orokorra % 10,3 zen urtearen amaieran (aurreko urtean baino 8 hamarren gutxiago), EBko batez bestekoa gaindituta (% 6,6 EBn, % 7,9 eurogunean). [6]

Sexuaren arabera, emakumeen langabezia-tasa gizonezkoena baino 4 hamarren handiagoa da (% 10,5 eta % 10,1 hurrenez hurren). Adin-taldeen arabera, berriz, intzidentziarik handiena 25 urtetik beherako gazteei dagokie (% 19,1), eta txikiena 45 urte eta gehiagokoen taldeari. 2017ko amaieraren aldean, langabeziak behera egin du bi sexuetan, eta

[5] *Hiruhilekoetako Ekonomia Kontuek (HEK) ekoizpenaren eta enpleguaren gaineko informazio osagarria ematen dute ekoizpen-adarren arabera. Ikusi Memoria honetako EAEko ekonomiari buruzko II. kapitulua.*

[6] *Memoria honetako II. Kapituluak ("II. EAEko ekonomia") langabeziak estatuan izandako bilakaerari buruzko informazioa ematen du, datuak Autonomia Erkidegoen arabera azalduta.*

gazteen langabezia-tasak, aurreko bi urteetan ia 18 puntutan behera egin ondoren, 1,9 puntuko igoera izan du eta % 19,1ean kokatzen da.

III.1.10. TAULA. EAE-KO LANGABETUAK. ALDAGAI NAGUSIEN BILAKAERA. MILAKOAK (IV. HIRUHILEKOAK)													
	PERTSONA KOP. (MILAKOAK)				ALDEA (MILAKOAK)			ALDAKUNTZAREN %-A			LANGABEZIA-TASA		
	2015	2016	2017	2018	15-16	16-17	17-18	15/16	16/17	17/18	2016	2017	2018
GUZTIRA	**154,8**	**130,1**	**114,8**	**107,3**	**-24,7**	**-15,3**	**-7,5**	**-16,0**	**-11,8**	**-6,5**	**12,6**	**11,1**	**10,3**
GIZONAK	84,6	66,4	58,6	55,0	-18,2	-7,8	-3,6	-21,5	-11,7	-6,1	12,3	10,9	10,1
EMAKUMEAK	70,2	63,7	56,2	52,2	-6,5	-7,5	-4,0	-9,3	-11,8	-7,1	12,9	11,4	10,5
16-24 URTE	15,2	9,5	6,1	8,4	-5,7	-3,4	2,3	-37,5	-35,8	37,7	24,8	17,2	19,1
25-44 URTE	87,2	70,0	61,6	56,5	-17,2	-8,4	-5,1	-19,7	-12,0	-8,3	13,8	12,3	11,5
45 URTE +	52,5	50,5	47,2	42,3	-2,0	-3,3	-4,9	-3,8	-6,5	-10,4	10,4	9,5	8,3
Iturria: EUSTAT "BJA".													

Europar Batasunean, oso zabala da langabeziaren balio-sorta. Kopuru handietatik, adibidez, Grezian (%18,7) eta Espainian (%14,5), ratio txikietara, esaterako Txekiar Errepublikan, Alemanian, Maltan eta Herbehereetan. Letoniak, Portugalek eta Eslovakiak EBko batez bestekoaren inguruko langabezia-tasak dituzte. AEBetan %3,9ko langabezia-tasarekin bukatu zen 2018. urtean, eta Japonian, berriz, %2,4koa, zenbait adibide aipatzearren.

III.1.6. GRAFIKOA. EAE-KO LANGABEZIA-TASA ADIN-TALDEEN ARABEERA. IV. HIRUHILEKOAK.



Iutrria: EUSTAT. BJA.

2018an, bosgarren urtez jarraian egin zuen behera EAEn langabezian zeuden pertsonen kopuruak (lau hiruhileko), sei urtez (2008. urtetik 2013. urtera) Euskadin langabezia etengabe hazi ondoren. Zehazki, eginiko zenbatespenen arabera, 2018ko amaieran 107.300 langabetu zeuden, aurreko urtean baino %6,5 gutxiago (-7.500 lagun), eta horietatik %48 gizonezkoak ziren eta %52 emakumeak. 2017an ez bezala (langabeziaren beherakada antzerakoa izan zen bi sexuetan), 2018an langabeziaren jaitsiera puntu batez handiagoa da emakumezkoetan (-% 7,1) gizonezkoetan baino (-% 6,1). Horren ondorioz, urtearen bukaeran 4 hamarreneko aldea dago sexuen artean langabezia-tasetan: % 10,1 gizonentzat eta % 10,5 emakumeentzat (% 10,3 batez beste, arestian ikusi bezala), 2017ko amaieran baino hamarren bat gutxiago.

Adinen arabera, langabetuen kopuruak behera egin du bitarteko taldean (-% 8,3) eta 45 urtetik gorakoetan (-% 10,4), zeren eta 25 urtetik beherakoen langabetu kopuruak % 37,7 egin baitu gora (+2.300 lagun). Horren ondorioz, adin-talde horretako langabezia-tasak gora egin du (1,9 puntutan, arestian esan bezala). Adin handiagoko taldeetan, aldiz, behera egin du, kasu bietan langabetu guztiena baino neurri handiagoan.

EBn, gazteen langabezia-tasa 2018ko amaieran % 14,7 zen (Europar Batasunean eta % 16,3 eurogunean, eta % 30etik gorako tasak daude Italian eta Espainian esaterako (% 34,1 eta % 33,5 hurrenez hurren), eta % 40etik gorakoak, Grezian adibidez. Beste muturrean Herbehereak eta Txekiar Errepublika daude, %6aren inguruko ratioekin, eta Alemania nabarmentzen da gazteen langabezia-tasa txikiagatik (%5,2).

III.1.11. TAULA. LANGABEZIA EB-N: ADIERAZLE NAGUSIAK. IV. HIRUHILEKOAK.															
	LANG.-TASA OROKORRA			GIZONAK			EMAKUMEAK			GAZTEEN LANG.-TASA (< 25 URTE)			IRAUPEN LUZEKO LANG. % (> URTE 1)		
	2016	2017	2018	2016	2017	2018	2016	2017	2018	2016	2017	2018	2016	2017	2018
28KO EB	8,3	7,3	6,6	8,1	7,1	6,4	8,5	7,6	6,9	18,1	16,2	14,7	46,6	44,5	42,6
EUROGUNEA	9,8	8,7	7,9	9,5	8,4	7,5	10,1	9,1	8,4	20,4	18,0	16,3	50,0	48,0	45,6
BELGIKA	7,2	6,4	5,7	7,7	6,5	6,1	6,6	6,3	5,2	19,7	16,8	12,2	51,4	49,7	47,5
BULGARIA	6,7	5,6	4,7	6,8	5,6	5,0	6,5	5,7	4,3	17,4	11,6	9,9	57,9	55,6	62,0
TXEKIAR E.	3,6	2,4	2,0	3,0	2,0	1,6	4,2	2,9	2,6	10,8	6,3	5,9	39,2	31,5	31,3
DANIMARKA	6,1	5,1	4,9	5,7	4,9	4,9	6,6	5,4	4,9	12,6	9,1	8,2	23,6	25,2	22,3
ALEMANIA	3,8	3,5	3,2	4,2	3,8	3,5	3,3	3,2	2,8	6,0	6,1	5,2	42,3	42,5	42,0
ESTONIA	6,6	5,3	4,4	7,2	5,3	3,8	6,0	5,2	5,0	12,7	:	10,4	37,9	31,6	18,5
IRLANDA	7,2	6,1	5,4	7,6	6,5	5,4	6,8	5,6	5,4	14,8	12,2	12,0	52,6	42,8	39,7
GREZIA	23,6	21,2	18,7	19,9	17,4	14,7	28,2	26,1	23,7	45,2	43,6	40,0	71,8	71,8	69,3
ESPAINIA	18,6	16,6	14,5	17,2	15,0	12,9	20,3	18,4	16,3	42,9	37,5	33,5	47,8	42,9	39,7
FRANTZIA	10,3	9,2	9,1	10,4	9,3	8,9	10,2	9,2	9,2	25,0	22,3	20,4	44,9	43,2	41,3
KROAZIA	13,4	10,9	8,6	12,2	10,7	7,9	14,9	11,2	9,4	35,4	32,4	24,8	49,2	32,9	37,2
ITALIA	12,2	11,2	10,8	11,3	10,4	10,0	13,4	12,3	12,0	40,7	35,2	34,1	57,2	58,2	56,2
ZIPRE	12,9	10,2	7,6	12,2	10,4	7,6	13,6	9,9	7,7	29,8	22,9	20,6	44,9	33,7	32,1
LETONIA	9,3	8,1	6,9	10,7	9,0	7,5	7,8	7,3	6,3	15,8	16,5	12,0	38,2	32,5	43,4
LITUANIA	7,7	6,7	6,0	8,8	7,8	6,5	6,5	5,7	5,5	14,6	13,1	11,1	36,9	39,0	29,2
LUXENBURGO	5,9	5,2	5,3	6,2	5,0	5,1	5,6	5,5	5,5	16,6	16,5	14,3	31,8	35,3	23,0
HUNGARIA	4,4	3,8	3,6	4,4	3,3	3,5	4,5	4,4	3,7	11,6	10,2	10,1	45,6	38,3	36,1
MALTA	4,3	4,0	3,5	3,8	4,0	3,6	5,0	4,0	3,4	12,1	10,1	9,4	40,6	33,9	40,6
HERBEHEREAK	5,4	4,3	3,5	4,9	4,1	3,4	6,0	4,6	3,6	10,1	7,7	6,6	42,6	40,5	35,1
AUSTRIA	5,6	5,3	4,6	6,0	5,5	4,9	5,3	5,0	4,4	10,1	9,4	8,7	34,2	34,9	25,9
POLONIA	5,6	4,5	3,8	5,4	4,4	3,7	5,7	4,6	4,0	16,0	14,7	12,4	33,9	32,3	26,9
PORTUGAL	10,6	8,2	6,8	10,6	7,9	6,1	10,6	8,5	7,4	27,7	23,5	19,9	55,2	46,5	40,6
ERRUMANIA	5,5	4,7	4,1	5,9	5,1	4,6	4,9	4,2	3,5	20,8	21,2	16,3	47,4	39,6	46,5
ESLOVENIA	8,1	5,8	4,3	7,8	5,1	4,0	8,3	6,5	4,8	15,9	12,7	7,3	54,6	45,9	39,3
ESLOVAKIA	9,1	7,7	6,1	8,6	7,2	5,5	9,8	8,4	6,7	21,3	19,5	13,6	59,3	62,9	60,8
FINLANDIA	8,0	7,6	6,0	8,4	8,0	6,4	7,7	7,1	5,6	15,9	14,3	12,2	28,4	25,8	24,0
SUEDIA	6,4	6,1	5,7	6,7	6,2	5,8	6,0	5,9	5,7	15,8	14,5	14,1	20,3	20,6	19,4
ERRESUMA BATUA	4,6	4,2	3,8	4,7	4,2	3,9	4,4	4,2	3,7	12,1	11,8	11,1	26,2	25,9	26,6
EAE (EUSTAT)	**12,6**	**11,1**	**10,3**	**12,3**	**10,9**	**10,1**	**12,9**	**11,4**	**10,5**	**24,8**	**17,2**	**19,1**	**:**	**:**	**:**
EAEV (EIN)	**12,3**	**10,6**	**9,6**	**12,0**	**10,5**	**9,2**	**12,6**	**10,6**	**10,0**	**31,1**	**23,9**	**23,1**	**:**	**:**	**:**

Iturria: EUROSTAT , EIN eta EUSTATen datuekin eginikoa.

Sektoreen arabera, lan-eskatzaileen %66,9 zerbitzuen sektorekoa zen 2018ko laugarren hiruhilekoan, non gazteen langabezia %10 murriztu baitzen (7.600 langabetu gutxiago, horietatik erdia baino gehiago emakumeak, %71).

III.1.12. TAULA. EAE-KO LANGABETUEN BILAKAERA, SEXUAREN ETA SEKTOREEN ARABERA. IV. HIRUHILEKOAK.											
		BATEZ BESTE (MILAKOAK)				ALDAK. (MILAKOAK)			URTE ARTEKO ALDAK. TASA (%)		
		2015	2016	2017	2018	15-16	16-17	17-18	15/16	16/17	17/18
GIZONAK	LEHEN SEKTOREA	1,4	0,8	1,0	1,4	-0,6	0,2	0,4	-42,9	25,0	40,0
	INDUSTRIA	19,0	13,6	13,2	11,5	-5,4	-0,4	-1,7	-28,4	-2,9	-12,9
	ERAIKUNTZA	16,7	11,4	9,8	9,0	-5,3	-1,6	-0,8	-31,7	-14,0	-8,2
	ZERBITZUAK	37,9	35,3	31,0	28,7	-2,6	-4,3	-2,3	-6,9	-12,2	-7,4
	1. LANAREN BILA	9,7	5,3	3,7	4,4	-4,4	-1,6	0,7	-45,4	-30,2	18,9
	GUZTIRA	**84,6**	**66,4**	**58,6**	**55,0**	**-18,2**	**-7,8**	**-3,6**	**-21,5**	**-11,7**	**-6,1**
EMAK.	LEHEN SEKTOREA	0,5	0,7	0,4	0,0	0,2	-0,3	-0,4	40,0	-42,9	-100,0
	INDUSTRIA	4,9	4,3	3,6	5,8	-0,6	-0,7	2,2	-12,2	-16,3	61,1
	ERAIKUNTZA	0,7	1,4	1,6	1,0	0,7	0,2	-0,6	100,0	14,3	-37,5
	ZERBITZUAK	53,7	50,2	45,2	39,8	-3,5	-5,0	-5,4	-6,5	-10,0	-11,9
	1. LANAREN BILA	10,5	7,1	5,4	5,6	-3,4	-1,7	0,2	-32,4	-23,9	3,7
	GUZTIRA	**70,2**	**63,7**	**56,2**	**52,2**	**-6,5**	**-7,5**	**-4,0**	**-9,3**	**-11,8**	**-7,1**
GUZTIRA	LEHEN SEKTOREA	1,8	1,4	1,4	1,4	-0,4	0,0	0,0	-22,2	0,0	0,0
	INDUSTRIA	23,9	18,0	16,7	17,3	-5,9	-1,3	0,6	-24,7	-7,2	3,6
	ERAIKUNTZA	17,4	12,8	11,4	10,1	-4,6	-1,4	-1,3	-26,4	-10,9	-11,4
	ZERBITZUAK	91,5	85,5	76,2	68,6	-6,0	-9,3	-7,6	-6,6	-10,9	-10,0
	1. LANAREN BILA	20,2	12,4	9,1	9,9	-7,8	-3,3	0,8	-38,6	-26,6	8,8
	GUZTIRA	**154,8**	**130,1**	**114,8**	**107,3**	**-24,7**	**-15,3**	**-7,5**	**-16,0**	**-11,8**	**-6,5**

Iturria: EUSTAT. "Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta".

Industrian, bestalde, 2018ko bukaeran % 16,1eko guztizko langabezia izanik, % 3,6 egin zuen gora langabeziak (+600 lagun), aurreko urtean % 7,2 behera egin ondoren, emakume langabeen kopurua hazi (+2.200) eta gizonezkoen langabeziak sektore horretan behera egin izanaren ondorioz (-1.700) [7]. Eraikuntzan, berriz, %11,4 jaitsi da langabetuen kopurua (-1.300 lagun garbi).

Lehen lanaren bila dabiltzanen kopuruak, bestalde, 800 lagun gehiago izan dira (-%8,8), batez bete 9.900 hiruhilekoan. Horietatik %56,6 emakumeak eta %43,4 gizonak.

Lurraldeen arabera, ez dago bilakaera bera guztietan: Gipuzkoak zuen tasarik txikiena 2018ko laugarren hiruhilekoan, % 8,2, eta gainera 2 hamarreneko gutxipena du 2017aren aldean; Bizkaian, berriz, tasarik handiena du (% 11,4), baina hor ere hobekuntza izan da azken urtean (-1,5 puntu). Araban, aldiz, gora egin du langabezia-tasak, hamarren batean, % 10,9raino, hots, Bizkaia bezala, EAEko batez bestekoan gainetik dago (% 10,3).

III.1.7. GRAFIKOA. EAE-KO LANGABEZIA-TASAREN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA



Iturria: EUSTAT. BJA.

1.3.2.LANBIDEK erregistraturiko langabezia

2018ko bukaeran, BJAk zenbatetsitakoen oso antzeko zifrak bildu zituen LANBIDEk langabeziaren inguruan, estatistika-eragiketa horretan berriki sartutako metodologia aldaketaren ondoren. 2018ko abenduan LANBIDEn erregistratutako 119.669 langabetu zenbatu ziren, 2017an baino 7.878 gutxiago,

III. 1.13. TAULA. EAE-N ERREGISTRATURIKO LANGABETUAK, ADINAREN ETA SEXUAREN ARABERA. ABENDUAN.

		LANGABEAK ABENDUAN					16-17 ALDAK.		17-18 ALDAK.	
		2014	2015	2016	2017	2018	ABS.	%	ABS.	%
< 25 URTE	GIZONAK	5.081	4.259	4.186	3.482	3.789	-704	-16,8	307	8,8
	EMAKUMEAK	4.852	4.177	3.996	3.591	3.650	-405	-10,1	59	1,6
	GUZTIRA	9.933	8.436	8.182	7.073	7.439	-1.109	-13,6	366	5,2
25 - 44 URTE	GIZONAK	40.546	33.864	28.525	25.072	22.374	-3.453	-12,1	-2.698	-10,8
	EMAKUMEAK	42.535	38.388	34.400	32.555	29.410	-1.845	-5,4	-3.145	-9,7
	GUZTIRA	83.081	72.252	62.925	57.627	51.784	-5.298	-8,4	-5.843	-10,1
45 URTE ETA +	GIZONAK	34.800	32.246	29.642	28.182	26.854	-1.460	-4,9	-1.328	-4,7
	EMAKUMEAK	37.957	37.083	35.424	34.661	33.592	-763	-2,2	-1.069	-3,1
	GUZTIRA	72.757	69.329	65.066	62.847	60.446	-2.219	-3,4	-2.401	-3,8
GUZTIRA	GIZONAK	80.427	70.369	62.353	56.740	53.017	-5.613	-9,0	-3.723	-6,6
	EMAKUMEAK	85.344	79.648	73.820	70.807	66.652	-3.013	-4,1	-4.155	-5,9
	GUZTIRA	**165.771**	**150.017**	**136.173**	**127.547**	**119.669**	**-8.626**	**-6,3**	**-7.878**	**-6,2**

Iturria: LANBIDEren datuekin eginikoa.

[7] *Sexuaren aldakuntzen batura ez dator bat guztizko saldoarekin, zeren eta "milakoak" erabiltzen baitira eta BJAk biribildu egiten baitu.*

(-% 6,2 aurreko urtekoaren aldean, estatuaren batez besteko jaitsiera bera); alabaina, biztanleria jardueraren araberako inkestak, EUSTATen Biztanleria Jardueraren arabera sailkatzeko inkestak egindakoak, 107.300 kalkulatu zituen urteko azken lauhilekoan. Lurraldeka, Gipuzkoan izan da jaitsierarik handiena, %6,8koa (-2.294 lagun eta 31.678 langabetu). Eta ondoren Bizkaian, %6,5eko jaitsierarekin (-4.732 lagun eta 68.204 langabetu) eta Araban %6,2 jaitsi da (-847 lagun eta 19.792 langabetu).

Krisia hasi zenetik seigarren urtez jarraian gertatu da erregistraturiko langabeziaren urte arteko saldo negatiboa, eta gainera, aurreko hiru urtean bezala, langabezia bi sexuetan murriztu dela ikusten da: Bereziki gizonen artean (-%6,6), baina emakumeen artean ere bai (-%5,9), betiere -%6,2ko batez bestekoaren gainetik. Ondorioz, langabeen %55,7 emakumeak dira (2017an baino 2 hamarren gehiago). Krisia hasi zenean, berriz, oso antzekoa zen langabeen kopurua sexuaren arabera. Gizonek neurri handiagoan jasan zuten krisiaren eragina, baina suspertzeko ahalmen handiagoa erakusten ari dira.

III.1.8. GRAFIKOA.EAE-N ERREGISTRATURIKO PERTSONEN BANAKETAREN BILAKAERA, ADINAREN ARABERA. ABENDUAN.



Iturria: LANBIDEren datuekin eginikoa.

Adinen arabera, antzeko zerbait gertatzen da, zeren eta 2017ko abendutik 2018ko abendura bitartean behera egin baitzuen erregistraturiko langabeziak, 25 urtetik beherakoetan eta 59 urtetik gorakoetan izandako igoera txikia izan ezik.

Adin-taldeen arabera, langabeziak gora egin zuen 25 urtetik beherakoen artean (+% 5,2), batez ere gizonezkoetan (+% 8,8, eta talde horretako emakumeen +% 1,6), baina kontuan hartu behar da hazkunde horrek, talde txikia dela-eta, 366 lagun gehiago izan dituela, horietatik 307 gizonak, eta gehienak 20 urtetik beherakoak. Hurrengo adin-taldean, 25-44 urtekoen taldean, batez bestekoa baino jaitsiera handiagoa izan da langabeen kopuruan (-% 10,1), gizonak neurri handiagoan (-% 10,8), baina emakumeak ere batez bestekoaren gainetik (-% 9,7). 44 urtetik gorakoetan, berriz, batez bestekoa baino neurri txikiagoan jaitsi da langabezia (-% 3,8), gizonezkoetan nahiz emakumezkoetan. Langabeziaren eta adinaren arteko korrelazioa antzematen da, ordea: langabeen %24,8k 54 urte baino gehiago zituen 2018ko abenduan (% 23,7 2017ko abenduan), baina adin-talde hori biztanleria aktiboaren %19,4 da, BJAren arabera.

Ikasketa mailaren arabera, behera egin zuen langabeziak 2017ko abenduaren aldean (aurreko bi urtean gertatu bezala) maila guztietan. Beherakadarik handienak, batez bestekoaren gainetik, lehen zikloko unibertsitateko ikasketak dituzten pertsonen artean ageri dira (-%13,6) eta hezkuntza orokorreko bigarren mailako ikasketak dituztenen artean (-%7,4). -% 6,2ko batez bestekoa baino pixka bat gutxiago murriztu da langabezia oinarrizko ikasketa osoetan eta goi mailako LHn (-% 5,1 eta -% 4,1 hurrenez hurren), eta neurri txikiagoan oinarrizko LHn (-% 3,7). Horrenbestez, langabetuen kopururik handiena hezkuntza orokorreko titulua duten pertsonen artean dago (erregistraturiko langabetu guztien %47,9), aurreko urtean baino 6 hamarren gutxiago), eta oinarrizko ikasketak dituztenena gehituz gero (%22,4), langabeen %70,3 dira. Pisu hori apenas aldatu da azken urteetan (hamarren bat 2018an).

III.1.14. TAULA. EAE-N ERREGISTRATURIKO LANGABEAK IKASKETA MAILAREN ARABERA. ABENDUAK.								
		LANGABEAK ABENDUAN					17-18 ALDAK.	
		2015	2016	2017	2018	% 2018	ABS.	%
OINARRIZKOAK	IKASKET. EZ EDO OINAR. BETE GABE	11.140	10.708	10.686	10.356	8,7	-330	-3,1
	OSOAK	19.770	18.385	17.222	16.348	13,7	-874	-5,1
2. MAILAKOAK	LANBIDE HEZIKETA	12.874	11.523	10.819	10.419	8,7	-400	-3,7
	HEZKUNTZA OROKORRA	74.316	67.161	61.891	57.329	47,9	-4.562	-7,4
DBH ONDORENGOA	GOI-MAILAKO TEK. PROF.	13.686	12.108	11.340	10.872	9,1	-468	-4,1
	LEHEN ZIKLOA	5.573	4.796	4.432	3.828	3,2	-604	-13,6
	BIGARREN ETA HIRUGARREN ZIKLOA	12.436	11.250	10.960	10.331	8,6	-629	-5,7
	BESTE BATZUK	222	242	197	191	0,2	-6	-3,0
GUZTIRA		**150.017**	**136.173**	**127.547**	**119.674**	**100,0**	**-7.873**	**-6,2**

Iturria: EEZPren datuekin eginikoa.

Bilakaera hori, gainera, oso antzekoa da bi sexuetan. Titulazio-talde handien arabera, 2018ko abenduan erregistraturiko langabeen % 47,9k, arestian esan bezala, hezkuntza orokorreko bigarren mailako ikasketak zituen, baina pisu txikiagoa da emakumeen artean (emakume langabeen % 45,5, eta gizonak % 51). Eta halaxe gertatzen da emakumeen taldea kopuru absolutuetan nagusia bada ere (30.301 emakume eta 27.028 gizon). Izan ere, emakume langabeak gehiago dira gizonak baino ikasketa maila guztietan, baina joera hori beheranzkoa da, arestian esan bezala, horietan guztietan eta bi sexuetan.

III.1.9. GRAFIKOA. EAE-N ERREGISTRATURIKO LANGABEZIA IKASKETA MAILAREN ETA SEXUAREN ARABERA. 2018KO ABENDUA.



Iturria: EEZPren datuekin eginikoa.

Aurreko lan esperientzia duten langabeen jarduerari dagokionez, EEZPk argitaraturiko datuek erakusten dutenez, 2018ko abenduan, jarduera-atal guztietan egin zuen behera erregistraturiko langabeen kopuruak 2017ko abenduaren aldean (salbuespen bakarra energiaren hornidura da: erregistraturiko langabezian duen pisua oso txikia da, ordea), baina enpleguan pisurik handiena dutenak –eta langabezian- batez bestekoan baino proportzio txikiagoan egin dute (-% 6,2).

Hain zuzen ere merkataritza da salbuespena, erregistraturiko langabeziaren % 14,2 bilduta (eta % 17,1eraino emakumeen artean); izan ere, batez bestekoak baino jaitsiera txikiagoa izan du, % 6,4. Ez da gauza bera gertatzen administrazio jarduerekin, langabezian % 13,6ko proportzioa dutenak, % 3,7 egin baitute behera. Hirugarrenik, ostalaritzak langabeziaren % 10,1 bildu du, eta % 4,6 egin du behera. Manufaktura-industriako langabeziarekin gauza bera gertatzen da, batez bestekoaren azpitik murriztu delako, % 5,2, eta erregistraturiko langabeziaren % 11,9 izateari eusten dio (eta gizonezkoen langabeziaren %16,8raino). Eraikuntzak ere batez bestekoaren azpitik egin du behera, % 13,7, eta 2018ko amaieran langabeziaren % 7,6 zen. Jarduera horretan, manufaktura-industrian bezala, gizonezkoen partaidetza emakumezkoena baino askoz handiagoa da (langabeen % 14,9, eta emakumeak % 1,7 dira).

III.1.15. TAULA. EAE-N ERREGISTRATURIKO LANGABEZIA, SEXUAREN ETA JARDUERAREN ARABERA (CNAE 2009). ABENDUA.						
	2017	LANGABEAK 2018AN				17/18 ALDAK. %
		GIZONAK	EMAK.	GUZTIRA	BERTIK. %L	
NEKAZARITZA, ABELTZAINTZA, BASOGINTZA, ARRANTZA	2.990	1.970	754	2.724	2,3	-8,9
ERAUZKETA-INDUSTRIAK	84	37	32	69	0,1	-17,9
MANUFAKTURA-INDUSTRIA	15.085	8.906	5.393	14.299	11,9	-5,2
ENERGIA ELEK., GAS ETA LURRUN HORNIDURA	60	43	24	67	0,1	11,7
UR-HORNIDURA, HONDAKINEN KUDEAKETA	678	487	151	638	0,5	-5,9
ERAIKUNTZA	10.503	7.909	1.151	9.060	7,6	-13,7
TXIKIZKAKO ETA HANDIZKAKO MERKAT.; KONPONKETA	18.165	5.609	11.401	17.010	14,2	-6,4
GARRAIOA ETA BILTEGIRATZEA	3.281	2.067	943	3.010	2,5	-8,3
OSTALARITZA	12.629	4.133	7.917	12.050	10,1	-4,6
INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOAK	2.220	1.029	1.029	2.058	1,7	-7,3
FINANTZA- ETA ASEGURU-JARDUERAK	861	281	490	771	0,6	-10,5
HIGIEZINEN ARLOKO JARDUERAK	446	135	285	420	0,4	-5,8
PROFESIONALAK, ZIENTIFIKOAK ETA TEKNIKOAK	6.856	2.193	3.968	6.161	5,1	-10,1
ADMINISTRAZIO-JARDUERAK	16.915	7.660	8.622	16.282	13,6	-3,7
ADMINISTRAZIO PUBLIKOA	3.775	1.661	1.755	3.416	2,9	-9,5
HEZKUNTZA	3.153	815	2.133	2.948	2,5	-6,5
OSASUN ETA GIZARTE ZERBITZUETAKO JARDUERAK	5.660	1.015	4.301	5.316	4,4	-6,1
ARTE, JOLAS ETA ENTRETENIMENDU JARDUERAK	2.151	1.049	994	2.043	1,7	-5,0
BESTE ZERBITZU BATZUK	3.682	977	2.487	3.464	2,9	-5,9
ETXEAK PERTSONAL ENPLEGATZAILE GISA	3.804	501	3.172	3.673	3,1	-3,4
LURRALDEZ KANPOKO ERAKUNDEAK	33	17	16	33	0,0	0,0
AURREKO LANIK GABE	14.516	4.527	9.635	14.162	11,8	-2,4
GUZTIRA	**127.547**	**53.021**	**66.653**	**119.672**	**100,0**	**-6,2**
Iturria: EEZPren datuekin eginikoa.						

Zerbitzuen sektoreak emakumeen langabeziaren % 74,3 biltzen du, eta sektore horri dagokio emakumeen langabeziaren jaitsieraren % 82,3 (-3.419 langabe gutxiago). Industrian eta eraikuntzan, bestalde, askoz handiagoa da gizonen partaidetza (% 17,9 eta % 14,9 sexu horretan), langabezian bezala.

III.1.10. GRAFIKOA. EAE-N ERREGISTRATURIKO LANGABEZIAREN BANAKETA, SEXU ETA JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA.



Iturria: EEZPren datuak erabiliz eginikoa.

Aurreko lanik izan gabe inskribatu diren pertsonak, 2018ko abenduan, guztizkoaren % 11,8 ziren (% 11,4 2017an), eta batez bestekoaren azpitik murriztu dira. Talde horretan emakumeen presentzia handia nabarmentzen da, kategoria horretan inskribaturiko 14.162 pertsonen % 68 baitira.

Langabezian emandako denbora kontuan hartuz gero, 2018an behera egin zuen langabetuen kopuruak kategoria guztietan, langabezian 6 hilabetetik behera daramaten gizonentzat izan ezik, eta bereziki lanik gabe urtebetetik gora daramatenentzat, gizonezkoen nahiz emakumezkoen artean.

III.1.16. TAULA. EAE-N ERREGISTRATURIKO LANGABEAK, LANGABEZIAN EMANDAKO DENBORAREN ETA SEXUAREN ARABERA. ABENDUA.

		ERREGISTRATURIKO LANGABEAK					ALDAK. %	
		2014	2015	2016	2017	2018	2016/17	2017/18
< 6 HILABETE	GIZONAK	30.702	26.327	24.250	22.220	22.499	-8,4	1,3
	EMAK.	26.019	23.095	22.445	21.465	21.419	-4,4	-0,2
	GUZTIRA	56.721	49.422	46.695	43.685	43.918	-6,4	0,5
6 HILABETE - URTEBETE	GIZONAK	11.691	9.992	8.414	7.793	7.206	-7,4	-7,5
	EMAK.	11.777	10.674	9.684	9.521	8.458	-1,7	-11,2
	GUZTIRA	23.468	20.666	18.098	17.314	15.664	-4,3	-9,5
> URTE 1	GIZONAK	38.034	34.050	29.689	26.727	23.316	-10,0	-12,8
	EMAK.	47.548	45.879	41.691	39.821	36.776	-4,5	-7,6
	GUZTIRA	85.582	79.929	71.380	66.548	60.092	-6,8	-9,7
GUZTIRA	GIZONAK	80.427	70.369	62.353	56.740	53.021	-9,0	-6,6
	EMAK.	85.344	79.648	73.820	70.807	66.653	-4,1	-5,9
	GUZTIRA	**165.771**	**150.017**	**136.173**	**127.547**	**119.674**	**-6,3**	**-6,2**

Iturria: EEZPren datuekin eginikoa.

Erregistraturiko guztizko langabeziak % 6,2 egin du behera, baina gora egin du lanik gabe 6 hilabete baino gutxiago daramatenen langabeziak, % 0,5, eta gizonezkoen artean hazi da (+%1,3), emakumezkoenak % 0,2 egin baitu behera. 6 hilabete eta urtebete artean langabezian damaramaten pertsonen taldeak % 9,5 egin du behera, baina urtebetetik gora

III.1.11. GRAFIKOA. EAE-N ERREGISTRATURIKO LANGABEZIA: BANAKETA IRAUPEN ETA SEXUAREN ARABERA. 2018KO



Iturria: EEZP. Geuk egina.

damaratenena (iraupen luzeko langabezia deritzona), berriz, % 9,7 jaitsi da, neurri txikiagoan emakumeen artean (-%7,6), baina nabarmen gizonen artean (-%12,8).

III.1.12. GRAFIKOA. IRAUPEN LUZEKO LANGABEZIA* EAE-N. BILAKAERA SEXUAREN ARABERA. ABENDUAN.



Iturria: EEZP. Geuk egina.
** Lanik gabe urtebete baino gehiago daramaten langabeen portzentajea erregistraturiko langabezia osoarekiko.*

Hala, iraupen luzeko langabeen ehunekoak (egoera horretan urtebetetik gora daramatenak) % 50,2raino egin zuen behera 2018ko abenduan (% 40,6 estatuan), 2017an baino 2 puntu gutxiago. Ratio hori % 44 da gizonetan (-3,1 puntu) eta % 55,2 emakumeetan (puntu bat gutxiago).

Bi sexuen arteko aldea, beraz, 11,2 puntukoa zen 2018ko abenduan, eta 2,1 puntuko igoera izan zuen azken urtean.

Bestalde, eta 2017an gertatu ez bezala, 2018an behera egin zuen lan eskatzaileen guztizko kopuruak (langabeen eta langabetuak ez direnen batura), enplegu-eskatzaile langabeen jaitsiera nabarmena (-% 6,2) eta berez lanik gabe ez daudenen enplegu-eskatzaileen % 2ko igoera direla-eta [8] (+% 4,1 emakumeen kasuan).

III.1.17. TAULA. EAE-KO ENPLEGUAREN ESKARIAREN BILAKAERA SEXUAREN ETA LAN EGOERAREN ARABERA. ABENDUA.

		2014	2015	2016	2017	2018	ALDAK. %	
							2016-17	2017-18
LANGABEAK	GIZONAK	80.427	70.369	62.353	56.740	53.021	-9,0	-6,6
	EMAKUMEAK	85.344	79.648	73.820	70.807	66.653	-4,1	-5,9
	GUZTIRA	165.771	150.017	136.173	127.547	**119.674**	-6,3	**-6,2**
LANGABEAK	GIZONAK	47.416	53.848	56.143	63.218	62.803	12,6	-0,7
	EMAKUMEAK	59.695	68.909	73.779	84.352	87.769	14,3	4,1
	GUZTIRA	107.111	122.757	129.922	147.570	150.572	13,6	2,0
GUZTIRA	GIZONAK	127.843	124.217	118.496	119.958	115.824	1,2	-3,4
	EMAKUMEAK	145.039	148.557	147.599	155.159	154.422	5,1	-0,5
	GUZTIRA	**272.882**	**272.774**	**266.095**	**275.117**	**270.246**	**3,4**	**-1,8**

Iturria: EEZPren datuak erabiliz eginikoa.

Enplegu-eskatzaileen guztizko kopuruak % 1,8 egin zuen behera, eta 2018ko abenduan 270.246 ziren, 2017ko abenduan baino 4.871 gutxiago. Jaitsiera hori gertatu da gehienbat gizonezkoen lan-eskariaren bilakaeragatik, % 3,4 murriztu baita. Emakumeenak ere behera egin du, baina gutxiago: % 0,5. Estatuan, guztizko lan-eskariak % 4,1 egin du behera (-% 5,7 2017an).

Hala ere, 2018ko BJAren arabera (IV. Hiruhilekoa), langabeen % 30,4 (32.300 lagun) ez zeuden langabetu gisa erregistraturik LANBIDEn (% 29 2017. urtean).

Azkenik, LANBIDEren bulegoetan erregistraturiko langabeziari buruzko datuek erakusten dutenez, 2018an behera egin zuen atzerritarren langabeziak, baina guztizko langabezia baino neurri txikiagoan (-%7,9, eta guztizko batez bestekoa -%6,2), eta beraz, behera egin du atzerritar langabeen pisuak, %16,3tik %16ra.

Estatuan, atzerritarrak langabetuen %12,3 dira, aurreko urtean baino hamarren bat gehiago, zeren eta atzerritarren langabezia %5,2 gutxitu baita, guztizko enplegua baino gutxiago (-%6,2).

III.1.18. TAULA. EAE-KO ATZERRITARREN ARTEAN ERREGISTRATURIKO LANGABEZIA JATORRIAREN ARABERA ETA ESTATUAREKIN ALDERATUTA. ABENDUA.

		EAE	ESTATUA	EAE/ESTATUA %
2016	EB	4.383	157.553	2,8
	EB-TIK KANPORA	17.156	277.409	6,2
	GUZTIRA	21.539	434.962	5,0
	Guzt. lang. %-a	15,8	11,7	-
2017	EB	4.111	149.612	2,7
	EB-TIK KANPORA	16.623	265.658	6,3
	GUZTIRA	20.734	415.270	5,0
	Guzt. lang. %-a	16,3	12,2	-
2018	EB	3.834	143.740	2,7
	EB-TIK KANPORA	15.256	250.010	6,1
	GUZTIRA	19.090	393.750	4,8
	Guzt. lang. %-a	16,0	12,3	
17/18 ALDAK. %	EB	-6,7	-3,9	
	EB-TIK KANPORA	-8,2	-5,9	
	GUZTIRA	-7,9	-5,2	

Iturria: LANBIDEren datuekin eginikoa.

[8] *Hauexek osatzen dute langabeen kopurua: erregistraturiko langabeak (2018ko abenduan, EAEko enplegu-eskatzaile guztien % 55,7) gehi beste lan bat eskuratu nahi duten landunak eta bestelako egoeretan daudenak hala nola lanik gabeko eskatzaileak, baina lan eskaera bereziak eta erantzunkizun mugatua dituztenak (bakarrik etxez etxe, atzerrian, telelana, etab.).*

2. KONTRATAZIOEN BILAKAERA, ALDI BATERAKO KONTRATUEN AMAIERA ETA IRAIZPENAK

2.1. KONTRATAZIOAREN EGOERA

Kontratazioak gora egin zuen 2018an Euskadin aurreko urtearen aldean (+% 4,5 guztira, eta +% 3,9 hasierako kontratuena; guztizkoaren % 96,9 dira), eta 2014an hasitako bilakaera positiboari eusten zaio (2012an eta 2013an gertatu ez bezala, urte horietan behera egin baitzuen).

III.2.1. GRAFIKOA. EAE-KO LAN KONTRATUEN URTEKO ALDAKUNTZA (%): HASIERAKO KONTRATUAK ETA GUZTIZKOA. ESTATUKO GUZTIZKOAREKIKO ALDEA



Iturria: LANBIDEren datuak erabiliz eginikoa.

Orotara, gure Erkidegoan azken urtean 1.001.181 lan kontratu (berriak gehi bihurtuak) erregistratu zituen EEZPk, emakumeen eta gizonen artean % 50ean banatuta, baina gizonak kontrataturiko pertsonen % 53 dira (geroago aztertuko da urtean sinaturiko kontratuen batez besteko kopurua –txandaketa- eta sexuaren araberako aldea).

III.2.2. GRAFIKOA. KONTRATAZIOAREN BILAKAERA EAE-N: KONTRATU KOPURUA SEXUAREN ARABERA ETA GUZTIZKOAREKIKO PORTZENTAJEA



Iturria: LANBIDE. Geuk egina.

Estatuan, berriz, 22,29 milioi kontratu erregistratu ziren 2018an, 2017an baino %3,7 gehiago (+%7,6 aurreko urtean

Lurraldez lurralde, Araban %5,4koa izan da kontratazioaren igoera, eta %4,4koa Bizkaian. Gipuzkoan, berriz, igoera txikiena izan da, % 4koa hain zuzen. Banaketari dagokionez, Bizkaian kontratuen %51 sinatu zen (516.984), %29,2 Gipuzkoan (291.885) eta gainerako %19,2a Araban.

Sektoreen arabera, hirugarren sektorea batez bestekoaren gainetik dago pixka bat (+% 4,6), eta horri esker guztizkoarekiko duen pisua % 79,1eraino hazi da. Bigarrenik, eraikuntza % 2,2 hazi denez gero, bere pisuari eusten dio % 3,6an. Industriako sektoreko kontratazioa % 4 hazi da; aurreko urtean, berriz, +% 1 (% 15,6ko pisua izatetik % 15,5eko pisua izatera). Azkenik, lehen sektorea da gehien hazi dena: % 10,3 egin dute gora kontratuek, guztizkoaren % 1,8 izateraino (aurreko urtean % 9,8 egin zuen behera).

III.2.1. TAULA. EAE-N ERREGISTRATURIKO LAN KONTRATUEN BILAKAERA, SEXUAREN ETA JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	16/17 %	17/18 %
GUZTIRA	**703.837**	**678.946**	**759.149**	**867.255**	**926.599**	**958.100**	**1.001.181**	**3,4**	**4,5**
GIZONAK	328.466	330.787	376.235	433.438	458.363	479.693	500.925	4,6	4,4
EMAKUMEAK	375.371	348.159	382.914	433.817	468.236	478.407	500.256	2,2	4,6
LEHEN SEKTOREA	14.027	15.622	18.289	17.890	18.563	16.738	18.456	-9,8	10,3
INDUSTRIA	58.410	59.539	111.814	140.145	147.712	149.237	155.153	1,0	4,0
ERAIKUNTZA	33.606	32.250	34.186	34.434	34.069	34.808	35.560	2,2	2,2
ZERBITZUAK	597.794	571.535	594.860	674.786	726.255	757.317	792.012	4,3	4,6

Iturria: LANBIDE.

Hona hemen 2018an gehien kontratatu ziren jarduerak: ostalaritza (kontratuen %16,2, 2017an baino %7,6 gehiago, batez bestekoaren gainetik), manufaktura-industria (kontratuen %14,9, %3,4 hazita), administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak, horien artean ALE (hasierako kontratu guztien %11,8, 2017an baino %0,7 handiagoa), osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuetakoak (kontratuen %11,5 eta -%0,3 2017aren aldean) eta merkataritza (kontratu guztien %11 eta +%1,5 aurreko urtearekin alderatuta). Hortaz, ikusten dugunez, kontratazioaren guztizko kopuruak baino bilakaera negatiboagoa dute kontratazioen pisurik handiena duten jarduerek.

III.2.2. TAULA. EAE-KO KONTRATAZIOA, SEXUAREN ETA JARDUERA-ATALAREN ARABERA (CNAE 2009)

	2017	2018KO KONTRATUAK				16/17 ALD. %	17/18 ALD. %
		GIZONAK	EMAK.	GUZTIRA	BERT. %		
NEKAZARITZA, ABELTZAINTZA, BASOGINTZA, ARRANTZA	16.738	16.718	1.738	18.456	1,8	-9,8	10,3
ERAUZKETA-INDUSTRIAK	83	108	23	131	0,0	-17,0	57,8
MANUFAKTURA-INDUSTRIA	143.939	115.863	32.949	148.812	14,9	1,0	3,4
ARGINDARRAREN, GASAREN, LURRUNAREN HORNIDURA	138	79	70	149	0,0	-13,2	8,0
UR-HORNIDURA, HONDAKINEN KUDEAKETA	5.077	5.499	562	6.061	0,6	2,3	19,4
ERAIKUNTZA	34.808	33.548	2.012	35.560	3,6	2,2	2,2
HANDIZKAKO ETA TXIKIZKO MERKAT.; KONPONKETA	108.832	44.482	65.979	110.461	11,0	4,6	1,5
GARRAIOA ETA BILTEGIRATZEA	68.886	61.651	13.018	74.669	7,5	15,6	8,4
OSTALARITZA	150.247	60.620	101.118	161.738	16,2	1,9	7,6
INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOAK	23.470	17.255	11.920	29.175	2,9	11,1	24,3
FINANTZA- ETA ASEGURU-JARDUERAK	5.127	1.511	2.986	4.497	0,4	-4,0	-12,3
HIGIEZINEN ARLOKO JARDUERAK	1.206	518	834	1.352	0,1	12,8	12,1
PROFESIONALAK, ZIENTIFIKOAK ETA TEKNIKOAK	31.316	14.097	18.942	33.039	3,3	3,1	5,5
ADMINISTRAZIO JARDUERAK	117.232	49.004	68.997	118.001	11,8	-0,3	0,7
ADMINISTRAZIO PUBLIKOA	12.239	5.468	7.805	13.273	1,3	-1,7	8,4
HEZKUNTZA	43.901	13.305	34.248	47.553	4,7	6,8	8,3
OSASUN ETA GIZARTE ZERBITZUETAKO JARDUERAK	115.082	24.397	90.396	114.793	11,5	2,1	-0,3
ARTE, JOLAS ETA ENTRETENIMENDU JARDUERAK	41.428	27.300	17.566	44.866	4,5	12,1	8,3
BESTE ZERBITZU BATZUK	21.296	8.083	13.008	21.091	2,1	8,0	-1,0
FAMILIAK PERTSONAL ENPLEGATZAILE GISA	16.862	1.288	15.951	17.239	1,7	0,7	2,2
LURRALDEZ KANPOKO ERAKUNDEAK	193	125	140	265	0,0	103,2	37,3
GUZTIRA	**958.100**	**500.919**	**500.262**	**1.001.181**	**100,0**	**3,4**	**4,5**

Iturria: LANBIDE.

Aldea ikusten da sexuen arabera; izan ere, gizonek izenpeturiko lau kontratuetako bat hartzen du manufaktura-industriak (guztizkoaren %23,13, 2017an baino puntu erdi gutxiago). Emakumeen artean, berriz, osasun jarduerak eta ostalaritza dira jarduerarik handieneko atalak (bien artean kontratu berrien %38,3 hartzen dute).

Manufaktura-industriaren barnean (esana dugunez kontratu berrien %14,9 biltzen du eta %23,1eraino gizonen artean), hona hemen kontratazioaren rankingean buruan zeuden jarduerak 2018an (CNAE bi digiturekin):[9] Metalezko

[9] *Bi digituko sekzioen araberako kontratuak aztertzeko, hasierako kontratuak hartzen dira kontuan. Horregatik, ez datoz bat manufaktura-industriako guztizko kontratuak III.2.2 eta III.2.3. tauletan.*

produktuen fabrikazioa (32.9730 kontratu, manufaktura-industriak erregistraturikoen %23,2 eta %24,3raino gizonen artean), Metalurgia (kontratuen %13,1) eta elikagaien industria (%11,5), halako moldez non 3 sekzio horien artean 67.804 kontratu biltzen dituzten, manufaktura-industrian erregistraturikoen ia erdia (%47,8, 2017an baino 1,4 puntu gutxiago).

III.2.3. GRAFIKOA. MANUFAKTURA-INDUSTRIAK: HASIERAKO KONTRATU GEHIEN DUTEN ATALAK (CNAE 2009 BI DIGITUTAN) EAE-N. DATUAK SEXUARAEN ARABERA.

	2018KO KONTRATUAK			2018K KONTRATUEN %-A			2017/18KO HAZK. %-A		
	GIZONAK	EMAK.	GUZTIRA	GIZONAK	EMAK.	GUZTIRA	GIZONAK	EMAK.	GUZTIRA
1. PROD. METAL. FABRIKAZIOA	26.826	6.147	32.973	24,3	19,5	23,2	-3,3	0,4	-2,6
2. METALURGIA. PROD. FABRIKAZIOA.	16.519	2.034	18.553	15,0	6,4	13,1	2,2	26,4	4,4
3. ELIKAGAIEN INDUSTRIA	8.056	8.222	16.278	7,3	26,0	11,5	2,9	-1,1	0,9
4. MOTORDUN IBILGAILUEN FABRIK.	8.065	2.079	10.144	7,3	6,6	7,1	-27,4	-16,6	-25,4
5. KAUTXU ETA PLASTIKOEN FABRIK.	7.902	1.934	9.836	7,2	6,1	6,9	8,8	-3,7	6,1
6. GARRAIOKO BESTE MATERIAL BATEN FABRIK.	7.533	2.009	9.542	6,8	6,4	6,7	90,1	233,7	109,1
GAINERAKOA	35.408	9.159	44.567	32,1	29	31,4	3,5	8,6	4,5
GUZTIRA, MANUFAKTURA-INDUSTRIA	**110.309**	**31.584**	**141.567**	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**1,9**	**6,8**	**2,7**
KONTRATU BERRI GUZTIEKIKO %-A	22,9	6,5	14,6						

Iturria: EEZP. Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa.

Adin-taldeen arabera, 2018an gizonek nahiz emakumeek sinaturiko kontratu berri gehienak 25-45 urte bitarteko adin-tarteari dagozkio (kontratuen %55,2), 25-29ko eta 30-44ko adinetan banaturik, %15,3 eta %39,9 izanik hurrenez hurren.

25 urtetik beherakoen artean, kontratuen %17,8 izenpetu zen, biztanleria aktiboan duen pisua baino kopuru handiagoa (%4,2koa zen, 2018ko batez besteko datuak). 2017aren aldean izandako bilakaerari dagokionez, eta aurreko urtean bezala, adin-talde guztietan egin zuen gora kontratu kopuruak, 25-29 urtekoen tartean izan ezik (-% 0,7), gizonezkoetan nahiz emakumezkoetan (-% 0,4 eta -% 1 hurrenez hurren. Ratiorik handienak, batez bestekoaren gainetik, gazteenen artean ageri dira (+%24,6 20 urtetik beherakoak), kontratazio guztiekiko pisu txikia bada ere (guztizkoaren %3), baita 45 urte eta gehiagokoen artean ere (+%8,4 eta kontratuen %27 dira).

III.2.4. TAULA. KONTRATUAK EAE-N, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA. 2017-2018KO ERKAKETA

	2018KO KONTRATUAK			2018KO KONTRATUEN %-A			2017/18KO HAZK. %		
	GIZONAK	EMAK.	GUZTIRA	GIZONAK	EMAK.	GUZT.	GIZONAK	EMAK.	GUZT
< 20	15.756	14.561	30.317	3,1	3,9	3,0	28,9	20,2	24,6
20 - 24	72.111	76.047	148.158	14,4	15,2	14,8	10,2	5,7	7,8
25 - 29	74.932	77.814	152.746	15,0	15,6	15,3	-0,4	-1,0	-0,7
30 - 44	211.813	187.659	399.472	42,3	37,5	39,9	0,4	3,1	1,7
45 eta +	126.307	144.181	270.488	25,2	28,8	27,0	9,1	7,8	8,4
GUZT.	**500.919**	**500.262**	**1.001.181**	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**4,4**	**4,6**	**4,5**

Iturria: LANBIDE.

Emakumeen eta gizonen arteko aldeari dagokionez, kontratazioa % 50ean banantzen da bi sexuen artean, arestian esan bezala, eta handiagoa da gizonetan soilik 30-44 urtekoen taldean; hain zuzen ere tarte horretan kontrataziorik ugariena kontratuen % 39,9, eta % 423raino gizonen artean). Gainerako taldeetan, 20 urtetik beherakoentzako alde txiki bat izan ezik, emakumeak gehiago dira gizonak baino.

Ikasketa mailaren araberako kontratazioaren banaketari dagokionez, hamar kontratuetatik lau (%40,2) bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonek izenpetzen dituzte, gehienak hezkuntza orokorreko maila dutenak, gizonetan (kontratuen %37,6) nahiz emakumeen artean (%37,6). Bigarrenik, kontratuen %32,9 bigarren hezkuntzako ikasketak dituzten pertsonei dagokie (bi herenek gutxi gorabehera hezkuntza orokorreko ikasketak eta beste herenak LHkoak. Ondoren, %22,2 DBH ondorengo ikasketak dituzten pertsonei dagokie, horietatik %13,7 unibertsitatekoak eta %8,4 goi-mailako lanbide ikasketa teknikoak dituztenak.

Bestalde, Kontratazioaren igoerarik handienak, 2017an bezala, doktorego eta unibertsitate masterreko mailei dagozkie (%20,4 2017aren aldean, baina kontratazioaren %1,9 besterik ez dira), eta oinarrizko ikasketen artean, osatu gabeko ikasketak dituzten langileentzat (kontratu guztien +%7,9 eta gizonen +%9,7). Kontratazioak gora egin du ikasketa maila guztietan, oinarrizko LHn izan ezik (-%4,3).

III.2.5. TAULA. KONTRATUAK EAE-N, SEXUAREN ETA IKASKETA MAILAREN ARABERA. 2017-2018 ERKAKETA									
	2018KO KONTRATUAK			2018KO KONTRATUEN %-A			2017/18KO HAZK. %		
	GIZONAK	EMAK.	GUZTIRA	GIZONAK	EMAK.	GUZT.	GIZONAK	EMAK.	GUZT
IKASKETARIK EZ	25.345	18.402	43.747	5,1	3,7	4,4	9,8	-3,1	4,0
OINARRIZKO IKASKETAK	214.987	187.962	402.849	42,9	37,6	40,2	4,2	7,3	5,6
- Oinarrizkoak bete gabe	17.315	11.373	28.688	3,5	2,3	2,9	9,7	5,4	7,9
- Oinarrizkoak beteta	197.672	176.489	374.161	39,5	35,3	37,4	3,8	7,4	5,5
BIGARREN MAILAKO IKASKETAK	160.645	168.297	328.942	32,1	33,6	32,9	3,5	2,3	2,9
- LHko programak	53.067	56.901	109.968	10,6	11,4	11,0	-1,6	1,2	-0,2
- Hezkuntza orokorra (Batxilergoa)	107.578	111.396	218.974	21,5	22,3	21,9	6,3	3,0	4,6
DBH ONDORENGO IKASKETAK	99.698	122.473	222.171	19,9	24,5	22,2	5,0	5,0	5,0
- Goi mailako teknik. Prof.	44.705	39.545	84.250	8,9	7,9	8,4	2,8	3,0	2,9
- Diplomatua, lizentziatua eta gradua	45.437	73.124	118.561	9,1	14,6	11,8	5,2	3,9	4,4
- Doktorego eta uniberts. masterra	9.556	9.804	19.360	1,9	2,0	1,9	15,7	25,4	20,4
ZEHAZTU BARIK	244	3.228	3.472	0,0	0,6	0,3	-2,8	-2,1	-2,1
GUZTIRA	**500.919**	**500.262**	**1.001.181**	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**4,4**	**4,6**	**4,5**

Iturria: LANBIDE.

Lanaldi motari helduta, bilakaera positiboa izan zen lanaldi partzialeko kontratuetan, EAEn 399.922 guztira (+%3,7 2017aren aldean), kontratu guztien %39,9rekin, nahiz lanaldi osoko kontratuetan, guztira 598.237, %5 hazita (kontratuen %59,8. Gainerako %0,3 lanaldi eteneko 23.022 kontratuei dagokie. Sexuaren arabera, lanaldi partzialeko kontratazioaren pisua oso desberdina da, zeren eta emakumeek sinaturiko kontratuen erditik gorakoa baita (%53,4 2018an, aurreko urtean baino 3 hamarren gutxiago). Gizonezkoek sinaturiko kontratuak, berriz, %26,6 dira. Hala, emakumeek sinatu zuten lanaldi partzialeko kontratuen % 66,7 2018an (% 66,6 2017an).

III.2.6. TAULA. EAE-N ERREGISTRATURIKO LAN KONTRATUEN BILAKAERA, LANALDI MOTAREN ETA SEXUAREN ARABERA								
		2014	2015	2016	2017	2018	16/17 %	17/18 %
LANALDI PARTZIALA	GIZONAK	99.147	114.612	123.025	128.959	133.023	4,8	3,2
	EMAK.	203.939	227.607	248.707	256.813	266.899	3,3	3,9
	GUZTIRA	**303.086**	**342.219**	**371.732**	**385.772**	**399.922**	**3,8**	**3,7**
LANALDI OSOA	GIZONAK	276.242	317.926	334.205	349.576	366.614	4,6	4,9
	EMAK.	178.024	205.070	218.170	220.230	231.623	0,9	5,2
	GUZTIRA	**454.266**	**522.996**	**552.375**	**569.806**	**598.237**	**3,2**	**5,0**
LANALDI FINKO ETENA	GIZONAK	846	900	1.133	1.158	1.288	2,2	11,2
	EMAK.	951	1.140	1.359	1.364	1.734	0,4	27,1
	GUZTIRA	**1.797**	**2.040**	**2.492**	**2.522**	**3.022**	**1,2**	**19,8**
GUZTIRA	GIZONAK	376.235	433.438	458.363	479.693	500.925	4,7	4,4
	EMAK.	382.914	433.817	468.236	478.407	500.256	2,2	4,6
	GUZTIRA	**795.149**	**867.255**	**926.599**	**958.100**	**1.001.181**	**3,4**	**4,5**

Iturria: EEZP. Enplegu eta Gizarte Segurantzako Mnisterioa.

III.2.3. GRAFIKOA. LANALDI PARTZIALEKO KONTRATUEN EHUNEKOAREN BILAKAERA EAE-N, SEXUAREN ARABERA



Iturria: EEZP. Geuk egina.

Kontratuen iraupenari dagokionez, izenpeturiko kontratu gehienak orain ere aldi baterakoak dira (kontratu guztien % 91,1), % 3,1 hazita, guztira 912.556, 2017an baino % 3,1 gehiago. 88.625 kontratu mugagabeak dira, 2017an baino % 20,9 gehiago, hots, % 8,9 (2017an baino 1,2 puntu gehiago), proportziorik handiena 2008. urteaz geroztik. Kontratu mugagabe horien tasa % 2,9 egin zuen gora 2011 eta 2018 bitartean (% 6tik % 8,9ra).

Sexuaren arabera, kontratazio mugagabearen pisua handiagoa da gizonen artean (% 9,2, eta % 8,5 emakumeak), eta intentsitate berarekin hazi da bi sexuetan (+1,2). Kontratu mugagabeen guztizko kopuruak 2018an % 20,9 egin zuen gora 2017aren aldean. Aldi baterako kontratazioa, berriz, % 3,1 hazi zen.

III.2.7. TAULA. EAE-N ERREGISTRATURIKO LAN KONTRATUEN BILAKAERA, IRAUPENAREn ETA SEXUAREN ARABERA

		2014	2015	2016	2017	2018	16-17 %	17/18 %
MUGAGAB.	GIZONAK	25.300	29.626	32.941	38.202	46.057	16,0	20,6
	EMAK.	27.143	30.411	32.589	35.126	42.568	7,8	21,2
	GUZTIRA	52.443	60.037	65.530	73.328	88.625	11,9	20,9
ALDI BAT.	GIZONAK	350.935	403.812	425.422	441.491	454.868	3,8	3,0
	EMAK.	355.771	403.406	435.647	443.281	457.688	1,8	3,3
	GUZTIRA	706.706	807.218	861.069	884.772	912.556	2,8	3,1
GUZTIRA	GIZONAK	376.235	433.438	458.363	479.693	500.925	4,7	4,4
	EMAK.	382.914	433.817	468.236	478.407	500.256	2,2	4,6
	GUZITRA	**759.149**	**867.255**	**926.599**	**958.100**	**1.001.181**	**3,4**	**4,5**

Iturria: EEZPren datuekin eginikoa Kontratuei buruzko estatistikak.

III.2.4. GRAFIKOA. KONTRATU MUGAGABEEN EHUNEKOREN BILAKAERA EAE-N SEXUAREN ARABERA



Iturria: EEZP. Geuk egina.

Aldi baterako kontratu mota desberdinei dagokienez, gehienak, %48,7, ekoizpenaren inguruabarren ziozko behin–behineko kontratuak ziren. Bigarren tokian, obra edo zerbitzu kontratuak zeuden (%30,3), eta ondoren bitarteko kontratuak (%19). Hiru kontratu mota horiek batuta, aldi baterako kontratuen %98 osatzen dute (% 98,2 201an). Nahiz eta aldi baterako kontratuen batuketa %50ean banatzen den gizonen artean (% 50,2 emakumeen artean), emakumeen presentzia bereziki nabarmena zen bitarteko kontratuetan, emakumeek sinatu baitzuten kontratu horien %72,7. Emakumeen presentzia askoz txikiagoa zen, aldiz, obra edo zerbitzu kontatuetan (%40) eta ekoizpenaren inguruabarren ziozko kontratuetan baino (guztizkoaren %48,1).

Lanaldi motari dagokionez, lanaldi partzialaren batez besteko pisua %40,5 zen (% 40,7 2017an), eta ez zen desbideratze handirik antzematen aipaturiko aldi baterako hiru kontratu mota horien artean.

III.2.8. TAULA. EAE-N 2018AN ERREGISTRATURIKO ALDI BATERAKO KONTRATUEN BANAKETA, SEXU ETA LANALDI MOTAREN ARABERA						
	GUZTIRA		GIZONAK	EMAK.	LANAL. OSOA	LANAL. P.
	ABS.	BERTIK. %				
OBRA EDO ZERBITZUA	276.898	30,3	166.061	110.837	165.763	111.135
EKOIZPENAREN INGURUABARRAK	444.299	48,7	230.377	213.922	264.205	180.094
BITARTEKOTASUNA	173.359	19,0	47.289	126.070	102.541	70.818
EZINDUAK	1.370	0,2	879	491	1.091	279
ERRELEBOA	1.831	0,2	895	936	949	882
ZATIZKO ERRETIROA	4.496	0,5	2.923	1.573	0	4.496
ERRETIROARENGATIKO ORDEZKOA 64 URTETAN	52	0,0	22	30	52	0
PRAKTIKAK	7.718	0,8	4.782	2.936	6.387	1.331
TREBAKUNTZA	1.591	0,2	508	1.083	1.591	0
BESTE BATZUK	942	0,1	557	385	471	471
GUZTIRA	**912.556**	**100,0**	**454.293**	**458.263**	**543.050**	**369.506**

Iturria: Geuk egina EEZPren datuak erabiliz. Kontratuei buruzko estatistikak.

Aldi baterako kontratazioak duen pisu handia dela-eta, kontrataturiko pertsonen zati handi bat hainbat alditan kontratatu ziren urtean. Hala, 2018an 313.588 lagun kontratatu ziren (+% 5,1 2017aren aldean), hots, erregistraturiko kopuru guztiak baino askoz gutxiago (1.001.181 orotara, +% 4,5). Horrez gain, 2017an bezala, 2018an kontrataturiko pertsonen % 53 gizonezkoak izan ziren, eta % 47 emakumeak. Kopuru horiek abiapuntu hartuta, lan-txandaketaren indizea kalkulatzen da (sinaturiko kontratu kopuruaren eta kontrataturiko pertsonen arteko zatidura), eta gehiago dira emakumeak azterturiko serie osoan.

III.2.5. GRAFIKOA. LAN-TXANDAKETAREN BILAKAERA (KONTRATATURIKO PERTSONA BAKOITZEKO KONTRATUEN B.B. KOPURUA), SEXUAREN ARABERA EAE-N



Iturria: EEZPren datuak erabiliz egina.

Txandaketak, aurreko urtean bezala, igoera txikia izan zuen 2018an, eta ratioa 3,19 da (-2 hamarren). Jaitsiera hori pixka bat handiagoa da emakumeen artean, emakumezkoen txandaketak 3 ehuneko jaitsiera izan baitzuen, % 3,39raino, eta ehunen batekoa % 3,01eraino gizonezkoetan. Hortaz, bi ratioen arteko aldea 2 ehunetan murriztu da, hots, 0,38 puntu 2018an.

Lan-txandaketa hori islatzeko beste modu bat da 2018ean kontrataturiko pertsonen erdiak urtean kontratu bat izan zuela azpimarratzea da (guztizkoaren %52,5, %55,3 gizonen artean eta %49,2 emakumeen artean), % 27,4k 2 edo 3 lan-kontratu izan zituen, %18,3k 4-20 kontratu bitartean sinatu zituen eta gainerako %1,8ak 20 kontratu baino gehiago sinatu zituen urtean. Banaketa oso antzekoa da sexuen arabera.

III.2.6. GRAFIKOA. LAN-TXANDAKETA EAE-N: 2017AN KONTRATATURIKO PERTSONEN BANAKETA, KONTRATU MOTAREN ARABERA. DATUAK SEXUEN ARABERA.



Iturria: EEZPren datuak erabiliz eginikoa.

Aldi baterako kontratuen batez besteko iraupenari dagokionez, 2018an, 52 egunekoa da (2017an baino 2 gehiago), estatuko kopuru bera, non ez baita aldaketarik izan 2017aren aldean. Kontratu motaren arabera, laburrenak bitartekotasun kontratuak dira (26 egun batez beste, 2017an bezala) eta ondoren ekoizpenaren inguruabarren ziozko aldi baterakoak (batez beste 35 eguneko iraupena dute, aurreko urtean baino 1 gutxiago). Sexuaren arabera, batez beste, gizonek sinaturiko aldi baterako kontratuen iraupena luzeagoa da emakumeek sinaturikoak baino (57 egun eta 46 egun), baina alde hori ez da ageri estatuan.

III.2.9. TAULA. EAE-N SINATURIKO IRAUPEN JAKIN BATEKO ALDI BATERAKO KONTRATUEN B.B. IRAUPENA (EGUNAK).

	2016			2017			2018		
	GIZONAK	EMAK.	GUZT.	GIZONAK	EMAK.	GUZT.	GIZONAK	EMAK.	GUZT.
ERRETIRO PARTZIALA	1.288	1.329	1.301	1.274	1.338	1.295	1.256	1.301	1.271
ERRELEBOA	1.182	1.240	1.208	1.181	1.263	1.222	1.162	1.211	1.187
EZINDUEN ALDI BATERAKOA	377	375	376	387	386	386	381	381	381
PRESTAKUNTZA	358	362	360	367	368	368	370	402	380
AURRETIAZKO ERRET. ORDEZKOA	360	332	348	360	360	360	360	360	360
PRAKTIKAK	249	265	256	248	260	252	260	266	263
OBRA EDO ZERBITZUA	38	44	41	44	44	44	49	46	48
EKOIZPENAREN INGURUAB. ALDI BAT.	35	35	35	37	36	36	36	34	35
BITARTEKOA	26	25	25	27	25	26	27	26	26
BESTE BATZUK	228	243	234	276	315	293	263	303	280
EAE, GUZTIRA	**52**	**44**	**48**	**54**	**45**	**50**	**57**	**46**	**52**
ESTATUA, GUZTIRA	50	51	50	51	52	52	52	52	52

Iturria: EEZPren datuekin eginikoa

2018an eginiko aldi baterako kontratuen %49,7k (% 49,3k 2017an) hilabete edo denbora laburreko iraupena izan zuen, %2,1ek hilabete eta sei hilabete artean eta %3,2k sei hilabetetik gorakoa. Gainerako aldi baterako kontratuak (%33,2) iraupen zehaztugabekoak dira.

EAEn 2018an izandako kontratazioa kontratuen iraupenaren eta lanaldi motaren arabera aztertuta, bi aldagaiak gurutza daitezke hauxe egiaztatzeko: sinaturiko 1.001.181 kontratuetatik erdia baino gehiago (%54,2) lanaldi osorako aldi baterako kontratuak izan ziren, eta modalitate hori %20,3 hazi zen 2017aren aldean (kontratu guztiak baino +%4,5 gehiago). Bigarrenik, lanaldi partzialeko aldi baterako kontratuak zeuden, hots, kontratu guztien %36,9, % 2,5 hazita. Hirugarrenik, lanaldi osoko kontratazio mugagabea dago, hots, %5,5 (2017an baino 8 hamarren gehiago), % 21,3 hazita, eta lanaldi partzialeko mugagabea % 3 (% 26 2016an eta 2017an). Azkenik, aldi baterako kontratuak mugagabe bihurtzea kontratu guztien % 3,2tan gertatu zen (2017an baino 6 hamarren gehiago), hots, % 26,8 hazita, hortaz, 2018an gehien hazi zen kontratu mota.

III.2.10. TAULA. EAE-N ERREGISTRATURIKO LAN KONTRATUAK: DATEN GURUTZAKETA LANALDI MOTAREN ETA IRAUPENAREN ARABERA, ETA BESTE DATU BALIAGARRI BATZUK									
		2013	2014	2015	2016	2017	2018	16/17 ALD.	17/18 ALD.
LANALDI PARTZIALA	MUGAGABEA	16.843	19.478	21.827	23.780	25.292	30.416	6,4	20,3
	ALDI BAT.	252.100	283.608	320.392	347.952	360.480	369.506	3,6	2,5
	GUZTIRA	268.943	303.086	342.219	371.732	385.772	399.922	3,8	3,7
LANALDI OSOA	MUGAGABEA	25.878	31.168	36.170	39.258	45.514	55.187	15,9	21,3
	ALDI BAT.	382.252	423.098	486.826	513.117	524.292	543.050	2,2	3,6
	GUZTIRA	408.130	454.266	522.996	552.375	569.806	598.237	3,2	5,0
LANADI FINKO ETENA	MUGAGABEA	1.873	1.797	2.040	2.492	2.522	3.022	1,2	19,8
KONTRATUAK, GUZTIRA		**678.946**	**759.149**	**867.255**	**926.599**	**958.100**	**1.001.181**	**3,4**	**4,5**
HASIERAKO KONTRATUAK		664.523	745.083	850.108	905.528	932.989	969.338	3,0	3,9
BIHURTZEAK		14.423	14.066	17.147	21.071	25.111	31.843	19,2	26,8
LANALDI PARTZIALEKO TASA		39,6	39,1	39,5	40,1	40,3	40,0	0,5	-0,7
ATZERRITARREI EGINIKO KONTRATUAK		74.968	75.986	84.787	93.887	103.574	126.658	10,3	22,3

Iturria: EEZP. Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa.

Egoerak bere horretan dirau. Laneko Harremanen Kontseiluak (LHK) eginiko azterlanean, Euskadiko 2009 eta 2017 bitarteko kontratazioa aztertu da (2018ko amaieran aurkeztua), eta bertan nabarmentzen denez, azken 8 urtean eginiko kontratuak aldi baterakoak dira; horietatik % 30 astebetekoak baino laburragoak dira. Emakumeak dira 7 egunekoak baino laburragoak diren kontratu horiek gehien jasten dituztenak. Gehienez hilabeteko iraupena duten aldi baterako kontratuak aldi horretan sinaturiko kontratuen erdia dira. Iraupen mugagabekoak, berriz, aldi baterako kontratuen herena dira. Kontrako muturrean, urtebetetik gorako aldi baterako kontratuak ez dira aldi baterako kontratazioaren %1 ere.

Era berean, LHKek bere txostenean nabarmendu duenez, 2017an, hainbat urtetan hazkunde ekonomikoa izan ondoren, aurreko ekitaldietan ikusitakoa baino bilakaera hobexeagoa ageri dela ematen du azterturiko zenbait alderditan: txandaketa-indizea, kontratu mugagabeen hazkundea eta presentzia, kontratu bakarra/urtea duten pertsonen garrantzia, etab.

III.2.7. GRAFIKOA. EAE-N SINATURIKO LAN KONTRATUEN BILAKAERA, IRAUPENAREN ETA LANALDI MOTAREN ARABERA



Iturria: EEZP. Geuk egina.

EEZPren datuek agerian uzten dutenez, azkenik, gure Erkidegoan 2018an sinaturiko lan-kontratu guztietatik 126.658 atzerritarrek izenpetu zituzten, hots, guztizkoaren %12,7k (%10,8k 2017an) eta 2017an baino %22,3 gehiago. Horrenbestez, kontratazioaren bilakaera positiboa izan da, eta kontratazio guztien kopurua baino gehiago hazi da. Atzerritarrek sinaturiko kontratuen % 60 (aurreko bi urteetan bezala) gizonezkoei dagokie, eta % 40 emakumeei.

2.2. IRAIZPENEN ETA ERREGULAZIO ESPEDIENTEEN BILAKAERA

Erregistraturiko kaleratze indibidualak Autonomia Erkidegoko lan-administrazioko agintaritza eskudunaren aurrean (Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren ordezkaritzarekin) egindako adiskidetzeen ondorioz eta bi aldeak ados egonik egin direla, baita Lan arloko Epaitegien bidez izapidetutakoak ere; kaleratze horiek Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioari jakinarazten zaizkio.

Bestalde, enpresak erabakitakoak dira iraizpen kolektiboak (langileen legezko ordezkarien akordioarekin edo hori gabe), aldi jakin batean legez ezarritako lan kontratuen ehuneko edo kopuru osoa edo zati bat desagerrarazteko arrazoi ekonomikoengatik, teknikoengatik edo antolakuntzako ekoizpeneko arrazoiengatik, desegiteko Lan-erregulazio Espedientearen (LEE) bidez.

2.2.1. Banako iraizpenak eta objektiboak[10]

Lehenik eta behin, Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren "Lan-estatistikak" direlakoetan, 2018an orotara 5.837 langile zeuden bitartekaritza, arbitraje eta adiskidetze (BAA) gaien eraginpean, eta aldeen artean hala adostuta ebatzi ziren (azaroko behin-behineko datuak), 2017an baino %5,1 gehiago. Horren ondorioz, batez beste 17.635,7 euroko kalte-ordaina izan da langileko (-%9,2 2017aren aldean).

III.2.11. TAULA. BANAKO IRAIZPENEN ETA IRAIZPEN OBJEKTIBOEN BILAKAERA EAE-N (ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAREN MINISTERIOA)

	BALIO ABSOLUTUAK			ALDAK. %	
	2016	2017	2018	2016/17	2017/18
ERAGINPEKO LANGILEAK					
BITARTEKOTZA, ARBITRAJEA ETA ADISKIDETZEA (BAA)	4.470	5.552	5.837	24,1	5,1
GIZARTE GAI JUDIZIALAK (GGJ)	4.254	4.301	4.458	1,1	3,7
GUZTIRA	8.724	9.853	10.295	12,9	4,5
ADISKIDETZEETAN ADOSTURIKO DIRU-KOPURUAK:					
ZENBATEKOA, GUZTIRA (MILAKO €)					
BITARTEKOTZA, ARBITRAJEA ETA ADISKIDETZEA (BAA)	115.307	107.877	102.940	-6,4	-4,6
GIZARTE GAI JUDIZIALAK (GGJ)	42.195	27.142	25.064	-42,8	-7,7
GUZTIRA	157.502	135.019	128.004	-14,3	-5,2
B.B. ZENBATEKOA (€)					
BITARTEKOTZA, ARBITRAJEA ETA ADISKIDETZEA (BAA)	25.795,9	19.430,3	17.635,7	-24,7	-9,2
GIZARTE GAI JUDIZIALAK (GGJ)	9.918,9	6.310,6	5.622,3	-36,4	-10,9

Iturria: EGSM. Lanari buruzko estatistikak.

Era berean, gizartearen arloko epaitegien bitartez izapideturiko iraizpenen eraginpean egon ziren 4.458 langile (gizarte gai judizialak, GGJ), aurreko urtean baino % 3,7 gehiago, eta erabakitako diru-kopuruen batez bestekoa 5.622,3 euro da, 2017an baino % 10,9 gutxiago. Azken finean, 10.295 langile egon ziren iraizpen horien eraginpean (+% 4,5 2017aren aldean). Ondorioz, orotara 128 milioi euroko kalte-ordainak mugiarazi ziren, 2017an baino % 5,2 gutxiago.

Denborari dagokionez, 2017an eta 2018an 2013-2014 biurteko kopuru altuak berreskuratu ziren, eta berriz ere iritsi zen eraginpeko 10.000 langileko kopurura.

[10] *Diziplinazkoa izan daiteke banako iraizpena, edo arrazoi objektiboak izan daiteke. Iraizpen objektiboak direnean, arrazoiak enpresa ukitzen duenean, eraginpeko hainbat langile izan daitezke, baina kopuru hori ezin iritsi daiteke inoiz iraizpen kolektiboaren atalasera.*

III.2.8. GRAFIKOA. BANAKO IRAIZPENAK ETA OBJEKTIBOAK: BAA ETA GGK ESPEDIENTEEN ERAGINPEKO LANGILEEN BILAKAERA EAE-N



Iturria: ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAREN MINISTERIOA. Lan estatistitikak.
BAA: Bitartekotza, Aribtrajea eta Adiskidetzea. GGJ. Gizarte gai judizialak

2.2.2. Enplegua erregulatzeko espedienteak

2012ko otsailean indarrean sartu zen lan erreformak taldeko iraizpenetarako administrazio baimenaren behar historikoa ezabatu zuela. Horrenbestez, ordutik aurrera enpresak berez erabakitzen du, langileen ordezkariak ados egonda edo ados egon gabe, eta lan agintaritzari taldeko iraizpena gauzatzeko erabakia jakinarazi besterik ez du egin behar. Kasu berezi gisa, ezinbesteko iraizpenei dagokienez, oraindik lan agintaritzak egiaztatu behar du zirkunstantzia hori egon badagoela, enpresak iraizpen horiek gauzatu ditzan. Nolanahi ere, kontuan izan behar da Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioak arlo publiko honi buruz emandako estatistiketan ez direla biltzen izandako iraizpen guztiak, zeren eta ez baititu jasotzen arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolakuntzakoak edo ekoizpenekoak direla izandako iraizpenak, noiz-eta iraizpen kolektibotzat ezarritakoa baino langile kopuru txikiagoari eragiten dionean[11].

Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailak EAEn erregistraturiko lan-erregulazioko espedienteei dagozkien estatistikak argitaratzen ditu, eta 2018an 187 espediente zenbatu zituen (-% 29,7 2017aren aldean, eta 3.187 langileri eragiten diete (-% 26,6), horietatik % 81 gizonak (% 73,4 2017an).

III.2.12. TAULA, EAE-N ERREGISTRATURIKO LAN-ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK: KOPURUA ETA ERAGINPEKO LANGILEAK (EUSKO JAURLARITZA)

	ESPEDIENTEAK	ERAGINPEKO LANGILEAK			
		GUZT.	MURRIZTEA	ETETEA	DESEGITEA
2013	2.426	31.790	5.814	24.104	1.872
2014	1.434	16.747	3.196	12.091	1.460
2015	695	8.108	1.530	5.718	860
2016	446	6.283	1.172	4.473	638
2017	266	4.342	481	2.864	997
2018	187	3.187	355	2.299	533
16/17 ald. %	-40,4	-30,9	-59,0	-36,0	56,3
17/18 ald. %	-29,7	-26,6	-26,2	-19,7	-46,5

Iturria: Lan eta Justizia Saila. EUSKO JAURLARITZA.

[11] *Iraizpen kolektiboa da 5 langiletik gorako plantilla osoan eragina badu, enpresaren jarduera bertan behera uztearen ondorioz, edo laurogeita hamar eguneko denboraldi batean, gutxienez 10 soldatadun 100 langiletik beherako enpresetan, plantillaren %10 100 eta 300 langile artean dituzten enpresetan, edo 30 langile 300 langiletik gorako enpresetan (Langileen Estatutuaren Legearen 51. artikulua). Atalase horiek lortu ezean iraizpen objektibotzat jotzen da (52. art.).*

Espediente motaren arabera, aldi baterako etenaldiko espedienteen eraginpeko langileak dira % 72,1 (-% 19,7 2017aren aldean), % 11,1 lanaldi murrizketakoa (-% 26,2) eta gainerako % 16,7a desegite espedienteengatik (-% 6,2 aurrekoaren aldean). Azken horiek, desegite edo iraizpen kolektiboko lan-erregulazioko espedienteek, 553 langileri eragiten diete.

III.2.9. GRAFIKOA. EUSKADIN LAN-ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAREN ERAGINPEKO LANGILEEN BANAKETA, ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERA. 2018.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Geuk egina.

Enpresa motaren arabera, eraginpeko langileen %41,1ek sozietate anonimoetan egiten du lan, %55,4k sozietate mugatuetan eta gainerako %3,5ak beste sozietate modu batzuetan. Tamainari dagokionez, 25 langile baino gutxiagoko enpresetakoa da %24,3. %33,8, berriz, 250 langiletik gorakoei dagokie. Bi kategorien artean, 25 eta 50 arteko plantillei dagokie %13,7, %12,4 51-100 langilekoei eta gainerako %15,8a 101-250 langile dituztenei.

Lurraldez lurralde, Arabak eraginpeko langileen igoera txikia izan zuen (+% 2,6). Gipuzkoan, berriz, behera egin zuen, % 52,4 hain zuzen, eta Bizkaian % 31. Guztizkoa, gainera, honelaxe dago banatuta: % 17,7 Gipuzkoan, % 42,8 Araban eta % 39,5 Bizkaian.

Arrazoien aldetik, eskariaren edo ekoizpenaren murrizketak lan-erregulazioko espedienteen eraginpeko langileen % 59,4 hartzen du, ondoren arazo ekonomikoak eta finantzarioak, % 34,2arekin, eta % 4,6 arrazoi teknikoak eta antolakuntzakoak; horietatik % 1,8, azkenik, nahitaezko kausei dagokie. Eta jarduera-sektoreen arabera, zerbitzuen sektorean planteatzen dira lan-erregulazioko espediente gehien (espediente guztien % 55,6), baita eraginpeko pertsonak ere.

III.2.13. TAULA. EAE-N ERREGISTRATURIKO LAN-ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK: ERAGINPEKO LANGILEAK LURRALDEEN ARABERA (EUSKO JAURLARITZA)

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	EAE
2013	9.747	9.102	12.941	31.790
2014	5.064	6.273	5.410	16.747
2015	2.181	2.691	3.236	8.108
2016	2.099	1.746	2.438	6.283
2017	1.330	1.188	1.824	4.342
2018	1.364	565	1.258	3.187
16/17 ald. %	-36,6	-32,0	-25,2	-30,9
17/18 ald. %	2,6	-52,4	-31,0	-26,6

Iturria: Lan eta Justizia Saila. EUSKO JAURLARITZA.

Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailaren estatistikari esker, era berean, aldeen arteko akordioa duten espedienteen ziozko eraginpeko langileen proportzioa zein den jakin daiteke: lan-erregulazioko espediente baten eraginpeko langileen %40,2k aldeek itundutako espedienteak izan zituen 2018an. 2017an, berriz, %79,5ek (%89,1 batez beste estatuan, Lan Ministerioaren arabera. Erregulazio espediente motaren arabera asko aldatzen da akordioaren proportzio hori, halako moldez non %44,1 izan baitzen etenaldi-espedienteetan, %89,1 murrizpenekoetan eta %89,1 taldeko iraizpenetan.

Bestalde, EAEn erregistraturiko erregulazio espedienteen datuak, betiere Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren "Laneko erregulazioei buruzko estatistika" delakoa oinarri hartuta, euskal administrazioan eta zentralean izapideturiko eta EAE eragina duten erregulazio espedienteen agregatua ematen du. Haren datuak eta Eusko Jaurlaritzarenak bat ez badatoz ere (Ministerioarenak ugariagoak dira, aldi berean EAEn eta kanpoan lantokiak dituzten enpresen espedienteak erregistratzen direlako eta, beraz, EAEko langileei ere eragiten diete), baliagarria da bi estatistikak aztertzea; izan ere, horien bilakaera, jakina, ildo beretik doa.

III.2.14. TAULA. EAE-N ETA ESTATUAN ERREGISTRATURIKO LAN-ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK: ERAGINPEKO LANGILEEN BATURAREN BILAKAERA

	EAE	ESTATUA	EAE/ESTATUA %
2013	42.449	379.972	11,2
2014	17.854	159.566	11,2
2015	8.511	100.522	8,5
2016	8.341	86.576	9,6
2017	4.678	57.497	8,1
2018	**3.439**	**72.896**	**4,7**
16/17 ald. %	-43,9	-33,6	
17/18 ald. %	-26,5	26,8	

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa. Lan-erregulazioei buruzko estatistikak.

2018an, lan-erregulazioko espedienteen eraginpeko langileak 3.439 ziren EAEn (Eusko Jaurlaritzaren estatistikak erregistratzen dituen 3.187 langileak gehi Administrazio Zentralean izapideturiko 252 espediente). Kopuru horrek %26,5 egin du behera EAEn, eta %26,8 Estatu osoan. Hortaz, puntu batean jaitsi da EAEko espedienteek guztizkoarekiko duten pisua, %4,7 izateraino.

2.2.3. Iraizpenen bilakaera agregatua

2018ko banako iraizpenen eta desegiteko lan erregulazioko espedienteen eraginpeko langileen agregatua aintzat hartuz gero, jaitsiera txikia ageri da (-% 0,4) 2017ko igoeraren aldean, noiz-eta % 16,8ko hazkunde gertatu zenean.

Orotara, eraginpeko 11.706 langile zenbatu ziren, 2017an baino % 0,4 gutxiago, eta jaitsiera bereziki nabarmena da desegiteko lan erregulazioko espedienteen eraginpeko pertsonen artean, % 38,6 jaitsi baita. Alabaina, eraginpeko langileen %7,1 besterik ez dira, eta krisiaren hasierako urteetan iraizpenen zati handia ziren. BAAren eraginpeko pertsonak %52,7 dira. GGJen eraginpeko pertsonak, berriz, iraizpenen %40,2 dira.

III.2.10. GRAFIKOA. IRAIZPENAK EAE-N: BILAKAERA MOTAREN ARABERA



Iturria: ENPLEGU MINISTERIOA. Lan estatistitikak.
BAA: Bitartekotza, Arbitrajea eta Adiskidetzea
GGJ: Gizarte Gai jJdizialak
Des. EEE: Desegite Enpleguko Erregulazio Espedienteak (Iraizpen kolektiboak)

3. LAN HARREMANAK

3.1. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA: SOLDATA IGOERA, LANALDIA ETA LANA ETA FAMILIA UZTARTZEA

LHKren 2018ko "EAEko gizarte-lanaren egoera" delakoaren emaitzen aurrerapenaren arabera, urtearen hasieran langileen %22,5ek zuen indarreko hitzarmena. %58,1ek, berriz, luzaturiko hitzarmena zuen, berritzeke, eta %19,4k agorturiko hitzarmena. Negoziazio kolektiboak, beraz, %80,6 hartzen zuen (aurreko urtean baino puntu erdi gehiago). Hona hemen egoera urtearen amaieran: langileen %47,3k indarreko hitzarmena zuen (%24,8 urtean erregistraturiko hitzarmenekin eta %22,5 aurreko urteetan sinaturikoekin); %37,8k luzatua zuen, berritzeke, eta gainerako %14,9k

III.3.1. GRAFIKOA. EAE-N ERREGISTRATURIKO HITZARMENEN ERAGINPEKO LANGILEAK. EHUNEKOETAN EMANDAKO DATUAK



Iturria: LHK

hitzarmen agortua zeukan. Horrenbestez, 2018ko bukaeran negoziazio kolektiboaren estaldura maila % 85,1ekoa zen (2017koa baino ratio handiagoa -% 80,7koa izan zen orduan-). Agorturiko zenbait hitzarmen sektorial berreskuratzeari eta akordioak lortzeari esker (gehienbat eremu sektorialean), langileen % 24,8k bere baldintzak eguneratu zituen 2018an, azken 5 urteetako portzentajerik altuena.

2018an, 317 hitzarmen erregistratu ziren Euskadin, 2016an eta 2017an baino gehiago (288 eta 304 hurrenez hurren), hots lan-baldintzak berritu zaizkie 146.294 laguni, 2017an baino % 52,7 gehiago (95.787). Lurralde eremuen arabera, EAEn eragina duten estatu mailako 95 hitzarmen erregistratu ziren, eta 222 gure Erkidegoan zuzenean, guztira 58.134 eta 88.160 langileri eragiten dietenak. Sektoreko negoziazioari dagokionez, 2018an 21 hitzarmen erregistratu ziren, orotara 67.211 langileri eragiten zietenak. Aurreko urtean, EAEn erregistraturiko sektoreko 15 hitzarmenek 21.137 langilerengan izan zuten eragina.

III.3.1. TAULA. SINATURIKO HITZARMENEN BILAKAERA ETA ERAGINPEKO LANGILEAK EAE-N

	SINATURIKO HITZARMENAK	ERAGINPEKO LANGILEAK
2016	288	98.728
2017	304	95.787
2018	317	146.294
16/17 %	5,6	-3,0
17/18 %	4,3	52,7

Iturria: LHK.

2018ko negoziazio kolektiboaren ondorioz, urtearen amaierako kopuruak ageri dira ondoko III.3.2. taulan: indarreko 717 hitzarmen, 272.983 langile orotara, eta beste 597 hitzarmen luzatu (eraginpeko 218.423 langile) eta 35 hitzarmen agortu, orotara eraginpeko 86.000 langile baino gehiago.

III.3.2. TAULA. HITZARMEN KOLEKTIBOAK ETA ERAGINPEKO LANGILEAK EAE-N 2018/12/31N, EGOERAREN ARABERA								
	INDARREKOAK		LUZATUAK		AGORTUAK*		GUZTIRA	
	HITZAR.	LANGIL.	HITZAR.	LANGIL.	HITZAR.	LANGIL.	HITZAR.	LANGIL.
GUZTIRA (1 + 2)	**717**	**272.983**	**597**	**218.423**	**35**	**86.027**	**1.349**	**577.433**
1. EAE-N ERREGISTRATUAK	493	151.439	460	179.155	31	85.207	984	415.801
- ARABA	109	33.249	74	9.744	6	16.007	189	59.000
- BIZKAIA	219	79.149	213	92.414	14	15.480	446	187.043
- GIPUZKOA	156	36.589	142	39.173	11	53.720	309	129.482
- LURRALDE ARTEKOA	9	2.452	31	37.824	-	-	40	40.276
2. ESTATU MAILA	224	121.544	137	39.268	4	820	365	161.632

Iturria: LHKren datuekin egina.
** Hitzarmen agortuak dituzten eta haiek babesteko maila handiagoko hitzarmenik ez daukaten langileak*

Bestalde, 2018rako EAEko indarreko hitzarmenetan itundutako batez besteko soldata igoera %1,86 da EAEn, Estatuko igoera baino pixka bat handiagoa (%1,75 da estatuan). Halaber, EAEn negoziaturiko hitzarmenen batez besteko igoera, EAEn eragina duten estatu mailakoak alde batera utzita, %1,91 da, aurreko urteetan baino pixka bat handiagoa.

III.3.3. TAULA. EAE-N ADOSTURIKO SOLDATA IGOEREN BILAKAERA EAE-N				
	2015	2016	2017	2018
ARABA	0,45	0,91	1,55	1,94
BIZKAIA	0,65	1,04	1,55	2,00
GIPUZKOA	0,54	1,08	1,67	1,70
LURRALDE ARTEKOAK	0,64	1,20	1,34	1,53
EAE-N ERREGISTRAT.	0,58	1,04	1,57	1,91
ESTATU MAILAKOA	0,68	0,98	1,37	1,78
EAE, GUZTIRA	**0,62**	**1,01**	**1,48**	**1,86**

Iturria: LHK.

Bestalde, gora egin zuen aurreko ekitaldiaren aldean lanaldian murrizketaren bat 2018an sartu zuten hitzarmenen proportzioak aurreko urteetako indarreko hitzarmenekin erkatuta, zeren eta hitzarmen horietako % 8,5ek murriztu egin baitu (% 5,6k 2017an). Ratio horiek oso urruti daude 2009an lanaldia murriztu zuten hitzarmenen % 22,9tik.

EAEn eragina duten berrituriko hitzarmenetan, urteko 1,44 orduko murriztapena lortu da batez beste (-0,35 aurreko urtean), eta 0,59 ordu dira soilik EAEn erregistraturiko hitzarmenak hartzen badira kontuan; 2,06 EAEn eragina duten estatuko eremukoenak. Ondorioz, hitzarmenetan 2018rako itundutako (indarrekoak nahiz luzatuak) batez besteko lanaldia 1.710 ordukoa izan zen EAEn, 1.687 ordukoa EAEn erregistraturiko hitzarmenetan eta 1.745 ordukoa EAEn eragina duten Estatuan erregistraturiko hitzarmenetan.

III.3.2. GRAFIKOA. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN ZIOZKO LANALDI MURRIZKETA EAE-N: LANALDIA MURRIZTEN DUTEN ETA EAE-N APLIKATZEKO DIREN HITZARMENEN EHUNEKOA ETA MURRIZTURIKO URTEKO ORDUAK.



Iturria: LHK Geuk egina

Azkenik, LHKren txostenari esker, era berean, jakin daiteke 2018ko abenduaren 31n EAEn indarrean zeuden 717 hitzarmenetatik zenbatek sartu zituzten lana eta familia uztartzeko neurriak: guztira 324 dira, hitzarmen guztien % 45,2 (%45,7 2017an). Hitzarmen horietako gehienetan bildutako neurriek edoskitzarorako eskubidea lanaldi osoetan metatzeko aukerarekin dute zerikusia, baita indarreko legerian ezarritako eta familiaren edo norberaren inguruabarren zioz ordaindutako zenbait baimenekin ere.

Indarreko enpresa hitzarmenetatik % 46,4k kontziliaziorako neurriak abiarazi ditu. Sektoreko hitzarmenetan, berriz, % 39ra murrizten da. Lurraldez lurralde, EAEko negoziatuetan % 40,8k horrelako neurriak arautzen dituzte, eta estatuko negoziatuetan, berriz, % 55eko ratioa da, kasu honetan enpresa handien hitzarmenak edo estatu mailako sektoreko hitzarmenak izanik; eraginpeko langile kopuru handia da, beraz, estatuan.

LHKek bere txostenean nabarmentzen duenez, ehuneko horiek azken bi urtean izandakoen antzekoak dira (ez dago aurreko informaziorik), baina une jakin batzuetan aldatu egin daitezke eguneratuta edo luzatuta dauden hitzarmenen kopuruaren arabera. Hortaz, ez dago aurrerapen nabarmenik arlo horretan.

III.3.3. GRAFIKOA. KONTZILIAZIO NEURRIAK ABIARAZI DITUZTEN EAE-KO INDARREKO HITZAREMNEN EHUNEKOA, ARLOAREN ETA APLIKAZIO-EREMUAUREN ARABERA



Iturria. LHK. Geuk egina.

3.2. LAN-GATAZKAK

Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailaren eta LHKren informazioaren arabera, 2018an EAEn 254 greba erregistratu ziren, eta guztira 48.648 partaide izan ziren. Orotara, lan egin gabeko 110.786 ordu sortu zituzten, hots, urteko % 22,1eko hazkundea greben kopuruan. Lan egin gabeko egunek, berriz, % 15 egin zuten gora. Bestalde, langile partaideen kopuruak % 18,2 egin zuen behera, baina kontuan hartu behar da 2017an % 333,1 handitu zela, partaidetza handiko urtean hain zuzen ere (ia 60.000 lagun), aurreko urteetako kopuruekin erkatuz gero.

III.3.4. TAULA. LAN-GATAZKAK EAE-N: ADIEARZLE NAGUSIEN BILAKAERA

	GREBAK	PARTAIDEAK	LAN EGIN GABEKO EGUNAK	PARTAIDEAK GREBAKO	GREBAGATIK LAN EGIN GABEKO EGUNAK	GREBAGATIK LAN EGIN GABEKO ORDUAK LANGILEKO
2014	226	16.360	55.717	72	247	27
2015	181	10.604	18.217	59	101	14
2016	164	13.735	58.152	84	355	34
2017	208	59.485	96.371	286	463	13
2018	**254**	**48.648**	**110.786**	**192**	**436**	**18**
16/17 ald. %	26,8	333,1	65,7	241,5	30,6	-61,6
17/18 ald. %	22,1	-18,2	15,0	-33,0	-5,8	40,1

Iturria: LHKren eta EUSKO JAURLARITZAREN datuekin egina.

Datu horiek izanik, grebako partaideen kopurua 192 langile izan da (-% 33 2017aren aldean), grebako lan egin gabeko egunak 436 izan ziren (-%5,8) eta langile bakoitzeko lan egin gabeko orduak 18 (+% 40,1 2017aren aldean).

III.3.4. GRAFIKOA. LAN-GATAZKEN BILAKAERA EAE-N



Iturria: LHKren eta EUSKO JAURLARITZAREN datuekin eginikoa.

Sektoreen arabera, zerbitzuetan bildu zen greba kopururik handiena, 176 (guztien % 69,3), eraginpeko 43.034 langile orotara (% 88,5) eta lan egin gabeko ordu kopururik handiena: 82.459 (guztizkoaren % 74,4). Industriak, berriz, bigarren tokia du, 75 grebarekin (guztien %29,5), eraginpeko 5.545 langile (%11,4) eta guztira lan egin gabeko 28.24125,5 egun (guztizkoaren %25,5. Eraikuntzan 3 greba erregistratu ziren, eta bat ere ez lehen sektorean.

Negoziazio kolektiboa da, ageri-agerian, gatazkaren zio nagusia, greben %59,8arekin eta eraginpeko langileen %36,5arekin, baita lan egin gabeko egunetan ere (%46,5).

Lurraldez lurralde, Bizkaiak bildu zituen kopururik handienak: grebak (125), partaideak (29.147) eta lan egin gabeko egunak (66.769). Araban, 35 greba erregistratu ziren: 6.701 partaidea eta lan egin gabeko 9.719 egun. Gipuzkoan, berriz, 94: 12.800 partaide eta lan egin gabeko 34.298 egun.

Estatuan, 2018ko behin-behineko datuekin, nabarmen egin zuen gora partaideen kopuruak, greba kopuruak pixka bat behera egin arren (% 0,4 aurreko urtearen aldean), 728 izateraino, oso nabarmen egin zuen gora partaideen kopuruak, % 505 hain zuzen ere (2,9 milioiak gaindituta), baita lan egin gabeko egunek ere (+% 92,6). Halaxe gertatu da Madrilgo, Errioxako, Kataluniako, Asturiasko, Ceutako, Aragoiko eta Gaztela-Mantxako martxoaren 8ko grebako datuak zenbatu direlako.

3.3. LAN EGINDAKO DENBORA ETA LAN EGIN GABEKO DENBORA

Baliagarria da langileek benetan eginiko lan egunak eta enpresarekin hitzarturikoarekin duen erlazioa zein den jakitea, baita lan egin gabeko egunak eta kasuen banakapena ere. EINek, "Lan Kostuen Hiruhileko Inkestak", informazio zabala ematen du horren inguruan, eta horri esker, jarraipena egin daiteke denboran, kopuru absolutuetan (lan egindako eta lan egin gabeko orduen kopuruaren bilakaera) nahiz estatu mailako kopuru erlatiboetan (lan egin gabeko orduen banaketa), eta xehetasun maila txikiagoarekin, autonomia erkidegoka.

Hona hemen aintzat harturiko aldagai nagusiak (xehetasun handiagoa nahi bada, begiratu Memoria honetako glosarioa):

- Benetan lan egindako orduak: Benetan lan egindako orduak dira. Hitzartutako orduen (hitzarmenen, hitzezko akordioaren edo banako kontratuaren bidez ezarritakoak) eta aparteko orduen edota ordu osagarrien batura da, ken lan egin gabeko orduak (horietatik aparte gelditzen dira lantokian galdutako orduak, benetan lan egindako ordutzat hartzen baitira.

- Lan egin gabeko orduak: Ordaindutakoak (oporrak, jaiak, aldi baterako ezintasuna, amatasunaren ziozko baimena eta antzekoak, aparteko orduak konpentsazioaren ziozko atsedenaldiak, sindikatu-ordezkaritzako orduak, azterketak, medikuaren kontsultara joatea...) edo ordaindu gabeak izan daitezke (lan-gatazka, ugazaben itxiera, legezko zaintza –zaintzarako lanaldi murrizketak-, etab.). Kopuru erlatiboetan, hitzartutako orduen gaineko proportzioa aztertzen da.

Lehenik eta behin, Estatuan lan egindako eta lan egin gabeko orduen xehetasuna aurkezten da, betiere 2015-2018 aldiko urteko batez bestekoak kontsideraturik.

Estatuko langileek, batez beste, hileko 128,73 orduko lanaldia egin zuten, 2017an baino % 0,2 gutxiago. Lan egindako ordu horiek (benetan lan egindakoak) enpresarekin itundutako orduen (hitzarmen, kontratu bidez, etab.) % 86,1 dira, 2017koa baino hamarren bat txikiagoko ratioa.

III.3.5. TAULA. LAN EGINDAKO ETA LAN EGIN GABEKO DENBORA. BANAKAPENAREN BILAKAERA ESTATUAN, ORDUAK LANGILEKO ETA HILEKO. URTEKO BATEZ BESTEKOAK

	2015	2016	2017	2018		2017-18
				ABS.	BERT. %	ALD. %
1. ITUNDUTAKO ORDUAK	149,73	149,45	149,58	149,45	-	-0,1
2. ORDAINDUTAKO ORDUAK	150,08	149,78	150,00	149,85	-	-0,1
3. BENETAN LAN EGINDAKO ORDUAK	129,13	128,75	128,93	128,73	100,0	-0,2
4. LAN EGIN GABEKO ORDUAK	21,23	21,34	21,35	21,45	16,7	0,5
- LAN EGIN GABEKO ORDAINDUTAKO ORDUAK	20,97	21,07	21,08	21,15	16,4	0,3
Oporrak	7,89	7,82	7,63	7,83	6,1	2,6
Jaiak	6,70	6,77	6,85	6,48	5,0	-5,4
A.E.	4,42	4,67	4,85	5,18	4,0	6,8
Amatasuna	0,98	0,92	0,93	0,90	0,7	-3,2
Ordaindutako baimenak*	0,46	0,48	0,45	0,48	0,4	6,7
Arrazoi teknikoak edo ekonomikok	0,19	0,10	0,10	0,10	0,1	0,0
Aparteko orduen konpentsazioa	0,05	0,05	0,08	0,05	0,0	-37,5
Lantokian galdutako orduak**	0,03	0,02	0,0	0,00	0,0	-
Beste batzuk	0,26	0,26	0,28	0,23	0,2	-17,9
-LAN EGIN GABEKO ETA ORDAINDU GABEKO O.	0,27	0,28	0,30	0,30	0,2	0,0
Lan gatazkak	0,01	0,01	0,0	0,00	0,0	-
Beste batzuk	0,26	0,27	0,28	0,30	0,2	7,1
5. APARTEKO ORDUAK	0,59	0,61	0,65	0,68	0,5	4,6
BENETAN LAN EGINDAKO/ITUNDUTAKO O. %	86,2	86,1	86,2	86,1		
LAN EGIN GAB./BENETAN LAN EGINDAKO O. %	16,4	16,6	16,6	16,7		

ITURRIA: EIN. Lan kostuei buruzko Hiruhilekoetako Inkesta. Geuk egina.
**Ordezkaritza sindaikala, azterketak, kontsulta medikoak, etab.*
*** Lege ondorioetarako, lan egindako ordutzat hartzen dira.*

Horrez gain, batez beste lan egin gabeko 21,45 ordu zenbatetsi dira langileko eta hileko, horietatik 21,15 (%98,6) ordaindutakoak izan ziren. Lan egin gabeko orduek % 0.5 egin zuten gora azken urtean.

Lan egin gabeko ordu horietan, kategoria nagusiak (ikus xehetasunak III.3.5 taula) oporraldiei dagozkie (7,83 ordu), jaiak (6,48) eta gaixotasunagatik (AE) lan egin gabeko orduak, zenbatespenen arabera, 5,18 ordu langiletako eta hileko. Hiru kategoria horien artean, lan egin gabeko orduen %92,1 dira eta benetako orduen %15,1. Kopuru erlatiboetan, lan egin gabeko orduak, 2018an, benetan lan egindako orduen % 16,7 dira, 2017an baino hamarren bat gehiago. III.3.5. grafikoan ageri denez, ratio hori apenas aldatu da urtez urte.

Bigarrenik, autonomien arteko erkaketa ageri da, baina ez dugu horien gaineko lan egin gabeko orduen xehetasunik.

Benetan lan egindako orduek hitzarturiko orduen gainean eta lan egin gabeko orduek benetan lan egindako orduen gainean izan dituzten ratioak kalkulatu dira 2015etik 2018rako urteetan, baina horien interpretazio zehatzagoa egiteko, beste aldagai batzuk aztertu beharko lirateke hala nola ekoizpenaren egitura edo lanaldi partzialaren pisua.

2018an, benetan lan egindako orduek hitzarturiko orduen gainen duten portzentajerik handiena Balearretan dago (%88,8) eta txikiena EAEn (%83,3).

Estatuko batez bestekoa, ikusi bezala, % 86,1 da. Lan egin gabeko orduei dagokienez, benetan lan egindako orduekiko proportzioa hauexen artekoa da: Balearretako % 13,1 eta EAEko % 20,4, estatuko % 16,7ko batez bestekoaren gainetik.

III.3.6. TAULA. LAN EGINDAKO ETA LAN EGIN GABEKO ORDUAK AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA. ALDAGAI ERLATIBOEN BILAKAERA.

	BENETAKO ORDUEN %-A ITUNDUTAKO ORDUEKIKO				LAN EGINDAKO ORDUAK BENETAKO ORDUEKIKO			
	2015	2016	2017	2018	2015	2016	2017	2018
ESTATUKO B.B.	86,2	86,1	86,2	86,1	16,4	16,6	16,6	16,7
ANDALUZIA	87,3	86,8	87,2	87,2	14,9	15,6	15,1	15,2
ARAGOI	85,3	85,2	85,5	85,2	17,8	18,0	17,6	18,1
ASTURIAS	85,3	84,9	85,3	85,1	17,6	18,3	17,8	18,0
BALEARS, ILLES	88,7	88,5	88,6	88,8	13,1	13,5	13,4	13,1
KANARIAR U.	87,3	87,1	86,8	86,1	15,0	15,2	15,5	16,6
KANTABRIA	86,4	86,8	86,7	86,3	16,0	15,7	15,7	16,3
GAZTELA ETA LEON	85,5	85,2	85,1	84,8	17,5	17,8	17,9	18,3
GAZTELA-MANTXA	86,8	86,6	86,9	86,6	15,6	15,9	15,6	16,0
KATALUNIA	86,0	85,9	85,8	85,9	16,8	17,0	17,2	17,1
VALENTZIAKO E.	86,2	86,6	86,5	86,4	16,5	15,9	16,1	16,4
EXTREMADURA	87,0	86,7	86,4	86,2	15,2	15,7	16,0	16,3
GALIZIA	86,0	85,9	85,9	85,9	16,7	16,8	16,9	16,9
MADRIL	86,4	86,4	86,5	86,5	16,3	16,2	16,1	16,1
MURTZIA	85,7	86,0	85,7	85,5	17,2	16,8	17,1	17,5
NAFARROA	85,3	85,0	84,9	84,3	17,8	18,3	18,6	19,3
EAE	**83,5**	**83,1**	**83,3**	**83,3**	**20,2**	**20,8**	**20,5**	**20,4**
ERRIOXA	84,8	85,5	85,4	85,6	18,3	17,3	17,5	17,3

ITURRIA:EIN. LGTIL. Geuk egina

Hirugarrenik, EAEko kopuru absolutuen bilakaera ageri da (III.3.7. taula). 2018an, batez beste, enpresen eta langileen artean itundutako hileko orduen kopurua 147,40 izan zen, 2017an baino % 0,3 gehiago. Ordu horietatik, 122,83 ordu (+0,35 2017aren aldean, % 83,3 benetan lan egindakoak izan ziren, eta egonkor eutsi zion ratio horrek azken urtean. Halaber, lan egin gabeko orduak 25,08 izan ziren 2018an langile eta hilabete bakoitzeko, hots, 2017an baino %0,1 gehiago, eta benetan lan egindako orduen %20,4.

III.3.7. TAULA. LAN EGINDAKO ETA LAN EGIN GABEKO DENBORA. ALDAGAIEN BILAKAERA EAE-N. ORDUAK LANGILEKO ETA HILEKO. URTEKO BATEZ BESTEKOAK

	2015	2016	2017	2018	2017/18 ALD.%
1. ITUNDUTAKO ORDUAK	148,00	147,18	147,00	147,40	0,3
2. ORDAINDUTAKO ORDUAK	147,85	147,08	146,70	147,00	0,2
3. BENETAN LAN EGINDAKO ORD.	123,60	122,38	122,43	122,83	0,3
4. LAN EGIN GABEKO ORDUAK	24,98	25,42	25,10	25,08	-0,1
5. APARTEKO ORDUAK	0,50	0,61	0,53	0,45	-15,1
BENETAN LAN EGIN/ITUNDUTAKO O. %	83,5	83,1	83,3	83,3	
LAN EGIN GAB./BENETAN LAN EGINDAKO O. %	20,2	20,8	20,5	20,4	

Iturria: EIN. LAN KOSTUEI BURUZKO HIRUHILEKOETAKO INKESTAK. Geuk egina.

Benetako orduak itundutako orduekiko ratioak eta lan egin gabeko orduak benetako orduekiko ratioen bilakaerak zenbait alde ditu EAEren eta estatuko batez bestekoaren artean, III.3.5. grafikoan ageri denez: benetan lan egindako orduek hitzarturiko orduen gainean duten pisua oso txikia da EAEn serie osoan, eta lan egin gabeko orduek pisu handiagoa dute benetan lan egindako orduen aldean.

III.3.5. GRAFIKOA. LAN EGINIKO ETA LAN EGIN GABEKO ORD.: RATIO ESANGURATSUETAN ESTATU ETA EAE ARTEAN DAGOEN ALDEA



Iturria: EIN. LKHI. Geuk egina.

Azkenik, EINren BAIri esker, ordaindutako eta ordaindu gabeko aparteko orduen banaketa zein den jakin daiteke estatu mailan. 2018an, estatuko soldatapekoen multzoak, asteko batez beste, aparteko 6.450.700 ordu egin zituen, 2017an baino % 11 gehiago. Horietatik 3.627.700 ordaindutakoak izan ziren, aurreko urtean baino % 17,6 gehiago. Ordaindutako ordu horiek aparteko ordu guztien % 56,2 dira (% 53,1 2017an).

4. SOLDATAK EAE-N

4.1. SOLDATEN EGITURARI BURUZKO 2017KO INKESTAREN EMAITZAK

III.4.1. TAULA. URTEKO BATEZ BESTEKO IRABAZIA LANGILE BAKOITZEKO (EUROAK). 2016-2017.

	GUZTIRA 2016	2017			2016/17 ALDAK. %-A			EMAKUME/GIZONEN RATIOAREN %-A	
		GUZTIRA	GIZONAK	EMAK.	GUZTIRA	GIZONAK	EMAK.	2016	2017
ESTATUA, BATEZ BESTE	23.156	23.647	26.392	20.608	2,1	1,8	2,4	77,7	78,1
ANDALUZIA	21.268	21.404	24.176	18.287	0,6	0,6	0,6	75,7	75,6
ARAGOI	22.249	23.040	25.878	19.677	3,6	2,2	4,9	74,1	76,0
ASTURIAS	23.096	23.610	27.849	19.426	2,2	3,1	1,8	70,6	69,8
BALEARS, ILLES	21.478	22.036	23.538	20.466	2,6	1,1	3,9	84,6	86,9
KANARIAR U.	19.749	20.185	21.292	18.918	2,2	0,7	3,9	86,1	88,9
KANTABRIA	22.063	22.390	25.250	19.012	1,5	0,2	4,4	72,3	75,3
GAZTELA ETA LEON	21.552	21.847	24.783	18.797	1,4	1,4	0,7	76,3	75,8
GAZTELA-MANTXA	20.826	21.033	23.161	18.327	1,0	1,3	0,6	79,6	79,1
KATALUNIA	24.456	25.180	28.323	21.801	3,0	2,7	3,3	76,6	77,0
VALENTZIAKO E.	21.169	21.362	23.868	18.524	0,9	0,8	0,9	77,5	77,6
EXTREMADURA	19.475	19.672	21.585	17.722	1,0	0,1	2,1	80,5	82,1
GALIZIA	21.082	21.606	24.322	18.834	2,5	2,3	2,9	77,0	77,4
MADRIL	26.330	27.089	29.910	24.029	2,9	2,7	2,8	80,3	80,3
MURTZIA	21.143	21.309	24.009	18.048	0,3	0,3	0,1	75,3	75,2
NAFARROA	25.468	26.330	29.699	21.899	3,4	2,1	4,5	72,0	73,7
EAE	**27.481**	**28.204**	**31.619**	**24.166**	**2,6**	**2,0**	**3,1**	**75,6**	**76,4**
ERRIOXA	21.999	22.234	24.820	19.354	1,1	0,7	1,6	77,3	78,0

Iturria: EIN. SEI 2017.

Soldatei dagokienez, EINen Soldaten Egituraren Urteko Inkestaren arabera[12], langile bakoitzeko urteko batez besteko irabazia 2018an (azken datua) EAEn 28.204€ zen, hots, % 2,6ko igoera aurreko urtearekiko -% 0,3 2015 eta 2016 bitartean. Kopuru hori Estatuko batezbestekoa baino % 19,3 handiagoa da denboraldi berean, eta autonomia erkidegoen zerrendako lehenengoa da; ondoren Madrilgo Erkidegoa eta Nafarroa daude. Hiru erkidego horiek, Kataluniarekin batera, Estatuko batez bestekoa baino urteko batez besteko irabazi handiagoa dute aipaturiko datan. Gainerakoak, berriz, batez bestekoa baino soldata txikiagoa du.

Sexuen araberako soldaten aldeari dagokionez, emakumeen batez besteko soldata txikiagoa zen gizonezkoena baino autonomia erkidego guztietan 2017an, baina aldeak dauden haien artean. Enpleguak eta okupazioak erkidego bakoitzean duten egitura desberdina funtsezko faktorea da aldakortasun hori azaltzeko. Batez beste, emakumeen soldata gizonen soldataren %78,1 zen (+0,4 puntu aurreko urtearen aldean). Kanariar Uharteek zuten desbideratzerik txikiena (ratiorik handiena), eta ondoren Balear Uharteek eta Extremadurak. Asturiasek, berriz, dibergentziarik handiena, eta ondoren Nafarroak eta Kantabriak. EAEn, emakumeen soldaten ratioa, 2017an, gizonen soldataren %76,4 izan zen batez beste, 2016an baino 8 hamarren gehiago. Kopuru absolutuetan, EAEn, gizonen batez besteko soldata 2017ean 31.619€ zen (+%2 2016aren aldean) eta emakumeena 21.899€ (+%4,5).

Kontratu erlazio motaren araberako soldatei dagokienez, urteko soldata gordina %41,1 handiagoa zen batez beste 2017an kontratu mugagabea zuten langileentzat aldi baterako kontratuekin lan egiten zuten langileentzat baino. Alde hori, gainera, askoz handiagoa zen gizonen artean (%53,9) emakumeen artean baino (%25,3), eta alde hori Estatu mailan ere gertatzen da.

[12] *EINen Soldata-egituraren urteko Inkestak autonomia erkidegoetako datuak ematen ditu, beste aldagai batzuen artean, sexuaren eta lanbidearen araberako soldatei buruz. Ordura arte lau urterik behin baino ez zen lortzen horren inguruko informazioa soldata-egituraren inkesten bidez, hain zuzen ere, eta gainera, 10 langile edo gehiagoko enpresei buruzkoa baino ez zen. Inkesta horrek hainbat iturritako administrazio-erregistroak erabiltzen ditu, hala nola, Gizarte Segurantza edo Zerga Agentziak, baita EINen beraren lan-kostuari buruzko hiruhilekoko inkestako informazioaren zati bat ere. Emaitzetan erabiltzen diren soldaten kontzeptuak balio gordinetan daude, hau da, PFEZren konturako atxikipena edo langileak Gizarte Segurantzarako kotizazioak egin gabe.*

III.4.2. TAULA. URTEKO BATEZ BESTEKO IRABAZIA KONTRATU MOTAREN ARABERA, EAE-N ETA ESTATUAN. 2016-2017. EUROAK.									
	BI SEXUAK			EMAKUMEAK			GIZONAK		
	2016	2017	ALD. %	2016	2017	ALD. %	2016	2017	ALD %
EAE									
GUZTIRA	27.481	28.204	2,6	23.428	24.166	3,1	31.001	31.619	2,0
IRAUPEN MUGAGABEA	29.098	29.733	2,2	24.573	25.025	1,8	33.130	33.774	1,9
IRAUPEN ZEHATZA	19.410	21.071	8,6	17.220	19.967	16,0	21.085	21.941	4,1
MUGAG./IRAUPEN Z. %-A	49,9	41,1		42,7	25,3		57,1	53,9	
ESTATUA									
GUZTIRA	23.156	23.647	2,1	20.131	20.608	2,4	25.924	26.392	1,8
IRAUPEN MUGAGABEA	24.516	25.085	2,3	21.086	21.610	2,5	27.665	28.231	2,0
IRAUPEN ZEHATZA	16.568	17.034	2,8	15.461	15.972	3,3	17.565	17.983	2,4
MUGAG./IRAUPEN Z. %-A	48,0	47,3		36,4	35,3		57,5	57,0	

Iturria: EIN. Soldaten egiturari buruzko inkesta.

Bestalde, inkesta horri esker[13], lan ordu arrunteko irabazia zein den jakin daiteke, lanaldi desberdinak dituten langileak berdintasunean aztertu ahal izateko. Irabazi hori, 2017an, 18,48 eurokoa izen zen EAEn, 2016an baino % 1,7 gehiago. Irabazia orduko, urteko batez bestekoa bezala, Autonomia Erkidegoetako handiena da (eta estatuko batez bestekoa baino % 22,1 handiagoa, 15,13 euro ordukoa baita), eta ondoren Nafarroa eta Madril datoz. Beste muturrean, Kanariar Uharteak eta Extremadura daude.

III.4.3. TAULA. BATEZ BESTEKO IRABAZIA LAN ORDU ARRUNTEKO, SEXUAREN ARABERA (EUROAK). 2016-2017.									
	GUZT. 2016	2017			2016/17 ALDAK. %-A			EMAK./GIZONEN RATIOAREN %-A	
		GUZTIRA	GIZONAK	EMAK.	GUZTIRA	GIZONAK	EMAK.	2016	2017
ESTATUKO B.B.	14,88	15,13	16,10	13,93	1,7	1,0	2,4	85,3	86,5
ANDALUZIA	13,85	13,94	14,87	12,75	0,6	-0,1	1,6	84,3	85,7
ARAGOI	14,41	14,79	15,83	13,41	2,6	2,3	2,8	84,3	84,7
ASTURIAS	14,97	15,23	17,12	13,16	1,7	2,6	1,1	78,0	76,9
BALEARS, ILLES	14,14	14,16	14,48	13,79	0,1	-2,4	2,8	90,4	95,2
KANARIAR U.	12,24	12,49	12,80	12,11	2,0	0,1	4,4	90,7	94,6
KANTABRIA	13,98	14,25	15,27	12,90	1,9	-0,2	5,7	79,8	84,5
GAZTELA ETA LEON	13,93	14,14	15,15	12,95	1,5	0,9	1,6	84,9	85,5
GAZTELA-MANTXA	13,40	13,49	14,05	12,68	0,7	0,9	0,3	90,7	90,2
KATALUNIA	15,71	16,06	17,32	14,58	2,2	2,1	2,5	83,9	84,2
VALENTZIAKO E.	13,79	13,92	14,80	12,81	0,9	0,4	1,6	85,5	86,6
EXTREMADURA	12,87	12,93	13,18	12,63	0,5	-1,0	2,3	92,8	95,8
GALIZIA	13,39	13,71	14,65	12,63	2,4	1,6	3,3	84,8	86,2
MADRIL	16,50	16,87	17,96	15,59	2,2	1,6	2,8	85,8	86,8
MURTZIA	13,55	13,67	14,51	12,50	0,9	0,3	1,3	85,3	86,1
NAFARROA	16,92	17,31	18,61	15,40	2,3	1,4	3,3	81,3	82,8
EAE	**18,17**	**18,48**	**19,55**	**17,04**	**1,7**	**0,9**	**2,7**	**85,7**	**87,2**
ERRIOXA	14,23	14,38	15,17	13,38	1,1	0,2	2,3	86,4	88,2

Iturria: EIN. SEI. 2017.

Sexuaren arabera, EAEko emakumeen orduko irabazia 17,04 eurokoa zen 2017an (2016an baino +%2,7). Gizonezkoen irabaziak 19,55 euroraino egin zuen gora (+0,9 2016aren aldean). Sexuen arteko arrakala hori gertatzen da estatuko erkidego guztietan, eta horrek adierazten du gizonek jaso zutenaren % 87,2 kobratu zutela emakumeek Euskadin, edo bestela esanda, haien irabazia % 12,8 txikiagoa izan zen orduko. Alde hori puntu eta erdi murriztu da azken urtean.

[13] *Orduko irabazia da urteko irabazia zati erreferentziako orduan lan egindako orduak. Informazio-iturri nagusia Lan-kostuen Hiruhilekoetako Inkestako (LKHI) langileko itundutako orduak dira, baina Gizarte Segurantzako datu-baseetan eskuragarri dagoen informazioarekin osatuta, bereziki lanaldi partzialeko langileentzat.*

4.2. LAN-KOSTUEI BURUZKO INKESTAREN EMAITZAK

4.2.1. Lan-kostuei buruzko urteko inkesta

EINen bigarren estatistika eragiketa bat dago, langileek soldaten inguruan duten irudipenerako hurbilketa erakusten duena, hots, urtero egiten den eta lan faktorearen kostuaren eta bere osagaien urteko maila zein den jakiteko modua ematen duen "Lan-kostuei buruzko Inkesta". Horien artean, "lansarien eta soldaten" partidak besteren konturako langileei diruz zein gauzaz emandako ordainsari guztiak hartzen ditu barne. Soldata-egituraren Inkestaren kasuan bezala, zenbatekoak gordinak dira, hau da, atxikipenak edo langileak Gizarte Segurantzarako kotizazioak egin aurrekoak.

III.4.1.. GRAFIKOA. LAN-KOSTUAREN "SOLDATAK ETA LANSARIAK" PARTIDAREN ZENBATEKOA LANGILEKO ETA URTEKO. EAE-ESTATUAREN ARTEKO ALDEA



Iturria: EIN. Lan-kostuei buruzko Urteko Inkesta

2017ko Lan-kostuei buruzko Inkestaren arabera, lan-kostu gordina, EAEn, 35.806 eurokoa zen langileko (+%0,2 2016aren aldean), eta horietatik % 74 "soldata eta lansariei" dagokie, hots, 26.479 uro (gehikuntza aurreko urtearen aldean). Gainerako %23,73a hauexen baturari dagokio: nahitaezko kotizazioak (%23,73), borondatezkoak (%0,8), zuzeneko gizarte prestazioak (%0,31) eta gainontzeko %1,16 beste partida batzuei hala nola gizarte gastuei, kalte-ordainei, etab.

Batez besteko soldata hori Estatuko batez bestekoa baino %16,1 handiagoa eta, Madrilgo Erkidegoarekin batera, autonomia erkidegoen artean kopuru handiena da. "Soldatak eta lansariak" partida horrek etengabe egin zuen gora EAEn 2002 eta 2013 bitartean, baina harrezkero eta 2017ra arte % 2,5 egin du behera. Estatuko batez bestekoa, aldiz, % 0,7 hazi da.

III.4.4. TAULA. LAN-KOSTUA LANGILEKO ETA URTEKO. DATUAK AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA 2016-2017								
	2016*			2017			2016-2017 ald. %-a	
	KOSTU GORD.	SOLDATAK ETA LANS.	SOLDATA ETA L. GUZTIZ. %	KOSTU GORD.	SOLDATAK ETA LANS.	SOLDATA ETA L. GUZTIZ. %	KOSTU GORD.	SOLDATAK ETA LANS.
ESTATUA	30.714	22.784	74,2	30.745	22.807	74,2	0,1	0,1
ANDALUZIA	27.820	20.401	73,3	27.629	20.279	73,4	-0,7	-0,6
ARAGOI	29.097	21.531	74,0	29.248	21.633	74,0	0,5	0,5
ASTURIAS	31.068	23.205	74,7	31.398	23.448	74,7	1,1	1,0
BALEARS (ILLES)	28.681	21.118	73,6	29.298	21.663	73,9	2,2	2,6
KANARIAR U.	26.019	19.085	73,4	26.144	19.154	73,3	0,5	0,4
KANTABRIA	29.277	21.694	74,1	29.464	21.706	73,7	0,6	0,1
GAZTELA ETA LEON	28.047	20.629	73,5	27.670	20.382	73,7	-1,3	-1,2
GAZTELA-MANTXA	27.109	20.049	74,0	27.645	20.423	73,9	2,0	1,9
KATALUNIA	32.478	24.216	74,6	32.375	24.141	74,6	-0,3	-0,3
VALENTZIAKO E.	27.257	20.216	74,2	27.739	20.534	74,0	1,8	1,6
EXTREMADURA	25.333	18.711	73,9	25.129	18.445	73,4	-0,8	-1,4
GALIZIA	27.055	19.860	73,4	27.565	20.272	73,5	1,9	2,1
MADRIL	36.484	27.316	74,9	36.337	27.222	74,9	-0,4	-0,3
MURTZIA	27.822	20.695	74,4	27.291	20.268	74,3	-1,9	-2,1
NAFARROA	32.112	23.596	73,5	33.226	24.572	74,0	3,5	4,1
EAE	**35.726**	**26.468**	**74,1**	**35.806**	**26.479**	**74,0**	**0,2**	**0,0**
ERRIOXA	28.274	21.035	74,4	28.394	21.096	74,3	0,4	0,3

Iturria: EIN: Lan-kostuei buruzo Urteko Inkesta
** 2016ko datuak 2018an berrikusi dira.*

4.2.2. Lan-kostuei buruzko hiruhilekoetako inkesta

Azaldutako urteko eragiketaz gain, EINek "Lan-kostuei buruzko hiruhilekoetako inkesta" (LKHI) egiten du, EUROSTATen Lan-kostu Harmonizatuaren Indizea egiteko funtsezko iturria dena eta Europako Banuk Zentralak Europar Batasuneko herrialdeen arteko bateratze-prozesua jarraitzeko exijituriko "euroadierazleak" deritzenen barruan sartzen dena. Halaber, lan egindako eta lan egin gabeko denborari buruzko informazioa ematen du inkestak (ikus kapitulu honetako 3.3. atala) eta lan-kostuei buruzkoa, langileko eta hileko (soldaten eta lansarien partidaren oso antzekoa, Urteko Inkesta oinarri hartuta[14]) eta benetan lan egindako orduko ere.

Lan-kostuak, kopuru garbietan, benetan lan egindako orduak enpresarentzat dakarren kostua neurtzen du, eta guztizko lan-kostua eta soldata-kostua bereizten dira (kostu horren % 75-% 76, oso ratio egonkorra denboran eta autonomia erkidegoen arabera) [15]. Langileei esku-dirutan edo gauzatan inoren konturako lan zerbitzuak maila profesionalean emateagatik eginiko diru-baliakizunak biltzen ditu eta benetan lan egindako lana ordaintzen dira, ordaintzeko modua edozein dela, edo lan gisa zenbatu daitezkeen atsedenaldiak.

Zehazki, LKHIk erakusten duenez, 2018ko laugarren hiruhilekoan 25,82 eurokoa zen lan-kostua EAEn lan egindako ordu bakoitzeko, aurreko urtean baino % 2,3 gehiago, eta estatuko batez bestekoa baino % 22,1 gehiago (%0,5 hazi zen epealdi berean).

Bestalde, soldata-kostua 19,61 eurokoa zen EAEn benetan lan egindako ordu bakoitzeko 2018ko laugarren hiruhilekoan (guztizko lan-kostuaren % 75,9), aurreko urtean baino % 2,4 gehiago. Zenbateko hori, gainera (eta gauza bera gertatzen da guztizko lan-kostuarekin), autonomia erkidego guztietako altuena da, ondoren Madril eta Nafarroa daude, eta Estatuko batez bestekoa baino % 22,5 handiagoa (16,01 euro). Beste muturrean, Kanariar Uharteak eta Extremadura daude,13 euro besterik ez lan egindako ordu bakoitzeko.

[14] *Lan-kostuen Urteko Inkestak (LKUI) informazio hori osatzen du nominetan hilean erregistratzen ez diren soldata-partida sorta bati buruzko datuekin, zeren eta hilabetetik gorako mugaeguna baitituzte (aurrezki planak, gauzatako ordainketak, borondatezko kotizazioak, etab.). Eginikok zenbatespenen arabera, guztizko lan-kostuaren % 98,4 biltzen du LKUIk, eta horrexegatik ez datoz bat bi eragiketetako emaitzak, antzekoak badira ere.*

[15] *Xehetasun gehiago nahi izanez gero, jo beza irakurleak Memoria honen glosarioen terminoetara.*

II.4.5. TAULA. LAN-KOSTUAREN ETA SOLDATA-KOSTUAREN BILAKAERA BENETAN LAN EGINDAKO ORDU BAKOITZEKO, AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA. EUROTAN. IV. HIRUHILEKOAK.										
	LAN-KOSTUA			SOLDATA-KOSTUA			16/17 ALD. %		17/18 ALD. %	
	2016	2017	2018	2016	2017	2018	L.K.	S.K.	L.K.	S.K
ESTATUA	20,79	21,04	21,14	15,78	15,93	16,01	1,2	1,0	0,5	0,5
ANDALUZIA	18,99	18,75	18,64	14,27	14,04	13,94	-1,3	-1,6	-0,6	-0,7
ARAGOI	20,41	21,00	20,82	15,46	15,82	15,69	2,9	2,3	-0,9	-0,8
ASTURIAS	22,48	22,15	22,02	17,21	16,93	16,61	-1,5	-1,6	-0,6	-1,9
BALEARS (ILLES)	20,20	20,54	20,70	15,21	15,48	15,61	1,7	1,8	0,8	0,8
KANARIAR U.	17,42	17,13	17,54	13,00	12,75	13,13	-1,7	-1,9	2,4	3,0
KANTABRIA	19,87	20,05	20,27	14,99	15,13	15,31	0,9	0,9	1,1	1,2
GAZTELA ETA LEON	19,43	19,41	19,43	14,69	14,57	14,60	-0,1	-0,8	0,1	0,2
GAZTELA-MANTXA	18,80	19,28	18,95	14,12	14,51	14,13	2,6	2,8	-1,7	-2,6
KATALUNIA	21,97	22,36	22,52	16,70	16,97	17,09	1,8	1,6	0,7	0,7
VALENTZIAKO E.	18,52	19,39	19,01	13,94	14,58	14,28	4,7	4,6	-2,0	-2,1
EXTREMADURA	17,72	17,67	17,97	13,36	13,20	13,60	-0,3	-1,2	1,7	3,0
GALIZIA	18,32	19,02	18,95	13,75	14,30	14,23	3,8	4,0	-0,4	-0,5
MADRIL	23,46	23,79	24,19	18,08	18,26	18,63	1,4	1,0	1,7	2,0
MURTZIA	18,96	18,81	18,94	14,31	14,17	14,28	-0,8	-1,0	0,7	0,8
NAFARROA	23,02	23,68	24,06	17,39	17,94	18,29	2,9	3,2	1,6	2,0
EAE	**25,06**	**25,24**	**25,82**	**19,09**	**19,15**	**19,61**	**0,7**	**0,3**	**2,3**	**2,4**
ERRIOXA	19,86	19,94	19,47	15,14	15,10	14,74	0,4	-0,3	-2,4	-2,4
Iturria: EIN: Lan-kostuei buruzko Hiruhilekoetako Inkesta.										

4.3. LANEKO PREZIOEN INDIZEAREN (2016) EMAITZAK 2016

"Laneko prezioen indizearen" (LPI) helburua da lan-eskuak denboran duen prezioaren aldaketa neurtzea, soil-soilik lan-merkatuaren presioen ondorioz, hots, neurri hori ez dago eginiko lanaren kalitatearen eta kantitatearen aldaketen

III.4.2. GRAFIKOA. LANEKO PREZIOEN INDIZEA. URTEKO ALDAKUNTZA-TASAK EAE-ESTATUAREN ARTEKO ALDEA (2016)



Iturria: EIN: LPI.

eraginpean (esaterako, lan-indarraren eraketaren aldaketengatik, soldatapeko pertsonen ezaugarrien aldaketengatik, etab.), hau da, eraketa-efektua deskontaturik[16].

Kontsumo eta zerbitzu ondasunen "oinarrizko otzara" estandarizatua neurtzen duen kontsumorako prezioen indizeak bezala (KPI), lanpostuen "oinarrizko otzara" estandarizatuaren prezioaren aldaketak neurtzen ditu LPIk[17].

---

[16] *Gaur egun Espainian dagoen informazioa, LHKIk, HKLBk eta EESk emandakoa, langile bakoitzeko lan-kostuaren eta soldata-kostuaren batez besteko zenbait emaitzatan datza. Serie horretan, kostuaren aldakuntzan nahiz enpleguaren eraketan izandako aldaketak biltzen dira.*

[17] *Argibide gehiago izateko, begiratu estatistika eragiketa honetako metodologian*
http://www.ine.es/dynqs/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadistica_C&cid=1254736177027&menu=metodologia&idp=1254735976596

LPI %2,4 jaitsi zen 2015 eta 2016 urte bitartean EAEn (eskuratu dugun azken datua). Estatuko batez besteko aldakuntza, berriz, -%1,3koa da. Izan ere, erkidego guztiek, Nafarroak (+% 0,4) eta Extremadurak (+% 0,6) izan ezik, kopuru negatiboak dituzten epealdi horretan. Gure erkidegoak batez bestekoa bi halako jaitsiera izan du, eta aldakuntza negatiboen goiko postuetan dago; ondoren datoz Gaztela-Mantxa eta Kanariar Uharteak (-% 2,2, eta -% 2 hurrenez hurren).

III.4.6. TAULA. LANEKO PREZIOEN INDIZEA. DATUAK AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA. URTEKO ALDAKUNTZA-TASA. 2012-2016.

	2012	2013	2014	2015	2016
ESTATUA	-1,6	-0,3	0,8	0,7	-1,3
ANDALUZIA	-2,4	-1,0	1,2	1,6	-1,0
ARAGOI	-2,5	-0,4	1,8	-0,4	-0,9
ASTURIAS	-1,6	-2,8	1,6	1,9	-1,8
BALEARS (ILLES)	1,4	-0,6	3,4	-0,5	-0,9
KANARIAR U.	-0,6	1,6	-1,8	0,6	-2,0
KANTABRIA	-0,7	-2,7	3,0	0,7	-1,3
GAZTELA ETA LEON	-0,9	-0,6	-1,8	2,1	-0,3
GAZTELA-MANTXA	-2,7	1,1	0,4	-0,6	-2,2
KATALUNIA	-1,2	-0,5	0,0	1,7	-1,5
VALENTZIAKO E.	-3,1	-0,4	0,7	1,5	-1,2
EXTREMADURA	-0,4	0,1	-4,1	0,3	0,6
GALIZIA	0,0	-0,9	0,8	2,5	-1,3
MADRIL	-2,2	0,4	2,3	-2,4	-1,4
MURTZIA	-3,2	-2,0	1,9	-0,8	-1,0
NAFARROA	-1,6	1,8	-1,5	2,5	0,4
EAE	**-0,1**	**-0,5**	**0,1**	**2,9**	**-2,4**
ERRIOXA	-2,6	-2,8	3,4	1,9	-1,0

Iturria: EIN. Laneko Prezioen Indizea. 2008ko oinarria.

Eskuragarri dugun denbora tartearen bilakaera (2008-2016) aztertuta ikusten denez, LPI EAEn nahiz Estatuan hazi zen 2008 eta 2010 bitartean; neurri ezberdinean murriztu zen 2011 eta 2013 bitartean, eta berriz ere kopuru positiboetara itzuli da azken bi urtean. Kopuru positiboetara itzuli zen 2014an eta 2015ean, ondoren berriz ere behera egiteko 2016 (eskuragarri dugun azken urtea). Indize

III.4.3. GRAFIKOA. LPI. URTEKO HAZKUNDEA 2008AREN ALDEAN, OINARRIZKO URTEA. EAE-ESTATUKO B.B.AREN



Iturria: EIN: LPI.

kopuruetan, urte horren eta 2016 urtearen arteko hazkundea %4,1 da: EAEko datua 98.62 zen 2016ean. Estatuko batez bestekoa, berriz, 98,62 zen. Horrek erakusten duenez, soldatek %1,4 egin zuten behera epealdi berean.

2008 eta 2016 urteen arteko inflazioaren bilakaera azterturik (+%105 batez beste estatuan), kopuru horiek erakusten dute EAEn %5,9o jaitsiera izan zela erosteko ahalmenean (4,1 ken 10). Estatuan, berriz, 11,4 puntukoa izan zen (-1,4 ken 10).

Eta eskuratu dugun azken urteko bilakaera ardatz hartuta (2016), LPI %2,4 jaitsi EAEn (-%1,3 Estatuan), eta EAEk izan du jaitsierarik handiena. Izan ere, urte horretan -4 puntu galdu du erosteko ahalmenean (inflazioa %1,6koa izan baitzen).

4.4. SOLDATEN BANAKETA: BAI-REN 2017KO EMAITZAK

Bere azterketa-eremu zabalaren baitan, EINen Biztanleria Aktiboaren Inkestak (BAI) deziletan kodetzen du etxeko "lan nagusiaren soldata" aldagaia, eta informazio hori biltzeko, informazioa ematen duten etxeekin lotutako administrazio

erregistroak erabiltzen dira. Enplegu errentaren gaineko zergen konturako atxikipenak eta langileak gizarte segurantzaren sistemei nahitaez egin beharreko kotizazioak biltzen ditu soldatak, baita aparteko pagei dagozkien hainbanaketak, aparteko orduak eta beste osagarri batzuk ere. Baliteke aldagai esanguratsua ez izatea etxeetako soldaten balio absolutuetan, zeren eta etxe bakoitzeko bakarra erregistratzen baita. Hala ere, haren kodetzeak gure gizartearen soldaten banaketari buruzko informazioa ematen du konparaziozko terminoetan.

Horretarako, estatu mailan, jasotako soldaten zenbatekoaren arabera antolatzen da soldatapekoen laginketa, eta 10 talde berdinetan banantzen da, hots, langileen % 10arekin horietako bakoitzean. Soldatapekoen multzoa, 2017an, 15,68 milioi lagunekoa zela zenbatetsi zen eta, beraz, dezil bakoitzak, gutxi gorabehera, 1,57 milioi soldatapeko biltzen ditu. Gainera, batez bestekoak (taldearen batez besteko soldata) eta hura mugatzen duten beherengo eta gorengo soldatek definitzen dute. Eta hainbat urtetako magnitude erkatzen badira, kontuan hartu behar da urte bakoitzeko informazioaren arabera zenbatesten direla dezil bakoitzaren mugak.

Estatistika eragiketa horri esker, soldatapeko bakoitzak estaturako definituriko soldaten dezil bakoitzean duen pisua zein den jakin daiteke, hots, gure erkidegoak estaturako eginiko banaketa perfektuarekiko duen presentzia erlatiboa eta, era berean, gainerako erkidegoekiko[18].

III.4.7. TAULA. SOLDATAPEKOEN EHUNEKOA ESTATURAKO DEFINITURIKO SOLDATEN DEZIL BAKOITZEKO. DATUAK AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA. 2017

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	GUZTIRA
ESTATUA	10,0	10,0	10,0	10,0	10,0	10,0	10,0	10,0	10,0	10,0	100,0
ANDALUZIA	13,5	12,7	11,2	11,3	9,9	9,4	8,3	7,7	9,1	7,0	100,0
ARAGOI	8,1	8,5	9,7	8,4	12,1	10,6	11,3	11,7	11,3	8,2	100,0
ASTURIAS	11,9	8,1	7,5	9,9	8,2	10,1	11,0	11,2	11,2	10,9	100,0
BALEARS (ILLES)	5,8	8,5	9,7	10,9	14,3	16,1	10,3	9,7	9,1	5,5	100,0
KANARIAR U.	11,1	14,7	13,1	9,1	12,8	13,3	7,2	6,6	6,6	5,5	100,0
KANTABRIA	9,6	9,3	11,2	9,9	9,6	10,1	9,5	10,9	9,6	10,5	100,0
GAZTELA ETA LEON	10,4	8,5	9,8	10,3	11,5	11,2	10,6	10,4	9,3	8,2	100,0
GAZTELA-MANTXA	9,4	9,6	9,5	11,3	12,6	11,3	11,7	10,0	7,6	7,0	100,0
KATALUNIA	8,6	8,7	8,9	9,6	9,0	10,5	11,7	10,1	11,3	11,7	100,0
VALENTZIAKO E.	11,9	10,7	10,4	12,6	13,2	9,4	8,3	9,4	8,0	6,1	100,0
EXTREMADURA	15,1	12,2	10,6	12,8	9,4	10,2	7,2	10,3	7,4	4,6	100,0
GALIZIA	9,4	8,8	11,4	10,9	10,3	10,6	8,9	10,3	9,6	9,7	100,0
MADRIL	8,3	9,5	9,6	8,1	7,5	7,4	10,5	11,6	11,3	16,2	100,0
MURTZIA	10,6	11,6	14,8	12,0	9,7	11,2	8,9	6,8	7,8	6,7	100,0
NAFARROA	5,7	7,4	5,4	7,3	8,9	10,5	13,4	12,5	13,8	15,1	100,0
EAE	**7,6**	**7,5**	**6,5**	**6,4**	**6,8**	**8,9**	**12,0**	**14,6**	**14,5**	**15,3**	**100,0**
ERRIOXA	8,1	6,5	10,2	11,2	10,8	12,9	12,6	11,1	9,5	7,1	100,0
CEUTA	10,5	7,0	3,3	6,0	14,0	4,6	13,1	9,9	17,5	14,1	100,0
MELILLA	6,1	7,2	3,4	3,6	4,2	10,6	13,1	11,5	13,3	27,2	100,0

Iturria: EIN: Biztanleria Aktiboaren Inkesta.

Lehenik eta behin, nabarmendu daiteke ezen, 2017an, erabilitako serie osoan bezalaxe (2010eko 6. dezilean gertaturiko salbuespen txikiarekin), euskal soldatapekoen partaidetza % 10 teorikoa baino txikiagoa dela 1-6 deziletan, hots, soldatarik txikienetan. 7 (%12) - 10 deziletan (%15,3), berriz, handiagoa da, eta gero eta altuagoa da. Bestela esanda, estatuko soldaten kopuru teorikorik handiena den % 40k EAEko soldatapekoen % 56,4 biltzen du. Estatuko ratiorik handiena da, eta ondoren Nafarroa (% 54,8) eta Madril (% 49,6) daude, baina salbuetsita daude Ceutako eta Melillako kasu atipikoak. Beste muturrean, 1-3 deziletan (soldatarik txikienak) EAEko soldatapekoen % 21,6 biltzen da, teorikoa % 30 izanik, eta bigarren ratiorik txikiena da autonomia erkidegoetan, Nafarroaren (% 18,5) atzetik. Beste erkidego batzuetan % 40aren inguruan daude, esate baterako Galizia, Extremadura edo Andaluzia.

[18] *Ez dugu kontuan izango, ordea, zenbatekoei buruzko informazioa, zeren eta, etxeetako soldata guztiak sartuta ez daudenez gero (baizik eta nagusitzat jotzen dena), ez baita errealitatearen erakusgarri.*

Azken finean, BAIren emaitzetatik ondorioztatzen denez, dezil altuagoetara desbideratzen da soldaten banaketa Euskadin estatuko batez bestekoarekiko, zeren eta soldatapekorik gehienak banaketaren eskuineko aldean baitaude.

Denboraren aldetik, egonkor eutsi dio EAEko soldaten banaketa erlatiboak, eta estatuko erreferentziako batez bestekoarekiko aldeak mantentzen dira antzeko haztapenetan 2008 eta 2017 bitartean, soldaten dezilik baxuenak, adibidez, % 9,3tik % 7,6ra egin zuen behera. Bigarrena, berriz, % 6,6tik % 7,5era hazi da. Beste muturrean, dezilik altuenak % 16,4tik % 15,3ra egin zuen behera, bederatzigarrena ere murriztu zen, % 16,4tik % 14,5era, baina zortzigarrenak % 13,3tik % 14,6ra egin zuen gora.

III.4.4. grafikoan ageri denez, kolore diferentziek ez dute erakusten soldatapeko askoren aldaketak soldata mailen artean azterturiko denbora-serie osoan.

III.4.4. GRAFIKOA. EAE-KO SOLDATAPEKOEN BANAKETAREN BILAKAERA ESTATUKO SOLDATEN DEZILEN ARABERA.



Iturria: EIN. BAI.

5. ENPLEGU POLITIKAK

5.1. ENPLEGU POLITIKA AKTIBOAK

Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Politiketako Sailak abiarazitako enplegurako politika aktiboen (EPA) programa estrategikoa dira Enplegu Planak, hain zuzen ere laneratzea sustatzera, enplegagarritasun mailak handitzera eta enpleguaren egonkortasuna eta kalitatea indartzera bideratuta.

5.1.1. Enplegurako 2020 Euskal Estrategia. Martxan jartzearen eta ezarpenaren lehen fasearen ebaluazioa (2017).

EAEko Hiru Alderdien Arteko Gizarte Elkarrizketarako Mahaiak, 2015ean, gogoeta egin eta estrategia berria sortu beharra adostu zuen 2015ean, aurrekoaren indarraldia bukatuta eta enplegurako politika aktiboen transferentzia-prozesua amaituta. Horren ondorioz, 2016an Enplegurako 2020 Euskal Estrategia (EEE 2020) sortu zen, eragin beharreko erronka eta faktore kritikoen gaineko adostasunaren emaitza; enplegu gehiago eta hobea sortzeko indarguneak eta aukerak; aurre egi beharreko ahuleziak eta arriskuak, 2020. urteari begira.

Hona hemen Enpleguaren Euskal Estrategiaren eginkizuna: "Eusko Jaurlaritza eta enplegurako politiketan zuzenean edo zeharka parte hartzen duten gainerako eragin publikoak eta pribatuak zuzentzea/bideratzea, Euskadin 2020an enplegurako planteaturiko helburuen betetze-maila ahalik eta handiena izan dadin, betiere erakundeen lidertzapean eta lankidetza publiko-pribatua baliatuz eta enpleguaren gaineko kontzeptu jakin batekin: enplegua pertsona garatzeko, gizarte kohesiorako eta aberastasuna sortzeko eta ekonomia garatzeko osagaia dela gizarte mailan aurreratuta dagoen gizarte lehiakorrean".

III.5.1. ENPLEGURAKO 2020 EUSKAL ESTRATEGIA. ARDATZAK ETA HELBURUAK. 2017KO EMAITZEN EBALUAZIOA.

ARDATZAK	HELBURUAK	2017KO B.B. BALORAZIOA (ESKALA: 1-BATERE EZ/OSO GUTXI 4-ASKO)
A) AKTIBAZIOA	Egungo jarduera-tasa txikia handitzea eta enpresen eskariari aurre egiteko nahikoa biztanleria aktiboa eta gure ongizate egoerari eusteko nahikoa landun ez izateko arriskua gutxitzea	2,41
B) GAITASUNA ETA KONPETENTZIAK	Ekoizpen-sarearen benetako beharretara egokitutako gaitasunak dituzten pertsonak lortzea, jakintza teknikoak, gizarte gaitasunak, hizkuntzak, etab. barne.	2,74
C) AUKERAK SORTZEA	Aukerak sortzea garapen ekonomikoa abiapuntu hartuta eta gure ekonomiak enplegua sortzeko duen ahalmena erabat baliatzea	2,57
D) AUKERA-BERDINTASUNA	Lan-merkatu inklusiboa lortzea, hura osatzen duten talde guztiei berdintasunezko aukerak eskainita	2,53
E) KALITATEZKO ENPLEGUA	Kalitate handiagoko enplegua eskainiko duen lan-merkatua lortzea, adostasunean eta lankidetzan oinarrituriko lan harremanak baliatuz	2,51
F) ZERBITZU BALIOTSUAK ESKAINTZEN DUEN ENPLEGURAKO EUSKAL SISTEMA ERAGINKORRA	Egungo Enplegurako Euskal Sistemak hobetzea, halako moldez non enpleguan eragiteko politika guztiak uztartu eta pertsonen eta enpresen beharretara bideratuago dauden zerbitzuak eskainiko baitira	2,41

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Geuk egina.

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, 2018an, plana abiarazi zeneko lehen urteko (2017) balorazioa egin zuen, aurrerapen maila monitorizatzeko eta estrategian definituriko ardatzak eta jarraibideak aplikatzeko, garaturiko neurri nagusiak identifikatuz eta gutxi garaturikoak antzemanez. Hartara, diseinua sortu duten eragileek hartu dute parte eta, bereziki, ebaluazioa aztertu eta hainbat proposamen egin zituen Gizarte Elkarrizketarako Mahaiak. Orohar, EEEren jarraibideen ezarpen-maila ertaina da estrategia definitzen duten sei ardatzetan: "Gaitasuna eta konpetentziak" ardatza da aurrerapen mailarik handiena duena (2,74, hain zuzen 1-4ko eskalan), eta ondoren "Aukerak sortzea" (2,57). "Aktibazioa" eta "Zerbitzu baliotsuak eskaintzen dituen enplegurako euskal sistema eraginkorra" ardatzak, berriz, gutxien baloratuak dira (bietan 2,41 puntu). Bitarteko mailan, "Aukera-berdintasuna" eta "Kalitatezko enplegua" ardatzek 2,53

eta 2,51 puntu dituzte hurrenez hurren. Era berean, esan behar da ardatz bakoitzean aurrerapen maila desberdinak identifikatu direla jarraibideen arabera, eta horien %76k aurrerapen ertaina dute, hots, 31 jarraibidek.

- **Aktibazio ardatza:** Eragileek balorazio positiboa egin dute tokiko talentua atxikitzeko eta nazioarteko talentua erakartzeko garaturiko neurrien inguruan, eta Ikerbasqueren lana nabarmentzen da. Halaber, aurrerabide handia egin da baterako erantzukizunean eta bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko bidean, enpresak sentsibilizatzeko eta langileek neurriak hartzeko modua laguntzeko lana eginez. Badirudi adina kudeatzeko politikak direla huts egiten dutenak, bereziki ETEen eta mikro ETEen kasuan. Beharrezkotzat jotzen da arlo horretan eragitea, enpresako lanbide karreraren aldetik nahiz hartutako esperientziaren ahalmena baliatzearen aldetik.

- **Gaitasuna eta konpetentziak**: aurrerapen nagusiak enpresek LHn eta enplegurako prestakuntzan duten partaidetzan antzeman da; izan ere, aurrea egin da "trebakuntza dual" kontzeptuan eta gazteen talentuaren garapenean, atzerriko esperientzia programetako partaidetza sustatuz hala nola Beint bekak, Global Training bekak edo Erasmus programa. Halaber, hezkuntza sistemaren kalitatearen eta emaitzen hobekuntza balioesten da, eta ikastetxe publiko guztietako Prestakuntzako Ekimen Orokorra bezalako jarduketak nabarmentzen dira, baita etengabeko prestakuntzaren aldeko apustua eta gaitasun digitalak txiki-txikitatik garatzea. Eragileen ustez, ordea, ikaskuntza ez formalak ebaluatzeko eta aitortzeko sistema gehiago ikusarazi beharra dago, baita emakumeak prestakuntza zientifiko-teknologikora hurbiltzea ere, laneratzeko duten ahalmena baliatuz.

- **Aukerak sortzea:** aurrerapen handienak RIS3n bildutako sektore espezializazioaren aldeko apustuaren garapenean eta ekonomia digitalaren sustapenean islatu dira. Eragileek arlo horretako jardun ontzat jotzen dituzte honako hauek: "Basque Industry 40.0" Estrategia, espezialitate digitalak unibertsitatearen eta LHren eremuan sartzea eta ikerketa bultzatzeko zenbait programa. Ekintzaile espiritua sustatzea eta ekintzailetza-kultura finkatzeko aurrerapena ere positibotzat jo dira, eta ekintzailetza txikia nahiz ekintzailetza berritzailea bultzatzeko zerbitzuen eta programen aukera zabala nabarmentzen da. Aurrerapen txikienak, alde batetik, sektore publikoan izan dira, enplegatzaile eraginkor eta aukera-sortzaile gisa duen eginkizunaren finkapenean daude; eta bestetik, eskualde garapenerako estrategietan.

- **Aukera-berdintasuna:** Generoaren ziozko desberdintasunak gutxitzeko aurrerapenak balioetsi dira, eta sentsibilizazioa nabarmentzen da, baita berdintasuna erakundeen kudeaketan sartzeko modua sustatzean ere. Era berean, positibotzat jotzen da gazteen enplegua bultzatzeko neurriak, arlo hauexek barne: hezkuntza, enplegurako trebakuntza, talentuaren sustapena eta ekintzailetzaren sustapena. Hobetu beharreko arlotzat, berriz, hauxe: berariazko jarduerak bultzatzea iraupen luzeko langabetuentzat, 55 urtetik gorakoentzat eta lana eskuratzeko zailtasun bereziak dituztenentzat. Era berean, nahiz eta jardun ontzat hartzen den enplegurako zentro berezien eta laneratze enpresen lana, beharrezkotzat jotzen da ezinduen ohiko lana eskuratzeko modua errazteko lanean eragiten jarraitzea.
- **Kalitatezko enplegua**: aipatu denez, Laneko Segurtasuna eta Osasuna da aurreratu deneko esparru nagusietako bat, baita lan iruzurraren kontrako borroka ere. Egoera horretan, zenbait estrategia aipatzen dira hala nola La Segurtasunerako eta Osasunerako Euskal Estrategia, lan ikuskapenerako jarduketak edo lan kontratazioaren iruzurraren kontrako planak. Hitzarmena eta akordioa berreskuratu behar dira, ordea, lan harremanetan marko egonkorrerako oinarritzat, kudeaketa tresnarako gizarte elkarrizketa are gehiago finkatuta. Halaber, enpleguaren dimentsioa enpresa erantzukizunerako estrategien barruan sartzeko bidean aurrera egin beharra dagoela irizten zaio.

- **Enplegurako Euskal Sistema**: eragileek nabarmendu dutenez, finkatu egin da Gizarte Bermerako Sistema babes osorako tresna aurreratu gisa. Era berean, aurrera egin da behaketa eta prospekzio lanean, eta etorkizunerako beharrak eta joerak identifikatzeko enpresarekin gero eta elkarlan handiagoa izatea, betiere zenbait ekimen, "Futurelan" esaterako, lan-merkatuko hainbat eremuren gainean uztarturiko informazio eta prospekzio sistema garatzeko tresna eredugarritzat hartua. Epe laburrean eta epe ertainean hobetu beharreko arlo hauek aipatu dira,

ordea: laneratzeko laguntasun pertsonalizatuko zerbitzuak hobetzea, zailtasun handiagoak dituztenei lehentasunezko arreta eskainita; enpresentzako zerbitzuak garatzea eta politikak eta programak ebaluatzeko kultura sustatzea.

5.1.2. 2017-2020ko Enplegu Plana. Jarraipen txostena

Bigarren mailan, EEEren ondoren, enplegu planak daude. Egun indarrean dagoen Enplegurako Plan Estrategikoa 2017an definitu zen 2017-2020 aldirako[19], eta 2020 EEEn zehazturiko jarraibideak arlo operatiboan zehazten du, Eusko Jaurlaritzaren barruan enplegua sustatzearekin loturiko zerbitzuak eta programak betearazten dituzten sailen lan tresna izan dadin, betiere lanaren, hezkuntzaren eta ekonomiaren sustapenaren dimentsioekin lotutako alderdiak biltzen dituen enpleguaren ikuspegi zabalari eutsita. Era berean, "Ekonomia suspertzearen eta enpleguaren aldeko 2017-2020ko Esparru-markoa"ren oinarrizko zati gisa eratu da, eta ekonomia suspertzearen dimentsioan Eusko Jaurlaritzaren oinarrizko ildo estrategikoak biltzen ditu, berrikuntzaren, nazioartekotzearen, industrializazioaren eta inbertsioaren arloan garatu beharrekoak. Hori guztia hiru helburu lortze aldera:

1. Langabezia-tasa etengabe gutxitzea, 2020ko azken hiruhilekoan % 10aren azpitik kokatu arte.
2. Pizgarriak ematea 2017-2020 aldian 45.000 lanpostuetarako, enpresa berriak sortuz, lanerako aukera gutxien dituzten pertsonentzako kontrataziorako pizgarriak abiaraziz eta errehabilitaziorako sustapen publikoa, enplegua sortzeko sektore garrantzitsua den aldetik.
3. Lan aukera eskaintzea 20.000 gazteri 2017-2020 aldian.

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, 2018an, Planaren "*2017ko Jarraipen Txostena*" egin zuen, eta lehenik eta behin, emaitza kuantitatiboaren aldetik nabarmentzen duenez, Planak eragin orokorra zenbatetsi zuen, 58.000 lanpostuetarako pizgarrietan, 6.000 enpresa berriren sorkuntzan eta 20.000 gazteri lan aukera erraztean zehazten zena. 2017an eginiko jarduketak, alde batetik, 15.799 lanpostutarako pizgarriak ematean eta 1.557 enpresa sortzean zehazten zen. Horren ondorioz, lanpostuen % 27rako pizgarrietarako ekarpena izan da, baita 2017-2020 aldi osorako aurreikusitako enpresa berrien % 26 sortzeko ere. 2017aren antzeko urteko egoera kontsideraturik, bi helburuetarako aurreikusitakoaren gainetik egongo ginateke 2020an.

Gazteen enplegura bultzatzearen aldetik, 6.856 gaztek lan-aukera izan zuten 2017an hainbat programaren bidez. Horien barruan sartu dira enpresetako kontratazioa haien titulazioarekin lotutako lanpostuetan, hezkuntzatik lan mundurako trantsizioko lehen esperientzia, nazioarteko mailan esperientzia praktikoa eskuratzeko bekak eta plantilla berritzea Enplegu Eskaintza Publikoen eta errelebo kontratuen bidez. Emaitza horiek lagungarriak dira 2017-2020 aldi osorako aurreikusitako helburuen % 34 betetzeko.

Hirugarren helburua langabezia-tasa etengabe gutxitzeari zegokion, harik eta 2020ko azken hiruhilekoan % 10aren azpitik kokatu arte. Langabezia-tasa % 11,2 zen 2017. urteko azken hiruhilekoan, hots, aurrerapena gertatu zen tasa hori 1,4 puntutan murriztuta aurreko aldiarekiko; azken helburua betetzeko bidean betiere, aurrerakada nabarmentzat jotzen da.

[19] *2017-2020ko Enplegurako Planaren gaineko balorazioa egin zuen Batzorde honek. Informazio gehiago: 5/2017 Irizpena.*

III.5.2. TAULA. 2017-2020KO ENPLEGU PLANA. ERAGIN-ADIERAZLEAK. 2017KO EMAITZEN EBALUAZIOA.					
AURREIKUSITAKO ERAGINAREN EMAITZAK 2017-2020	ERAGIN-ADIERAZLEAK	AURRIK. ERAGINA 2017-2020	EMAITZAK 17/12/31N	HELBUR. AURRERAPEN MAILA (BETEA EDO % 25 GAIND.)[20]	2017KO EMAITZA 2017-2020RA ESTRAPOLATUTA
PIZGARRIA JASO DUTEN 58.000 LANPOSTU *	ENPRESA BERRIEN SORKUNTZAK ERAGINDAKO LANPOSTUAK	12.000	3.713	% 31	% 124
	ETXEBIZITZA ETA EKIPAMENDU PUBLIKOAK BIRGAITZEAREKIN LOTUTAKO LANPOSTUAK	15.000	3.214	% 21	% 84
	KONTRATAZIORAKO PIZGARRIEN BIDEZ SORTUTAKO LANPOSTUAK	18.000	4.651	% 26	% 104
	ENPLEGU ESKAINTZA PUBLIKOETAN BILDUTAKO PLAZAK (TXANDA ASKEA)	13.000	4.221	% 32	% 128
	PIZG. JASO DITUZTEN LANPOSTUAK	**58.000***	**15.799**	**% 27**	**% 108**
LAGUNDUTAKO 6.000 ENPRESA BERRI	KOMROENPRESA BERRIAK ETA AUTONOMOAK	5.000	1.278	% 26	% 104
	ENPRESA BERRITZAILE BERRIAK	1.000	279	% 28	% 112
	LAGUNDUTAKO ENPRESA BERRIAK, GUZT.	**6.000**	**1.557**	**% 26**	**% 104**
20.000 GAZTEK LAN AUKERA DUTE 20.000	"LEHEN AUKERA" "LEHEN AUKERA"REN BIDEZ KONTRATATUAK	3.000	498	% 17	% 68
	HEZKUNTZA-LANEKO TRANTSIZIOKO PROGRAMAKO PARTAIDEAK	5.000	2.166	% 43	% 172
	GAZTE EKINTZAILE BERRIAK	3.500	847	% 24	% 96
	TOKIKO ETA ESKUALDEKO ENPLEGU PLANETAN KONTRATATUAK	2.500	834	% 33	% 132
	EPE-ETAKO GAZTEENTZAKO PLAZAK	3.200	1.868	% 58	% 232
	ERRELEBO KONTRATUAREN ONURADUNAK	400	31	% 8	% 32
	GAZTEEN ITZULERA PROGRAMAKO PARTAIDEAK	200	HASIERAN 2018AN	-	-
	PRESTAKUNTZA ETA ENPLEGU BEKETAKO PARTAIDEAK	1.800	612	% 34	% 163
	BERARIAZKO SEKTOREETAKO LAGUNTZA PROGRAMAREN ONURADUNAK	400	HASIERA 2018AN	-	-
	LAN AUKERA DUTEN GAZTEAK, GUZTIRA	**20.000**	**6.856**	**% 34**	**% 136**

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Geuk egina.
** Hasieran pizgarria jasoko zuten 45.000 lanpostuk. Hasierako aurreikuspen horri 13.000 lanpostu gehitu zaizkio, Administrazio Orokorrean, Osakidetzan, Hezkuntzan eta Ertzaintzan aurreikusitako enplegu eskaintza publikoetan sartutako lanpostuak hain zuzen.*

Eta betearazitako diru-baliabideei dagokienez, 2017. urterako aurreikusitako aurrekontuko baliakizuna, EAErako urte horretako aurrekontu orokorretarako ezarritako aurrekontuko partaideen arabera, 280 milioi eurokoa izan zen. 2017ko jarduketa-ildoen garapena dela-eta, 269 milioi euro betearazi dira, hots, 2017ko aurreikusitako aurrekontuaren % 93 eta 2017-2020 aldirako aurreikusitakoaren % 23 hain zuzen ere. Laneratzeko pizgarrien arloak izan du betearazpenik handiena (% 107), eta ondoren Renove Birgaikuntza programak (% 98). Aurrekontuko betearazpenean mailarik txikiena izan dutenak, berriz, gazteen enplegurako sustapenaren eta enplegurako trebakuntzaren arloak izan dira (% 83 eta %79 dira hurrenez hurren).

[20] *2017ko Jarraipen Txostenak ohartarazten duenez, 2018rako, 2019rako eta 2020rako Urteko Eragiketa Ekintza Planetan hedatzen da Enplegu Plana, eta ez dago 2017rako Urteko Eragiketa Plana. Hortaz, jarduketa-ildoek ez dute berariazko helburu kuantitatiborik urte horretarako eta, horregatik, 2017-2020 aldi osorako aurreikusitako helburu orokorrak betetzeko lagungarriak izatearen arabera planteatu da eginiko jarraipena. Helburu horiek betetzean izandako aurrerapen maila interpretatzen laguntzen aldera, 2017ko emaitzak Planaren 4 urteko indarraldira estrapolatu dira datuak, eta horri esker, helburuen benetako betetze-mailaren aurreikuspena egin daiteke. Hala, % 25aren inguruko urteko aurrerapen maila urte bakoitzeko aurreikuspena beteko litzateke eta, beraz, 20172020 aldi osorako aurreikusitako guztiak.*
Taulan, kolore berdearekin nabarmendu dira 2017an aurreikusitako eraginaren % 25 gainditzen duten adierazleak eta kolore gorriarekin azpitik gelditzen direnak.

III.5.3. TAULA. 2017-2020KO ENPLEGU PLANA. DIRU-BALIABIDEAK. 2017KO EMAITZEN EBALUAZIOA. DATUAK MILIOI EUROTAN.						
	ERAGIKETA-EREMUAK	AURREIK. BALIABIDEAK 2017-2020	AURREIK. BALIABIDEAK 2017	BETEARAZIT. BALIABIDEAK 17/12/31N	BETEARAZP. MAILA AURREIKUSP P.	BETEARAZP. MAILA AURRIKUSP. 2017-2020
	1. ETE-AK, GIZARTE EKONOMIA ETA TOKIKO GARAPENA	63	16	14	% 91	% 22
	2. EKINTZAILETZA SUSTATZEA	86	21	19	% 89	% 22
	3. GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA	99	24	20	% 83	% 20
	4. ENPLEGURAKO TREBAKUNTZA	282	69	55	% 79	% 19
	5. LANERATZEKO PIZGARRIAK	298	73	78	% 107	% 26
	6 RENOVE BIRGAIKUNTZA PROGRAMAK	347	85	83	% 98	% 24
	TOTAL	**1.175***	**288***	**269**	**% 93**	**% 23**

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Enplegua eta Gizarte Politiketako Saila. Geuk egina.
** 2017-2020rako aurreikusitako aurrekontu-baliakizunaren kopuruan ez dago sartuta 2017rako 1,2 M€-ko aurrekontuko aldakuntza gehigarria, 2017ko ekaineko aurrekontuen eztabaidan onetsitako zuzenketaren ondoriozkoa, Enplegua eta Ekonomia Suspertzeko 2017-2020 Esparru-programan aurreikusitako kopuruekin bat etortzeko.*

Plana diseinatu zen bezala, haren jarraipen txostenak generoaren eta adinaren ikuspegitik buruturiko jarduketen ebaluazioa egiten dela nabarmendu beharra dago.

Genero ikuspegitik, txostenean nabarmentzen denez, batez beste antzeko eragin orokorra izan zuen 2017an aurreikusitako jarduketa-ildoen garapenak gizonezkoetan (%54) eta emakumezkoetan (%46); zenbait alde ikusten dira eremu edo jarduketa jakin batzuetan: gizonen presentzia handiagoa da (landa edo itsas inguruneko enplegua bultzatzea edo gizarte ekonomian), edo emakumeena (familia eta lana uztartzeko laguntzak). Kontuan izan behar da berariazko pertsonentzat zuzendutako ekintzetan oinarritzen dela genero ikuspegiaren gaineko analisia (hala nola bekak, kontrataziorako zuzeneko laguntzak, enplegu babesturako laguntzak, prestakuntza ekintzak eta ekintzailetzako ekintzak), betiere datuak sexuaren arabera banakatuta izateko benetako aukera aintzat hartuz.

Bi horien emaitzak aztertuta ikusten denez, gizonen joera handixeagoa da autoenpleguan eta mikroekintzailetzan (% 53). Programa horietatik zenbaitetan, emakumeen ekintzailetza sustatu nahi da emakumeentzako laguntzen zenbatekoa handituta. Gizonen partaidetza, berriz, handiena da (% 70) gizarte ekintzailetzetan.

Gazteen enpleguaren arloan, gizonen eta emakumeen presentzia orekatua da oro har, eta emakumeen presentzia handiagoa ageri da zenbait programatan, hezkuntzatik lanerako trantsizioan esaterako (% 62), edo nazioarteko mugikortasuneko beste programa batzuetan hala nola Global Training bekak eta Beint bekak; gizonen eta emakumeen presentzia orekatua da. Gazteak kontratatzeko pizgarriei dagokienez, Lehen Aukera programan gizonen presentzia handiagoa izan da nabarmen (% 74), emakumeak kontratatzeko ekintza positiborako neurriak izan arren.

Enplegurako Prestakuntzari dagokionez, gizonen presentzia handixeagoa da (%57) langabetuentzako ekintzetan. Landunentzako ekintzetan, berriz, partaidetza orekatuagoa da: % 49 gizonak eta % 51 emakumeak.

Laneratzea eta laneratzeko zailtasun bereziak dituzten taldeen enplegagarritasuna hobetzeko ekintzei dagokienez, emakumeen presentzia handiagoa da (%56) eragin handiko programetan hala nola enplegurako tokiko eta eskualdeko planetan. Ildo horretan, kontuan hartu behar da programan horretan gutxieneko beharkizuna ezartzen dela: % 40 gutxienez emakumeak kontratatzea guztira kontrataturiko pertsonekiko.

Bestalde, ezinduak edo bazterketa arriskuan dauden pertsonak gaitzen laguntzeko programetan, handiagoa da gizonen parte-hartzea (%64) emakumeena baino. Joera hori bereziki esanguratsua da Enplegurako Zentro Berezietan, non emakumeen presentzia oso txikia den (% 35).

Bestalde, oso-osorik lantzen da adina Planean eremuen eta programen arabera, eta berariazko laguntza emateko neurriak dituzten 2 talde handi kontsidera daitezke, hots, gazteak eta 45 urtetik gorakoak.

Hala, gazteak Planaren beraren eremu operatiboaren baitan jorratzen dira ("Gazteen sustapena), non enplegua eskuratzea erraztera bideraturiko jarduketa zehatzen ildoak definitzen diren hainbat laguntza programaren bidez. Programa horien barruan, gazteak kontratatzeko pizgarriak emateko berariazko neurriak bildu dira. Hartara, hezkuntzatik lan mundurako trantsizioa erraztu zaie, betiere lan egiteko lehen aukera emanez, enpresetan edo administrazio publikoan bertan belaunaldi erreleboaren ziozko ordezpen lana sustatuz eta enplegua sustatzeko tokiko proiektuetan parte hartuz. Era berean, gazteen kualifikazioa eta gaitasuna indartu da atzerriko esperientzia programen bidez, eta enplegu eta trebakuntzako prestakuntza ekimen eta ekintza mistoak indartzen dira, hala nola prestakuntza duala. Gazteen ekintzailetza ere berariaz sustatzen da, unibertsitatea eta lanbide heziketa bere barnean hartuta eta berariaz bultzatuta gazteen ekintzailetza landa eta itsas ingurunean, edo sektoreen profesionalizazioa, esaterako, merkataritza gazteak gaitzeko berariazko ekintzen bidez.

45 urtetik gorakoen taldean, enplegagarritasuna hobetzera bideratu dira jarduketa nabarmenenak, lan-merkatuan irauteko edota berriz sartzeko berariazko prestakuntza ekintzen eta neurrien bidez. Gaitasunaren aldetik, langabeak birgaitzeko enplegurako, birziklatzeko eta bigarren aukera emateko prestakuntza ekintzak garatu dira, baita prestakuntza eta enplegurako berrikuntza integraleko ekintzak ere, betiere trebakuntza, esperientzia praktikoa, orientazioa eta laneratzeko laguntasuna uztartuz.

Lan-merkatuan sartzearen arloan, 45 urtetik gorakoen kontrataziorako pizgarriak eman dira Enplegua Sustatzeko Tokiko Ekintzen esparruan; izan ere, lehentasunezko onuradunen taldekoetako bat da. Halaber, gaitzeko eta laneratzeko proiektu pilotu esperientziak sortzen hasi dira kontratazio agentziekin elkarlanean. 2017an, proiektu pilotu horiek gazteentzat izan ziren, eta 45 urtetik gorakoentzat izatea aurreikusten da.

5.1.3. LANBIDEren jardunera

LANBIDEK funtsezko eginkizuna du eratxikia EAEko enplegurako politika aktiboak garatzeko eta Enplegu Plana abiarazteko, zeren eta haren funtzioak lan jarduera (enplegua sustatzeko programekin, bitartekaritzarekin, orientazioarekin, etab.) eta enplegurako prestakuntza baitira, landunena nahiz langabetuena, baita Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta beste prestazio osagarri batzuk kudeatzea ere.

Aurrekontuko likidazioak oinarri hartuta (obligazio aintzatetsiak), jakin badakigu 2017an 835,33 milioi euroko gastua izan zuela, 2016an baino %1,5 gutxiago, eta horietatik 500,3 milioi, gastu guztien %59,9, Gizarteratze Programarako erabili ziren (2016an baino %3,1 gutxiago), 233,6 milioi euro (guztizkoaren %28) Enplegu Programarako (2016an baino %7,5 gehiago) eta 92,5 milioi (gastuaren %11,1) Prestakuntza Programarako (-%8,4 2016koaren aldean)[21].

Hortaz, eta nahiz eta sinplifikazioa izan daitekeen enplegurako politiketako gastua prestakuntzako eta enplegurako programen baturatzat hartzea, gizarteratzearekiko berezko erlazioa duenez gero, LANBIDEk 2017an enplegurako politika

[21] *Gainerakoa, eginiko gastuaren % 2,3 gutxi gorabehera, erakundearen egitura eta laguntza gastuei dagokie.*

aktiboetan 326 milioi euroko gastua izan zuen, 2016an baino %2,4 gehiago. 2015 eta 2016 urte bitartean, berriz, %4,1eko igoera izan zen.

III.5.1. GRAFIKOA. LANBIDE: AURREKONTU-LIKIDAZIOA PROGRAMEN ARABERA MILA EUROTAN.



Iturria: LANBIDE. Aurrekontuko likidazioak. Geuk egina.

Azkenik, 2018an, eta likidazioari dagozkion kopuruak izan gabe, Lanbidek 885,5 milioi euroko aurrekontua izan zuen, hots, %6ko gehikuntza, eta horietatik 507,8 milioi euro gizarteratzeko erabili ziren, 214,1 milioi euro enplegurako eta 108,5 milioi euro prestakuntzarako.

5.1.4. Etengabeko trebakuntza

Indarreko araudiaren eta eskumenen banaketaren ondorioz, langileentzako etengabeko prestakuntzako jarduerak Etengabeko Lanbide Heziketarako Euskal Fundazioaren (HOBETUZ) eta Estatuko Enplegurako Prestakuntzaren Hirutariko Fundazioaren (EPHF) bidez kudeatzen dira EAEn. Ekintza horien finantzazioa baterako bilketako kuoten eta Europako Gizarte Funtsak emandako kopuruen eta aurrekontu publikoetatik (bai administrazio zentraletik —EEZPri emandakoak— bai) Eusko Jaurlaritzatik —HOBETUZen kasuan—) eratorritako funtsen kargura egiten da, batez ere.

III.5.4. TAULA. HOBETUZ: 2017KO DEIALDIAREN BALANTZEA. BEHIN BETIKO DATUAK.

		PLAN MOTA	ESPEDIENT.	EMAND. DIRULAG. (mila €)	PARTAID EAK
ENPRESAK	EKINTZA ESTRATEGIK.	ENPRESA PLANAK	199	1.718,7	8.034
		ENPRESA TALDEEN PLANAK	41	431,2	1.842
		PLAN EGIAZTAGARRIAK	3	37,0	54
		GUZTIRA	**243**	**2.186,8**	**9.930**
LANGILEAK	PRESTAKUNTZA PLANAK	PRESTAKUNTZA ERAKUNDEAK	35	10.879,1	16.494
GUZTIRA			**278**	**13.065,9**	**26.424**

Iturria: HOBETUZ.

Etengabeko Lanbide Heziketarako Euskal Fundazioaren (HOBETUZ [22] bidez burutzen diren etengabeko prestakuntzako jardueren kasuan, 2017an (urte horretakoa da eskuragarri dagoen azken datua) 278 espediente kudeatu zituen, 26.424 langileren prestakuntza ahalbidetuta guztira, -26,4, aurreko urtearen aldean). Horretarako 27,13 milioi euroko diru-laguntzak eman ziren (%+36,3). HOBETUZ organismoak landunen etengabeko prestakuntza kudeatzen du EAEn. 26.424 langilek (-%23,4 2016aren aldean) hartu zuten parte 42.482 prestakuntzako ekintzatan (zeren eta pertsona berak prestakuntza bat baino gehiago egin baitezake urtean), Horretarako, 13,1 milioi euro diru-laguntzak eman ziren (-%31,4).

[22] *Sindikatu eta enpresa erakundeetako eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariek osatua. 2017an, Eusko Jaurlaritzak Etengabeko Prestakuntzarako Euskal Fundazioa (Hobetuz) Lanbiden sartzeko izapideak abiarazi zituen.*

2018rako deialdiko emaitzen aurrerapena dela-eta (langileentzako eskaintzaren deialdia bi urterik behin egiten da), eta guztira 422 espediente onartu dira, 33 milioi euro diru-laguntzatan.

III.5.2. GRAFIKOA. HOBETUZ: PARTAIDEEN ETA DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOAREN BILAKAERA



Iturria: HOBETUZ. Geuk egina.
**2018ko datua (biurteko eskaintzaren deialdia) behin-behinekoa da.*

FUNDAEk langileen etengabeko prestakuntzarako sustaturiko ekintzei dagokienez, Enplegu Prestakuntzarako Estatuko Fundazioak (enpresa planetarako, sektoreen arteko prestakuntza planetarako, Gizarte Ekonomiarako eta langile autonomoentzat), 2017an (azken datua), EAEko 134.962 langilek hartu zuten parte prestakuntzako 209.071 ekintzatan (zeren eta langile berak prestakuntza bat baino gehiago egin baitezake urtean), aurreko urtean baino % 1,5 gehiago, 17.054 enpresa trebatzaileen esku-hartzeari esker (-%2,4 2016aren aldean), eta enplegu prestakuntzarako funts baliagarrietako 28,1 milioi euro (+% 0,4) erabili zituzten; horregatik hobariak izan ziren Gizarte Segurantzako haien kuotetan.

Enpresa trebatzaileen estaldura-tasa %25,9 izan zen. Aurreko urtean, berriz, %26,9 izan zen (%21,2 batez beste Estatuan.

III.5.5. TAULA. FUNDAE: ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA EAE-N: PARTAIDETZAREN ZIFRA NAGUSIEN BILAKAERA.

		2014	2015	2016	2017	15/16 %	16/17 %
	EAE-N TREBATURIKO PARTAIDEAK						
IKASKETA MAILAREN ARABERA	PRESTAKUNTZA EKINTZAK, G.	174.343	196.968	206.049	209.071	4,6	1,5
	Ikasketarik ez, oinarrizkoak eta DBH ondorengoak (%)	23,8	22,7	32,2	26,0	41,9	-19,3
	DBH eta LHko ikasketen %-a	41,7	42,1	39,7	41,4	-5,7	4,3
	Unibertsitate ikasketen %-a	33,7	35,2	28,1	32,1	-20,2	14,2
JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA	**ENPRESA TREBATZAILEAK**						
	GUZTIRA	22.336	19.805	17.465	17.054	-11,8	-2,4
	Nekazaritza	179	190	145	209	-23,7	44,1
	Industria	3.549	3.250	2.953	2.991	-9,1	1,3
	Eraikuntza	2.233	1.995	1.747	1.751	-12,4	0,2
	Merkataritza	5.359	4.564	3.916	3.498	-14,2	-10,7
	Ostalaritza	3.003	2.842	2.351	2.308	-17,3	-1,8
	Beste zerbitzu batzuk*	8.013	6.964	6.353	6.297	-8,8	-0,9
PRESTAKUNTZA ORDUAK PARTAIDEKO		24,6	21,2	17,3	16,7	-18,4	-3,5
FINANTZAKETA: KREDITU BALIAGARRIA (MILIOI EUROTAN)		**32,70**	**30,0**	**28,0**	**28,1**	**-6,7**	**0,4**

Iturria: ENPLEGUKO PRESTAKUNTZARAKO FUNDAZIOAREN datuekin egina.
**Hauexek barne: Osasuna eta gizarte zerbitzuak, Hezkuntza, Finantza bitartekaritza, Higiezinen arloko jarduerak, Garraioa eta komunikazioak eta Gizarte-kulturako jarduerak.*

Partaidetza-tasa hori oso desberdina da enpresaren tamainaren arabera: %20 mikroenpresetan (1-9 langilekoak), %54,6 enpresa txikietan (10-49 langilekoak), %84,7 ertainetan (50-249 langilekoak) eta %94,5 enpresa handietan (250 langile baino gehiago dituztenak). Oro har, eutsi egin zaie alde horiei. Horrez gain, kontuan hartu behar da Gizarte Segurantzan erreferentziako urtean (2017) izena emanda zeuden eta soldatapekoak zituzten enpresen %85,1 direla mikroenpresak EAEn. Enpresa trebatzaileen %65,5 dira.

Jarduera-sektoreen arabera, %71k zerbitzuetako jarduerak egiten dituzte, eta nabarmentzekoa da merkataritzaren eta ostalaritzaren pisua, %20,5 eta %13,5 hurrenez hurren. Enpresa trebatzaileen %17,5 industriaren sektorekoak dira eta %10,3 eraikuntzakoak.

III.5.6. TAULA. FUNDAE EAE-KO ETENGABEKO PRESTAKUNTZA. ENPRESEK HOBARIDUN PRESTAKUNTZAN DUTEN PARTAIDETZAREN BILAKAERA

	ENPRESA TREBATZAILEAK	ESTALDURA	PARTAIDE TREBATUAK	TREBAK. ORDUAK (MILAK.)	ORDU B.B. PARTAIDEKO
2013	22.072	33,4	178.019	4.435	24,9
2014	22.336	34,5	174.343	4.295	24,6
2015	19.805	30,5	196.968	4.180	21,2
2016	17.465	26,9	206.049	3.559	17,3
2017	17.054	25,9	209.071	3.490	16,7
15/16 ald. %-a	-11,8	-11,8	4,6	-14,9	-18,4
16/17 ald. %-a	-2,4	-3,7	1,5	-1,9	-3,5

Iturria: FUNDAE. Trebakuntza enpresetan 2017. EAE. Geuk egina.

Prestakuntzako ekintzetako partaide horiei dagokienez, %33,3 izan zen sektore pribatuan trebaturiko soldatapekoen ehunekoa. 2016an, berriz, %32,6 izan zen (%31,7 batez beste Estatuan). Horrez gain, trebaturiko 134.962 langileetatik gehienak gizonezkoak izan ziren, %57,9, eta alde nabarmena dago gizonen eta emakumeen estaldura-tasan: % 5,6 %30,6aren aldean. Alde hori Estatu mailan ere gertatzen da, baina pixka bat txikiagoa da: %32,9 gizonezkoetan eta %30,55 emakumezkoetan (5 eta 2,6ko puntuko aldeak, hurrenez hurren).

Horrez gain, prestakuntzako ekintzetako partaidetza handiagoa da 36-45 urteko adin-taldean (partaideen %37,4), eta ondoren 46-55 urtekoak (%27,1) eta 26-35 urtekoak dira (%22,4. Halaber, partaideen ikasketa maila gehienbat DBH ondorengo ikasketei dagokie (prestakuntzako ekintzen %41,4), eta ondoren unibertsitateko ikasketak dituztenak (%32,1) eta jarraian oinarrizko ikasketak eta DBHko ikasketak dituztenak (%262).

III.5.7. TAULA. FUNDAE. EAE-KO PRESTAKUNTZA EKINTZETAN PARTE HARTZEA, EDUKIAREN ARABERA. 10 TOPOLOGIARIK OHIKOENEN XEHETASUNA. 2017.

	PARTAIDEAK		B.B. ORDUAK
	KOP.	BERT. %	
ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA	51.805	24,8	14,9
SEGURTASUNA ETA INGURUMENA	48.221	23,1	10,4
GIZARTE-KULTURAKO ETA GIZARTE ZERBITZUAK	29.315	14,0	10,2
PRESTAKUNTZA OSAGARRIA	20.733	9,9	33,5
MERKATARITZA ETA MARKETINA	15.585	7,5	15,7
INFORMATIKA ETA KOMUNIKAZIOAK	14.298	6,8	22,2
ELIKAGAIEN INDUSTRIAK	6.010	2,9	22,3
GARRAIOA ETA IBILGAILUAK MANTENTZEA	5.553	2,7	26,4
OSASUNA	3.865	1,8	18,1
FABRIKAZIO MEKANIKOA	2.749	1,3	26,0
GAINERAKOA	10.937	5,2	-
GUZTIRA	**209.071**	**100,0**	**16,7**

Iturria: FUNDAE. Prestakuntza enpresetan 2017an. Euskadi. Geuk egina.

Prestakuntzako edukiei dagokienez, gehienbat arlo hauekin zeuden lotuta prestakuntzak: Administrazioa eta kudeaketa (partaideen % 24,8), Segurtasuna eta ingurumena (% 23,1), gizarte-kulturako zerbitzuak eta komunitatearen aldeko zerbitzuak (partaideen % 14) eta prestakuntza osagarria (% 9,9), besteak beste. Administrazio eta auditoria, Finantza eta aseguruak eta IKTen kudeaketa arloetako prestakuntzarako ekintzak biltzen ditu administrazioari eta kudeaketari buruzko prestakuntzak. Segurtasunaren eta ingurumenaren gaineko prestakuntza, berriz, segurtasunari eta prebentzioari eta ingurumenaren kudeaketari buruzko ekintzez osatuta dago. Gizarte-kulturako zerbitzuen eta erkidegoarentzako zerbitzuen gaineko prestakuntza, azkenik, trebakuntza, hezkuntza eta gizarte arretarako eskumenetara dago bideratuta.

Trebakuntzaren modalitateak, azkenik, aldaketak izan zituen 2016an. Urte horretako urtarriletik hasita, prestakuntza hiru metodologiaren bidez egin daiteke onura jasotzen duen trebakuntza: presentziazkoa, teletrebakuntza eta mistoa,

eta betiko urrutiko trebakuntza desagertu da. Horrela, online irakaskuntza sustatu daiteke, teknologia berrien bilakaerarekin bat etorrita.

Horrenbestez, presentziazko trebakuntza da oraindik gehien erabiltzen dena, partaideen %81,7rekin. Hala ere, prestakuntzarik laburrena jaso dute, batez beste 12,4 orduko prestakuntzako ekintzen bidez. Teletrebakuntzak batez bete 34,5 orduko iraupena du, eta langile partaideen %17 biltzen du. Azkenik, trebakuntza mistoak presentziazko irakaskuntza eta teletrebakuntza uztartzen ditu, eta batez besteko iraupenik luzeeneko modalitatea bihurtu da, baina partaideen %13ek baino ez du aukeratu.

III.5.8. TAULA. FUNDAE: ETENGABEKO PRESTAKUNTZA EAE-N, EMATEKO MODALITATEAREN ARABERA.

	PARTAIDEAK			PRESTAKUNTZA ORDUAK			BATEZ BESTEKO IRAUPENA		
	2015	2016	2017	2015	2016	2017	2015	2016	2017
PRESENTZIAZKOA	138.068	167.066	170.730	1.985.660	2.170.952	2.121.999	14,4	13,0	12,4
TELEPRESTAKUNTZA	22.868	35.963	35.595	582.875	1.255.205	1.228.526	25,5	34,9	34,5
MISTOA	17.585	3.020		475.833	132.396	139.605	27,1	43,8	51,5
URRUTIKOA	18.447	-	-	1.135.395	-	-	61,5	-	-
GUZTIRA	**196.968**	**206.049**	**209.071**	**4.179.763**	**3.558.553**	**3.490.130**	**21,2**	**17,3**	**16,7**

Iturria: FUNDAE. Prestakuntza enpresetan 2017. Euskadi.

Horrenbestez, 2017an 356 milioi ordu eman ziren prestakuntzan. 10etik 6,1geletan egin ziren, 3,5, telematika bidez eta 4 ordu presentziako trebakuntza eta online trebakuntza uztartzen dituzten ekintza mistoei dagokie.

5.2. ENPLEGU POLITIKA PASIBOAK

Langabeziagatiko prestazioek lan egin ahal eta nahi dutenak baina aldi baterako edo behin betiko lana galdu edo lanaldiaren zati handi bat murriztuta dutenak eta, horren ondorioz, soldatak antzeko moduan murriztuta dituztenak babesten dituzte. Kotizaziopeko prestazioak (erabateko langabezia edo langabezia partziala) eta laguntzako prestazioak (langabeziagatiko subsidioa) daude. Kotizaziopeko prestazioen zenbatekoa langileek eta enpresariek Gizarte Segurantzari egoera horretarako ordaindutako kotizazioekin finantzatzen da, eta langabeziaren lehenengo 6 hiletan langabearen kotizazio oinarriaren % 70 da (gainerakoan % 50), langabe bakoitzaren familia egoeraren arabera zenbait muga dituela[23]:

III.5.3. GRAFIKOA. EAE-KO LANGABEZIA PRESTAZIOEN HARTZAILEEN KOPURUAREN HILEKO BILAKAERA (MILAKOAK)



Iturria. EGSMren datuekin egina.

- Kotizaziopeko prestazioak langileek eta enpresaburuek Gizarte Segurantzari kontingentzia horrengatik eginiko kotizazioekin finantzatzen dira, eta langabetuaren kotizazioaren oinarriaren % 70 da langabezia aldiko lehenbiziko 6 hileetan (gainerakoa, %50), baina zenbait muga daude familiaren egoeraren arabera.

[23] *BOE, 168. zk., 2012ko uztailaren 14koa.*

- Langabezia subsidioak prestazio ekonomikoa du AEEAPren (Askotariko Efektuen Errentaren Adierazle Publikoa) gaineko ehuneko jakin batekiko, familiaren egoeraren arabrera. 2018k AEEAP 537,84 euroan finkatu zen, aurreko ehuneko bera.

5.2.1. Prestazioen hartzaileak eta langabezia-estaldura

2018an, langabeziaren prestazioaren 47.169 hartzaile zeuden batez beste EAEn, hots, aurreko urtean baino % 5,9 gutxiago; izan ere, ordurako % 10eko jaitsiera izan zuen, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren arabera. 47.169 hartzaile horietatik, % 54 emakumeak dira (batez bestekoaren azpitik egin du behera horien kopuruak, % 3,9) eta %46 gizonezkoak (-% 8,2).

III.5.9. TAULA. LANGABEZIA PRESTAZIOEN ONURADUNEN KOPURUAREN BILAKAERA EAE-N. URTEKO BATEZ BESTEKOAK.

	KOTIZAZIOPEKO PRESTAZIOAK			LAGUNTZA PRESTAZIOAK			PRESTAZIOAK, GUZTIRA*		
	GIZONAK	EMAK.	GUZTIRA	GIZONAK	EMAK.	GUZTIRA	GIZONAK	EMAK.	GUZTIRA
2014	24.488	22.039	46.527	16.704	15.698	32.402	41.192	37.737	78.929
2015	18.224	18.588	36.812	14.530	13.806	28.336	32.754	32.394	65.148
2016	14.675	16.872	31.547	12.218	11.910	24.128	26.893	28.782	55.675
2017	13.340	16.242	29.582	10.222	10.317	20.539	23.563	26.559	50.122
2018	**13.126**	**16.302**	**29.428**	**8.510**	**9.232**	**17.742**	**21.636**	**25.533**	**47.169**
15/16 ald. %	-19,5	-9,2	-14,3	-15,9	-13,7	-14,9	-17,9	-11,2	-14,5
16/17 ald. %	-9,1	-3,7	-6,2	-16,3	-13,4	-14,9	-12,4	-7,7	-10,0
17/18 ald. %	-1,6	0,4	-0,5	-16,7	-10,5	-13,6	-8,2	-3,9	-5,9

(*) Hauexek barne. Laneratzeko Errenta Aktiboa, Langabeziaren eta Laneratzearen ziozko Babesaren Aldi Baterako Programa (PRODI) eta Enplegurako Aktibazio Programa (EAP) Iturria: EEZP, ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAREN MINISTERIOA.

Prestazioak 2018an jaso zituzten hartzaileen kopuruaren hileko bilakaerari gagozkiola ikusten denez, aurreko urteetan bezala, gorakada izan zen uztailean eta abuztuan, eta harrezkero behera egin eta urtean amaieran 46.045 hartzaile ziren, 2017ko abenduan baino % 1,8 gutxiago (orduan % 8,5eko jaitsiera izan zen aurreko urtearen aldean).

Erregistraturiko langabezia osoaren kopuruak kontuan izanik, esan liteke ezen, 2018ko abenduan, EAEko 10 langabetuetatik 61ek ez zuela prestaziorik jasotzen (63k 2017an) eta jasotzen zuten 39etatik 24k kotizaziopeko prestazioa jasotzen zuten, 13k subsidioa eta 2k Laneratzeko Errenta Aktiboa.

Abenduko langabezia prestazioaren 46.045 onuradunetatik, % 62,4 kotizaziopeko prestazioen onuradunak ziren (28.732), % 33 subsidioenak (15.195), % 4,6k Laneratzeko Errenta Aktiboa jasotzen zuen (2.116) eta gainerako 2 lagunek Enplegurako Aktibazio Programaren prestazioa[24] jasotzen zuten (183k 2017ko abenduan).

Estatuan, hile berean, 1.835 milioi onuradun erregistratu ziren (-% 2,9 2017aren aldean), eta kotizaziopeko prestazioaren hartzaileen ratioa % 44 zen, % 37,6 subisidioetarako eta % 8,2 laneratzeko errenta aktiborako. Horrez gain, % 0,1ek Enplegurako Aktibazio Programaren prestazioa jasotzen zuen, eta % 10,1ek nekazaritzako aldi baterako subsidioak.

[24]. *Aldi baterako programa da, iraupen luzeko langabetuentzat, Enplegu Zerbitzu Publikoek kudeaturiko lan bitartekaritza eta enplegu politika aktiboak biltzen dituena, lan-merkatura itzultzeko aukerak handitzeko. EEZPk kudeaturiko laguntasunerako diru-laguntza eskaintzen du, enplegurako aktibazio politika horietan parte hartzearekin lotua. Abenduaren 19ko 16/2014 Errege Lege-dekretua, Enplegurako Aktibazio Programa araupetzen duena.*

III.5.10. TAULA. ESTALDURA-ADIERAZLEAK ETA LANGABEZIA PRERSTAZIOENGATIKO GASTUAK, AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA. ABENDUAN.

	ESTALDURA-TASA*					KOTIZAZIOPEKO PRESTAZIOAREN BATEZ BESTEKOA ONURADUN BAKOITZEKO (€/HILEA)				
	2016	2017	2018	16-17	17-18	2016	2017	2018	16/17 %	17/18 %
ANDALUZIA	62,6	65,9	66,6	3,3	0,7	784,7	792,8	800,7	1,0	1,0
ARAGOI	52,8	54,3	57,9	1,5	3,6	823,9	827,7	841,8	0,5	1,7
ASTURIAS	47,3	47,0	48,6	-0,3	1,6	779,6	779,5	778,7	0,0	-0,1
BALEAR U.	130,2	132,7	137,4	2,5	4,7	964,9	984,6	1.003,1	2,0	1,9
KANARIAR U.	50,5	52,5	53,7	2,0	1,2	762,1	784,6	792,6	3,0	1,0
KANTABRIA	53,5	54,9	56,0	1,5	1,1	779,6	785,1	793,2	0,7	1,0
GAZTELA-MANTXA	50,7	51,4	52,4	0,8	1,0	769,9	785,7	786,7	2,1	0,1
GAZTELA ETA LEON	50,3	51,0	54,0	0,7	3,0	802,1	810,7	809,8	1,1	-0,1
KATALUNIA	62,6	63,6	65,7	1,0	2,1	855,7	863,0	870,4	0,9	0,9
VALENTZIAKO E.	50,4	52,2	54,0	1,7	1,8	791,2	794,8	807,1	0,5	1,5
EXTREMADURA	64,3	68,4	72,6	4,1	4,2	687,0	696,3	704,3	1,4	1,1
GALIZIA	53,7	54,7	57,4	1,0	2,7	793,5	792,5	803,1	-0,1	1,3
MADRIL	48,1	49,4	50,8	1,4	1,4	850,9	855,9	855,5	0,6	0,0
MURTZIA	53,4	56,8	59,9	3,4	3,1	785,6	792,6	803,0	0,9	1,3
NAFARROA	48,9	49,5	52,0	0,6	2,5	902,3	902,5	915,2	0,0	1,4
EAE	**42,4**	**41,5**	**43,6**	**-0,9**	**2,1**	**875,6**	**881,9**	**885,2**	**0,7**	**0,4**
ERRIOXA	53,1	53,6	54,1	0,5	0,5	843,4	847,9	851,2	0,5	0,4
CEUTA	41,4	47,5	48,1	6,1	0,6	772,9	799,1	786,5	3,4	-1,6
MELILLA	35,7	37,6	39,3	1,9	1,7	762,0	771,0	771,4	1,2	0,1
GUZTIRA	**56,6**	**58,6**	**60,4**	**2,0**	**1,8**	**820,1**	**828,1**	**835,0**	**1,0**	**0,8**

Iturria: Geuk egina EGSMren datuekin egina.
(*) Ministerioaren metodologiaren arabera, estaldura-tasa kalkulatzeko, hilaren azken egunean alta emanda zeuden prestazioen (kotizaziopekoak gehi subsidioak) onuradunen kopuruaren eta lan esperientziadun langabe erregistratuen eta nekazaritzako (Andaluzian eta Extremaduran) aldibaterakoen onuradunen baturaren arteko zatidura erabili da.

Estatuan, langabeziaren ziozko prestazioen estaldura, erregistraturiko langabeziarekiko, nabarmen aldatzen da erkidegoen artean. Alde batetik, Balearren kasua nabarmentzen da, non, eskuragarri ditugun datuen arabera, aurretik lan esperientzia duten langabetuek (Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren metodologiak ez baititu aintzat hartzen, kalkulu honetan, lan esperientziarik gabeko pertsonalak) prestazio motaren bat jasotzen duten eta, bestetik, Melillan, non langabezian dauden pertsonen %40k baino gutxiago jasotzen duten.

2018ko abenduko datuekin jarraituz, estatuko batez besteko estaldura % 60,4 zen (2017ko abenduaren baino % 1,8 gehiago), eta hori baino txikiagoa da EAEkoa (hile horretan erregistraturiko langabeen % 43,6k lehenago lan egin zuten, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioak darabilen metodologiaren arabera). Gure Erkidegoan, 2,1 puntutan egin zuen gora estaldura horrek 2017ko abendutik 2018ko abendura bitartean.

Melilla Bilakaera on hori gorabehera, EAEk autonomia erkidego guztietako langabeziako estaldura-tasarik txikienari eusten dio, aipaturiko Melilla izan ezik[25]. Baina, 2018. urtean, 2016an eta 2017an ez bezala (urte horietan beherantz jarraitu zuen estaldurak, puntu bat eta 9 hamarren hurrenez hurren, prestazioaren hartzaileen kopuruak behera egin arren), erregistraturiko langabeziaren beherakadarekin batera, % 2,1eko gehikuntza izan da prestazioaren onuradunen estaldura-tasa.

Sexuaren arabera, estaldura-tasa txikiagoa da emakumeentzat, bai EAEn, bai gainerako autonomia erkidegoetan. 2018ko abenduan, langabeziagatiko prestazioaren estaldura-tasa % 41,3 zen gure erkidegoan emakumeentzat eta % 46,4 gizonezkoentzat. Beraz, 5,1 puntuko aldea dago bi sexuen artean. Azken urteko estalduraren hobekuntzak alde hori handitu baizik ez du egin (% 4,8koa zen 2017ko abenduan, zeren eta gehiago hazi baita gizonezkoen artean (+2,3, p.p.) emakumeen artean baino (+2 p.p.).

[25] *Hauxe da arrazoietako bat: langabezia subsidioa baliatzeko, kotizaziopeko prestazioa bukatuta, kontuan hartzen da bizikidetza-unitatearen errenta, ez pertsonala, eta errenta hori, EAEn, askotan subsidioa eskuratzeko gehieneko atalasetik gorakoa da. Horregatik, askok ezin balia dezakete subsidio hori eta sistemaren estalduratik kanpo gelditzen dira.*

III.5.4. GRAFIKOA. LANGABEZIAGATIKO PRESTAZIOAREN ESTALDURA-TASAK, SEXUAREN ARABERA, EAE-N ETA ESTATUKO BATEZ BESTEKOA. ABENDUAN.



Iturria: EEZP. Geuk egina.

Gora egin zuen, beste urte batez, langabeziaren kotizaziopeko prestazioaren batez bestekoak. Izan ere, 2018ko abenduan 885,2 eurokoa zen (aurreko urtean baino % 0,4 gehiago, estatuko batez bestekoaren gainetik (835 euro, 2017ko abenduan baino % 0,8 gehiago). Hala, prestazio horren batez bestekorik handienak Euskadikoa izaten jarraitzen du: EAEn % 6 handiagoa estatuan baino. EAE, Nafarroarekiko, Balearrekin eta Kataluniarekin batera, lehen postua dago aldagai horretan.

5.2.2. Gastua eta sarrera langabeziarako babesean

Langabezia prestazioetarako guztizko gastua, EAEn, behi-behineko datuen arabera, 579,94 milioi euro zen 2018an, 2017an baino % 4,4 gutxiago. Zenbateko hori EAEko BPGd-aren % 0,76 da (% 0,82 aurreko urtean), hots, estaturako langabeziaren guztizko gastuaren % 3,33, non 17.723 milioi euroak gainditzen diren (-% 0,5 2017aren aldean).

III.5.11. TAULA. LANGABEZIAGATIKO GASTUAREN BILAKAERA ETA EEZP-REN SARRERAK GIZARTE KOTIZAZIOENGATIK EAE-N (MILIOI EURO)

	2013	2014	2015	2016	2017	2018*	16/17 %	17/18%
KOTIZAZIOPEKO PRESTAZIO GORDINAK	799,31	656,71	502,16	396,92	363,87	355,40	-8,3	-2,3
(-) GIZARTE SEG., LANGABEAREN KARGURA	44,02	46,97	37,78	31,90	29,48	28,94	-7,6	-1,8
(-) PFEZ-REN ATXIKIPENAK	6,16	4,36	2,83	2,10	1,83	1,78	-12,9	-2,7
KOTIZAZIOPEKO PRESTAZIO GARBIAK	749,13	605,38	461,55	362,92	332,56	324,68	-8,4	-2,4
LANGABEZIA SUBS. PRESTAZIOAK	171,71	160,64	140,89	121,99	103,85	88,60	-14,9	-14,7
EEZP-REN KOTIZAZIOAK GIZARTE SEGURANTZARAKO	338,04	280,04	219,34	184,08	170,33	166,65	-7,5	-2,2
-EEZPren kargurako kotizaziopekoengatik	305,79	250,09	191,74	159,29	147,51	145,98	-7,4	-1,0
-EEZPren kargurako asistentziagatik	32,25	29,95	27,60	24,69	22,82	20,67	-7,6	-9,4
LANGABEZIARAKO GASTUA, GUZTIRA	**1.258,88**	**1.046,06**	**821,78**	**699,17**	**606,74**	**579,94**	**-13,2**	**-4,4**
ESTATUAREN GASTU OSOAREKIKO %-A	4,36	4,39	3,98	3,73	3,47	3,33	-	-
EEZP-RAKO BILDUTAKO KUOTAK	1.056,10	1.071,30	1.099,96	1.139,62	1.190,36	:	4,5	:
SALDOA	-202,45	25,24	278,18	440,45	583,62	:		
SARRERA / GASTUA	0,84	1,02	1,34	1,63	1,96	:		

Iturria: EEZPren eta GSNZren datuekin egina. Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa.
****2018ko kopuruak behin-behinekoak dira.***

Gastu horretatik eta jasotzaileen zifretatik, urteko 12.869 euroko batez besteko gastua zenbatetsi da, hots, 2017koa baino %6,3 gehiago. Datu hori eta hartzaileen batez besteko kopuruak direla-eta, urteko batez besteko gastua 12.869 eurokoa da hartzaile bakoitzeko, 2017an baino % 6,3 gehiago.

III.5.5. GRAFIKOA. LANGABEZIAGATIKO PRESTAZIOAK EAE-N: HARTZAILEEN KOPURUAREN ETA GASTUAREN BILAKAERA



Iturria: EEZPren datuekin egina.

Bestalde, enpresek eta soldatapekoek EEZPrako ordaindutako kotizazio sozialen ziozko sarrerak, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak bilduak EAEn, 1190,366 milioi eurokoak ziren 2017an (eskuragarri dugun azken datua), hots, aurreko urtean baino %4,5 gehiago. Hala, EAEn langabeziaren kontingentzia estaltzeko gastuen eta sarreren arteko aldeak, 2017an, saldo positiboa izan zuen, 583,62 milioi eurokoa. 2016an, berriz, 440,45 milioi euro ziren.

III.5.6. GRAFIKOA. LANGABEZIAGATIKO PRESTAZIOEN GASTUA ETA SARRERA EAE-N



Iturria: EEZPren eta EUSTATen datuekin egina.

5.3. EZINDUEN ETA GIZARTEAN BAZTERTUAK IZATEKO ARRISKUAN DAUDEN PERTSONEN ENLEGUGARRITASUNERAKO ETA GIZARTE-LANERATZEKO POLITIKAK

Ondoren, gizarte edo ekonomia inguruabarrengatik (gizartean baztertuak egotea edo arrisku horretan izatea) edo ezintasun motaren batengatik lan-merkatuan berdintasunean sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonentzako politiken gaineko kopuruak aurkeztuko dira. Ordaindutako lana eta pertsona bakoitzari egokituriko zerbitzuen beharrezko prestazioak bermatzea da helburu nagusia, eta aldi berean, lan erregimen arruntean sartzeko baliabidea izan nahi dute. Hori guztia hain zuzen ere lana pertsonak gizarteratzeko bide nagusia dela onartuta.

5.3.1. Ezinduen enplegu arrunta

Ezinduen enplegu babesturako Enplegu Zentro Berezien bitartez ematen diren laguntzez gain, LANBIDEk ezinduen enplegua sustatzen du ohiko merkatuan, bi laguntza programa motaren bidez:

Lehenik eta behin, lan-prestatzaile adituek eskainitako banako laguntza ematean dautza laguntzako enplegu programak, eta horiei esker, zailtasun bereziak dituzten langile ezinduek beren jarduera egin dezakete lan-merkatu arruntean. Hala, beharrezko baliabideak ematen zaizkie langileei laneratze-prozesua errazteko, baita laneratutako ezinduek lanean aurrera egitea eta jarraitzea ere.

2017an, LANBIDEk 948.998 euro (+%18,9 2016aren aldean) erabili zituen 69 ezinduei laguntzeko enpresa arruntetan (49 ezindu 2016an), eta horietatik 43 gizonak ziren eta 26 emakumeak. Gainera, dagoeneko laneratuta dauden 148 langileren jarraipena egin du.

III.5.12. TAULA. EAE-KO EZINDUEI LAGUNTZEKO ENPLEGU PROGRAMA: KOPURU NAGUSIAK 2013-2017.

	2013	2014	2015	2016	2017
ZENBATEKOA (MILAKA €)	665,1	673,7	755,9	797,9	949,0
LAGUNDUTAKO LANGILEAK	44	60	53	49	69
SEGIMENDUAK	120	143	127	116	148

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, LANBIDEren datuekin

Hala, azken bost urtean (2013-2017), 3,8 milioi euro erabili dira programa horretarako; 275 ezinduren laneratzea erraztu da eta 654 ezinduren jarraipena egin da.

Bigarrenik, ezinduen enplegu mugagabea sustatzeko programan, 149 ezinduren kontrataziorako diru-laguntza eman zuen 2017an, horietatik 101 (%68) lanaldi osoan eta 48 lanaldi partzialean (%32).

III.5.13. TAULA. EAE-KO EZINDUEN ENPLEGU MUGAGABEA SUSTATZEKO PROGRAMA: KOPURU NAGUSIAK 2013-2017.

	2013	2014	2015	2016	2017
ZENBATEKOA (MILAKA €)	356,3	445,1	439,5	447,1	498,2
KONTRATATURIKO LANGILEAK	108	141	125	141	149
- LANALDI OSOA	71	91	91	86	101
- LANALDI PARTZIALA	37	50	34	55	48

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, LANBIDEren datuekin

Hala, 498.174 euro erabili ziren (+%11,4 2016aren aldean), eta horietatik %51,6 kontratazioetarako diru-laguntzak emateko erabili ziren Bizkaian 76 kontrataziotarako, %27,2 Gipuzkoako 42 kontratazioetan eta %21,2 Arabako kontratazioetan (kontrataturiko 31 ezindu.

Azkenik, aurrekontuko likidazioaren zifrak izan artean, Lanbideren 2018. urterako aurrekontuetan 1.000.000 milioi euro bildu zen(ekitaldi horretako partida gisa 500.000 eta aurreko urteetan hitzartutako krediturako 500.000), enplegurako jarduketetako laguntza programetan, baina laguntza emanez, ezinduak lan-merkatu arruntean sartzeko, eta langile ezinduei enpresetan kontratu mugagabe egiteko laguntzak emanez.

5.3.2. Enplegu Zentro Bereziak

Ezinduen eskubideei eta horien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onetsi duen azaroaren 29ko 1/2013 EDaren 37.1. artikuluarekin bat etorriz, hauxe da ezinduen enplegu politikaren xedea: “haien jarduera-tasak eta okupazio-tasak eta laneratzea handitzea, baita enpleguaren kalitatea hobetu eta haien lan-baldintzak hobetzea ere, betiere diskriminazioaren kontra aktiboki jardunda…”

Arau horren arabera, ezintasuna da *"ustez iraunkorrak diren gabeziak gizartean gainerakoekiko berdintasunean benetan eta eraginkortasunez parte hartzea mugatzen edo galarazten duten edozein eratako eragozpenak dituzten pertsonen arteko elkarreraginaren ondoriozko egoera"*. EAEn, administrazioaren konpromisoari eta jarduketa koordinatuari esker, arau, egitarau eta aurrekontuen arloko jardun garrantzitsua hedatu dute azken urteetan gizarte solaskideek eta elkartegintzak eta enpresagintzak, ezinduak laneratzea errazte aldera. Eta enplegu babestua, enplegu zentro berezien bitartez (EZB), oinarrizkoa bihurtu da, zeren eta langile ezinduei ekoizpen-lan ordaindua emateko helburu nagusia duten enpresak baitira. Izan ere, lan hori lagungarria izango da lan-merkatu arrunterako trantsizioa eta integrazioa errazteko.

III.5.7. GRAFIKOA. EAE-KO EZB-ETAN LANEAN DABILTZAN EZINDUEN BILAKAERA.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

2017ko abenduan, EAEn 9.478 ezindu (horietatik %64,6 gizonak ziren eta %35,4 emakumeak) ari ziren lanean 74 EZBren plantillen barruan. Sexuaren araberako banaketa berdina bada ere, talde horretan 519 lagun gehiago zeuden (+%5,8) 2016ko abenduan baino. Lurraldez lurralde, Gipuzkoa da EZBen lanean ari diren ezinduen kopururik handiena duena (guztizkoaren %47,2), eta ondoren Bizkaia (%38,7) eta Araba (%14,1).

Eta ezintasun motaren arabera, talde horren %47,5ek ezintasun psikikoa du, %43,5ek fisikoa eta gainerako %9ak zentzumen-ezintasuna du.

Horrez gain, araudian ezarrita dagoenez, gutxienez enpresako plantillaren %70 ezinduekin osatuta egon behar dute EZBek. EAEn, % 1,1eko ratioa dago, zeren eta bere EZBetan ezinduak ez ziren langileen guztizkoa kopurua, 2016an (eskuragarri dugun azken datua, EUSTATen Gizarte Zerbitzuen Estatistika oinarri hartuta), 926 lagunekoa zen.

III.5.8. GRAFIKOA. EAE-KO EZB-AK MANTENTZEKO LAGUNTZEN BILAKAERA. MILAKO EUROTAN.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

EAEko EZBei eusteko laguntzei dagokienez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, orotara, 38,94 milioi euro erabili zituen horretarako 2017an (+%8,2 2016aren aldean), eta horietatik %38,3 Bizkaiko 40 EZBri esleitu zitzaien, %48,3 Gipuzkoako 19 EZBri eta funtsen gainerako %13,4a Araban diharduten 15 zentroentzat.

Halaber, laneratzeko zailtasun handiak dituzten ezinduentzat (buruko paralisia, buruko gaitza, ezintasun intelektuala eta %65eko edo hortik gorako gabezia fisiko aitortua duten pertsonak) diru-laguntzak ematen ditu LANBIDEk EZBetako lanbide-jarduera laguntzeko. Lanbide arlo askotako taldeak dira, pertsona horien barrerak, oztopoak edo zailtasunak gainditzen laguntzeko, betiere gaitasun pertsonalak eta profesionalak eskuratzeko eta etengabe hobetzeko laguntza sistema osoa baliatuz.</seg>

III.5.14. TAULA. EZBE-ETAKO LANBIDE JARDUERARI LAGUNTZEKO UNITATEAK: KOPURU NAGUSIAK 2013-2017.

	2013	2014	2015	2016	2017
ZENBATEKOA (MILAKA €)	3.794	3.918	4.000	3.990	4.200
LAGUNDUTAKO LANGILEAK	3.680	3.807	3.952	4.121	4.352
EZB	35	34	35	37	36
LAGUNTZA-UNITATEAK (ESPEZIALISTAK)	429	444	462	481	477

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, LANBIDEren datuak.

LANBIDEK, 2017ean, 4,2 milioi euro erabili zituen (+%5,3 2016aren aldean) 4.352 langile ezinduri laguntzeko (+%5,6) EAEko 36 EZBetan, laguntza-unitateetako 477 adituren lanari esker.

5.3.3. Laneratze enpresak

Laneratze-enpresak honela defini daitezke: gizarte bazterkeriako egoera paira dezaketen edo pairatzen ari diren pertsonen gizarteratzea eta laneratzea erraztea helburu duten enpresak dira, pertsona horiek lan-merkatura sartzeko zailtasun handiak dituztelako. Gizarteratze-enpresen ezaugarri nagusia haien gizarte helburu bikoitza da: alde batetik, enpresa eratu deneko jarduera ekonomikoa gauzatzea; eta bestetik, gizarte bazterkeriako arriskuan dauden taldeetako pertsonak gizarteratzea eta laneratzea. Azken urteetan, Espainiar Estatuan laneratze enpresei dagokienez, asko sortu dira. Alde batetik, hainbat autonomia erkidegok (hauen artean EAE) mota hau arautu dute eta onarpena eta berariazko diru laguntzak eman dizkiote; gainera, enpresa kopurua esponentzialki hazi da.

Euskadin, Sarrerak Bermatzeari eta Gizarteratzeari buruzko abenduaren 23ko 18/2008 Legean xedatuta dagoenez, lanerako eskubidea ezinbesteko baldintza da herritartasun osoa eskuratu ahal izateko, eta lan-merkatuan hondar-partaidetza ez izateak, ezinbestean, bazterketa prozesua dakar, eta beste eskubide sozial batzuk erabiltzeko zuzeneko ondorioak ditu. Lana gizarteratzeko baliabidea dela onartuta, eta bizitzako oinarrizko beharrei aurre egiteko diru-baliabideak izateko aitortzen diren prestazioekin batera, hauxe ezarri da Legean: herri administrazioek neurriak bideratu behar dituztela beren ezaugarriak direla-eta lan-merkatuan berdintasunean sartzeko zailtasunak izan ditzaketen edo dituzten pertsonak edo taldeak laneratzen laguntzako eta errazteko.

III.5.15. TAULA. EAE-KO LANERATZE ENPRESEI LAGUNTZEKO PROGRAMEN BILAKAERA. 2009-2017.

	ERAKUNDEAK	EMANDAKO LAGUNTZAK (milaka eurotan)	LANERATZE POSTUAK, GUZTIRA*
2013	40	8.024	s.d.
2014	40	7.340	s.d.
2015	39	7.623	s.d.
2016	41	8.177	546
2017	37	8.128	604

Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN datuekin egina. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.
** Aurreko deialdiak gehi berriak eta berrituak.*

Neurri horien artean, laneratze enpresak sortzeko eta eusteko laguntza bildu da. Izan ere, 2002tik eman izan da laguntza hori urte hartan abenduaren 11ko Agindua onetsita, laguntza horiek araupetzen dituena[26].

Laguntza horien xedea laguntzarako zenbait formula ematea da enpresa mota horiei, beren berezitasunetara eta beharretara egokituta. Hartara, haientzat beren beregi sortutako diru-laguntzak arautzeko oinarriak ezarri dira. Haren

[26] *18/2008 Legearen arau-garapenaren xehetasuna izateko Laneratze Enpresei dagokienez, begiratu laneratze enpresen kalifikazioa arautzeko azaroaren 11ko 182/2008 Dekretuan eta 2002ko abenduaren 11ko Agindua aldatzen duen 2009ko maiatzaren 4ko Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako sailburuaren aginduan.*

esparruan, laneratze enpresak sortzeko erakunde sustatzaileentzako diru-laguntzak eta laneratze enpresei eurei, irauteko, zuzendutako diru-laguntzak aurreikusten dira. Hala, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2009ko maiatzaren 4ko AGINDUAREN bidez, laneratze enpresak sortzeko eta horiei eusteko laguntzak arautu dira, gaur egun Lanbideren menpe daudenak, eta 2016rako 8.200.000 euro dituzte eskuragarri. Tresna horien bidez, Eusko Jaurlaritzak gizarteratze eta laneratze modalitate berezi hori hedatzea sustatu nahi du; haren bidez, pertsona bat, besteren konturako langile, bazkide langile edo laneko bazkide, laneratze enpresa batean sartzea kontratu baten bidez bideratzen da, laneko kontratua lehen kasuan eta sozietatekoa bigarrenean, eta lehenago txertaketarako hitzarmen bat sinatzetik ondorioztatzen da.

2003tik 2017ra bitartean, 106 milioi euro inguru banatu ditu laguntza-lerro horrek, urtean 37 erakunde onuradun batez beste eta 3.200 laneratze-langile onuradun. 2017an (informazioa dugun azken urtea) 37 laneratze enpresentzako laguntzak eman ziren, eta horien zenbatekoa, guztira, 8.128 milioi euro izan zen, aurreko urtean baino %0,6 gutxiago. Laguntza horiek eman ziren 219 laneratze-lanpostu bultzatzeko, eta 2017ko amaieran dakigunez, guztira, 604 laneratze-lanpostu dira (aurreko deialdi berriagoak eta berrituagoak.

Eusko Jaurlaritzako Laneratze Enpresen Erregistroak adierazitakoaren arabera, 2018ko bukaeran EAEk 43 laneratze enpresa zituen jardunean, eta horietatik 42K *GIZATEAN* (EAEko Laneratze Enpresen Elkartea) hartzen dute parte. Haren 2017ko "Memoria sozial"etik atera dira honako datu hauek: urte horretan 1.161 langile zituen (2016an baino 38 gehiago), eta horietatik 702 (+37 2016aren aldean eta guztizkoaren % 60,5) laneratze langileak ziren. Enplegu hori lanaldi osoko 667 lanposturi dagokie (horietatik 447 laneratzekoak). Urte horretan, gutxi gorabehera 30,44 milioi euroko guztizko sarrerak izan zituzten (+0,74 milioi), eta horietatik 21,4 bere jardueraren ziozko fakturazioari dagozkio eta gainerako 9,04 laguntza publikoei.

Laneratze prozesuaren emaitzari dagokionez, GIZATEA Memoriak erakusten duenez, 2017an, laneratze prozesuan zeuden 702 lagunetatik 498k (%71) laneratze prozesuan jarraitzen zuten urtearen bukaeran, 20 lagunek (%3) prozesua utzita zuen bukatu baino lehen, 61ek (%9) laneratze kontratua bukatu zuten eta 123k (%17) laneratze prozesua bukatu zuten. Eta 123 lagun horietatik %69 lan-merkatuan sartu ziren (70 lanpostu inoren kontura, 6 norberaren konturakoak eta 9 beste laneratze enpresa batzuetan). Gainerako %38 (31 lagun) langabezian gelditu ziren.

III.5.9. GRAFIKOA: LANERATZEAREN EMAITZAK. BANAKETA PORTZENTAJEAN



Iturria: GIZATEA. 2017ko Memoria soziala. Geuk egina.

6. LAN-OSASUNA

OSALANEK (Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea) agerian utzi duenez, 2018an 37,875 istripu izan ziren (lan-egunetan baja eragin duten istripu berriak, hain zuzen ere 1.000 langileko istripu kopuruaren eta berariaz laneko istripuen kontingentzia estalia duten Gizarte Segurantzako afiliatuen kopuruaren arteko zatiduraren bidez kalkulatzen den kopurua) gure Erkidegoan milako (38,227 milako 2017an eta, beraz, behera egin du ratioak, 0,35 puntu gutxiago.

III.6.1. TAULA. LANEKO EZBEHARREN INTZIDENTZIA JARDUERA-SEKTOREAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. KONTINGENTZIA ESTALITA DUTEN AFILIATUAK MILAKOETAN. 2017-2018.

	2017				
	LEHEN SEKT.	INDUSTRIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZ.	GUZTIRA
ARABA	47,02	59,83	89,36	28,65	39,43
BIZKAIA	91,31	70,69	87,35	28,96	39,57
GIPUZKOA	79,03	62,44	82,59	24,34	35,48
EAE	**75,58**	**65,29**	**86,27**	**27,44**	**38,22**
	2018				
	LEHEN SEKT.	INDUSTRIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZ.	GUZTIRA
ARABA	43,30	58,65	96,92	29,15	39,66
BIZKAIA	93,08	71,10	84,82	28,11	38,81
GIPUZKOA	71,90	63,77	80,32	24,12	35,47
EAE	**73,23**	**65,61**	**85,10**	**27,00**	**37,87**
	2017-2018 ALDAK. (P.P.)				
	LEHEN SEKT.	INDUSTRIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZ.	GUZTIRA
ARABA	-3,72	-1,18	7,56	0,50	0,23
BIZKAIA	1,77	0,41	-2,53	-0,85	-0,76
GIPUZKOA	-7,13	1,33	-2,27	-0,22	-0,01
EAE	**-2,35**	**0,32**	**-1,17**	**-0,44**	**-0,35**

Iturria: OSALAN. EUSKO JAURLARITZA.

Sektore bakoitzari erreparatuta, eraikuntzan izan zen intzidentziarik handiena (85,10 milako), 1,17 puntu hazi baitzen 2017aren aldean. Ondoren lehen sektorea zegoen, 73,23 milako (-2,35 2017aren aldean) eta industria, 65,61 milako, 0,32 puntu hazita 2017aren aldean. Azkenik, zerbitzuen intzidentzia batez bestekoaren azpitik zegoen, 27 milako (-0,44 puntu).

Autonomia erkidegoei dagokienez, Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioak kalkulatzen duen lanaldiko istripuen intzidentziaren indizeak erakusten duenez, U. Balearrak ziren rankingeko buruan istripuetan 2018an, eta ondoren Gaztela-Mantxa zegoen. EAEren indizea 33,04koa zen milako, eta %8,1 egin zuen behera bere indizeak. Hala, Estatuko batez bestekoaren azpitik zegoen kopuru absolutuetan; industriaren sektoreak duen pisu handiak eragin zezakeen intzidentzia hori. Ehunekoetan adierazita, estatuko batez bestekoaren aldakuntza urte horretan ere negatiboa izan da, baina neurri txikiagoan -%2,4.

III.6.2. TAULA. BAJA ERAGINDAKO LANALDIKO EZBEHARREN INTZIDENTZIA, AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA. MILAKOETAN.

	2015	2016	2017	2018*	17-18 P.P. %	17/18 ald. %
ESTATUA	32,52	33,64	34,09	33,26	-0,83	-2,4
ANDALUZIA	36,54	37,79	38,47	37,73	-0,74	-1,9
ARAGOI	30,01	31,51	32,47	32,52	0,05	0,2
ASTURIAS	37,29	35,55	34,14	33,87	-0,27	-0,8
BALEAR U.	45,71	48,84	50,25	49,33	-0,92	-1,8
KANARIAR U.	36,08	36,76	36,18	34,90	-1,28	-3,5
CANTABRIA	29,80	30,18	30,20	30,31	0,11	0,4
GAZTELA-MANTXA	38,96	41,49	41,54	40,33	-1,21	-2,9
GAZTELA ETA LEON	30,85	32,46	33,06	33,51	0,45	1,4
KATALUNIA	31,92	33,39	32,84	32,39	-0,45	-1,4
VALENTZIAKO E.	29,07	29,99	31,11	31,25	0,14	0,5
EXTREMADURA	35,77	35,83	37,33	37,76	0,43	1,2
GALIZIA	32,69	32,96	36,27	33,74	-2,53	-7,0
MADRIL	26,88	27,78	27,57	27,22	-0,35	-1,3
MURTZIA	34,13	34,75	35,86	34,67	-1,19	-3,3
NAFARROA	31,85	34,37	35,41	37,00	1,59	4,5
EAE	**34,09**	**34,83**	**35,96**	**33,04**	**-2,92**	**-8,1**
- ARABA	36,34	36,88	36,71	33,48	-3,23	-8,8
- GIPUZKOA	33,00	32,57	33,59	31,56	-2,03	-6,0
- BIZKAIA	34,01	35,56	37,23	33,85	-3,38	-9,1
ERRIOXA	34,04	35,53	36,69	35,81	-0,88	-2,4
CEUTA	39,88	34,50	33,48	27,10	-6,38	-19,1
MELILLA	28,09	33,92	32,42	34,52	2,10	6,5

Iturria: ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZA MINISTERIOA, Laneko Istripuei buruzko estatistikak.
(*) Datuen aurrerapena.

Bestalde, kontratu motaren araberako lan istripuen datuek erakusten dutenez, lan ezbeharren kopurua handiagoa zen aldi baterako kontratua zuten pertsonen artean kontratu mugagabea zutenen artean baino 2017an.

Zehazki, kontratu mugagabea duten pertsonen ezbeharren kopurua 30,6 izan zen mila soldatapeko bakoitzeko (EPAren enpleguko serieak erabiliz). Aldi baterako kontratua duten pertsonen artean, berriz, 50,2 milakoa izan zen. Istripuen banaketa zein den jakin beharko litzateke sektoreen, adinaren eta okupazio motaren arabera, behin betiko ondorioak atera ahal izateko. Eta, ikuspegi dinamikoaren arabera, nabarmentzekoa da 2009an kontratu mugagabea eta aldi baterako kontratua duten pertsonen arteko istripuen indizea 26,4 istripukoa zela 1.000 soldatapeko bakoitzeko, eta 2017an 19,6ra gutxitu zen.

III.6.1. GRAFIKOA. LAN EZBEHARRAK EAE-N KONTRATU MOTAREN ARABERA: EZBEHARRAK 1.000 SOLDATAPEKO BAK.



Iturria: EINen (BAI) eta Enplegu Ministerioaren datekin eginikoa.

Datu absolutuei helduta, 2018an 33.973 lan istripu izan ziren EAEn, 2017an baino %1,2 gehiago (lan istripuagatik baja hartu behar izan duten langileen kopurua aintzat hartuta, lanaldian eta "in itinere" izandako istripuak barne). Estatu mailan, berriz, %3,2ko igoera izan zen, Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioaren arabera (+%3 2017an). Banakapena eginda, lanaldiko istripuak 30.115 izan ziren (+% 1,6) eta 'in itinere', berriz, 3.857 (-% 2). Bilakaera horrek eutsi egiten dio 2014an hasitako goranzko joerari, gure Erkidegoan 2009 eta urte horren artean izandako beherakadaren ostean.

Horrez gain, 2018an bajarik gabeko 47.063 lan istripu izan ziren (-% 3,2 2017aren aldean) eta guztira 1.814 berrerortze aurretiko baja eragindako istripuekiko (+% 7,2).

III.6.3. TAULA. LANEKO OSASUNA EAE-N: BAJA ERAGIN DUTEN EZBEHAR BERRIEN ETA GAIXOTASUN PROFESIONALEN ERAGINPEKO LANGILEAK

	EZBEHARRAK LANALDIAN								IN ITINERE EZBEHERRAK	EZBEHARRAK, GUZTIRA	GAIX. PROF.
	GUZTIRA	LARRITASUNAREN ARABERA			SEKTOREEN ARABERA						
		ARINAK	LARRIAK	HERIOTZAK	NEKAZARITZA	INDUS-TRIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZUAK			
2014	24.816	24.651	137	28	639	8.792	2.527	12.858	3.279	28.095	895
2015	26.641	26.460	153	28	629	9.094	2.555	14.333	3.580	30.221	999
2016	28.090	27.918	138	34	673	9.861	2.640	14.916	3.512	31.602	1.148
2017	29.629	29.443	161	25	664	10.281	2.898	15.786	3.935	33.564	1.445
2018	30.115	29.912	169	34	641	10.524	2.998	15.952	3.857	33.972	1.511
16/17 ald. %	5,5	5,5	16,7	-26,5	-1,3	4,3	9,8	5,8	12,0	6,2	25,9
17/18 ald. %	1,6	1,6	5,0	36,0	-3,5	2,4	3,5	1,1	-2,0	1,2	4,6

Iturria: OSALAN.

Lanaldian ezbeharra izan duten pertsonei gagozkiola (30.115, arestian esan bezala), % 74,2 gizonezkoak izan ziren eta % 25,8 emakumezkoak, aurreko bi urteetako antzeko banaketa. Horrez gain, azken urtean gora egin dute gorabehera arinek, % 1,6, larriek +% 5) eta neurri handiagoan hildakoak eragindako istripuek, % 36 hazi baitziren, aurreko urtean % 26,5 behera egin ondoren. Bestalde, sektoreari buruzko azterketak agerian uzten duenez, gora egin du bereziki eraikuntzaren sektorean (% 3,5), zerbitzuetan (+%1,1) eta industriaren sektorean (+%2,4). Nekazaritzan, berriz, % 3,5eko jaitsiera izan da.

Azkenik, 2018an, orotara, 3.278 gaixotasun profesional aitortu ziren, 2017an baino %5,7 gehiago. Honelaxe banantzen dira: bajarekin 1.511 (+% 4,6 2017aren aldean) eta bajarik gabe 1.767 (+% 6,7). Horietatik % 35,8 emakumeei dagokie eta % 64,2 gizonei. Lanbide gaixotasunaren tipologiaren arabera, agente fisikoek eragiten dute % 89,6, eta ondoren larruaren gaixotasunek, % 3,6arekin, agente kimikoek eta infekziosoek eragindakoak (% 2,4 bi kategorietan) eta, azkenik, arnasteak eragindakoak (% 2). Azken urteetako bilakaeraren azterketaren ezaugarri nagusia da jakinarazteko sisteman aldaketak sartu izana eta, beraz, zuhurtziaz hartu behar dira kopuruok.

ITURRIAK

1. **EUSTAT. BJA**: 2018ko laugarren hiruhilekoa. Hiruhilekoa. Abagunekoa (2019ko apirilaren 17an berrikusitako datuak.)
2. **EUSTAT. HEK:** 2018ko laugarren hiruhilekoa, Hiruhilekoa. Abagunekoa.
3. **GIZARTE SEGURANTZA:** altan dagoen afiliazioa. 2018ko abendua. Hilerokoa. Abagunekoa.
4. **LANBIDE/EEZP**: erregistraturiko langabezia. 2018ko abendua. Hilerokoa. Abagunekoa.
5. **EIN. EPA**: 2018ko laugarren hiruhilekoa. Hiruhilekoa. Abagunekoa.
6. **EUROSTAT**: Lan estatistikak. 2018ko hirugarren hiruhilekoa Hiruhilekoa. Abagunekoa
7. **EEZP:** Kontratuei buruzko estatistika. 2018ko abendua. Hilerokoa. Abagunekoa.
8. **LANBIDE**: Kontratuei buruzko estatistika. 2018ko abendua. Hilerokoa. Abagunekoa.
9. **LAN HARREMANETAN KONTSEILUA.** Euskadin 2009-2017 aldian jakinarazitako kontratazioari buruzko analisia (2018). Txosten zehatza.
10. **EUSKO JAURLARITZA. LAN ETA JUSTIZIA SAILA:** EEEei buruzko datuak. 2018ko abendua. Hilerokoa. Abagunekoa.
11. **ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAREN MINISTERIOA:** Lan estatistikei buruzko aldizkaria. Hilerokoa. Abagunekoa.
12. **ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAREN MINISTERIOA:** Lan-erregulazioei buruzko estatistikak. A2018ko abendua. Urterokoa. Abagunekoa.
13. **LAN HARREMANETAN KONTSEILUA.** Euskadiko gizarte-lan egoera EAEn. 2018ko aurrerapena. Urterokoa. Abagunekoa
14. **EIN:** Soldaten egiturari buruzko inkesta. 2017.
15. **EIN.** Lan-kostuei buruzko urteko inkesta. 2017. Urterokoa. Estrukturala.
16. **EIN:** Lan-kostuei buruzko hiruhilekoetako inkesta. 2018ko IV. Hiruhilekoa. Hiruhilekoa. Abagunekoa.
17. **EIN:** Laneko prezioen indizea 2016. Urterokoa. Estrukturala.
18. **EUSKO JAURLARITZA. ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA (2018)**: 2017-2020 Enplegu Plana. 2017ko Jarraipen Txostena. Urterokoa. Abagunekoa.
19. **EUSKO JAURLARITZA. ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA (2018):** Enplegurako 2020 Euskal Estrategia. 2017ko emaitzen ebaluazioa. Urterokoa. Abagunekoa
20. **EUSKO JAURLARITZA. OGASUN ETA EKONOMIA SAILA:** lanbideren 2017KO Aurrekontuen Likidazioa. Urterokoa. Abagunekoa.
21. **HOBETUZ**: Etengabeko prestakuntzari buruzko datuak. 2017ko behin betikoak eta 2018ko aurrerapena. Urterokoa. Abagunekoa.
22. **ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZARAKO FUNDAZIOA (FUNDAE**): EAEko emaitzen txostena, 2017. Urterokoa. Abagunekoa
23. **EUSKO JAURLARITZA. ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA: Txostena:** "*Gizarte bazterketaren kontrako borroka 2017*". Urterokoa Abagunekoa
24. **EEZP**: Langabezia prestazioaren hartzaileak motaren eta sexuaren arabera. 2018ko neurriak Urterokoa. Abagunekoa
25. **ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAREN MINISTERIOA. PRENTSA DEPARTAMENTUA:** Erregistraturiko langabeziari buruzko hileko txostena. 2018ko abendua. Urterokoa. Abagunekoa.
26. **OSALAN**: Lan istripuei buruko estatistikak. 2018ko abendua. Hilerokoa. Abagunekoa.
27. **ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAREN MINISTERIOA**: Lan istripuei buruzko estatistikak. 2017ko datuak eta 2018ko aurrerapena. Urterokoa. Abagunekoa.

7. LAN-MERKATUA EAE-N: LABURPENA ETA ONDORIOAK

7.1. LABURPENA

Lehenik eta behin, EUSTATen BJAren 2018ko 4. hiruhilekoei buruzko datuen arabera, EAEko ***biztanleria aktiboa***, 1.044.700 lagunekoa zen 2018aren bukaeran, eta % 52,3 gizonezkoak ziren eta % 47,7 emakumezkoak. 2017an gelditu egin zen aurreko urteetako biztanleria aktiboaren beherakada, % 0ko hazkundea zenbatetsi baitzen, eta 2018an joera-aldaketatzat jo dezakeguna gertatu zen, biztanleria aktiboak % 1,1 egin zuelako gora. EAEko jarduera-tasa orokorra % 56,6 zen 2018. urtea bukatzean (2017an baino 2 hamarren gehiago), eta emakumeak % 52 ziren (+ 2 hamarren 2017arekiko). Gizonezkoen biztanleria, berriz, % 61,6raino igoi zen (2017a bukatzean baino 7 hamarren gehiago).

Era berean, 2017ko abendutik 2018ko abendura % 2,1 egin zuen gora enpleguak (+19.100 lanpostu); emakume landunen kopuruan 8.100 emakume gehiago ziren (igoeraren % 42,4) eta gizonezkoetan 11.000 gehiago (% 57,6). ***Enpleguaren gorakada*** horren oinarria gehienbat hirugarren sektorea da, 13.600 lanpostu gehiago bildu baitzuen (+% 2,1), igoera osoaren % 71,2. Industria 2017an % 6,9 hazi bazen ere, apenas 3.800 lanpostu gehiago (+% 1,9) bildu zituen, emakumeen 2.300 lanpostu eta gizonezkoen 1.600 lanpostu batuta[27]. Bestalde, eraikuntzan 1.700 lanpostu gehiago (+% 3,5) bildu ziren, gizonezkoetan 2.100 lanpostu eta emakumezkoetan 400 lanpostu batzearen ondorioz.

Hona hemen EAEko lan-merkatuan 2018an aintzat hartu beharreko alderdiak. Lehenik eta behin, lanaldi partzialeko landunen portzentajearen beherakada, 4 hamarren gutxiago, % 16,4raino jaitsita. Bigarrenik, behin-behinekotasunaren gorakada, % 0,4 hazita: soldatapekoen % 26,1etik % 26,5era, bereziki sektore publikoan (puntu 1 gehiago, % 35,6raino).

Bestalde, ***Gizarte Segurantzako kotizatzaileen*** batez besteko kopurua, 2018ko abenduan, 962.104 zen, eta horietatik % 47,3 emakumeak ziren eta % 52,7 gizonak. Hala, % 1,9 egin du gora aurreko urteko hilearen aldean (+% 3,1 batez beste Estatuan), eta guztira 18.117 afiliatu gehiago daude alta emanda; 2017ko igoera, berriz, % 2koa izan zen.

Jarduera-sektore handien arabera, lehen sektoreak % 1 egin zuen behera, eta eutsi egin zion alta emanda dituen afiliatuen guztizko kopuruarekiko pisuari (% 0,9). Bestalde, industria batez bestekoaren azpitik hazi zen, eta % 19,1 murriztu zen afiliazio guztien kopuruarekiko duen pisua (-2 hamarren). Eraikuntzaren bilakaera batezbestekoa baino hobea izan da, % 3,9 hazi baita, eta afiliazioaren %5,9 da. Azkenik, zerbitzuen sektorea batez bestekoaren azpitik hazi da, % 1,5 eta alta emanda dauden afiliatuen pisuari eusten dio (% 74,1), 2016an eta 2017an bezala.

Bilakaera positiboa izan zuten ekoizpen-adarrik gehienek, arestian esan bezala honako hauek izan ezik: lehen sektorea (-% 1), erauzketa-industrian (% 3,4ko beherakada), energiaren hornidura (-% 4,5), finantza- eta aseguru-jarduerak (% 0,1eko beherakada txikia, hainbat urtetan bilakaera negatiboa izan ondoren), etxeko lana (-% 4,3) eta beste zerbitzu batzuk (-% 0,2). Halaber, etxeko enplegatuen araubide bereziaren afiliazioan % 11,2ko jaitsiera gertatu da. Manufaktura-industriak afiliazioan bigarren pisurik handiena duen adarra da (guztizkoaren % 18,2); izan ere, batez bestekoa baino pixka bat gutxiago hazi zen 2017an (+%1,8, eta batez bestekoa % 2 da). Neurri txikiagoan hazi zen 2018an, % 1, eta azken urtean 1.764 lagun afiliatu gehiago daude altan (+3.000 aurreko urtean). Zerbitzuen sektoreak, arestian esana dugunez, batez bestekoaren azpitik egin du gora afiliazioan, % 1,5, hots, 10.699 afiliatu gehiago. Horrez gain, adar guztietan egin du gora, aipaturiko finantzen eta higiezinen arloko jarduerak izan ezik. Afiliaziorik handiena biltzen duen zerbitzuen adarreko merkataritzan (guztizkoaren % 15,3), urte arteko % 0,2ko hazkundea izan zen (324 afiliatu gehiago).Merkataritza da afiliaziorik handiena biltzen duen zerbitzu-adarra (guztizkoaren % 19,6), eta urte arteko oso hazkunde txikia izan du, % 0,1ekoa (111 afiliatu gehiago). Pisu nabarmena duten beste jarduera batzuetan, hala nola osasunean, hezkuntzan eta ostalaritzan, batez bestekotik gorako urte arteko tasak bildu ziren (afiliazioan %3,5 lehen bietan eta % 2,1 hirugarrenean).

Kontratazioak ere gora egin zuen 2018an (+4,5), eta 2014an hasitako bilakaera positiboari eutsi zion. Hona hemen 2018an gehien kontratu ziren jarduerak: ostalaritza (kontratuen % 16,2, batez bestekoa baino % 7,6 hazita), manufaktura-

[27] *Zerbitzuen sektoreko sexuaren araberako aldakuntzen batura ez dator bat guztizko saldoarekin, "milakoak" erabiltzen direlako eta BJAk biribildu egiten duelako.*

industria (kontratuen % 14,9, % 3,4 hazita), administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak, horien artean ALE (hasierako kontratu guztien % 11,8, 2017an baino % 0,7 handiagoa), osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuetakoak (kontratuen % 11,5 eta -%0,3 2017aren aldean) eta merkataritza (kontratu guztien % 11 eta +% 1,5 aurreko urtearekin alderatuta). Hortaz, ikusten dugunez, kontratazioaren guztizko kopuruak baino bilakaera negatiboagoa dute kontratazioen pisurik handiena duten jarduerek, ostalaritza izan ezik. Sexuaren araberako aldeak ikusten dira, zeren eta manufaktura-industriak biltzen baitu gizonek izenpeturiko kontratuen laurdena (guztien % 23,1). Emakumeen artean, berriz, osasun jarduerako eta ostalaritzak dira pisurik handiena biltzen duten jarduera-atalak (bien artean kontratu berrien % 38,3). Estatuan, berriz, 22,29 milioi kontratu erregistratu ziren 2018an, 2017an baino % 3,7 gehiago (+% 7,6 aurreko urtean).

Adin-taldeen arabera, 2018an gizonek nahiz emakumeek sinaturiko kontratu berri gehienak 25-45 urte bitarteko adin-tarteari dagozkio (kontratuen % 55,2), 25-35eko eta 35-45eko adinetan banaturik, % 15,3 eta % 39,9 izanik hurrenez hurren. 25 urtetik behera, kontratuen % 17,8 sinatu dira, biztanleria aktiboan duen pisua baino askoz handiagoa, % 4,2koa baita (2018ko batez besteko datua). 2017aren aldean izandako bilakaerari dagokionez, eta aurreko urtean bezala, adin-talde guztietan egin zuen gora kontratu kopuruak, 25-29 urtekoen tartean izan ezik (-% 0,7), gizonezkoetan nahiz emakumezkoetan (-% 0,4 eta -% 1 hurrenez hurren). Ratiorik handienak, batez bestekoaren gainetik, gazteenen artean ageri dira (+% 24,6 20 urtetik beherakoak), kontratazio guztiekiko pisu txikia bada ere (guztizkoaren % 3), baita 45 urte eta gehiagokoen artean ere (+% 8,4 eta kontratuen % 27 dira).

Ikasketa mailaren araberako kontratazioaren banaketari dagokionez, hamar kontratuetatik lau (% 40,2) oinarrizko ikasketak dituzten pertsonek izenpetzen dituzte, gehienak hezkuntza orokorreko maila dutenak, gizonetan (kontratuen % 42,9) nahiz emakumeen artean (% 37,6). Bigarrenik, kontratuen % 32,9 bigarren hezkuntzako ikasketak dituzten pertsonei dagokie (bi herenek gutxi gorabehera hezkuntza orokorreko ikasketak eta beste herenak LHkoak). Ondoren, % 22,2 DBH ondorengo ikasketak dituzten pertsonei dagokie, horietatik % 13,7 unibertsitatekoak eta % 8,4 goi-mailako lanbide ikasketa teknikoak dituztenak. Kontratazioaren igoerarik handienak doktorego eta unibertsitate masterreko mailei dagozkie (+% 20,4 2017aren aldean, baia kontratazioaren % 1,9 besterik ez dira), eta oinarrizko ikasketen artean, osatu gabeko ikasketak dituzten langileentzat (kontratu guztien +% 7,9 eta gizonen +% 9,7). Kontratazioak gora egin du ikasketa maila guztietan, oinarrizko LHn izan ezik (-% 4,3).

Lanaldi motari helduta, bilakaera positiboa izan zen lanaldi partzialeko kontratuetan, EAEn 399.922 guztira (+% 3,77 2017aren aldean), kontratu guztien %39,9arekin, nahiz lanaldi osoko kontratuetan, guztira 598.237, % 5 hazita (kontratuen % 59,8). Gainerako % 0,3 lanaldi eteneko 3.022 kontratuei dagokie. Sexuaren arabera, lanaldi partzialeko kontratazioaren pisua oso desberdina da, zeren eta emakumeek sinaturiko kontratuen erditik gorakoa baita (% 53,4 2018an). Gizonezkoek sinaturiko kontratuak, berriz, % 26,6 dira. Hala, emakumeek sinatu zuten lanaldi partzialeko kontratuen % 66,7 (% 66,6 2017an).

Kontratuen iraupenari dagokionez, izenpeturiko kontratu gehienak orain ere aldi baterakoak dira (kontratu guztien % 91,1), % 3,1 hazita, eta 88.625 kontratu mugagabeak dira, 2017an baino % 20,9 gehiago, hots, % 8,9 (2017an baino 1,2 puntu gehiago), proportziorik handiena 2008. urteaz geroztik. Kontratu mugagabe horien tasa % 2,9 egin du zuen gora 2011 eta 2018 bitartean (% 6tik % 8,9ra).

Horrez gain, kontrataturiko pertsonen zati handi batek hainbat aldiz egiten du urtean. Txandaketak (kontratuen kopuruaren eta kontrataturiko pertsonen kopuruaren arteko ratioa), aurreko urtean bezala, igoera txikia izan zuen 2018an, eta 3,19ko ratioa du (-2 hamarren). Biurteko horretan, lehen jaitsierak izan ziren 2011. urteaz geroztik. Aldi baterako kontratuen batez besteko iraupenari dagokionez, 52 egunekoa da (2017an baino 2 gehiago), estatuko datu bera.

2018. urtean lan-merkatuak izandako bilakaeraren emaitzaren ondorioz, BJAren ***langabezia-tasa orokorra*** % 10,3koa izan da urtearen amaieran (aurreko urtean baino 8 hamarren gutxiago), baina EBko batez bestekoa (% 6,6) eta eurogunekoa (% 7,9) gaindituta. Europar Batasunean, oso zabala da langabeziaren balio-sorta. Kopuru handietatik, adibidez, Grezian (% 18,7) eta Espainian (% 14,5), ratio txikietara, % 2-3 ingurukoak, esaterako Txekiar Errepublikan, Alemanian, Maltan eta Herbehereetan. Letoniak, Portugalek eta Eslovakiak EBko batez bestekoaren inguruko langabezia-

tasak dituzte (% 6,6 laugarren hiruhilekoan). AEBetan % 3,9ko langabezia-tasarekin bukatu zen urtean, eta Japonian, berriz, %2,4koa, zenbait herrialde eredugarri aipatzearren.

2018an, bosgarren urtez jarraian egin zuen behera EAEn langabezian zeuden pertsonen kopuruak (lau hiruhileko), sei urtez (2008. urtetik 2013. urtera) Euskadin langabezia etengabe hazi ondoren. Zehazki, eginiko zenbatespenen arabera, 2018ko amaieran 107.300 langabetu zeuden, aurreko urtean baino % 6,5 gutxiago (-7.500 lagun), eta horietatik % 48 gizonezkoak ziren eta % 52 emakumeak. 2017an ez bezala (langabeziaren beherakada antzerakoa izan zen bi sexuetan), 2018an langabeziaren jaitsiera puntu batez handiagoa da emakumezkoetan (-% 7,1) gizonezkoetan baino (-% 6,1). Horren ondorioz, urtearen bukaeran 4 hamarreneko aldea dago sexuen artean langabezia-tasetan: % 10,1 gizonentzat eta % 10,5 emakumeentzat (% 10,3 batez beste, arestian ikusi bezala), 2017ko amaieran baino hamarren bat gutxiago.

Adinen arabera, langabetuen kopuruak behera egin du bitarteko taldean (-% 8,3) eta 45 urtetik gorakoetan (-% 10,4), zeren eta 25 urtetik beherakoen langabetu kopuruak % 37,7 egin baitu gora (+2.300 lagun). Horren ondorioz, adin-talde horretako langabezia-tasak gora egin du (1,9 puntutan, arestian esan bezala). Adin handiagoko taldeetan, aldiz, behera egin du, kasu bietan langabetu guztiena baino neurri handiagoan.

Bestalde, 2018ko bukaeran, BJAk zenbatetsitakoen oso antzeko zifrak bildu zituen LANBIDEk ***langabeziaren*** inguruan, estatistika-eragiketa horretan berriki sartu ziren metodologia aldaketaren ondoren. 2018ko abenduan LANBIDEn erregistratutako 119.669 langabetu zenbatu ziren (% 6,2 jaitsi da aurreko urtekoaren aldean, estatuaren batez besteko berdina); alabaina, biztanleria jardueraren araberako inkestak, EUSTATek egindakoak, 107.300 kalkulatu zituen urteko azken lauhilekoan. Krisia hasi zenetik bosgarren urtez jarraian gertatu da erregistraturiko langabeziaren urte arteko saldo negatiboa, eta gainera, aurreko hiru urtean bezala, langabezia bi sexuetan murriztu dela ikusten da: Bereziki gizonen artean (-% 6,6), baina emakumeen artean ere bai (-% 5,9), betiere batez bestekoaren gainetik.

Adin-taldeen arabera, langabeziak gora egin zuen 25 urtetik beherakoen artean (+% 5,2), batez ere gizonezkoetan (+% 8,8, eta talde horretako emakumeen +% 1,6), baina kontuan hartu behar da hazkunde horrek, talde txikia dela-eta, 366 lagun gehiago izan dituela, horietatik 307 gizonak, eta gehienak 20 urtetik beherakoak. Hurrengo adin-taldean, 25-44 urtekoen taldean, batez bestekoa baino jaitsiera handiagoa izan da langabeen kopuruan (-% 10,1), gizonak neurri handiagoan (-% 10,8), baina emakumeak ere batez bestekoaren gainetik (-% 9,7). 44 urtetik gorakoetan, berriz, batez bestekoa baino neurri txikiagoan jaitsi da langabezia (-% 3,8), gizonezkoetan nahiz emakumezkoetan. Langabeziaren eta adinaren arteko korrelazioa antzematen da, gainera: langabeen %24,8k 54 urte baino gehiago ditu (% 23,7k 2017ko abenduan), baina adin-talde hori biztanleria aktiboaren %19,4 da, BJAren arabera.

Ikasketa mailaren arabera, behera egin zuen langabeziak 2017ko abenduaren aldean (aurreko bi urtean gertatu bezala) maila guztietan. Beherakadarik handienak, batez bestekoaren gainetik, lehen zikloko unibertsitateko ikasketak dituzten pertsonen artean ageri dira (-% 13,6) eta hezkuntza orokorreko bigarren mailako ikasketak dituztenen artean (-%7,4). -% 6,2ko batez bestekoa baino pixka bat gutxiago murriztu da langabezia oinarrizko ikasketa osoetan eta goi mailako LHn (-% 5,1 eta -% 4,1 hurrenez hurren), eta neurri txikiagoan oinarrizko LHn (-% 3,7). Horrenbestez, langabetuen kopururik handiena hezkuntza orokorreko titulua duten pertsonen artean dago (erregistraturiko langabetu guztien %47,9), aurreko urtean baino 8 hamarren gutxiago), eta oinarrizko ikasketak dituztenena gehituz gero (% 22,4), langabeen %7 0,3 dira. Pisu hori apenas aldatu da azken urteetan (hamarren bat 2018an).

Langabezian emandako denbora aintzat hartuz gero, 2018an behera egin zuen kategoria guztietako langabetuen kopuruak, langabezian 6 hilabete baino gutxiago daramaten gizonezkoetan izan ezik, eta bereziki lanik gabe urtebetetik gora daramaten pertsonentzat, gizonezkoetan nahizko emakumezkoetan. Erregistraturiko guztizko langabeziak % 6,2 egin zuen behera. Lanik gabe 6 hilabete baino denbora gutxiago daramaten pertsonen guztizko kopuruak, aldiz, % 0,5 egin zuen gora. Hala gertatu zen gizonezkoentzat (+% 1,3), emakumezkoetan % 0,2 egin baitzuen behera. %9,5 murriztu da langabezian 6 hilabete eta urtebete arteko denbora daramatenen taldea. Urtebetetik gora daramatenen artean (iraupen luzeko langabezia deritzona), berriz, % 9,7 jaitsi da, neurri txikiagoan emakumeen artean (-% 7,6), baina nabarmen handiagoa gizonen artean (-% 12,8). Hala, iraupen luzeko langabezia-tasak (egoera horretan urtebetetik gora daramaten pertsonen portzentajea (% 50,2raino egin zuen behera 2018ko abenduan (% 40,6 estatuan), 2017ko abenduan

baino 2 puntu gutxiago. Ratio hori % 44koa da gizonen artean (-3,1 puntu) eta % 55,2ko emakumeetan (puntu bat gutxiago).

Eta ***iraizpenei eta lan erregulazioko espedienteei*** dagokienez, lehenik eta behin esan behar da Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren "*Lan estatistikek*" erregistraturikoaren arabera, guztira 5.837 langile zeuden (behin-behineko datua) aldeen artean adostuta ebatzitako bitartekaritza, arbitraje eta kontziliazio (BAK) gaien eraginpean, 2017an baino % 5,1 gehiago. Halaber, beste 4.458 langilek izan zituzten gizarte arloko gaietarako epaitegien bitartez izapideturiko iraizpenak (gai judizial sozialak GJS), aurreko urtean baino % 3,7 gehiago, eta adostutako diru-kopuruen batez besteko zenbatekoa 5.622,3 euro izan zen, 2017an baino % 10,9 gutxiago. Orotara, eraginpeko 10.295 langile zenbatu ziren, 2017an baino % 4,5 gehiago. Eta 128 milioi euroko kalte-ordainak mugiarazi zituzten, 2017an baino % 5,2 gutxiago. Halaber, 3.439 langile zeuden EAEn lan erregulazioko espedienteen eraginpean (Eusko Jaurlaritzako estatistikak erregistraturiko 3.187 langile gei Administrazio Zentralean izapideturiko 252 espediente), eta hazkundea bereziki nabaria da desegite erregulazio espedienteen eraginpeko pertsonen artean, % 59,3ko igoera gertatu baita.

2018ko banako iraizpenen eta desegiteko lan erregulazioko espedienteen eraginpeko langileen agregatua aintzat hartuz gero (781 izan ziren), jaitsiera txikia ageri da (-% 0,4) 2017ko igoeraren aldean, noiz-eta % 16,8ko hazkunde gertatu zenean. Orotara, eraginpeko 11.706 langile zenbatu ziren, 2017an baino % 0,4 gutxiago, eta jaitsiera bereziki nabarmena da desegiteko lan erregulazioko espedienteen eraginpeko pertsonen artean, % 38,6 jaitsi baita.

Berebiziko garrantzia dute lan merkatuaren egoera horrek eta ***enplegurako politikek***. Hauexek biltzen dituzte politika horiek: politika aktiboak, langabetuek lana lortu eta lana dutenek lanari eusteko helburua dutenak; eta politika pasiboak, langabetuen babes ekonomikoa lortzeko helburua dutenak.

Politika aktiboei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak Enplegurako 2020 Euskal Estrategia martxan jartzeari eta abiarazi ondorengo lehen urteko (2017) ebaluazioari buruzko ebaluazioa aurkeztu zuen 2018an lehenik eta behin. Estrategia horren helburua da Eusko Jaurlaritzaren eta enplegurako politiketan zuzenean edo zeharka parte hartzen duten gainerako eragile publikoen eta pribatuen jarduketak gidatzea/bideratzea, 2020rako Euskadiko enplegurako planteaturik helburuen betetze-maila ahalik eta handiena izan dadin, erakundeen lidergo pean eta arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzan, betiere enplegua garapen pertsonalaren, gizarte kohesioaren eta garapen ekonomikoaren ardatza dela ulertuta, baita gizarte lehiakorrean eta gizarte mailan aurreratuan aberastasuna sortzeko ere. Orohar, EEEren jarraibideen ezarpen-maila ertaina da estrategia definitzen duten sei ardatzetan: "Prestakuntza eta gaitasunak" ardatzak du aurrerapen-mailarik handiena (2,74, 1-4ko eskalan), ondoren "Aukera sortzea" ardatzak (2,57). "Aktibazioa" eta "Zerbitzu baliotsuak eskaintzen dituen euskal enplegu sistema eraginkorrari buruzkoa" dira balorazio txarrena dutenak (bietan 2,41 puntu). Bitarteko mailan, "Aukera-berdintasuna" eta "Kalitatezko enplegua" ardatzek 2,53 eta 2,51 puntu dituzte hurrenez hurren.

Bigarrenik, EEEren ondoren, Enpleguko Plan Estrategiko berria dago. 2017-2020rakoa da, 2017an zehaztu zen eta 2020ko EEEn definituriko jarraibideak zehazten ditu arlo operatiboan, zertarako-eta Eusko Jaurlaritzaren barruan enplegua sustatzearekin loturiko zerbitzuak eta programak betearazten dituzten sailetako lan-tresnak izateko. Hartara, lanaren, hezkuntzaren eta sustapen ekonomikoaren arloekin loturiko ezaugarriak biltzen dituen enpleguaren gaineko kontzeptu zabalari eutsiko zaio. Planaren "*2017ko Jarraipen Txostenak*", lehenik eta behin, hauxe nabarmentzen du emaitza kuantitatiboen aldetik: Planak lan-merkatuan izango zuen eragin globala zenbatetsi zuen, hauexek zehaztuta: 58.000 lanposturako pizgarriak, 6.000 enpresa berri sortzea eta 20.000 gazteri lan egiteko aukera ematea. 2017an eginiko jarduketen ardatza, batetik, 15.799 lanposturako pizgarriak ematea eta 1.557 enpresa sortzea izan da, eta lanpostuen % 27rako pizgarriak ematean eta 2017-2020 aldi osorako aurreikusitako enpresa berrien % 26 sortzean islatu da. 2017koaren antzeko egoera aintzat hartuta, aurreikusitakoaren gainetik egongo litzateke bi helburuetan 2020an.

Bestalde, LANBIDEk (Enplegurako Euskal Zerbitzuak) funtsezko eginkizuna du ezarrita EAEko enplegurako politika aktiboak garatzeko eta Plana abiarazteko, zeren eta haren eginkizunak baitira laneko aktibazioa (enplegua sustatzeko programak, bitartekaritza, orientazioa, etab.) eta enplegurako trebakuntza (landunen trebakuntza nahiz langabezian daudenena).

Aurrekontuko likidazioak oinarri hartuta (obligazio aintzatetsiak), jakin badakigu 2017an 835,33 milioi euroko gastua izan zuela, 2016an baino % 1,5 gutxiago, eta horietatik 500,3 milioi, gastu guztien % 59,9, Gizarteratze Programarako erabili ziren (2016an baino % 7,5 gehiago), 92,5 milioi euro (guztizkoaren % 11) Enplegu Programarako (2016an baino % 7,5 gehiago) eta 92,5 milioi (gastuaren % 11,1) Prestakuntza Programarako (-% 8,4 2016koaren aldean). Hortaz, eta nahiz eta sinplifikazioa izan daitekeen enplegurako politiketako gastua prestakuntzako eta enplegurako programen baturatzat hartzea, gizarteratzearekiko berezko erlazioa duenez gero, LANBIDEk 2017an enplegurako politika aktiboetan 326 milioi euroko gastua izan zuen, 2016an baino % 2,4 gehiago. 2015 eta 2016 urte bitartean, berriz, % 4,1eko hazkundea izan zen.

Langileentzako etengabeko prestakuntza hori enplegurako politika aktiboen baitan sartzen da. EAEn, araudiaren eta indarreko eskumenen banaketaren ondorioz, HOBETUZen (Etengabeko Lanbide Heziketarako Euskal Fundazioa) eta estatu mailako FUNDAEren (Enplegurako Trebakuntzarako Estatuko Fundazioa) bitartez kudeatzen dira aipaturiko jarduera horiek.

Lehenik eta behin, HOBETUZek 278 espediente kudeatu zituen 2017an (bateratutako azken datuak), eta 42.482 prestakuntzako jardueretan (-% 23,4 2016aren aldean) parte hartu zuten 26.424 langileren prestakuntza ahalbidetu du (pertsona batek prestakuntza bat baino gehiago egin ditzakeelako urtean). Horretarako, 13,1 milioi euroko laguntzak eman ziren (-% 31,4).

Eta, FUNDAEk sustaturiko ekintzei dagokienez, 2017an (eskuragarri dugun azken datua) EAEko 134.962 langilek hartu zuten parte prestakuntzako 209.071 ekintzatan (langile berak prestakuntza bat baino gehiago egin dezake urtean), aurreko urtean baino % 1,5 gehiago, 17.054 enpresa trebatzailearen lanari esker (2016an baino -% 2,4): enplegurako prestakuntzarako 28,1 milioi erabili zituzten (+% 0,4), eta horregatik onurak izan dituzten Gizarte Segurantzaren kuotetan.

Enplegurako politika pasiboei dagokienez, langabeziaren ziozko prestazioetarako guztizko gastua, 2018an, eta behin-behineko datuen arabera, 579,94 milioi euro da, hots, 2017an baino % 4,4 gutxiago. Zenbateko hori EAEren BPGd-aren % 0,76 da (% 0,82 aurreko urtean), Estatuko langabeziaren ziozko gastu osoaren % 3,33, non 17.723 milioi eurotik gorako gastua bildu baitzen (-% 0,5 2017aren aldean).

2018. urtearen bukaeran, langabeziagatiko prestazioen 46.045 hartzaile zeuden EAEn, 2017an baino %1,8 gutxiago (aurreko urtearen aldean %8,5eko beherakada izan zen). Horietatik % 62,4 kotizaziopeko prestazioen onuradunak ziren, % 33 subsidioenak (15.195, % 4,6k Laneratzeko Errenta Aktiboa jasotzen zuen (2.116) eta gainerako 2 lagunek Enplegurako Aktibazio Programaren prestazioa jasotzen zuten (183 lagunek 2017ko abenduan)[28]. Estatuan, hile horretan 1.835 milioi onuradun erregistratu ziren (-% 2,9 2017ko abenduko datuekiko). Erregistraturiko langabezia guztiaren kopuruak kontuan izanik, esan liteke ezen, 2018ko abenduan, EAEko 100 langabeetatik 61ek ez zuela prestaziorik jasotzen (63k 2017an), 24k kotizaziopeko prestazioa jasotzen zuela, 13k subsidiarioa eta 2k Gizarteratzeko Errenta Aktiboa.

Kopuru horiek izanik, Estatuko batez besteko estaldura % 60,4 zen (2017ko abenduan baino % 1,8 gehiago), eta EAEkoa baino txikiagoa da (lehenago lan eginda zeuden eta hile horretan erregistraturiko langabeen %43,6, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak darabilen metodologiaren arabera). Gure Erkidegoak, 2,1 puntuko hazkundea izan zen estaldura horretan 2017ko abendutik 2018ko abendura bitartean, baina bilakaera on hori gorabehera, EAEk autonomia erkidego guztietako langabezia-tasarik txikiena izateari eusten dio, aipaturiko Melilla izan ezik[29]. Baina, 2018an, 2016an eta 2017an ez bezalaxe (urte horietan beherantz jarraitu zuen estaldurak, puntu bat eta 9 hamarren hurrenez hurren, prestazioen hartzaile kopuruak behera egin bazuen ere), erregistraturiko langabeziaren beherakadarekin batera, % 2,1eko igoera izan zuen prestazioaren onuradunen estaldura-tasak.

---

[28] Aldi baterako ohiz kanpoko programa, luzaroan langabezian dirauten pertsonentzat; Enplegu Zerbitzu Publikoek kudeatuta, lan bitartekaritzarako eta enplegurako politika aktiboak ditu, lan merkatura itzul daitezen aukerak areagotzeko. Ildo horri eutsiz, SEPEk kudeatutako aholkularitzarako laguntza ekonomikoa eskaintzen du, enplegurako aktibazio politiketan parte hartzeari lotuta. 16/2014 Errege Dekretu-Legea, abenduaren 19koa, Enplegurako Aktibazio Programa arautzen duena.

[29] Arrazoietako bat da hauxe da: langabeziaren ziozko subsidioa baliatzeko, kotiziaziopeko prestazioa bukatuta, kontuan hartzen da bizikidetza-unitatearen errenta, ez errenta pertsonala, eta errenta hori, sarritan, subisidioa eskuratu ahal izateko gehieneko atalasea gainditzen du EAEn. Horrexegatik, langabetu askok ezin balia dezakete subsidio hori eta sistema horren estalduratik kanpo gelditzen dira.

Halaber, bere inguruabar sozialengatik eta ekonomikoengatik (gizartean baztertuta edo arrisku horretan egotea) edo ezintasunen bat izateagatik ***lan-merkatuan berdintasunean sartzeko zailtasun bereziak*** dituzten pertsonentzako enplegu politikaren kopuruak aurkeztuko dira. Ordaindutako lana eta pertsona bakoitzari egokituriko zerbitzuen beharrezko prestazioak bermatzea da helburu nagusia, eta aldi berean, lan erregimen arruntean sartzeko baliabidea izan nahi dute. Hori guztia hain zuzen ere lana pertsonak gizarteratzeko bide nagusia dela onartuta.

Lehenik eta behin, nabarmendu behar da 2017ko abenduan, EAEn, orotara 9.478 ezinduk (% 64,6 gizonak eta % 35,4 emakumeak) 74 Enpleguko Zentro Berezitako plantilletan egiten dutela lan. Sexuaren araberako banaketa apenas aldatu bada ere, talde horretan 519 lagun gehiago zeuden (+% 5,8) 2016ko abenduaren aldean. Eta *zentro horiek mantentzeko laguntzei* dagokienez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak guztira 38.94 milioi euro erabili zituen 2017an (+% 8,2 2016aren aldean). Gainera, LANBIDEK, 2017ean, 4,2 milioi euro erabili zituen (+% 5,3 2016aren aldean) 4.352 langile ezinduri laguntzeko (+% 5,6) EAEko 36 EZBetan, laguntza-unitateetako 477 adituren lanari esker.

Bigarrenik, Eusko Jaurlaritzak gizarteratze eta laneratze modalitate berezi hori hedatzea sustatu nahi du; haren bidez, pertsona bat, besteren konturako langile, bazkide langile edo laneko bazkide, laneratze enpresa batean sartzea kontratu baten bidez bideratzen da, laneko kontratua lehen kasuan eta sozietatekoa bigarrenean, eta lehenago txertaketarako hitzarmen bat sinatzetik ondorioztatzen da. 2003tik 2017ra bitartean, 106 milioi euro inguru banatu ditu laguntza-lerro horrek, urtean 37 erakunde onuradun batez beste eta 3.200 laneratze-langile onuradun. 2017an (informazioa dugun azken urtea) 37 laneratze enpresentzako laguntzak eman ziren, eta horien zenbatekoa, guztira, 8,128 milioi euro izan zen, aurreko urtean baino % 0,6 gutxiago). 219 laneratze-postuetarako eman ziren laguntzok.

Soldatei dagokienez, EINen Soldaten Egituraren Urteko Inkestaren arabera, langile bakoitzeko urteko batez besteko irabazia 2017an (azken datua) EAEn 28.204€ zen, hots, % 2,6ko igoera aurreko urtearekiko. Kopuru hori Estatuko batezbestekoa baino % 19,3 handiagoa da denboraldi berean, eta autonomia erkidegoen zerrendako lehenengoa da; ondoren Madrilgo Erkidegoa eta Nafarroa daude. Sexuen araberako soldaten aldeari dagokionez, emakumeen batez besteko soldata txikiagoa zen gizonezkoena baino autonomia erkidego guztietan 2017an. Enpleguak eta okupazioak erkidego bakoitzean duten egitura desberdina funtsezko faktorea da aldakortasun hori azaltzeko. Batez beste, emakumeen soldata gizonen soldataren % 78,1 zen (+0,4 puntu aurreko urtearen aldean).

Eta laneko orduko irabazia kontuan hartuz gero -beharrezkoa baita lanaldi desberdinak dituzten langileak berdintasunaren aldetik aztertu ahal izateko- irabazia, 2017an, 18,48 euro izan zen lan egindako ordu bakoitzeko, 2016an bano % 1,7 gehiago. Orduko irabazi hori, urtekoa bezala, autonomia erkidego guztietako handiena da (eta estatuko batez bestekoa baino % 22,1 handiagoa -orduko 15,13 eurokoa da estatuan-). Sexuaren arabera, EAEko emakumeen orduko batez besteko irabazia, 2017an, 17,04 euro zen (+% 2,7 2016aren aldean). Gizonentzat, aldiz, handiagoa da irabazia, 19,55 euro orduko (+% 0,9 2016aren aldean). Sexuaren araberako alde hori dela-eta, emakumeek, Euskadin, gizonek jaso zutenaren % 87,2 kobratu zuten orduko, edo bestela esanda, emakumeen orduko irabazia % 12,8 txikiagoa zen. Alde hori puntu eta erdia murriztu zen azken urtean.

Bestalde, Soldatei dagokienez, EINen "Laneko Prezioen Indizeak" (soilik lan-merkatuaren presioen eraginez lan-eskuaren prezioan izandako aldaketa neurtzen du, betiere eginiko lanaren kalitatean eta kantitatean eraginik izan gabe) erakusten duenez, 2008 eta 2016 bitartean (eskuratu dugun azken datu), soldatek % 4,1 egin zuten gora EAEn. Estatuan, berriz, %1,4 jaitsi ziren. 2008 eta 2015 urteen arteko inflazioaren bilakaera azterturik (+% 10 batez beste estatuan), kopuru horiek erakusten dute EAEn %5,9 jaitsiera izan zela erosteko ahalmenean (4,1 ken 10). Estatuan, berriz, 8,6 puntukoa izan zen (1,4 ken 10). Eta eskuratu dugun azken urteko bilakaera ardatz hartuta (2016. urtea), LPI % 2,4 hazi zen EAEn (-% 1,3 Estatuan), eta EAEk izan du hazkunderik handiena. Izan ere, urte horretan 4 puntu galdu dira erosteko ahalmenean urte horretan (estatuko batez bestekoa -2,9), inflazioa % 1,6koa izan baitzen.

Bestalde, OSALANek (Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea) agerian utzi duenez, 2018an 37,87 ***istripu*** izan ziren (lan-egunetan baja eragin duten istripu berriak, hain zuzen ere 1.000 langileko istripu kopuruaren eta berariaz laneko istripuen kontingentzia estalia duten Gizarte Segurantzako afiliatuen kopuruaren arteko zatiduraren bidez kalkulatzen den kopurua) gure Erkidegoan milako (38,22 milako 2017an eta, beraz, berdin eusten zaio ratioari, -0,35 punturekin). Sektore bakoitzari erreparatuta, eraikuntzan izan zen intzidentziarik handiena (85,10 milako), 1,17 puntu jaitsi baitzen 2017aren aldean. Ondoren lehen sektorea zegoen, 73,23 milako (-2,35 2017aren aldean) eta industria, 65,61 milako, 0,32 puntu hazita 2017aren aldean. Azkenik, zerbitzuen intzidentzia batez bestekoaren azpitik zegoen, 27 milako (-0,44 puntu).

Autonomia erkidegoei dagokienez, Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioak kalkulatzen duen lanaldiko istripuen intzidentziaren indizeak erakusten duenez, U. Balearrak ziren rankingeko buruan istripuetan 2018an, eta ondoren Gaztela-Mantxa zegoen. EAEren indizea 33,04koa zen milako, eta % 8,1 egin zuen behera bere indizeak. Hala, Estatuko batez bestekoaren azpitik zegoen kopuru absolutuetan, industriaren sektoreak pisu handia izan arren. Ehunekoetan adierazita, estatuko batez bestekoaren aldakuntza urte horretan ere negatiboa izan da, baina neurri txikiagoan: -% 2,4 hain zuzen ere.

Horrez gain, lan kontratu motaren araberako lan istripuei buruzko datuek erakusten dutenez, istripuen kopurua handiagoa da aldi baterako kontratu dutenen artean kontratu mugatua dutenen artean baino. Hala erakusten dute Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioaren 2017ko datuek. Zehazki, kontratu mugagabea zutenen istripu kopurua 30,6koa izan zen mila soldatapeko bakoitzeko (EPAren lan serieak erabiliz); aldi baterako lan-kontratua dutenen artean, berriz, 50,2koa izan zen milako. Istripuen banaketa zein den jakin beharko litzateke sektoreen, adinaren eta okupazio motaren arabera, behin betiko ondorioak atera ahal izateko. Baina, ikuspegi dinamikoaren arabera, nabarmentzekoa da 2009an kontratu mugagabea eta aldi baterako kontratua zuten pertsonen istripuen indizearen aldea 26,4 istripukoa zela 1.000 soldatapeko, eta 2017an 19,6ra murriztu zen. Larritasunaren arabera, gora egin zuten gorabehera arinek azken urtean, % 1,6 hain zuzen, eta larriek ere bai (+% 5) eta, neurri handiagoan, hildakoak izandako istripuen kopuruak, % 36, hazita. Gainera, ezbeharra izan zuten 4 pertsonatatik 3 gizonezkoak ziren.

Bestalde, Lan Harremanen Kontseiluak (LHK) emandako 2017ko behin-behineko datuen arabera, urtearen hasieran EAEko langileen % 22,5ek zuen indarreko hitzarmen kolektiboa; % 58,1ek, berriz, berritzeke zegoen hitzarmena zuen, eta % 19,4k agortuta zeukan hitzarmena. ***Negoziazio kolektiboak***, beraz, % 80,6 hartzen zuen (aurreko urtean baino 1,4 puntu gehiago). Negoziazioei dagokienez, urte horretan 317 hitzarmen izan ziren EAEn, 2016an eta 2017an baino gehiago (288 eta 304 hurrenez hurren). Ondorioz, lan-baldintzak berritu zitzaizkien 146.294 laguni, 2017an baino % 52,7 gehiago, eta 2016an baino % 48,2 gehiago (98.728). Lurralde eremuen arabera, EAEn eragina duten estatu mailako 95 hitzarmen erregistratu ziren, eta 222 zuzenean eragiten zien gure Erkidegoan, hurrenez hurren, 58.134 eta 88.160 langileri. Sektoreko negoziazioari dagokionez, 2018an 21 hitzarmen erregistratu ziren, orotara 67.211 langileri eragiten zietenak. Aurreko urtean, EAEn erregistraturiko sektoreko 15 hitzarmenek 21.137 langilerengan izan zuten eragina.

Horren ondorioz, hauxe da urtearen bukaeran negoziazio kolektiboaren egoera: langileen % 47,3 indarreko hitzarmena zuen (% 24,8 urtean erregistraturiko hitzarmenekin eta %22,5 aurreko urteetan sinaturikoekin); % 37,8k luzatua zuen, berritzeke, eta gainerako % 14,9k hitzarmen agortua zeukan (hortaz, egiteke dauden hitzarmenen % 52,7). Horrenbesteaz, 2018ko bukaeran negoziazio kolektiboaren estaldura maila % 85,1ekoa zen (2017koa baino ratio handiagoa -% 80,7koa izan zen orduan-).

Lortutako akordioen edukiei dagokienez, 2018rako EAEn indarrean dauden hitzarmenetan itundutako batez besteko soldata igoera % 1,86 da (% 1,75 estatuan), baina lanaldiaren batez besteko lanaldiaren murrizketa adostu da, urtean 1,44 ordu gutxiago (-0,35 ordu 2017an). Beraz, itundutako batez besteko lanaldia urtean 1.701 ordukoa da. Lana eta familia bateratzeko neurriak direla-eta, Lan Harremanetarako Kontseiluak nabarmentzen duenez, indarreko hitzarmenen % 45,2k baino ez ditu sartu horrelako neurriak (% 45,7k 2017an), horietako gehienak edoskitzarorako eskubidea metatzeko aukerarekiko lotuak dira, baita indarreko legerian ezarritakoa hobetzen duten ordaindutako zenbait baimen ere.

Bestalde, EINen "*Lan Kostuen Hiruhileko Inkesta*"ko kopuruen arabera 2018an (urteko batez bestekoak) ***enpresek eta langileek hitzartutako hileko orduen kopurua*** 147,40 zen, hots, 2017an baino % 0,3 gehiago, eta 2008an hitzartutakoak baino %2,7 gutxiago. Ordu horietatik 122,83 (+% 0,35 2017aren aldean), % 83,3 benetan lan egindakoak izan ziren, eta egonkor eutsi dio ratio horrek azken urtean. Halaber, lan egin gabeko orduak 25,08 izan ziren 2018an langile eta hilabete bakoitzeko, hots, 2017an baino % 0,1 gutxiago, eta benetan lan egindako orduen % 20,4.

Bukatzeko, LKHIren ***lan-gatazkei*** buruzko datuen arabera, 2018an guztira 254 greba erregistratu ziren EAEn, eta 48.648 lagunek hartu zuten parte. Orotara, lan egin gabeko 110.786 egun bildu ziren, hots, urte arteko % 22,1eko igoera greba kopuruan, eta lan egin gabe izandako egunen kopuruan % 15eko igoera izan da. Langile partaideen kopurua, bestalde, % 18 jaitsi da, baina kontuan hartu behar da 2017an % 333,1 hazi zela, ezohiko partaidetza izandako urte batean hain zuzen (ia 60.000 lagun), aurreko urteetako zifrekin alderatuz gero.

7.2. GOGOETAK

Lan-merkatuak gizartearentzat duen garrantzi handia eta horren konplexutasuna direla-eta, haren bilakaerari buruzko diagnostikoa lortzeko, kontu handiz aztertu behar dira aldagai ugariren jokabidea eta berekin dakartzan ondorioak.

Hamabost urtez lanpostuak sortu ondoren, EAEko lan-merkatuan okupazio zifren jaitsiera aldian murgildu zen EAE, eta 2013an hala jarraitu zuen. Ondorioz, 100.000 lanpostu galdu ziren, guztizkoaren % 10. 2014. urteaz geroztik, datu positiboak hasi ziren antzematen berriz ere. Hala, harrezkero eta 2018ra arte, enplegua sortu da EAEn, baina oraindik bidea dago egiteke krisiaren aurreko enplegu maila lortzeko.

Ildo horretan, 2018. urtea aurrerapenen urtea izan da EAEko lan-merkatuaren adierazleen zati handi batean: enplegua sortu eta langabezia murriztu da sektore eta adin guztietan, eta sexu bietan. Era berean, iraupen luzeko langabeziaren pisuan bi puntuko murrizpena aipatu beharra dago 2018an, hots, urtebetetik gorako langabeziarena.

Aldagai horien jokabide onak berekin dakar lan-merkatuaren baldintzen hobekuntza, aitortua eta ongietorria, baina arreta merezi dute azterketa xehatuagoaren beharra duten xehetasunek.

Lehenik eta behin, langabeziaren bilakaera positiboarekin batera, azken urteetan ez bezala, biztanleria aktiboaren gorakada etorri da, kopuru absolutuetan nahiz tasan. Izan ere, urtearen amaieran % 56,6ko tasa zen, eta positiboa dela irizten diogu. Alabaina, garapen ekonomiko handiagorako egokia izango litzatekeenaren azpitik jarraitzen du oraindik jarduerak. Era berean, iraupen luzeko langabeziaren beherakadak ez du galarazten langabeen erdia langabezia horren eraginpean izatea.

Izan ere, Batzorde honek kezka agertu behar du langabetuen egoeraren inguruan orain ere, lan-merkatutik baztertzeko arriskuan daudelako eta, bereziki, emakumeei eta helduenei dagokienez, lan-merkatua sartzeko (jarduera-tasa) aukera gutxi baitute, baina, hala ere, neurri handiagoan jasaten dute langabezia, langabezia orokorra nahiz iraupen luzekoa.

Euskal ekonomiaren posizio ziklikoan, krisiaren ondoren baliabideak erabat erabiltzen ari direla antzematen da, eta agerian uzten dute enplegurako politika aktiboek langabezia estrukturala gutxitzeko duen garrantzia. Ildo horretan, kezkagarria da hain zuzen ere LANBIDEk ematen dituen zerbitzuen eraginkortasuna eta aktibazio-ardatzak Enplegurako Euskal Estrategiaren Ebaluazioan emaitzarik txarrenak lortu izana. Horregatik, beharrezkotzat jotzen dugu arlo horietan ahalegin berezia egitea, batez ere laneratzen zerbitzuen, enpresentzako zerbitzuen eta politiken eta programen ebaluazioaren aldetik.

Enpleguaren kalitateari dagokionez, elkarren kontrakoak diren errealitateak daude. Alde batetik, pixka bat behera egin du lanaldi partzialeko enpleguak eta, gainera, horren kontratazioa lanaldi osokoa baino gutxiago hazi da. Alabaina, eta berriz ere emakumeentzat bereziki (emakumeak baitaude neurri handiagoan egoera honen eraginpean), lanaldi partzialeko enplegua arazoa izan daiteke nahi ez den lanaldi motari badagokio, zeren eta lan-merkatuaren dinamismoa oraindik nahikoa ez dela esan baitezake, langile horietako zenbaitek lanaldia luzatzeko asmoa duten neurrian.

Horrez gain, kontratazio mugagabeak aldi baterakoak baino indar handiagoarekin egin zuen gora 2018an laugarren urtez jarraian, eta horrek adierazten du bide onetik goazela. Gainera, beste datu bat gehitu beharra dago: bigarren urtez jarraian, pixka bat behera egin du txandaketak. Alabaina, behin-behinekotasun-tasek (oso handiak) gora egin dute, gehienbat sektore publikoan, eta bereziki emakumeei eragiten diete. Izan ere, haien soldatak txikiagoak dira argi eta garbi gizonen soldaten aldean.

Bestalde, aurreko bi urteetan ez bezala, gora egin zuen 2018an gazteen langabeziak, zati batez prestakuntzarekin lotuta eta beste zati batez ekonomiaren dinamika aldakorrekin lotuta. Izan ere, kopuru absolutuetan osonnabarmena ez bada ere, gure arreta merezi du eta horren segimendua egin beharko da. Eta, ildo horretan, beharrezkotzat jotzen dugu gogoraraztea, beste urte batez, garrantzizkoa dela prestakuntza eskaintza egokia izatea. 2018an beste datu bat ere nabarmendu behar dugu, kasu honetan zentzu positiboan, erakunde publikoek gauzaturiko enplegurako politikei dagokienez: gora egin du langabeziaren ziozko prestazioen estaldurak gure erkidegoan, azken urteetan etengabe behera egin ondoren. Horren bilakaerari erreparatu beharko diogu aurrerantzean, ordea.

Bukatzeko, alde positiboan nabarmendu behar dugu Euskadiko negoziazio kolektiboak azken urtean izandako bilakaera. Izan ere, gora egin du sinaturiko hitzarmenen kopuruak eta, nabarmen, horien eraginpeko langileen kopuruak, halako moldez non bost puntuko hobekuntza izan baita negoziazio kolektiboaren estalduran. Halaxe gertatzen da, neurri handi batean, sektoreko negoziazio kolektiboagatik, eta beraz, negoziazio hori berreskuratzen jarraitu beharra dago. Hala ere, agortutako hitzarmena duten 86.000 lagun baino gehiago daudenez gero, tartean diren eragileek are ahalegin handiagoak egin beharko dituzte, laneko harremanak hobetze aldera.

IV. KAPITULUA

Bizi-kalitatea eta gizarte babesa EAEn

1. BIZI-BALDINTZAK

Gizarte bazterkeriaren arazoa zeharkako errealitatea da gizarte garaikideetan. Erakunde eta ikertzaileek urte askoan erabili duten "pobrezia" kontzeptuak ez ditu agortzen gizarte-bazterketaren errealitatea eta dinamikak. Hori dela eta, azken bi hamarkadatan gizarte-ikertzaileak eta kudeatzaile publikoak bat etorri dira: pobrezia kategoria hedatu dute eta "gizarte-bazterketa" erabiltzen dute, pobrezia ekonomikoaren ideia zurruna atzean utzi dutelako eta, batik bat, kontuan hartzen dituztelako gaur egungo gizarteetan aurrerapen teknologikoek, bizimodu-aldaketek eta gizarte-erreformek eragin dituzten eraldaketa sakonak.

Lehenik eta behin, EBko bizi-baldintzei buruzko zifra nagusiak emango dira, EUROSTATen Bizi-baldintzei buruzko Inkestako (EU-SILC) azken datuak oinarri hartuta, eta EAEko eta Estatuko egoerarekin lotuko dira. Hartara, xehetasunez aztertuko dira "AROPE" tasaren (population at risk of poverty and exclusion) osagaiak. Inkesta horren bidez, Europako Batzordeak 2020rako ezarritako helburuen jarraipena egiten da. Gainera, Eusko Jaurlaritzaren Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestako (PGDI) lehen datuak azalduko dira, baita EINen 2015eko Bizi-baldintzei buruzko Inkestako emaitzak ere, EAEk gainerako autonomia erkidegoen aldean duen bilakaera erkatzea ahalbidetzeko errentaren eta gabezia materialaren adierazle nagusiei dagokienez[1]. EAEko familien, bateratzeko beharren eta horretarako garatzen diren politiken gaineko azterlanak osatzen du kapitulu honetako bigarren blokea.

1.1. EAE-KO BIZI-BALDINTZAK EUROPAKO INGURUNEA: "AROPE" TASA

Europar Batasunean, gaur egungo krisiak eragin oso larriak ditu jarduera ekonomikoan eta enpleguan. Nabarmen hazi da pobrezia edo bazterkeria arriskuan dauden EBko herritarren kopurua azken urteetan, eta gehieneko kopuruak 2012an izan ziren, % 25aren ingurukoak. Harrezkero behera egin du pixkanaka.

IV.1.1. GRAFIKOA. POBREZIA ETA BAZTERKETA ARRISKUAREN TASAREN ETA HORREN HIRU OSAGAIEN BILAKAERA EUROPAKO BATASUNEAN (28KO EB)



Iturria: EUROSTAT.

Egoera horren eraginpean daude gaur egun (2017koa da azken datu eskuragarria) biztanleriaren %22,5, hots, EBko 112,9 milioi herritar, Europa 2020 Estrategian ezarritako irizpideen arabera. Estrategia horri "AROPE tasa" deritzo (population at risk of poverty and exclusión).[2]

---

[1] *Eusko Jaurlaritzaren Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestaren (PGDI) gaineko informazioa ezin izan da eguneratua, zeinen emaitzak 2016ko eta 2017ko memorietan aurkeztu diren. Beraz, jo beza irakurlek memoria horietara.*

[2] *Europa 2020 Estrategiako irizpideen arabera, pertsona bat pobrezia- edo bazterketa-arriskuan dago langabezia-arazoak edo lan-intentsitate txikia dituen familia-unitate batean bizi bada eta familia-unitate horrek gizarte-transferentzien ondoren pobrezia-arrisku badu eta/edo gabezia material larria badu.*

Horietatik %53 emakumeak ziren (haien AROPE tasa batez bestekoa baino puntu bat handiagoa da) eta %47 gizonezkoak (pobrezia edo bazterketa arrisku-tasa: %21,6).

2016aren aldean, ehuneko bat egin du behera Batasunerako batez besteko tasak (eraginpeko 5,1 milioi lagun), eta, beraz, intzidentzia EBko lau herrialdetan besterik ez da handitu: Danimarka, Luxenburgo, Herbehereak eta Austria (hala ere, Europako batez bestekoaren azpitik jarraitzen dute lauek), eta behera egin du gainerakoan. Eta 2008ko intzidentziari dagokionez, EBko batez bestekoa urte hartako datua baino % 1,2 puntu beherago dago (eraginpeko 3 milioi lagun), baina EBko 9 herrialderentzat pobrezia eta bazterketa arriskua oraindik krisiaren aurretik baino handiagoa da.

IV.1.1. TAULA. BIZI-BALDINTZAK EAE-N. "EUROPA 2020" ERREFERENTZIAKO ADIERAZLEAK ETA ESTATUAREKIKO ETA EB-REKIKO ALDEA.

	EAE		ESTATUA 2017	28 EB 2017
	2008	2017		
"AROPE" TASA	**13,9**	**14,5**	**26,6**	**22,5**
- POBREZIA ATALASETIK BEHERAKO BIZTANLERIAREN % (MEDIANA %60) – MONETA POBREZIA	9,1	9,7	21,6	16,9
- GABEZIA MATERIAL LARRIA	2,8	3,7	5,1	6,9
- LAN INTENTSITATE TXIKIA	6,5	7,7	12,8	9,3

Iturriak: EUROSTAT eta EIN.

Hala, 2017ko datuek erakusten dutenez, Bulgarian pobrezia eta bazterketa arriskuan dago biztanleriaren % 38,9, eta egoera ahulean dauden pertsonen tasarik handiena ere badu. Ondoren daude Errumania (%35,7) eta Grezia (% 34,8). Batez bestekoaren azpitik daude Txekiar Errepublika (% 12,2), Finlandia (% 17,4), Eslovakia (% 16,3), Herbehereak (% 17), Frantzia eta Eslovenia (% 17,1 bietan), Danimarka (% 17,2), Suedia (% 17,7), Austria (% 18,1), Alemania (% 19), Malta (% 19,2) eta Polonia (% 19,5).

Espainian, 2017ko ratioa % 26,6koa zen, Europar Batasuneko batez bestekoaren 4,1 puntu gainetik (eraginpeko 12,2 milioi lagun), eta 1,3 puntutan egin du behera aurreko urtearen aldean (baina oraindik 2008koaren gainetik dago 2,1 puntutan). Sexuaren arabera, emakumeen AROPE % 27,1 da eta gizonena, berriz, % 26. Hala, Espainia maila ertain-altuan dago, Zipreren Hungariaren edo Kroaziaren antzeko zifrekin..

EAEn, biztanleriaren %14,5 (EUROSTAT eta EINen metodologiaren arabera) pobrezia eta bazterketa arriskuaren eraginpean zegoen 2017an, bestela esanda, 320.000 lagun (ez dago talde horren banaketari buruzko sexuaren araberako informaziorik), 2016an baino %1,4 gutxiago. Intzidentzia hori %13,9koa zen krisiaren hasieran (2008ko datua). Beste urte batez, nahikoa maila apaletan eusten zaio tasa horri Europan, gora egin badu ere, hain zuzen Finlandiaren edo Eslovakiaren parean, eta Txekiar Errepublikak bakarrak gaindituta.

IV.1.2. TAULA. POBREZIA EDO GIZARTE ARRISKUAN DAGOEN BIZTANLERIA, "EUROPA 2020 ESTRATEGIA"REN IRIZPIDEEN ARABERA

	PORTZENTAJEA			ABSOLUTUAK (MILIOIAK)		
	2008	2016	2017	2008	2016	2017
28KO EB	23,7	23,5	22,5	115,9	118,0	112,9
BELGIKA	20,8	20,7	20,3	2,2	2,3	2,3
BULGARIA	44,8	40,4	38,9	3,4	2,9	2,8
TXEKIAR E.	15,3	13,3	12,2	1,6	1,4	1,3
DANIMARKA	16,3	16,8	17,2	0,9	1,0	1,0
ALEMANIA	20,1	19,7	19,0	16,4	16,0	15,5
ESTONIA	21,8	24,4	23,4	0,3	0,3	0,3
IRLANDA	23,7	24,2	:	1,1	1,1	:
GREZIA	28,1	35,6	34,8	3,1	3,8	3,7
ESPAINIA	24,5	27,9	26,6	11,1	12,8	12,2
FRANTZIA	18,5	18,2	17,1	11,2	11,5	10,8
KROAZIA	:	27,9	26,4	:	1,2	1,1
ITALIA	25,3	30,0	28,9	15,1	18,1	17,4
ZIPRE	23,3	27,7	25,2	0,2	0,2	0,2
LETONIA	34,2	28,5	28,2	0,7	0,6	0,5
LITUANIA	27,6	30,1	29,6	0,9	0,9	0,8
LUXENBURGO	15,5	19,8	21,5	0,1	0,1	0,1
HUNGARIA	28,2	26,3	25,6	2,8	2,5	2,5
MALTA	20,1	20,1	19,2	0,1	0,0	0,0
HERBEHEREAK	14,9	16,7	17,0	2,4	2,8	2,9
AUSTRIA	20,6	18,0	18,1	1,7	1,5	1,6
POLONIA	30,5	21,9	19,5	11,5	8,2	7,3
PORTUGAL	26,0	25,1	23,3	2,8	2,6	2,4
ERRUMANIA	44,2	38,8	35,7	9,4	7,7	7,0
ESLOVENIA	18,5	18,4	17,1	0,4	0,4	0,3
ESLOVAKIA	20,6	18,1	16,3	1,1	1,0	0,9
FINLANDIA	17,4	16,6	15,7	0,9	0,9	0,8
SUEDIA	14,9	18,3	17,7	1,4	1,8	1,8
ERRESUMA BATUA	23,2	22,2	:	14,1	14,4	:
EAE	**13,9**	**15,9**	**14,5**	**0,30**	**0,35**	**0,32**

Iturria: EUROSTAT eta EINren datuak erabiliz egina.

Eta estatuko autonomia erkidegoetan, EAEk oso toki ona du, soilik Nafarroaren (% 13,5eko intzidentzia) eta Errioxaren (% 14,4) atzetik. Azken urtean, estatuko batez bestekoan bezala, guztira 12 erkidegotan egin du behera AROPE tasak, eta 7 erkidegotan, berriz, handitu edo mantendu da. Ratiorik handienak Kanarietan, Ceutan eta Andaluzian daude, hirurak % 40tik gora.

IV.1.3. TAULA. POBREZIA EDO GIZARTEAN BAZERTUAK IZATEKO ARRIAN DAUDEN BIZTANLEAK, "EUROPA 2020 ESTRATEGIA"REN ARABERA: "AROPE" TASAKO OSAGAIAK: EHUNEKOA BIZTANLERIA OSOAREKIKO, 2015-2017.												
	"AROPE" TASA OROKORRA			1. POBREZIA ARRISKUA (% 60KO ATALASEA)			2. GABEZIA MATERIAL LARRIA			3. LAN INTENTSITATE OSO TXIKIA		
	2015	2016	2017*	2015	2016	2017*	2015	2016	2017*	2015	2016	2017*
ESTATUA, GUZTIRA	28,6	27,9	26,6	22,1	22,3	21,6	6,4	5,8	5,1	15,4	14,9	12,8
ANDALUZIA	43,2	41,7	37,3	35,7	35,4	31,0	8,0	7,1	5,2	24,9	23,5	21,9
ARAGOI	17,7	18,7	15,8	14,4	15,7	13,3	2,2	2,9	0,5	6,9	7,6	5,9
ASTURIAS	24,2	18,5	17,2	16,7	13,4	12,6	6,9	3,9	3,5	16,4	14,7	11,5
BALEAR U.	26,3	19,1	24,7	21,7	15,5	21,3	7,7	3,7	6,9	8,4	6,7	3,7
KANARIAR U.	37,9	44,6	40,2	28,5	35,0	30,5	12,4	10,8	13,6	20,8	29,5	19,2
KANTABRIA	20,4	24,6	20,5	14,9	15,3	17,6	3,5	7,5	2,2	15,5	16,0	9,3
GAZTELA-MANTXA	23,3	23,2	18,4	18,3	17,7	15,4	2,3	2,0	1,0	16,5	14,2	9,2
GAZTELA ETA LEON	36,7	37,9	33,9	28,5	31,7	28,1	8,5	7,6	4,4	15,6	18,8	12,8
KATALUNIA	19,8	17,9	19,4	13,9	13,2	15,0	6,7	5,5	5,0	8,8	7,2	8,8
VALENTZIAKO E.	32,9	30,5	31,3	25,3	24,4	25,6	6,7	7,5	7,4	18,1	14,6	13,6
EXTREMADURA	35,2	35,8	44,3	29,0	30,4	38,8	2,4	3,4	5,6	19,3	20,3	15,4
GALIZIA	25,7	25,4	22,6	19,4	19,0	18,7	4,2	4,1	2,4	13,8	13,6	12,0
MADRIL	20,5	21,7	20,6	15,1	18,2	16,9	5,7	4,3	5,4	10,5	10,4	9,2
MURTZIA	38,8	34,8	34,7	31,8	28,9	30,1	9,0	9,5	6,2	16,1	13,4	12,6
NAFARROA	13,0	13,0	13,5	9,6	9,0	8,3	2,2	3,4	0,3	7,1	8,4	8,2
EAE	**17,6**	**15,9**	**14,5**	**10,9**	**9,0**	**9,7**	**4,6**	**4,2**	**3,7**	**14,3**	**13,7**	**7,7**
ERRIOXA	22,1	17,4	14,4	17,1	11,9	9,7	4,8	5,9	2,9	10,4	9,2	5,4
CEUTA	41,7	41,9	35,8	31,0	36,0	32,5	16,6	3,5	3,8	10,0	12,2	30,6
MELILLA	31,8	29,3	29,4	25,8	21,8	26,2	15,1	13,2	9,4	14,5	18,0	13,9

Iturria: EIN. Bizi-kalitateari buruzko inkesta.
** 2017ko datuak behin-behinekoak dira.*

1.1.1. Pobrezia atalasearen azpitik dagoen biztanleria

Adierazle horren osagaiei dagokienez, batetik, 2017an EBko biztanleen %16,9 pobrezia-arriskuan zegoen gizarte-transferentzien ondoren (moneta-pobrezia); egoera horretan daude, zehazki, diru-sarreren kontsumo-unitateko banaketaren herrialde bakoitzeko medianaren %60tik ("pobrezia-atalase" deritzon horretatik) beherako diru-sarrerak dituztenak (osagai hori da, beraz, herrialde bakoitzean gutxieneko errenta-atalase horretara heltzen ez diren biztanleen portzentajea, "moneta-pobrezia" ere deritzona).

Ehuneko horrek lau hamarren bat egin du behera 2016aren aldean, eta bost pertsonatik bat baino gehiago dago egoera horretan Errumanian (%23,6), Bulgarian (%23,4), Lituanian (%22,9), Letonian (%22,1), Espainian (% 21,6), Estonian (%21), Italian (% 20,3) eta Grezian (%20,2). Ratiorik txikienak Txekiar Errepublikan (%9,71), Finlandian (%11,5), Danimarkan eta Eslovakian (biak %12,4akrekin) daude. 2008tik, informazioa duguneko EBko herrialdeetatik 19tan handitu da pobrezia arriskua, eta haietatik 8tan baino ez da gutxitu.

EAEn, 2017. urtean, tasa hori % 9,7koa zen eta, azkenengo urtean, 7 hamarren hazi egin da eta 6 krisiaren hasieratik.

Autonomia erkidegoen artean, batezbesteko orokorraren oso azpitik dago EAE AROPE tasaren lehen osagaian (%9,7 eta %21,6), batez besteko orokorraren oso azpitik; izan ere, bigarren tokian dago Errioxarekin berdinduta, eta Nafarroaren atzetik (% 8,3). Beste muturrean, zenbait erkidego % 35etik gorako ratioak gainditzzen dituzte: Extremadura (% 38,8), Ceuta (% 32,5), Andaluzia (% 31) eta Kanariar Uharteak (% 30,5), tasarik handienekin.

1.1.2. Gabezia material larria

Bigarrenik, 2017an, Europar Batasuneko biztanleen % 6,9ak gabezia material larria jasaten zuen, hau da, baliabiderik gabeko bizitza-baldintzak zituzten, besteak beste, fakturak ordaintzeko gaitasunik eza (etxeko ohiko gastuekin

lotutakoak); etxea bero mantentzeko ezintasuna edo urtean opor-aste bat gozatzeko aukerarik ez[3]. Ratio hori 6 hamarren murriztu da azken urtean, eta dagoeneko 2008an zuen %8,5aren azpitik dago.

IV.1.4.TAULA. POBREZIA EDO GIZARTE BAZTERKETA ARRISKUAN DAGOEN BIZTANLERIA, "EUROPA 2020 ESTRATEGIA"REN IRIZPIDEEN ARABERA: EHNEKOA BIZTANLERIA OSOAREKIKO. 2008-2017.

	1. POBREZIA ARRISKUA (% 60KO AT.)				2. GABEZIA MATERIAL LARRIA				3. LAN INTENTSITATE OSO TXIKIA			
	2008	2015	2016	2017	2008	2015	2016	2017	2008	2015	2016	2017
28KO EB	16,5	17,3	17,3	16,9	8,5	8,1	7,5	6,9	9,2	10,6	10,5	9,3
BELGIKA	14,7	14,9	15,5	15,9	5,6	5,8	5,5	5,1	11,7	14,9	14,6	13,5
BULGARIA	21,4	22,0	22,9	23,4	41,2	34,2	31,9	30,0	8,1	11,6	11,9	11,1
TXEKIAR E.	9,0	9,7	9,7	9,1	6,8	5,6	4,8	3,7	7,2	6,8	6,7	5,5
DANIMARKA	11,8	12,2	11,9	12,4	2,0	3,7	2,6	3,1	8,5	11,6	10,6	10,0
ALEMANIA	15,2	16,7	16,5	16,1	5,5	4,4	3,7	3,4	11,7	9,8	9,6	8,7
ESTONIA	19,5	21,6	21,7	21,0	4,9	4,5	4,7	4,1	5,3	6,6	5,8	5,8
IRLANDA	15,5	16,3	16,6	:	5,5	7,5	6,5	6,5	13,7	19,2	18,2	:
GREZIA	20,1	21,4	21,2	20,2	11,2	22,2	22,4	21,1	7,5	16,8	17,2	15,6
ESPAINIA	19,8	22,1	22,3	21,6	3,6	6,4	5,8	5,1	6,6	15,4	14,9	12,8
FRANTZIA	12,5	13,6	13,6	13,3	5,4	4,5	4,4	4,1	8,8	8,6	8,4	8,1
KROAZIA	:	19,5	19,5	20,0	:	12,9	12,5	10,3	:	13,6	13,0	12,2
ITALIA	18,9	19,9	20,6	20,3	7,5	11,5	12,1	10,1	10,4	11,7	12,8	11,8
ZIPRE	15,9	16,2	16,1	15,7	9,1	15,4	13,6	11,5	4,5	10,9	10,6	9,4
LETONIA	25,9	22,5	21,8	22,1	19,3	16,4	12,8	11,3	5,4	7,8	7,2	7,8
LITUANIA	20,9	22,2	21,9	22,9	12,5	13,9	13,5	12,4	6,1	9,2	10,2	9,7
LUXENBURGO	13,4	15,3	16,5	18,7	0,7	2,0	1,6	1,2	4,7	5,7	6,6	6,9
HUNGARIA	12,4	14,9	14,5	13,4	17,9	19,4	16,2	14,5	12,0	9,4	8,2	6,6
MALTA	15,3	16,3	16,5	16,8	4,3	8,1	4,4	3,3	8,6	9,2	7,3	6,7
HERBEHEREAK	10,5	12,1	12,7	13,2	1,5	2,5	2,6	2,6	8,2	10,2	9,7	9,5
AUSTRIA	15,2	13,9	14,1	14,4	5,9	3,6	3,0	3,7	7,4	8,2	8,1	8,3
POLONIA	16,9	17,6	17,3	15,0	17,7	8,1	6,7	5,9	8,0	6,9	6,4	5,7
PORTUGAL	18,5	19,5	19,0	18,3	9,7	9,6	8,4	6,9	6,3	10,9	9,1	8,0
ERRUMANIA	23,6	25,4	25,3	23,6	32,7	22,7	23,8	19,7	8,5	7,9	8,2	6,9
ESLOVENIA	12,3	14,3	13,9	13,3	6,7	5,8	5,4	4,6	6,7	7,4	7,4	6,2
ESLOVAKIA	10,9	12,3	12,7	12,4	11,8	9,0	8,2	7,0	5,2	7,1	6,5	5,4
FINLANDIA	13,6	12,4	11,6	11,5	3,5	2,2	2,2	2,1	7,5	10,8	11,4	10,7
SUEDIA	12,2	14,5	16,2	15,8	1,4	0,7	0,8	1,1	5,5	5,8	8,5	8,8
ERRESUMA B.	18,7	16,7	15,9	:	4,5	6,1	5,2	4,9	10,4	11,9	11,3	:
EAE	**9,1**	**10,9**	**9,0**	**9,7**	**2,8**	**4,6**	**4,2**	**3,7**	**6,5**	**14,3**	**13,7**	**7,7**

Iturria: EUROSTAT eta EINren datuekin geuk egina.

Batasunean, gabezia horren intzidentzia asko aldatzen da herrialdeen artean: Suedian %1,1 dago edo %1,2 Luxenburgon, eta beste muturrean Bulgaria, %30, edo Grezia, % 21,1. Gehienetan, ordea, emaitza hobeak izan dira azken urtean. 2008aren aldean, gabezia larria dutenen proportzioa hazi egin da horretarako datuak dauden 9 herrialdetan, eta behera egin du 18 herrialdetan.

Espainiaren intzidentzia % 5,1ekoa da (2016an baino 7 hamarren gutxiago) eta EAErena % 3,7koa (2016eko % 4,2aren aurrean). 2008-2017 epea aztertuta, esan beharra dago bilakaera negatiboa izan dela, % 2,8tik % 3,7ra igaroz, beti % 5 baino gutxiagoko mailatan mantendu bada ere.

Autonomia erkidegoen multzoan, intzidentziarik handienak Kanariar Uharteetan eta Melillan daude (% 13,6 eta % 9,4, hurrenez hurren); txikienak, berriz, Nafarroan (% 0,3), Aragoin (% 0,5) eta Gaztela eta Leonen (% 1).

1.1.3. Oso lan intentsitate txikia duen biztanleria

Azkenik, 2017an, Europar Batasuneko biztanleen % 9,3 lan-intentsitate oso baxuko etxeetan bizi zen; izan ere, egoera hori dela jotzen da etxeko 59 urte baino gutxiagoko helduek azkenengo urtean guztizko lan-ahalmenaren % 20 baino gutxiago lan egiten dutenean (2016an baino 1,2 gutxiago 2016an baino eta 2008an baino hamarren bat gehiago). Grezia (% 15,6), Belgika (% 13,5), Espainia (% 12,8) eta Kroazia (% 12,2) zeuden Batasuneko goiko postuetan. Eslovakian, Txekiar

[3] *Zehazki, EUROSTATen irizpideen arabera, **gabezia material larria izateko bederatzi item hauetatik lau** bete behar dira: fakturak garaiz ezin ordaintzea, etxea bero ezin edukitzea, ezusteko gastuak ezin ordaintzea, bi egunez behin haragia, arraina edo antzeko proteinak ezin jatea, urtero gutxienez astebeteko oporraldirik ezin hartzea eta kotxea, garbigailua, koloretako telebista eta telefonoa (sakelakoa barne) ez edukitzea.*

Errepublikan eta Polonian, berriz, ez dira %6ra iristen. 2008aren aldean, tasa horrek gora egin du EBko herrialderik gehienetan (datu eguneratuak ditugun herrialdeetatik 18tan), baina batez bestekoak ia aldatu gabe eutsi dio.

IV.1.5. TAULA. "AROPE" TASA ETA BERE OSAGAIAK. EAE-ESTATUKO BATEZ BESTEKOA ERKAKETA.								
	POBREIZA ETA BAZTERKETA ARRISKUA (AROPE)		1. POBREZIA AR. (<%60KO ATALASEA) (MONETA POBR.)		2. GABEZIA MATERIAL LARRIA		3. LAN INTENTS. TXIKIA	
	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE
2008	23,8	13,9	19,8	9,1	3,6	2,8	6,6	6,5
2014	29,2	15,3	22,2	10,2	7,1	4,8	17,1	12,2
2015	28,6	17,6	22,1	10,9	6,4	4,6	15,4	14,3
2016	27,9	15,9	22,3	9,0	5,8	4,2	14,9	13,7
2017	26,6	14,5	21,6	9,7	5,1	3,7	12,8	7,7
16/17* ald.	-1,3	-1,4	-0,7	0,7	-0,7	-0,5	-2,1	-6,0
08/17* ald.	2,8	0,6	1,8	0,6	1,5	0,9	6,2	1,2

Iturria: EINen datuekin egina.
** Aldakuntzak ehunekoetan emanak.*

EAEko datua % 7,7koa da, EBko batez bestekoa baino txikiagoa, azken urtean izandako jaitsiera handiari esker (-6 puntu portzentual), baina krisiaren hasierako % 6,5etik gora eusten dio. Espainian, arestian esan bezala, Batasuneko emaitzarik txarrenen artean dago, bakarrik Greziak eta Belgikak gaindituta, baina ia bi puntutan hobetu da 2016aren aldean (% 14,9tik % 12,8ra igarota). Autonomia erkidegoen artean, horietako zenbaitek oso ratio handiak dituzte, 2016aren aldean hobetu badira ere: Andaluzia % 21,9. Kanariar U. %19,2 eta Extremadura % 15,4. Balearrak, Errioxa eta Aragoi beste muturrean daude, tasarik txikienak baitituzte: %3,7, %5,4 eta %5,9 hurrenez hurren.

1.2. 2017KO BIZI-BALDINTZEI BURUZKO INKESTAREN EMAITZAK

Europar Batasuneko errentari eta bizi-baldintzei buruzko estatistika, «Statistics on income and living conditions», EU-SILC) deritzona, bateratzeko prozesu baten zatia da. Helburu nagusietako bat pobrezia eta gizarte-bazterketa aztertu ahal izateko informazioa ematea da. Alde horretatik, askotariko informazioa ematen du, etxebizitzei buruzko datuak, hain zuzen ere: etxeko gastuak, diru-sarrerak, ekipamendua, egoera ekonomikoa, helduen jarduera, osasuna, osasun-arreta eskuratu ahal izatea, hezkuntza eta datu biografikoak.

1.2.1. Errenta

2017ko inkestako emaitzek nabarmentzen dute, lehenik eta behin, EAEko batez besteko errenta 14.397 eurokoa dela urtean pertsonako (ez dago sexuaren araberako informaziorik), aurreko urtean baino % 0,4 gehiago, berriz ere lehen tokian Nafarroaren ondoren, eta estatuko batez bestekoa baino % 30 gehiago. 2008. urteari dagokionez, positiboa izan zen EAEn bakoitzaren batez besteko errentaren bilakaera (+%2,6), eta Estatuko batez bestekoan %3,1. Horrez gain, errentarik txikienak jasotzen dituzten pertsonen ehunekorik txikiena du (pertsonen % 4 errentako lehen dezilean) eta gehien kobratzen dutenen ehunekorik altuena (% 18,5 errentako lehenengo dezilean).

Horrez gain, aurreko urtean EAEko etxe bakoitzak jasotako batez besteko errentak % 0,4 egin zuen gora aurreko urtearen aldean, eta 34.203 euroan kokatzen da, estatuko batez bestekoa baino % 24,1 gehiago (27.558 eurokoa da estatuan, non % 3,1 hazi baita 2016aren aldean). EAEk lehen tokiari eusten dio autonomia erkidegoen rankinean, eta ondoren Nafarroa dago (batez besteko sarrera 33.431 eurokoa da etxeko)[4]. Alabaina, 2008-2016 aldian gertatu dena kontuan hartzen badugu, krisia hasi zenetik, %5,7 egin du behera familiako batez besteko errentak EAEn. Estatuan, berriz, %4,3ko jaitsiera izan da. Zenbait erkidegotan %8tik gorakoa da galera (Kantabria eta Murtzia). Beste batzuetan, berriz, gora egin du familia errentak kontsideraturiko aldian, Balearretan edo Galizian adibidez.

[4] *Melillako kopuru handia, 34.089€, zuhurtziaz hartu behar da, laginketaren tamaina txikia dela eta.*

IV.1.6. TAULA. URTEKO BATEZ BESTEKO ERRENTAREN BILAKAERA PERTSONAKO ETA ETXEKO (ELKARRIZKETAREN AURREKO URTEA) AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA. 2008-2017. EUROTAN.										
	BATEZ BESTEKO ERRENTA PERTSONAKO					BATEZ BESTEKO ERRENTA ETXEKO				
	2008	2016	2017	16/17 ald. %-a	08/17 ald. %	2008	2016	2017	16/17 ald. %-a	08/17 ald. %
ESTATUKO B.B.	10.737	10.708	11.074	3,4	3,1	28.787	26.730	27.558	3,1	-4,3
ANDALUZIA	9.007	8.398	9.116	8,5	1,2	25.248	21.966	23.699	7,9	-6,1
ARAGOI	11.485	11.649	12.110	4,0	5,4	29.506	28.019	29.098	3,9	-1,4
ASTURIAS	11.880	12.060	12.244	1,5	3,1	29.473	27.020	27.454	1,6	-6,9
BALEARS (ILLES)	11.229	12.222	12.665	3,6	12,8	28.981	30.859	32.163	4,2	11,0
KANARIARRAK	8.902	8.702	8.863	1,9	-0,4	24.510	22.450	22.790	1,5	-7,0
KANTABRIA	11.232	10.670	11.293	5,8	0,5	29.576	25.787	27.024	4,8	-8,6
GAZTELA ETA LEON	10.488	10.815	11.239	3,9	7,2	26.525	25.255	26.113	3,4	-1,6
GAZTELA - MANTXA	9.064	8.731	9.045	3,6	-0,2	24.974	22.473	23.159	3,1	-7,3
KATALUNIA	12.436	12.660	12.712	0,4	2,2	32.561	31.339	31.411	0,2	-3,5
VALENTZIAKO E.	9.864	9.265	9.801	5,8	-0,6	25.802	22.744	24.034	5,7	-6,9
EXTREMADURA	8.107	8.674	8.250	-4,9	1,8	21.756	21.671	20.395	-5,9	-6,3
GALIZIA	9.482	10.439	10.753	3,0	13,4	25.859	25.980	26.533	2,1	2,6
MADRIL	12.496	12.647	13.099	3,6	4,8	33.889	31.370	32.451	3,4	-4,2
MURTZIA	9.119	8.273	8.702	5,2	-4,6	26.995	22.425	23.574	5,1	-12,7
NAFARROA	13.123	13.408	13.583	1,3	3,5	35.370	33.167	33.431	0,8	-5,5
EAE	**14.038**	**14.345**	**14.397**	**0,4**	**2,6**	**36.110**	**34.054**	**34.203**	**0,4**	**-5,3**
ERRIOXA	10.916	11.589	12.131	4,7	11,1	27.835	27.599	28.775	4,3	3,4
CEUTA	8.047	9.435	9.676	2,6	20,2	29.776	30.180	29.117	-3,5	-2,2
MELILLA	11.065	10.883	10.161	-6,6	-8,2	33.986	35.808	34.089	-4,8	0,3

Iturria: EIN. Bizi-baldintzei buruzko inkesta.

Azaldutako bi aldagaiek 2008 eta 2017 bitartean izan duten bilakaera (pertsonako batez besteko errentaren igoera eta familiako batez besteko errentaren jaitsiera) gertatu da, neurri handi batean, Euskadiko familien batez besteko tamaina nabarmen txikitu delako, 2008an 2,57 lagunekoa izatetik 2017an 2,38 lagunekoa izatera. EINen familiei buruzko inkestako datuak).

Autonomia erkidegoen araberako rankingeko posiziorik txarrenen artean, hauexek daude bi aldagaietan (familiako errenta eta pertsonako errenta), aurreko urteetan bezala: Extremadura, Murtzia, Kanariar Uharteak, Andaluzia eta Gaztela-Mantxa.

1.2.2. Gabezia materiala

Etxeetako bizi-baldintzen eta errenta-mailaren beste adierazle bat hil-bukaerara heltzeko zailtasunak dituzten familien portzentajea da: 2017an gure Erkidegoko familien %33,2 zegoen egoera horretan, aurreko urtean baino %6,7 gutxiago. Estatuko batez bestekoa %52 da, eta 8,9 puntu gutxitu da 2016ko datuen aldean. 2008ko egoerarekin erkatuta, zailtasunak %10,8 egin du behera EAEn eta %8,92 Estatuan.

Horrez gain, kontuan izan behar da ezen, 2017an, hil bukaerara iristeko zailtasunak dituztela dioten euskal familien % 33,2tik % 5,4k "zailtasun handiak" ditu (% 5,8k 2016an), % 10,5ek "zailtasunak" soilik eta gainerako % 17,3ak "nolabaiteko zailtasunak". Banaketa hori estatukoaren antzekoa da, baina zailtasun gehien dituztenen portzentajea handiagoa da, % 9,3 hain zuzen ere.

Inkestan, halaber, gastu batzuk ordaindu ezin dituzten etxeen portzentajea kalkulatzen dute[5]: 2017an, EAEko etxeen %22,3an ezin zuten urtean astebeteko oporraldirik hartu (estatuan %34,4), eta etxeen %17,92an ezin zituzten ustekabeko gastuak ordaindu (estatuko batezbestekoa %37,3 da. Ratio horrek 1,1 puntuko jaitsiera izan zuen 2016aren aldean. Horrez gain, etxeen % 4,4k dio atzerapenak dituztela etxebizitzarekiko loturiko ordainketetan, 2016an baino 9 hamarren gutxiago; Espainiako familietan, berriz, % 7,4 da.

[5] *Kapitulu honetako 2. orri-oinean aipaturiko aldagaiak aztertzen dira, EUROSTAT metodologiaren arabera: fakturak garaiz ezin ordaintzea, etxea bero ezin edukitzea, ezusteko gastuak ezin ordaintzea, bi egunez behin haragia, arraina edo antzeko proteinak ezin jatea, urtero gutxienez astebeteko oporraldirik ezin hartzea eta kotxea, garbigailua, koloretako telebista eta telefonoa (sakelakoa barne) ez edukitzea*

IV.1.7. TAULA. ZAILTASUN MATERIALAK DITUZTEN EDO HAINBAT GASTURI AURRER EGITEKO MODURIK EZ DUTEN FAMILIEN EHUNEKOA. EAE-ESTATUKO BATEZ BESTEKOAREN ARTEKO ALDEA. ALDAKUNTZA PORTZENTAJEZKO PUNTUTAN.								
	URTEAN GUTXIENEZ ASTEBET. OPORRALDIRIK EZ		HILAREN AMAIERARA IRISTEKO ZAILTASUNAK		ATZERAPENAK ETXEBIZITZA NAGUSIAREN ORDAINKETETAN *		EZUSTEKO GASTUEI AURRE EGITERIK EZ	
	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE
2008	34,5	15,8	60,9	44,0	6,0	3,5	29,9	17,7
2014	45,0	24,6	66,4	50,4	10,2	4,4	42,4	20,5
2015	40,6	20,3	63,1	42,1	9,4	4,6	39,4	18,5
2016	39,5	22,4	60,9	39,9	8,4	5,3	38,1	19,0
2017	**34,4**	**22,3**	**52,0**	**33,2**	**7,4**	**4,4**	**37,3**	**17,9**
16-17 ald.	-5,1	-0,1	-8,9	-6,7	-1,0	-0,9	-0,8	-1,1
08-17 ald.	-0,1	6,5	-8,9	-10,8	1,4	0,9	7,4	0,2

** Aterapenak izan dituzte etxebizitza nagusiarekin lotutako gastuen ordainketan (hipoteka edo alokairua, gas ordainagairiak, komunitatea...) azken 12 hilean.*
Iturria: EIN. Bizi-baldintzei buruzko inkesta.

EBn (EUROSTATen 2017ko datuak), familien % 34,3k ezin die aurre egin ezusteko gastuei, % 30,5ek ezin du hartu astebeteko oporraldia urtean eta % 7,7k dio arazo handiak dituela hilaren azkenetara iristeko. Alde handiak zeuden herrialdeen artean, eta honako hauek nabarmentzen ziren bizi-mailaren beherakada azterturiko adierazle guztietan: Errumania, Kroazia, Zipre eta Lituania (horietan guztietan, ustegabeko gastuei aurre egiteko zailtasunak dituzten familien %50 edo gehiago ageri dira, esaterako).

Ildo beretik, EUROSTATek "gabezia materialaren indizea" definitu du, hain zuzen ere 1.1.2. atalean aipaturiko gastu bederatzi gastu kontzeptu eta ekipamenduen zerrendatik gutxienez hiru eskuratzerik ez duten familietako pertsonaien ehunekoak emana. Atal horretan, gabezia material "larria" aipatzen da (9tik 4 gutxienez, ikusi 3. orri-oina). Definizio horren arabera, EBko populazioaren %15,7k ezin zituen baliabideok eskuratu 2016an (azken datu eskuragarria), eta alde handiak daude herrialdeen artean, gehienbat Europako kide berrien eta gainerako kideen artean.

Alde batetik, familien %3-6 baino ez zegoen egoera horretan Suedian eta Luxenburgon, eta %10 baino gutxiago Danimarkan, Alemanian eta Austrian. Gabezia materialaren indizea, ordea, %43,8koa zen Bulgarian eta %37,2koa Errumanian. Espainiak, iturri horren arabera, % 12,8ko ratioa du.

IV.1.8. TAULA. EB-KO ETXEETAKO GABEZIAREN ADIERAZLE NAGUSIAK EAE-REN ALDEAN. 2016-2017.						
	EZUSTEKO GASTUEI AURRE EGITERIK EZ		GABEZIA MATERIALAREN INDIZEA		ETXEA TENPERATURA EGOKIAN MANTENTZERIK EZ	
	2016	2017	2016	2017	2016	2017
28KO EB	36,4	34,3	15,7	:	8,7	8,2
EBB	34,6	32,8	14,3	:	8,8	8,3
BELGIKA	25,9	25,3	12,3	11,3	4,8	5,7
BULGARIA	54,2	53,2	46,9	43,8	39,2	36,5
TXEKIAR E.	32,1	28,1	11,8	9,8	3,8	3,1
DANIMARKA	24,5	25,1	6,5	6,8	2,7	2,7
ALEMANIA	30,0	30,3	9,7	:	3,7	:
ESTONIA	31,6	36,3	11,7	11,6	2,7	2,9
IRLANDA	45,3	:	15,5	:	5,8	:
GREZIA	53,6	52,7	39,0	36,0	29,1	25,7
ESPAINIA	38,7	36,6	15,2	12,8	10,1	8,0
FRANTZIA	31,8	29,6	11,0	:	5,0	:
KROAZIA	57,7	56,1	30,1	:	9,3	:
ITALIA	40,4	38,3	20,6	17,9	16,1	15,2
ZIPRE	56,6	50,1	29,9	:	24,3	:
LETONIA	60,0	59,9	26,4	23,0	10,6	9,7
LITUANIA	53,2	50,6	26,	:	29,3	28,9
LUXENBURGO	21,9	:	5,9	:	1,7	:
HUNGARIA	50,8	31,5	29,6	28,9	9,2	6,8
MALTA	20,8	15,8	10,3	8,0	6,8	6,6
HERBEHEREAK	22,5	20,7	6,9	6,9	2,6	2,4
AUSTRIA	22,6	20,6	8,4	7,4	2,7	2,4
POLONIA	37,9	34,8	15,0	13,2	7,1	6,0
PORTUGAL	38,3	36,9	19,5	18,0	22,5	20,4
ERRUMANIA	54,5	52,5	40,4	37,2	13,8	11,3
ESLOVENIA	41,7	37,1	13,5	12,1	4,8	3,9
ESLOVAKIA	37,9	:	19,1	:	5,1	:
FINLANDIA	29,4	28,5	8,3	8,2	1,7	2,0
SUEDIA	20,7	19,7	3,7	:	2,6	2,1
ERRESUMA BAT.	38,0	34,9	12,5	:	6,1	5,7
EAE	**19,0**	**17,9**	**9,8***	**8,5***	**7,3**	**7,9**

Iturria: EIN eta EUROSTATen datuekin egina.
**Zenbatespena, zenbait desberdintasun dagoelako metodologiaren aldetik.*

EINek, Bizi-baldintzei buruzko Inkestako zati baten gisa, antzeko adierazlea kalkulatzen du autonomia erkidegoentzat. Horren arabera, 2016an, EAEk %8,5eko gabezia-indizea izango luke, eta Estatuko batez bestekoa %12,7koa izango litzateke. EUROSTATen indizean, berriz, %12,8koa ageri da. Beraz, bi adierazleak konparagarritzat jo litezke -Europako eta Espainiakoa-, baina zuhurtziaz hartu beharrekoak dira.

Gabeziaren beste adierazle bat dago, "pobrezia energetikoa" deritzona. Etxebizitza batean pobrezia energetikoa dute gai ez direnean etxeko beharrak asetzeko energia nahikoa ordaintzeko eta/edo etxebizitzako energia-faktura ordaintzeko diru-sarreren parte handi bat erabili behar dutenean[6]. Euskal Autonomia Erkidegoan gertakari nahiko berria da, baina krisiaren ondorioz gaur-gaurkoa. Europan, ordea, "fuel poverty" esaten zaiona agenda politikoan dute aspaldidanik hainbat herrialdetan, Erresuma Batuan, Irlandan eta Belgikan, esate baterako.

Europan, EUROSTATen datuen arabera, familien %8,2k ezin zuen 2016an etxea tenperatura egokian mantendu, eta tasa horrek %10aren inguruan egonkor eutsi zion azken urteetan, beheranzko nolabaiteko joerarekin. Iturri horren arabera, balio-aniztasun handia du arazoak: oso balio handiak dira Bulgarian (%36,5) edo Grezian %25,7) esaterako, eta %2aren inguruko indizeak Europako iparraldeko herrialdeetan (Luxenburgo, Finlandia, Herbehereak eta Suedia). Estatuan, EBko batezbestekoa baino pixka bat txikiagoa da arazo horren intzidentzia, 2016an %8koa hain zuzen ere.

Bestalde, EINen Bizi-baldintzen Inkestak erakusten duenez, euskal familien %7,9k ezin zuen etxea tenperatura egokian mantendu 2017an, eta Estatu mailan, berriz, %8,3ko tasa zegoen, % 8 EUROSTATen arabera). Hona hemen erkidego kaltetuenak: Asturias (% 18,2) eta Balearrak (familien % 16,2). Beste muturrean daude, ordea, Gaztela eta Leon, Kantabria eta Aragoi (lehenbizikoan % 2,6 eta % 4,4 beste bietan). Aurreko urtearen aldean, 6 hamarren hobetu da EAEko datua. Estatuko batezbestekoa, berriz, %1,9koa da. Eta 2008an gertaturikoa kontuan hartzen badugu, gabezia horren intzidentziak 4,5 egin zuen gora EAEn eta 2,1 Estatuko batezbestekoan.

IV.1.9. TAULA. POBREZIA ENERGETIKOA ESTATUAN: EETXEBIZITZA TENPERATURA EGOKIAN EZIN MANTENDU DEZAKETEN ETXEEN EHUNEKOA. 2008-2017.

	2008	2016	2017
ESTATUA, GUZTIRA	6,2	10,2	8,3
ANDALUZIA	8,3	11,8	8,4
ARAGOI	2,8	3,5	4,4
ASTURIAS	4,2	10,7	18,2
BALEARRAK	5,1	7,1	16,2
KANARIARRAK	3,7	6,9	8,7
KANTABRIA	2,5	17,4	4,4
GAZTELA MANTXA	3,6	3,6	2,6
GAZTELA ETA LEON	4,7	9,9	12,6
KATALUNIA	5,4	9,1	6,1
VALENTZIAKO E.	6,0	20,9	9,5
EXTREMADURA	8,8	5,5	11,8
GALIZIA	9,4	9,6	6,8
MADRIL	7,3	6,9	7,9
MURTZIA	9,8	19,3	14,2
NAFARROA	2,8	4,3	4,8
EAE	**3,4**	**7,3**	**7,9**
ERRIOXA	4,1	7,9	5,7
CEUTA	9,8	1,8	0,0
MELILLA	17,7	18,7	6,3

Iturria: EIN. Bizi-baldintzei burzuko inkesta.

1.3. FAMILIAK ETA LANA, BIZITZA PERTSONALA ETA FAMILIA UZTARTZEA

EAEko familia-sistemen tipologia asko aldatu da azken hamarkadetan, demografia, gizarte eta kultura prozesuen ondorioz. Aldaketa nabarmenen artean hauexek daude: familia moten aniztasun handiagoa, familien batez besteko tamaina txikiagoa, familia horietako erreferentziako pertsonen profileko aldaketa garrantzitsuak, familian dauden adingabeen proportzio txikiagoa eta mendekotasun egoera gehiago eta guraso bakarrekoen familiek dakarten gizarte errealitatea.

EINen "Familien etengabeko inkestak" erakusten duenez, EAEk guztira 902.200 familia zituen 2017an (Estatuko familien % 4,9, 2016an baino % 0,4 gehiago), eta horietatik %31,9 eurekin bizi diren bikoteekin daude osatuta, %27,5 pertsona bakarrekoak dira eta %21,9 seme-alabarik gabeko bikoteak dira. Batez besteko tamaina 2,38 lagunekoa da familiako, estatukoa baino txikiagoa (2,49 da). Familiako kide gutxien duen hirugarren autonomia erkidegoa da EAE, bakarrik Asturiasen (2,24) eta Gaztela eta Leonen (2,33) atzetik.

Aldaketak gorabehera, familiak pertsonen bizitzaren erdigunean jarraitzen du. 2016ko datuak baliatuz, 62. Euskal Soziometroak nabarmentzen du (azken datu eskuragarriak[7]) euskaldunen %91 oso pozik edo nahikoa pozik dagoela bere familiako kideen arteko maitasunezko erlazioetan, %84 familia ikusteko maiztasunarekin eta %79 jarduerak partekatzeko

[6] *Fenomenoari buruzko argibide gehiago nahi izanez gero, jo beza irakurleak Memoria honen 2014ko ediziora, gai monografikoa baita.*

[7] *Ezin izan da eguneratu 2016ko Memoria Sozioekonomikoan bildutako azterlan honen gaineko informazioa eta, beraz, laburpena eman da. Argibide gehiago nahi izanez gero, begiratu Memoria horretan.*

maiztasunarekin. Horrez gain, familia giroan gehien azpimarratzen diren balioak maitasuna (inkestaturikoen %68), begirunea (%57) eta komunikazioa (%38) dira, askotariko erantzunak emateko aukera duen galdera batean.

Bestalde, eta aurreko inkesten ildotik, elkarrizketaturiko pertsona gehienek zioten 2016an nahiko luketena baino

IV.1.2. GRAFIKOA. GOGOBETETASUNA FAMILIA BIZITZAREN ZENBAIT ALDERDIREKIN. EAE, 2016



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Euskal Soziometroa (Familia). 2016.

seme-alaba gutxiago dutela (%51). Seme-alaba gutxiago izateko arrazoien artean, oraindik halakorik izan ez duten arren guraso izatea espero dutenez gain (%41), arrazoi ekonomikoak (%22) eta uztartzeko zailtasunak (%5) daude, baita bestelako arrazoiak ere: osasuna, adina, bikotekiderik ez izatea, etab. Geroko amatasun-aitatasunari dagokionez, seguru asko etorkizunean seme-alabak izango dituztela uste duten elkarrizketaturiko pertsonen ehunekoa ez da aldatu 2016an 2014aren aldean, 2012an eta 2014an gora egin ondoren.

Eta, ugalkortasun-tasak handitzeko beharrezko neurriei dagokienez, emakumeei berei galdetuta, % 23,1ek uste du amatasun eta aitatasun baimenak luzeagoak izan beharko liratekeela (eta % 31,2k hala uste du 30-34 urtekoen taldean), % 10,7k malgutasuna eskatzen du seme-alabak dituzten gurasoen laneko ordutegian eta % 10,6 18 urtetik beherako seme-alaba adingabeak dituzten familientzako baliakizuna ematearen alde agertzen da, beste neurri batzuen artean. Halaber, elkarrizketaturiko emakumeen % 15,1ek uste du pizgarriak eman beharko liratekeela jaiotzagatik (EINen 2018ko ugalkortasunari buruzko inkestaren emaitzen aurrerapena).

IV.1.3. GRAFIKOA. EMAKUMEEN ARABERA, ZEIN NEURRI BEHAR DIRA UGALKORTASUNA HANDITZEKO. ESTATUA, 2018



Iturria: EIN. Ugalkortasunari buruzko 2018ko inkesta. Aurrerapena.

1.3.1. Uztartzeko beharrak

Azkenengo urteotan, familia-erakundean egondako eraldaketa handiek eta horrek ugalkortasunean izandako eraginak interes publiko handia sorrarazi dute, horrek guztiak dituen ondorioak direla-eta. Ugaltzeko adin egokiak eta lanean hasteko eta laneko promoziorako adinak bat datoz eta horrek oso egoera zailean kokatzen ditu emakume gazteak haurrak edukitzeko erabakiari dagokionez. Ama izan nahi duten gehienek amatasuna lanarekin bateratu nahi izaten dute eta geroz eta gehiago dira bikoteko bi kideek lan egiten duten eta 15 urte baino gutxiagoko seme-alabak dituzten familiak.

IV.1.4. GRAFIKOA AMATASUNA/AITATASUNA LANBIDE KARRERARAKO ERAGOZPEN GISA. EAE, HAINBAT URTE.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. euskal Soziometroa 62 (Famila). 2016

Inguruabar horiek arazo berriak ekarri dituzte elkarbizitza-unitateen barruan, ordaindutako lana eta familiaren zaintza bateratzeko beharrizanen inguruan. Lanaren eta familia bizitzaren arteko gatazka une bitan areagotzen da: haurrak txikiak direnean, baina gero eta sarriago, mendekotasun duten adinekoei arreta eman behar zaienean ere bai. Hori dela-eta, herritarrek euren familia bizitza eta norberaren konpromisoak eta lana bateratu ahal izatea gizarte politikari buruzko eztabaidaren ardatzetako bat bihurtu da.

2016ko Soziometroaren emaitzei berriz ere helduta, elkarrizketaturiko emakumeen % 44k uste du seme-alabak izateak nahikoa oztopatzen duela bere lanbide karrera (%45ek 2014an), eta % 26k uste du "asko" oztopatzen duela (%22k 2014an). Aitzitik, gizonezkoen artean, galdetutako pertsonen % 13k baino ez du nahiko oztoporik edo oztopo askorik ikusten karrera profesionalean seme-alabak izateagatik (% 14en iritzia 2014. urtean egindako inkestan).

EAEn bizi diren landun familiek lana eta familia eta bizitza pertsonala bateratzeko dituzten posibilitateak ikertzen ditu EUSTATek 2010. urtetik, hain zuzen "Lana eta bizitza pertsonala eta familia bateratzeari buruzko inkesta" erabiliz (LBI). 17ko emaitzek nabarmentzen dutenez, lehenik eta behin EAEko landunen % 33,5ek zailtasun asko ditu lana mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko, eta ehuneko txikixeago batek (% 28) seme-alabak zaintzeko.

IV.1.5. GRAFIKOA. LANDUNEK ETXEKO LANETAN EMANDAKO ORDUAK EGUNEAN, EZAUGARRIEN ARABERA. EAE, 2017.



Iturria: EUSTAT. LBI, 2017

Etxetik kanpora lan egiten duten emakumeek gizonezkoek baino % 55 ordu gehiago erabiltzen dituzten seme-alaba adingabeak eta mendekotasuna dutenak zaintzen, eta % 43 denbora gehiago etxeko lanetan. Gizonezkoek 3,3 ordu ematen dituzte egunean adingabeak zaintzen (2016ko datu bera) eta emakumezkoek, aldiz, 5,1 (4,7 2016an)[8]. Alde hori txikixeagoa da menpeko pertsonak zaintzeko lanak kontuan hartuz gero; izan ere, gizonezkoek 1,4 ordu erabiltzen dituzte egunero jarduera horri begira (2016an 1,1 ordu) eta emakumezkoek 2 (2016an 2,79). Gainera, emakumezkoek, batez beste, 2,2 ordu ematen dituzte etxeko lanak egiten, gizonezkoek, aldiz, 1,5 ordu (2 eta 1,2 hurrenez hurren, 2016an).

IV.1.6. GRAFIKOA. KONTZILIAZIOAREKIN LOTUTAKO DENBORAREKIN LANDUNEK DUTEN GOGOBETETASUN MAILA, SEXUAREN ARABERA. EAE. 2017.



Iturria: EUSTAT. LBI, 2017

Beren gain hartutako kargen inguruko desberdintasun horrek ondorioak dakartza etxeko lanen banaketarekiko gogobetetasunean, zeren eta emakumeek, batez beste, 5,9ko gogobetetasun-maila adierazten baitute 10etik, ezkontideak edo bikotekideak etxean egiten dituen lanen gainean; gizonezkoen kasuan, berriz, 7,8koa da.

Kontziliazioaren alde desberdinetarako erabilitako denborarekin batez beste dagoen asebetetze-mailaren indizean jartzen badugu arreta, adin txikiko seme-alabak zaintzeko denborarekin dagoen asebetetze-maila 5,9koa da eta

[8] *Deigarria da gazteenek (16-25 urtekoak) adingabeak zaintzen ematen duten denbora, egunean 8 ordu (ikusi IV.1.9. grafikoa), gainerako taldeek baino askoz gehiago, aurreko urtean bezala: 7,8 izan zen datua. Halaxe gertatzen da seguru asko adin-talde horren laginaren tamaina txikiagatik; beraz, zuhurtziaz hartu behar dira kopuru horiek.*

handiagoa emakumezkoen artean (5,7 puntukoa emakumezkoen artean eta 6koa gizonezkoen artean). Bizitza pertsonalerako erabilgarri dagoen denborari dagokionez (aisialdia, ikasketak, gizarte-bizitza) batez besteko asebetetze-

IV.1.7. GRAFIKOA. KONTZILIAZIOAREKIN LOTUTAKO BAIMENAK LANEAN ESKATZEKO BATEZ BESTEKO ZAILTASUN MAILAREN (10ETIK) BILAKAERA. EAE.



Iturria: EUSTAT. LBI. Datu-bankua.

maila 5,9koa da, eta murritzagoa emakumezkoen artean (5,7) gizonezkoen artean baino (batez beste 6 puntu).

Enpresan edo organizazioan zenbait baimen eskatzeko zailtasun-mailari dagokionez, datuek erakusten dute zailtasunek gora egin dutela, baimen modalitate guztietan, 2010-2017 aldian. EUSTATeko inkestak agerian jartzen du lana duten pertsonek batez beste 3,7ko zailtasun-maila adierazten dutela 10 punturen gainean (2,6 2016an), eta 2,5ekoa lanean huts egin ahal izateko, gai partikularrak konpontze aldera. EUSTATen inkestak erakusten duenez, landunek, batez beste, 3,7ko zailtasun maila orokorra adierazten dute 10etik (2,6 2010ean), eta 2,5ekoa, zehazki, norberaren gaietarako lanera ez agertzeko baimena eskuratzeko (1,4 2010ean). Lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzeko neurrien artean, eszendentziek, batez beste, 4,4ko zailtasuna dute (3,2 2010ean), eta gauza bera lanaldi murrizketan, hor ere 4,5eko zailtasuna (3,2 2010ean), eta lanik eta soldatarik gabeko egunek 3,3ko zailtasuna dute 10etik (2,4 2010ean). Oro har, ez da alderdik ikusten sexuen arabera, eta adinak, ziur aski lanpostuko antzinatasunari lotuak, aipatutako kontziliazio-neurriak lortzeko zailtasunak murrizten ditu. Hala ere, emakumeak (2,7 10eko eskalan) eta gizonak (3,5 10eko eskalan) beldur dira kontziliazioarekin lotutako alderdiek beren ibilbide profesionalean eragina izan ote lezaketen.

IV.1.8. GRAFIKOA. LANALDIAREN ETA KONTZILIAZIORAKO ORDUTEGIEN MALGUTASUNAREN GAINEKO GOGOBETETASUN MAILAREN (10ETIK) BILAKAERA, SEXUEN ARABERA. EAE.



Iturria: EUSTAT. LBI. Datu-bankua.

Bestalde, ordutegi motei eta malgutasunei dagokienez, EAEko langileen %21,6k lanaldia luzatu behar du ia egun guztietan (eta %17,6 zenbait alditan). 2016aren aldean, % 0,7 egin du gora lanaldia (ohiko edo lantzean behingoa) luzatu

behar duten pertsonen ehunekoak. Irteteko ordutegi malgua, hau da, bateratzea hobetzeko beste baliabide osagarria, langileen %34,6k erabiltzen du, eta emakumeek (%31,4) gizonezkoek (%37,67) baino gutxiago. Norberaren etxean lan egiteari dagokionez, %8,3k lantzean behin egiten du lan etxean eta %5,5ek egun erdia gutxienez. Beraz, oro har, lana duten pertsonen %13,8k lantzean behin egiten du lan, edo maizago, etxean (%16,8k 2016an).

2010. urtetik langileek lanaldiarekin eta ordutegien malgutasunarekin duten asebetetasun mailari berdintsu eutsi zaio, eta sexuarengatiko aldeak oso txikiak dira. Gizonen artean, pixka bat behera egin du lanaldiarekin duten asebetetasun mailak: 2010ean 10etik 7,1 izatetik 2017ko 7 izatera. Aldi berean, igoera oso txikia izan da (6 eta 6,4 bitartean) ordutegien malgutasunari dagokionez. Emakumezkoetan, lanaldiarekin duten asebetetasuna maila 7,2tik 7,3ra igaro da. Ordutegien malgutasunean, berriz, asebetetasun maila txikiagoa da gizonetan, gora egin badu ere, azken urtean gizonezkoaren parean jarri arte: 5,9 2010ean eta 6,3 2017an.

Baldintza horien ondorioz, inkestak nabarmentzen du ezen, bikotekide biek lan egiten duten familietan, senideek edo ordaindu gabeko pertsonek zaintzen dituztela seme-alabak lanaldiak iraun bitartean eta eskola-ordutegitik kanpora kasuen %40,4an. Kasuen 41,8an, berriz, bikotekide biek zaintzen dituzte seme-alabak, eta %5,7an ordaindutako beste pertsona batzuei dagokie zaintza. Zaintza-lan horietan, berebiziko eginkizuna betetzen dute aitita-amamek: 2016ko Eusko Soziometroak erakusten duenez, ilobak dituztenei galdera eginda (laginaren %20), %20k dio egunero zaintzen dituela ilobak, eta %23k dio hainbat alditan astean. %10ek hilean zenbait alditan zaintzen ditu.

Mendekotasuna duten pertsonak familian zaintzeari dagokionez, era berean, hauxe erakusten du Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoko Kabineteak eginiko "Adinekoak 2018" txostenak, 2017ko datuak erabiliz: gizonen % 59k eta emakumeen % 61ek uste dute ezen, aurreko belaunaldien aldean, adineko gurasoak gutxiago zainduta daudela gaur egun, eta balorazio hori, gainera, oso antzekoa da adin-tarte guztietan (betiere % 50etik gorako ratioekin).

1.3.2. Familiei laguntzeko politika publikoak

Azaldutako egoera horiek arintzeko, familiei laguntzeko planak abiarazi zituen Eusko Jaurlaritzak 2002an, zertarako- eta familiek seme-alaba kopurua askatasunez erabakitzea galarazten duten eragozpen ekonomikoak eta gizarte eta laneko eragozpenak gainditzeko. Hala, Familiei Laguntzeko Legea onetsi zuen 2008an, eremuari lerrun juridiko handiagoa emateko eta familia politika integralerako oinarriak ezartzeko, betiere familien eta familiako kideen ongizatea eta bizi-kalitatea hobetze aldera.

Familientzako zuzeneko laguntzak 2002an hasi ziren I. Familia Planarekin. Familientzako zuzeneko laguntzak 2002an hasi ziren I. Familia Planarekin. Harrezkero, 2015era arte, 640 milioi euroko gastuak izan dira laguntza horietan, gutxi gorabehera erdibana banatuta jaiotza, adopzio edo aurre-adopzioko harrerarako laguntzen eta bateratzeko laguntzen artean.

2011ko abenduan EAEko Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko III. Plana onetsi zen 2011-2015 aldirako eta, gutxi gorabehera 674,6 milioi euroko aurrekontua izanik, familia politiken gaineko zeharkakotasun handiagoa eman zaio aurreko bi planekin alderatuta. Hartara, sailen eta erakundeen arteko lana indartu da. Lehendik dauden neurriak nahiz neurri berriak modu koherentean ordenatu nahi ditu, printzipio honen inspirazioarekin: lana, familia eta norberaren bizitza uztartzea familiako eta gizarteko kide guztiei dagokie, denok baitaukagu erantzukizun maila handiago edo txikiagoa. Hura garatzearen ondorioz[9], planaren indarraldian 133,3 milioi euro erabili dira seme-alaben jaiotzagatik eta mantenuagatik, hain zuzen ere guztira 157.738 espedientetan. Uztartzeko laguntzek, bestalde, 136,3 milioi euroko gastua ekarri dute, eta guztira 97.086 onuradun izan dira. Espedienteen aldetik nahiz gastuaren aldetik, adingabeak zaintzeko bateratze-laguntzei dagokie %96 eta, beraz, presentzia txikia dakar berekin beste bi lerroetan (menpekoak zaintzeko bateratze-laguntzak eta zaintzaileak kontratatzeko laguntzak). Laburbilduz, azterturiko familientzako laguntzen bi lerroetan, 2011-2015 aldian 270 milioi euroko gastua izan da, gutxi gorabehera %50a bakoitzean.

[9] *III. Familia Planaren balantzeari buruzko xehetasun gehiago nahi izanez gero, jo beza irakurleak 2017ko Memoria Sozioekonomikora.*

2016-2017 biurtekoa dela-eta, ekitaldi horietako "EAEko Sektore Publikoko Urteko Kontuak" direlakoetan bildutako kopuruak daude, hain zuzen ere "Familiei babesa, arreta eta laguntza emateko zuzeneko ekintzako neurriak" atalekoak, baita Ogasun eta Ekonomia Saileko aurrekontuko likidazioei dagozkienak ere.

IV.1.9. GRAFIKOA. SEME-ALABEN JAIOTZAGATIK EDO ADOPZIOAGATIK EAE-N DAUDEN LAGUNTZAK. ESPEDIENTEEN ETA GASTUAREN BILAKAERA, MILA EUROTAN



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gek egina.

2017an, azken urtean (informazioa dugun azken urtea, beraz), Eusko Jaurlaritzak familiei laguntzeko 63,7 milioi euroko laguntza eman zuen, 2016an baino % 5,8 gehiago. Diru-kopuru horretatik, guztizkoaren % 48,8 seme-alabak dituzten familiei laguntzeko erabili ziren, eta gainerako 32,6 milioiak (guztizkoaren % 51,2, eta aurreko ekitaldiko zenbateko bera) lana, bizitza pertsonala eta familia bateratzeko laguntzetarako.

Onuradunen kopuruari dagokionez, partida bera erabili zen 32.666 familiarentzat (+% 9,4 2016aren aldean). Bateratzeko laguntzak, berriz, 15.323 langilek jaso zituzten (-% 9,1ek).

IV.1.10. TAULA. KONTZILIAZIORAKO LAGUNTZAK. ONURADUNAK ETA GASTUA, EAE, 2013-2017.

	2013	2014	2015	2016	2017	16/17 ald %
ONURADUNAK						
Adingabeak zaintzea	18.751	15.353	16.722	16.088	14.620	-9,1
Mendek. dutenak zaintzea	353	340	379	370	388	4,9
Zaintzaileak kontratatzea	403	365	425	402	315	-21,6
Guztira	**19.507**	**16.058**	**17.526**	**16.860**	**15.323**	**-9,1**
EGINIKO GASTUA (€)						
Adingabeak zaintzea	16.390.263	16.784.200	29.063.742	31.915.190	31.062.000	-2,7
Mendek. dutenak zaintzea	324.416	349.013	313.159	381.990	1.115.100	191,9
Zaintzaileak kontratatzea	150.473	169.754	278.129	279.920	400.00	42,9
Guztira	**16.865.152**	**17.302.967**	**31.362.487**	**32.577.100**	**32.577.100**	**0,0**

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Ogasun eta Ekonomia Saila. Geuk egina.

IV.1.11. FAMILIEN ETA HAURREN ALDEKO EUSKAL ITUNA. KONPROMISOEN DEKALOGOA (2018KO URTARRILA)
1. Baliabideak ematea seme-alabak dituzten familia guztiei eta haurren pobreziaren kontrako neurriak hartzea, betiere familia aniztasuna errespetatuz. 2. Erraztasunak ematea gurasoek beharrezko denbora eman dezaten seme-alabekin; hartara, gizarte denboraren antolamendu egokiagoa sustatuko da eta baterako antolakuntza erraztuko da. 3. Gazteen emantzipazioa eta bizitza-proiektu autonomoak erraztea, familia unitate berriak bideratzeko, nahi izanez gero seme-alabak izan ditzaten. 4. Gurasotasun positiboko, haurren osasuneko, gatazken aurrezaintzako eta familia bitartekotzako programak indartzea, gurasoen ahalmenak eta hezkuntza gaitasunak indartzeko. 5. Erraztasunak ematea haur guztiek haurrentzako kalitatezko zerbitzuak jaso ditzaten, zerbitzu eskuragarriak izan daitezen. 6. Hezkuntza politikak birbideratzea eta eskola sistema inklusioa eta baterako hezkuntzarako sistema sakontzea, gizartearen eta ekonomiaren aldetik desabantailan dauden ikasleen zailtasunak konpentsatzeko eta ekitatea bermatzeko. 7. Erraztasunak ematea haurrek eta gazteek gizarte-hezkuntzako, kiroleko, kulturako eta aisialdiko baliabideen eskaintza zabalagoa eskura dezaten baldintza berdinetan. 8. Politika publikoei eragiten dieten arloen askotariko izaera dela-eta lankidetza lehenestea: genero ikuspegia, hezkuntza, berdintasuna, osasuna, etxebizitza, gizarte zerbitzuak, kultura edo enplegua. 9. Arlo horiekin loturiko eragile pribatuak sentsibilizatzea, bereziki laneko harremanetan parte hartzen dutenekin hala nola sindikatuekin eta enpresa elkarteekin. 10. Familien eta haurren politikaren gobernantza hobetzea.
Iturria: Eusko Jaurlaritza. Lehendakaritza.

III. Planaren bilakaera familien aldeko politikei buruzko gogoetarako abiapuntua izan zen, baita 2018an EAEko administrazio guztietarako sinaturiko "Familien eta haurren aldeko ituna" sinatzeko ere. 2017ko abenduan, Familiaren Euskal Kontseiluak "Familien eta aurren Aldeko Ituna" erabaki zuen, ondoren 2018ko urtarrilean izenpetua EAEko administrazioentzat (ikusi IV.1.11. taula). Familiei Laguntzeko IV. Pana sortzeko balio izan duen diagnostiko partekatua da itun horren oinarria, eta alderdi hauetan zehazten da.

- Euskadiko haurren egoera, oro har, ona da: haurrek eta nerabeek, oro har, bizi-baldintza egokiak dituzte.
- Aldaketak daude familien eraketan eta familia-ereduen dibertsifikazioan.
- Jaiotze-tasak beherantz jarraitzen du (ugalkortasunaren susperraldia hastearekin bateragarria), baita gazteek emantzipatzeko eta biztanleek ugaltzeko dituzten igurikapenak gauzatzeko ere.
- Zailtasunak daude oraindik ere lana eta familia bateratzeko, eta bere horretan diraute genero-desberdintasunek ugaltzeko eginkizunak hartzeko eta gizonek zaintza lanetan duten baterako erantzukizuna.
- Bere horretan dirau etxean umeak egotearekin lotutako pobrezia diferentziak, eta horrek haurren pobrezia areagotzen du.
- Europa osoan gora egin du mugikortasun sozialerako zailtasunen eta desberdintasuna belaunaldi batetik bestera igarotzearen gaineko kezkak.
- Familiaren ingurune sozioekonomikoa determinantea da orain ere ikasleen emaitza akademikoen aldetik, EAEko hezkuntza sistemak berdintasunaren ikuspuntutik emaitza onak izan arren.
- Estaldura-tasa handiak daude 0-3 urteko umeei arreta emateko zerbitzuetan.
- EAEko gastu maila txikiak dira haurren eta familiaren arloetan EBko herrialdeetako batez bestekoaren aldean.
- Prestazio ekonomikoen sistema ez da oso lagungarria haurrentzat; pobrezia behar baino gutxiago murrizten du seme-alabak dituzten familien artean.
- Lana eta familia bateratzeko prestazio eredu hobea behar da.
- Herritarrei laguntzea, administrazioek parte hartze handiagoa izan dezaten seme-alabak dituzten familiei laguntzeko.

Diagnostiko horri esker, familiei laguntzeko plan berria definitu ahal izan da 2018-2022 aldirako, tartean diren eragileek adostuta, eta ondoren 18 helburutan eta 116 ekintzatan[10] garaturiko 5 ardatz identifikatu dira. Hona hemen ardatzak:

[10] *Plan honi buruzko xehetasun handiagoa nahi izanez gero, irakur bedi Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Politiketako Sailaren web orria: http://www.euskadi.eus/contenidos/plan_departamental/20_plandep_xileq/es_def/adjuntos/IV%20Plan%20Interinstitucional%20de%20Apoyo%20a%20las%20Familias%20de%20la%20CAE%202018_2022*

i. Gazteen emantzipazioa eta familia berrien eraketa erraztea.
ii. Bizitza pertsonala, familia eta lana bateratzea erraztea, baita emakumeek eta gizonek seme-alabak zaintzeko lanetan duten baterako erantzukizuna ere.
iii. Familiei laguntzea.
iv. Haurren eta nerabeen ongizatea sustatzea.
v. Familien eta haurren aldeko politiken lidergoa eta gobernantza bultzatzea.

Plan berriak 460 milioi euroko gastua aurreikusten du Gizarte Politiketako Sailburuordetzaren neurrietan, bereziki familia eta lana bateratzearen arloan (286 milioi euro), eta horri gehitu behar zaizkio seme-alabak dituzten familientzako errentak bermatzeko politiketarako eta gazteen enplegurako programetarako 785 milioi. Halaber, 220 milioi erabiliko dira Haurreskolen Partzuergorako, 250 milioi beketarako, 50 milioi gehiago gazteentzako etxebizitza politiketarako, 1.575 milioi seme-alaben ziozko zerga-kenkarietarako eta 415 milioi euro Gizarte Zerbitzuetan.

Planaren segimendua egingo da Memoria Sozioekonomiko honen hurrengo edizioetan, eta honako eragin-adierazle hauek lortu beharko ditu 2022an:

- ✓ Haurren pobrezia-tasa % 20 gutxitzea.
- ✓ 25-44 urtekoen okupazio-tasa % 80raino igotzea.
- ✓ 1,50eraino handitzea EAEko emakumeen ugalkortasun-adierazle koiunturala.
- ✓ % 25 igotzea eskolatze-tasa garbiak urtebeteko haurren artean.
- ✓ Gutxienez % 50 murriztea etxeko lanetan dagoen aldea.
- ✓ Gazteen emantzipazioko batez besteko adina gutxitzea eta 25-29 gazteen emantzipazio-tasa handitzea

ITURRIAK

1. **EUROSTAT**: Bizi-baldintzen estatistika (UE-SILC). 2017ko datuak. Urterokoa. Abagunekoa.
2. **EIN**: Bizi-baldintzei buruzko inkesta. 2017ko datuak. Urterokoa. Abagunekoa.
3. **EUSKO JAURLARITZA**: Eusko Soziometroa, 62, EAEko familiari buruzkoa. 2016ko datuak. Bi urterik behingoa. Estrukturala.
4. **EIN**: Ugalkortasunari buruzko inkesta 2018. Emaitzen aurrerapena. Unekoa. Estrukturala.
5. **EUSTAT**: Lana, Bizitza Pertsonala eta Familia uztartzeari buruzko inkesta. 2017ko datuak. Urterokoa. Estrukturala.
6. **EUSKO JAURLARITA.** Prospekzio Soziologikoko Kabinetea. Adinekoak (2018). 2017ko datuak. Unekoa.
7. **EUSKO JAURLARITZA**: Ogasun eta Ekonomia Saila. EAEko Sektore Publikoaren Urteko Kontuak, 2016 eta 2017. Urterokoa. Abagunekoa.
8. **EUSKO JAURLARITZA**: Ogasun eta Ekonomia Saila. 2016ko eta 2017ko aurrekontuko likidazioak Jarduketen memoriak. Urterokoa. Abagunekoa.
9. **EUSKO JAURLARITZA, LEHENDAKARITZA**: Lehendakariak Familien eta haurren aldeko Euskal Ituna sinatzean emandako diskurtsoa (2018ko urtarrilaren 18an).
10. **EUSKO JAURLARITZA**: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Familiei laguntzako IV. Plana 2018-2022.
11. **EUSKO JAURLARITZA**: Familien eta etxeen inkesta 2015eko datuak. Aldizkakotasun ezezaguna (berria da). Estrukturala.

2. GIZARTE BABESA

Laugarren kapituluko bigarren atal honetan, gure Erkidegoko Gizarte Babesa osatzen duten eremu nagusien gaineko gainbegirada egingo dugu. Lehenik eta behin, EAEn gizarte babesean eginiko gastua berrikusiko dugu, eta EUSTATek EBren metodologia jarraituz eginiko kontuak emango ditugu. Ondoren, Gizarte Segurantzaren prestazioak eta pobreziaren eta gizarte bazterkeriaren kontrako borrokarako tresnak aztertuko dira, Diru-sarrerak Bermatzeari eta Gizarteratzeari buruzko 18/2008 Legearen ondoriozkoak. Jarraian, estatuko legearen ondoriozko mendetasunaren arretarako sistema EAEn ezartzeari buruzko ebaluazioa egingo da eta, azkenik, Euskadiko gizarte aurreikuspeneko sistema osagarrien zenbaki handiak aztertuko dira.

Bestalde, Europako Batzordearen 458/2007 Erregelamenduan giza babesa sartzen deneko eremuetan sailkapenean, beren beregi sartzen dira langabeziako prestazioak. Hala ere, horiei buruzko informazioa (Estatuko Enpleguko Zerbitzu Publikoak-SEPE- kudeaturiko Gizarte Segurantzaren prestazioak) Memoria Sozioekonomiko honetako III. Kapitulura ekartzea aukeratu da ("III. Kapitulua. Lan Merkatua., zertarako eta enpleguari buruzko politiken gaineko ikuspegi osoa izateko, betiere politika aktiboak eta pasiboak batera aztertuta.

2.1. GIZARTE BABESAREN KONTUA

Gizarte Babesaren Estatistiken Europako Sistemaren (SEEPROS) arabera, Gizarte Babesa honela definitu behar da: "erakundeek gauzatutako jarduera guztiak, arrisku edo beharrizan jakin batzuek etxebizitzei eta norbanakoei sorrarazitako kargak arintzeko helburu dutenak, betiere aldibereko hitzarmenik, elkarrekikorik edo banakakorik ez bada[11].

Gizarte babesaren arloko beste estatistika batzuetan ez bezala, adibidez Gizarte Segurantzaren Sistemetako erakundeek buruturiko ekintzak baizik biltzen ez dituen Lanaren Nazioarteko Bulegoarenean, SEEPROS metodologian edozein erakundetara zabaltzen da behaketaren eremua, publikoa nahiz pribatua izan, baldin eta definizio orokorreko beharkizunen araberako gizarte babeseko ekintzak burutzen baditu. Kontzeptu hau definizioan aipatzen diren arriskuen eta beharren zerrendarekin osatzen da; funtzio deritze horiei guztiei. Honako hauek dira: Gaixotasuna / Osasun arreta, Baliaezintasuna, Zahartzaroa, Bizirik irauten dutenak, Familia / Seme-alabak, Langabezia, Etxebizitza, beste inon sailkatuta ez dagoen gizarte bazterkeria.

IV.2.1. TAULA. GIZARTE BABESEKO GASTUA EAE-N. ADIERAZLE NAGUSIAK

	2008	2012	2013	2014	2015	2016	2017*	15/16 %	16/17 %*
GASTUA, GUZT. (MILIOI EUROTAN)	13.798	16.349	16.770	16.765	17.058	17.397	17.870	2,0	2,7
%REN GASTUA BPG-AREN GAINEAN	19,8	24,5	25,4	24,9	24,9	24,4	24,2	-0,5**	-0,2**
GASTUA BIZTANLEKO EUROTAN	6.402	7.498	7.707	7.715	7.852	8.003	8.204	1,9	2,5
GASTUA BIZTANLEKO PKK-TAN	6.744	7.883	8.180	8.341	8.742	8.682	..	-0,7	..
GASTUA PRESTAZIOETAN (MILIOI €)	13.500	16.050	16.467	16.471	16.770	17.132	17.608	2,2	2,8
- GAIXOTASUNA/OSASUN ARRETA	4.168	4.151	4.110	4.183	4.317	4.446	4.632	3,0	4,2
- ZAHARTZAROA	5.230	6.459	6.716	6.862	7.096	7.406	7.698	4,4	4,0
- LANGABEZIA	1.027	1.774	1.873	1.530	1.241	1.081	1.000	-12,9	-7,5
- BESTE BATZUK	3.075	3.666	3.768	3.896	4.116	4.199	4.278	2,0	1,9
GASTUA UNIT. INSTITUZIONALEKO									
-GIZARTE SEG. ETA ESTATUAREN ADM.	8.169	9.910	10.217	10.272	10.284	10.480	..	1,9	..
- EUSKAL ADMINISTRAZIOAK	4.522	5.176	5.147	5.243	5.512	5.676	..	3,0	..
- ERAKUNDE PRIBATUAK	1.108	1.263	1.405	1.250	1.261	1.242	..	-1,5	..

Iturria: EUSTAT. Gizarte Babesaren Kontua EAEn. Geuk egina.
** Behin-behineko datuak. ** Aldea portzentajezko puntuetan.*

[11] *Ikusi terminoen glosarioa Memoria honen amaieran.*

EUSTATen 2017ko "EAEko Gizarte Babesaren Kontua"ren azken datuen arabera, Euskadin eginkizun horretarako erabilitako baliabideak 17.870 milioi euro izan ziren aipaturiko urtean, 2016an baino %2,7 gehiago (2016an baino 473 milioi euro gehiago). Hots, urte horretako BPGd-aren %24,2 (+%4,4 2008aren aldean eta -%0,2 2016arekiko), behin-behineko datuak erabiliz. Gizarte babesaren gastuak etengabe egin du gora eskuragarri dugun urteetako seriean, eta biztanleko gastua 6.402€ izan zen 2008an. 2017an, berriz, 8.204 euro (+%31,2). Administrazio gastuak deskontaturik, gizarte prestazioen balioa, zenbatespenen arabera, 17.608 milioi euro da, 2016an baino %2,8 gehiago.

IV.2.1. GRAFIKOA. GIZARTE PRESTAZIOEN GASTUAREN BANAKETA EAE-N EGINKIZUNEN ARABERA. 2017.



Iturria: EUSTAT. Gizarte Babesaren Kontua.

Funtzioen araberako prestazioen gastuari buruzko azterketak erakusten dutenez, "Zahartzaroa" funtzioari dagokion gastua da pisurik handiena duena, ostatuko eta etxeko laguntzako prestazioak eta pentsioak barne dituela: 7.698 milioi euroko gastua da (2017ko behin-behineko datuak), guztizkoaren %44. 2016aren aldean, %4 egin du gora, %2,8ko batez besteko hazkundearen gainetik. Bigarren eginkizunik garrantzitsuena "Eritasuna/osasun arreta" da, 2017an 4.632 milioi euroko gastuarekin, guztizkoaren %26, eta 4,2 hazi da 2016aren aldean.

Unitate instituzionalen araberako gizarte babesaren gastuari dagokionez, 2016an (eskuragarri dugun azken datua), Gizarte Segurantzaren Sistemak eta Estatuaren Administrazioak egiten duten gastua % 60,2 da, eta % 1,9 hazi da aurreko urtearen aldean. Bestalde, Euskal Administrazioen gastua % 32,6 da, orotara 5.676 milioi euro, 2015ean baino % 3 gehiago. Gainerakoa, 1.242 milioi euro, erakunde pribatuek egiten duten gastuari dagokio.

IV.2.2. GRAFIKOA. GIZARTE BABESEKO PER CAPITA GASTUAREN BILAKAERA (€ PPK-ETAN)



Iturria: EUSTAT. Gizarte Babesaren Kontua.

Euskal administrazioen barruan, Eusko Jaurlaritzak osaturiko gizarte zerbitzuen sistema publikoa da, Lanbide, Foru Aldundiak eta Tokiko Administrazioak barne. Horien gastua % 4,0 handitu zen, 2015eko 2.053 milioi eurotik 2016ko 2.136 milioi eurora.

Bukatzeko, EUROSTATek argitaraturiko azken datuak aztertuta ikusten denez, gizarte babeseko per capita gastua Euskadin, eroste-ahalmenaren parekotasunaren arabera neurtuta, 8.682 eurokoa izan zen 2016an, hau da, EBko batez bestekoaren (8.232 euro) eta Estatuko batez bestekoaren (5.852 euro) gainekoa.

2.2. GIZARTE SEGURANTZAKO PRESTAZIOAK[12]

IV.2.2. TAULA. GIZARTE SEGURANTZAKO PRESTAZIOAK EAE-N MOTAREN ARABERA LABURPEN-TAULA							
	2014	2015	2016	2017	2018	16/17 %	17/18 %
ONURADUNAK (URTEKO B.B.)							
-KOTIZAZIOPEKO PENTSIOAK	477.180	482.855	488.614	494.736	501.398	1,3	1,3
-EZ KOTIZAZIOPEKO PENTSIOAK	10.772	10.991	11.298	11.587	11.796	2,6	1,8
GUZTIRA	487.952	493.846	499.912	506.323	513.194	1,3	1,4
- BIZNTANLERIAREN %-A	22,5	22,7	23,0	23,3	23,5	+0,3pp	+0,2pp
GASTUA (MILIOI EUROTAN)*							
-KOTIZAZIOPEKO PENTSIOAK	7.685,3	7.947,4	8.223,0	8.502,1	8.930,4	3,4	5,0
-EZ KOTIZAZIOPEKO PENTSIOAK	55,2	56,5	58,0	59,5	60,6	2,6	1,8
GUZTIRA	7.740,5	8.003,9	8.281,0	8.561,6	8.991,0	3,4	5,0
- BPG-AREN %-A	11,9	11,9	11,7	11,6	11,7	-0,8 pp	+0,1 pp

Iturria: ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAREN MINISTERIOAREN datuekin egina. Lan-estatistiken eta GIZARTE SEGURANTZAREN aldizkaria. Ekonomia eta finantza informazioa eta ESTADISS datu-basea.
(*) Zenbatespena da, ez dakigulako kotizaziopekoak ez diren pentsioetako gastuaren zenbateko zehatza.

2018. urtean, milioi erdi pertsona baino gehiago (513.194, lehen zenbatespenaren arabera) Gizarte Segurantzaren pentsio-sistemaren onuradun izan ziren gure autonomia erkidegoan (kontribuziozkoak eta ez-kontribuziozkoak). Kopuru hori aurreko urtekoa baino % 1,4 gehiago[13]). Azken urteetan gertatu den bezala, hazkuntza hori kotizaziopeko pentsioen onuradunak diren pertsonen bilakaeragatik izan da; izan ere, beste modalitateetan oro har oso kopuru txikiak izan dira. Hala, Gizarte Segurantzak emandako prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten EAEko biztanleen ehunekoa 23,5era heldu zen, aurreko urtean baino 2 hamarren gehiago.

Kotizaziopeko pentsioei dagokienez (onuradunen % 97,7 eta gastuaren % 99,3 dira), batez beste 501.398 onuradun zeuden 2018an (+% 1,3), eta orotara 551.326 pentsio jasotzen zituzten (+% 1,4), zeren eta pertsona bat kotizaziopeko pentsio baten baino gehiagoren onuraduna izan baitaiteke. Urteko gastua, berriz, 8.930,4 milioi eurokoa izan zen, 2017an baino % 5 gehiago. Kotizaziopekoak ez diren pentsioek, bestalde, 11.796 lagun hartzen zituzten 2018an, eta urteko gastua, gutxi gorabehera, 60,6 milioi eurokoa zen.

Labur esanda, EAEn pentsioetako gastua 2018an, behin-behineko datuak erabilita, 8.991 milioi eurokoa izan zen guztira, 2017an baino % 5 gehiago. Hortaz, BPGd-an duen portzentajea hamarren bat handitu da, % 11,7ra (EUSTATen behin-behineko datuak kontuan hartuta).

2.2.1. Transferitu gabeko kudeaketa duten prestazioak

a) Pentsioen eta onuradunen kopurua

2018an 501.398 pertsona izan ziren Gizarte Segurantzaren kotizaziopeko pentsioen onuradunak EAEn, estatuko % 5,7 eta aurreko urtean baino %1,3 gehiago. Sexuaren arabera, %50ean daude banatuta (gizonak % 52,3 dira urteko batez bestekoan). Pentsio mota bakoitzeko, ezintasun iraunkorragatiko jasotzaile kopuruak egonkor eutsi dio azken urtean,

---

[12] *Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak kudeatzen dituen transferitu gabeko Gizarte Segurantzaren prestazioak bi motatakoak dira:*

- *Ordaindutakoaren araberakoak, arestian kotizatu den denborari eta zenbatekoari jarraiki zehaztutakoak, iraupen mugagabea dute eta gizarte babesean gutxi gorabehera datu guztiaren % 50 dira. Prestazio horien eginkizuna honako hau da batez ere: baldintza jakinak betez prestazio horren eskubidea lortu duten pertsonei errentak lortzeko orduan jarraitutasuna bermatzea laneko bizitza amaitzea eragin dezaketen arriskuen ondorioz errenta horiek eteten direnean.*
- *Ordaindutakoaren araberakoak ez diren prestazioak, esate baterako, erretiro eta baliaezintasun pentsioak (ordaindutakoaren araberakoak ez direnean) eta amatasunagatiko eta familiek jasotzen dituzten prestazioak.*

[13] *Kalkulutik kanpo gelditu dira laguntzako pentsioak eta MGLren ondoriozko prestazioak; desagertzeko joera dute, eta ez dago horiei buruzko informazio eguneraturik. Nolanahi ere, guztizkoarekiko pisua % 0,4 baino txikiagoa da.*

baina erretiroagatiko jasotzaileak % 0,3 handitu dira, eta alarguntzagatiko jasotzaileak % 1 gutxitu da. Azkenik, zurztasunagatiko kotizaziopeko pentsioen pertsona jasotzaileen kopurua %0,6 jaitsi da.

Bestalde, kotizaziopeko pentsioen kopurua 551.326 da (+%1,4 2017aren aldean, halako moldez non pentsioen ratioa hartzaile bakoitzeko, urteko batez bestekoan, 1,1 baita; egonkor eutsi zaio ratio horri.

Pentsio horien batez besteko zenbatekoa hilean 1.173,80 eurokoa da (Estatuko batez bestekoa baino %24,3 gehiago), hots, %2,7ko igoera 2017aren aldean. Erretiroaren ziozko pentsioari dagokionez (horixe jasotzen dute Gizarte Segurantzako kotizaziopeko pentsioen hartzaileen %64,4k), eta haren batez besteko zenbatekoa, 2018an, 1.347,30€ da hilean, 2017an baino %2,5 gehiago.

IV.2.3. TAULA. GIZARTE SEGURANTZAREN KOTIZAZIOPEKO PENTSIOAK EAE-N: PENTSIOEN ETA ONURADUNEN URTEKO BATEZ BESTEKO KOPURUAREN BILAKAERA

	(A) PENTSIOAK	(B) PENTSIODUNAK	A/B RATIOA
2014	523.895	477.180	1,1
2015	530.202	482.855	1,1
2016	536.718	488.614	1,1
2017	543.716	494.736	1,1
2018	551.326	501.398	1,1
16/17 %	1,3	1,3	-
17/18 %	1,4	1,3	-

Iturria: GIZARTE SEGURANTZA. eSTADISS datu-basea.

Gainerako pentsioen batez besteko zenbateko guztiek ere gora egin zuten 2018an: alarguntasun pentsioek %3,2, ezintasun iraunkorrekoek %1,2 eta zurztasunekoek %2,4, eta batez bestekoak 795,20€, 1.212,90€ eta 488,80€ dira, hurrenez hurren.

IV.2.4. TAULA. GIZARTE SEGURANTZAREN KOTIZAZIOPEKO PENTSIOEN KOPURUAREN BILAKAERA EAE-N ETA HORREN BATEZ BESTEKO ZENBATEKOA

	2014	2015	2016	2017	2018	2018 %*	LGS.rek. % 2018	16-17 %	17-18 %
Pentsio kopurua									
GUZTIRA	**523.900**	**530.200**	**536.700**	**543.700**	**551.300**	**100,0**		**1,3**	**1,4**
EZINTASUN IRAUNKORRA	42.800	42.500	42.500	42.800	42.900	7,8		0,7	0,2
ERRETIROA	328.800	334.600	341.000	347.700	355.200	64,4		2,0	2,2
ALARGUNTASUNA	134.800	135.200	135.300	135.200	135.400	24,6		-0,1	0,1
ZURZTASUNA/FAMIL. ALDE	17.500	17.900	17.900	17.900	17.800	3,2		0,0	-0,6
B.b. zenbatekoa (euro/ hileko)									
GUZTIRA	**1.076,6**	**1.098,2**	**1.120,5**	**1.142,6**	**1.173,8**	**100,0**	**159,5**	**2,0**	**2,7**
EZINTASUN IRAUNKORRA	1.171,0	1.181,7	1.190,9	1.198,6	1.212,9	103,3	164,8	0,6	1,2
ERRETIROA	1.235,5	1.262,8	1.289,4	1.314,8	1.347,3	114,8	183,1	2,0	2,5
ALARGUNTASUNA	739,3	748,8	758,7	770,3	795,2	67,7	108,1	1,5	3,2
ZURZTASUNA/FAMIL. ALDE	458,9	462,2	468,8	477,3	488,8	41,6	66,4	1,8	2,4

Iturria: ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAREN MINISTERIOAREN "Lan-estatistiken aldizkaria" oinarri hartuta eginikoa.
** Ehuneko bertikalak % 100 gisa pentsio guztiak eta prestazioen batez besteko zenbatekoa hartuta.*

Erretiroaren ziozko pentsioak ardatz hartuta, EAEko pentsiodunen taldeko gehienek jasotakoak onuradun guztietatik, 341.000 ziren 2018an, %62,8 gizonak eta %37,2 emakumeak. Alde hori murriztuz doa urtez urte, eta zehazki, 1,2 puntu 2017 eta 2018 bitartean.

IV.2.5. TAULA. ERRETIRO PENTSIOEN ZENBATEKOA EAE-N: GUZTIZKO BATEZ BESTEKO PENTSIOAREN ETA ALTA BERRIEN BILAKAERA, SEXUAREN ARABERA. URTEKO BATEZ BESTEKOAK EURO/HILEKO

	ERRETIRO PENTSIOAK, GUZTIRA			ERRETIRO PENTSIO BERRIAK			GIZON/EMAKUMEEN DIF. %*	
	GIZONAK	EMAK.	GUZTIRA	GIZONAK	EMAK.	GUZTIRA	PENTSIO GUZTIAK	ALTAK
2009	1.290,17	642,81	1.069,47	1.624,05	844,30	1.359,46	100,7	92,4
2014	1.479,28	789,00	1.235,52	1.808,73	1.283,69	1.627,13	87,5	40,9
2015	1.507,19	821,44	1.262,75	1.830,44	1.352,84	1.657,86	83,5	35,3
2016	1.533,79	856,81	1.289,44	1.807,41	1.369,01	1.633,74	79,0	32,0
2017	1.559,16	892,07	1.314,79	1.804,23	1.367,64	1.629,89	74,8	31,9
2018	**1.592,25**	**934,43**	**1.347,32**	**1.795,91**	**1.389,02**	**1.625,28**	**70,4**	**29,3**
16/17 ald. %	1,7	4,1	2,0	-0,2	-0,1	-0,2	-4,2	-0,1
17/18 ald. %	2,1	4,7	2,5	-0,5	1,6	-0,3	-4,4	-2,6
09/18 ald. %	23,4	45,4	26,0	10,6	64,5	19,6	-30,3	-63,1

Iturria: GSNE-ren datu-basea. Geuk egina.
** Gizonen batez besteko pentsioa emakumeen batez besteko pentsioa handiagoa deneko ehunekoa.*

Sexuaren araberako aldeak aztertuta, pentsio horien zenbatekoetan eta 2018rako batez besteko datuekin, gizonezkoen erretiroko pentsioa EAEn emakumeena baino %70,4 handiagoa zen. Ratio hori urtez urte jaisten ari da (Izan ere, 30 puntutan murriztu da azken hamarkadan). Batez besteko zenbateko horiek urtean eginiko alta berrien pentsioen arteko erkaketa eginda, aldea %29,3koa zen 2018an, hori ere baxuena serie historiko osoan.

Halaber, erretirodunen talde osoaren batez besteko pentsioak eta erretiroan sartu diren azken pertsonak erkatuz ikusten denez, erretirodun berriek batez beste % 20,6 gehiago kobratu zuten 2018an (% 2,4 2017an) erretirodunen talde osoak baino.

2018ko abenduaren 31n, bestalde, EAEko batez besteko pentsioa 1.195,93 eurokoa zen, eta % 3,8 egin zuen gora 2017ko abenduaren aldean.

IV.2.6. TAULA, GIZARTE SEGURANTZAREN PENTSIOAK EAE-N, MOTAREN ARABERA. ONURADUNAK ETA BATEZ BESTEKO ZENBATEKOA, SEXUAREN ARABERA, 2018KO ABENDUAREN 31N.

	ONURADUNAK			B.B. ZENBATEKOA (€)		
	GIZONAK	EMAK.	GUZT. *	GIZONAK	EMAK.	GUZT.
EZINTASUN IRAUNKORRA	28.873	14.031	42.904	1.303,87	1.058,20	1.223,53
ERRETIROA	224.618	135.167	359.788	1.613,78	959,86	1.368,11
ALARGUNTASUNA	8.810	126.629	135.440	619,72	835,05	821,04
ZURZTASUNA	8.174	7.222	15.396	470,72	467,59	469,25
FAMILIAREN ALDE	578	1.748	2.326	696,85	690,53	692,10
PENTSIO GUZTIAK	**271.053**	**284.797**	**555.854**	**1.512,03**	**895,07**	**1.195,93**

Iturria: GSNE-REN DATU-BASEA. Geuk egina.
**Ez dator bat gizonen eta emakumeen baturarekin, zenbait erregistrotan ez dagoelako jasota sexua.*

b) Gastua eta sarrera

Pentsioen gastu osoaren zenbatekoak % 5 egin zuen gora azken urtean, eta % 4,2 kotizaziopeko pentsioen urteko batez bestekoa, horren zenbatekoa biderkatuta kontuan hartzen badugu (ikus IV.2.7. taula). Kotizaziopeko pentsioen gastuaren bilakaera eta Gizarte Segurantzako langile afiliatuen kopurua erkatuz gero, pentsio horiek ordaintzeko, afiliatu bakoitzeko dakarren ahalegina zenbatetsi daiteke hileko eurotan. 2018an, 687,03 euro hilekoa zen, aurreko urtean baino % 2 gehiago, gora egin baitu pentsioen gastuak, eta kotizatzaileen kopuruak ere gora egin du, baina gutxiago.

V.2.7. TAULA. PENTSIOAREN ARLOKO AHALEGINAREN HURBILKETA EAE-N

	KOTIZAZIOPEKO PENTSIOAK (1)	B.B. ZENBAT, €/HIL. (2)	GUZT. ZENB., €/HIL. (3) = (1)*(2)	GIZARTE SEG. AFILIAT. * (4)	AHALEG.: €/HIL. AFILIATUKO (3) / (4)
2012	508.200	1.024,8	520.803.360	896.000	581,25
2013	516.600	1.057,3	546.201.180	868.600	628,83
2014	523.900	1.076,6	564.030.740	871.300	647,34
2015	530.200	1.098,2	582.265.640	888.300	655,48
2016	536.700	1.120,5	601.372.350	904.800	664,65
2017	543.700	1.142,60	621.231.620	922.200	673,64
2018	**551.300**	**1.173,80**	**647.115.940**	**941.900**	**687,03**
16/17 ald. %	1,3	2,0	3,3	1,9	1,4
17/18 ald. %	1,4	2,7	4,2	2,1	2,0

Iturria: ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAREN MINISTERIOAREN datuekin egina.
** Kotizatzaileak alta egoeran Gizarte Segurantzan.*

Beste alde batetik, 2017an (datu ofizialak eskuragarri dauden azken urtea) Gizarte Segurantzako Sistemak 6.812,8 milioi euro bildu zituen guztira EAEn, 2016an baino %3,3 gehiago, hau da, estatuan guztira bildutakoaren %6,3 (2016an %6,4). Zenbateko hori gure Erkidegoko urte horretako BPGd-aren % 9,2 da, behin-behineko datuen arabera (% 9,3 aurreko urtean). Hala, bildutako bolumen horretatik, 1.159,8 milioi Arabari dagozkio (%17), 2269,4 milioi Gipuzkoari (%33,3) eta 3.383,7 milioi Bizkaiari (guztizkoaren %49,71).

Zenbateko horren % 90,3 Gizarte Segurantzaren kuotei dagokie; gainerako % 9,7, aldiz, lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen mutualitateetatik ondorioztatutakoa da. %75en jatorria araubide orokorra da, eta guztira 5.108,5 milioi euro dira (+%4,2 aurreko urtearen aldean). Halaber, Gizarte Segurantzak Langabeziari, FOGASAri eta Lanbide Heziketari dagozkien kuotak ere biltzen ditu. EAEn horien zenbatekoa guztira 1.350 milioi euro izan ziren 2017an, aurreko urtean baino 552 gehiago.

IV.2.3. GRAFIKOA. GIZARTE SEGURANTZAKO KOTITZAILEEN* BILKEAREN BILAKAERA EAE-N



(*) Lanik gabe, LH eta FOGASA.

IV.2.8. TAULA. EAE-N GIZARTE SEGURANTZAKO DIRUZAINTZA NAGUSIAREN KUOTEN BILKETARI BURUZKO BILAKAERA EAE-N. MILIOI EUROTAN.

	BEHIN BETIKO DATUAK					ALDAK. %-A	
	2014	2015	2016	2017	Dist. 2017*	2015-16	2016-17
OROKORRA	4.740,6	4.790,3	4.903,9	5.108,5	75,0	2,4	4,2
AUTONOMOAK	696,2	693,4	696,1	704,3	10,3	0,4	1,2
ITSASOKO LANGILEAK	26,0	28,5	30,2	31,3	0,5	6,0	3,6
IKATZAREN MEATZARITZAKOAK	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
LI/LG KUOTAK (DIRUZAINTZA)	6,9	6,9	9,0	6,7	0,1	30,4	-25,6
EEZP-KO LANGABEAK	409,9	351,8	312,5	299,5	4,4	-11,2	-4,2
GSDO-KO KUOTAK (A)	**5.881,9**	**5.871,0**	**5.951,7**	**6.150,3**	**90,3**	**1,4**	**3,3**
L/LG-KO MUTUAK	402,6	408,3	424,2	443,9	6,5	3,9	4,6
ITC ARRUNTAK	191,7	202,8	212,3	214,1	3,1	4,7	0,8
JARDUERARI UZTEA	5,0	4,9	4,6	4,5	0,1	-6,1	-2,2
MUTUAK, GUZTIRA (B)	599,3	616,0	641,1	662,5	9,7	4,1	3,3
GS. SISTEMEN BILKETA, GUZT. (A+B)	6.481,2	6.487,0	6.592,8	6.812,8	100,0	1,6	3,3
LANGABEZIARAKO KUOTAK	1.071	1.100	1.140	1.190	17,5	3,6	4,4
FOGASA	28	28	29	30	0,4	3,6	3,4
LANBIDE HEZIKETA	119	122	126	130	1,9	3,3	3,2

Iturria: GIZARTE SEGURANTZA. Ekonomia eta finantza informazioa. GSDO: Urteko memoriak. Geuk egina.
****Ehuneko bertikalak, 2017. urtean sistemari dagokion diru-bilketa guztia % 100 hartuta (6.812,8 milioi euro).***

Gizarte Segurantzak EAEn dituen kotizaziopeko pentsioen gastua eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren kuoten bilketako kopuruak erkatuta ikusten denez, 2017an (bi datuak ditugun azken ekitaldia), gastua 8.502,7 milioi eurokoa zen gure zenbatespenen arabera. Sarrerak, berriz, 6.812,8 milioi eurokoak ziren eta, beraz, saldo negatiboa izango litzateke, 1.689,9 milioi euro; aurreko urtean -1.630,2 milioi ziren 2016an.

Kotizaziopeko pentsioen gastuen eta sarreren arteko bilakaeraren ondoriozko defizit horrek gora egin du, baina aurreko ekitaldietan baino gutxiago: 2017an, gastua %3,4 handitu zen, baina sarrerenak %3,3 hazi zirenez gero, kotizaziopeko pentsioen saldo negatiboa handitu eta larriagotu egiten da EAEn, 2016aren aldean %3,7 hazi baita. Izan ere, urte horretan %11,6ko gehikuntza izan zen.

IV.2.9. TAULA. KOTIZAZIOPEKO PENTSIOEN GASTUAREN BILAKAERA GSDO-REN KOTUEN BILKETAREN ZIOZ EAE-N (MILIOI EUROTAN)								
	2014	2015	2016	2017	2018*	2015/16 ald. %	2016/17 ALD. %	2017/18 ALD. %
GSDO-KO BILDUTAKO KUOTEN SARRERA	6.481,2	6.487,0	6.592,8	6.812,8	..	1,6	3,3	..
G.S. KOTIZAZIOPEKO PENTSIOEN GASTUA	7.685,3	7.947,4	8.223,0	8.502,1	8.930,4	3,5	3,4	5,0
SALDOA	-1.204,1	-1.460,4	-1.630,2	-1.689,9	..	11,6	3,7	..
SARRERA / GASTUA	0,84	0,82	0,80		..			
*Iturria: GIZARTE SEGURANTZA. Ekonomia eta finantza informazioa. Geuk egina. * Behin-behineko datuak.*								

2.2.2. Kudeaketa transferitua duten prestazioak: kotizaziopeko prestazioak

Ordaindutakoaren araberakoak ez diren prestazioak inoiz kotizatu ez duten edo kotizaziopeko prestazioak lortzeko behar besteko denboraz kotizatu ez duten eta iraupeneko bitartekorik ez izateagatik beharrizan-egoeran dauden pertsonei ematen zaizkienak dira. Errenta ekonomiko bat aitortzeaz gain, laguntza mediko eta farmazeutikoa eta gizarte zerbitzuak jasotzeko eskubidea ere badute; hortaz, beharrizan-egoeran egonez gero estaldura osoa ematen diete. Estatuan autonomia erkidegoek dute eskumena. Aldiz, EAEn, eginkizunak eta zerbitzuak besterendu ondoren, prestazioa aitortzea, kudeatzea eta finantzatzea foru aldundiei dagokie. Ordaindutakoaren araberakoak ez diren prestazioak hiru motatakoak dira: Gizarte Segurantzaren kotizaziorik gabeko pentsioak, laguntzako pentsioak eta MGL prestazioak. Jasotzen den zenbatekoa errenten eta egoera pertsonalaren arabera ezartzen da.

EAEko Foru Aldundiek emandako kotizaziorik gabeko pentsioak, kopuruari eta zenbatekoari dagokienez, kotizaziorik gabeko prestazioen artean nabarmenenak dira. Diru-sarrera nahikoak ez dituzten pertsonei daude zuzenduta (diru-sarrerak nahikoak ez direla zehazteko, urteko diru-sarreren baturak pentsioaren urteko zenbatekoak baino txikiagoa izan behar du), eta zenbatekoak urtetik urtera antzera jarraitzen du 2013tik.

IV.2.10. TAULA. GIZARTE SEGURANTZAREN KOTIZAZIOPEKOAK EZ DIREN PENTSIOAK EAE-N: ADIERAZLE NAGUSIAK.				
	ONURADUNAK (URTEKO B.B)			HILEKO ZENBAT. (€)
	ERRETIROA	BALIAEZ.	GUZT.	
2013	4.677	5.772	10.449	364,90
2014	4.731	6.041	10.772	365,90
2015	4.870	6.121	10.991	366,90
2016	5.051	6.247	11.298	366,90
2017	5.273	6.314	11.587	366,90
2018	5.520	6.276	11.796	366,90
15/16 ald. %	3,7	2,1	2,8	0,0
16/17 ald. %	4,4	1,1	2,6	0,0
17/18 ald. %	4,7	-0,6	1,8	0,0
Iturria: GSEMren datuekin eignikoa. Lan-estatistiken aldizkaria.				

Guztira 11.796 lagunek jaso zituzten pentsio horiek 2018an (batez besteko datuak), 5.520 lagunek erretiro gisa eta 6.276 baliaezintasunagatik, aurreko urtean baino %1,8k gehiago.

Kotizaziorik gabeko pentsioen zenbatekoak Estatu osorako ezartzen dira urtero. 2018rako 366,90€ finkatu ziren hileko erretirorako eta %65eko mailako edo maila altuagoko baliaezintasunerako, baita hainbat osagarri ere. Zenbateko horiek aintzat hartuta, pentsio horien ziozko gastua, gutxi gorabehera, 60,6 milioi eurokoa izan zen 2017ko ekitaldian, hau da, 2103an baino % 1,8 gehiago, baina esan beharra dago ez dakigula zenbateko zehatza zein izan zen[14].

2.3. POBREZIAREN ETA GIZARTE BAZTERKETAREN KONTRAKO NEURRIAK EAE-N

Txirotasuna, tradizioz, gizarte desberdintasunei eta diru-sarreren maila txikiko biztanleria-kapei lotuta egon da. Azken urteotan, aldiz, gure gizartean gertatutako aldaketekin batera —bai ekonomiari, bai gizarteari, bai familiari lotutakoak—, marjinazio mekanismo berriak agertu dira; ekonomia hutsari lotutakoaz gain, beste eragile batzuk (bakardadea, mendekotasuna, "edadismoa") piztu dituzte gizarte bazterkeriako prozesuak.

[14] *Azkenik, ez dago Gizarte Segurantzako laguntzako pentsioen eta Ezinduak Gizarteratzeko 13/82 Legearen ondoriozko prestazioen pertsona hartzaileei buruzko informazio eguneraturik (1992an eta 1990ean indargabetuta, hurrenez hurren). Izan ere, horien kopurua jaitsiz joan da harrezkero. Pertsona horiek EAEko pentsioen gastu agregatuaren gastuaren kalkuluan dakartena ere ez da aintzat hartuko (kapitulu honen sarrera aipatua). Nolanahi ere, milioi bat eurotik beherako zenbatekoa da..*

EAEn txirotasunari, marjinazioari eta gizarte bazterkeriari aurre egiteko tresna nagusien artean, Gizarte Zerbitzuen Legean, Bazterkeriaren aurkako Legean eta Gizarte Eskubideen Kartaren Legean kokatuta, azken urteotan egungo Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (lehen Oinarrizko Errenta) eta Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL) izan dira. Txirotasunaren aurka borrokatzeko osoko planaren baitako gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko programak dira biak. Horiek ez ezik, gizarteratze, prestakuntza eta laneratze programak ere badaude, partaideen (laneratze enpresak sortu ahal izatea aintzat hartu da), udalen eta bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen arteko hitzarmenen bidez.

2.3.1. 2017-2021eko Gizarteratze Plana

Gobernuak hainbat plan egin izan ditu pobreziaren eta bazterketaren kontra. Hainbat izen hartuta, pobreziaren eta gizarte bazterketaren kontrako borrokaren oinarriak ezartzea eta aipaturiko araudia garatzeko abiatu beharreko helburuak eta neurriak egituratzea du helburu. Gaur egun, "*2017-2021eko Gizarteratzeko IV. Euskal Plana*" dagoen indarrean. Lau helburu oinarri hartuta definitu du bere estrategia[15]:

- ✓ Enplegua: enpleguaren prekarizazio-prozesuei aurre egitea, gazteak edota lana lortzeko zailtasun handienak dituztenak laneratzea bultzatzea eta enpleguko euskal sistema hobetzen jarraitzea.
- ✓ Diru-sarreren bermea: diru-sarrerak bermatzeko euskal eredua zaintzea eta hobetzea, gizarte legitimotasuna eta iraunkortasun ekonomikoa bermatuz.
- ✓ Gizarte zerbitzuak: Gizarte Zerbitzuen Legearen garapena bultzatzea halako moldez non herritar guztiek gizarte zerbitzuak eskuratzeko duten eskubidea bete, gizarte zerbitzuen sistema Planean ezarritako oinarrietarako egokitzapen kontzeptuala lortu eta gizarteratze-programa berriak bultzatuko baitira herritarrek eta gizarteak parte hartuta betiere.
- ✓ Etxebizitza: gizartean baztertuta edo arrisku horretan daudenek etxebizitza eskuratzeko modua erraztea, etxebizitza izateko eskubide subjektiboa garatuz eta bizitegi bazterketako egoerei aurre egitea eta aurre-zaintza lana egitea.

IV.2.11. TAULA. 2017-2021EKO GIZARTERATZE IV. EUSKAL PLANA: ERAGIN-ADIERAZLEAK.

	ABIAPUNT. ADIERAZLEA	ESPERO DEN ADIERAZLEA
MANTENTZE-POBREZIA	7,1	< 5,6
GIZONEZKOEN OKUPAZIO-TASA	70,5	> 75
EMAKUMEZKOEN OKUPAZIO-TASA	62,4	> 66
LAN INTENTSITATE TXIKIKO TASA	10,2	< 8
ESKOLAKO UZTE-TASA	7,3	< 7
GIZONEK IRITZITAKO OSASUN TXARRA	2,40	< 2,37
EMAKUMEEK IRITZITAKO OSASUN TXARRA	2,55	< 2,49
ETXEBIZITZA ESKURATU BEHAR DUTEN FAMILIAK	7,4	< 5

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. 2017-2021eko Gizarteratze IV. Euskal Plana.

IV. Plana abiarazteko, 815 milioi euro zenbatetsi dira urtean, honelaxe banakatuta:

- 400 milioi euroko gastua DSBErako eta GLLrako urtean, hain zuzen 2012-2015eko urteko batez besteko gastuari dagokiona.
- Urtean 100 milioi euro etxebizitza prestazioetan, eta 20 milioi euro gehiago jarri dira aurreko epealdian emandakoaren aldean.
- Urtean 200 milioi euro alokairua bultzatzeko beste politika batzuetarako, Etxebizitza Sailak 2018rako onetsitako partida horretarako aurrekontuaren ildotik.
- Urtean 75 milioi euroko gastua 2017-2020ko Enplegu Planean ezarriak laneratzeko pizgarrietarako erabiltzeko (301 milioi euro 4 urteko epealdirako).
- Urtean 45 milioi euroko gastua gizarte zerbitzuetan Zorroaren Dekretuan ematen den gizarteratzeko (20120 eta 2015 bitartean 42 milioi euroko gastua izan da batez beste).

Kopuru horiek abiapuntu izanik, eta Hezkuntza eta Osasun gastuak alde batera utzita, 4.000 milioi euroko gastu metatua zenbatetsi da Planean, IV.2.11 taulan zehazturiko helburu kuantitatiboak lortzeko erabili beharko liratekeenak.

[15] *Planari buruzko xehetasun gehiago nahi izanez gero, jo beza irakurleak Memoria honen 2017ko ediziora eta web gune honetara:* https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/11247/IV_PLAN_VASCO_DE_INCLUSION.pdf?1519744181

2.3.2. Sarrerak Bermatzeko Sistemaren prestazioak

2009. urtean, abenduaren 23ko Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko 18/2008 Legea hasi zen indarrean. Lege horren helburu nagusiak ditugu, alde batetik, Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistema eratzea, sistema autonomiadun gisa —gizarte-zerbitzuek eta enplegu-zerbitzuek parte hartzen dute sistemaren kudeaketan eta herri-erakundeen beste arlo batzuek ere laguntzen dute—, eta bestetik, Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren jardunbide-abiaburuak eta egiturazko oinarriak finkatzea, euskal herritarrek modua izan dezaten prestazio ekonomikoei eta gizarteratzeko nahiz laneratzeko tresnei heltzeko, berdintasunean eta ekitatean oinarrituta[16].betiere beharrezko neurriak hartuta tresnon batekotasuna bermatzeko lurralde osoan.

IV.2.4. SARRERAK BERMATZEKO EUSKAL SISTEMAREN PRESTAZIOEN GASTUAREN BILAKAERA (MILIOI EUROTAN)



	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018*
PCV					51,1	64,9	71,2	76,0	84,3	88,5	91,0	86,7	80,7
RGI	153,7	168,6	197,3	262,7	313,3	330,3	343,8	359,3	388,1	399,8	401,4	381,7	357,9
AES	35,0	36,0	38,0	54,5	24,0	17,3	17,1	23,0	25,2	27,8	33,4	34,0	34,0

Iturria: Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzaren datuak oinarri hartuta eginikoa. EUSKO JAURLARITZA.
** GLLren 2018ko datua zenbatespena da.*

Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak, 2018an, 472,6 milioi euro gastatu zituen orotara, aurreko urtean baino %5,9 gutxiago. Honelaxe daude banatuta: 357,89 milioi Sarrerak Bermatzeko Errentan eginiko gastuari dagozkie (guztizkoaren %75,7, eta 2017an baino %6,2 gutxiago), 80,67 milioi Etxebizitzaren Prestazio Osagarrirako (guztizkoaren % 17,1 eta 2017an baino %7 gutxiago), eta eginiko zenbatespenen arabera, Sistemaren gastu agregatua kalkulatzeko, Gizarte Larrialdirako Lagunetarako erabilitako 34 milioi eurori eutsi egin zaie 2017an, eta 2018an (Sistemako gastu guztiaren %7,2), laguntza horri buruzko datu ofizialak izan arte.

Prestazio horiek EAEko bizi-baldintzetan dituzten ondorioei dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren "Txirotasunari eta gizarte desberdintasunei buruzko Inkesta (TGDI) uste du 2016an (daukan azkena) pobrezia atalasearen azpitik bizi diren pertsonak Euskadin % 36,8 murriztu direla, laguntza horien ondorioz. Prestazio horiek izan gabe benetako txirotasun egoeran dauden pertsonak biztanleriaren % 9,1 dira (194.060 lagun), baina prestazio horiek banatu ondoren portzentajea % 5,7koa da (63.069 lagun, oraindik pobreziatik irten ez den eta laguntza jaso duen % 2,9 gehi oraindik lagundu ez den % 2,8). Kopuru horiek ikusita ondorioztatzen denez, EAEko Sarrerak Bermatzeko Sistemak pobrezia arriskuan zeuden biztanleen %69,3rengana iritsi zen 2016an: 134.563 lagun (biztanleria osoaren % 6,3)[17].

[16] *18/2008 Legeari eta lege horrek ekarritako berrikuntzei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, jo beza irakurleak Memoria Sozioekonomiko honen 2009. urtetik 2012. urtera arteko edizioetara.*
[17] *Emaitzei buruzko argibide gehiago nahi badira, begiratu Memoria Sozioekonomiko honen 2016ko edizioan.*

a) Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) ematen zaie EAEn gutxienez urtebetean erroldatuta dauden eta oinarrizko beharrei eta laneratzeko eta gizarteratzeko prozesuaren ondoriozko beharrei aurre egiteko nahikoa diru-baliabiderik ez duten pertsonei, betiere 18/2008 Legeak eta hura garatzeko araudian ezarritako baldintzak betetzen badituzte[18].

2018an, guztira, 357,89 milioi euro ordaindu ziren DBErako (2017an baino %6,2 gutxiago eta, halaber, EAEko 2018ko Aurrekontu Orokorretan partida horretarako (402,1 milioi eurokoa) ezarritakoa baino 44,2 milioi euro gutxiago). Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetan gertatu da jaitsiera. Hala, gastuak behera egin du Gipuzkoan (-% 7,1), Araban (-%8,4) eta Bizkaian (-% 5,3).

IV.2.12. TAULA. DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA: GASTUAREN BILAKAERA LURRALDEZ LURRALDE. MILIOI EUROTAN.

	2014	2015	2016	2017	2018	2016/17 ALD. %	2017/18 ALD. %
ARABA	64,5	67,1	68,2	62,8	57,5	-7,9	-8,4
GIPUZKOA	84,2	88,8	91,2	85,9	79,8	-5,8	-7,1
BIZKAIA	239,4	243,8	242,0	233,0	220,7	-3,7	-5,3
EAE	**388,1**	**399,8**	**401,4**	**381,7**	**357,9**	**-4,9**	**-6,2**

Iturria: LANBIDE. Analisi, Azt,erlan eta Estatistika Zerbitzua.

Bestalde, DBEren bizikidetza-unitate hartzaileen kopurua, 2018an, 55.380 zen (abenduko datua, orotara, 98.930 onuraduni dagokio); 2017ko amaieran, berriz, 60.405 lagunek jasotzen zuten laguntza, 15 urtez etengabe hazkundea izan ondoren (1999 eta 2014 bitartean, azken urte horretan bizikidetza-unitateen kopururik handiena lortu zenean, 65.000 baino gehiago), laugarren urtean jaitsiera izan zen, orduan % 8,3koa.

Lurraldez lurralde, Bizkaiak du bizikidetza-unitate hartzaileen kopururik handiena, orotara 34.164, hots, EAEko guztien % 61,7. Gipuzkoak, berriz, bizikidetza-unitate hartzaileen % 23,5 (12.992 guztira) eta Arabak gainerako % 14,9a (8.224 titular).

Urteko zenbaketan –abendutik abendura-, eta generoaren ikuspegitik, ez da berdina izan hartzaileen kopuruaren jaitsiera, zeren eta % 9,8 gizonezko gutxiago baitago (2.546 gutxiago) DBEren hartzaileen artean. Emakumeen taldearen jaitsiera, berriz, % 7,1ekoa izan zen (2.479 gutxiago).

LANBIDEren 2018ko espediente aktiboen fitxari esker, jakin badakigu 55.380 pertsona titular zeudela inskribatuta, %42,2 gizonezkoak ziren eta %57,8 emakumezkoak. Onuradun gehien biltzen dituen adin-tartea 40-59 urte bitartekoa da (guztizkoaren %47), eta nabarmentzekoa da ere 3.897 jasotzailek 30 urte baino gehiago dituztela. Horrez gain, DBEren titular jasotzaileen kopurua hazi den adin-tarte bakarra 2017ko abenduaren aldean 60-64 urte bitartekoei dagokie, guztira 3.836 titular (+%4,9).

LANBIDEren arabera, hauxe da bizikidetza-unitate hartzailearen pertsona titularraren profila: espainiar nazionalitateko emakumea, 40 urtetik gorakoa eta oinarrizko ikasketak dituena (%68,4k nahitaezko ikasketak ditu, %10ek lanbide titulazioren bat eta %4ek unibertsitateko titulazioa).

Horrez gain, DSBEren hartzaileen kopuruak azken urtean behera egin bazuen ere, sexuaren aldetik, murrizketa hori ez da homogeneoagoa izan, zeren eta 2018ko abenduan gizon titularren kopurua % 9,8 murritzagoa baitzen (2.546). Emakumeei dagokienez, berriz, % 7,1ekoa izan da beherakada (2.479 gutxiago). Gizonengan izandako murrizketa handiago horrek areagotu egin du betidanik emakumeen alde izandako diferentzia. Izan ere, 2017ko abenduen titular hartzaile guztien % 57 baziren ere, urtebete geroago % 57,8 ziren.

Gainera, prestazioa jasotzen duten atzerritarrak guztizkoaren %39,4 dira (%27,3 2017an), eta titular jasotzaileen %25,7 pentsiodunak dira (2017ko ratio bera).

[18] http://www.lanbide.euskadi.eus/rgi/-/informacion/rgi-legislacion-y-normativa/

IV.2.5. GRAFIKOA. DBE: BIZIKIDETZA-UNITATE HARTZAILEEN BILAKAERA LURRALDEZ LURRALDE, ABENDAREN 31N.



	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Onuradunak, guztira	95.878	98.778	106.329	109.216	117.849	118.745	117.044	108.524	98.930
Araba H.L.	7.161	7.539	8.001	8.996	9.918	9.659	9.575	8.892	8.224
Bizkai H.L.	9.904	11.424	12.482	14.102	15.314	15.077	15.039	14.128	12.992
Gipuzkoa H.L.	37.955	36.796	37.496	39.719	40.451	39.990	39.183	37.385	34.164
Hartzaile titularrak, guztira	55.020	55.759	57.979	62.817	65.683	64.726	63.797	60.405	55.380

Iturria: LANBIDE. Onuradunen datuak urteko batez bestekoak dira 2010 eta 2016 bitartean.*

Datu hori dela-eta, kontuan hartu behar da beren pentsioaren osagarri gisa DBE jaso zuten 14.237 titularrek, 2018ko abenduan (-% 8,1 2017ko datuen aldean) hile horretako prestaziorako funtsen % 10,7 jaso zutela (2017ko abenduan baino puntu erdi gehiago.

IV.2.6. GRAFIKOA. DBE SARREREN OSAGARRI: PRESTAZIOA OSAGARRI GISA JASOTZEN DUTEN PENTSIODUNEN ETA LANGILEEN KOPURUAREN BILAKAERA. ABENDUAN*.



Iturria: LANBIDE. Geuk egina.
** 2012tik 2014rako datuak batez bestekoak dira.*

Bestalde, 11.020k, unitate jasotzaileen %19,9k, soldata errenta gisa jasotzen dute DBE (2017ko ratio bera, baina kopuru absolutuetan, % 8,1 murriztu da. Aldi berean, hile horretako prestazioaren gastuaren %18,8 ematen zaie (% 18,9 urte bat lehenago).

DBEren osagarriei dagokienez, lehenbizikoa Etxebizitza Prestazio Osagarria da (EPO), aipaturiko datan jasoa, geroago ikusiko denez, 25.838 bizikidetza-unitate, guztizkoaren % 46,7 (ikusi hurrengo atala), eta unitate horien 8.888 titularrek guraso bakarra izateagatiko osagarria jasotzen dute (%16).

2017. urtean, Eusko Jaurlaritzak prestazio horri buruzko inkestaren emaitzak argitaratu zituen, herritarrek diru-sarrerak bermatzeko sistemaren inguruan duten irudipena zein den jakiteko. Memoria Sozioekonomikoaren 2017ko edizioan dago bilduta informazio hori.

IV.2.13. SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA: TITULAR HARTZAILEEN BANAKETAREN BILAKAERA KONTZEPTU APLIGARRIAREN ARABERA. EHUNEKOA GUZTIZKOAREN GAINEAN. ABENDUAN.

	MODALITATEA		PENTSIODUNA		OSAGARRIAK		GUZT.
	LAN SARRERAK OSATZEKO	OINAR.	EZ	BAI	GURASO BAK.	EPO	
2015	19,0	81,0	74,9	25,1	14,9	45,0	100,0
2016	19,7	80,3	75,2	24,8	15,3	46,2	100,0
2017	19,9	80,1	74,3	25,7	15,5	46,2	100,0
2018	19,9	80,1	74,3	25,7	16,0	46,7	100,0
15/16 ald.	0,7	-0,7	0,3	-0,3	0,4	1,2	-
16/17 ald.	0,2	-0,2	-0,9	0,9	0,2	0,0	-
17/18 ald.	0,0	0,0	0,0	0,0	0,5	0,5	-

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. LANBIDEren datuekin egina.

Bestalde, Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasunaren Ministerioaren "Gizarteratzeko Gutxieneko Errentei buruzko txostena"ri esker, autonomia erkidegoetako sarrerak bermatzeko sistemen kopuru handien konparaziozko jarraipena egin daiteke, sistema horiek garatzeko araudien heterogeneotasuna eta garapen maila ezberdinak kontuan izanik.

2017ri lotutako txostenaren arabera (argitaraturiko azkena), urte horretan gure erkidegoak 6.148,30 euroko urteko gastua zeukan prestazio horien titular bakoitzeko, estatuko 4.931,27 euroko batez bestekoaren aurrean (% 24,7 gehiago), eta haren estaldura tasa 34,72koa zen mila biztanleko (estatuaren batez bestekoa 6,72 da). Azterlanaren arabera, gure Erkidegoak 2017an Estatuan prestazio horietarako emandako funts guztien %30,3 erabili zuen DBErako gehi EPO, autonomia erkidegoen arabera. Euskal biztanleriak Estatu osoan duen pisuaren arabera egokitu beharko litzaiokeena baino askoz portzentaje handiagoa da; izan ere, %4,7koa da aipaturiko urtean. Bestalde, DBEren gutxieneko zenbatekoa 2017an 672,67 eurokoa zen hilean, autonomia erkidego guztietako handiena, eta ondoren Nafarroa (600 €) eta Katalunia (564 €) zeuden.

IV.2.14. TAULA. LANERATZEKO GUTXIENEKO ERRENTEN ERKAKETA AUTONOMIA ERKDIEGOEN ARABERA. 2016-2017KO DATUAK.

	ESTALDURA TASA (1.000 BIZT.)		TITULAR HARTZAILEAK				GASTU BETEARAZIA (MILIOI EUROTAN)			
	2016	2017	2016	2017	2017 %	16/17 ald.	2016	2017	2017 %	16/17 ald. %
ANDALUZIA	4,17	3,50	34.980	29.337	9,4	-16,1	90,64	86,32	5,6	-4,8
ARAGOI	7,61	8,00	9.964	10.466	3,3	5,0	43,06	49,34	3,2	14,6
ASTURIAS	19,74	21,37	20.585	22.122	7,1	7,5	109,34	119,12	7,7	8,9
BALEARS (ILLES)	2,95	6,77	3.268	7.551	2,4	131,1	6,80	13,31	0,9	95,7
KANARIAR U.	6,45	6,42	13.560	13.525	4,3	-0,3	52,50	53,06	3,4	1,1
KANTABRIA	12,48	10,97	7.268	6.366	2,0	-12,4	29,34	31,21	2,0	6,4
GAZTELA-MANTXA	1,49	1,55	3.041	3.152	1,0	3,7	6,23	6,71	0,4	7,8
GAZTELA ETA LEON	6,46	6,39	15.081	15.502	4,9	-1,9	76,55	77,71	5,0	1,5
KATALUNIA	3,84	3,48	28.903	26.311	8,4	-9,0	174,51	183,57	11,9	5,2
CEUTA	2,65	3,10	224	263	0,1	17,4	0,35	0,56	0,0	63,5
EXTREMADURA	6,65	5,85	7.232	6.316	2,0	-12,7	33,48	48,43	3,1	44,7
GALIZIA	5,28	5,34	14.345	14.468	4,6	0,9	56,25	58,81	3,8	4,5
MADRIL	5,32	5,45	34.389	35.483	11,3	3,2	160,41	168,63	10,9	5,1
MELILLA	11,95	11,54	1.028	994	0,3	-3,3	3,62	4,06	0,3	12,3
MURTZIA	3,88	3,69	5.680	5.421	1,7	-4,6	12,42	14,14	0,9	13,9
NAFARROA	22,69	24,75	14.537	15.918	5,1	9,5	82,92	98,08	6,4	18,3
EAE	**34,87**	**34,72**	**76.347**	**76.188**	**24,3**	**-0,2**	**492,37**	**468,43**	**30,3**	**-4,9**
ERRIOXA	8,98	7,69	2.836	2.424	0,8	-14,5	8,34	5,03	0,3	-39,7
VALENTZIAKO E.	4,15	4,33	20.574	21.387	6,8	4,0	44,56	57,91	3,7	30,0
ESTATUA	**6,76**	**6,72**	**314.562**	**313.194**	**100,0**	**-0,4**	**1.483,68**	**1.544,44**	**100,0**	**4,1**

Iturria: Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioaren datuekin egina. Gizarteratzeko Gutxieneko Errentei buruzko 2017ko txostena.

b) Etxebizitzako Prestazio Osagarria

Atal honek dakarren informazioak osatu egiten du DBEren Etxebizitzarako Prestazio Osagarriari buruzko informazioa, epigrafe honi dagokionez.

Etxebizitza gastuetarako Prestazio Osagarria (EPO) eskubide subjektiboko prestazio bilakatzeak sistemaren funtsezko osagai bihurrarazi du, eta 18/2008 Legearen helburua islatzen du: Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta osatzeko prestazio ekonomikoen sistema bat eratzea, biztanleria talderik ahulenei etxebizitzari lotutako gastuei aurre egiteko aukera emateko. Funtsezko gastuak estaltzeko gutxieneko egonkortasuna bermatu ez ezik, jarduketa tresna horren xedea GLLak jatorrizko helbururantz birbideratzea ere bada, hots, gastu bereziak estaltzea; horrela, beharrak direla-eta, urteen poderioz GLLak, praktikan, aldian aldiko izaera hartu eta, proportzio handi batean, etxebizitza gastuak ordaintzeko erabiliak izatera eraman zituen desbideratzea zuzendu da. Arestikoak ez du inondik inora esan nahi etxebizitza gastuak lege esparru berriak Gizarte Larrialdiko Laguntzei emandako xedeetatik at geratu direnik, halako gastuak estaltzeko Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren titularrak ez diren pertsonei bakarrik esleituko zaizkiela baizik. EPOren xehetasunak, DBEren prestazio osagarri den aldetik eta gehienez hilean 250 eurokoa izanik, etxebizitzaren prestazio osagarriari buruzko urtarrilaren 2/2020 Dekretuan daude araututa.

Indarraldiko lehen urtean (2010), guztira 50 milioitik gorako gastua izan zuen EPOk, eta urtez urte joan da handitzen gastua, 2016ko 91 milioi euroraino (orain arteko zenbatekorik handiena). 2017an, 86,72 milioi euro erabili ziren prestazio horretarako, eta 80,67 milioi 2018an (-% 7). Horietatik, 12,84 milioi Arabari dagozkio (guztiaren %15,9), 48,37 Bizkaiari (%60) eta 19,46 milioi euro Gipuzkoari (%24,1).

Titular jasotzaileen kopuruari dagokionez, arestian esan bezala, DBEren onuradunak ziren 25.838 bizikidetza-unitatek gainera EPO jaso zuten 2018ko abenduan (aurreko urtean baino % 7,4 gutxiago).

IV.2.7.. GRAFIKOA. ETXEBIZITZAKO PRESTAZIO OSAGARRIA: URTEKO GASTUAREN BILAKAERA DBE-REN OSAGARRI GISA. MILIOI EUROTAN.



Iturria: LANBIDE

c) Gizarte Larrialdirako Laguntzak

Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL) oinarrizko beharrizan espezifikoei aurre egiteko prestazioak dira, baina ez dira aldizka ematen. Etxebizitzarekin daude lotuta batez ere eta noiz edo noiz ematen zaizkie gizarte-marjinazioaren egoerei aurrea hartzeko, egoera horiek saihesteko edo arintzeko beharrezkoak diren gastuak ordaintzeko baliabide nahikoak ez dituzten pertsonei.

IV.2.15. TAULA. GIZARTE LARRIALDIRAKO LAGUNTZAK 2016-2017. BANAKETA KONTZEPTUEN ETA B.B. ZENBATEKOEN ARABERA.						
	2016			2017		
	LAGUNTZA KOO.	ZENBAT. MILAK. (€)	B.B. ZENBATEKO LAGUNTZAKO (€)	LAGUNTZA KOP.	ZENBAT. MILAK. (€)	B.B. ZENBATEKO LAGUNTZAKO (€)
ALOKAIRUA	8.469	11.665,67	1.377,5	8.397	9.236,00	1.099,92
AMORTIZAZIO INTERESAK	1.374	2.190,3	1.594,1	4.285	5.762,18	1.344,73
BESTE MANTENTZE GASTU BATZUK	19.488	12.045,9	618,1	17.591	7.129,99	405,32
ALTZARIAK ETA ETXEKO TRESNA EL.	1.556	472,0	303,3	1.693	554,39	327,46
KONPONKETAK ETA INSTALAZIOAK	1.186	598,6	504,8	1.235	638,64	517,12
OINARRIZKO BEHARRAK	9.157	4.136,5	451,7	9.319	4.160,91	446,50
ZORPETZEA	2.583	2.242,0	868,0	1.172	662,03	564,87
ENERGIA	-	-	-	15.673	5.894,37	376,09
LAGUNTZAK, GUZTIRA	**43.913**	**33.351,0**	**761,2**	**59.365**	**34.038,51**	**573,38**
B.U. HARTZAILEAK	28.882			29.554		
PERTSONA HARTZAILEAK	55.982			56.198		

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritza.

Laguntza horien bidez estalitako berariazko gastuak etxebizitzaz edo ohiko bizitokiaz gozatzeari eta mantentzeari, etxebizitzaren edo ohiko bizitokiaren epe luzerako bizigarritasunari eta oinarrizko ekipamenduari (altzariak, linea zuriko etxetresna elektrikoak, oinarrizko instalazioak edo horiek egokitzeko eta/edo konpontzeko gastuak) dagozkie eta jantziei, hezkuntzari, prestakuntzari edo osasun-arretaren inguruko lehen mailako beharrizanei lotutako ohiz kanpoko, aurreikusi gabeko eta ohikoak ez diren beharrizanak sistema publikoek estaltzen ez dituztenak ordaintzekoak dira, bai eta oinarrizko Gizarte Zerbitzuen iritziz, gizarte bazterkeriako egoerak saihesteko edo arintzeko behar diren antzeko edozein beharrizan ere.

EGPO indarrean hasi ondoren, GLLek jatorrizko helburuari heldu zioten berriro eta, horregatik, nabarmen murriztu zitzaien aurrekontu partida. Horrela, 2010ean, 24 milioi euro erabili ziren guztira laguntza horietarako. Aurreko urtean, aldiz, 54,5 milioi euro baliatu ziren. 2017. urtean, datu ofizialak dauden azken urtean, 34.04 milioi euro erabili ziren laguntza horietarako (+%2,1 2018aren aldean). Horrela, Bizkaiari guztiaren %42,5 egokitu zitzaion, Gipuzkoari %41 eta Arabari gainerako %16,5a.

2017an, 29.554 kontsumo-unitate hartzaile zenbatu dira, guztira, hau da, 2016an baino % 2,3 gehiago. Horietatik 4.196 Araban (% 12), 4.947 Gipuzkoan (% 26,9) eta gainerakoak (17.672) Bizkaian (% 58,9) bizi ziren. Guztira, urtean 59.365 laguntza eman ziren kontzeptu desberdinak direla eta, esate baterako oinarrizko premiak (9.319 laguntza), alokairua (8.397) edo interesen amortizazioa (4.285); batez besteko zenbatekoa 573,38 eurokoa izan zen laguntza bakoitzeko.(-%24,6 2016aren aldean). Nabarmentzekoa da aurten, gainera, lehen aldiz sartu dela berariazko kategoria gisa "energia" (2016ra arte "bestelako mantentze gastuak" atalean sartzen zen), 15.673 laguntza bilduta (laguntze guztien % 26,4), orotara 5,89 milioi euro (GLLrako funtsen %17,3).

IV.2.8. GRAFIKOA. GIZARTE LARRIALDIRAKO LAGUNTZAK: TITULAR HARTZAILEEN KOPURUAREN BILAKAERA LURRALDEZ LURRADE.



	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2014	2016	2017
Álava	4.547	4.670	6.520	2.544	1.840	2.694	2.990	3.822	3.822	4.249	4.196
Gipuzkoa	6.183	6.102	9.198	5.597	4.947	6.502	3.693	7.092	7.092	7.947	7.947
Bizkaia	15.668	16.528	22.300	12.025	8.544	13.804	16.124	17.935	17.935	16.686	17.672
CAPV	26.398	27.300	38.018	20.166	15.331	23.000	22.807	28.849	28.849	28.882	29.554

Iturria: Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritza. EUSKO JAURLARITZA.

2.3.3. Gizarteratzea bultzatzeko programak: Hirugarren Sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak gizarte eskuhartzearen arloan

Hauxe xedatu da Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 6.3. artikuluan: "*Gizarte-ongizatea, gizarteratzea eta gizarte-kohesioa ez dira Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren berezko helburuak, baizik eta gizarte-babeseko beste sistema eta politika publiko batzuekin batera gauzatu beharrekoak; hala bada, horiek gauzatzeko orduan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema bereak diren helburu eta eginkizunen esparruan arituko da elkarlanean. Halaber, elkartasuna eta elkarbizitza sustatzea eta gizartearen parte-hartzea sustatzea beste sistema eta politika publiko batzuekin partekatutako helburutzat joko dira".* Hortaz, gizarte zerbitzuen helburutzat hartzen da gizarte inklusioa, baina beste sistema eta politika publiko batzuekin partekatuta eta, horrekin bat, Diru-sarrerak Bermatzeari eta Gizarte Inklusioari buruzko 18/2008 Legean, gizarte inklusiorako politikaren zeharkakotasuna aipatzen da, eta horretan lagundu behar dute bi sistemek, Gizarte Zerbitzuek eta Diru-sarrerak Bermatzekoak.

IV.2.9. GRAFIKOA. HIRUGARREN SEKTOREKO JARDUERAK INDARTZEKO DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOA ESKU-HARTZEAREN ARLOAN. €.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Politiketako Saila.

Hirugarren Sektoreko jarduerak EAEko gizarte esku-hartzearen arloan sustatzeko diru-laguntzak arautzeari buruzko abenduaren 29k 649/2009 Dekretuan, gizarte esku-hartzea, funtsean, pertsona guztiak gizarteratzera bideratuta zegoela aitortzen zen, baina hainbat laguntza-lerro edo esku-hartze agintzen zituen, ez soilik gizarte inklusioraren arloari lotutakoak, baizik eta bestelako zeharkako modalitateak hartzen ziren aintzat, honako hauek bilduta: familiaren babesa, droga-mendetasunaren prebentzioa, haurren eta nerabeen arreta eta babesa, etorkinen gizarteratzea eta, oro har, kulturartekotasuna, adinekoen arreta eta babesa, mendetasunean bizi direnak eta, oro har, ezintasuna eta maitasun-sexu askatasuna eta aniztasuna[19].

2017an, informazioa dagoen azken urtean, hirugarren sektoreko jarduerak gizarte esku-hartzearen eremuan sustatzeko diru-laguntzak eman ziren, guztira 4,79 milioi euro, aurreko urtean baino %10,4 gehiago. Laguntza horietatik 3,74 milioi, % 78,1, "gizartean esku-hartzea" deritzon lerrorako erabili ziren, % 12,5 (600.000 euro inguru), elkartegintza indartzeko eta gainerako % 9,4a (450.000 euro) "jakintzaren kudeaketa" lerrorako, lau urtean funtsik esleitu gabe eman ondoren.

[19] *Ondoren, Hirugarren Sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak arautu zituen abenduaren 4ko 271/2012 Dekretuak EAEn gizartean esku-hartzearen arloan, Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailaren bidez. Haietatik kanpo gelditu zen droga-menpekotasunen prebentzioa, zeren eta, eskumenen egitura dela-eta, orduko Osasun eta Kontsumoko Saila zeritzonera igaro baitzen jarduteko arlo hori.*

IV.2.16. TAULA. HIRUGARREN SEKTOREAREN JARDUERETARAKO LAGUNTZAK GIZARTEAN ESKU-HARTZEAREN ARLOAN. "GIZARTE ESKU-HARTZEA" LERROA. 2016-2017						
	2016			2017		
	EMANDAKO ESKABIDEAK	ZENBATEKOA (€)	B.B. ZENBAT. (€)	EMANDAKO ESKABIDEAK	ZENBATEKOA	B.B. ZENBAT. (€)
GIZARTERATZEA	71	1.871.381	26.357	71	1.668.107	23.494
IMMIGRAZIOA ETA KULTURARTEKOTASUNA	23	501.565	21.807	21	395.824	18.849
EZINTASUNA ETA MENDEKOTASUNA	39	371.594	9.528	44	431.191	9.800
GIZARTE ZERBITZUAK	21	425.997	20.286	29	416.154	14.350
FAMILIA	16	270.799	16.925	21	396.237	18.868
HAURRAK ETA NERABEAK	11	247.147	22.468	13	299.650	23.050
ANIZTASUNA ETA ASK. AFEKTIBO-SEXUALA	3	49.042	16.347	8	77.355	9.669
ADINEKOAK	1	5.952	5.952	4	58.925	14.731
GUZTIRA	**185**	**3.743.478**	**20.235**	**211**	**3.743.479**	**17.742**
Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritza.						

Gizarte esku-hartzearen diru-laguntzaren lerroko jardueretarako laguntzak, hain zuzen pertsonekin, senideekin eta komunitateekin, lehenik eta behin 211 proiektutarako (185erako 2016an) erabili ziren orotara, eta horien zenbatekoa dela-eta, batez besteko laguntza 17,742 euro da, aurreko urteko batez besteko laguntza baino % 112,3 gutxiago. Esku-hartzearen eremuen arabera, funtsen zatirik handiena (%44,6) eta emandako laguntzen zatirik handiena (%33,6) gizarte inklusiorako erabili ziren, eta batez besteko laguntza 23.949€ izan zen. Bigarrenik, funtsen %11,5 immigraziorako esku-hartzetarako laguntzetarako erabili ziren kulturartekotasunean, eta hirugarrenik, %11,1gizarte zerbitzuen arlorako.

IV.2.17. TAULA. HIRUGARREN SEKTOREKO JARDUERETARAKO LAGUNTZA GIZARTEAN ESKU-HARTZEAREN ARLOAN. "BOLUNTARIOEN EKINTZA ETA ELKARTEEN PARTAIDETZA INDARTZEA" LERROA. 2016-2017.						
	2016			2017		
	EMANDAKO ESKABIDEAK	ZENBATEKOA (€)	B.B. ZENBAT. (€)	EMANDAKO ESKABIDEAK	ZENBATEKOA	B.B. ZENBAT. (€)
GIZARTERATZEA	23	210.838	9.167	27	219.317	8.123
IMMIGRAZIOA ETA KULTURARTEKOASUNA	9	82.776	9.197	9	86.434	9.604
EZINTASUNA ETA MENDEKOTASUNA	12	63.218	5.268	15	62.075	4.138
GIZARTE ZERBITZUAK	26	176.600	6.792	19	136.010	7.158
FAMILIA	4	14.487	3.622	5	15.879	3.176
HAURRAK ETA NERABEAK	7	43.784	6.255	8	48.162	6.020
ANIZTASUNA ETA ASK. AFEKTIBO-SEXUALA	0	-	-	1	9.465	9.465
ADINEKOAK	1	7.296	7.296	3	21.653	7.218
GUZTIRA	**82**	**598.999**	**7.306**	**87**	**598.995**	**6.885**
Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritza.						

Bigarrenik, boluntariotza eta elkarteetako partaidetza indartzeko jardueretarako laguntzei esker, guztira 87 eskabideri erantzun ahal izan zitzaien (82 2016an), eta batez besteko laguntza 6.885€-koa izan zen (-%5,8 aurreko urtearekiko). Esku-hartzearen eremuen arabera, funtsen %36,6 gizarte zerbitzuen arlorako erabili zen, eta eskabideen %31 bete ziren. Era berean, funtsen %22,7 eskabideen %21,8 betetzeko erabili ziren, hain zuzen gizarteratzearekin zerikusia zuten eskabideak betetzeko.

IV.2.18. TAULA. HIRUGARREN SEKTOREKO JARDUERETARAKO LAGUNTZAK GIZARTE ESKU-HARTZEAREN ARLOAN. "JAKINTZAREN KUDEAKETA" LERROA. 2017.					
	2017KO DATUAK			BANAKETA PORTZENTAJE BERTIKALEAN	
	EMANDAKO ESKABIDEAK	ZENBATEKOA (€)	B.B. ZENBAT. (€)	EMANDAKO ESKABIDEAK	ZENBATEKOA
GIZARTERATZEA	18	114.292	6.350	25,4	25,4
IMMIGRAZIOA ETA KULTURARTEKOTASUNA	4	36.372	9.093	5,6	8,1
EZINTASUNA ETA MENDEKOTASUNA	14	45.653	3.261	19,7	10,1
GIZARTE ZERBITZUAK	16	137.911	8.619	22,5	30,6
FAMILIA	3	12.853	4.284	4,2	2,9
HAURRAK ETA NERABEAK	9	48.410	5.379	12,7	10,8
ANIZTASUNA ETA ASK. AFEKTIBO-SEXUALA	5	37.238	7.448	7,0	8,3
ADINEKOAK	2	17.262	8.631	2,8	3,8
GUZTIRA	**71**	**449.991**	**6.338**	**100,0**	**100,0**
Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritza.					

Azkenik, jakintzaren kudeaketarekin lotutako hirugarren sektoreko jardueretarako laguntzak, 2017an, 449.991 euro izan ziren guztira, 71 proiektu bultzatzeko. Laguntzen lerro horrek, beraz, indarra hartu du berriro, azken lau urtean finantzaketarik izan gabe. Eremuen arabera, funtsen % 30,6 gizarte zerbitzuetarako erabili zen, eskabideen % 22,5 beteta. Era berean, funtsen % 25,4 eskabideen % 25,4 betetzeko erabili ziren, hain zuzen gizarteratzearekin zerikusia zuten eskabideak betetzeko.

2.4. MENDEKOTASUNAREN ARRETA

Norberaren Autonomia Sustatzeko eta Menpekotasun-egoeran dauden Pertsonei Arreta emateko Legea (Menpekotasunaren Legea) [20] Estatuko araudia da eta 2007. urtean hasi zen indarrean. Lege horren xede nagusia hauxe da: "*ahultasun bereziko egoeran daudelako, eguneroko oinarrizko jarduerak garatzeko laguntza behar duten pertsonen beharrizanei erantzutea, haien autonomia areagotzea eta, horrela, herritartasun-eskubideak bete-betean gauzatu ahal izatea".* Lege horrek aurrerapen handia ekarri zuen gizarte-politiketan, menpekotasun-egoeran dauden pertsonei aitortzen dielako eta arautzen duelako legeak berak ezarritako prestazio eta zerbitzuez baliatzeko eskubide subjektiboa.

2.4.1. Datu ofizialak. IMSERSOREN 2018ko balantzea

IV.2.19. TAULA. MENDEKOTASUNAREN ARRETA AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA. ERKAKETA 2018KO ABENDUAREN 31N .

	ESKABIDEEN % BIZTANLERIAREKIKO			EBAZPENEN % ESKABIDEEKIKO			AITORTUEN % EBAZPENEKIKO		
	2016	2017	2018	2016	2017	2018	2016	2017	2018
ANDALUZIA	4,53	4,58	4,64	93,42	92,64	91,16	70,70	81,18	81,06
ARAGOI	3,44	3,58	3,80	89,64	85,25	84,73	83,31	83,47	83,45
ASTURIAS	3,37	3,57	3,78	90,57	88,33	86,67	74,60	75,60	75,96
BALEAR U.	2,27	2,47	2,48	92,70	93,35	90,63	79,48	79,21	79,38
KANARIAR U.	2,04	2,25	2,30	84,81	75,66	73,41	84,68	85,34	85,34
KANTABRIA	3,64	4,12	4,27	97,99	97,86	97,57	83,95	84,41	84,47
GAZTELA MANTXA	4,78	5,03	5,37	94,04	93,28	93,03	77,94	78,99	78,80
GAZTELA ETA LEON	4,15	4,22	4,27	95,23	92,23	94,41	79,96	79,77	79,48
KATALUNIA	3,86	4,04	4,19	92,43	92,29	91,82	80,93	79,55	78,69
VALENTZIAKO E.	2,03	2,19	2,35	85,29	83,53	87,39	79,54	80,75	83,25
EXTREMADURA	4,87	5,05	5,10	88,63	87,61	85,10	74,81	73,55	71,65
GALIZIA	2,93	2,98	2,97	97,83	98,14	99,43	85,46	84,78	85,17
MADRIL	2,63	3,15	3,27	99,25	99,86	99,92	75,24	73,29	75,04
MURTZIA	2,94	3,02	2,99	98,57	97,62	98,69	90,63	90,74	90,29
NAFARROA	2,86	3,09	3,09	98,17	99,10	97,74	78,31	77,73	77,37
EAE	**4,41**	**4,52**	**4,68**	**96,37**	**99,34**	**99,43**	**78,19**	**77,43**	**77,09**
ERRIOXA	4,73	4,80	4,83	99,44	99,78	99,95	70,28	72,21	73,23
CEUTA ETA MELILLA	2,35	2,41	2,54	97,73	97,11	96,38	68,51	69,38	70,20
ESTATUA, GUZTIRA	**3,48**	**3,67**	**3,78**	**93,64**	**92,98**	**92,72**	**79,91**	**79,50**	**79,60**

Iturria: IMSERSOren datuekin geuk egina. Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemaren (AMAS) estatistika infoAa. Abenduaren 31ko datuak.

Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren (IMSERSO) 2018ko abenduaren 31ko datuek adierazi dute data horretan EAEk 103.813 balorazio eskabide erregistratu zituela Mendekotasunari Arreta eskaintzeko Sisteman. Gainerako erkidegoetan bezala eskabide horietako gehienak mendekotasun mailaren aintzatespena berrikusteko dira. Eskabideen kopurua EAEko biztanleriaren %4,68ko ratioa da (+0,16 puntu aurreko urtearen aldean).

Eskabide horiek, gainera, Estatuan erregistraturikoen %5,82 dira. Gure Erkidegoan, berriz, %4,71 dira, zeren eta Euskadik Estatuko populaziorik zahartuenetakoa baitu.

[20] *Abenduaren 14ko 39/2006 Estatuko Legea, Norberaren Autonomia Sustatzeari eta Mendekotasuna duten pertsonen arretari buruzkoa.*

IV.2.10. GRAFIKOA. EAE-KO MENDEKOTASUNAREN ARRETA: PRESTAZIOEN BANAKETA MOTAREN ARABERA. 2018.12.31.



Iturria.-IMSERSO

Eskatzailearen profila emakumeari dagokio (guztizkoaren %64,1), 80 urte edo gehiagokoa (eskabideen %54,1). Hurrengo adin-talde nagusia 65 eta 79 urte bitartekoena da, hots, eskabide guztien %20,9. Erregistraturiko 102.813 irizpen-eskabideetatik %99,43k irizpena jasota zuten ordurako (%92,72 batez beste Estatuan) eta 78.811 lagunek, irizpena jasotako kasuen %77,09k, prestaziorako eskubidearen aintzatespena jaso zuten. Portzentaje hori Estatuko batezbestekoa (% 79,6) baino txikiagoa da. Pertsona horietatik, % 20,33k III. mendekotasun gradua[21] zuen aintzatetsia, % 25,24k II. gradua eta % 31,54k I. mendekotasun gradua.

IV.2.20. TAULA. MENDEKOTASUNAREN ARRETA AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA. ONURADUNAK, EGOERA 2018-12-31N.

	ONURADUNAK/BIZTANLERIA			PRESTAZIOAK ONURADUN BAKOITZEKO			SENIDEAK ZAINTZEKO DIRU PRESTAZIOAREN %-A		
	2016	2017	2018	2016	2017	2018	2016	2017	2018
ANDALUZIA	2,19	2,35	2,53	1,29	1,29	1,32	29,68	27,91	25,44
ARAGOI	1,61	1,96	2,23	1,08	1,12	1,19	46,22	40,82	38,83
ASTURIAS	1,92	2,05	2,14	1,29	1,28	1,29	33,18	31,73	29,80
BALEAR U.	1,32	1,50	1,53	1,01	1,13	1,28	69,80	60,31	52,96
KANARIAR U.	0,80	0,92	1,02	1,02	1,04	1,04	41,11	38,34	38,40
KANTABRIA	2,30	2,36	2,71	1,12	1,12	1,15	51,43	49,01	46,84
GAZTELA MANTXA	3,49	3,66	3,88	1,28	1,30	1,34	21,91	21,00	19,65
GAZTELA ETA LEON	2,02	2,53	2,85	1,25	1,21	1,20	26,51	21,13	18,81
KATALUNIA	1,68	1,87	2,04	1,26	1,25	1,24	45,85	45,67	41,60
VALENTZIAKO E.	1,04	1,24	1,50	1,08	1,06	1,04	49,94	51,44	54,26
EXTREMADURA	2,25	2,37	2,72	1,09	1,10	1,09	26,38	24,17	21,31
GALIZIA	1,81	2,04	2,22	1,12	1,15	1,17	23,57	21,02	18,45
MADRIL	1,68	1,81	2,15	1,31	1,30	1,32	17,26	17,42	19,14
MURTZIA	2,19	2,31	2,37	1,25	1,25	1,25	53,81	54,00	51,48
NAFARROA	1,52	1,91	2,11	1,22	1,27	1,30	54,79	57,92	55,72
EAE	**2,58**	**2,83**	**2,96**	**1,23**	**1,23**	**1,29**	**45,12**	**43,52**	**40,02**
ERRIOXA	2,40	2,35	2,57	1,39	1,40	1,44	22,53	20,92	15,77
CEUTA ETA MELILLA	1,51	1,54	1,61	1,33	1,34	1,34	41,17	40,07	38,60
ESTATUA, GUZTIRA	1,86	2,05	2,26	1,23	1,23	1,25	33,79	32,72	30,81

Iturria: IMSERSOren datuekin geuk egina. Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemaren (AMAS) estatistika informazioa. Datuak abenduaren 31n.

[21] *Hiru gradutan sailkatzen du mendekotasun egoera 39/2006 Legearen 26. artikuluak:*
I. Gradua: Mendekotasun ertaina: eguneroko oinarriko hainbat jarduera eiteko laguntzen behar denean, gutxienez egunean behin, edo norberaren autonomiarako aldikako laguntza edo laguntza mugatua behar denean.
II. Gradua. Mendekotasun larria: eguneroko oinarrizko hainbat jarduera egiteko laguntza behar denean bizpahiru aditan egunean, baina ez du nahi zaintzailearen etengabeko laguntza edo laguntza handiko beharrak ditu norberaren autonomiarako.
III. Gradua. Mendekotasun handia: eguneroko oinarrizko hainbat jarduera egiteko hainbat alditan laguntza behar denean egunean eta, autonomia fisikoa, mentala, intelektuala edo zentzumenen arloko erabat galduta izateagatik beste pertsona baten laguntza ezinbestean eta etengabe behar denean, edo norberaren autonomiarako laguntza orokorra behar denean

Bestalde, erreferentziako datan, 84.144 prestazio ematen ziren (+%9,9 2017aren aldean), eta horietatik %40,02 Senideak Zaintzeko Prestazioari dagozkio (Estatuakoa baino askoz ratio handiagoa, %30,81ekoa baita), %15,21 laguntza arretari, t% 18,97 telelaguntzako zerbitzuari, %8,79 eguneko/gaueko zentroko zaintzei eta %8,35 etxez etxeko laguntza zerbitzuei, prestazio eta zerbitzu garrantzitsu legez.

Prestazioen jasotzaileak 65.017 pertsona onuradun izan ziren (ratioa 1,29 prestaziokoa da pertsona bakoitzeko, pertsona bat zerbitzu edo prestazio bat baino gehiagoren onuradun izan baitaiteke). Kopuru hori prestazioa jasotzeko eskubidea aitortuta duten 78.811 pertsonen % 82,5koa da (% 81,3 2017an).

2.4.2. Sektorearen balantzea. Mendekotasunaren behatokia

Kopuru horien osagarri, "Mendekotasunaren Espainiako Behatokia" (Gizarte Zerbitzuetako Zuzendarien eta Gerenteen Espainiako Elkarteko kideek osatua) txostenei esker, mendekotasunaren arretarako sistema hedatzeko lanbide-balorazioaren jarraipena egin daiteke Mendekotasunaren Legea oinarri hartuta, autonomia erkidegoen arabera.

Azkenak erakusten duenez, 2018ko abenduko datuekin, EAEk garapen handiagoa du beste autonomia erkidego batzuek baino, baloraturiko pertsonen ehunekoaren aldetik nahiz emandako prestazioen aldetik.

Sistemaren ezarpenaren zifrei eta profesionalen balorazioari buruzko laburpen gisa, Behatokiak puntuazioa jartzen die erkidegoei eta ranking bat aurkeztu du. 2015ean, sistema ezartzeko epealdia bukatutzat eman da eta, beraz, ebaluazio metodologia aldatu da (honako hauek kontuan izateko, besteak beste: sortutako enplegua, jardun onak edo sistemaren gardentasun maila), finkatzearen bigarren etapa baloratua izateko. Urte horretan, bi puntuazio eskaintzen dira, metodologia zaharrarekin eta berriarekin.

2018ko abenduko rankinean, orduan metodologia berria erabilita, Gaztela eta Leon zegoen lehen tokian (9,3ko nota 10etik), eta EAE zazpigarren tokitik seigarrenera jaitsi da, 6,1 punturekin (5,7 2017an). Aurreko urteetan, berriz, metodologia zaharrarekin, askoz toki hobeak izan zituen, noiz-eta mendetasunerako arreta sistemaren ezarpena aurreratuagoa zegoenean gure Erkidegoan Estatuko beste erkidego askotan baino.

IV.2.21. TAULA. MENDEKOTASUNAREN BEHATOKIAK MENDEKOTASUNARI EMANDAKO ARRETAREN BILAKAERA AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA. EGOERA URTE BAKOITZEKO ABENDUAN *. 2012-2018.

	2012	2013	2014	2015**		2016	2017	2018
				AURREKO ESKALA	ESKALA BERRIA			
GAZTELA ETA LEON	9,2	9,6	10,0	9,2	8,6	8,9	9,3	9,3
GAZTELA MANTXA	5,8	5,4	5,0	5,8	5,7	6,8	8,2	8,2
ERRIOXA	6,7	6,3	6,3	6,7	6,1	7,9	6,1	7,1
ANDALUZIA	7,1	5,8	7,1	7,9	7,5	6,8	6,4	6,8
MADRIL	3,8	4,2	4,2	4,6	5,7	6,1	3,9	6,8
EAE	**7,5**	**8,3**	**7,5**	**8,3**	**6,8**	**5,4**	**5,7**	**6,1**
GALIZIA	5,8	5,0	4,2	5,0	4,3	6,1	6,1	5,4
EXTREMADURA	5,0	5,4	6,7	6,7	3,6	5,0	2,5	5,0
ARAGOI	3,8	3,8	3,3	3,8	2,1	2,5	3,2	5,0
MURTZIA	3,3	5,0	4,2	2,9	2,9	6,1	5,7	4,6
KANTABRIA	4,2	6,3	4,6	5,4	3,2	3,6	5,4	4,3
NAFARROA	5,4	5,0	5,0	3,3	2,5	2,9	3,9	4,3
CEUTA ETA MELILLA	2,1	1,3	1,7	3,8	3,2	4,3	3,6	3,9
VALENTZIAKO E.	0,8	0,4	1,7	1,7	-	3,2	3,6	3,6
ASTURIAS	4,2	3,8	5,0	5,0	3,6	4,6	3,2	2,9
BALEAR U.	2,5	2,9	3,8	2,5	2,1	3,6	2,1	2,9
KATALUNIA	5,8	5,4	4,6	4,6	3,6	3,9	2,5	2,9
KANARIAK	2,1	0,8	1,7	1,7	0,7	1,8	1,8	1,8
ESTATUA, B.B.	4,7	4,7	4,8	4,9	4,0	5,0	4,6	5,0

Iturria: MENDEKOTASUNAREN BEHATOKIA.
(*) Gizarte Zerbitzuen Zuzendari eta Gerenteen Estatu Elkarteak Mendekotasunarentzako Arreta Sistemaren hedapen mailari eta funtzionamenduari buruz sei hilean behin emandako 0 eta 10 arteko puntuazioa. Erkidegoak puntuaziotik handiera txikienera sailkatu dira aldagi honetan 2018an.
(**) 2015ean ebaluazioaren metodoloagia aldatu zen. Aurreko metodologiaren araberako puntuazioa eman da (sistemaren ezarpena) eta berriaren arabera (finkapena).

Hala ere, Behatokiak IMSERSOren informazioa oinarri hartuta egiten duen ebaluazioan aipatzen denez (horri buruzko daturik eman gabe), Asturias, K. Uharteak eta Kantabria erkidegoekin batera, nolabait ez aurrera ez atzera gelditu diren erkidegoen taldean sartu da EAE, non ezin eman dakiokeen erantzunik beharrezko erritmoan, betiere egiteke duten bidea aintzat hartuta.

Horren gain, gutxitu bada ere, gure Erkidegoan oraindik ere gehiegizko pisua du senideak zaintzeagatiko prestazio ekonomikoak. Izan ere, prestazioen % 40 da, Estatuko batez bestekoak baino 10 puntu gehiago.

2.5. GIZARTE AURREIKUSPENEKO SISTEMA OSAGARRIAK EAE-N

EAEn, gizarte aurreikuspen osagarriko sistema pribatuan protagonista nagusiak Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeak (BGAE) eta horiek osatzen dituzten aurreikuspen planak dira. Euskal zergapekoek errentaren gaineko zergaren aitorpenean gizarte-aurreikuspen osagarriko erakundeei ordaindutakoagatik kentzen dutenaren % 92 inguru BGAEetara bideratzen dute. Gainerako % 8a beste forma batzuetara bideratzen dute, besteak beste, pentsio plan eta funtsetara, taldeko aseguru kontratuetara, mutualitateetara, etab.

Gizarte Segurantzaren sistema publikoak osatzeko pentsio plan pribatuak dauzkaten herrialde guztietan bezala, EAEn bi plan-mota nagusi daude: Enplegu- edo lanbide- aurreikuspenekoak, langileentzat, enpresaren nahiz lan-harremanen esparruan egituratzen direnak; eta finantza-erakundeek sustatutako banakako aurreikuspen planak edo kontu pertsonalak, zeinetan edozein pertsona fisiko bazkidetu daitekeen. Azkenik, gure legerian hirugarren modalitate bat ere badago: elkarteko aurreikuspen-planak; plan horien bazkideak elkarte bateko, sindikatu bateko, elkargo bateko edo antolakunde bateko kideak dira eta ez daude besteak bezain zabalduta.

IV.2.11. GRAFIKOA. EAE-KO BGAE-AK: ATXIKIPENEN KOPURUAREN (MILAKOAK) ETA ONDAREAREN (MILIOI EUROTAN) BILAKAERA.



Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN datuak erabiliz egina.

2.5.1. Magnitude nagusiak

Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailaren esanetan, 2017. urtean, EAEko BGAEek 25.708 milioi euroko ondarea zuten. Zenbateko hori % 2,9 igo da azken lau urteotan eta gure erkidegoko BPGren % 34,9koa da, behin-behineko datuen arabera. Halaber, erakunde horietako elkartutakoen edo atxikipenen kopurua (kontuen kopurua aintzat hartuta eta ez pertsonena, zaila baita zehazten zenbat pertsona dauden bikoiztuta edo zenbat bazkidek duen ekarpena etenda) 1,13 milioi da, 2016an baino % 0,8 gutxiago.

2010. urtean lortu zen orain arteko atxikipen kopururik handiena (1,27 milioi), eta urte horren aldean, % 11,3 egin zuten behera. BGAEen ondareak, berriz, gorantz jarraitu du, zehazki % 33,5 2010-2017 aldian. 2017ko abenduaren 31n, EAEk 80 BGAE zituen, eta horietatik 45 enpleguko BGAE ziren, 33 banakoak eta 2 elkartuak.

Elkartuetakoen erdia baino gehiagok, %59k, banako BGAE zuen, eta ondoren enplegukoak, elkarturikoen %40,9 hain zuzen ere. Ondareari dagokionez, %50ean banantzen da bi modalitateen artean, baina ordaindutako prestazioak gehienbat enplegu erakundeetan metatzen dira (guztizkoaren %69,6), eta bigarren tokian banakoak (%30,4). Kuotak, azkenean, gehienbat banako BGAEei dagozkie (guztizkoaren %50,6), eta gainerakoa enplegukoei (%49,3)

IV.2.22. TAULA. EUSKADIKO BGAE: DATUAK 17-12-31N (DATU EKONOMIKOAK EUROTAN)

	ERAKUNDE ELKARTUAK	BAZKIDEAK	KUOTAK	ONDAREA	PRESTAZIOAK	ERRESKAT.
ENPLEGUA	45	460.417	396.844.263	13.885.216.313	490.874.814	2.641.909
BANAKOAK	33	665.147	407.549.035	11.800.127.292	214.293.714	159.480.206
ELKARTUAK	2	1.527	342.461	22.760.687	302.209	39.543
BGAE GUZT.	**80**	**1.127.091**	**804.735.759**	**25.708.104.293**	**705.470.737**	**162.161.658**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA.

2017ko balantzea egiteko esan behar da EAEko BGAEen ondarea 25.700 milioi eurotik gorakoa dela, eta % 2,9 hazi da aurreko urtearen aldean, arestian esan bezala. Ondare hori Euskal Autonomia Erkidegoko BPGd-aren gaineko % 34,9 da; Estatukoa baino askoz handiagoa da ratioa (% 9,5) eta EB15eko batez bestekotik gertu (% 36), baina oso urruti dago ELGAko herrialdeetako batez bestekotik (% 85,3).

Kuotak edo ekarpenak 2017an 804,7 milioi euro izan ziren orotara, eta %19,8 egin dute gora 2016aren aldean. Bestalde, atxikipenak, 1,127 milioi, jaitsi egin dira azken urtean, gutxi bada ere (-%0,8). Aldi berean, ordaindutako prestazioak 705 milioi eurotik gorakoak dira, hots, 2016an baino %8,7 gehiago. Halaber, 2017an orotara 162,16 milioi euro erreskatatu ziren; aurreko urtean, berriz, 181,4 milioi euro eta, beraz, %10,6ko jaitsiera da.

IV.2.23. TAULA. EUSKADIKO BGAE-AK. MAGNITUDE NAGUSIEN BILAKAERA. ZENBATEKOAK EUROTAN

	2013	2014	2015	2016	2017	15/16	16/17
BAZKIDEAK	1.180.819	1.172.028	1.157.425	1.136.122	1.127.091	-1,8	-0,8
KUOTAK	927.407.318	780.544.629	764.020.875	671.808.760	804.735.759	-12,1	19,8
PRESTAZIOAK	804.540.512	728.522.955	715.367.814	649.227.442	705.470.737	-9,2	8,7
ONDAREA	22.531.310.355	23.684.329.254	24.177.371.662	24.976.018.731	25.708.104.293	3,3	2,9
BPG-AREKIKO KUOTEN %	1,41	1,16	1,10	0,95	1,09		
BPG-AREKIKO ONDAREAREN %	34,19	35,23	34,93	35,25	34,91		

Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN datuak erabiliz eginikoa.

2.5.2. Zerga araubidea

BGAEek EAEn izan duten garapen handiaren arrazoietako bat, neurri handi batean, zerga pizgarriak izan dira; izan ere, aurrezte bide horren erakargarritasuna areagotu dute, batez ere PFEZren bitartez (zenbakiko bazkideentzat), baina baita Sozietateen gaineko Zergaren bitartez ere (bai erakundeentzat eurentzat, bai enplegu planetan enpresa edo bazkide babesleen parte hartzea bultzatzeko).

EAEn, zergari buruzko eskumenak lurralde historiko bakoitzeko foru aldundiak eta batzar nagusiek erabiltzen

IV.2.24. TAULA. PFEZ-REN LIKIDAZIOA: ZERGA-OINARRI OROKORRAREN MURRIZKETAK PENTSIO PLANETARAKO ETA BGAE-ETARAKO EKARPENENGATIK.

	ZENBATEKOA (MILAKA €)	AITORLEAK		B.B. MURRIZKETA (€)
		KOP.	GUZ. %-A	
2011	1.158.506	490.070	41,4	2.364
2012	823.114	420.756	39,0	1.956
2013	812.364	392.748	36,8	2.068
2014	650.214	356.947	34,0	1.822
2015	647.360	344.683	31,1	1.878
12/13 ALD. %	-1,3	-6,7	-5,6	5,7
13/14 ALD. %	-20,0	-9,1	-7,6	-11,9
14/15 ALD. %	-0,4	-3,4	-8,5	3,1

Iturria: ZERGAK KOORDINATZEKO ORGANOAREN datuak erabiliz egina.

dituzte[22]. Bestalde, errenta geroratutzat jotzen direnez, BGAEetatik jasotako prestazioak (baita erreskateak edo gertakizuna jazo aurretik ordaindutako zenbatekoak) norberaren lanaren etekin osotzat jotzen dira, baita atxikipenari begira ere[23].

Zergak Koordinatzeko Erakundeak 2016ko txostenean emandako 2015eko ekitaldiko PFEZren likidazio datuen arabera, BGAEetan eta gainerako aurreikuspen-moduetan egindako ekarpenengatiko kenketa 647,36 milioi eurokoa izan zen, 2014an baino % 0,4 gutxiago. Zenbateko hori EAEko urte horretako BPGren % 0,95ekoa izan zen (2014an, % 0,98koa), guztira 344.683 aitortzaileena, aurreko urtean baino % 3,4 gutxiago. Aitortzaileen kopurua guztien % 31,1 izan zen.

Lurraldeen arabera, Arabak aitortzaileen % 11,7 besterik ez du, eta zerga-oinarriaren murriztapenen guztizko zenbatekoaren % 13,6 (40.229 aitortzaile eta 87,8 milioi euroko murriztapena). Bizkaiak, berriz, aitortzaileen % 43,9 izan zuen eta murriztapenaren % 44,9. Azkenik, Gipuzkoak aitortzaileen % 44,4 izan zuen eta murriztutako zenbatekoaren % 41,5.

Zenbateko horrek, batez beste, 1.878 euroko kenketa ekarri zuen, hau da, aurreko urteko zenbatekoa baino % 3,1 gehiago. Balio zehatzagoak ondokoak dira: errenta-maila txikienen (30.000 eurorainoko likidazio-oinarria) batez besteko ekarpena 1.265 eurokoa izan zen, eta zergadunen % 24,4k bakarrik egin zituzten ekarpenak; 30.000 eta 90.000 arteko oinarria izan zuten zergadunen batez besteko ekarpena 2.578 eurokoa izan zen, eta haietatik % 49,4k egin zituzten ekarpenak; azkenik, errenta-mailarik handienetan, batez besteko ekarpena 5.045 eurokoa izan zen, eta zergadunen % 61,3k egin zituzten ekarpenak.

ITURRIAK

1. **EUROSTAT.** Bizi-baldintzei buruzko Estatistika (EB-BBE). 2017ko datuak. Urterokoa. Abagunekoa.
2. **EIN**: Bizi-baldintzei buruzko Inkesta. 2017ko datuak. Urterokoa. Abagunekoa.
3. **EUSKO JAURLARITZA:** Eusko Soziometroa, 62. zk., EAEko familiari buruzkoa. 2016ko datuak, Biurtekoa. Estrukturala.
4. **EUSTAT**: Lana, Bizitza Pertsonala eta Familia Uztartzeari buruzko Inkesta. 2017ko datuak. Urtekoa. Estrukturala.
5. **EUSKO JAURLARITZA:** Familiei Laguntzako III. Planaren ebaluazio txostena (2011-2015). 2017. Unekoa.
6. **EUSTAT**. Gizarte Babesaren Kontua EAEN. 2017. urtea. Urterokoa. Estrukturala.
7. **ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZA MINISTERIOA**. Lan-Estatistiken Aldizkaria. 2018. urtea. Hilerokoa. Abagunekoa.
8. **GSEN. DATU-BASEA**. 2018ko abendua. Hilerokoa. Abagunekoa.
9. **GIZARTE SEGURANTZA**. Abagunekoa. Ekonomia eta finantza informazioa autonomia erkidegon arabera. 2018ko abendua. Hilerokoa
10. **GSDO.** Urteko memoriak. 2017. urtea. Urterokoa. Estrukturala.
11. **EUSKO JAURLARITZA. ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA**. 2017-2021 2017-2021eko III. Gizarteratze Aktiboko Plana
12. **LANBIDE**. DBEren hileko txostena. 2018ko abendua. Hilerokoa. Abagunekoa.
13. **EUSKO JAURLARITZA. ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA**. Txostena: "*Gizarte bazterketaren kontrako borroka 2017*". Urterokoa. Estrukturala.
14. **OSASUN, GIZARTE POLITIKA ETA BERDINTASUN MINISTERIOA.** 2017ko Laneratze Gutxieneko Errentei buruzko Txostena.
15. **IMSERSO**. Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako Estatistika Informazioa (AMAS). 2018ko abenduaren 31ko datuak. Abagunekoa.

[22] *Ondarearen gaineko Zerga Bereziari dagokionez, bazkidearen eskubide irmoak zerga horren aitorpena aurkeztu behar den erabakitzeko baino ez dira zenbatzen, eskubide salbuetsitzat jo eta, beraz, ez dute haren zerga-oinarria osatzen. Prestazioa kapital gisa jasotako kopurua bada, % 40ko kenketa dakar, eta errenta bada, aldiz, oso-osorik sartzen da zerga-oinarrian.*

[23] *Prestazioa kapital gisa jasotako diru-kopurua bada, % 40ko murriztapena du. Errenta bada, ordea, osorik zerga-oinarrian sartzen da*

16. **MENDEKOTASUNAREN BEHATOKIA.** Behatokiaren XIX. Irizpena (2019ko martxoa). 2018ko abenduaren 31ko datuak Hiruhilekoa. Abagunekoa.
17. **EUSKOA JAURLARITZA.** Ogasun eta Ekonomia Saila. Oinarrizko datuak, 2017ko BGAE. Urterokoa. Estrukturala.
18. **EUSKO JAURLARITZAKO ZERGAK KOORDINATZEKO ORGANOA**. Urteroko txostena 2016. Urterokoa. Estrukturala.

3. LABURPENA ETA ONDORIOAK

3.1. LABURPENA

3.1.1. Bizi Baldintzak

Krisiaren ondorioz, nabarmen handitu zen pobrezia edo bazterketa arriskuan dauden EBko herritarren kopurua, eta 2012an izan zuen gehienekoa, eta harrezkero pixka bat behera egin du. Egoera horren eraginpean daude gaur egun (2017koa da azken datu eskuragarria) biztanleriaren %22,5, hots, EBko 112,9 milioi herritar, Europa 2020 Estrategian, "*AROPE*" tasa deritzon horretan (*population at risk of poverty and exclusion*). 2014ren aldean, % 1 egin du behera Batasunerako batez besteko tasak (eraginpeko 5,1 milioi lagun), eta, beraz, intzidentzia EBko lau herrialdetan besterik ez da handitu: Danimarka, Luxenburgo, Holanda eta Austria. Espainian, 2017ko ratioa %26,6 zen, Europako batez bestekoa baino 4,1 puntu handiagoa (eraginpeko 12,1 milioi lagun baino gehiago), eta 1,3 hamarreneko murriztapena izan du aurreko urtearen aldean.

EAEn, biztanleriaren %14,5 (EUROSTAT eta EINen metodologiaren arabera) pobrezia eta bazterketa arriskuaren eraginpean zegoen 2017an, bestela esanda, 320.000 lagun (ez dago talde horren banaketari buruzko sexuaren araberako informaziorik), 2015ean baino %1,7 gutxiago. Bestela esanda, 320.000 lagun (interesgarria izango balitz ere, ez dago sexuaren araberako informaziorik), 2016an baino 1,4 puntu gutxiago, eta krisiaren hasierako intzidentzia % 13,9koa zen (2008ko datua). Ratio horrek, beste urte batez, nahiko maila baxuan eusten dio Europan, Finlandiakoaren edo Eslovakiakoaren antzekoan. Posizio on hori gertatzen da estatuko autonomia erkidegoen testuinguruan.

EAEren egoera erlatibo on horri buruzko ñabardurak egin behar dira AROPE tasaren osagai bakoitzeko:

1. 2017an, Europar Batasuneko biztanleen % 16,9 txirotasun-arriskuan zegoen transferentzia sozialen ostean; hala, biztanleak egoera horretan daudela jotzen da herrialde bakoitzeko kontsumo-unitateko diru-sarreren banaketaren medianaren % 60 baino gutxiagoko diru-sarrerak dituztenean ("pobrezia-atalasea" deritzona). Ehuneko horrek lau hamarren egin du behera 2016aren aldean, eta bost pertsonatik bat baino gehiago dago egoera horretan Espainian (%21,6). EAEn, 2017ko tasa % 9,7 da, eta azken urtean 7 hamarreneko igoera izan da eta 6 hamarrenekoa krisia hasi zenetik, baina maila erlatibo oso onei eusten zaie estatu eta Europa mailan.

2. EBko herritarren %6,9k gabezia material larria zuen 2017an, zeren eta zenbait baliabiderik ez izatearen menpeko egoeran bizi baitira hala nola ezin dituztelako fakturak ordaindu (etxeko ohiko gastuei dagozkienak), etxea tenperatura egokian mantentzerik ez dutelako edo urtean astebeteko oporraldia ezin dutelako izan). Ratio hori 6 hamarren murriztu egin da azkenengo urtean eta 2008ko % 8,5aren azpitik dago. Herrialdeka, gabezia horren intzidentzia nabarmen aldatzen da, eta hobetu egin da gehienetan. Espainiaren intzidentzia % 5,1ekoa da (2016an % 4,2) eta EAErena % 3,7koa (2016ko % 4,2aren aurrean). 2008-2017 epea aztertuta, esan beharra dago bilakaera negatiboa izan dela, % 2,8tik % 3,7ra igaroz, beti % 5 baino gutxiagoko mailatan mantendu bada ere.

3. 2017an, Europar Batasuneko biztanleen % 9,3 lan-intentsitate oso baxuko etxeetan bizi zen; izan ere, egoera hori dela jotzen da etxeko 59 urte baino gutxiagoko helduek azkenengo urtean guztizko lan-ahalmenaren % 20 baino gutxiago lan egiten dutenean (2016an baino 1,2 gutxiago eta 2008an baino hamarren 1 gehiago). Grezia (% 15,6) eta Espainia (% 13,5) daude Europar Batasunaren rankingaren buruan; Eslovakian, Txekiar Errepublikan eta Polonian, berriz, ez dira % 6ra iristen.

EAEko datua % 7,7koa da, EBko batez bestekoa baino txikiagoa, azken urtean izandako jaitsiera handiari esker (-6 puntu portzentual), baina krisiaren hasierako % 6,5etik gora eusten dio. Bestalde, EINen "*Bizi-baldintzei buruzko Inkesta*"ren kopuruek erakusten dutenez, azken urteotan ez bezala, aldeko bilakaera orokorra dago Euskadiko familien gabetzea-adierazleetan. Salbuespen bakarra dago, ondoren ikusiko denez: pobrezia energetikoaren tasak okerrera egin du pixka bat azken urtean:

- Azken biurtekoan bilakaera ona zuten adierazleen artean, berriz ere egin zuen behera 2017an hilaren azkenetara iristeko zailtasunak dituztela adierazten duten familien portzentajeak (% 39,9tik % 33,2ra), eta hobekuntzari eusten zaio aitortutako batez besteko errentekin ere: errenta familiarrak nahiz pertsonalak nahikoa handiak dira estatuko beste erkidegoen aldean, eta gora egin dute azken urtean, neurri txikiagoan bada ere (+ % 0,4 bi aldagaietan).

- Beste adierazle-talde batek joera aldaketa izan litekeela erakutsi zuen 2017an; izan ere, azken urteetan beherako bilakaerak izan ondoren, berriz ere behera egin dute intzindentzia-ratioek azken urtean. Halaxe gertatzen da ezusteko gastuei aurre egiterik ez duten familien ehunekoan, baita etxebizitzarekin lotutako gastuen ordainketetan atzerapenak dituzten eta urtean behin astebeteko oporraldia hartzerik ez duten familien portzentajean ere. Hala ere, ratio horien jaitsiera-tasak txikiak dira oraindik ere (-1,1, -0,9 eta -0,1 hurrenez hurren).

- Arestian esan bezala, bilakaera negatiboa duen datua ere badago, hots, etxebizitza tenperatura egokian mantentzerik ez duten familien portzentajea, "pobrezia energetikoa" deritzona, 2017an EAEko familien % 7,9k jasaten duena. 2016an, berriz, % 7,3k zuen pobrezia hori. Estatuan nahiz EBn, berriz, kontrako norabidea izan du horri dagokion bilakaerak.

Horrez gain, EAEn, familia-sistemen tipologia nabarmen aldatu egin da azkenengo hamarkadetan, prozesu demografiko, sozial eta kulturalen ondorioz. Aldaketa nabarmenen artean, hauek daude: etxe-moten aniztasun gehiago; batez besteko tamainaren murrizketa; aldaketa handiak etxe horietako erreferentziazko pertsonen profilean; etxean dauden adingabeen proportzioaren murrizketa eta menpekotasun-egoeren areagotzea.

Azkenengo urteotan, familia-erakundean egondako eraldaketa handiek eta horrek ugalkortasunean izandako eraginak interes publiko handia sorrarazi dute, horrek guztiak dituen ondorioak direla-eta. Ugaltzeko adin egokiak eta lanean hasteko eta laneko promoziorako adinak bat datoz eta horrek oso egoera zailean kokatzen ditu emakume gazteak haurrak edukitzeko erabakiari dagokionez. 2016ko Eusko Soziometroaren arabera, pertsonen % 44k uste du seme-alabak izatea nahikoa eragozpena dela emakumearen lanbide ibilbidean, eta % 26k uste du "asko" eragozten duela. Gizonezkoen ustez, aldiz, galdeturikoen %13k baino ez du uste emakumeek eragozpen asko edo nahikoak dituztela lanbide karreran seme-alabak izateagatik.

Halaber, EUSTATek "*Lana eta bizitza pertsonala eta familia bateratzeari buruzko inkesta*" egiten du (LBI), eta 2017ko emaitzetan nabarmentzen denez, lehenik eta behin, etxetik kanpora lan egiten duten emakumeek, gainera, egunean %55 ordu gehiago ematen dituzte seme-alaba adingabeak eta mendetasunean bizi direnak zaintzeko gizonezkoek baino, eta %43 denbora gehiago etxeko lanetan. Gizonezkoek, ordea, 3,3 ordu erabiltzen dituzte egunean-egunean adin txikikoak zaintzeko; emakumezkoek, ordea, 5,1 ordu. Alde hori handiagoa da menpeko pertsonen zaintza kontsideratzen badugu; izan ere, gizonek egunean 1,4 ordu ematen dute jarduera horretan eta emakumeek, berriz, 2 ordu. Horrez gain, etxeko lanetan, emakumeek 2,2 ordu ematen dituzte batez beste egunean, eta gizonek, 1,5 ordu.

Beren gain hartutako kargen inguruko desberdintasun horrek ondorioak dakartza etxeko lanen banaketarekiko gogobetetasunean, zeren eta emakumeek, batez beste, 5,9ko gogobetetasun-maila adierazten baitute 10etik, ezkontideak edo bikotekideak etxean egiten dituen lanen gainean; gizonezkoen kasuan, berriz, 7,8koa da.

Azaldutako egoera horiek arintzeko, familiei laguntzeko planak abiarazi zituen Eusko Jaurlaritzak 2002an, zertarako- eta familiek seme-alaba kopurua askatasunez erabakitzea galarazten duten eragozpen ekonomikoak eta gizarte eta laneko eragozpenak gainditzeko. Hala, Familiei Laguntzeko Legea onetsi zuen 2008an, markoari lerrun juridiko handiagoa emateko eta familia politika integralerako oinarriak ezartzeko, betiere familien eta familiako kideen ongizatea eta bizi-kalitatea hobetze aldera. Familientzako zuzeneko laguntzak 2002an hasi ziren I. Familia Planarekin. Harrezkero, 2015era arte, 640 milioi euroko gastuak izan dira laguntza horietan, gutxi gorabehera erdibana banatuta jaiotza, adopzio edo aurre-adopzioko harrerarako laguntzen eta bateratzeko laguntzen artean.

II. Familia Planaren indarraldia bukatuta (2011-2015), eta emandako laguntzen kopuru zehatzei dagokienez, plan horren indarraldian 133,3 milioi euro erabili ziren seme-alaben jaiotzagatik eta mantentzeagatik, guztira 157.738 espediente. Uztartzeko laguntzek, bestalde, 136,3 milioi euroko gastua ekarri dute, eta guztira 97.086 onuradun izan dira.

Azken finean, azterturiko laguntza-lerroek 270 milioi euro dakartzate, gutxi gorabehera %50ean banatuta. 2016-2017 biurtekoa dela-eta, familientzako zuzeneko laguntzen gastua, guztira, 124 milioi euro izan zen, atzera % 50ean banatuta bi lerrootan.

III. Planaren bilakaera familien aldeko politikei buruzko gogoetarako abiapuntua izan zen, baita 2018an EAEko administrazio guztietarako sinaturiko "Familien eta haurren aldeko ituna" sinatzeko ere. 2018-2022 aldian Familiei Laguntzeko IV. Pana sortzeko balio izan duen diagnostiko partekatua da itun horren oinarria. Plan berriak 460 milioi euroko gastua aurreikusten du Gizarte Politiketako Sailburuordetzaren neurrietan, bereziki familia eta lana bateratzearen arloan (286 milioi euro), eta horri gehitu behar zaizkio seme-alabak dituzten familientzako errentak bermatzeko politiketarako eta gazteen enplegurako programetarako 785 milioi. Halaber, 220 milioi erabiliko dira Haurreskolen Partzuergorako, 250 milioi beketarako, 50 milioi gehiago gazteentzako etxebizitza politiketarako, 1.575 milioi seme-alaben ziozko zerga-kenkarietarako eta 415 milioi euro Gizarte Zerbitzuetan.

Panaren segimendua egingo da Memoria Sozioekonomiko honen hurrengo edizioetan, eta honako eragin-adierazle hauek lortu beharko ditu 2022an:

- ✓ Haurren pobrezia-tasa % 20 gutxitzea.
- ✓ 25-44 urtekoen okupazio-tasa % 80raino igotzea.
- ✓ 1,50eraino handitzea EAEko emakumeen ugalkortasun-adierazle koiunturala.
- ✓ % 25 igotzea eskolatze-tasa garbiak urtebeteko haurren artean.
- ✓ Gutxienez % 50 murriztea etxeko lanetan dagoen aldea.
- ✓ Gazteen emantzipazioko batez besteko adina gutxitzea eta 25-29 gazteen emantzipazio-tasa handitzea.

3.1.2.Gizarte babesa

Lehenik eta behin, EUSTATen 2017ko "EAEko Gizarte Babesaren Kontua"ren azken datuen arabera, Euskadin eginkizun horretarako erabilitako baliabideak 17.870 milioi euro izan ziren aipaturiko urtean, 2016an baino %2,7 gehiago. Hots, urte horretako BPGaren %24,2 (+%4,4 2008aren aldean eta -%0,2 2016arekiko), behin-behineko datuak erabiliz. Gizarte babesaren gastuak etengabe egin du gora eskuragarri dugun urteetako seriean, eta biztanleko gastua 6.402€ izan zen 2008an. 2017an, berriz, 8.204 (+%31,2). Gainera, EUROSTATek argitaraturiko azken datuak aztertuta ikusten denez, gizarte babesek per capita gastua Euskadin 2016an, eroste-ahalmenaren parekotasunaren arabera neurtuta, 8.682 eurokoa izan zen, hau da, EBko batez bestekoaren (8.232 euro) eta Estatuko batez bestekoaren (5.852 euro) gainekoa.

Bigarrenik, 2018. urtean, milioi erdi pertsona baino gehiago (513.194, lehen zenbatespenaren arabera) Gizarte Segurantzaren pentsio-sistemaren onuradun izan ziren gure autonomia erkidegoan (kontribuziozkoak eta ez-kontribuziozkoak)[24]. Kopuru hori aurreko urtekoa baino % 1,4 gehiago da. Azken urteetan gertatu den bezala, hazkuntza hori kotizaziopeko pentsioen onuradunak diren pertsonen bilakaeragatik izan da; izan ere, beste modalitateetan oro har murrizteko joera izan du. Hala, Gizarte Segurantzak emandako prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten EAEko biztanleen ehunekoa % 23,5era heldu zen, aurreko urtean baino bi hamarren gehiago.

Kotizaziopeko pentsioei dagokienez (onuradunen % 97,7 eta gastuaren % 99,3 dira), batez beste 501.398 onuradun zeuden 2018an (+% 1,3), eta orotara 551.326 pentsio jasotzen zituzten (+% 1,4), zeren eta pertsona bat kotizaziopeko pentsio baten baino gehiagoren onuraduna izan baitaiteke. Urteko gastua, berriz, 8.930,4 milioi eurokoa izan zen, 2017an baino % 5 gehiago. Kotizaziopekoak ez diren pentsioek, bestalde, 11.796 lagun hartzen zituzten 2018an, eta urteko gastua, gutxi gorabehera, 60,6 milioi eurokoa zen. Labur esanda, EAEn pentsioetako gastua 2018an, behin-behineko

[24] *Kalkulu hauetatik at gelditu dira laguntzako pentsioak eta LISMIren ondoriozkoak. Izan ere, desagertzeko joera dute eta ez dago horiei buruzko informaziorik eguneratuta. Nolanahi ere, guztizkoarekiko pisua % 0,4tik beherakoa da.*

datuak erabilita, 8.991 milioi eurokoa izan zen guztira, 2017an baino % 5 gehiago. Hortaz, BPGd-an duen portzentajea hamarren bat handitu da, %11,7ra (EUSTATen behin-behineko datuak kontuan hartuta).

Gizarte Segurantzak EAEn dituen kotizaziopeko pentsioen gastua eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren kuoten bilketako kopuruak erkatuta ikusten denez, 2017an (bi datuak ditugun azken ekitaldia), gastua 8.502,7 milioi eurokoa zen gure zenbatespenen arabera. Sarrerak, berriz, 6.812,8 milioi eurokoak ziren eta, beraz, saldo negatiboa izango litzateke, 1.689,9 milioi euro; 2016an -1.630,2 milioi ziren.

Bestalde, Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren funtsezko prestazioa Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) izenekoa da, Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeari buruzko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak ezarritakoari jarraiki.

DSBEren bizikidetza-unitate hartzaileen kopurua, 2018an, 55.380 da (abenduko datua). Hala, 15 urtez etengabeko hazkundea izan ondoren (1999 eta 2014 bitartean), laugarren urtez behera egin du, azkenean %8,3. 2018ko espediente aktiboen fitxari esker, jakin badakigu 55.380 pertsona titular zeudela inskribatuta, %42,2 gizonezkoak ziren eta %57,8 emakumezkoak. Onuradun gehien biltzen dituen adin-tartea 40-59 urte bitartekoa da (guztizkoaren %47), eta nabarmentzekoa da ere 3.897 jasotzailek 30 urte baino gehiago dituztela. Hauxe da bizikidetza-unitate hartzailearen pertsona titularraren profila: espainiar nazionalitateko emakumea, 40 urtetik gorakoa eta oinarrizko ikasketak dituena (%68,4k nahitaezko ikasketak ditu, %10ek lanbide titulazioren bat eta %4k unibertsitateko titulazioa). Prestazio jaso zuten atzerritarrak guztizkoaren % 39,4 dira (% 27,3 2017an), eta % 25,7 pentsiodunak dira (2017ko ratio bera).

Horrez gain, unitate jasotzaileen % 19,9k ordainsarien errentaren osagarri gisa jasotzen du DSBE (2017ko ratio bera). DSBEren osagarriei dagokienez, lehenbizikoa Etxebizitzaren Prestazio Osagarria (EPO) da, hain zuzen 25.838 bizikidetza-unitatek jasoa aipaturiko urtean, guztizkoaren % 46,7k. Aldi berean, unitate horien 8.888 titularrek guraso bakarra izatearen ziozko osagarria jaso dute (% 16k).

Gainera, 2010ean, Etxebizitzaren Prestazio Osagarria (EPO) abian jarri zen, arestian aipatu dugun 18/2008 Legea garatzeko. Haren helburua Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren osagarri diren prestazio ekonomikoen sistema egituratzea da, biztanleriako talderik ahulenek etxebizitzaren inguruko gastuak ordaindu ahal izan dezaten. Indarraldiko lehen urtean (2010), guztira 50 milioitik gorako gastua izan zuen EPOk, eta urtez urte joan da handitzen gastua, 2016ko 91 milioi euroraino (orain arteko zenbatekorik handiena). 2017an, 86,72 milioi euro erabili ziren prestazio horretarako, eta 80,67 milioi 2018an (-% 7). Titular jasotzaileen kopuruari dagokionez, arestian esan bezala, DBEren onuradunak ziren 25.838 bizikidetza-unitatek gainera EPO jaso zuten 2018ko abenduan (aurreko urtean baino % 7,4 gutxiago).

Era berean, EPO abian jarri ondoren, Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL), Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren hirugarren tresnak, bere jatorrizko helburua berreskuratu zuen (hau da, oinarrizko beharrizan espezifikoei aurre egitea, batez ere etxebizitzarekin zerikusia dutenak, gizarte bazterketako egoerak prebenitzeko, ekiditeko edo leuntzeko gastuei aurre egiteko baliabide nahikorik ez daukaten pertsonei egoera zehatzetan sortzen zaizkienak) eta bere aurrekontu partida nabarmen murriztu zen: 2017. urtean (informazio kontsolidatua daukagun azken urtea) laguntza horretarako 34,04 milioi euro bideratu ziren (+%2,1 2016aren aldean). Halaber, guztira 29.554 kontsumo-unitate hartzaile zenbatu dira, 2016an baino % 2,3 gehiago. Orotara, 59.365 laguntza eman ziren hainbat kontzepturengatik, hala nola oinarrizko beharrak (9.319 laguntza), alokairua (8.397) edo interesen amortizazioa (4.285), eta batez besteko zenbatekoa 573,38€ da laguntzako (-% 24,6 gutxiago 2016aren aldean). Urte horretan, gainera, lehen aldiz sartu zen berariazko kategoria gisa “energia”, hain zuzen 15.673 laguntza biltzen dituena (laguntza guztien % 26,4), orotara 5,89 milioi euro (GLLrako funtsen % 17,3).

Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak, 2018an, 472,6 milioi euro gastatu zituen orotara, 2017an baino %5,9 gutxiago. Honelaxe daude banatuta: 357,89 milioi Sarrerak Bermatzeko Errentan eginiko gastuari dagozkie (guztizkoaren %75,7, eta 2017an baino %6,2 gutxiago), 80,67 milioi Etxebizitzaren Prestazio Osagarrirako (guztizkoaren % 17,1 eta 2017an baino %7 gutxiago), eta eginiko zenbatespenen arabera, Sistemaren gastu agregatua kalkulatzeko, Gizarte Larrialdirako Lagunetarako 2017an erabilitako 34 milioi eurori eutsi egin zaie 2018an (Sistemako gastu guztiaren %7,2), laguntza horri buruzko datu ofizialak izan arte.

Konparazioa egite aldera, Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioaren "*Gizarteratzeko Gutxieneko Errenten Txostena*"ri esker, autonomia erkidegoetako sarrerak bermatzeko sisteman kopuru handien konparaziozko segimendua egin daiteke, betiere era askotako araudiak eta sistemak garatzeko maila ezberdinak daudela kontuan izanik. 2017ko ekitaldiari buruzko txostenaren arabera, urte horretan gure erkidegoak 6.148,30 euro gastatu zuen urtean prestazio horien titular bakoitzeko, estatuko 4.931,27 euroko batez bestekoaren aldean, eta haren estaldura-tasa 34,72koa izan zen mila biztanleko. Estatuko batez bestekoa, berriz, 6,72 izan zen mila biztanleko. Azterlanaren arabera, gure Erkidegoak 2017an Estatuan prestazio horietarako emandako funts guztien %30,3 erabili zuen DBErako gehi EPO, autonomia erkidegoen arabera. Euskal biztanleriak Estatu osoan duen pisuaren arabera egokitu beharko litzaiokeena baino askoz portzentaje handiagoa da; izan ere, %4,7koa da aipaturiko urtean.

Bestalde, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak gizarteratzea bultzatzeko eginiko ekimenen barruan, Hirugarren Sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzen programa burutzen da gizarteko esku-hartzearen eremuan. Horretarako, 2017an (informazioa dugun azken urtea) diru-laguntzak eman ziren hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko gizarteko esku-hartzearen eremuan, orotara 4,79 milioi euro, aurreko urtean baino %10,4 gehiago. Laguntza horietatik 3,74 milioi, %78,1, "gizarteko esku-hartze" lerrorako erabili ziren eta gainerako %9,4 (450.000 euro inguru), "ezagutza kudeatzeko" lerroan.

2017ko Mendetasunaren Legea ezartzeari dagokionez, IMSERSOren 2018ko abenduaren 31ko azken datuek erakusten dutenez, aipaturiko data horretan, EAEk 102.813 balorazio-eskabide zituen erregistraturik Mendekotasunaren Arretarako Sisteman. Horietatik (gainerako erkidegoetan bezala) gehienak mendekotasun-gradua aintzatesteko berrikuspenei dagozkie. Eskabideen kopuruak EAEko biztanleriaren %4,68ko ratioa du (+0,16 puntu aurreko urtearen aldean. Eskabideen kopurua EAEko biztanleriaren %5,82ko ratioa da (+0,16 puntu aurreko urtearen aldean). Laguntza horiek, gainera, estatuan erregistraturikoen % 5,82 dira, eta gure Erkidegoko biztanleria % 4,71 da.Eskatzailearen profila emakumeari dagokio (guztizkoaren %64,1), 80 urte edo gehiagokoa (eskabideen %54,1). Hurrengo adin-talde nagusia 65 eta 79 urte bitartekoena da, hots, eskabide guztien %20,9. Erregistraturiko 102.813 irizpen-eskabideetatik %99,43k irizpena jasota zuten ordurako (%92,72 batez beste Estatuan) eta irizpena izan duten kasuen % 77,09tan prestaziorako eskubidea aintzatetsi zen.

Bestalde, erreferentziako datan, 84.144 prestazio ematen ziren (+%9,9 2017ren aldean), eta horietatik %40,02 Senideak Zaintzeko Prestazioari dagozkio (Estatuakoa baino askoz ratio handiagoa, %30,81ekoa baita), %15,21 laguntza arretari, %,8,79 eguneko/gaueko zentroko zaintzei eta %8,35 etxez etxeko laguntza zerbitzuei, prestazio eta zerbitzu garrantzitsu legez.

Kopuru horien osagarri, "*Mendekotasunaren Espainiako Behatokia*" (Gizarte Zerbitzuetako Zuzendarien eta Gerenteen Espainiako Elkarteko kideek osatua) txostenei esker, mendekotasunaren arretarako sistema hedatzeko lanbide-balorazioaren jarraipena egin daiteke Mendekotasunaren Legea oinarri hartuta, autonomia erkidegoen arabera. Azkenak erakusten duenez, 2018ko abenduko datuekin, EAEk garapen handiagoa du beste autonomia erkidego batzuek baino, baloraturiko pertsonen ehunekoaren aldetik nahiz emandako prestazioen aldetik. Behatokiak IMSERSOren informazioa oinarri hartuta egiten duen ebaluazioan aipatzen denez (horri buruzko daturik eman gabe), Asturias, K. Uharteak eta Kantabria erkidegoekin batera, nolabait ez aurrera ez atzera gelditu diren erkidegoen taldean sartu da EAE, non ezin eman dakiokeen erantzunik beharrezko erritmoan, betiere egiteke duten bidea aintzat hartuta., Horren gain, gutxitu bada ere, gure Erkidegoan oraindik ere gehiegizko pisua du senideak zaintzeagatiko prestazio ekonomikoak. Izan ere, prestazioen % 40 da, Estatuko batez bestekoak baino 10 puntu gehiago.

Bukatzeko, EAEko borondatezko gizarte aurreikuspenen sistemaren bilakaeraren balantze gisa, hauxe aipatu behar da: Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailak jakinarazi duenez, 2017ko abenduaren 31n (behin-behineko datuak) EAEk 80 BGAE zituen, horietatik 45 banako BGAEak dira, 33 banakoak eta 2 elkartuak. Elkartuetakoen erdia baino gehiagok, %59k, banako BGAE zuen, eta ondoren enplegukoak, elkarturikoen %40,9 hain zuzen ere. Ondareari dagokionez, %50ean banantzen da bi modalitateen artean, baina ordaindutako prestazioak gehienbat enplegu erakundeetan metatzen dira (guztizkoaren %69,6), eta bigarren tokian banakoak (%30,4). Kuotak, azkenean, gehienbat banako BGAEei dagozkie (guztizkoaren %50,6), eta gainerakoa enplegukoei (%49,3).

Kuotak edo ekarpenak 2017an 804,7 milioi euro izan ziren orotara, eta %19,8 egin dute gora 2016aren aldean. Bestalde, atxikipenak, 1,127 milioi, jaitsi egin dira azken urtean, gutxi bada ere (-%0,8). Aldi berean, ordaindutako prestazioak 705 milioi eurotik gorakoak dira, hots, 2016an baino %8,7 gehiago. Halaber, 2017an orotara 162,16 milioi euro erreskatatu ziren; aurreko urtean, berriz, 181,4 milioi euro eta, beraz, %10,6ko jaitsiera da.

3.2. GOGOETAK

3.2.1. Bizi Baldintzak

Lehenik eta behin, Memoria Sozioekonomikoaren edizio honetan nabarmendu behar dugu EAEko bizi-baldintzen adierazle nagusiak norabide egokian doazela, eta krisiaren aurreko zifretatik hurbil egon arren, oraindik ez da berreskuratu krisiaren ondorioz galdutako ongizate osoa. Hala ere, krisialdiaren hasieran baino aberastasun handiagoa sortzen ari da.

- AROPE tasari esker, bilakaera hori Europa mailan erkatu daiteke, eta beste urte batez behera egin du Euskadin, estatu eta Europa mailan duen posizio onari eutsita. Horrez gain, nahiz eta tasaren osagaietako lehenengoak okerrera egin, hots, pobrezia arriskuaren tasak, deigarria da, zentzu onean, hirugarrena nabarmen jaitsi izana, laneko oso intentsitate txikiaren ratioa (ia erdira murriztu da). Garrantzi handikoa dela deritzogu, lan-merkatuaren hobekuntzarekin lotuta doalako. Adierazle horien bilakaera baloratzeko oso interesgarria izango litzateke informazioa sexuaren arabera banakatuta izatea.
- EINen Bizi-baldintzei buruzko Inkestan, zenbait adierazletan tasa handiak diren arren (hala nola urtean asteko beteko oporraldia ezin gozatzea edo ezusteko gastuei aurre egitea), bilakaera ona izan dute, azken urteetan gertatu ez den bezala.
- Hala ere, kezkagarria da pobrezia energetikoa, eta okerrera egin du azken urtean. Gure ustez, bizitza duina izateko ezinbestekoa da energia lortzeko eta hornitzeko zerbitzua eskuratzea, eta horretarako, egungo lege-esparrua osatu beharko litzateke.

Datu horiek ikusita, gure ustez, bide onetik aurrera egin bada ere, beharrezko ahaleginak egin behar dira joera horiek finkatzeko, bizi-baldintzen hobekuntzak gizarteko maila guztietara irits daitezen eta krisiaren aurreko ongizate mailak berreskura daitezen. Halaber, dirudienez hobetzeko bidetik joatearen kontra ageri diren aldagaiei erreparatu behar diegu aurrerantzean ere.

Bestalde, aldaketa sakona izan du azken hamarkadetan familia sistemen tipologiak EAEn, prozesu demografikoen, sozialen eta kulturalen ondorioz eta, beraz, oso kontuan hartu beharrekoak dira familia-unitate motetan gertatzen ari diren aldaketak eta aldaketa horien ondorioak. Izan ere, herri botereen lehentasunezko arreta behar dute, zeren eta, tipologia desberdinak izan arren, familiek beren nagusitasunari eusten baitiote.

Informazio gehiagorik izan gabe, gure 2017ko Memoria horri buruz adierazitakoa berretsi behar dugu, eta aldaketetan aurrera egin beharra dago, administrazioaren maila desberdinen parte-hartze sendoarekin eta koordinatuarekin. Ezinbestekoa izango da, gainera, gure gizartean ahalik eta ongizate mailari handiena lortzeko lanean diharduten gizarte eragile guztien jarduketetan parte hartzea, aldaketa sakona bultzatuz, zeinaren ondorioz berdintasun, ekitate eta bizi-kalitate handiagoak izango baitira.

Azkenik, ikusi ahal izan denez, lana eta familia-bizitza bateratzeko formuletan zenbait eragozpen daude, hain zuzen ere enpresa txikiekin osaturiko ekoizpen-sarean, hala nola eszedentziak eta lanaldi murrizketak eskatzeko, eragin estruktural handiagoa baitute lanaren antolamenduan, bereziki enpresa txikietan eta ertainetan. Ez da kontu hutsala, zeren eta sakoneko ondorioak baititu askotariko eremu garrantzitsuetan, bereziki langileen bizi-kalitatean.

Horrenbestez, neurri berriak sortzeko berrikuntza ahalegin garrantzitsuak egin beharko lirateke, edo egungo neurriak berrantolatzeko, eragozpenak gutxitze aldera, pertsonen beharrak eta lan egiten duten enpresen beharrak eraginkortasun handiagoarekin orekatzeko oinarria izanik. Elkarrizketa zintzoa eta baterako gogoeta dira interesak bateratzeko eta irtenbide operatiboak lortzeko biderik hoberena.

3.2.2. Gizarte babesa

Kapitulu honetan emandako datuei esker egiaztatzen denez, EAEko gizarte babeseko sistemak maila onargarria du Europako herrialde nagusiekin alderatuta, eta Estatukoa baino hobea da.

Diru-sarrerak Bermatzeko Sistema oinarrizko tresna da gure ongizate sistema bermatzeko, eta horri dagokionez, 2018an bigarren urtez jarraian, behera egin du eginiko gastuak. Horrekin batera, dagoeneko laugarren urtez, jaitsi egin da DBEren hartzaileen kopurua, sistemaren prestazio nagusia, baita haren Etxebizitzaren Prestazio Osagarria ere. Hortaz, aurrekontu txikiagoa behar da prestaziook estaltzeko. Bilakaera hori alderagarria da aurreko atalean egiaztaturiko pobrezia eta bazterketa tasen hobekuntzarako joerarekin, eta bizi baldintzak berreskuratzen ari direla esan genezake, baina, hala ere, aurreko atalean ohartarazi genuenez, oraindik ez gara itzuli krisiaren aurreko egoerara.

Ez da berdin gertatzen, ordea, Gizarte Larrialdiko Laguntzekin (GLL), Sistemaren hirugarren oinarriarekin. Izan ere, horren hartzaile kopuruak eta gastuak gorantz jarraitu dute, eta horrek, zalantzarik gabe, ohartarazten digu gabezia koiunturalak dituzten pertsonak daudela, oraingoan beren etxebizitzak hornitzearen eta mantentzearen inguruan. Aurreko atalean ikusi dugunez, "*pobrezia energetikoa*" deritzonak iraun egiten du EAEn, eta nabarmentzekoa da lau GLLetako bat betebehar horiek estaltzeko erabiltzea.

Gizarte Segurantzaren pentsio sistemei dagokienez, beste urte batez kezka sorrarazten digu gure Erkidegoan duen gero eta defizit-saldo handiagoak, gizartea zahartzeko eta lan-merkatuan eraldaketa sakonak gertatzen direneko testuinguru demografikoan, langileen eta pentsiodunen arteko proportzioa ez aurrera ez atzera gelditzearekin batera. Horregatik, premiazkoa da administrazioek eta gizarte eragileek Pentsioen Sistema Publikoa mantentzeko beharrezko bideak eztabaidatzea eta aintzat hartzea.

Bukatzeko, eta mendekotasunaren arretari dagokionez, beste urte batez balorazio ona egin behar dugu sistema sendotzeko izandako aurrerapenen gainean. Alabaina, sektorean nolabaiteko geldialdia sumatu da sistema gure Erkidegoan ezartzean, eta horrek gogoeta egitea eta hobetzeko neurriak sortzea merezi du.

Egoera hori ikusita, gizarte babeserako sistema hobetzeko, ezinbestean, iraunkortasuna bermatu eta prestazioak gizartearen errealitate eta behar berrietara egokitu behar dira.

V. KAPITULUA

Bizi-kalitatea EAEn

1. HEZKUNTZA ETA KULTURA

Hezkuntza da pertsonen eta gizarteen aurrerapenean gehien eragiten duten faktoreetako bat; izan ere, beharrezkoa da ongizatean eta gizarte-kohesioan eta hazkunde ekonomikoan mailarik onenak lortzeko, baita zientzia, teknologia eta berrikuntza sustatzeko ere, besteak beste. Garrantzitsua izan da beti garapen ekonomikorako eta sozialerako, baina gaur egungo munduan, neurri batean zientziaren aurrerapenak eta horren aplikazioek eragindako eraldaketa sakonak bizi diren munduan, gero eta garrantzi handiagoa hartu du, baita horiek bezain azkar garatzen diren IKTek eragindako eraldaketengatik ere.

Ekonomia modernoetan, ekoizpenaren faktorerik garrantzitsuenetako bat bilakatu da jakintza. Arlo ekonomikoan eta sozialean gehien aurreratu diren gizarteak dira jakintzan oinarrituriko aurrerapena lortu dutenak, eskolaren bidez transmititzen den jakintzan nahiz ikerketaren bidez sortzen den jakintzan. Hezkuntzak, zientziak eta berrikuntza teknologikoak gero eta eragin handiagoa dute produktibitatean eta lehiakortasun ekonomikoan, baita nazioen garapen sozialaren eta kulturaren zati handi batean ere.

Kapitulu honetako lehen atala bi bloketan dago banatuta, eta alde batetik, Hezkuntza aztertzen da eta, bestetik, Kulturarekin lotutako zenbait alderdi. Lehen blokean lehen hiru epigrafeak sartzen dira, eta unibertsitatez kanpoko irakaskuntzetan, unibertsitateko ikaskuntzetan eta graduetan matrikulaturiko ikasleen bilakaera aztertzen da, baita lau atal handitan bereizitako zenbait hezkuntza adierazle ere: eskolatze-adierazleak eta hezkuntza ingurunea, hezkuntza finantzazioko adierazleak, hezkuntza emaitzen adierazleak. Azkenean, unibertsitateko zenbait adierazle aztertzen dira.

Bestalde, bigarren blokea kulturari buruzko laugarren epigrafeari dagokion, eta lehenik eta behin, kulturaren arloko zenbait ohituraren gaineko zenbait adierazle aztertzen dira aisialdian; bigarrenik, kultura enpresei buruzko azterketa laburra egiten eta hirugarrenik Estatuko Administrazio Orokorrak eta Administrazio Autonomikoek kulturaren arloan eginiko gastu publikoa aztertzen da, baita etxeetako kultura kontsumoko gastua ere.

1.1. UNIBERTSITATEZ KANPOKO IRAKASKUNTZAK

1.1.1. Araubide orokorreko irakaskuntzetan matrikulaturiko ikasleak

EUSTATen “Eskola jardueraren estatistika (EAE)” zentsu eragiketa da, urtekoa, eta hezkuntza sistema ezagutzea ahalbidetzen du aurretiazko azterlanetan. Eusko Jaurlaritzako Ikastetxeen Erregistroan sartuta dauden eta irakaskuntza arautua ematen duten ikastetxe guztiak hartzen dira aintzat, sektore publikokoak nahiz sektore pribatukoak. Araubide orokorreko irakaskuntzak eta araubide bereziko irakaskuntzak bereizten dira bertan. Lehenbizikoen artean: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa Helduentzako Hezkuntza. Araubide berezietako irakaskuntzak: hizkuntzak, musika, kirolak, arte plastikoak, dantza plastikoak, dantza eta arte dramatikoa.

Estatistika eragiketa horren arabera, orotara 375,318 ikasle zeuden matrikulatuta unibertsitatez kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzan (Helduentzako Hezkuntza alde batera utzita), 2017/18 ikasturtean, hots, % 0,5eko igoera aurreko ikasturtearen aldean (1.863 ikasle gehiago).

Mailak bereizita eta hezkuntza berezia zenbatu barik, beheko mailetan (haur hezkuntza eta lehen hezkuntza) 219.648 ikasle matrikulatu ziren (89.023 Haur Hezkuntzan, (-% 2,3, gehi aurreko bi aldietako beherakada) eta 130.626 Lehen Hezkuntzan (+%0,9, gehi aurreko ikasturteko igoera), Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan 83.225 (+% 2,3) eta Oinarrizko Lanbide Heziketan [1] 4.607 ikasle (+% 5,1).

[1] *8/2013 Lege Organikoa, abenduaren 9koa, hezkuntzaren kalitatea hobetzeko. Oinarrizko Lanbide Heziketa ezarri zen 2015/16 ikasturtean hasierako Lanbide Gaitasuneko Programen ordez.Oinarrizko Lanbide Heziketaren tituluari esker, aurrera egin daiteke Hezkuntza Sisteman, lanbide bat gaitasunez bete, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatuko tituluaren lan-efektu berdinak ditu enplegu publikoak eta pribatuak eskuratzeko.*

Gure erkidegoa autonomia erkidegoen lehen tokian dago eskolatze goiztiarrean (0-2 urte), % 54ko tasarekin, batez bestekoa baino 19 puntu gehiago, eta adingabeak 2 urterekin eskolatuta daude kasuen % 94an.

V.1.1. ARAUBIDE OROKORREAN MATRIKULATURIKO IKASLEAK, MAILAREN ARABERA (1)

	2013/14	2014/15	2015/16	2016/17	2017/18	2015/16-2016/17 ald.	2016/17-2017/18 ald.
GUZTIRA	**363.206**	**368.619**	**370.042**	**373.455**	**375.318**	**0,9**	**0,5**
HAUR HEZKUNTZA	95.483	94.433	93.318	91.103	89.023	-2,4	-2,3
LEHEN HEZKUNTZA	124.276	127.001	128.198	129.521	130.625	1,0	0,9
HEZKUNTZA BEREZIA (HAUR-LEHEN HEZK.)	476	470	486	510	486	4,9	-4,7
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH)	75.161	77.169	79.374	81.389	83.225	2,5	2,3
HEZKUNTZA BEREZIA (DBH)	263	288	294	321	363	9,2	13,1
HASIERAKO LANBIDE GAITASUNERAKO PROGRAMAK	4.076	4.238	.	.	.		
OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA	.	.	4.083	4.385	4.607	7,4	5,1
BATXILERGOA	29.607	29.988	30.045	30.231	30.398	0,6	0,6
GRADU ERTAINEKO L.H.	13.442	13.938	13.993	14.439	14.520	3,2	0,6
GOI GRADUKO L.H.	19.957	20.614	19.723	21.012	21.505	6,5	2,3
HEZKUNTZA BEREZIA: ATAZAK IKASTEA	465	480	528	544	566	3,0	4,0

(¡) Unibertsitatez kanpoko erregimen orokorreko ikaskuntzak. Ez da sartzen Helduen Hezkuntza Iraunkorra
Iturria: EUSTAT. Eskola-jarduerari buruzko estatistika

DBHOri dagokionez, Batxilergoan 30.398 lagun matrikulatu ziren eta 14.520 gradu ertaineko LHn. Igoera bera gertatu da gradu ertaineko LHn eta Batxilergoan (%0,6). Bestalde, goi graduko LHn 21.505 lagun matrikulatu ziren, aurreko ikasturtean baino % 2,3 gehiago.[2]

V.1.2. TAULA. UNIBERTSITATEZ KANPOKO IKASKUNTZETAN MATRIKULATURIKO IKASLEAK HEZKUNTZA MAILAREN ETA SEXUAREN ARABERA (1)

	2015/16			2016/17		
	GUZT.	GIZONA	EMAK.	GUZT.	GIZONA	EMAK.
HAUR HEZKUNTZA	93.318	51,5	48,5	91.103	51,4	48,6
H.B. (HAUR HEZKUNTZA)	71	59,2	40,8	66	57,6	42,4
LEHEN HEZKUNTZA	128.198	51,7	48,3	129.521	51,7	48,3
H.B. (LEHEN HEZKUNTZA)	415	68,7	31,3	444	67,8	32,2
D.B.H.	79.374	51,5	48,5	81.389	51,3	48,7
H.B. (D.B.H.)	294	70,7	29,3	321	72,3	27,7
BATXILERGOA	30.045	47,5	52,5	30.231	46,8	53,2
GRADU ERTAINEKO L.H.	13.993	65,4	34,6	14.439	64,9	35,1
GOI GRADUKO L.H.	19.723	62,4	37,6	21.012	64,4	35,6
H.B. (ATAZAK IKASTEA)	528	60,2	39,8	544	59,0	41,0
OINARRIZKO L.H.	4.083	70,2	29,8	4.385	70,5	29,5

(¡) Unibertsitatez kanpoko erregimen orokorreko ikaskuntzak. Ez da sartzen Helduen Hezkuntza Iraunkorra
Iturria: EUSTAT. Eskola-jarduerari buruzko estatistika

[2] *Komeni da gogoraraztea Lanbide Heziketaren irakaskuntza-sisteman 16 urterekin sartzen direla ikasleak erdi-mailako graduan, batxilergoaren alternatiba gisa, eta 18 urterekin goi-mailako graduan, betiere hezkuntza tertziarioaren edo goi-mailako irakaskuntzaren baitan.*

Generoa dela-eta [3], 2016/17 ikasturteko EUSTATen datuen arabera, Lanbide Heziketan ia % 65 gizonezkoak dira, baina batxilergoan orekatuagoa da proportzioa: emakumeak guztien % 53,2 dira eta, gizonak % 46,8.

V.1.3. TAULA. UNIBERTSITATEZ KANPO MATRIKULATURIKO IKASLEEN BANAKETA HEZKUNTZA MAILAREN ETA IKASTETXEAREN TITULARTASUNAREN ARABERA (1)						
	2015/16			2016/17		
	GUZT.	PUBLIKOA	PRIBATUA	GUZT.	PUBLIK.	PRIBAT.
HAUR HEZKUNTZA	93.318	52,4	47,6	91.103	52,3	47,7
H.B. (HAUR HEZKUNTZA)	71	22,5	77,5	66	13,6	86,4
LEHEN HEZKUNTZA	128.198	51,4	48,6	129.521	51,6	48,4
H.B. (LEHEN HEZKUNTZA)	415	28,9	71,1	444	30,9	69,1
D.B.H.	79.374	46,3	53,7	81.389	46,4	53,6
H.B. (D.B.H.)	294	58,5	41,5	321	57,3	42,7
BATXILERGOA	30.045	50,9	49,1	30.231	49,6	50,4
GRADU ERTAINEKO L.H.	13.993	62,9	37,1	14.439	62,6	37,4
GOI GRADUKO L.H.	19.723	55,5	44,5	21.012	55,2	44,8
H.B. (ATAZAK IKASTEA)	528	60,6	39,4	544	61,8	38,2
OINARRIZKO L.H.	4.083	29,0	71,0	4.385	28,4	71,6

(i) Unibertsitatez kanpoko erregimen orokorreko ikaskuntzak. Ez da sartzen Helduen Hezkuntza Iraunkorra
Iturria: EUSTAT. Eskola-jarduerari buruzko estatistika

Ikastetxeen titulartasunari dagokionez, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan matrikulazioen erdia baino gehiago ikastetxe publikoetan gertatzen badira ere (% 52,3 eta % 51,6, hurrenez hurren), kontrakoa gertatzen da DBHn, halako moldez non handiagoa baita sare pribatuko matrikulazioa (% 53,6 eta % 46,4).

DBH ondorengo irakaskuntzari dagokionez, hauxe dugu: Batxilergoko matrikulazioa sare pribatukoa baino pixka bat handiagoa da (% 50,4 publikoan eta % 49,6 publikoan), LHn nagusi dira zentro pribatuetako matrikulak (% 62,6 gradu ertaineko LHn eta % 55,2 goi graduko LHn).

1.1.2. Lanbide-heziketako prestakuntza-zikloak: matrikulaturiko ikasleak

V.1.1. taulako datuek erakusten dutenez, 2016-17 eta 2017-18 ikasturte artean, %0,6 hazi zen matrikulaturiko ikasleen kopurua gradu ertaineko LHn (14.439tik 14.520ra) eta %2,3 goi gradukoan (21.012tik 21.505era).

Erreferentziako ikasturtean (2017-18), hona hemen ikasle gehien bildu zituzten gradu ertaineko lanbide adarrak berriz ere: Osasuna (% 15), Fabrikazio Mekanikoa (% 14,5), Elektrizitatea eta Elektronika (% 9,3), Ibilgailu autopropultsatuen mantentzea/Garraioa eta ibilgailuen mantentzea (% 7,9), Administrazioa eta kudeaketa (% 7,5), Mantentzea eta ekoizpenerako zerbitzuak/Instalazioa eta mantentzea (% 7,2) eta Gizarte-kulturako zerbitzuak eta komunitaterako zerbitzuak eta Informatika (bietan % 6,8). Horiek direla-eta, matrikulazioak gora egin zuen hauexetan: Administrazioa eta kudeaketa (+%1,1), Elektrizitatea eta elektronika (hor ere +%1,1), Fabrikazio mekanikoa (+%3,5), Mantentzea eta ekoizpenerako zerbitzuak/instalazioa eta mantentzea (+%3,7) Gizarte-kulturako zerbitzuak eta komunitaterakoak (+%7,7); eta behera, berriz, honako hauetan: Osasuna (%-5,5) Ibilgailu autopropultsatuak mantentzea/Ibilgailuen garraioa eta mantentzea (-%4,2%)

Goi graduko titulazioen artean, hauexek nabarmendu ziren matrikulazio bolumenaren arabera: Fabrikazio mekanikoa (% 14,9), Administrazioa eta Kudeaketa (% 11,3), Elektrizitatea eta Elektronika (% 11,2), Gizarte-kulturako zerbitzuak eta komunitaterako zerbitzuak (% 10,3), Informatika eta Komunikazioak (% 8,6), Osasuna (% 7,1) eta Mantentzea eta ekoizpenerako zerbitzuak/Instalazioa eta mantentzea (% 6,7). Horiek direla-eta, aldakuntza positiboa izan zen Administrazioan eta kudeaketan (+%2,3), Fabrikazio mekanikoan (+%9,7), Mantentzea eta ekoizpenerako zerbitzuak/instalazioa eta mantentzea (+%6,5) eta Osasunean (+%7,8 %). Bestalde, negatiboa izan zen Gizarte-kulturako zerbituetan (-%1,8) eta Elektrizitatean eta Elektronikan eta Informatika eta Komunikazioetan (bietan -%0,9).

Emakumeen parte-hartzea oso handia izan ohi da irudi pertsonalean (partaidetza-ratioak % 90etik gorakoak dira gradu ertainean nahiz goi graduan). Bigarren multzoa honako adar hauek osaturikoa da: Osasuna, Gizarte-kulturako zerbitzuak eta komunitaterako zerbitzuk eta Ehungintza, ebaketa eta larrugintza (% 75 - % 90 bitarteko artioak, graduaren eta adarraren arabera) eta Nekazaritza-elikagaien industriak (% 63,6ko ratioa goi graduan).

[3] *Generoaren banaketa ez da ageri Lehen eta DBHko irakaskuntzetan, ez duelako zerikusirik hautaketa arrazoiekin.*

Ondoren, hauexek nabarmentzen dira: Administrazioa eta kudeaketa (%57,8 gradu ertainetan eta %62,4 goi graduan), Kimika (%53,5 gradu ertainean eta % 51,3 goi graduan) eta Merkataritza eta marketina (%50,7 gradu ertainean eta % 47,2 goi graduan).

Alabaina, emakumeek lanbide ikasketetan duten partaidetzaren batez bestekoa txikiagoa da oraindik ere gizonena baino (gradu ertainean %34,3 da eta goi graduan %35,2, eta gizonenak, berriz, %65,7 eta %64,8). Emakumeen matrikulazio txikia ikusten da profil teknikoagoetako lanbide adarretan; izan ere, laneratze txikiagokoak izaten dira, gainera. Hala, emakumeen matrikulazioa %11 besterik ez da kasurik onenean Elektrizitatean eta elektronikan, Fabrikazio mekanikoan, Ibilgailuen garraioan eta mantentzean eta Instalazioan eta mantentzean.

V.1.4. TAULA. IKASLEEN BOLUMEN HANDIENA BILTZEN DUTEN LANBIDE-ADARRAK

	GRADU ERTAINA (% BERTIKALAK)			GOI GRADUA (% BERTIKALAK)		
	2015-16	2016-17	2017-18	2015-16	2016-17	2017-18
GUZT.	**13.993**	**14.439**	**14.520**	**19.723**	**21.012**	**21.505**
NEKAZARITZA JARDUERAK/NEKAZARITZA	1,9	1,8	1,8	1,2	1,2	1,1
JARDUERA FISIKOAK ETA KIROLETAKOAK	1,1	0,8	0,9	3,9	3,8	3,7
ITSASO-ARRANTZA JARDUERAK / ITSASO-ARRANTZAKOAK	1,2	1,3	1,3	1,2	1,2	1,1
ADMINISTRAZIOA / ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA	7,5	7,5	7,5	11,5	11,3	11,3
ARTE GRAFIKOAK	1,8	1,9	1,9	1,2	1,2	1,1
MERKATARITZA ETA MARKETINA	2,7	2,7	2,6	5,2	5,2	5,1
KOMUNIKAZIOA, IRUDIA ETA SOINUA / IRUDIA ETA SOINUA	0,5	0,3	0,4	2,3	2,6	2,8
ERAIKUNTZA ETA OBRA ZIBILA	0,8	0,7	0,7	1,9	1,6	1,4
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA	9,8	9,2	9,3	10,9	11,6	11,2
ENERGIA ETA URA	0,0	0,0	0,0	0,6	0,6	0,5
FABRIKAZIO MEKANIKOA	13,4	14,1	14,5	12,7	13,9	14,9
OSTALARITZA ETA TURISMOA	6,3	6,0	5,9	5,0	4,9	4,7
IRUDI PERTSONALA	6,1	6,1	6,0	1,9	1,9	1,8
ELIKAGAIEN INDUSTRIAK	1,1	1,1	1,1	0,0	0,1	0,1
INFORMATIKA / INFORMATIKA ETA KOMUNIKAZIOAK	6,3	6,5	6,8	8,6	8,9	8,6
ZURA ETA ALTZARIAK / ZURA, ALTZARIAK ETA KORTXOA	1,8	1,7	1,7	0,3	0,4	0,3
IBILIGAILU AUTOPROPULTSATUAK MANTENTZEA / GARRAIOA ETA IBILGAILUAK MANTENTZEA	8,8	8,3	7,9	2,6	2,6	2,7
MANTENTZEA ETA EKOIZPENERAKO ZERBITZUAK / INSTALAZIOA ETA MANTENTZEA	7,4	7,0	7,2	6,5	6,4	6,7
KIMIKA	0,6	0,6	0,7	2,2	2,2	2,1
OSASUNA	15,3	16,0	15,0	7,1	6,7	7,1
SEGURTASUNA ETA INGURUMENA	0,0	0,0	0,0	0,8	0,7	0,7
GIZARTE-KULTURAKO ZERBITZUAK ETA KOKMUNITATERAKO ZERBITZUAK	5,7	6,3	6,8	11,7	10,7	10,3
EHUNGINTZA, EBAKETA ETA LARRUGINTZA	0,0	0,0	0,1	0,6	0,5	0,6

Iturria: EUSTAT. Eskola-jarduerari buruzko estatistika

V.1.5. TAULA. GRADU ERTAINEKO LANBIDE HEZIKETAKO IKASLEAK LANBIDE-ADARRAREN ARABERA. EAE													
	2015-16		2016-17		2017-18		ALDAKUNTZA GUZT.		ALDAKUNTZA EMAK.		EMAK. %		
	GUZT.	EMAK.	GUZT.	EMAK.	GUZT.	EMAK.	15-16/16-17 ald.	16-17/17-18 ald.	15-16/16-17 ald.	16-17/17-18 ald.	15-16	16-17	17-18
GUZTIRA	**13.993**	**4.841**	**14.439**	**5.061**	**14.520**	**4.981**	**3,2**	**0,6**	**4,5**	**-1,6**	**34,6**	**35,1**	**34,3**
NEKAZARITZA JARDUERAK	271	51	256	50	264	50	-5,5	3,1	-2,0	0,0	18,8	19,5	18,9
JARDUERA FISIKOAK ETA KIROLETAKOAK	152	35	117	34	127	34	-23,0	8,5	-2,9	0,0	23,0	29,1	26,8
ITSASO-ARRANTZA JARDUERAK	165	5	190	6	188	6	15,2	-1,1	20,0	0,0	3,0	3,2	3,2
ADMINISTR. ETA KUDEAKETA	1.055	639	1.077	651	1.089	629	2,1	1,1	1,9	-3,4	60,6	60,4	57,8
ARTE GRAFIKOAK	245	91	273	104	277	108	11,4	1,5	14,3	3,8	37,1	38,1	39,0
MERKATARITZA ETA MARKETINA	382	219	394	209	373	189	3,1	-5,3	-4,6	-9,6	57,3	53,0	50,7
KOMUNIKAZIOA, IRUDIA ETA SOINUA	69	32	46	7	57	10	-33,3	23,9	-78,1	42,9	46,4	15,2	17,5
ERAIKUNTZA ETA OBRA ZIBILA	113	18	94	27	98	22	-16,8	4,3	50,0	-18,5	15,9	28,7	22,4
ELEKTRIZ. ETA ELEKTRONIKA	1.368	43	1.332	53	1.346	51	-2,6	1,1	23,3	-3,8	3,1	4,0	3,8
ENERGIA ETA URA			-	-	-	-							
FABRIKAZIO MEKANIKOA	1.869	49	2.039	63	2.110	64	9,1	3,5	28,6	1,6	2,6	3,1	3,0
OSTALARITZA ETA TURISMOA	887	319	869	306	850	297	-2,0	-2,2	-4,1	-2,9	36,0	35,2	34,9
IRUDI PERTSONALA	854	815	887	835	867	792	3,9	-2,3	2,5	-5,1	95,4	94,1	91,3
ELIKAGAIEN INDUSTRIAK	156	79	160	99	154	95	2,6	-3,8	25,3	-4,0	50,6	61,9	61,7
INFORMATIKA ETA KOMUNIK.	880	74	935	63	983	63	6,3	5,1	-14,9	0,0	8,4	6,7	6,4
ZURA, ALTZARIAK ETA KORTXOA	255	12	252	14	254	36	-1,2	0,8	16,7	157,1	4,7	5,6	14,2
IBILIGAILU AUTOPROP. MANT./GARRAIOA ETA IBILG. MANT.	1.230	32	1.203	37	1.153	33	-2,2	-4,2	15,6	-10,8	2,6	3,1	2,9
MANTENTZEA ETA EKOIZP. ZERB. / INST. ETA MANTENTZEA	1.033	25	1.009	25	1.046	31	-2,3	3,7	0,0	24,0	2,4	2,5	3,0
KIMIKA	81	40	85	45	99	53	4,9	16,5	12,5	17,8	49,4	52,9	53,5
OSASUNA	2.134	1.630	2.309	1.729	2.183	1.638	8,2	-5,5	6,1	-5,3	76,4	74,9	75,0
SEGURT. ETA INGURUMENA			-	-	-								
GIZARTE-KULT. ZERB. ETA KOMUNIT.	794	633	912	704	982	765	14,9	7,7	11,2	8,7	79,7	77,2	77,9
EHUNGINTZA, EBAKETA ETA LARRUG.			-	-	20	15							75,0

Iturria: EUSTAT. Eskola-jarduerari buruzko estatistika

V.1.6. TAULA. GOI GRADUKO LANBIDE HEZIKETAKO IKASLEAK LANBIDE-ADARRAREN ARABERA. EAE

	2015-16		2016-17		2017-18		ALDAKUNTZA GZT.		ALDAKUNTZA EMAK.		EMAK. % GUZTIAREKIKO.		
	GUZT.	EMAK.	GUZT.	EMAK.	GUZT.	EMAK.	15-16/16-17	16-17/17-18	15-16/16-17	16-17/17-18	15-16	16-17	17-18
GUZTIRA	**19.723**	**7.413**	**21.012**	**7.486**	**21.505**	**7.568**	**6,5**	**2,3**	**1,0**	**1,1**	**37,6**	**35,6**	**35,2**
NEKAZARITZA JARDUERAK	245	42	246	41	228	23	0,4	-7,3	-2,4	-43,9	17,1	16,7	10,1
JARDUERA FISIKOAK ETA KIROLETAKOAK	774	158	790	157	799	176	2,1	1,1	-0,6	12,1	20,4	19,9	22,0
ITSASO-ARRANTZA JARDUERAK	238	9	247	14	247	7	3,8	0,0	55,6	-50,0	3,8	5,7	2,8
ADMINISTR. ETA KUDEAKETA	2.259	1.425	2.373	1.493	2.428	1.515	5,0	2,3	4,8	1,5	63,1	62,9	62,4
ARTES GRAFIKOAK	246	141	256	138	245	120	4,1	-4,3	-2,1	-13,0	57,3	53,9	49,0
MERKATARITZA ETA MARKETINA	1.027	490	1.093	514	1.095	517	6,4	0,2	4,9	0,6	47,7	47,0	47,2
KOMUNIKAZIOA, IRUDIA ETA SOINUA	463	121	549	155	608	162	18,6	10,7	28,1	4,5	26,1	28,2	26,6
ERAIKUNTZA ETA OBRA ZIBILA	371	123	335	120	298	102	-9,7	-11,0	-2,4	-15,0	33,2	35,8	34,2
ELEKTR.. ETA ELEKTRONIKA	2.159	136	2.433	141	2.412	142	12,7	-0,9	3,7	0,7	6,3	5,8	5,9
ENERGIA ETA URA	115	13	120	15	114	16	4,3	-5,0	15,4	6,7	11,3	12,5	14,0
FABRIKAZIO MEKANIKOA	2.499	276	2.917	285	3.200	338	16,7	9,7	3,3	18,6	11,0	9,8	10,6
OSTALARITZA ETA TURISMOA	994	510	1.032	508	1.019	500	3,8	-1,3	-0,4	-1,6	51,3	49,2	49,1
IRUDI PERTSONALA	368	354	392	379	391	376	6,5	-0,3	7,1	-0,8	96,2	96,7	96,2
ELIKAGAIEN INDUSTRIAK			12	8	22	14						66,7	63,6
INFORMATIKA ETA KOMUNIK.	1.696	226	1.867	227	1.850	204	10,1	-0,9	0,4	-10,1	13,3	12,2	11,0
ZURA, ALTZARIAK ETA KORTXOA	57	10	75	13	74	10	31,6	-1,3	30,0	-23,1	17,5	17,3	13,5
IBILIGAILU AUTOPROP.MAN. /GARRAIOA ETA IBILG. MANT.	522	11	550	19	591	19	5	7	73	-	2	3	3
MANTENTZEA ETA EKOIZP. ZERB. / INST. ETA MANTENTZEA	1.274	84	1.346	80	1.433	81	5,7	6,5	-4,8	1,3	6,6	5,9	5,7
KIMIKA	443	229	462	235	462	237	4,3	0,0	2,6	0,9	51,7	50,9	51,3
OSASUNA	1.393	1.050	1.408	1.037	1.518	1.154	1,1	7,8	-1,2	11,3	75,4	73,7	76,0
SEGURT. ETA INGURUMENA	158	56	151	50	145	53	-4,4	-4,0	-10,7	6,0	35,4	33,1	36,6
GIZARTE-KULTURAKO ZERB. ETA KOKMUNIT.	2.309	1.851	2.246	1.758	2.205	1.694	-2,7	-1,8	-5,0	-3,6	80,2	78,3	76,8
EHUNGINTZA, EBAKETA ETA LARRUG.	113	98	112	99	121	108	-0,9	8,0	1,0	9,1	86,7	88,4	89,3

Iturria: EUSTAT. Eskola-jarduerari buruzko estatistika

1.2. UNIBERTSITATEKO IKASKUNTZAK

a) Unibertsitateko matrikulazioa

EUSTATen Unibertsitate-estatistikan jasotako datuen arabera, 2016-17 ikasturtean, bazeuden 66.286 ikasle matrikulatuta EAEko unibertsitateetan, hau da, aurreko ikasturtean baino % 0,8 gutxiago.

V.1.7. MATRIKULATURIKO IKASLEEN BILAKAERA IKASKETEN ARABERA EAE-N

	2013/14	2014/15	2015/16	2016/17		ALDAK. %
				GUZT.	% BERTIK.	2015/16-2016/17
GUZT.	**67.395**	**67.060**	**66.830**	**66.286**	**100**	**-0,8**
1. ETA 2. ZIKLOAN MATRIKULATUAK	7.750	2.915	1.085	3		-99,7
GRADUAN MATRIKULATUAK	50.951	54.413	55.766	56.177	85	0,7
GRADUONDOKOETAN MATRIKULATUAK	8.694	9.732	9.979	10.106	15	1,3
MASTER OFIZIALAK	4.919	5.555	5.782	5.934	9	2,6
DOKTOREGOA	3.775	4.177	4.197	4.172	6	-0,6

Iturria: EUSTAT. Unibertsitate estatistika

V.1.1. GRAFIKOA. MATRIKULATURIKO IKASLEEN BILAKAERA, IKASKETEN ARABERA



Iturria: EUSTAT. Unibertsitate estatitiska

Graduko ikasleak ikasle guztien %85 izan ziren, eta % 0,7ko igoera izan zuen aurreko urtearen aldean. Lehen eta bigarren zikloko ikasketak ia desagertu egin ziren. Gainerako % 15a graduondoko ikasketetan matrikulatu zen –master ofizialak eta doktoregoak-, eta % 2,6 hazi zen lehenbizikoetan eta % 0,6ko jaitsiera doktoregoetan. Ikastetxeen titulartasuna bereizita, 2016-2017 ikasturtean bezala, 4 ikasleetatik 3 unibertsitate publikoan matrikulatu ziren. Master ofizialetan, ikasleen % 59,5 zentro publikoetan matrikulatu zen. Doktoregoetan, berriz, % 85,6 izan zen.

Emakumeak gehiengoa dira unibertsitatean (% 53,5 emakumeak dira). Joera hori ikasketa mailen arabera gertatzen da; graduetan % 53,9 dira, masterretan % 50,9 eta doktorego ikasketetan % 51,7. Alabaina, matrikulek azken sei urtean izandako bilakaera ikusita, gizonen presentziak % 1,9 egin du gora. Emakumeenak, berriz, % 0,3.

V.1.8. TAULA. MATRIKULATURIKO IKASLEAK EAE-N SEXUAREN ETA UNIBERTSITATE TITULARTASUNARAEN ARABERA									
	2014-15			2015-16			2016-17		
	GUZT.	EMAK. (%)	ZENTRO PUB. (%)	GUZT.	EMAK. (%)	ZENTRO PUB. (%)	GUZT.	EMAK. (%)	ZENTRO PUB. (%)
GUZTIRA	**67.060**	**52,6**	**76**	**66.830**	**52,7**	**75,2**	**66.286**	**53,5**	**73,4**
1. ETA 2. ZIKLOETAN MATRIKULATUAK	2.915	49,6	97	1.085	41,7	96,9	3	33,3	66,7
GRADUAN MATRIKULATUAK	54.413	52,7	76	55.766	53,2	75,5	56.177	53,9	73,9
GRADUONDOETAN MATRIKULATUAK	9.732	53,1	69	9.979	51,3	70,7	10.106	51,3	70,5
MASTER OFIZIALAK	5.555	53,2	59	5.782	50,6	59,6	5.934	50,9	59,9
DOKTOREGOA	4.177	52,9	82	4.197	52,3	86,0	4.172	51,7	85,6
Iturria: EUSTAT. Unibertsitate estatistika									

EUSTATen arabera, graduko matrikulen erdia ikasketa hauetan bildu ziren: Enpresen administrazioa eta zuzendaritza (5.610), Lehen hezkuntza (3.845), Zuzenbidea (3.520), Psikologia (2.810), Ingeniaritza mekanikoa (2.269), Haur hezkuntza (2.110), Medikuntza (1.864), Erizaintza (1.521), Teknologia industrialeko ingeniaritza (1.419), Gizarte hezkuntza (1.411) eta Gizarte lana (1.234).

Gizonen artean, erdia 11 karreratan banatu zen, eta horietatik lau ingeniaritzak dira: Enpresen administrazioa eta zuzendaritza (2.785), Ingeniaritza mekanikoa (1.906), Lehen hezkuntza (1.677), Zuzenbidea (1.373), Teknologia industrialeko ingeniaritza (1.029), Ingeniaritza elektroniko industria eta automatikoa (973), Ingeniaritza informatikoa (789), Psikologia (646), Jarduera fisikoaren eta kirolaren zientziak (754), Negozioen kudeaketa (550) eta Medikuntza (533).

Emakumeen erdiak, berriz, zortzi titulazio hauek erabaki zituen: Enpresen administrazioa eta zuzendaritza (2.825), Lehen hezkuntza (2.168), Psikologia (2.164), Zuzenbidea (2.147), Haur hezkuntza (1.886), Medikuntza (1.331), Erizaintza (1.262) eta Gizarte hezkuntza (1.076).

V.1.9. TAULA. MATRIKULATURIKO IKASLEAK ADARRAREN ETA SEXUAREN ARABERA.						
	2015-16			2016-17		
	GUZT.	% HORIZONTALAK		GUZT.	% HORIZONTALAK	
		GIZONAK	EMAK.		GIZONAK	EMAK.
GUZT.	**66.830**	**47,3**	**52,7**	**66.286**	**46,5**	**53,5**
ARTEAK ETA GIZA ZIENTZ.	6.361	38,3	61,7	6.290	37,9	62,1
ZIENTZIAK	4.059	47,5	52,5	4.037	47,0	53,0
OASUNAREN ZIENTZIAK	8.729	25,4	74,6	8.871	24,6	75,4
GIZARTE ETA LEGE ZIENTZIAK	31.344	42,6	57,4	31.950	41,9	58,1
INGENIARITZA ETA ARKITEKTURA	16.027	71,7	28,3	15.138	72,6	27,4
EZ DAGO DATURIK	310	55,2	44,8	-	-	-
Iturria: Eustat. Unibertsitate estatistika						

Horrenbestez, Lanbide Heziketako matrikulazioan gertatzen den bezalaxe, titulazioak sexuaren arabera hautatzean dauden aldeei eusten zaie. Hala, kopuru agregatuetan ikusten denez, emakumeek unibertsitateko adar teknikoetan duten parte-hartzea (Ingeniaritza eta Arkitektura) gizonezkoena baino txikiagoa da (% 27,4 eta % 72,6 2016-17 ikasturtean).

b) Unibertsitateko graduazioa

2016-17 ikasturtean, orotara 12.867 lagun matrikulatu ziren, hots, % 5,8ko jaitsiera aurreko ikasturtearen aldean. Horietatik % 56 emakumeak ziren. Ikasketa motari dagokionez, 8.897 lagunek graduatu titulua jaso zuten, 3.204k master ofizialeko titulua eskuratu zuten eta 764 doktore bihurtu ziren. Aurreko ikasturtearen aldean, aldakuntza positiboa izan en graduetan (% 2,2) eta master ofizialetan (% 1,0); onetsitako tesietan, berriz, 80 gutxiago izan ziren (-% 9,5). Abaguneko jaitsiera dela esan behar da, aurreko doktorego planak aurreko urtean desagertu izanagatik izandako jaitsiera nabarmenaren ondorioz. Graduko ikasketei dagokienez, ikasle gehienek Gizarte Zientzien eta Zuzenbide Zientzien adarrean graduatu ziren (%50,1), eta ondoren %22,3arekin Ingeniaritzan eta Arkitekturan. Neurri txikiagoan hauexetan: Osasunaren Zientziak (%14,4), Arteak eta Giza Zientziak (%8) eta Zientziak (%5,1).

Sexu aldeak ageri dira graduko ikasketen adarrak aukeratzean, eta emakumeak dira nagusi arlo hauetako programetan: Osasunaren Zientziak (% 76,7 emakumeak dira), Arteak eta Humanitateak (guztizkoaren % 66,7), Gizarte eta Lege Zientziak (% 63,4) eta Zientziak (% 59,7), irakaskuntza teknikoen aldean (guztizkoaren % 28,2 besterik ez dira emakumeak).

Hala, 10 emakumetatik 5 Gizarte eta Lege Zientzietan graduatu ziren, 1,8 Osasunaren Zientzietan eta 1,3 Ingeniaritzetan. 10 gizonetik 4, berriz, Ingeniaritzetan graduatu ziren eta beste 4 Gizarte eta Lege Zientzietan.

V.1.10. TAULA. EAE-N GRADUATURIKO IKASLEEN BILAKAERA

	2012/13	2013/14	2014/15	2015/16	2016/17			
					GUZT.	% BERT. (BOLOGNA PLANA AURREK. BEREIZITA)	EMAKUME GRADUATUEN % GUZTIZKOARKEIKO (HORIZONTALA)	ALDAK. AURREKO IKASTURTEARE N ALDEAN
1. eta 2. ZIKLOETAN GRADUATUAK	**6.661**	**4.084**	**1.768**	**929**	**2**	**100,0**		**-99,8**
OASUNAREN ZIENTZ.	371	424	376	36				
Z. ESPERIMENTALAK	320	209	56	11				
GIZARTE ETA LEGE ZIENTZIAK	3.226	1.429	453	49	1	50,0	100,0	-98,0
IRAKASKUNTZA TEKNIKOAK	2.021	1.749	734	821	1	50,0		-99,9
HUMANITATEAK	723	273	149	12				
GRADUAK	**3.333**	**6.607**	**8.068**	**8.709**	**8.897**	**100,0**	**57,6**	**2,2**
ARTEAK ETA HUMANITATEAK	164	486	680	714	714	8,0	66,7	0,0
ZIENTZIAK	73	245	406	498	457	5,1	59,7	-8,2
OSASUNAREN ZIENTZIAK	470	644	828	1231	1.285	14,4	76,7	4,4
GIZARTE ETA LEGE ZIENTZIAK	1.668	3.662	4281	4389	4.457	50,1	63,4	1,5
INGENIARITZA ETA ARKITEKTURA	958	1.570	1873	1877	1.984	22,3	28,2	5,7
TITULAZIO BIKOITZAK		**66**						
MASTER OFIZIALAK	**2.456**	**2.662**	**2.933**	**3.172**	**3.204**		**53,3**	**1,0**
DOKTOREGO TESIAK	**500**	**500**	**528**	**844**	**764**		**48,8**	**-9,5**
GUZTIRA	**12.950**	**13.919**	**13.297**	**13.654**	**12.867**		**56**	**-5,8**

Iturria: Eustat. Unibertsitate estatistika

1.3. HEZKUNTZA ADIERAZLEAK

Epigrafe hau egiteko oinarritzat hartu da jarraian agertzen den Hezkuntza-adierazleen Estatuko Sistemaren Mapa. Epigrafe hau egiteko, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako "Hezkuntza-adierazleen Estatu Sistemaren Mapa" hartu da oinarritzat (ondoren agertuko da). Memoria Sozioekonomiko honetan ohikoa denez, urtero egiten da zenbait adierazleren jarraipena. Beste batzuk, ordea, bi urterik edo hiru urterik behin aztertzen dira, beste adierazle batzuei tokia uzte aldera. Aldi berean, informazio berria dagoenean aztertzen diren beste adierazle batzuekin osatzen da (PISA txostenarekin, esaterako).

Bestalde, epigrafeen amaieran, Hezkuntza-adierazleen Estatu Sistemaren Mapan bilduta ez dauden Unibertsitate Sistemako beste adierazle batzuk bildu dira, baita Shanghaiko rankineko unibertsitateen posizioaren analisia ere.

V.1.11. TAULA. ADIERAZLEEN SAILKAPENA (HEZKUNTAREN ADIERAZLEEN ESTATU SISTEMA)	
ESKOLATZEA ETA HEZKUNTZA INGURUNEA	E1. Eskolatzea eta biztanleria E1.1. Eskolatzea eta 0-29 urteko biztanleak E1.2. Eskolatzea titulartasunaren arabera E1.3. Hezkuntzako bizi-itxaropena bost urtetik hasita E2. Eskolatze-tasak derrigorrezkoak ez diren mailetako adin teorikoetan E2.1. Haur Hezkuntza E2.2. DBH Ondorengoa E2.3. Goi Mailako Hezkuntza E3. Ikasle atzerritarrak E4. Ikasleak taldeko eta irakasleko E4. .Ikasleak hezkuntza-taldeko E4.2. Ikasleak irakasleko E5. Lanbide Heziketa E5.1. Sartzeko tasa gordinak eta titulazioa Lanbide Heziketan E5.2. Hko ikasleak lanbide-adarraren eta sexuaren arabera E6. Atzerriko hizkuntzen ikaskuntza E6.1. Atzerriko hizkuntza, irakasgai E6.2. Atzerriko hizkuntza irakaskuntza hizkuntza gisa erabiltzea E7. Etengabeko ikaskuntzan parte hartzea E8. Hezkuntza laguntzako behar bereziak dituzten ikasleak
HEZKUNTZA FINANTZAKETA	F1. Gastu osoa hezkuntzan F1.1. Gastu publikoa eta familiena hezkuntzan F1.2. Kontzertuetarako gastu publikoa F2. Hezkuntzako gastua ikasleko
HEZKUNTZAKO EMAITZEN ADIERAZLEAK	R1. Lehen Hezkuntzako 4. Mailako oinarrizko gaitasunak R1.1. Irakurritakoa Ulertzeko Gaitasuna (PIRLS) R2. Funtsezko gaitasunak 15 urterekin (PISA) R3. Ikasleen adinaren egokitasuna R3.1. DBHko ikasleen adinaren egokitasuna R3.2. Ikasle errepikatzailea R4. Hezkuntza eta prestakuntza behar baino lehen uztea R5. Graduazio tasak R5.1.Graduazio-tasa gordina DBHn R5.2. Graduazio-tasa gordina 2. etapako bigarren mailako ikasketetan R5.3. Gazteen artean goi mailako ikasketak dituzten tituludunen ehunekoa R6. Helduen prestakuntza maila R7. Jarduera-tasa eta langabezia prestakuntza mailaren arabera R7.1. Jarduera-tasa prestakuntza mailaren arabera R7.2. Langabezia-tasa prestakuntza mailaren arabera R8. Laneko sarrerak prestakuntza mailaren arabera
Iturria: Hezkuntzaren adierazleen estatu sistema. Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioa	

Komeni da epigrafe honetan kontuan hartzea Hezkuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatua-HNSN- eta Hezkuntzaren Nazio Sailkapena-HNS 2014, Memoria honen Glosarioan bilduak

1.3.1. Eskolatze-adierazleak eta hezkuntza ingurunea

Eskolatze-tasa garbia goi mailako hezkuntzan

Goi mailako irakaskuntzako adin teorikoetan (18-24 urte) matrikulaturiko pertsonen eta adin horietako biztanleen ehunekoa da.

Goi mailako hezkuntzako eskolatzea gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da. Europako goi mailako hezkuntza sistemak mundu mailako kalitatezko eredu bihurtzea lortzeak Europako herrialdeak bateratzeko prozesua ekarri du goi mailako eta ikerkuntzako gune komunerantz.

Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioaren "Hezkuntzaren adierazleen estatu sistema"ren 2018ko edizioaren arabera, 2015-16 ikasturtean, 28ko EBko goi mailako hezkuntzako eskolatze-tasa 20 urterekin % 40,2 izan zen, eta

eskolatze orokorrari dagokiona % 57,0 da. Portzentajerik handienak hauetan ageri dira Eslovenian (% 57), Grezian eta Irlandan (% 56), Belgikan eta Lituanian (% 54) eta Espainian (% 4), eta baxuenak Luxenburgon (% 8), Danimarkan (% 21), Suedian (% 23), Finlandian (% 27) eta Alemanian (% 28). Bost herrialde horietan, hauexek dira eskolatze orokorreko tasak 20 urterekin, hurrenez hurren: % 33, % 49, % 42, %47 eta % 61.

Espainiako goi mailako hezkuntzako eskolatze-tasa adin horrekin (20 urte) Europako batez bestekoa baino 9,1 puntu handiagoa da (% 40,2), eta EAEkoak 22,6 puntutan gainditu zuen (% 62,8) (ikusi V.1.2. grafikoa eta V.1.10 taula).

V.1.2. GRAFIKOA. ESKOLATZE-TASA GARBIAK 20 URTEREKIN 28KO EB-KO HERRIALDEETAN. 2015-16 IKASTURTEAN



Iturria: Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioa

Estatuari gagozkiola, 2015-16 ikasturtean, EAEk bigarren eskolatze-tasa zuen goi mailako hezkuntzan 20 urterekin, Madrilen atzetik (% 68,8), eta EAEren ondoren Katalunia eta Gaztela eta Leon daude.

Unibertsitatez kanpoko ikasketak (hots, goi graduko Lanbidez Heziketa) eta unibertsitate ikasketak bereiziz, lehenbiziko kasuan Katalunian daude tasarik altuenak (% 15,9), ondoren EAEn % 15,5) eta Galizian % 14); bigarrenean, berriz (unibertsitate ikasketak), Madril (% 57,8), Gaztela eta Leon (% 47,4) eta EAE (% 47,3).

V.1.12. TAULA. ESKOLATZE-TASA GARBIAK GOI MAILAKO HEZKUNTZAN, UNIBERTSITATEZ KANPOKO HEZKUNTZAN ETA UNIBERTSITATEKO GOI MAILAKO HEZKUNTZAN 20 URTEREKIN, AA-EE.EN ARABERA 2010-11 ETA 2015-16 IKASTURTEETAN

	ESKOLATZE-TASA GARBIA GOI MAILAKO HEZKUNTAN		ESKOLATZE-TASA GARBIA UNIBERTSITATEKO GOI MAILAKO HEZKUNTZAN		ESKOLATZE-TASA GARIBA UNIBERTSITATEZ KANPOKO G.M. HEZKUNTAN	
	2010-11	2015-16	2010-11	2015-16	2010-11	2015-16
GUZT.	**41,6**	**49,3**	**31,5**	**37,4**	**10,1**	**11,8**
ANDALUZIA	36,9	43,3	28,2	33,6	8,7	9,7
ARAGOI	44,7	54,0	32,9	41,2	11,8	12,8
ASTURIAS	43,2	49,9	32,8	37,9	10,5	12,0
ILLES BALEARS	20,1	20,7	13,9	14,9	6,3	5,8
KANARIAR U.	26,3	34,7	17,9	23,3	8,4	11,5
KANTABRIA	36,2	44,2	25,2	31,3	10,9	13,0
GAZTELA ETA LEON	51,9	58,4	40,3	47,4	11,6	10,9
GAZTELA-MANTXA	25,0	27,3	17,0	17,6	8,1	9,7
KATALUNIA	44,4	55,5	32,8	39,7	11,6	15,9
VALENTZIA	43,4	48,3	31,1	35,7	12,3	12,6
EXTREMADURA	29,4	32,6	21,2	22,3	8,2	10,3
GALIZIA	42,6	47,0	30,7	33,0	11,9	14,0
MADRIL	57,4	68,8	48,2	57,8	9,1	11,0
MURTZIA	36,0	45,2	28,9	36,8	7,1	8,4
NAFARROA	49,5	52,4	37,7	39,9	11,8	12,5
EAE	**52,9**	**62,8**	**38,0**	**47,3**	**14,9**	**15,5**
ERRIOXA	29,4	38,7	18,4	25,4	11,0	13,2
CEUTA	22,2	23,7	16,2	16,0	6,0	7,7
MELILLA	22,8	25,8	14,7	15,9	8,1	9,9

Iturria: Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioaren hezkuntzaren adierazleen estatu sistema

Ikaskuntza iraunkorrean parte hartzea

Etengabeko ikaskuntzako ekintza batean parte hartzen duten 25 eta 64 urte bitarteko biztanleen ehunekoa bezala definitzen da, adin bereko biztanleria osoaren gainetik.

Hezkuntzaren eta trebakuntzaren arloko Europako lankidetzarako esparru estrategikoaren barruan (ET2020), Europako Kontseiluak 2009ko maiatzeko bilkuran ondorioztatu zuenez, Europako herrialdeek bizitza osoan sustatu beharko lukete ikaskuntza, helduek beren trebakuntza, prestakuntza eta eguneratzea hobetzeko prozesuetan duten parte-hartzea handituz, ikaskuntza iraunkorraren ikuspegitik, hezkuntzako sistema formaletan nahiz bestelako jarduera ez-formalen bidez. Hala, Europar Batasunak 2020rako helburu bezala ezarri du 25-64 urteko helduen % 15ek, gutxienez, hartuko duela parte etengabeko ikaskuntzako jardueraren batean.

GIHren barruan, 2030eko agendatik helburu hau ezarri da[4]: *Hemendik 2030era*[5] *emakume eta gizon guztiek berdintasunez prestakuntza teknikoa, profesionala eta kalitate handikoa eskuratzea bermatzea, unibertsitateko irakaskuntza barne, betiere 4.3.1. adierazle orokorra zehaztuta: gazteek eta helduek irakaskuntza akademikoan eta ez-akademikoan parte hartzea, baita gaitasunean ere aurreko 12 hileetan.*

V.1.3. GRAFIKOA. ETENGABEKO IKASKUNTZAN PARTE HARTZEN DUTEN 25-64 URTEKO BIZTANLEAK AA.EE.EN ARABERA 2017



ITURRIA: Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioa

Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioaren "Hezkuntzako adierazleen estatu sistema"ren 2018ko edizioaren arabera, EAEn 25-65 urteko biztanleen % 13,2k hartu zuen parte 2017an inkesta aurreko lau asteetan prestakuntzako jardueraren batean, eta emakumeen parte-hartzea handiagoa da gizonena baino, % 14,7 eta % 11,6 hurrenez hurren. Euskadiz gain (% 13,2, jada aipatua eta, beraz, lehena rankinean), honako hauetan daude ehunekorik altuenak: Melillan (% 12,2) eta Aragoin (% 12,1); eta txikienak Katalunian (% 7,7), Illes Balears-en (% 8,6) eta Andaluzian (% 8,6). Autonomia guztietan, emakumeen partaidetza handiagoa da gizonena baino, Murtzian izan ezik.

[4] *Garapen iraunkorreko helburua*

[5] *NBEren Garapen Iraunkorrerako 2030eko agenda*

28ko EB, 2017an ratioa (% 10,9) EAEn erregistraturikoa baino txikiagoa izan zen, non oraindik ez den iritsi 2020rako helburutzat proposaturiko % 15era. Datuek erakusten dutenez, oso egoera desberdinak daude herrialdeen artean. Nabarmentzekoa da partaidetzarik handiena duten Europako iparreko herrialdeetan: Suedia (% 30,4), Finlandia (% 27,4) eta Danimarka (% 26,8). Beste muturrean, Errumania (% 1,1), Bulgaria (% 2,3), Kroazia (% 2,3) eta Eslovakiar Errepublika (% 3,4) daude. Espainia erdiko postuetan dago.

V.1.4. GRAFIKOA. 28KO EB-KO HERRIALDEETAN ETENGABEKO IKASKUNTZAN PARTE HARTZEN DUTEN 25-64 URTEKO BIZTANLEEN EHUNEKOA 2017



Iturria: Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioa

1.3.2. Hezkuntza finantzaketaren adierazleak.

Hezkuntzako gastua administrazio motaren arabera

Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioaren "Espainiako hezkuntza kopurutan. 2019ko edizioa" deritzon txostenean EUROSTATek emandako datuen arabera, 28ko EBko gastua, 2015ean, BPGd-aren % 5,04 izan zen, estatukoa baino handiagoa (% 4,16). Ratiorik handienak dituzten herrialdeak hauexek Suedia (% 7,05), Finlandia (% 6,75), Belgika (% 6,43), Zipre (% 6,4), Erresuma Batua (% 5,68), Frantzia (% 5,47) eta Austria (% 5,43).

VI.1.13 taulak erakusten duenez, HKKMren datuen arabera, Hezkuntzako gastu publikoa, 2017an, 48.980 milioi eurokoa izan zen Estatuan (finantza-kapituluak kenduta eta, horri esker, gorabeherak kendu eta nazioarteko konparazioa egin daiteke), hots, BPGaren %4,2. (% 4,22 2016an).

Estatuko gastu hori administrazioen arabera aztertuta ikusten denez, espero zitekeen bezala, gehiena Hezkuntza Ministerioari eta AA.EE.etako hezkuntza administrazioei dagokie (Hezkuntza sailak eta kontseilaritzak). Hala, autonomia erkidegoen hezkuntza administrazioen gastua, 2017an, 41.082 milioi euro izan zen (39.707,2 milioi 2016an), hots, BPGd-aren % 3,52 (% 3,55 2016an). EAEn, gastu hori 2.740 milioi euro izan zen (2.642,2 milioi 2016an).

Europako eta erreferentziako herrialdeetako batez bestekoarekin konparatzeko, guztizko gastuak izan ditugu aintzat (administrazioen multzokoak. Horrenbestez, EAEko eta Europako batez bestekoak (lurralde gehiago izateagatik) ez dira zuzenean konparagarriak, baina nahikoa hurbilketa zuzena ematen digute, eta horiek oinarrituta esan dezakegu gure Erkidegoak gastu publiko txikiagoa duela BPGaren gainean arloko erreferentziako herrialdeek baino.

V.1.13. TAULA. HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOAREN BILAKAERA ADMNISTRAZIO MOTAREN ARABERA (MILA EUROTAN). GASTU PUBLBIKOA, FINANTZA KAPITULUAK ALDE BATERA UTZITA								
	GASTUA				GASTUAREN %/BPG			
	2014	2015	2016	2017	2014	2015	2016	2017
GUZT. ESTATUA	**44.461.690**	**46.262.400**	**47.192.045**	**48.979.625**	**4,28**	**4,28**	**4,22**	**4,20**
HKKM ETA HEZKUNTZA ESKUMEN GUZTIAK BEREN GAIN DITUZTEN AA.EE.ETAKO HEZKUNTZA ADMINISTR.	**38.927.925**	**40.580.035**	**41.387.707**	**42.799.590**	**3,75**	**3,75**	**3,70**	**3,67**
HEZKUNTZA, KULTURA ETA KIROL MINISTERIOA	1.942.320	2.029.720	2.037.294	2.111.130	0,19	0,19	0,18	0,18
HEZKUNTZA, KULTURA ETA KIROL MINISTERIOA AA.EE.ENTZAKO TRANSFERENTZIAK KENDUTA	1.695.287	1.721.908	1.680.532	1.717.293	0,16	0,16	0,15	0,15
AA.EE.ETAKO HEZKUNTZA ADMINISTRAZIOA. (HEZKUNTZA SAILAK/KONTSEILARITZAK)	**37.232.638**	**38.858.127**	**39.707.175**	**41.082.296**	**3,59**	**3,59**	**3,55**	**3,52**
ANDALUZIA	7.161.777	7.443.699	7.604.793	7.908.329	5,15	5,11	5,08	5,07
ARAGOI	1.032.566	1.061.406	1.119.802	1.170.995	3,15	3,18	3,23	3,22
ASTURIAS	768.387	798.283	798.838	819.093	3,74	3,76	3,70	3,58
ILLES BALEARS	760.890	816.627	861.135	908.234	2,89	2,96	2,96	2,98
KANARIAR U.	1.531.986	1.541.196	1.592.699	1.643.219	3,85	3,75	3,73	3,69
KANTABRIA	536.021	543.749	570.031	569.907	4,49	4,46	4,53	4,32
GAZTELA ETA LEON	2.002.480	2.071.630	2.096.544	2.116.940	3,86	3,87	3,80	3,73
GAZTELA-MANTXA	1.463.865	1.556.836	1.562.327	1.623.367	4,09	4,16	4,03	4,03
KATALUNIA	5.545.939	6.018.679	6.139.980	6.389.471	2,82	2,93	2,87	2,85
VALENTZIA	4.012.180	4.169.774	4.300.411	4.456.698	4,12	4,13	4,13	4,10
EXTREMADURA	967.939	1.028.176	1.016.417	1.031.124	5,79	5,87	5,61	5,47
GALIZIA	2.180.438	2.258.297	2.317.044	2.385.149	4,04	4,01	4,00	3,94
MADRIL	4.618.275	4.772.701	4.849.327	5.004.856	2,37	2,34	2,29	2,27
MURTZIA	1.249.007	1.302.807	1.339.958	1.378.366	4,69	4,61	4,60	4,53
NAFARROA	586.497	598.310	620.376	656.506	3,29	3,25	3,26	3,32
EAE	**2.560.561**	**2.602.480**	**2.642.160**	**2.740.020**	**4,01**	**3,94**	**3,86**	**3,83**
ERRIOXA	253.828	273.479	275.333	280.024	3,32	3,47	3,47	3,42
HEZKUNTA ESK. GUZTIAK BERE GAIN HARTU EZ DITUZTEN AA.EE.AK								
BESTE ADMINISTRAZIO BATZUK	**3.118.303**	**3.142.321**	**3.283.621**	**3.693.761**	**0,30**	**0,29**	**0,29**	**0,32**
ADMINISTRAZIOAK BANATU GABEKO GASTUA								
EGOTZITAKO GIZARTE KOTIZAZIOAK	**4.464.000**	**4.536.000**	**4.487.000**	**4.442.000**	**0,43**	**0,42**	**0,40**	**0,38**
DOIKUNTZA-PARTIDAK								
ADMNISTRAZIOEK TOKIKO ERAKUNDEEI EMANDAKO TRANSFERENTZIAK	**-305.898**	**-211.545**	**-211.219**	**-221.474**	**-0,03**	**-0,02**	**-0,02**	**-0,02**
UNIBERTSITATE HEZKUNTZAN SARTUTAKO FINANTZAKETA PRIBATUA	**-1.742.640**	**-1.784.411**	**-1.755.063**	**-1.734.252**	**-0,17**	**-0,17**	**-0,16**	**-0,15**
Iturria: Diru-baliabideak. Gastu publikoa, Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioa eta geuk egina								

Unibertsitateko eta unibertsitatetik kanpoko hezkuntza bereiziz, ondorioztatzen da gure erkidegoak Estatuko batez bestekoa gainditzen duela unibertsitatetik kanpoko hezkuntzan egindako esfortzuan (BPGd-arekiko gastuaren ehunekoa); izan ere, % 3,07koa da, BPGd-aren % 2,7ren aurrean. Hala ere, ez du gainditzen unibertsitateko hezkuntzan egindako esfortzua (% 0,62 % 0,76ren aurrean).

V.1.14. TAULA. GASTU PUBLIKOAREN BILAKAERA (FINANTZA KAP. ALDE BATERA UTZITA) UNIBETSITATEKO IRAKASKUNTZAN ETA UNIBERTSITATEZ KANPOKO IRAKASUNTZAN (MILA EUROTAN)								
	GASTUA				GASTUA/BPG (%)			
	2014	2015	2016	2017	2014	2015	2016	2017
UNIBERTSITATEZ KANPOKO HEZKUNTZA								
GUZT. ESTATUA	30.958.882	32.455.325	33.431.447	34.634.243	2,98	3,00	2,99	2,97
HKKM ETA HEZKUNTZA ESK. GUZTIAK BERE GAIN HARTU DITUZTEN AA-EEN HEZK. ADM.	28.814.398	30.161.084	31.024.517	32.015.184	2,78	2,79	2,77	2,74
AA.EE.ETAKO HEZKUNTZA ADMINISTRAZIOAK	**28.342.931**	**29.631.062**	**30.514.985**	**31.542.742**	**2,73**	**2,74**	**2,73**	**2,70**
EAE-KO HEZKUNTZA ADMINISTRAZIOA	**2.056.838**	**2.098.399**	**2.139.695**	**2.191.373**	**3,22**	**3,17**	**3,13**	**3,07**
BESTE ADMINIST. BATZUK	2.450.381	2.505.786	2.618.149	2.840.533	0,24	0,23	0,23	0,24
DOIKUNTZA PARTIDAK	-305.898	-211.545	-211.219	-221.474	-0,03	-0,02	-0,02	-0,02
UNIBERTSITATE HEZKUNTZA								
GUZT. ESTATUA	8.581.319	8.896.494	8.815.558	9.106.442	0,83	0,82	0,79	0,78
HKKM ETA HEZKUNTZA ESK. GUZTIAK BERE GAIN HARTU DITUZTEN AA-EEN HEZK. ADM.	8.567.349	8.881.065	8.799.269	9.068.633	0,83	0,82	0,79	0,78
AA.EE.ETAKO HEZKUNTZA ADMINISTRAZIOAK	**8.335.023**	**8.637.305**	**8.572.584**	**8.831.193**	**0,80**	**0,80**	**0,77**	**0,76**
EAE-KO HEZKUNTZA ADMINISTRAZIOA	**432.003**	**430.966**	**422.248**	**439.825**	**0,68**	**0,65**	**0,62**	**0,62**
BESTE ADMINIST. BATZUK	13.969	15.429	16.289	37.809	0	0	0	0
DOIKUNTZA PARTIDAK								

Iturria: Diru-baliabideak Gastu publikoa. Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioa eta geuk egina

Unibertsitatez kanpoko ikasle bakoitzeko gastu publikoa. Estatuarekiko aldea

Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzarako ikasleko eta autonomia erkidego bakoitzeko gastu publikoa kalkulatzeko, oro har, ELGAk adierazle hori bere Adierazleen Proiektuan lortzeko darabiltzan arauekin bat datorren metodologia erabiltzen da. Hauexek dakartza horrek:

- Autonomia erkidegoetan hezkuntzan eginiko gastu osoa sartzea (beketan eginiko gastua izan ezik), finantzatzen duen administrazioa edozein dela ere. Horrek berekin dakar, gainera, hezkuntzakoak ez diren administrazioek hezkuntzan eginiko gastua sartzea, egotzitako kotizazio sozialen gastua lurraldeka banatzea.
- Finantza-gastuetatik gastuaren zenbatekoa kentzea.
- Urte bateko ikasletzat erabiltzea honako hau: unibertsitatekoa ez den Irakaskuntzako Estatistikak emandako bi ikasturteri dagozkien kopuruak haztatzearen emaitza (adibidez, 2016rako 2015-2016 eta 2016-2017 ikasturteetako ikasleak erabiltzen dira) eta irakaskuntzetan matrikulaturikoen kopurua lanaldi osokoak bihurtzea nazioarteko estatistikarako erabiltzen diren bihurketa-faktore berak erabiliz.
- "Ikasle publiko eta itunpeko ikasle bakoitzeko gastu publikoa" izatetik "ikasle publiko bakoitzeko gastu publikoa" izateko, itunpeko ikastetxe pribatuek jasotako diru-itunetarako eta diru-laguntzetarako zenbatekoa kentzen da, eta ikasleen datuetan ikastetxe publikoetakoak baizik ez dira sartzen. Lan prestakuntzako jarduerekin lotutako gastua ere kendu da.

Bestalde, adierazle horretan eragina izan dezaketen hainbat faktore aipatu behar dira, kalkuluan bildu ez direnak, hala nola sakabanaketa geografikoa, ikasleak hezkuntza maila desberdinetan banatzea eta eskaintza publikoaren eta pribatuaren pisua.

Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioaren arabera, unibertsitatez kanpoko hezkuntzako gastu publikoa (publikoa eta itunpekoa), 2016an, 6.502 euro izan zen 2016an ikasleko, hots, berriz ere dugu EAE lehen tokian autonomia erkidegoen artean. Hots, % 0,4ko hazkundea 2013ko gastuaren aldean, eta estatuan, berriz, % 6,8 izan zen. Estatuko batez bestekoa 4.879 euro izan zen eta, beraz, EAEko ikasle bakoitzeko gastua estatukoa baino % 33 handiagoa izan zen.

Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako ikastetxe publikoko ikasle bakoitzeko gastua, 2016an, 9.054 euro izan zen EAEn, eta berriz ere dugu gure Erkidegoa ikasleko gasturik handiena egiten duena, baina % 1,3ko jaitsiera da 2013aren aldean. Estatuan, berriz, % 7,2ko igoera izan da. Estatuko batez bestekoa 5.607 euro izan zen, eta EAEko ikastetxe publikoetako ikasle bakoitzeko batez besteko gastua estatukoa baino % 61,5 handiagoa izan zen.

V.1.15. TAULA. GASTU PUBLIKOA IKASLE BAKOITZEKO UNIBETSITATEZ KANPOKO IRAKASKUNTZAN (1) AA.EE.N ARABERA

	IKASLEKO GASTU PUBLIKO ETA ITUNPEKOA (EUROTAN)					IKASLEKO GASTU PUBLIKOA (EUROTAN)				
	2013	2014	2015	2016	. 2013/16	2013	2014	2015	2016	2013/16 ALD. %
ESTATUA	**4.569**	**4.537**	**4.743**	**4.879**	**6,8**	**5.231**	**5.169**	**5.436**	**5.607**	**7,2**
ANDALUZIA	4.110	4.042	4.220	4.419	7,5	4.595	4.510	4.735	4.943	7,6
ARAGOI	4.775	4.707	4.891	5.131	7,5	5.516	5.372	5.631	5.917	7,3
ASTURIAS	5.667	5.530	5.747	5.814	2,6	6.615	6.435	6.679	6.785	2,6
BALEAR U.	4.817	4.808	5.102	5.328	10,6	5.623	5.592	5.917	6.379	13,4
KANARIAR U.	4.527	4.539	4.627	4.991	10,2	5.031	5.017	5.102	5.514	9,6
KANTABRIA	5.534	5.623	5.644	5.934	7,2	6.474	6.539	6.595	6.917	6,8
GAZTELA ETA LEON	5.124	5.109	5.372	5.529	7,9	6.117	5.981	6.399	6.538	6,9
G.-MANTXA	4.335	4.295	4.545	4.619	6,6	4.624	4.591	4.885	4.988	7,9
KATALUNIA	4.237	4.198	4.580	4.721	11,4	4.876	4.746	5.197	5.386	10,5
VALENTZIAKO E.	4.383	4.449	4.628	4.819	9,9	4.880	4.995	5.246	5.510	12,9
EXTREMADURA	5.220	5.276	5.595	5.678	8,8	5.815	5.881	6.255	6.341	9,0
GALIZIA	5.560	5.404	5.585	5.699	2,5	6.421	6.241	6.460	6.598	2,8
MADRIL	3.908	3.857	3.957	3.945	0,9	4.505	4.443	4.593	4.591	1,9
MURTZIA	4.438	4.352	4.545	4.613	3,9	4.939	4.841	5.074	5.159	4,5
NAFARROA	5.739	5.692	5.731	5.829	1,6	6.955	6.866	6.951	7.128	2,5
EAE	**6.475**	**6.448**	**6.437**	**6.502**	**0,4**	**9.175**	**8.976**	**8.973**	**9.054**	**-1,3**
ERRIOXA	4.733	4.827	5.004	5.149	8,8	5.530	5.649	5.863	6.052	9,4

(1) Hezkuntza sistemako unibertsitatez kanpoko gastu publikoa ikasleko eta, beraz, lan heziketa alde batera utzita. Lanaldi osoaren baliokide bihurtu da ikaslea, nazioarteko estatistikan erabilitako metodologiaren arabera.
Iturria: Espainiako hezkuntza kopurutan. 2018ko edizioa eta aurrekoak.

Gastua ikasleko (euroak PPS erabiliz bihurtuak) hezkuntza erakundeetan. Nazioarteko erkaketa

Aurreko adierazleak ez bezala, adierazle honek erakunde publiko eta pribatuetan gastu publikoa nahiz pribatua kontuan hartzen du, lanerako prestakuntza sartzeaz gain, eta eurotan kalkulatuta dago. Dena den, EAPa erabilita bihurtu dira (haur hezkuntzako lehen zikloa).

V.1.5. GRAFIKOA. GASTUA IKASLEKO (EUROAK PPS-AK ERABILIZ BIHURTUTA). 2015



Iturria: EUROSTAT Espainiako Hezkuntza Kopurutan delakoaren 2018ko edizioa. Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioa.

EUROSTATen arabera, 2015ean, ikasle bakoitzeko gastua 6.517 euro izan zen estatuan, hezkuntza erakunde publikoetan eta pribatuetan, eta 7.019 eurokoa erakunde publikoetan. Bi gastu horiek hauexetakoak baino txikiagoak dira: Zipre, Frantzia, Finlandia, Malta, Alemania, Belgika, Holanda eta Erresuma Batua, eta oso urruti Austriakotik eta Luxenburgokotik.

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren gastua

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren gastua (hezkuntzaren arloa soilik), 2017an, 2.788,8 milioi eurokoa izan zen. Horrenbestez, % 7,7ko hazkundea zen aurreko ekitaldiarekiko. Partaidetza hori, Eusko Jaurlaritzaren guztizko gastuan, %25,8koa izan zen, aurreko urtekoa baino handiagoa (% 25). Gastu horrek EAEko BPGren % 3,8 hartzen du, 2016an erregistratutakoa baino handiagoa (% 3,63). Hezkuntzako ikasle bakoitzeko gastuak (ikasle guztiak, hau da, erregimen orokorrekoak [6] nahiz berezikoak[7]) beste behin igoera izan zuen 2017 eta 2018 bitartean, 5.328 eurotik 5.732 eurora igaro baitzen.

Bestalde, 2018ko aurrekontuetan, hezkuntzarako partida 2.629,3 milioi euroan kokatzen da. Hots, % 2ko igoera aurreko urteko aurrekontuan jasotako gastuaren aldean. Eusko Jaurlaritzako gastuen aurrekontuan % 22,9ko partaidetza du. Hau da, EAEko BPGd-aren % 3,43, eta 2017an % 3,49 izan zen.

V.1.16. TAULA. EUSKO JAULARITZAK LIKIDATURIKO/AURREKONTUAN JASOTAKO GASTUAREN BILAKAERA

	MILA EUROTAN	JAURLARITZARENA GUZTIRA (MILA EUROTAN)	GASTUAREN %-A EJ-K LIKIDAT. GASTU OSOAREKIKO	BPGd-a MILA €-TAN	%-A BPGd-arek.	OINAR.: 2013=100	IKASLEAK GUZTIRA (1)	GASTUA IKASLEKO, EUROTAN
AURREKONTUKO LIKIDAZIOEKIN								
2013	2.405.343	9.579.464	25,1	64.923.009	3,70	100	479.061	5.021
2014	2.513.394	10.053.537	25,0	66.378.235	3,79	104	480.859	5.227
2015	2.560.630	10.161.474	25,2	68.496.577	3,74	106	486.870	5.259
2016	2.588.781	10.364.639	25,0	71.239.291	3,63	108	485.858	5.328
2017	2.788.757	10.823.734	25,8	73.821.178	3,78	116	486.550	5.732
AURREKONTUEKIN								
2017	2.578.779	11.059.662	23,3	73.821.178	3,49	107		
2018	2.629.345	11.486.409	22,9	76.604.832	3,43	109		

(1) Ikasle guztien artean erregimen orokorreko ikasleak eta erregimen bereziko ikasleak sartzen dira. Erregimen orokorreko ikasleen artean unibertsitatez kanpoko ikasleak –zeinen artean hezkuntza bereziko ikasleak eta helduen hezkuntza iraunkorrekoak sartzen baitira- eta unibertsitateko ikasleak daude. Erregimen bereziko ikasleen artean arte plastiko eta diseinuko, hizkuntzetako, musikako, dantzako, kiroleko eta diseinuko goi-mailako ikasketetako ikasleak sartzen dira.

(2) Iturria: EUSTATen datuetatik geuk egina, EAEko Kontu Orokorrak, eta azken urterako aurrekontuak.

1.3.3. Hezkuntza emaitzen adierazleak

Bigarren hezkuntzako ikasleen adinaren egokitasuna

Egokitasun-tasa hezkuntza sistemaren emaitzen neurri garrantzitsu bat da. Derrigorrezko eskolatzean aurrera egiten duten, hau da, haien adinari dagokion maila egiten duten ikasleak bistaratzen ditu. Estatistikaren ikuspegitik, adinari doakion mailan matrikulatuta dagoen ikasleriaren ehunekoa.

Datuak ikusita berretsi egiten da arreta berezia jarri behar dela lehen adinetan, zeren eta eskolako atzerapenak eta, ondorioz, ezegokitasunak, gora egin eta metatu egin baitira urteetan.

HKKMren Espainiako Hezkuntzaren zenbakiak txostenaren 2019ko edizioaren arabera, 2016-17 ikasturtean, EAEko 8 urteko ikasleen %94,1 Lehen Hezkuntzako 3. mailan zegoen matrikulatuta, adin horretako kurtso teorikoan; 10 urterekin, etapa horretako 5.eko ikasleen tasa %3 txikiagoa zen (%91,1). DBHko adinetan, egokitasun-tasek behera egiten dute adinean gora egin ahala. Hala, 12 urteko ikasleen %87,8 hezkuntza etapa horretako 1. mailan zebilen; 14 urteko ikasleen %79,7 hirugarren mailan eta 15 urtekoen %76,2 laugarren mailan zegoen matrikulatuta. Ratio horiek estatuko batez bestekoak baino handiagoak dira, V.1.15. taulan ageri denez.

[6] *Unibertsitatekoa eta ez unibertsitatekoa.*

[7] *Arte plastikoak, Hizkuntzak, Musika, Dantza, Kirola eta Diseinuko goi mailako ikasketak.*

Genero ikuspegitik, emakumeek egokitasun-tasa handiagoak dituzte gizonek baino. EAEko kasu zehatzean, 2016-17 ikasturtean, hauexek dira diferentziak: 2,3 emakumeen alde 8 urterekin, 3 puntukoa 10 urterekin, 2,7 puntu 12 urterekin, 8,8 puntu 14 urterekin eta 8,3 puntu 15 urterekin.

Hala ere, eboluzio-datuak aztertuta ondorioztatzen denez (2006-07 eta 2016-17 ikasturteen artean), beheranzko joera du emakumeen eta gizonen artean, emakumeen alde betiere. Hala, 2006-07 ikasturtean 10 urteko aldea 3,2 puntukoa zen emakumeen aldean; 2016-2017an 2,7 puntukoa da, eta 12 urterekin 4,7tik 3,6ra igaro da, 14 urterekin 9,3tik 8,8ra eta 15 urterekin 12,4tik 8,3ra.

V.1.17. TAULA. EGOKITASUN TASAK 8, 10, 12, 14 ETA 15 URTEREKIN

	8 URTE		10 URTE		12 URTE		14 URTE		15 URTE	
	2006-07	2016-17	2006-07	2016-17	2006-07	2016-17	2006-07	2016-17	2006-07	2016-17
BI SEXUAK-ESTATUA	94,5	93,6	90,0	89,7	84,1	85,7	66,5	74,4	57,4	68,6
BI SEXUAK-EAE	94,8	94,1	92,1	91,1	87,8	87,7	77,3	79,7	70,7	76,2
GIZONAK-ESTATUA	93,5	92,6	88,4	88,4	81,5	83,6	61,2	70,3	51,4	64,3
GIZONAK-EAE	94,1	93,0	91,3	89,8	85,5	85,9	72,7	75,4	64,7	72,2
EMAK.-ESTATUA	95,5	94,7	91,6	91,1	86,8	87,9	72,2	78,6	63,8	73,0
EMAK.-EAE	95,6	95,3	93,1	92,5	90,2	89,5	82,0	84,2	77,1	80,5
Emak.-gizona dif. ESTATUAN	2,0	2,1	3,2	2,7	5,3	4,2	11,0	8,3	12,4	8,6
Emak.-gizona dif. EAEn	1,5	2,3	1,8	2,7	4,7	3,6	9,3	8,8	12,4	8,3

Iturria: Espainiako hezkuntza kopurutan. 2016-2017 ikasturtea (2019ko edizioa). Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioa

Kataluniak du, azterturiko adin guztietan, egokitasun tasarik hoberena, eta EAE hobetuz joan da. Hala, 2016-2017 ikasturtean bigarren tokia du autonomia erkidegoen rankinean, 8 urteko adin teorikoan izan ezik, V.1.18. taulan ageri denez.

V.1.18. TAULA. EAE-K ADIN ESANGURATSUETAN EGOKITASUNAREN ARLOAN DUEN POSIZIOA. 2016-17 IKASTURTEA

8 URTE		10 URTE		12 URTE		14 URTE		15 URTE	
GUZT. ESTATUA	**764,4**	**718,3**	**169,7**	**145,2**	**124,4**	**137,3**	**104,3**	**172,0**	**366,1**	**263,8**
ANDALUZIA	714,9	676,6	101,6	81,7	110,7	122,6	169,4	171,0	333,1	301,3
ARAGOI	811,1	691,8	171,3	161,8	186,7	150,2	176,8	140,5	276,4	239,3
ASTURIAS	748,1	692,1	181,1	168,7	85,0	86,6	150,7	147,0	331,3	289,7
BALEAR U.	820,3	788,5	182,5	145,9	131,8	139,8	180,8	215,5	325,3	287,4
KANARIAR U.	716,9	635,8	143,2	93,7	106,4	79,3	165,3	151,4	301,9	311,3
KANTABRIA	695,6	695,3	173,9	164,0	137,3	116,3	133,1	169,7	251,3	245,3
GAZTELA ETA LEON	707,4	663,8	187,9	172,4	142,4	121,6	134,5	148,2	243,0	221,6
G-MANTXA	669,0	614,7	129,8	99,6	115,0	113,9	158,2	142,5	265,9	258,7
KATALUNIA	826,4	751,9	208,5	165,9	164,0	157,9	184,8	180,9	269,2	247,2
VALENTZIAKO E.	739,1	703,4	157,4	124,3	128,2	139,4	186,9	176,3	266,6	263,4
EXTREMADURA	605,2	561,0	109,6	96,0	109,0	72,4	97,6	118,3	289,0	274,3
GALIZIA	640,6	597,2	137,4	120,4	80,3	76,0	164,1	160,3	258,8	240,6
MADRIL	885,5	861,5	222,9	211,8	211,0	197,8	201,1	201,4	250,5	250,6
MURTZIA	814,1	835,8	181,3	167,2	111,1	145,1	156,5	191,1	365,2	332,3
NAFARROA	828,5	837,1	225,4	218,3	137,8	188,8	190,9	188,8	274,3	241,3
EAE	**783,0**	**714,6**	**224,0**	**203,9**	**130,2**	**139,9**	**187,2**	**157,8**	**241,6**	**213,0**
ERRIOXA	735,1	714,0	173,6	162,2	127,5	165,9	162,0	148,9	272,0	237,0
CEUTA ETA MELILLA	932,7	882,8	---	---	---	---	---	---	---	---

Ikuskizunak eta beste kultura zerbitzu batzuk barne

Iturria: Kultura eta Kirol Ministerioa, Kultura Estatistiken Urtekaria, 2018

ITURRIAK

1. EUSTAT. Eskola-jardueraren Estatistika. 2017/18 Ikasturtea. Urterokoa. Estrukturala

2. EUSTAT. Unibertsitate Estatistika. 2016/17 ikasturtea. Urterokoa. Estrukturala.

3. Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioa. Hezkuntzako adierazleen estatu sistema, 2018.

4. Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioa. Espainiako Hezkuntza Kopurutan. 2019ko edizioa. Urterokoa. Estrukturala

5. Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioa. Diru-baliabideak, Gastu publikoa. Urterokoa. Estrukturala.

6. EIN. Espainiako Eskualde Kontabilitatea. Urterokoa. Abagunekoa.

7. EUSTAT. Ekonomia Kontuak. Urterokoa. Abagunekoa.

8. Eusko Jaurlaritza. EAEko Kontu Orokorrak eta EAEko Aurrekontuak. Abagunekoa.

9. Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioa. 2017ko eta 2018ko unibertsitate adierazleen urtekariak. Urterokoa. Estrukturala.

10. Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioa. Unibertsitate Adierazleen Estatistika, HKKM. 2018ko edizioa, 2016/17 Ikasturteko datuekin.

11. CSIC.

- Dokumentazio zientifikoko Espainiako aldizkaria, 41 Bol. 1. Zk. (2018) "Academic Ranking of World Universities (Shanghai Ranking) delakoaren adierazleak zenbatesteko eredua"
- "Unibertsitateen Meta-rankinga, Espainiako unibertsitateen sailkapeneko tokia". Dokumentazio zientifikoko Espainiako aldizkaria, 41 Bol. 2. zk. (2018)

12. Academic Ranking of Word Universities (ARWU). Shanghaiko Unibertsitate Rankina. 2018ko datuak. Urterokoa. Estrukturala.

13. Eusko Jaurlaritza. Eusko Soziometroa 66, 2018ko maiatzean argitaratua, Prospekzio Soziologikoko Kabinetea

14. Kultura eta Kirol Ministerioa. Kultura Estatistiken Urtekari. 2018ko edizioa. Urterokoa Estrukturala.

2. INGURUNE NATURALAREN EGOERA EAE-N

Ingurunea garrantzitsua da, zeren eta bizitza modu guztiak sortzen baitira bertan, ez beste inon eta, beraz, gizakiaren ekintzaren funtsezko osagaietako bat izan beharko luke ingurunea zaintzeak eta jagoteak.

Garapen ekonomikoak eta sozialak bizi-kalitatea eta erosotasuna ematen dizkiote gizarteari alderdi askotan, baina, aldi berean, presio handia dakarte ingurumenaren gainean, hainbat ukipen sorrarazten dituena.

Zorionez, gaur egun gero eta kontzientzia nabarmenagoa dago ukipen horien garrantziaren gainean, eta, herritarrak ez ezik, gobernuak eta enpresak ere hasi dira ingurumena babesteko edo horren gaineko kaltea mugatzeko helburua daukaten jarduerak garatzen.

Kapitulu honen helburua da EAEn ingurumenari lotutako gai nagusien errealitatea eta orain dela gutxiko bilakaera ezagutzea. Horretarako, erkidego honetako ingurumen adierazle nagusiak aztertu dira. Honako hauek dira, zehatz-mehatz: airearen kalitatea, ur gezaren kontsumoa, hondakinen sorrera eta kudeaketa, eta manufaktura-industriaren ingurumen babesa.

Zenbait epigrafetan bildutako datu batzuk ezin izan dira eguneratu, informazioa ez zegoelako argitaratuta kapitulu hau bukatzean. Alabaina, informazio estrukturala denez, funtsezko aldaketarik ez duenez eta, gainera, bi urtetik behin egiten diren inkestak eskuratzeko modua izan dugunez (aurten argitaratzea egokitu da), uste dugu ideia nahikoa zehatza izan daitekeela ingurune naturalak gure Erkidegoen duen egoeraren inguruan.

2.1. AIREAREN KALITATEA

Herritarrei airearen kalitatearen berri modu argian eta errazean emateko balio du airearen kalitate indizeak (AKI), eta airearen kalitatearen egoera sailkatzen duten 5 kategoriatan dago banatuta, hala nola: Oso ona, Ona, Hobetu daiteke, Txarra eta Oso txarra. Indizea kalkulatzeko, AKI bat ezartzen da kutsatzaile eta estazio bakoitzeko, azken hori kutsatzaile guztietatik txarrenak definitua.

AIREAREN KALITATEAREN EGOERA	NO2	SO2	CO	O3	PM10	PM2,5
OSO ONA	0-50	0-50	0-5	0-60	0-25	0-16
ONA	50-100	50-85	5-7	60-100	25-50	16-33
HOBETU DAITEKE	100-200	85-125	7-10	100-140	50-65	33-39
TXARRA	200-400	125-200	10-15	140-160	65-85	39-50
OSO TXARRA	>400	>200	>15	>160	>85	>50

Eguneroko AKI kalkulatzeko, hauexek erabiltzen dira: NO2 eguneko batez besteko gehienekoak, CO eta O3 zortzi orduko batez bete mugikorren gehienekoak eta SO2, PM10 eta PM2,5 eguneko batez bestekoak. Kontzentrazio-lerrunak ezartzeko, 102/2011 EDaren I. eranskinean finkaturiko balioak izan dira kontuan. Honekin batera doan taulan ageri dira eguneko AKIren lerrunak. Zonalde horretarako estazioetan ikusitako baliorik txarrena izango da zonalde bakoitzari esleituriko eguneko balioa.

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak emandako informazioaren arabera, hobekuntza nabarmena gertatu da EAEko airearen kalitatean azken urteetan. Hala, Memoriaren kapitulu hau bukatzean argitaratuta zeuden azken datuen arabera (2016ko datuak[12]), % 99 da batez besteko iraunkortasun-adierazlea, “oso ona”, “ona” eta “hobetu daiteke” kalifikazioa izan deneko egun kopuruaren eta urteko egunen arteko erlazio gisa.

[12] *Kapitulu hau egin dugunean datu berririk izan ez dugula eta, 2016ko egoera aurkeztuko dugu, eta xehetasun gehiago nahi izanez gero, begiratu 2017ko Memorian.*

2.2. UR GEZA BILTZEA ETA KONTSUMITZEA

Ur-hornidura gizartearen garapen demografikorako sozialerako eta ekonomikorako oinarrizko zerbitzuetako bat da, eta herri administrazioek nahitaez eman behar dute zerbitzu hori. Uraren hiri eskariak, bere ezaugarri nagusiei dagokienez, heterogenotasun handia du erabileraren aldetik, zeren eta etxeko erabilerak nahiz uraren beste erabilera batzuk sartzen baitira hala nola udalekoak, taldeetakoak, industrietakoak, merkataritzakoak eta nekazaritzakoak. Aldi berean, industria turistikoak eta bigarren etxebizitzak uraren eskari handia dakarte estatuko toki askotan; izan ere, bertako biztanleei (erroldatuak) dagokiena baino handiagoa izan daiteke.

EINen "*Uraren hornidurari eta saneamenduari buruzko estatistika*"ren arabera[13] (gaur egun bi urterik behin gauzatzen den eragiketa estrukturala), gure Erkidegoan, 2016an, 167,3 Hm^3 ur hornitu ziren hiri hornidurako sare publikoetan, 2014an baino % 9,5 gutxiago. 167,3 Hm^3 ur horietatik, % 81,5 (136,5 Hm^3 erregistraturiko ur bolumenak izan ziren (erabiltzaileen edukiontzietan neurtuak), eta gainerakoak erregistratu gabeko ur bolumenak izan ziren.

Erregistraturiko eta banaturiko 136,5 Hm ur horietatik (% 6,9ko jaitsiera 2014aren aldean), erabiltzaile-taldeen arabera bereizita, 88,6 Hm^3 (guztiaren % 64,9) etxeak hornitzeko erabili ziren; 38,3 Hm^3 (% 28,1) sektore ekonomikoak (industria, zerbitzuak eta abeltzaintza); eta 9,6 Hm^3 (% 7) udal kontsumoak (lorategiak ureztatzea, kaleetan ura botatzea eta beste erabilera batzuk).

2014aren aldean, behera egin zuen etxeetako eta sektore ekonomikoetako kontsumoak, % 3,6 eta % 15,3 hurrenez hurren. Udal kontsumoek, berriz, % 0,9 egin zuten gora.

Erregistratu gabeko ura honako bi hauetan banakatzen da: itxurazko galerak (neurketa akatsak, iruzurrak eta zenbatetsitako kontsumoak) eta benetako galerak (saneamendu-sareko ihesak, hausturak eta matxurak).

Azken horiek sareotan hornituriko ur guztiaren % 8,4 izan ziren 2016an, 2014an erregistraturiko % 8,9aren eta estatua zenbatetsitakoaren % 16,7aren azpitik.

V.2.1. TAULA. EAE-KO HORNIKETA PUBLIKORAKO ZAINDU ETA BANATUTAKO UR BOLUMENA

	2012	2013	2014	2016	14/16
SARERA HORNITUTAKO UR BOLUMENA (mila m^3)					
1. HORNIDURA PUBLIKOKO SARERAK HORNITURIKO UR BOLUMENA (A)	198.951	192.243	184.827	167.276	-9,5
1.1. ERREGISTRATU ETA BANATURIKO GUZTIZKO UR BOLUMENA	154.880	154.091	146.602	136.487	-6,9
1.2. ERREGISTRATU GABEKO UR BOLUMENA	44.071	38.152	38.225	30.789	-19,5
1.2.1. BENETAKO GALERAK (B)	23.798	12.552	16.475	14.070	-14,6
1.2.2. ITXURAZKO GALERAK	20.273	25.600	21.750	16.719	-23,1
BANAKETA SARE PUBLIKOAN GALDUTAKO URAREN %-A: BENETAKO GALERAK (B/A)	12,0	6,5	8,9	8,4	-
UR BANAKETA ERABILTZAILE TALDE HANDIEN ARABERA (mila m^3)					
ERREGISTRATU ETA BANATURIKO UR BOLUMEN OSOA ERABILTZAILE MOTA BAKOITZEKO	154.880	154.091	146.602	136.487	-6,9
ETXEAK	92.471	97.802	91.899	88.622	-3,6
SEKTORE EKONOMIKOAK	41.592	46.113	45.211	38.287	-15,3
UDAL KONTSUMOAK ETA BESTE BATZUK	20.817	10.176	9.492	9.578	0,9
BANATURIKO URAREN ZENBATEKO OSOA (MILA EURO)	112.465	115.584	123.555	129.051	
HORNIDURA ZERBITZUETAKO INBERTSIOAREN ZENBATEKO OSOA (MILA €)	5.199	4.312	5.434	2.744	

Iturria: EIN. Ura hornidurari eta saneamenduari buruzko estatistika

[13] *Inkestaren helburu nagusia unitate fisikoak zenbatu eta uraren ziklo integrala deritzonarekin lotutako jarduerak magnitude ekonomikotan baloratzea da. Uraren hornidurak eta saneamenduak (estolderia eta hondakin-uren arazketak) osatzen dute zikloa.*

EAEko uraren per capita kontsumoa berriz ere da Estatuko batez bestekoa baino txikiagoa, 112 litro/biztanle/egun (136 litro Estatuan), eta %3,4ko jaitsiera ageri da 2014 eta 2016 bitartean. Estatuan, berriz, %3ko igoera gertatu da.

Bestalde, uraren aleko kostua (ur-horniduragatik ordaindutako zenbatekoak eta estolda, arazketa eta saneamendu eta isurketa kanonengatik ordaindutako zenbatekoak zati erabiltzaileei banaturiko eta erregistraturiko ur bolumenarekin eginda) EAEn 1,94 euro/m^3 izan zen 2016an (% 49 hornidura-tasei dagokie eta % 51 saneamendu-tasei), hots, beste igoera bat, kasu honetan % 10,9koa 2014aren aldean. Estatuan, batez besteko prezioa pixka bat handiagoa izan zen eta 1,95 euro/m^3 izatera iritsi zen (1,89 euro/m^3 aurreko urtean).

V.2.2. TAULA. ETXEETAKO BATEZ BESTEKO UR KONTSUMOA ETA BALIO UNITARIOA

	BATEZ BESTEKO KONTSUMOA (LITROAK/BIZTANLE/EGUN)					BATEZ BESTEKO PREZIOA (€/M3)						
	2012	2013	2014	2016	14/16	2012	2013	2014	2016			14/16
									GUZT.	HORNIDURA	SANEA-MENDUA	
ANDALUZIA	129	120	126	129	2,4	1,62	1,74	1,81	1,80	1,08	0,72	4,8
ARAGOI	138	129	130	137	5,4	1,29	1,46	1,45	1,52	0,74	0,78	-3,8
ASTURIAS	130	122	134	150	11,9	1,29	1,32	1,32	1,27	0,68	0,59	5,9
BALEAR U.	133	141	124	134	8,1	2,38	2,71	2,19	2,32	1,28	1,04	10,0
KANARIAR U.	149	143	144	150	4,2	1,97	2,03	2,09	2,30	1,90	0,40	-1,7
KANTABRIA	155	144	152	155	2,0	1,36	1,56	1,75	1,72	0,90	0,82	22,1
GAZTELA ETA LEON	152	157	166	152	-8,4	1,02	1,00	0,95	1,16	0,65	0,51	-1,6
GAZTELA-MANTXA	146	140	125	128	2,4	1,31	1,28	1,28	1,26	0,80	0,46	-2,2
KATALUNIA	126	117	118	127	7,6	2,29	2,54	2,75	2,69	1,49	1,20	7,7
VALENTZIAKO E.	160	157	162	163	0,6	1,98	2,03	2,07	2,23	1,31	0,92	-10,5
EXTREMADURA	140	140	125	129	3,2	1,45	1,49	1,52	1,36	0,93	0,43	11,7
GALIZIA	134	119	129	138	7,0	1,11	1,19	1,11	1,24	0,76	0,48	-0,5
MADRIL	135	131	131	133	1,5	1,90	2,02	2,08	2,07	1,32	0,75	-4,4
MURTZIA	143	124	126	132	4,8	2,50	2,73	2,73	2,61	1,79	0,82	-5,7
NAFARROA	129	112	111	112	0,9	1,38	1,47	1,41	1,33	0,72	0,61	10,9
EAE	119	123	116	112	-3,4	1,36	1,52	1,75	1,94	0,95	0,99	1,7
ERRIOXA	134	112	106	115	8,5	1,02	1,06	1,15	1,17	0,52	0,65	-1,0
CEUTA ETA MELILLA	118	106	105	103	-1,9	1,88	1,95	1,97	1,95	1,46	0,49	4,8
ESTATUA	137	130	132	136	3,0	1,73	1,83	1,89	1,95	1,17	0,78	-3,8

Iturria: EIN. Ur hornidurari eta saneamenduari buruzko estatistika

2.3. HONDAKINEN SORKUNTZA ETA KUDEAKETA

EBk hondakinen arazoa ikuspegi zabalagotik eta orokorragotik lantzearen aldeko apustua egin du, hondakinen kudeaketaren hierarkia betetzean eraginik handiena duten alderdi guztiak azpimarratuz. Ekonomia zirkularra deritzona da, eta horren helburu nagusia produktuek, materialek eta baliabideek ekonomian ahalik eta denbora luzeenean jarraitzea da, hondakinak ahalik eta gutxien sortzea eta saihestu ezin izan diren hondakinak ahalik eta gehien baliatzea. Ziklo biologikoetan nahiz ziklo teknologikoetan aplikatzen da.

Hala ateratzen dira lehengaiak; produktuak fabrikatu eta sortutako hondakinetatik materialak eta substantziak berreskuratzen dira, ondoren ekoizpen-prozesuan sartuko direnak, segurtasunez gizakien osasunerako eta ingurumenerako. Azken finean, hazkunde ekonomikoa kontsumotik aparte uztea da.

Hondakinak biltzeko eta kudeatzeko moduak birziklatze-tasa handiak eragin ditzake, baita materialak ekonomiara itzultzea ere, edo bestela, eraginkorra ez den sistemara itzultzea, non birziklatu daitezkeen hondakinen zatirik handienak hondakindegietan edo erraustegietan bukatuko duen.

2.3.1. Hiriko hondakinak

"Hondakinen bilketari eta tratamenduari buruzko estatistika. Hiriko hondakinak" EINek egin du, eta agerian uzten duenez, 2016an, hiriko hondakinen enpresa kudeatzaileek 987.223 Tn hiri hondakin bildu zituzten 2016. urtean, aurreko urtean baino %4,3 gehiago. Nahastuak eta modu selektiboan bildutakoak bereizita, gehienak (% 67,9) nahastutako hondakinak izan ziren, baina ratio hori estatukoa baino askoz txikiagoa da (% 82,5).

2015eko datuen aldean, lehenbizikoetan %0,4ko igoera izan zen, eta gaikoetan, berriz, %13,8. Estatuan, bestalde, nahasturikoetan % 1,7 igoera izan zen, eta gaika bildutakoetan, berriz, neurri bereko jaitsiera izan zen.

Gaika bildutako hiriko hondakinei dagokienez, hauexek nabarmendu ziren bolumenaren aldetik: papera eta kartoia (128.576 Tm, guztien %40,6), beira (58.178 Tm, %21,2), ontzi mistoak eta bilgarri nahastuak (39.679 Tm, %13,8) eta mea-hondakinak –horien artean sartzen dira eraikuntzakoak eta eraispenekoak- (22.334 Tm, %6,4). Estatuan, hauexek nabarmendu behar dira: papera eta kartoia (guztien %26,7), animaliak eta landareak (%21,8), beira (%20,9), ontziratze mistoak eta bilgarri nahastuak (%16) eta mea-hondakinak –horien artean sartzen dira eraikuntzakoak eta eraispenekoak- (%7,7).

V.2. 3. TAULA. HIRIKO HONDAKINEN SORKUNTZA (Tonak)

	ESTATUA				EAE			
	2014	2015	2016	2015-16 ALDAK.	2014	2015	2016	2015-16 ALDAK.
HIRIKO HONDAKINAK (HH)	21.328.307	21.646.294	21.878.373	1,1	850.148	946.155	987.223	4,3
HH NAHASTUAK (1)	17.530.077	17.753.549	18.052.075	1,7	574.947	668.201	670.781	0,4
GAIKA BILDUTAKO HH	3.798.230	3.892.745	3.826.298	-1,7	275.201	277.954	316.442	13,8
HH NAHASTUEN %- GUZTIZKOAREKIKO	82,2	82,0	82,5		67,6	70,6	67,9	
GAIKA BILDUTAKO HH % GUZTIZKOAREKIKO	17,8	18,0	17,5		32,4	29,4	32,1	

(1) hondakin nahastuen artean, etxeko hondakinak eta antzekoak eta nahasturiko etxeko hondakin handiak sartzen dira.
Iturria: EIN. Hondakinen bilketari eta tratamenduari buruzko inkesta. Hiriko hondakinak

V.2.4. TAULA. BEREIZITA BILDUTAKO HIRIKO HONDAKINEN BILKETA, HONDAKIN MOTAREN ARABERA

	EAE				ESTATUA			
	2015		2016		2015		2016	
	KANTIT. (TM)	GUZTIZK. %	KANTIT. (TM)	GUZTIZK. %	KANTIT. (TM)	GUZTIZK. %	KANTIT. (TM)	GUZTIZK. %
06 METAL HONDAKINAK	430	0,2	1.367	0,4	22.430	0,6	20.376	0,5
07.1 BEIRA HONDAKINAK	58.948	21,2	59.178	18,7	755.608	19,4	797.928	20,9
07.2 PAPER ETA KARTOI HONDAK.	117.879	42,4	128.576	40,6	1.008.959	25,9	1.021.166	26,7
07.4 PLASTIKO HONDAKINAK	1.398	0,5	3.207	1,0	39.453	1,0	25.119	0,7
07.5 ZUR HONDAKINAK	9.920	3,6	32.652	10,3	87.765	2,3	95.081	2,5
07.6 EHUN HONDAKINAK	11.907	4,3	10.916	3,4	40.767	1,0	34.616	0,9
08.2 ETA 08.43 BOTATAKO EKIPO ELEK. ETA EKIPO ELEK. OSAGAIAK	4.776	1,7	5.190	1,6	63338	1,6	46.068	1,2
08.41 PILA ETA METAGAILU HONDAKINAK	109	0,0	139	0,0	3687	0,1	1.920	0,1
09. ANIMALIA ETA LANDARE HONDAKINAK	8.509	3,1	14.988	4,7	789919	20,3	835.703	21,8
10.21 ONTZI MISTOAK ETA BILGARRI NAHASTUAK	38.244	13,8	39.679	12,5	592.353	15,2	611.790	16,0
11 LOHI ARRUNTAK (LEHORRAK)	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0
12 MEA HONDAKINAK (ERAIKUNTZ. ETA ERAISPENEKOAK)	22.408	8,1	20.334	6,4	430.561	11,1	295.142	7,7
18 BESTE BATZUK	3.426	1,2	216	0,1	57.905	1,5	41.389	1,1
GUZTIRA	277.954	100	316.442	100	3.892.745	100	3.826.298	100

Iturria: EIN. Hondakinen bilketari eta tratamenduari buruzko inkesta. Hiriko hondakinak

Per capita kopuruetan, EAEn 456 kg hiriko hondakin Bildu zen EAEn 2016. urtean, hots, 2015ean baino gehiago (437,4 kg/biztanle), baina estatukoaren azpitik (471). Hondakin mota bereiziz: 306,4 kg hondakin nahastu biztanleko, 58,6 kg paper eta kartoi hondakin biztanleko, 27 kg beira hondakin biztanleko eta 18,1 kg ontzi misto eta bilgarri biztanleko.

Hiriko hondakinen kudeaketa aztertzeko xedearekin, eta EINek horri AA.EE.n araberako horri buruzko informaziorik ematen ez duenez, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren "EAEko hiriko hondakinei buruzko estatistika" erabiliko dugu. Horren arabera, EAEn 515 kg hiriko hondakin kudeatu ziren EAE biztanleko 2016an (Estatuan, berriz, 437,4 zenbatetsi ziren).

V.2.5. TAULA. HIRIKO HONDAKINEN BILKETA AA.EE.EN ARABERA (Kg biztanleko)

	2015	2016				
	GUZT.	GUZT.	HONDAKIN NAHASTUAK	PAPER ETA KARTOI HONDAK.	BEIRA HONDAK.	ONTZI MIST. ETA BILGAR.
ANDALUZIA	504,6	523	465,8	12,1	11,9	9,8
ARAGOI	427,9	401,7	350,5	19,1	13,6	12,1
ASTURIAS	519,4	518,7	381,7	59,8	36,4	10,4
BALEAR U.	800,6	740,2	631,1	39,2	32,6	18,8
KANARIAR U.	594,1	581,2	521,7	15,7	17,1	9
KANTABRIA	532,6	538,2	453,6	8,7	19,3	9,4
GAZTELA ETA LEON	433,2	435,8	375,1	18,3	18	9,2
GAZTELA-MANTXA	457,0	475,3	431,7	13,1	10,1	9,2
KATALUNIA	480,7	477,3	324,4	36,3	22,7	17,4
VALENTZIAKO E.	443,6	448,4	390,6	12,6	16,6	8,8
EXTREMADURA	457,9	449,6	382,5	31,8	8,8	10,4
GALIZIA	419,4	409,3	347,9	12,7	15,2	8,4
MADRIL	363,8	383,5	321,3	13,6	12,7	19,8
MURTZIA	464,5	472,3	426,1	12,2	16,7	10,1
NAFARROA	465,6	453,8	258,2	24,1	15,3	18,9
EAE	**437,4**	**456**	**306,4**	**58,7**	**27**	**18,1**
ERRIOXA	405,7	441,7	341,2	25,3	27,8	15,1
CEUTA ETA MELILLA	-	..	..	..	..	..
ESTATUA	**466,4**	**471**	**381,3**	**21,7**	**16,2**	**12,7**

Iturria: EIN. Hondakinen bilketari eta tratamenduari buruzko inkesta. Hiriko hondakinak

Biztanleko 515 Kg horietatik, 111 kg energiaren aldetik balioztatu eta errautsi ziren, 173 birziklatu egin ziren eta 24 konpostari dagozkio (ongarri organikoa). Gainerakoa, hau da, 171 kg, hondakindegira eraman zen. Argibide gehiago nahi izanez gero, jo beza irakurleak 2017ko gure Memoriara.

2.3.2. Hondakin arriskutsuak eta ez-arriskutsuak

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren datuen arabera, 2015 eta 2016 bitartean % 6,4 egin du behera kudeatutako hondakin arriskutsuen kantitateak; ez-arriskutsuenak, aldiz, % 1,9. Hala, kudeaturiko 3.307.978 Tm hondakin ez-arriskutsu izan ziren eta arriskutsuak, berriz, 321.628 Tm. Hori dela-eta, hondakin arriskutsuak hondakin guztien % 8,9 izan ziren. Ez-arriskutsuak, aldiz, % 9,1.

2016an kudeatu ziren hondakin ez arriskutsuen artean, hauexek nabarmentzen dira: prozesu termikoetako industriako hondakinak (hondakin ez arriskutsu guztien %29,7), metalen mekanizatuko hondakinak (hondakin ez arriskutsu guztien %23,8), hondakinen tratamenduko industriako hondakinak (%22,6), zurgintzako eta papergintzako industriako hondakinak (%8,3) eta ontziak eta zapiak (%6).

Hondakin arriskutsuen artean: prozesu termikoetako industriako hondakinak (hondakin arriskutsu guztien %43,6), metalen tratamenduko eta estalketako hondakinak (%12,5), olio erabiliak (%11), metalen mekanizatuko industriako hondakinak (%8) eta hondakinen tratamenduko industriako hondakinak (%4,9).

V.2.6. TAULA. HONDAKIN ARRISKUTSUEN ETA EZ-ARRISKUTSUEN BILAKAERA EAE-N, HEZ* KODEEN ARABERA (Tonak).								
	2014		2015		2016		2015-16 ALDAK.	
HEZ	ARRISKUTSUAK	EZ-ARRISKUTS.	ARRISKUTSUAK	EZ-ARRISKUTS.	ARRISKUTSUAK	EZ-ARRISKUTS.	ARRISKUTSUAK	EZ-ARRISKUTS.
01-MEATEGIAK ETA HARROBIAK	0	5.093	0	7.063	9	7.884		11,6
02-NEK., BARATZEZ., AKUIKULTURA...	20	75.123	11	84.026	3	68.553	-72,7	-18,4
03-ZURGINTZA ETA PAPERGINTZA	0	438.879	5	392.781	1	274.051	-80,0	-30,2
04-LARRUGINTZA ETA EHUNG.	0	470	0	29	0	105		262,1
05-PETROLIOA FINTZEA	2.326	1.730	2.522	2.921	2.579	1.281	2,3	-56,1
06-IND. KIMIKO INORGANIKOA	1.217	13.736	1.907	17.125	1.515	18.275	-20,6	6,7
07-IND. KIMIKO ORGANIKOA	6.910	58.824	3.447	65.367	4.120	49.504	19,5	-24,3
08-PINTURAK, BERNIZAK ETA TIND.	5.143	4.691	5.850	1.532	6.068	7.796	3,7	408,9
09-IND. FOTOGRAFIKOA	201	257	200	96	304	159	52,0	65,6
10-PROZESU TERMIKOEN IND.	147.074	1.269.134	161.663	1.179.791	140.097	981.123	-13,3	-16,8
11-METAL TRAT. ETA ESTALDURA	48.720	11.722	50.712	6.879	40.069	5.099	-21,0	-25,9
12-METALEN MEKANIZATUEN IND.	21.908	696.520	20.345	807.330	25.559	788.191	25,6	-2,4
13-OLIO ERABILIAK	30.075	0	32.358	0	35.407	0	9,4	
14. DISOLBATZAILE ERABILIAK	2.407		2.651		2.818		6,3	
15-ONTZIAK ETA ZAPIAK	9.458	157.315	9.284	190.871	10.351	199.450	11,5	4,5
16-BESTE HONDAKIN BATZUK	12.384	137.844	11.146	148.287	15.194	159.080	36,3	7,3
17. ERAIKUNTZA ETA ERAISPENA	17.268		5.910		15.875		168,6	!
18-MEDIKU, ALBAITARI ZERBITZUAK...	1.562	3.378	1.518	3	1.633	35	7,6	1066,7
19-HONDAKINEN TRAT. IND.	10.675	708.357	11.162	631.875	12.459	747.392	11,6	18,3
20-UDALEKO ETA BALIOKIDEAK	6.049		7.076		7.565		6,9	
GUZT.	**323.398**	**3.583.072**	**327.766**	**3.535.977**	321.628	**3.307.978**	-1,9	-6,4

**** HEZ: Hondakinen Europako Zerrenda***

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila

Hondakin horien kudeaketari dagokionez, 2016an, hondakin ez arriskutsu guztien %54,3 birziklatu edo konposta egin ziren (aurreko urtean %53,3), %3,4 energiaren aldetik balioztatu zen (aurreko urtean %3,9) eta gainerako %42,3a desagerrarazi zen (%42,8 aurreko aldian. Bestalde, arriskutsu guztien % 66 birziklatu edo konpost egin zen (% 67,7 2014an), % 1 balorizatu egin zen energiaren aldetik, % 0,8 errautsi eta gainerako % 32,2a desagerrarazi zen.

V.2.7. TAULA. EAE-N SORTUTAKO HONDAKIN ARRISKUTSUEN ETA EZ-ARRISKUTSUEN KUDEAKETA							
		2014		**2015**		**2016**	
		ARRISKUTSUAK (GUZT. BERTIK. %-A)	EZ-ARRISKUT. (GUZT. BERTIK. %-A)	ARRISKUT. (GUZT. BERTIK. %-A)	EZ-ARRISKUT. (GUZT. BERTIK. %-A)	ARRISKUT. (GUZT. BERTIK. %-A)	EZ-ARRISKUTSUAK (GUZT. BERTIK. %-A)
Hondakinak, guztira		**323.398**	**3.583.072**	**327.766**	**3.535.977**	**321.628**	**3.307.978**
BERRESKURATZEKO ERAGIKETAK	BALORIZAZIO ENERGETIKOA	1,0	3,4	1,8	3,9	1,0	3,4
	BIRZIKLATZEA+BERRERABILTZEA+KONPOSTA	66,6	56,3	67,7	53,3	66,0	54,3
DESAGERRARAZTEKO ERAGIKETAK	ERRAUSTEA	0,8	0,0	0,6	0,0	0,8	0,0
	DESAGERRARAZTEA	31,5	40,3	29,9	42,8	32,2	42,3

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila

2.4. INGURUMENAREN BABESA ETA MANUFAKTURA-INDUSTRIA

EINen "Industria-enpresek ingurumen babesean izandako gastuaren inkesta" oinarri hartuta egiten da ingurumena babesteko gastuaren azterketa. Inkesta horretan, ingurumena babesteko industriaren sektoreak eginiko gastua ematen da, gastu arruntetan nahiz inbertsiokoetan, hain zuzen bere jardueraren ondoriozko kutsadura ekiditeko, murrizteko edo desagerrarazteko (airea kutsatzen duten igorpenak, kutsadura akustikoa, hondakin-uren trataera eta ortutako hondakin solidoak, etab.

Azken datuek erakusten dutenez, 2016an, manufaktura-enpresek ingurumena babesteko 181 milioi euroko gastua egin zuten orotara (gastu arrunta eta inbertsioa), hots, % 2,6ko igoera 2015ean erregistraturikoaren aldean (urte horretan % 0,6 egin zuen behera aurrekoarekin erkatuta). Hala, hautsi egin da azken urteetan ikusitako beheranzko joera.

Gastua BPGd-aren ehunekotzat neurtuta, 2016an egonkortu egin zen 2015aren aldean, % 0,26an hain zuzen, hots, estatuko batez bestekoaren gainetik dagoen ratioa (% 0,19). Hala, EAEk berriz ere hartu zuen zazpigarren tokia 2016an gehien gastatzen duten erkidegoen rankingean, hauexek atzetik: Nafarroa (% 0,41), Asturias (% 0,37), Kantabria (% 0,34), Gaztela-Mantxa (% 0,32), Errioxa (% 0,30) eta Murtzia (% 0,28).

V.2.8. TAULA. MANUFAKTURAKO INDUSTRIA ENPRESEK INGURUMENA BABESTEKO EGINIKO GASTU ARRUNTA ETA INBERTSIOA

	GASTU ARRUNTA ETA INBERTSIOA (€)				BPG-AREKIKO EHUNEKOA*			
	2013	2014	2015	2016	2013	2014	2015	2016
ANDALUZIA	264.402.878	285.856.680	276.698.066	280.140.420	0,19	0,21	0,19	0,19
ARAGOI	94.532.022	80.165.161	82.907.096	87.975.935	0,29	0,24	0,25	0,26
ASTURIAS	96.055.447	83.196.012	87.141.618	79.297.905	0,46	0,40	0,41	0,37
BALEAR U.	5.609.727	7.261.152	5.880.140	6.729.963	0,02	0,03	0,02	0,02
KANARIAR U.	30.734.659	25.504.808	21.638.364	23.665.294	0,08	0,06	0,05	0,06
KANTABRIA	44.240.043	39.776.229	40.017.192	42.170.932	0,38	0,33	0,33	0,34
GAZTELA ETA LEON	123.943.872	135.139.173	123.675.671	132.500.222	0,24	0,26	0,23	0,24
GAZTELA-MANTXA	114.798.036	132.438.251	140.852.513	123.080.962	0,31	0,37	0,38	0,32
KATALUNIA	562.127.294	517.139.213	497.103.579	501.013.308	0,29	0,26	0,24	0,23
VALENTZIA	168.510.822	193.645.316	184.044.581	205.270.380	0,18	0,20	0,18	0,20
EXTREMADURA	15.311.895	14.680.815	16.914.226	18.263.483	0,09	0,09	0,10	0,10
GALIZIA	131.610.393	151.351.428	121.306.620	119.052.332	0,25	0,28	0,22	0,20
MADRIL	86.914.104	101.071.846	91.167.100	89.903.481	0,05	0,05	0,04	0,04
MURTZIA	79.744.699	73.227.896	74.577.959	80.787.439	0,30	0,28	0,26	0,28
NAFARROA	69.979.993	71.245.584	75.950.400	79.257.600	0,40	0,40	0,41	0,41
EAE	**183.980.409**	**176.839.587**	**175.860.177**	**181.033.809**	**0,29**	**0,28**	**0,26**	**0,26**
ERRIOXA	21.877.198	20.641.770	21.761.388	23.682.168	0,29	0,27	0,28	0,30
ESTATUA*	2.094.373.491	2.109.180.921	2.037.496.690	2.073.825.633	0,20	0,20	0,19	0,19

**Estatuko BPGd-ak Ceuta Melilla eta Extra-Regio hartzen ditu. 2010eko oinarria*

Iturria: EIN

V.2.8. GRAFIKOA. MANUFAKTURAKO ENPRESEK INGURUMENA BABESTEKO EGINIKO GASTU ARRUNTA ETA INBERTSIOA BPG-AREKIKO AA.EE.EN ARABERA, 2016 (PORTZENTAJEAK)



Iturria: EIN

ITURRIAK

1. **EUSKO JAURLARITZA.** Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Airearen Kalitatearen Indizea. Hiriko Hondakinen Estatistika. 2016ko datuak. Urterokoa. Estrukturala
2. **EIN:** Uraren hornidurari eta saneamenduari buruzko inkesta.2016ko datuak. Biurtekoa, Estrukturala.
1. **INE:** Hondakinen bilketari eta trataerari buruzko estatistika. Hiriko hondakinak, 2016ko datuak.
3. **EUSKO JAURLARITZA.** Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Hiriko Hondakinen Estatistika. 2016ko datuak. Urterokoa. Estrukturala.
4. **EUSKO JAURLARITZA.** Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Hiriko Hondakinen Estatistika. 2016ko datuak. Urterokoa. Estrukturala.
5. **EUSKO JAURLARITZA.** Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Hondakin ez arriskutsuen Estatistika. 2016ko datuak. Urterokoa, ausazko datuekin. Estrukturala.
6. **EIN**. Ingurumena babesteko industrian eginiko gastuari buruzko inkesta. 2016ko datuak. Urterokoa. Estrukturala

3. OSASUNA ETA OSASUN SISTEMA

OMEk [14] honelaxe definitzen ditu "Osasunaren faktore determinanteak": banakoen edo populazioen osasun egoera dakarten norberaren, gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren inguruko faktoreen multzoa.

Beraz, faktore askoren araberakoa da "osasuna", gehienbat ingurumenaren, bizimoduaren, osasun sistemaren eta giza biologiaren araberakoa.

V.3.1. GRAFIKOA. OSASUNAREN FAKTORE DETERMINANTEAK



Iturria: Canadian institute for advance research eta geuk landutakoa

1974an "A new perspective on the health of canadians" deritzona argitaratu zen Kanadan, Lalonde [15] Txostena izenekoa, osasuneko politiken gaineko planteamendu berrietarako oinarria izan dena. Txostenaren ondorioetarako bat hauxe da: honekin batera doan grafikoak erakusten duen moduan eragiten zaiola osasunari, hots, hauexen arabera, gizarte sistema (%50), osasun sistema eta gaixotasunaren arreta (%25), faktore biologikoak (%15) eta giro fisikoa (%10).

Kapitulu honetan zehar, lehenik eta behin biztanleriaren osasun egoerara hurbiltzea ahalbidetzen duten zenbait adierazle aztertuko dira hala nola bizi-itxaropena, mendetasuna eta heriotza. Bigarrenik, osasunaren zenbait determinante ez medikoren azterketa konparatua egiten da, bereziki, tabakoaren eta alkoholaren kontsumoa eta gainpisua eta obesitatea. Ondoren, labur-labur aztertuko da Osakidetzak eskainitako laguntzaren jarduera. Herritarrei osasun arreta integrala eskaintzen dien erakunde autonomoa da, eta aurrekontu publikoekin finantzatzen da. Laugarrenik, osasun pribatuaren adierazle nagusien bilakaera aurkeztuko da. Eta azkenik, Osasun Sistemaren gastua aztertuko da.

3.1. OSASUN EGOERA

3.1.1. Bizi-itxaropena jaiotzean (BI) eta Bizitza Urte Osasuntsuak jaiotzean (BUO)

X adineko bizi itxaropena x adin horretako banako batek ustez biziko duen batez besteko urte kopurua da, adinaren[16] araberako berariazko heriotza tasetan egungo joerek iraunez gero. Batez besteko hori biztanleria osoari dagokio eta ez banakako jakin bati, hark bizi-itxaropenak adierazitakoa baino gehiago bizi dezakeelako edo, alderantziz, dagokion itxaropena baino lehenago hil.

Hala, honelaxe definitzen da bizi-itxaropena jaiotzean (BI): jaio ondoren pertsona batek oraindik bizi beharreko batez besteko urte kopurua, betiere bizitzako gainerako urteetan heriotza-tasaren inguruko egungo baldintza berek jarraitzen badute.

[14] *Osasunaren sustapena. Glosarioa, OME eta Osasun Ministerioa.*

[15] *Lalonde, M. (1974). A New Perspective on the Health of Canadians. A working document. Ottawa: Welfare.*

[16] *Aldatu egin daitezke, denboraren poderioz aldaketak izan daitezkeelako, jakina.*

EUROSTATen eta Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera, EAEko BI eta EBko kideetan izandakoa alderatuz gero ondoriozta daitekeenez, gure Erkidegoak bizi-itxaropen handiena du Espainiako estatuarekin batera emakumezkoetan (86,5 eta 86,3 urte, hurrenez hurren), eta 84,6 urtean kokatzen da 19ko euroguneko batez bestekoa; 28ko EBkoa, berriz, 83,6 urtean. Bestalde, gizonezkoek laugarren bizi-itxaropen handiena dute (80,3 urte), hauexen atzetik: Italia (81), Malta eta Suedia (80,6) eta Zipre (80,5). 19ko eurogunearen batez bestekoa 79,3 urtekoa da eta 28ko EBkoa, berriz, 78,2 urtekoa.

BI-k goranzko bilakaera erakusten du denboraren aldetik garaturiko herrialderik gehienetan. Alabaina, horrek ez dakar, ezinbestean, adierazle hori igotzen deneko bizitzako urte guztiak osasun egoera onean bizi izandako urteak izatea, zeren eta pertsonek gaixotasunak eta osasun arazoak izan baititzakete eta horien ondorioz bizi-kalitatea galdu, nahiz eta horiek gaixotasun guztiek heriotza berehala ez eragin. Horren ondorioz, heriotza-tasak pixkanaka balioa galdu du osasunaren egoeraren adierazle gisa.

Hortaz, bere ondorioen bidez neurtu beharra dago eritasuna hala nola ***jarduteko mugaren*** edo ***desgaitasunaren*** bidez.

Bizi-itxaropen osasuntsuak, x adinean, x adineko pertsona horri oraindik osasun onarekin (funtzio mugarik edo desgaitasunik gabe) bizitzeko gelditzen zaion urte kopuruaren batez bestekoa adierazten du.

Adierazle horri esker, neurketa bakarrean laburbil daiteke iraupena, baina bizi-kalitatea ere bai, eta hura kalkulatzeko, heriotzari buruzko datuez gain, jarduteko mugari buruko informazioa behar da.

Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizateko Ministerioaren arabera, BUO 2015ean gure Erkidegoan 68,3 urtekoa izan zen gizonezkoetan eta 68,8 urtekoa emakumezkoetan. BI (2016ko datua) 86,5 urtekoa izan zen emakumezkoetan eta 80,3 urtekoa gizonezkoetan, hots, jarduteko muga duen bizitzako 17,7 urtekoa emakumezkoetan eta 12 urtekoa gizonezkoetan. 17,7 Emakumeak gizonak baino 6,2 urte gehiago bizi ziren 2016an. Hala ere, jarduteko mugarik gabeko urteen batez bestekoa urtebete gehiagokoa izan zen soilik (emakumeentzat).

Espainian, bestalde, BUO jaiotzean 66,5 zen 2016an emakumeentzat eta 65,9 gizonentzat, eta urte berean, BI 86,3 izan zen emakumeengan eta 80,5 gizonengan, hots, jarduera mugatuko bizitzako 19,8 emakumeengan eta 14,6 gizonengan. Horrez gain, 2016an, emakumeak gizonak baino 5,8 urte gehiago bizi ziren. Hala eta guztiz ere, jarduera-mugaketarik gabeko urteen batez bestekoa urtebete gehiagokoa izan zen gizonezkoentzat.

Ondorioz, BIn sexuen arabera dauden diferentziak nabarmen murrizten dira jarduera mugarik gabe bizi izandako urtean hartzen badira kontuan, halako moldez non emakumeen BI urte kopuru handiagoa da gizonezkoena baino, gehienbat jarduera mugatuarekin bizi izandako urteen kontura. Izan ere, azterlaneko adierazlean jarduteko muga hartzen bada kontuan, bizi-itxaropen osasuntsua aztertuta, bizi-itxaropenak berdintzeko joera du.

V.3.1. TAULA. BIZI-ITXAROPENA ETA OSASUN ONEKO BIZI-ITXAROPENA

	BIZI-ITXAROPENA					OSASUN ONEKO BIZI-ITXAROPENA					
	GIZONAK		EMAKUMEAK		G-E- dif	GIZONAK		EMAKUM.		Jarduera mugatuarekin bizi izandako urteak	
	2015	2016	2015	2016	2016	2015	2016	2015	2016	2016 GIZONAK	2016 .
28KO EB	**77,9**	**78,2**	**83,3**	**83,6**	**5,4**	**62,6**	**63,5**	**63,3**	**64,2**	**14,7**	**19,4**
19KO EUROG.	78,9	79,3	84,2	84,6	5,3	:					
BELGIKA	78,7	79	83,4	84	5	64,4	63,7	64	63,8	15,3	20,2
BULGARIA	71,2	71,3	78,2	78,5	7,2	61,5	64	65	67,5	7,3	11
TXEKIAR ERREP.	75,7	76,1	81,6	82,1	6	62,4	62,7	63,7	64	13,4	18,1
DANIMARKA	78,8	79	82,7	82,8	3,8	60,4	60,3	57,6	60,3	18,7	22,5
ALEMANIA	78,3	78,6	83,1	83,5	4,9	65,3	65,3	67,5	67,3	13,3	16,2
ESTONIA	73,2	73,3	82,2	82,2	8,9	53,8	54,4	56,2	59	18,9	23,2
IRLANDA	79,6	79,9	83,4	83,6	3,7	66,6	67,3	67,9	69,8	12,6	13,8
GREZIA	78,5	78,9	83,7	84	5,1	63,9	63,8	64,1	64,7	15,1	19,3
ESPAINIA	**80,1**	**80,5**	**85,7**	**86,3**	**5,8**	**63,9**	**65,9**	**64,1**	**66,5**	**14,6**	**19,8**
FRANTZIA	79,2	79,5	85,6	85,7	6,2	62,6	62,6	64,6	64,1	16,9	21,6
KROAZIA	74,4	75	80,5	81,3	6,3	55,3	57,1	56,8	58,7	17,9	22,6

ITALIA	80,3	81	84,9	85,6	4,6	62,6	67,6	62,7	67,2	13,4	18,4
ZIPRE	79,9	80,5	83,7	84,9	4,4	63,1	67,5	63,4	68,8	13	16,1
LETONIA	69,7	69,8	79,5	79,6	9,8	51,8	52,3	54,1	54,9	17,5	24,7
LITUANIA	69,2	69,5	79,7	80,1	10,6	54,1	56,2	58,8	59,4	13,3	20,7
LUXENBURGO	80	80,1	84,7	85,4	5,3	63,7	61,4	60,6	58,9	18,7	26,5
HUNGARIA	72,3	72,6	79	79,7	7,1	58,2	59,5	60,1	60,2	13,1	19,5
MALTA	79,8	80,6	84,1	84,4	3,8	72,6	71,1	74,6	72,4	9,5	12
HERBEHEREAK	79,9	80	83,2	83,2	3,2	61,1	62,8	57,2	57,8	17,2	25,4
AUSTRIA	78,8	79,3	83,7	84,1	4,8	57,9	57	58,1	57,1	22,3	27
POLONIA	73,5	73,9	81,6	82	8,1	60,1	61,3	63,2	64,6	12,6	17,4
PORTUGAL	78,1	78,1	84,3	84,3	6,2	58,2	59,9	55	57,4	18,2	26,9
ERRUMANIA	71,5	71,7	78,7	79,1	7,4	59	59,8	59,4	59	11,9	20,1
ESLOVENIA	77,8	78,2	83,9	84,3	6,1	58,5	58,7	57,7	57,9	19,5	26,4
ESLOVAKIA	73,1	73,8	80,2	80,7	6,9	54,8	56,4	55,1	57	17,4	23,7
FINLANDIA	78,7	78,6	84,4	84,4	5,8	59,4	59,1	56,3	57	19,5	27,4
SUEDIA	80,4	80,6	84,1	84,1	3,5	74	73	73,8	73,3	7,6	10,8
ERRESUMA BATUA	79,2	79,4	82,8	83	3,6	63,7	63	63,3	63,1	16,4	19,9
EAE	**-**	**80,3**	**-**	**86,5**	**6,2**	**68,3**		**68,8**		**12,0***	**17,7***

** 2015eko datua*
Iturria: EUROSTAT, EUSKO JAURLARITZA "Erikortasuna EAEn 2016" eta Osasun Ministerioa

3.1.2. Ospitaleko erikortasuna[17]

Erikortasun terminoa populazio batean, toki eta denboraldi jakin batzuetan, gaixotasun baten efektuez aritzeko erabiltzen da. 2016. urtean, aldaketak izan ziren EAEko ospitaleko alten erregistroan (estatistika honen iturria), Osasun sailburuaren 2015eko urriaren 13ko Agindua dela bide. Horren bidez, aldagai berriak sartu dira Ospitaleko Altaren Datuen Oinarrizko Gutxieneko Multzoan, Euskadiko Arreta Espezializatuko Datuen Oinarrizko Gutxieneko Multzoa izenarekin; "kontaktu mota" aldagaiari esker, ospitaleratzea (ohikoa) eta anbulatorioko kirurgia bereiz daitezke; aurreko bertsioan, aldiz, ospitaleko gorabeherak batera aztertzen ziren. Urte horretan bertan, Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenaren kodea (CIE10) hasi ziren erabiltzen CIE9rekin egin beharrean. Horregatik guztiagatik, ezin egin daiteke zuzeneko erkaketarik aurreko urtekoarekin.

V.3.2. TAULA. OSPITALERATZE ARRUNTAK EAE-N GEHIENEN GERTATZEN DIREN GAIXOTASUNEN ETA ADINAREN ARABERA. 2016

	GUZTIRA		ADINA (%)				
	N	%.	0-14	15-44	45-64	65-79	80 eta +
GUZTIRA	**242.171**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**
DIGESTIO APARATUA	32.326	13,3	9,4	10,6	16,4	14,2	12,5
ZIRKULAZIO APARATUA	30.695	12,7	0,8	2,7	11,2	17,3	22,4
ARNAS APARATUA	27.556	11,4	24,2	6,2	8,0	11,2	18,1
TUMOREAK	**24.031**	**9,9**	**2,2**	**4,3**	**13,9**	**14,1**	**7,9**
TRAUMATISMOAK ETA LESIOAK	21.508	8,9	7,8	8,7	9,2	7,6	10,6
MUSKULU-ESKELETOKOA	**20.807**	**8,6**	**2,8**	**7,2**	**12,6**	**10,6**	**4,1**
HAURDUNALDIA, ERDITZEA ETA HAURTXOEN ZAINTZA	20.396	8,4	0,0	36,9	0,2	-	-

Iturria: EUSTAT, Ospitaleko heriotzen estatistika

Ospitaleratze arrunta

EUSTATen arabera, 2016an erregistraturiko akutuen ospitaleratze guztien (242.171) ia % 40 digestio, zirkulazio eta arnas aparatuen gaixotasunengatik izan zen.

Erditzearen eta haurdunaldiaren ziozko ospitaleratzeak aintzat hartu ezean (oro har, ez dira osasun arazoak), guztizkoaren % 54,3 gizonezkoak dira. Emakumeak, berriz, % 45,7.

[17] *Datuek zorrotz-ospitaleez dihardute. 2016an aldaketak egon ziren C.A-ren ospitale-alta erregistroan. Euskadiko, aldagai berriak Ospitale-Altaren Datuetako Oinarrizko Talde Txikienera, Oinarrizko Talde Txikieneko Arreta Espezializatuko Euskadiko Datuetako izendapenaren azpian, gehitzen dituen estatistika honetako iturriko, 2015eko urriaren 13ko Osasun Sailburuaren Agindua betez; "tipoa kontaktuko" aldagaiak baimentzen du ospitalizazioa (konbentzionala) eta kirurgia anbulatorioa, ospitale-pasarteak batera tratatzen ziren aurreko bertsioa ez bezala, banantzea. Urte horretan berean ospitaleak Sailkapenarekin kodetzen hasi ziren Gaixotasun Nazioartekoa (CIE10) CIE9-aren ordez. Horregatik guztiagatik, aurreko urtearekiko zuzeneko erkaketarik ezin da egin.*

Ospitaleratze guztietatik, ohikoenak digestio aparatuko gaixotasunak izan ziren (% 13,3), ondoren zirkulazio sistemakoak (% 12,7), arnas aparatukoak (% 11,4), tumoreak (% 9,9) eta traumatismoak eta lesioak (% 8,9).

Halaber, ospitaleratzeek lotura estua duten adinarekin: 0-14 urtekoen taldean, arnas aparatukoak izan ziren gaixotasunik ohikoenak; 44 urtekoetan aldean, haurdunaldiarekin eta erditzearekin lotutako ospitaleratzeak % 37 izan ziren; adinean gora egin ahala, beste patologia batzuk nagusitzen dira: digestiokoak eta tumoreak, 45-64 urtekoen taldean, zirkulaziokoak 65 urte eta gehiagokoen artean.

Haurdunaldiaren, erditzearen eta puerperioaren ziozko laguntza kontuan hartu ezean, 61 urtekoa izan zen ospitaleraturikoen batez besteko adina, eta handiagoa da (72 urte) zirkulazioaren gaixotasunetan. Tumoreetan izan ezik, bularreko minbiziak emakumeengan duen eragina dela-eta, gizonen ospitaleratzearen batez besteko adina goiztiarragoa izan zen emakumeengan, eta alderik handiena traumatismoen eta lesioen ziozko ospitaleratzeetan kokatu zen (53 urte, eta emakumeengan, berriz, 66 urte).

Emakumeen artean, haurdunaldiaren eta erditzearen ziozko arreta alde batera utzita (% 16,7), honakoetan eman zen arreta, maiztasun ordenaren arabera: digestio aparatuaren gaixotasunak (% 11,4), non behazuneko harria izan baitzen gehien diagnostikatu zen patologia; zirkulazio aparatukoak (% 10,3), eta bihotzeko gaitzak dira ohikoenak, eta arnas aparatukoak (% 9,8), non pneumonia nabarmentzen den.

Gizonezkoen artean, lehen hiru kausak bat datoz emakumeek dituztenekin, baina digestio aparatuko gaixotasunen artean, iztaiko hernia izan zen ohikoena.

Anbulatorioko kirurgia

Anbulatorioko kirurgiako modalitatean, ospitaleratzea gertatzen den egunean bertan konpontzen diren prozesuetan egiten da artapena, eta pixkanaka, ospitaleratze konbentzionalaren tokia hartzen ari da.

V.3.3. TAULA. ANBULATORIOKO KIRURGIAK EAE-KO OSPITALEETAN MAIZTASUNIK HANDIENEKO GAIXOTASUN TALDEEN ETA SEXUAREN ARABERA

	GUZTIRA		SEXUA (%)	
	KOP.	%.	GIZONA	EMAK.
GUZTIRA	**76.098**	**100**	**100**	**100**
BEGIAREN ETA INGURUAREN GAIXOTASUNAK	29.659	39,0	36,4	41,3
MUSKULU-ESKELETOAREN APARATUA	8.525	11,2	11,4	11,0
DIGESTIO APARATUA	7.450	9,8	13,2	6,8
TUMOREAK	**5.262**	**6,9**	**6,0**	**7,7**
GERNU APARATUA	4.567	6,0	4,2	7,6
AZALAREN GAIXOTASUNAK	**3.759**	**4,9**	**5,4**	**4,5**

Iturria: EUSTAT, Ospitaleko heriotzen estatistika

EUSTATen arabera, 2016an, 76.098 gorabehera izan zen osasun arreta honetan, eta horietatik, % 39 begiaren gaixotasun-taldekoari zegokion. Begi-lausoa da gehien artatu den patologia, bereziki 65-79 urteko emakumeen artean. Bigarrenik, muskulu-eskeletoaren aparatuaren gaixotasunak izan ziren (% 11,2), eta horien artean, ohiko ebakuntzarik ohikoenak meniskoa izan zen gizonezkoetan eta juanikoteak emakumezkoen artean. Hirugarrenik, digestio aparatuaren patologiak izan ziren (% 9,8), eta gehiago eragin zien gizonei (% 13,2) emakumeei baino (% 6,8); iztaiko hernia izan zen gehien artatu zen. Urrutiago daude honako gaixotasun hauek: digestio aparatukoak (% 9,8), tumoreak (% 6,9), gernu aparatuaren gaixotasunak (% 6) eta azalaren gaixotasunak (% 4,9).

3.1.3. Heriotza-tasa

a) Heriotzak

Heriotza tasa gordina eta umeen heriotza tasa asko erabili ditu nazioarteko komunitateak biztanleriaren osasun adierazle gisa eta, zeharka, garapen sozioekonomikoaren adierazle gisa.

V.3.2. GRAFIKOA. HERIOTZA-TASA OSORKORRA, ADINAZ DOITUA, 1000 BIZTANLEKO. 2016



Iturria.- Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa

Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizatearen Ministerioaren arabera, AA.EE. guztietan egin dute behera heriotza-tasek azken urteetan eta, 2016an, 100.000 biztanleko heriotza-tasa doitua [18]txikiagoa zen Estatuko batez bestekoaren aldean (421,2 eta 442,3). Beste AA.EE. batzuekiko alderaketatik (aurreko grafikoan ageri da) ondorioztatzen denez, EAEk emaitza ona du. Soilik Madrilen, Errioxan, Gaztela eta Leonen eta Nafarroan izan ziren tasa txikiagoak.

[18]asa *gordina populazio-esperientzia laburpen-forma soilen eta zuzenekoena da. Hilkortasun orokorra sendoki adinarekin erlazionatuta dago, hortaz adinaren arabera hilkortasun-tasa espezifikoak oso desberdinak izango dira. Tasa gordina produzitzen duen "bataz besteko balioak" hilkortasun-tasa espezifikoen heterogeneotasuna ezkutatzen du adin -geruzagatik.*

Gaia nabarmena da bereziki populazioen edo denboraldi desberdinen arteko tasak konparatzen direnean, populazioak bere konposizioan desberdin badira, gutxienez ikusitako desberdintasun posibleetako batzuk desberdintasun hauei egoztekoak geruzetan izan daitekeenez gero.

"Doikuntza" baldintzek eta "estandarizazioak" kontatzen dituzte haiek artifizialki prozedura matematikoen bitartez homogeneo eginez taldeen arteko laburpen neurrien erkaketa emateko prozeduretarako biak.

Horrela, adinaren arabera estandarizatutako (TME-a) hilkortasun tasa dago sexuaren arabera hilkortasun tasaren arabera lurralde batean erregistratuko liratekeen heriotzetako (100.000 biztanlek adierazita) zifra eta adina berezkoetara eta populazio tipo baten adinengatiko egiturarekin edo estandarrarekin.

Metodo honek, zuzeneko estandarizazioa deituta, hilkortasun-tasetako batez besteko ponderatua bezala tasa kalkulatzen du adin|aro taldeagatik, haztapen-koefizienteak erreferentzia estandarreko populazio bat diren tokian.

V.3.3. GRAFIKOA. EAE-N HILDAKO PERTSONEN BATEZ BESTEKO ADINAREN (URTEAK) BILAKAERA.



Iturria: Eustat, Heriotzen Estatistika

Euskal Autonomia Erkidegoan 21.632 heriotza gertatu ziren 2017 urtean, hots, % 1,9ko igoera 2016aren aldean (gizonezkoen 10.825 heriotza eta emakumeen 10.807 heriotza), EUSTATen "Heriotzen Estatistika"ren arabera. Hildako pertsonen batez besteko adinak goranzko joera du, baina handiagoa da emakumeengan. 2017an 80,4 urtean kokatzen da batez bestekoa (77,2 gizonezkoentzat eta 83,6 urte emakumeentzat

Heriotzetako asko adin handienetako tarteetan gertatzen dira, prebentzioan eta gaitzen tratamenduan egindako aurrerapenen ondorioz. 2017. urtean, heriotzen %66,1 80 urtetik gorakoen artean gertatu zen, aurreko urteko ratioa baino handiagoa (% 65,3). Hala, 80-89 urtekoen taldeko heriotza kopurua 8.310 da; 90-99 urtekoetan, 5.633, eta 99tik gorakoetan, berriz, 345.

V.3.4. TAULA. HERIOTZEN BILAKAERA ADIN-TARTE HANDIENETAN, EAE-N

Adina	2013	2014	2015	2016	2017
GUZTIRA	**19692**	**20157**	**21509**	**21223**	**21632**
>=80	12128	12675	14047	13853	14288
80-89	7569	7830	8509	8165	8310
90-99	4291	4519	5194	5394	5633
100-109	267	323	344	294	345
>=110	1	3	0	0	0
>=80 guztiarek. (%)	**61,6**	**62,9**	**65,3**	**65,3**	**66,1**

Iturria: EUSTAT. Heriotzen Estatistika

Heriotzen kausei dagokienez, hainbat estatistika-iturrik erakusten dutenez, EAEn nahiz gure ingurune sozioekonomikoko herrialdeetan, gehienak transmititzen ez diren eritasunen ondorioz gertatzen dira, gehienbat eritasun kardiobaskularrengatik eta tumoreengatik. Hala, EUSTATen arabera, gertaturiko heriotza gehienak, 2007tik hona, tumoreengatik gertatu dira. Aurreko urteetan, aldiz, zirkulazio sistemaren gaixotasunek eragin zuten heriotza gehien. 2017an, tumoreengatiko heriotzak guztizkoaren %29,4 dira eta zirkulazio aparatuko gaixotasunen ziozkoak, berriz, %26,6. Hirugarrenik, arnas sistemako eritasunak daude (eritasun guztien %10,8). Azkenik, nerbio sistemaren eritasunak daude, %3,8arekin.

V.3.5. TAULA. HERIOTZAK KAUSAREN ARABERA EAEN										
	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017 (bb)	
									n	%
GUZTIRA	**19.624**	**19.357**	**19.832**	**20.281**	**19.692**	**20.157**	**21.509**	**21.223**	**21.632**	**100**
TUMOREAK	5.950	6.021	6.261	6.149	6.143	6.360	6.379	6320	6351	29,4
ZIRKULAZIO SISTEMA	5.799	5.675	5.655	5.736	5.408	5.388	5.788	5733	5756	26,6
ARNAS SISTEMA	1.841	1.691	1.758	1.915	1.869	1.868	2.119	2055	2341	10,8
DIGESTIO SISTEMA	940	898	946	956	942	948	677	933	923	4,3
KANPOKO KAUSAK (NERBIO SISTEMA)	677	653	683	715	740	1.291	976	784	826	3,8
BESTE GAITZ GUZTIAK	4.417	4.419	4.529	4.810	4.590	4.302	5.570	5.398	5.435	25,1
TUMOREAK	30,3	31,1	31,6	30,3	31,2	31,6	29,7	29,8		29,4
ZIRKULAZIO SISTEMA	29,6	29,3	28,5	28,3	27,5	26,7	26,9	27,0		26,6

(bb) Behin-behineko datuak.
Iturria: EUSTAT. Heriotzen Estatistika.

a) Heriotza goiztiarra. Galdutako balizko bizitza urteak (GBBU)

GBBU neurri ona da osasun publikoan, heriotzak gazteenen heriotzak eragindako inpaktua islatzeko eta, hala, heriotzak ahal den neurrian saihestu ahal izateko. Zenbait irizpide komun dituzten eta behaketa epidemiologiko prospektibo baten barruan dauden pertsonen talde batekin egiten da, behar baino lehen hildako (70 urte bete baino lehen) pertsonek bizi ez dituzten bizitza-urteak oinarri hartuta (heriotza gertatu deneko adinaren eta 70 urteko adinaren arteko diferentziatik metaturiko batura).

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren datuen arabera, hona hemen gizonezkoen heriotza goiztiarreko hiru kausa nagusiak (2010-2017 aldiko datuak dira): trakeako, bronkioetako eta biriketako tumore gaiztoak; kardiopatia iskemikoak eta suizidioak eta nork bere buruari eginiko lesioak. Ondoren, bestelako kasuak ditugu hala nola eritasun zerebro-baskularrak eta gibeleko eta gibeleko barruko behazuneko tumore gaiztoak.

Emakumeen kasuan, epe bera aztertuta, ikusten da hilkortasuneko hiru kausa nagusiak hauek izaten direla: bularreko tumore gaiztoak; trakeako, bronkioetako eta birikako tumore gaiztoak eta suizidioak eta autolesioak. Ondoren, beste kausa batzuk ditugu hala nola koloneko tumore gaiztoak eta eritasun zerebro-baskularrak. 2017. urtean, kardiopatia iskemikoaren presentzia ere nabarmendu behar dugu, betidanik gizonezkoen arten heriotza kausa goiztiarra izan dena hain zuzen.

V.3.6. TAULA. GALDUTAKO BALIZKO BIZITZA URTEAK ETA KAUSA NAGUSIAK EAE-N *(Tasa estandarizatuak adinaren arabera)*			
GIZONAK 2010		EMAKUMEAK 2010	
Trakea, bronkio eta birikako minbizi gaiztoak	4,01	Trakea, bronkio eta birikako minbizi gaiztoak	1,86
Kardiopatia iskemikoa	3,06	Bularreko tumore gaiztoa	1,66
Suizidioak eta nork bere buruari eragindako zauriak	1,84	Koloneko tumore gaiztoa	0,63
Motordun ibilgailuen trafiko istripuak	2,05	Gaixotasun zerebrobaskularrak	0,67
Zirrosia eta gibelaren eritasun kronikoak	1,50	Zirrosia eta gibelaren eritasun kronikoak	0,49
Ezpain, aho eta faringeko tumore gaiztoa	0,84	Umetokiko tumore gaiztoa	0,48
GIZONAK 2012		EMAKUMEAK 2012	
Trakea, bronkio eta birikako minbizi gaiztoak	3,76	Bularreko tumore gaiztoa	1,85
Kardiopatia iskemikoa	2,82	Trakea, bronkio eta birikako minbizi gaiztoak	1,51
Suizidioak eta nork bere buruari eragindako zauriak	1,98	Suizidioak eta nork bere buruari eragindako zauriak	0,61
Zirrosia eta gibelaren eritasun kronikoak	1,39	Gaixotasun zerebrobaskularrak	0,49
Motordun ibilgailuen trafiko istripuak	1,39	Motordun ibilgailuen trafiko istripuak	0,72
Psikofarmakoek eta abusuzko drogek nahigabe eragindako pozoitzea	1,05	Urdaileko tumore gaiztoa	0,41
GIZONAK 2014		EMAKUMEAK 2014	
Trakea, bronkio eta birikako minbizi gaiztoak	3,67	Bularreko tumore gaiztoa	1,84
Kardiopatia iskemikoa	2,69	Trakea, bronkio eta birikako minbizi gaiztoak	1,62
Suizidioak eta nork bere buruari eragindako zauriak	2,18	Suizidioak eta nork bere buruari eragindako zauriak	1,08
Koloneko tumore gaiztoa	1,01	Koloneko tumore gaiztoa	0,71
zirrosia eta gibelaren eritasun kronikoak	0,94	Umetokiko tumore gaiztoa	0,59
Gaixotasun zerebrobaskularrak	0,82	Pankreako tumore gaiztoa	0,53
GIZONAK 2015		EMAKUMEAK 2015	
Trakea, bronkio eta birikako minbizi gaiztoak	3,04	Trakea, bronkio eta birikako minbizi gaiztoak	1,86
Kardiopatia iskemikoa	2,21	Bularreko tumore gaiztoa	1,53
Suizidioak eta nork bere buruari eragindako zauriak	2,59	Suizidioak eta nork bere buruari eragindako zauriak	0,79
Koloneko tumore gaiztoa	1,74	Koloneko tumore gaiztoa	0,58
zirrosia eta gibelaren eritasun kronikoak	0,88	Entzefaloko tumore gaiztoa	0,70
Gaixotasun zerebrobaskularrak	0,97	Umetokiko tumore gaiztoa	0,46
GIZONAK 2016		EMAKUMEAK 2016	
	61bis	Emakumeengan deklaraturiko gonokozia kas.	41	16	↓% 30	Osasun Saila - SIMCAPV
62	62	Giltzurruneko dialisia duten pazienteak milioi pertsonako (PMP) gizonak	159	362	↓% 30	Osasun Saila - SIMCAPV
	62bis	Giltzurruneko dialisia duten pazienteak milioi pertsonako (PMP) emakumeak	32	93	↓% 30	Osasun Saila - SIMCAPV
63	63	Giltzurruneko dialisia duten pazienteak milioi pertsonako (PMP) gizonak	78,4	80,6	↓% 5	Osakidetza-UNIPAR

V.3.24. TAULA. 2013-2020KO OSASUN PLANA. 2017KO EMAITZEN URTEKO TXOSTENA						
	63bis	Giltzurruneko dialisia duten pazienteak milioi pertsonako (PMP) emakumeak	34,4	40,5	↓% 5	Osakidetza-UNIPAR
64	64	Gaixotasun arraroen erregistroa		Sortua		Osasun Saila – Erregistro zerbitzua
65	65	"Nagusien lagunak diren hiriak" programa duten hirietan bizi diren biztanleak	% 37	% 54,6	>% 75	Eudel Osasun Saila Eustat
67	67	60 urtetik gorako gizon elkartekideen portzentajea	% 10	% 27,6	↑% 15	Eustat
	67 bis	60 urtetik gorako emakume elkartekideen portzentajea	% 14%	% 22,2	↑% 15	Eustat
69	69	75 urtetik gorako gizonak hilabeteren buruan berriz ospitaleratzea (%)	--	% 82	% 100	Osakidetza
71	71	75 urtetik gorako emakumeak hilabeteren buruan berriz ospitaleratzea (%)	--	% 5	100%	Osakidetza
73	73	Jaiotzean pisu txikia duten haurtxoak (%)	10,49	8,73	↓% 20	Osakidetza
	73bis	PADIren estaldura (%)	7,8	6,77	↓% 20	Osakidetza
74	74	Txantxarrik gabeko haurrak 12 urterekin (%CAOD=0)	7	7,07	↓% 10	Jaioberrien screening programa
75	75	Amaren edoskitzaroa 6 hilabetera arte, gizonak (%)	26	62,6	>% 35	Osakidetza
	75bis	Amaren edoskitzaroa 6 hilabetera arte, emakumeak (%)	26	63	>% 35	Osakidetza
76	76	Arreta goiztiarreko ereduan sartutako osasun erakundeak/eskualdeak	66	66,4	>% 75	PADI
77	77	Mutilen (15-29 urte) trafiko istripuen ziozko heriotzak (tasa/100.000)	74	72,6	% 80	PADI
78	78	Nesken (15-29 urte) trafiko istripuen ziozko heriotzak (tasa/100.000)	1	Guztiak	Guztiak	Osakidetza
83	83	Mutilen (15-29 urte) suizidioaren ziozko heriotzak (tasa/100.000)	6,7	5,0	↓% 20	Heriotza Erregistroa
	83bis	Nesken (15-29 urte) suizidioaren ziozko heriotzak (tasa/100.000)	2	1,5	↓% 20	Heriotza Erregistroa
84	84	Haurdunaldia nahita etetea (HNE) 20 urtetik beherakoen artean (tasa x1000)	7,1	4,6	↓% 20	Heriotza Erregistroa
	84bis	Episiotomia erditze eutozikoan (%)	1,6	3,7	↓% 20	Heriotza Erregistroa
85	85	Haurdunaldia nahita etetea (HNE) tasa x 1.000 adin emankorren dauden emakumeak	10,02	7,3	↓% 50	IVE Erregistroa
94	94	Tabakismoari buruzko osasun aholkua Oinarrizko Arretan (%)	36	23,7	<% 15	Osakidetza
95	95	Tabakoa gainditzeko fasean dauden gizon erretzaileak (%)	9,9	9,05	↓% 50	IVE Erregistroa
98	98	Tabakoa gainditzeko fasean dauden emakume erretzaileak (%)	33,7	49,2	>% 60	Osakidetza
99	99	<50 µg/l tratamenduko azpiproduktuak dituen kontsumoko ura jasotzen duen biztanleria	1,9	0,4	↑% 15	Osakidetza
	99bis	Lanbide-gaixotasunaren intzidentzia tasa gizonengan	2,5	0,6	↑% 15	Osakidetza
106	106	Airearen kalitatea Población de la CAPV residente en zonas con calidad del aire PM10 < 20 µg/m3-koa deneko eremuetan bizi den EAEko biztanleria (%)	59	96,7	% 75	Osasun Saila
107	107	Lanbide-gaixotasunaren intzidentzia tasa emakumeengan	% 47	60,7 %	>95	Osasun Saila EKUIS
108	108	Lan-istripu hilgarrien intzidentzia tasa gizonengan (tasa/100.000)	‰4,16	‰3,36	↓% 10	OSALAN
	108 bis	Lan-istripu hilgarrien intzidentzia emakumeengan (tasa/100.000)	‰1,51	‰1,68	↓% 10	OSALAN
109	109	Lan-arriskuko aurrezaintzako zerbitzuak babestutako enpresak	8,7	8,81	↓% 10	OSALAN
	109 bis	Heriotza eragin duten lan istripuen tasa emakumeetan (tasa/100.000)	0,9	1,62	↓% 10	OSALAN
110	110	Lan-arriskuko aurrezaintzako zerbitzuak babestutako enpresak	% 54,30	% 65	>% 95	OSALAN
Iturria: Eusko Jaurlaritza. 2013-2020KO OSASUN PLANA. 2017ko emaitzen urteko txostena, 2018an argitaratua						

**Minbiziaren Erregistroan martxan izan da, eta ondorioz, kasu berriak identifikatu dira Osasun Planaren abiapuntuko egoeraren atalean argitaraturiko datuen ondoren. Parentesi artean doan kopuruak abiapuntuko urteko (2010) egoeraren gorabehera-tasaren eguneratzea adierazten du, 2016ko urtarrilera arte sartutako datu berriekin*

KAPITULUKO ITURRIAK:

1. **EUSKO JAURLARITZA.** Heriotza-tasa EAEn. Urtekoa. Abagunekoa.
2. **EUROSTAT**. Urtekoa. Abagunekoa.
3. **EUSTAT**: Ospitaleko heriotzen estatistika. 2016ko datuak. Urtekoa. Abagunekoa.
4. **Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioa. Urtekoa. Abagunekoa.** Funtsezko adierazleak.
5. **EUSTAT**: Heriotzen Estatistika (EDEF). 2017ko datuak. Urtekoa. Abagunekoa.
6. **EUSKO JAURLARITZA.** Heriotza Erregistroa**.** 2017ko datuak. Urtekoa. Abagunekoa.
7. **Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioa.** Espainiako Osasun Inkesta Nazionala. 2017. Bost urterik behin egiten da. Estrukturala. 2017
8. **OSAKIDETZA**: Eskaera zehatzak. 2017ko datuak. Urtekoa. Abagunekoa.
9. **Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasunaren Ministerioa**. Osasun Sistema Nazionaleko itxaronzerrendei buruzko informazio sistema. Urtekoa. Abagunekoa.
10. **EUSTAT**: Oinarrizko Osasun Arreta Pribatuaren Estatistika. 2015eko datuak. Ez dakigu zein maiztasunarekin argitaratzen den.
11. **EUSTAT.** Osasunaren Kontua. 2016ko datuak. Biurtekoa, urte bikoitiak. Estrukturala.
12. **EUSKO JAURLARITZA**. Aurrekontuak eta aurrekontuko likidazioak. Urtekoa. Abagunekoa.
13. **Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioa.** Diru-baliabideak. 2018ko datuak. Urtekoa. Abagunekoa
14. **OSAKIDETZA**. Aurrekontuko likidazioak. Urtekoa. Abagunekoa.
15. **EUSKO JAURLARITZA**. Osasun Planaren Ebaluazioa. Urtekoa.

4. ETXEBIZITZA

Ondoren, EAEko 2018ko etxebizitzaren egoerari buruzko zifra nagusiak aurkeztuko dira, eskaintzaren aldetik (etxebizitzen stocka eta prezioak), nahiz eskariaren aldetik (eskuratzeko beharra, aldaketa eta birgaikuntza, eta etxebizitza babestuaren eskaria ere bai), baita Autonomia Erkidegoen erkaketa ere, alokairuko errenten bilakaerari buruzkoa. Jarraian, urteko eraikuntzaren eta salerosketaren gaineko datu nagusiak azalduko dira

Era berean, krisiak etxebizitzan (hipoteka-betearazpenak eta etxegabetzeak) izan duen eragina eta EAEn hutsik dagoen etxebizitzari buruzko azken datuak ikusiko dira, Eusko Jaurlaritzak Etxebizitza Planaren bidez eta Foru Aldundiek ohiko etxebizitzaren ziozko PFEZren kenkarien bidez gauzaturiko etxebizitza politikaren ebaluazioa egingo da azkenik.

V.4.1. GRAFIKOA. EAE-KO ETXEBIZITZAREN MERKATUAREN BILAKAERA



Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN eta EINen datuak erabiliz egina.

EAEko altzarien merkatuaren bilakaeraren ezaugarri nagusia, 2018an eta Eusko Jaurlaritzaren Higiezinen Eskaintzaren Inkestako emaitzen arabera, etxebizitzaren eskaintzaren %10,2ko jaitsiera izan zen, aurreko urteko -%17,1eko jaitsierari gehitu zaio. Bestalde, etxebizitzaren eskaria edo etxebizitza beharrak[23] 2017ko azken datu eskuragarriaren arabera, % 14,7 egin zuen behera 2015aren aldean, eta urrundu egin da 2009-2010 urteetako gehieneko kopuruetatik.

4.1. ETXEBIZITZAREN ESKAINTZA

Lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzaren[24] "Higiezinen Eskaintzaren Estatistikak"[25] erakusten duenez, etxebizitzaren guztizko eskaintzak (salmenta gehi alokairua) % 10,2 egin zuen behera 2018an (-% 17,1 2017an), eta laugarren hiruhilekoan 24.954 etxebizitza zenbatetsi ziren. Lagin hori, prezioen estatistikaren oinarria izanda, honela dago osatuta: % 91,6 salgai eskainitako etxebizitzak dira eta % 8,4 alokairuan eskainitakoak. Salgai dauden etxebizitzetatik % 13,8 etxebizitza berriak dira eta % 86,2 erabiliak, eta berrien % 33,5 babes publikoko motaren baten pean daude. Alokairuko etxebizitzetatik % 54,9 libreak dira eta % 45,1, berriz, babestuak.

---

[23] *Grafikoan azaltzen den eskaerak eskuratzeko behar diren etxebizitzen kopurua erakusten du; eskaintza higiezin sustatzaile eta agenteek emandakoa da; prezioak eurotan daude salgai dauden etxebizitza libreen (berriak nahiz erabiliak) m2 erabilgarri bakoitzeko).*

[24] *Inkesta horretako datu guztiak 4 ordenako hiruhilekoetako batez beste mugikorren bidez irudikatu dira eta, beraz, urteko IV hiruhilekoan izandako datua, era berean, urteko batez bestekoa da.*

[25] *5 etxebizitzatik gorako sustapenak dituzten 107 sustapen-enpresei eta higiezinen arloko 177 agentziei eginiko inkestatik lorturiko datuak eta, beraz, ez du eskaintza osoa biltzen. Eragiketa horretako emaitzetan egiaz garrantzitsua dena hauxe da: datu absolutuak baino, aldakuntza da.*

Datuetatik ondorioztatzen denez, 2014ko salbuespena alde batera utzita, EAEko etxebizitzaren merkatuak 8 urtean jarraian izan ditu beherakada eskaintzan: 2011ko kopururik handienetik (44.6433) 2018ra (ia 25.000). Azken urtean, eta etxebizitza mota guztien eskaintzak behera egin zueneko azken hiru urtean ez bezala –babesturiko alokairua izan ezik-, gora egin zuen etxebizitza librearen eskaintzak (+%21,7). Aldi berean, gora egin zuen alokairuak, libreak (+% 21,6) nahiz babestuak (+%68,7).

Azken hamarkadan gertatu denari erreparatuta ikusten denez, etxebizitza erabilian erregistratu da eskainitako etxebizitza tipologiaren hazkunde proportzional handiena; izan ere, 2008ko eskaintzaren %50etik 2018ko % 79ra igaro baitzen, hots, bolumena % 47,1 hazi zen.

V.4.1. TAULA. EAE-KO ETXEBIZITZAREN ESKAINTZAREN BILAKAERAREN LABURPENA.

	GUZT.	ETXEBIZITZAK SALGAI					ETXEBIZITZAK ALOKAGAI		
		SALMENTA GUZT.	ETXEBIZITZA BERRIAK			ETXEBIZITZA ERABILIAK	GUZT. ALOKAIRUA	LIBREA	BABESTUA
			GUZT.	BABESTUAK	LIBREAK				
2008	26.766	23.767	10.373	5.424	4.949	13.395	2.999	603	2.396
2012	39.542	36.902	9.918	4.180	5.738	26.985	2.640	2.013	627
2013	34.029	31.762	8.126	3.860	4.266	23.636	2.267	1.974	293
2014	40.400	37.755	4.731	2.268	2.463	33.024	2.645	2.505	140
2015	37.259	35.510	3.519	1.545	1.974	31.991	1.749	1.570	179
2016	33.535	32.137	3.049	1.283	1.766	29.089	1.398	1.006	392
2017	27.798	26.295	2.933	1.206	1.727	23.363	1.503	944	559
2018	24.954	22.863	3.161	1.056	2.102	19.702	2.091	1.147	943
16/17 ald. %	-17,1	-18,2	-3,8	-6,0	-2,2	-19,7	7,5	-6,2	42,6
17/18 ald. %	-10,2	-13,1	7,8	-12,2	21,7	-15.7	39,1	21,6	68,7
08/18 ald. %	-6,8	-3,8	-69,5	-80,5	-57,5	47,1	-30,3	90,3	-60,6

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinen arloko eskaintzaren estatistika.

Prezioak direla eta (zehazki aztertuko dira hurrengo epigrafeetan) salgai dagoen etxebizitza librearen (berria eta erabilia) batez besteko balioa, 2018an, 2.805 euro/m2 zen, eta %0,6ko igoera izan zuen 2017aren aldean. Aurreko urtean ere %0,4ko jaitsiera gertatu zen. Etxebizitza berrien merkatuari dagokionez, prezioak % 0,8 igo dira; bestalde, bigarren eskuko etxebizitzenak % 0,1 jaitsi dira. Bestalde, babestutako etxebizitza berriaren batez besteko prezioa %1,6 igo da azken urtean (alokairu libreko batez besteko errenta, ordea, %10,5 jaitsi da. Bestetik, babestutako etxebizitzen alokairuko batez besteko errenta 318,9 eurokoa izan zen, aurreko urtean baino %3,2 gutxiago.

Higiezinen merkatuaren dinamismoari dagokionez, higiezinen arloko enpresek etxebizitza saltzeko batez beste behar duten denbora, 2018 bukaeran, 3,1 hilean kokatu zen. Aurreko urtean, berriz, 3,9 hilekoa zen, hots, 2008an hasitako serie historiko osoko txikiena.

Horrez gain, Higiezinen Arloko Eskaintzaren Inkestak erakusten duenez, 2018an, salmentako benetako eragiketa bihurtzeko, jabeek batez beste % 4,8 jaitsi behar izan zituzten etxebizitza erabilien prezioak, aurreko urtean baino

V.4.2. GRAFIKOA. SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZA LIBRE ERABILIEN AMAIERAKO PREZIOAREN MURRIZKETAREN BATEZ BESTEKO PORTZENTAJEA ESKAINTZAREN HASIERAREKIKO



Iturria. EUSKO JAURLARITZA. HEE

hamarren bat gutxiago. Lurraldez lurralde, murrizketaren handiena Araban dago (% 5,3 batez beste), ondoren Gipuzkoan (% 5,2). Bizkaia, berriz, batez bestekoaren azpitik dago (% 4,4).

4.1.1. Salgai dauden etxebizitzen eskaintza eta salneurriak

(a) Etxebizitza berria

Lehenik eta behin, salgai dauden etxebizitza libre eraikiberrien eskaintza, 2018ko laugarren hiruhilekoan, 2.102 alera iritsi da, hau da, 2017an baino % 21,7 gehiago, bost urtez jarraian behera egin ondoren. Ondoko banaketa dauka lurraldez lurralde: Bizkaiak %58,9 hartzen du, Gipuzkoak %34 eta Arabak gainerako %7,1a.

Eraikuntza berriko etxebizitza libreen guztizko batez besteko salneurria 270.400€ da 2018ko laugarren hiruhilekoan. 2017an, berriz, 258.700 zen, hots, % 4,5eko hazkundea.

V.4.2. TAULA. SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZEN BATEZ BESTEKO SALNEURRIEN BILAKAERA EAE-N. €/M² ERABILGARRI.

	ETXEBIZITZA LIBREA				ETXEBIZITZA BABESTUA
	GUZT. LIBRE*	ERABILIA	BERRIA	ETXEBIZ. MOTA**	
2012	3.595,8	3.564,7	3.742,1	3.378,1	1.585,4
2013	3.226,4	3.171,7	3.486,2	3.095,1	1.625,0
2014	3.079,8	3.058,2	3.338,9	2.960,2	1.682,1
2015	2.943,1	2.922,9	3.273,7	2.843,1	1.674,2
2016	2.802,0	2.778,9	3.180,7	2.862,9	1.744,1
2017	2.789,7	2.758,1	3.222,0	2.917,3	1.750,2
2018	**2.805,4**	**2.755,6**	**3.247,7**	**3.016,2**	**1.777,7**
16/17 ald. %	-0,4	-0,8	1,3	1,9	0,4
17/18 ald. %	0,6	-0,1	0,8	3,4	1,6

** Etxebizitza libreen eta erabilien batez besteko salneurria*
***Etxebizitza berria, kolektiboa, librea, sustatzaileak zuzenean eskainia, akabera arrunteko maila duena eta 60-90² azalerakoa.*
Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinen Eskaintzaren Estatistika.

Metro koadroko eurotan adierazita, 3.247,7 €/m² da, hots, 2017ko batez bestekoa baino % 0,8 gehiago. Lurraldez lurraldeko azterketak erakusten duenez, batez besteko baxuena Araban dago (2.528,7 €/m²). Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, 3.250,5 €/m² eta 3.408,8 €/m² dira hurrenez hurren. Bilakaeraren aldetik, Arabak eta Gipuzkoak % 1,4ko eta %3ko igoerak izan dituzte hurrenez hurren. Bizkaian, aldiz, % 1,1 jaitsi da metro koadroa.

V.4.3. GRAFIKOA. EAE-N SALGAI DAGOEN ETXEBIZITZA BERRIAREN ESKAINTZAREN BILAKAERA



Iturria. EUSKO JAURLARITZA. HEE.

Merkatu babestuari dagokionez, gogoratu behar da 2006tik ez dagoela salgai dauden etxebizitza sozialen eskaintzarik, eta etxebizitza horiek soilik alokairuan eskaintzen dira. 2012ko laugarren hiruhilekoan, BOEren eskaintza 1.059 unitatera iritsi zen 2018ko laugarren hiruhilekoan, aurreko urtean baino % 12,2 gutxiago; izan ere, aurreko urtean (azken hamarkadan % 80,5 egin behera).

Zenbait alde ikus daitezken lurraldeen arabera: Bizkaiak du salneurririk altuena (1.805,5 €/m²), eta ondoren Gipuzkoak (1.800,7 €/m²). Antzeko bilakaera da, zeren eta batez besteko prezioa % 1,2 hazi baita bi lurraldeetan. Bestalde, Arabak batez besteko prezio txikiagoa du (1.608,2 €/m²) eta haren bilakaera ere positiboa da, intentsitate handiagokoa, ordea, %3,6 hazi baita.

Bestalde, 2007. urtearen amaieraz geroztik, oso bolumen txikietan bada ere, babes erregimenen bat daukaten bestelako etxebizitza tipologiak hasi ziren agertzen: babes ofizialeko etxebizitza tasatuak eta udal etxebizitza tasatuak. Etxebizitza horiek etxebizitza babestuak baino zerbait garestiago eskaintzen dira, baina etxebizitza librearen preziora iritsi gabe. Ez dago haien prezioen informazio zehatz eguneraturik.

V.4.4.. GRAFIKOA. EAE-KO SALMENTARAKO ETA ALOKAIRURAKO ETXEBIZITZA BABESTUAREN ESKAINTZAREN BILAKAERA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. HEE.

(b) Etxebizitza erabilia

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren datuetan ikusten dugu guztira bigarren eskuko 19.702 etxebizitza eskaini zirela 2018an, aurreko urtean baino %15,7 gutxiago[26]. Etxebizitza horiek ondoko banaketa daukate lurraldez lurralde: Bizkaian %63,8, Araban %15,1 eta Gipuzkoan gainontzeko %21,1.

V.4.3. TAULA. SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZA ERABILIAK, BATEZ BESTEKO SALNEURRIAK M² BALIAGARRIKO (€), LURRALDEZ LURRALDE.

	EAE			ARABA			BIZKAIA			GIPUZKOA		
	KOP.	SALN. M²	SALN./ ETXEBIZITZA	KOP.	SALN. M²	SALN./ ETXEBIZITZA	KOP.	SALN. M²	SALN./ ETXEBIZITZA	KOP.	SALN. M²	SALN./ ETXEBIZITZA
2012	26.985	3.564,7	309,5	4.571	2.960,7	242,2	16.626	3.600,3	314,2	5.788	3.966,0	352,4
2013	23.636	3.171,7	271,8	4.672	2.713,2	220,8	13.688	3.243,3	285,2	5.276	3.420,7	286,5
2014	33.024	3.058,2	251,1	6.974	2.611,6	207,9	19.062	3.165,4	264,6	6.988	3.192,6	255,2
2015	31.991	2.922,9	246,0	7.677	2.527,2	204,6	17.323	3.017,9	261,2	6.991	3.111,5	253,3
2016	29.089	2.778,9	238,6	7.303	2.417,9	198,1	15.856	2.900,7	258,6	5.930	2.879,0	233,6
2017	23.363	2.758,1	237,4	3.943	2.329,2	191,1	14.754	2.865,7	253,0	4.666	2.756,9	224,7
2018	**19.702**	**2.755,6**	**236,0**	**2.975**	**2.400,7**	**200,4**	**12.564**	**2.839,4**	**248,0**	**4.163**	**2.728,3**	**222,5**
16/17 %	-19,7	-0,8	-0,5	-46,0	-3,7	-3,5	-7,0	-1,2	-2,2	-21,3	-4,2	-3,8
17/18 %	-15,7	-0,1	-0,6	-24,5	3,1	4,8	-14,8	-0,9	-2,0	-10,8	-1,0	-1,0

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinen Eskaintzaren Estatistika.

EAEko bigarren eskuko etxebizitza salgaien batez besteko prezioa 2.755 €/m² zen 2018an, aurreko urtean erregistratutako batezbestekoa baino %0,1 gutxiago. Lurraldeen arabera, Bizkaian eta Gipuzkoan jaitsi egin dira salneurriak, -% 0,9 eta -% 1 hurrenez hurren. Araban, berriz, % 3,1 egin du gora. Horren ondorioz, prezioak Bizkaiko 2.839,4 €/ m²-ren eta Arabako 2.400,7€/ m²-ren artean daude, eta Gipuzkoa tartean geratzen da, batez beste 2.728,3 €/m m²-rekin. Etxebizitzako prezioetan, EAEko batez bestekoa 236.000€ da (-%0,6 2017koaren aldean; urtea hartan batez besteko prezioa 237.400€ zen): handiena Bizkaian, 248.000€, eta txikiena Araban, 200.400. Gipuzkoa beste bien artean dago berriro ere: 222.500 euro etxebizitza bakoitzeko.

[26] *Eskariak behera egin zuen 2017an nabarmen Araban (-% 46), higiezinen arloko agentzia handiek eskaintza eguneraketa handiaren ondorioz. Hori dela-eta, nabarmen aldatuko dira lurraldez lurraldeko haztapenetan, eta horrek batez besteko salneurrien jaitsiera ratioetan; EAEko batez bestekoa baino handiagoak izan ziren hiru lurraldeetan.*

4.1.2. Alokairu araubidea

2018ko laugarren hiruhilekoari buruzko Higiezinen Eskaintzari buruzko Estatistika izeneko inkestaren arabera, 2.091 etxebizitza eskaini ziren alokairurako, hau da, aurreko urtean baino % 39,1 gehiago. Libreei dagokienez (eskaintzaren % 54,9) % 21,6 handitu da: 944 etxebizitzatik 1.147 etxebizitzara; alokairuko etxebizitza babestuek, aldiz, % 68,7 egin dute gora Beraz, babesturiko alokairuak gora egin du 2017ko % 37,2tik 2018ko % 45,1era.

V.4.4.TAULA. ESKAINITAKO ALOKAIRUKO ETXEBIZITZA LIBREAK ETA HILEKO B.B. ERRENTA. €.

	ETXEBIZITZA				HILEKO ERRENTA (€)			
	EAE	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE	ÁLAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA
2012	2.013	332	1.233	448	856,0	790,3	865,8	879,7
2013	1.974	251	1.383	340	825,4	743,9	838,8	821,6
2014	2.505	178	1.885	442	844,7	729,4	861,0	818,5
2015	1.570	168	1.124	278	871,1	740,4	880,1	911,5
2016	1.006	69	770	167	879,9	773,8	889,4	868,6
2017	944	114	679	151	944,3	709,7	955,5	1.028,0
2018	**1.147**	**106**	**652**	**389**	**1.043,2**	**860,7**	**962,2**	**1.229,5**
16/17 %	-6,2	65,7	-11,9	-9,9	7,3	-8,3	7,4	18,3
17/18 %	21,6	-7,2	-3,9	158,2	10,5	21,3	0,7	19,6

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinen Eskaintzaren Estatistika

Alokairuko etxebizitza babestuen batez besteko errenta (aldatu egiten da etxebizitzen pertsona esleipendunen diru-sarreren arabera) asteko 318,9€-koa izan zen 2018an, aurreko urtean baino %3,2 gutxiago.

V.4.5.TAULA. EAE-KO ALOKAIRUKO ESKAINTZAREN ETXEBIZITZEN ERRENTAREN BILAKAERA. (€/HILEA).

	MERKATU BABESTUA	MERKATU LIBREA
2012	345,1	856,0
2013	333,1	825,4
2014	326,3	844,7
2015	345,2	871,1
2016	268,0	879,9
2017	329,4	944,3
2018	**318,9**	**1.043,2**
16/17 %	22,9	7,3
17/18 %	-3,2	10,5

Iturria: EUSKO JAURLRITZA. Higieizinen Eskaintzaren Estatistika.

Bestetik, 2018ko laugarren hiruhilekoan alokairurako eskainitako etxebizitza libreen lagina, esan dugunez, 1.147 unitatekoa zen. Lurralde banaketa honelakoa da: Bizkaian %56,8, Araban %9,2 eta Gipuzkoan gainerako %34a.

Batez bestez, partikularrenak diren eta higiezin jabetzaren agenteen bidez alokatzeko eskaintzen diren etxebizitzek hilean 1.043,2 euroko errenta zeukaten 2018an, aurreko urtean baino %10,5 gehiago beraz. Lurralde historikoen artean, Gipuzkoak du preziorik altuena (1.129,5 € hilean); ondoren Bizkaia dator, 962,2 € hilean, eta azkenik Araban (860,7 € hilean). Bilakaerari buruzko azterketan ageri denez, bereziki hazkunde handia dago Gipuzkoan (+% 19,6) eta Araban (+% 21,3), eta txikiagoa Bizkaian (+% 0,7).

Alderaketa eginez, alokairu libreko eskaintzako etxebizitzen metro koadroko hileko errenta 2,5 aldiz handiagoa zen babesturiko alokairua baino (12,9 €/m^2 eta 4,8 €/m^2) 2018ko laugarren hiruhilekoan.

Bestalde, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak, 2017an, EAEko alokairuari buruzko txostena, Estatuarekiko eta EBrekiko azterketa erkatua" deritzona egin zuen: izan ere, EINen Bizi-baldintzei buruzko Inkestako datuak eta EUROSTATen estatistika baliatuz, agerian utzi zuen alokairuak garrantzi erlatibo txikiagoa zuela EAEn eta Espainian EBren aldean. Biztanleen % 30,7 alokairu araubidean bizi da (estatistika horretan, doako lagapena ere sartzen da) EB osoan (2016ko datuak), Espainian baino 8 puntu gehiago. Azterturiko herrialdeen artean, Alemania nabarmentzen da, non biztanleriaren erdia alokairu araubidean bizi baita (edo doako lagapenean).

EUROSTATek bereziki baliagarria den analisia ematen du, alokairua eskuratzea diru-sarrera mailarekin lotua. Horri esker ikusten denez, alokairuak (lagapena barne) pisu nabarmen handiagoa du diru-sarrera gutxien dituzten biztanle-taldeetan. Europar Batasunean, errenta txikiak dituzten pertsonen ia %50 (batez bestekoaren %60tik beherakoak) alokairuan edo etxebizitza lagata bizi da, eta ratio horiek %70aren ingurukoak dira Alemanian (%73,4), Danimarkan (%68,5) eta Holandan (%67,9). Eta nahiz eta EAErako konparagarria den informaziorik ez dagoen, Etxebizitzaren Behatokiak alokairurako laguntzen eta programen estaldura eta intzidentzia balioesten ditu bere txostenean. Honako hau nabarmentzen du: alokairu libreko etxebizitzetan bizi diren 10 familiatik 4k prestazio edo laguntza motaren bat jaso zuela 2016an, 100 milioi eurotik gorako aurrekontuko inbertsio nabarmenaren bidez[27].

[27] *Ikerketari buruzko argibide gehiago izateko, begiratu 2017ko Memoria Sozioekonomikoan.*

4.1.3. Etxebizitzaren prezioen erkaketa, autonomia erkidegoen arabera

EIN 2008an hasi zen "Etxebizitzaren Prezioen Indizea" (EPI) egiten. Hiru hilean behingo adierazle horrek, 2007ko oinarriarekin, prezio libreko etxebizitzen (berriak nahiz bigarren eskukoak) salerosketa prezioen mailaren bilakaera neurtu nahi du denboran. EPI Europar Batasunaren estatistika harmonizatuen produkzioaren eremuan planteatutako informazio eskaerari dagokio; beraz, haren helburuetako bat estatu kideak alderatzeko tresna izatea da, etxebizitza librearen prezioen bilakaerari dagokionez. Horren eremutik kanpo daude, hortaz, etxebizitza babestuak, haien prezioak araututa daudelako eta ez direlako merkatuaren ohiko mekanismoen bidez arautzen.

V.4.6. ETXEBIZITZAREN PREZIOEN INDIZEA: LAUGARREN HIRUHILEKOETAKO URTEKO ALDAKUNTZA TASA.

	2015	2016	2017	2018
ESTATUKO BATEZ B.	**4,2**	**4,5**	**7,2**	**6,6**
ANDALUZIA	3,0	2,1	4,5	5,6
ARAGOI	0,7	2,3	3,1	6,2
ASTURIAS	1,3	1,9	2,4	3,4
BALEARS, ILLES	7,0	5,7	9,8	6,4
KANARIAR U.	3,6	3,3	6,0	4,1
KANTABRIA	2,0	2,3	4,4	6,2
GAZTELA ETA LEON	0,9	0,8	2,3	4,7
G.-MANTXA	2,1	0,0	0,4	4,1
KATALUNIA	5,9	7,4	10,2	8,1
VALENTZIAKO E.	3,0	1,7	4,1	4,2
EXTREMADURA	2,6	0,8	0,2	2,7
GALIZIA	1,7	2,1	2,9	4,1
MADRIL	7,3	9,0	11,9	9,6
MURTZIA	1,8	0,7	1,9	4,5
NAFARROA	1,8	1,9	2,1	4,0
EAE	**1,7**	**1,2**	**7,1**	**5,0**
ERRIOXA	1,5	0,3	3,6	5,5
CEUTA	6,3	5,1	8,0	9,1
MELILLA	5,7	3,2	7,7	7,5

Iturria: EIN. EPI.

Notarioen Kontseilu Nagusiak emandako datu-baseetako informazioa darabil EPIk, Egiaztapenerako Notarioen Agentziaren bitartez. Administrazio-erregistroak erabilita, batetik biztanleria guztiaren informazio osoa dago eskuragai, eta horri esker, ez dago zertan laginketara jo; bestetik, edozein salerosketako informazioa gertatzen den unean sar daiteke indizearen kalkuluan: funtsezkoa da hori adierazle koiunturala izan nahi duen indize batean.

Inkestako emaitzek erakusten dutenez, prezioek 2008-2013 epealdian behera egin ostean, neurri desberdinekin, 2014an lehen igoerak izan ziren Estatu mailan, eta bilakaera askoz orekatuagoa da EAEn (izan ere, aldakuntza nulua izan zen). 2015ean, tasa positiboak zituzten erkidego guztiek, eta joera hori berretsi eta sendotu zen 2016-2018 aldian.

2018ko laugarren hiruhilekoan, EAEk % 5eko aldakuntza zuen, estatuko batez bestekoa baino txikiagoa (% 6,6). Hona hemen datuen tarteak: Extremadurako (% 2,7) eta Asturiasko (% 3,4) tasa txikietatik %9 gainditzen dutenetara: Ceuta (% 9,1) eta Madril (% 9,6).

4.1.4. Etxebizitzaren alokairuko errenten erkaketa autonomia erkidegoen arabera

Sustapen Ministerioaren "Etxebizitzaren eta lurraren behatokiak", bere Estatistika Aldizkariaren baitan, bizitegien alokairuari buruzko Aldizkari Berezia egiten du aldian-aldian. Azkena 2018ko uztailean argitaratu zen 2017ko datuekin. Aldizkari horri esker, bizitegien alokairuen batez besteko errenten erkaketa egin daiteke autonomia erkidegoen arabera, estatuan ezarpen handia duten higiezinen bi atarik emandako informazioa oinarri hartuta: Fotocasa eta Idealista.

V.4.7. TAULA. ALOKAIRUKO ETXEBIZITZAREN ESKAINTZAREN BATEZ BESTEKO PREZIOA AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA. 2017. DATUAK: €/M²-

	FOTOCASA		IDEALISTA	
	€/M2	16/17 %	€/M2	16/17%
ANDALUZIA	6,6	4,2	7,4	15,5
ARAGOI	6,6	-1,7	6,6	6,4
ASTURIAS	6,4	1,1	6,4	5,4
BALEARS, ILLES	9,7	1,0	12,5	22,1
KANARIAR U.	7,2	8,5	9,1	27,8
KANTABRIA	7,0	2,4	7,0	6,0
GAZTELA ETA LEON	5,9	0,9	5,8	8,5
G-MANTXA	5,0	5,6	4,7	5,4
KATALUNIA	12,4	10,3	14,4	8,8
VALENTZIAKO E.	6,3	9,6	6,8	9,9
EXTREMADURA	4,7	2,4	4,1	0,9
GALIZIA	5,6	0,8	5,5	6,4
MADRIL	11,5	6,3	14,4	11,5
MURTZIA	5,5	2,5	5,7	13,7
NAFARROA	7,0	-0,3	7,3	8,7
EAE	**10,7**	**1,7**	**11,2**	**7,1**
• ARABA	7,5	-5,2	..	..
• GIPUZKOA	11,6	3,4	12,9	8,2
• BIZKAIA	10,7	1,5	10,7	5,4
ERRIOXA	5,4	5,3	5,2	2,5
MEDIA ESTATUA	**8,2**	**8,8**	**9,7**	**18,4**

Iturria: SUSTAPEN MINISTERIOA. Etxebizitzaren eta lurraren behatokia. 2018ko abuztuko aldizkaria.

Bi iturrien arteko alde handirik izan gabe, salneurririk altuenak Kataluniako eta Madrileko erkidegoetan dau, etxebizitzako 12-14 euro metro koadroa. Hirugarren tokian Balearrak daude Idealista atariaren datuan arabera, eta EAE Fotocasaren kopuruak hartuz gero. Hala, EAEko alokairuko

batez besteko errenta 10,7 euro/m^2 izango litzateke iturri baten arabera eta 11,2 bestearen arabera, estatuko batez bestekoaren gainetik (8,2 eta 9,7 euro/m^2 batez beste).

Lurraldez lurralde, alokairuko errentarik handienak Gipuzkoan eta Bizkain daude, biak EEko batez bestekoren gainetik. Araba, berriz, azpitik dago.

V.4.5. GRAFIKOA. ETEBIZITZAKO ALOKAIRUEN BATEZ BESTEKO ERRENTAN ERKAKETA (€/M2), AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA, HIGIEZINEN ATARIEN ARABERA. 2017.



Iturria: SUSTAPEN MINISTERIOA. Etxebizitzaren eta lurraren behatokia. 2018ko abuztua.

Sustapen Ministerioaren Aldizkariari esker, era berean, azken urteetako alokairuaren prezioaren bilakaera zein den jakin daiteke, EAEn, eta estatuarekiko erkaketa. Horretarako, 2014ko eta 2016ko informazioa dago, eta gainera, 2017koa. Oro har, goranzko joera ageri da bi kasuetan eta bi iturrietan, handiagoa estatuan EAEn baino. Hortaz, murriztuz doa bien arteko aldea, Fotocasaren nahiz Idealistaren kopuruetan.

V.4.6. GRFIKOA. EAE-KO ETXEBIZITZAREN ALOKAIRUKO BATEZ BETEKO ERRENTEN BILAKAERA, EAE-N ETA ESTATUAN, HIGIZEZINEN ATARIEN ARABRA. EUROAK M^2-KO



Iturria: SUSTAPEN MINISTERIOA. Geuk egina.

4.2. ETXEBIZITZAREN ERAIKUNTZAREN JARDUERA

4.2.1. Etxebizitzaren eraikuntza EAEn

Lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitzaren Behatokiak jakinarazi duenez, EAEn hasitako etxebizitzen guztizko kopurua negatibo bihurtu zen 2010 eta 2011ko bi urtekoan, hazkunde nabarmena izanik, 2008an eta 2009an jaitsiera handia izan ondoren. 2012 eta 2015 bitartean, ordea, behera egin izan du hasitako etxebizitzen kopuruak, neurri desberdinean, hain zuzen ere %15 aldiko azken urtean. Hasitako etxebizitzetatik %89,6 libreak ziren eta %24 babestuak (azken datua). Horietako % 68,5 libreak ziren eta % 31,5 babestuak.

Badakigu zein diren hasitako etxebizitza babestuei buruzko 2018ko zifrak (ez dago merkatu libreari buruzko informaziorik: guztira 1.878 hasi ziren, 2017an baino %39,7 gehiago. 2010ean izan ezik, hasitako etxebizitza babestuak behera egin zuen 2007tik 2015era, eta berriz ere gora egin zuen azken urte horretan.

V.4.8. TAULA.ERAIKUNTZAREN JARDUERA EAE-N: HASITAKO ETA BUKATURIKO ETXEBIZITZAK

	HASITAKO ETXEBIZITZAK			ETXEBIZITZA BUKATUAK		
	LIBREAK	BABESTUAK	GUZT.	LIBR.	BABESTUAK	GUZT.
2013	2.029	1.610	3.639	3.994	1.842	5.836
2014	2.181	1.379	3.560	2.560	2.440	5.000
2015	2.094	932	3.026	3.611	1.957	5.568
2016	4.407	1.201	5.608	1.869	1.729	3.598
2017	2.920	1.344	4.264	3.380	357	3.737
2018	**..**	**1.878**	**..**	**3.562**	**859**	**4.421**
16/17 %	-33,7	11,9	-24,0	80,8	-79,4	3,9
17/18 %	..	39,7	..	5,4	140,6	18,3

Iturria: EUSUKO JAURLARITZA. Etxebizitzaren Behatokia.

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Plana 2006-2009 abian jarri zenetik, etxebizitza babestuen merkatuan figura berriak sortu dira. Horrek ekarri du, oraingoz, dotazio alojamenduak eraikitzen hastea 2006az geroztik, 2007az geroztik udal etxebizitza tasatuak (saltzeko eta alokatzeko) eta 2009az geroztik etxebizitza autonomiko tasatuak. 2018an, dotazioko 305 alojamendu eraikitzen hasi ziren (2017an baino %90,69) baita udalaren1880 etxebizitza tasatu jabetzan ere (+%97,9 2017aren aldean) (ez dago alokairurako udal etxebizitza tasatuen eraikuntzari buruzko informaziorik). Halaber, Eusko Jaurlaritzaren kalifikazioaren menpeko etxebizitzei dagokienez, 1.089 BOE hazi ziren (+%82,1 2017aren aldean), 212 etxebizitza sozial (-% 2,3 2017aren aldean) eta 72 etxebizitza tasatu (-%65,2).

Bestalde, EAEn 2018an amaitutako etxebizitzak 4.421 dira, aurreko urtean baino %18,3 gehiago, amaitutako etxebizitza libreen igoera handiaren (%140,6) eta babestutakoen igoera txikiagoaren (+%5,4) baturaren emaitza gisa. Horren ondorioz, aurten murriztu egin da etxebizitza babestuak EAEko eraikuntzako jardueran duen partaidetza, zeren eta bukaturiko etxebizitzen artean behera egin baitzuen, 2017ko %9,6tik 2018ko %19,4ra.

V.4.9. TAULA. EAE-N HASITAKO ETXEBIZITA BABESTUEN BILAKAERA, TIPOLOGIAREN ARABERA.

	EJ-REN SAILKAPENAREN MENPEKOAK			EJ-REN SAILKAPENAREN MENPE EZ DAUDENAK		GUZT.
	BOE	SOZIALAK	TASAT.	ZUZKIDURA ALOJAMEND.	UDAL ETXEBIZITZA TASATUAK (JABETZA)	
2012	1.324	60	304	177	4	1.869
2013	1.302	191	18	47	52	1.610
2014	1.239	0	40	55	45	1.379
2015	514	185	80	0	153	932
2016	678	17	159	154	193	1.201
2017	598	217	207	160	95	1.344
2018	**1.089**	**212**	**72**	**305**	**188**	**1.878**
16/17 %	-11,8	1.176,5	30,2	3,9	-50,8	11,9
17/18 %	82,1	-2,3	-65,2	90,6	97,9	39,7

Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN datuak erabiliz eginikoa. Etxebizitzaren Behatokia.

Bestalde, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak 2018ko laugarren hiruhilekoko bere "Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko estatistika"-n nabarmentzen duenez, finkatu egin da aurten eraikuntzako obren tipologien joeraren aldaketa, gero eta gehiago birgaikuntzara bideratuta, krisia hasi zenetik ikusi izan denez.

2018an, EAEko udalek, guztira, obra nagusiko 3.329 lizentzia eman zituzten (etxebizitza berrietako, birgaikuntzako eta eraispeneko lizentzien batura), 2017an baino %7,8 gehiago. 2017ko 3.145 lizentzietatik %14,3 etxebizitza berrietarako lizentziei dagokie, %2,3 eraispenari eta %83,4 eraikinak birgaitzeko dira (% 83 2017an), hots, 10etik 8. 2003. urtea baino

lehenagoko urteetan, berriz, ez ziren lizentzia guztien %50era iristen. Lurraldez lurralde, lizentzien %53,3 Bizkaian eman ziren, %24,6 Araban eta gainerako %22,1a Gipuzkoan. Lizentzia motari dagokionez, Bizkaian birgaitzeko lizentzien pisu handiagoa nabarmentzen da (lizentzien %86,3, eta batez bestekoa %83,4 da). Ratiorik txikiena, berriz, Gipuzkoan dago (%79,3), non eraispenen lizentziak %3,9raino iristen diren (EAEko batez bestekoa %2,3 da).

2008-2018ko epealdian gertaturikoa hartzen badugu kontuan, %6,3 handitu da obra nagusiko lizentzia kopurua, eta etxebizitza berriak eraikitzeko lizentzien jaitsiera nabarmentzen da: %53,6 egin du behera. Bigaren tokian, eraispenekoak, %15,6 jaitsi dira. Zaharberrikuntzarako lizentziek, berriz, %37,6 egin zuten gora.

Higiezinen arloko krisiaren ondotik, zaharberrikuntza askoz handiagoa da oraindik ere eraikuntza berriaren aldean. 2018an eraikuntza berriko lizentzia-emateen kopuruak % 3,5 egin zuen gora 2017aren aldean, 459 lizentzietatik 475 lizentzietara igaro baita 2018an. Hala ere, oso urruti dago orohar 1998-2006 aldian eman ziren 1.500 lizentzia baino gehiagoko kopurutik.

V.4.10. TAULA. OBRA NAGUSIEN LIZENTZIEN KOPURUAREN BILAKAERA, MOTAREN ETA LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA.

		2008	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	17/18%	08/18%
EAE	**GUZT.**	**3.133**	**2.380**	**2.145**	**2.585**	**2.744**	**3.145**	**3.087**	**3.329**	**7,8**	**6,3**
	ERAIKUNTZA BERRIA	1.024	447	351	390	444	518	459	475	3,5	-53,6
	ZAHARBERRIK.	2.019	1.909	1.746	2.133	2.240	2.567	2.563	2.778	8,4	37,6
	ERAISPENA	90	24	48	62	60	60	65	76	16,9	-15,6
ARABA	**GUZT.**	**977**	**807**	**691**	**693**	**718**	**810**	**786**	**820**	**4,3**	**-16,1**
	ERAIKUNTZA BERRIA	368	134	110	113	129	137	128	136	6,3	-63,0
	ZAHARBERRIK.	588	664	565	558	572	659	644	664	3,1	12,9
	ERAISPENA	21	9	16	22	17	14	14	20	42,9	-4,8
BIZKAIA	**GUZT.**	**1.447**	**1.127**	**1.062**	**1.404**	**1.449**	**1.646**	**1.695**	**1.773**	**4,6**	**22,5**
	ERAIKUNTZA BERRIA	386	183	150	179	178	243	202	216	6,9	-44,0
	ZAHARBERRIK.	1.028	942	891	1.203	1.244	1.380	1.462	1.530	4,7	48,8
	ERAISPENA	33	2	21	22	27	23	31	27	-12,9	-18,2
GIPUZKOA	**GUZT.**	**709**	**446**	**392**	**488**	**577**	**689**	**606**	**736**	**21,5**	**3,8**
	ERAIKUNTZA BERRIA	270	130	91	98	137	138	129	123	-4,7	-54,4
	ZAHARBERRIK.	403	303	290	372	424	528	457	584	27,8	44,9
	ERAISPENA	36	13	11	18	16	23	20	29	45,0	-19,4

Iturria: EUSKJO JAURLARITZA. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Azterlana.

4.2.2. Etxebizitzaren babestuaren eraikuntza. Autonomia erkidegoen araberako azterketa

Etxebizitzaren Euskal behatokiak honako txosten hau egin zuen 2018an: "Babes publikoko eta zaharberrikuntza babestuko etxebizitzaren eraikuntzaren azterketa historiko erkatua Autonomia Erkidegoen arabera". Sustapen Ministerioaren eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren beraren 1991-2017 aldiko datuak erabiliz, etxebizitza babestuaren (EB) eraikuntzaren gaineko azterketa erkatua egiten da biztanleriarekiko.

Lehenik eta behin nabarmentzen du 1991 eta 1999 bitartean hasitako EBren erritmo txikiari eusten zaiola, baina 2000tik hasita gure erkidegoa etxebizitza mota horren alde apustu handiagoa egiten duten erkidegoen artean kokatzen da.

EBren eraikuntzak 1991 eta 2017 bitartean biztaleriarekiko izan duen eragina oso desberdina da autonomia erkidegoen arabera. Hauexek nabarmentzen dira 1991 eta 2017 bitartean: Murtzia (31 BE 1.000 biztanleko), Nafarroa (28 milako) eta Extremadura (27 milako), guztiak estatuko batez bestekoaren gainetik (hasitako 15 EB 1.000 biztanleko). Euskadi batez besteko horren azpitik dago argi eta garbi, soilik milako 10era iristen baita.

2000 eta 2008 bitartean ere Nafarroa dago 1.000 biztanleko hasitako EBren sailkapeneko goiko postuan, 29ko ratioarekin, eta 2000tik hasita EBren sustapenaren gorakadarekin bat etorriz, Euskadi hirugarren tokian dago autonomia erkidegoen artean (20 EB 1.000 biztanleko), Extremadurarekin eta Aragoirekin batera.

2008an atzeraldi ekonomikoa iritsi izanaren ondorioz, nabarmen egin zuen behera biztanleriarekiko etxebizitzaren sustapenak autonomia erkidego guztietan. Soilik Nafarroak eusten dio maila nabarmenari eta, neurri txikiagoan, EAE bigarren tokian kokatzen da, hasitako 8 EBko ratioarekin 1.000 biztanleko.

Aldi osoa aintzat hartuta ondorioztatzen denez, Nafarroa eta Errioxa erkidegoak daude EBren eraikuntzaren sailkapeneko buruan biztanleriarekiko; 71 eta 55eko ratioekin mila biztanleko. EAE hamargarren tokian dago, batez bestekoaren gainetik, 38 milako tasarekin. Batez bestekoa, berriz, milako 34 da. Beste muturrean, Balearrak eta Katalunia ez dira iristen milako 20ko tasa aldi osoa kontsideraturik (15 eta 17 milako hurrenez hurren).

V.4.7. GRAFIKOA. HASITAKO ETXEBIZITZA BABESTUAK 1.000 BIZTANLEKO 1991 ETA 2017 BITARTEAN



Iturria: ETXEBIZITZAREN EUSKAL BEHATOKIA.

Bigarrenik, EBren sustapenaren bilakaera aztertzen da erabileraren arabera, jabetza eta alokairua bereiziz, 2005 eta 2016 bitartean. Sustapen Ministerioaren datuei esker ondoriozta daiteke Espainiako alokairuko EBren alde eginiko apustua nabarmena izan dela, ekonomiaren hedapen-zikloetan nahiz krisialdian.

V.4.8. GRAFIKOA. ALOKAIRURAKO ETXEBIZITZA BABESTAUREN EHUNEKOAREN BILAKAERA EAE-N ETA ESTATUAN.



Iturria: ETXEBIZITZAREN EUSKAL BEHATOKIAREN datuak erabiliz eginikoa.

2005 eta 2011 bitartean, alokairua baino 6 aldiz gehiago sustatu zen Espainian sustaturiko salerosketako EB. 2012az gero, alokairuaren kontrako alde hori areagotu egin da: alokairuko etxebizitza bat erosketarako 9 etxebizitzako, halako moldez non inoizko kopururik txikiena, hain zuzen ere, 2016an gertatu baitzen (azterturiko serieko azken urtean, non eraikitako EBren % 3,3 besterik ez baitzen alokairurako). Horrez gain, kopuru absolutuetan, 2008tik beherakada gertatu zen babesturiko etxebizitzaren sustapenean, alokairuan jabetzapeko EBn baino handiagoa, eta 2012 eta 2016 bitartean alokairuko 898 EB baino ez ziren hasi urtean Espainia osoan; 2005-211ko aldian, berriz, 15.000 etxebizitza baino gehiago urteko, hots, % 94ko jaitsiera.

EAEn ere izan zen jaitsiera nabarmena, baina estatuko batez bestekoa baino nahikoa txikiagoa: 2012 eta 2016 bitartean, alokairuko 215 EB hasi ziren urtean, hots, % 73ko beherakada 2005-2011 aldiko urteko 805 etxebizitzen aldean. Autonomia erkidego guztietako tasarik txikiena da, Extremadurakoa izan ezik, eta alokairuko EB gehien hasten diren erkidegoetako lehen postuan kokatzen da EAE, non alokairuko EB gehien hasten diren, baita kopuru absolutuetan ere.

Babesturiko alokairuaren garrantzia erlatiboari dagokionez, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak nabarmentzen duenez, Espainian 2005 eta 2016 bitartean sustaturiko 10 EBetatik 8 erosketa araubidekoa izan zen (% 80,8); alokairu araubidean, berriz, % 192, sustatu ziren. EAEk alokairuko etxebizitzaren pisu erlatibo pixka bat txikiagoa du (% 17,3). Horrekin batera, erosketako sustapenaren pisua handiagoa da, eta aldi horretan hasitako EB guztien % 82,7 da.

V.4.11. TAULA. HASITAKO ETXEBIZITZA BABESTUA 1.000 BIZTANLEKO: ERAGINA SALMENTARAKO EDO ALKAIRURA IZATEAREN ARABERA. 2005-2016 ALDIKO BATEZ BESTEKOA.

	JABETZA	ALOKAIRUA	ALOKAIRUAK EROSKETAREKIKO DUEN PISU ERLATIBOAREN %
ESTATUA, B.B.	..	..	19,2
ANDALUZIA	9	3	23,0
ARAGOI	17	2	8,4
ASTURIAS	10	3	21,3
BALEARS, ILLES	2	2	50,0
KANARIAR U.	4	2	29,4
KANTABRIA	12	1	7,1
GAZTELA ETA LEON	12	1	9,8
G.-MANTXA	15	0	1,9
KATALUNIA	5	3	34,4
VALENTZIAKO E.	6	1	19,8
EXTREMADURA	14	1	6,5
GALIZIA	5	1	19,1
MADRIL	16	4	21,9
MURTZIA	9	1	8,5
NAFARROA	26	4	12,1
EAE	**15**	**3**	**17,3**
ERRIOXA	17	1	7,1
CEUTA	12	2	15,8
MELILLA	2	0	0,0

Iturria: ETXEBIZITZAREN EUSKAL BEHATOKIA Sustapen Ministerioaren datuak erabiliz. Geuk egina.

Alokairu babestuaren garrantziari dagokionez, Etxebizitzaren Euskal behatokiak nabarmentzen du Espainian 2005 eta 2016 bitartean sustaturiko 10 EBetatik 8 erosketa araubidean izan ziren (% 80,8); alokairuko araubidean, berriz, % 19,2. EAEk alokairuko etxebizitzaren pisu erlatibo txikixeagoa du (% 17,3), eta, horrekin bat, erosketaren sustapenak pisu handiagoa da eta aldi horretan hasitako EB guztien % 82,7 hartzen du.

Azkenik, kopuru horiek biztanleria bolumenarekin erlazionatuz gero, erosketa araubideko EBren sustapena, eta alokairukoa ere bai, handiagoa izan da EAEn autonomia erkidego gehienen aldean. EAEn 15 EB sustatu ziren 1.000 biztanleko 2005 eta 2016 bitartean jabetza araubidean eta 3 alokairuko araubidean, hots, bosgarren eta hirugarren tokietan, hurrenez hurren, autonomia erkidegoen sailkapenean, Nafarroan buru dela, erosketa nahiz alokairu babestuetan.

4.3. ETXEBIZITZA ESKARIA

4.3.1. Etxebizitza beharra eta eskaria

a) Eskuratzeko beharra

Gurasoekin edo tutoreekin bizi diren 18-44 urteko pertsonek lehen etxebizitza eskuratzeko duten beharrera hurbiltzeko, Eusko Jaurlaritzako "Etxebizitza Beharrari eta Eskariari buruzko Inkesta"ren arabera (EBEI), 2017an lehen etxebizitza eskuratzeko beharra zuten sarrerak zituzten 62.100 lagunek orotara (adin-talde horretako biztanleen % 10), hots, % 14,7ko jaitsiera 2015eko inkestaren aldean. Talde horrek behar duen etxebizitza kopuruari dagokionez (txikiagoa

da, banaka edo binaka plantea daitekeelako etxebizitza eskuratzea), orotara 55.531 ziren, bi urte lehenago baino % 13,5 gutxiago.

Bilakaera hori ikusita, berretsi egiten da EAEn lehen etxebizitza eskuratzeko eskariak behera egiteko 2009az gero antzemandako joera estrukturala; izan ere, urte horretan gehieneko kopurua izan zen: 125.514 lagun eskatzaile.

V.4.9. GRAFIKOA. LEHEN ETXEBIZITA ESKURATZEKO BEHARRA: PERTSONEN ETA BEHAR DIREN ETXEBIZITZEN KOPURUAREN BILAKAERA



Iturria: ETXEBIZITZAREN EUSKAL BEHATOKIA

Horrekin bat, eskaturiko etxebizitza horiek euskal etxeekiko duten pisua neurtzen duen indizeak ere beheranzko joera erakusten du. 2017an, euskal etxeen % 6,4 zen lehen etxebizitza eskuratzeko beharrarekin lotutako eskaturiko etxebizitzen kopurua, 2015ean baino % 1 gutxiago eta 2007ko % 13,2aren erdia baino gutxiago. Bilakaera dinamiko hori dela-eta, lurraldeetako beharraren indizeak antzekoagoak dira, halako moldez non bien arteko aldeak oso txikiak baitziren 2017an. Bizkaiak du beharraren indizerik handiena, % 6,6, baina 2015eko % 7,8koa baino txikiagoa. Gipuzkoan ere nabarmen egin zuen behera indizeak, hots, % 7,5etik % 5,7ra. Araban, bestalde, % 6,2ko indizeari eutsi zion, 2015ean baino hamarren bat gutxiago besterik ez.

V.4.10. GRAFIKOA. LEHEN ETXEBIZITZA ESKURATZEKO BEHARRA: PORTZENTAJEA FAMILIA GUZTIEKIKO



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EBBI 2017

Lehen etxebizitzaren eskatzaileen profila aztertuta ageri denez, kopuru absolutuetan gertaturiko beherakada gehienbat 25-34 urtekoen taldean metatzen da, baina % 21,6 egin du behera 2015aren aldean (49.687 izatetik 38.944 izatera). 35-44 urtekoen kopuruak jaitsiera txikiagoa izan du (-%6,6, 14.456 izatetik 13.500 izatera). Aldi berean, % 11,1 hazi da 18-24 urtekoen taldea (8.692tik 9.657ra). Horrenbestez, eskariaren zatirik handiena bitarteko adinean pilatzen da orain ere; izan ere, eskariaren % 62,7 biltzen du.

Gizonak eskatzaileen % 52,5 dira, eta % 47,5 emakumeak. Ikasketa malari dagokionez, %42,1ek unibertsitate titulua du, % 34,8k lanbide ikasketak eta % 11,8ko bigarren mailakoak. Ikasketak dituztenak % 11,2 dira.

Horrez gain, lehen etxebizitzaren eskatzaileen %38,4k inoren konturako lana eta kontratu finkoa ditu, eta % 45,7k behin-behineko kontratua. Bere kontura lan egiten duten pertsonak % 9,,4 dira, eta % 4 langabezian dago. Etxebizitza motari dagokionez, % 49k alokairua lehenesten du, eta % 36,1ek, berriz jabetza.

V.4.12. TAULA. EAE-N ETXEBIZITZA ESKURATZEKO BEHARRA DUTEN BIZTANLEEN EZAUGARRIAK.

	2011	2013	2015	2017
ADINA				
18 – 24 URTE	14,7	12,9	11,9	15,6
25 – 34 URTE	71,9	73,2	68,2	62,7
35 – 44 URTE	13,4	13,9	19,8	21,7
BATEZ BESTEKO ADINA	*28,8*	*28,0*	*30,3*	..
SEXUA				
EMAKUMEA	48,1	48,6	42,5	47,5
GIZONA	51,9	51,4	57,5	52,5
IKASKETA MAILA				
IKASKETARIK EZ / OINARRIZKOAK	18,0	11,4	11,4	11,2
LANBIDE IKASKETAK	26,0	32,5	35,2	34,8
2. MAILAKO IKASKETAK	10,4	10,6	8,5	11,8
UNIBERTSITATE IKASKETAK	45,6	45,5	44,9	42,1
JARDUERAREKIKO ERLAZIOA				
BERE KONTURA LAN EGITEN DU	7,9	11,0	13,3	9,4
LANDUN FINKOA	69,1	44,1	37,7	38,4
ALDI BATERAKO LANDUNA	14,6	36,6	44,7	45,7
LANGABEA	5,8	5,5	3,0	4,0
BESTE EGOERA BAT ED / EE	2,6	2,9	1,3	2,5
EDUKITZZE ARAUBIDEA				
JABETZA	52,0	36,7	26,5	36,1
ALOKAIRUA	17,8	38,7	52,2	49,0
BATA ZEIN BESTEA	30,3	24,6	22,4	14,9

Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN datuak erabiliz eginikoa. EBBI.

Eskatzeko arrazoia dela-eta, % 70,8k dio familiarengandik emantzipatzea dela arrazoi nagusia. % 27,6k, berriz, bikotean bizitzearekin lotzen du. Gainerako % 1,6k bestelako arrazoiak aipatzen ditu hala nola lanagatik etxebizitzaz aldatu beharra.

Aurkezturiko datuak baloratzean, ezin ahantzi daiteke, ordea, eskaturiko 55.531 etxebizitzetatik bakarrik eskaeren heren batek (% 33,2k) nahikoa sarrera dituela eskaera horri epe laburrean edo ertainean erantzuna emateko; halaxe gertatzen da hiru lurraldeetan, baina Bizkaian hobea da egoera, non eskariaren % 35,1ek nahikoa sarrera dituen. Araban % 28,5ek eta Gipuzkoan % 31,5ek.

V.4.13. TAULA. ETXEBIZITZA ESKURATZEKO ESKARIAREN BANAKETA, SARRERAK IZATEAREN ARABERA. BEHAR DIREN ETXEBIZITZEN KOPURUA. 2017.

	NAHIKOA SARRERAREKIN		SARRERA EZ-NAHIKOAK EDO IRREGUL.		SARRERAK DITUZTENEN ESKARIA
	ETXEBIZ.	B (%)	ETXEBIZ.	B (%)	
ARABA	2.390	28,5	5.993	71,5	8.383
BIZKAIA	10.820	35,4	19.723	64,6	30.543
GIPUZKOA	5.228	31,5	11.377	68,5	16.605
EAE GUZTIRA	**18.438**	**33,2**	**37.093**	**66,8**	**55.531**

Iturria: ESUKO JAURLARITZA. EBEI.

2015aren aldean, gora egin zuen nabarmen benetako eskariak (nahikoa sarrera izateak bermatuta). Hazkunde hori Bizkaian eta Gipuzkoan metatzen da, % 48,4ko eta % 45,7ko hazkunde-tasekin hurrenez hurren; izan ere, Araban % 2,8ko gutxipena ageri da.

Eta lehen etxebizitza eskuratu beharra dutela eta sarreraren bat dutela (nahikoa ez bada ere) adierazten duten 62.100 pertonez gain, behar hori izan arren sarrerarik ez duten 21.982 lagun identifikatu ditu inkestak, eta beraz, guztira 84.082 lagunek adierazi zuten 2017an lehen etxebizitza eskuratu beharra, behar hori betetzeko sarrerarik dutela ala ez aintzat hartu gabe. Hona hemen sarrerarik ez duten pertsona horien ezaugarri nagusiak gainerakoen aldean: gazteagoak dira (% 28,6 25 urtetik beherakoa da), ikasketa maila txikiagoa dute eta langabeak edo ikasleak dira guztiak.

2015aren aldean, pertsona-talde horrek behera egin du nabarmen, % 29,9 orotara, eta beherada bereziki handia da gazteen (-% 52,2 25 urtetik beherakoen artean), ikasketak bukatu gabe dituztenen (-%50,4) eta langabetuen (-%39,5) artean.

b) Aldatzeko beharra

2017. urtean, 75.970 euskal familiak zioen etxebizitza aldatu beharra zuela, guztizkoaren %8,6k. Hau da, % 43ko igoera 2015aren aldean: urte horretan guztizkoaren % 6,2 ziren etxebizitza horiek. Datuok direla-eta, 2011n hasitako goranzko joera itzuli da.

V.4.11. GRAFIKOA. ETXEBIZITZA ALDATZEKO BEHARRAREN BILAKAERA EAE-N



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EBBI 2017.

Hiru lurralde historikoetan izan da igoera nabarmena etxebizitza aldatzeko eskarian, baina Bizkaia nabarmentzen da, etxeen % 57,4ko igoerarekin. Araban eta Gipuzkoan ere egin du gora eskari horrek, % 30,4 eta % 28,4 hurrenez hurren. Ondorioz, Araban % 9koa da beharraren indizea (2015ean baino +1,9 gehiago), eta ondoren Bizkaiak, % 8,9 (+3,1 puntu). Gipuzkoak, bestalde, batez bestekoak baino ratio txikiagoa du (etxeen % 8,6), orotara % 7,9 (+1,6 puntu 2015aren aldean).

V.4.14. TAULA. EAE-N ETXEBIZITZA ALDATZEKO BEHARRAREN KUANTIFIKAZIOA

	ETXEBIZITZAK			BEHARRAREN INDIZEA		
	2013	2015	2017	2013	2015	2017
ARABA	8.818	9.307	12.140	6,6	7,1	9,0
BIZKAIA	41.283	26.042	40.987	9,0	5,8	8,9
GIPUZKOA	11.521	17.784	22.843	4,1	6,3	7,9
EAE	**61.621**	**53.132**	**75.970**	**7,1**	**6,2**	**8,6**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EBEI 2017.

Etxebizitza aldatu behar duten 75.970 familietatik, %35,7k aurreikusten (27.000) hurrengo urtean aldaketari aurre egiteko moduan egotea, hots, 7,2 puntuko igoera 2015eko %28,5aren aldean. Gainera, familien % 45,4k bi urte epean etxebizitza aldatzeko dela adierazi du (34.468 familia) eta gainerako %63,6k ez du uste 4 urte baino lehen aldaketa egiteko moduan izango denik.

Etxebizitzaren tamaina desegokia da orain ere etxebizitza aldatzeko arrazioa; izan ere, hala aipatzen du %37,6k, eta ondoren irisgarritasuna (%14,4) eta egoera txarra (%12,9). Ondoren etxebizitzaren egungo egoera txarra (% 9,2) eta kokapen txarra (% 9,1) daude.

c) Bigaitzeko beharra

EBEIren zenbatespenen arabera, 76.286 euskal familiak behar dute etxebizitza birgaitzeko jarduketa 2017an. Hala, magnitude hori EAEko famili etxebizitza parkearen %10,8,6. Bilakaeraren aldetik ikusten denez, hazkunde nabarmena dago etxebizitza birgaitzeko beharrean 2015aren aldean, bai etxeen bolumenean (% 31,5), bai behar horren intzidentzia erlatiboan (+1,9 puntu portzentual). Epe luzeagoko ikuspegitik, birgaitzeko beharra duten etxeen ehunekoak zenbait gorabeherarekin, 2009tik izan duen beheranzko joera geldiarazi dela esan nahi du (2009an gehieneko kopurua erregistratu zen: birgaitu beharreko 142.099 etxebizitza).

V.4.15. TAULA. ETXEBIZITZA BIRGAITZEKO BEHARRAREN KUANTIFIKAZIOA EAE-N, LURRALDEZ LURRALDE

	ETXEBIZITZAK			BEHARRAREN INDIZEA		
	2013	2015	2017	2013	2015	2017
ARABA	18.132	6.684	9.790	13,5	5,1	7,2
BIZKAIA	44.499	27.612	43.590	9,7	6,1	9,4
GIPUZKOA	27.508	23.720	22.906	9,8	8,4	7,9
EAE	**90.139**	**58.017**	**76.286**	**10,3**	**6,7**	**8,6**

Iturria: EUSKO JAULARITZA. EBEI 2017.

GRÁFICO V.4.12. EVOLUCIÓN DE LA NECESIDAD DE REHABILITACIÓN DE VIVIENDA EN LA CAPV



V.4.13. GRAFIKOA. EAE-KO BEHARRA DUTEN ETXEBIZITZETAN BEHAR DEN ZAHARBERRIKUNTZAREN BILAKAERA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EBBI 2017.

Lurraldez lurraldeko azterketak agerian uzten duenez, Arabak eta Bizkaiak pisu nabarmena dute beharren gehikuntzan 2017an, zeren eta esku-hartze hori beharra duten etxeen kopuruak % 46,5 eta % 57,9 egin baitu gora 2015 eta 2017 bitartean, hurrenez hurren. Gipuzkoan, aldiz, behera egin du beharra duten etxeen kopuruak, % 3,4 hain zuzen. Bilakaera hori gorabehera, Araba da oraindik beharraren tasa txikiena duena, % 7,2. Gipuzkoa, berriz, bitarteko egoeran kokatzen da, % 7,9arekin. Bizkaiak batez bestekoak baino ratio handiagoa du; izan ere, etxebizitzen % 9,4ri eragiten baitio etxebizitza birgaitu beharrak.

Beharrezko birgaikuntzaren ezaugarriei dagokienez, familien erdiarentzat gutxi gorabehera (%49,9), familia-etxebizitzetako elementu pribatuak dira beharraren ardatza (komunak, lurra, berokuntza instalazioa, leihoak aldatzea, etab.) %18ek etxebizitzaren barruan nahiz eraikineko eremu komunetan egin behar ditu birgaikuntza lanak, eta gainerako %32,1 soilik eraikineko eremuetako birgaikuntzari dagokio.

4.3.2. Familien finantza-ahalegina

EAEko familiek etxebizitzak ordaintzeko egin behar duten finantza-ahaleginari dagokionez, Espainiako Jabetzaren, Ondasun Higiezinen eta Merkataritzako Erregistratzaileen Elkargoaren "*Higiezinen Erregistro Estatistikak*" erakutsi du ezen, finantza-ahalegin hori hileko batez besteko hipoteka kuotaren eta soldata-kostuaren arteko erlazioaren ikuspuntutik aztertuz gero, % 28,40koa izan zela 2018ko laugarren hiruhilekoan, hau da, aurreko urtean baino 1,71 puntu portzentual gehiago ditu. Estatuari dagokionez, hor ere goranzko joera ageri da: 2018ko amaieran batez besteko soldata-kostuaren % 30,44 zen (+1,20 puntu portzentual).

V.4.14. TAULA. HILEKO BATEZ BESTEKO HIPOTEKA KUOTAREN ETA SOLDATA-KOSTUAREN ARTEKO ERLAZIOA EAE-N ETA ESTATUAN. IV. HIRUHILEKOAK, DATUAK %-TAN.



Iturria: JABETZAREN ERREGISTRATZAILEEN ELKARGOA. Higiezinen Erregistro Estatistika.

Epe luzeagoko ikuspegitik, azken hamarkadan (2008 eta 2018 bitartean) 19,1 puntutan egin du behera finantza-ahalegin horrek EAEn, eta 17,26 puntutan estatuan

4.3.3. Etxebiden erregistraturiko etxebizitza babestuaren eskaria

Etxebizitzaren Euskal Behatokiak bere "Etxebizitza eskuratzeko beharrei eta etxebizitza-aldaketari buruzko txosten"ean agerian utzi duenez, Etxebiden inskribaturiko etxebizitzaren eskariak % 23,4ko igoera izan zuen 2017an, halako moldez non ekitaldiaren amaieran aurreko urtean baino 12.481 espediente zenbatu baitziren, urtearen amaieran 62.515 eskaera bildu baitziren orotara.

V.4.15. GRAFIKOA. ETXEBIZITZA BABESTUAREN ESKARIAREN BILAKAERA EAE-N, LURRALDEZ LURRALDE



Iturria: Etxebizitza Sailaren datuak erabiliz eginikoa. EUSKO JAURLARITZA.

Hazkunde hori inflexio-puntua da aurreko urteetan izandako dinamikarekiko. 2014 eta 2016 bitartean, aldatu egin zen Etxebiden erregistraturiko eskaera kopurua, 2013an beherakada nabarmenaren ondotik, gehienbat araudi berria

indarrean sartu izanaren ondorioz. Araudiaren aldaketa dela-eta, bi urterik behin berritu behar da inskripzioa nahitaez, bestela baja ematen zaio eskaerari. 2018ko lehen seihilekoan, goranzko joerak jarraitzen zuen, indar txikiagoarekin bada ere.

% 24,1eko hazkundea izan da 2016ko amaieratik inskribaturiko pertsonen kopuruan, halako moldez non 15.796 lagun inskribatu baitziren urte eta erdi eskasean. Babesturiko etxebizitzaren eskariaren igoera hori gertatu zen 2016ko abendutik 2018ko ekainera bitartean eskaria berritzeko oso prozesu biziaren ondorioz. 2018ko ekainean inskribaturiko 40.375 (% 61,4) eskaeretatik (hiru eskaeretatik bi) 2016ko abendutik hona daude egoera horretan. 2018ko ekainean erregistraturiko gainerako espedienteak (25.433 eskaera) alta egoeran zeuden azken 18 hileetan, eskari osoaren % 38,4.

V.4.16. GRAFIKOA. ETXEBIDEN INSKRIBATURIKO PERTSONEK ESKATURIKO ETXEBIZITZA MOTAREN BILAKAERA.



*Iturria. ETXEBIDE. EUSKO JAURLARITZA. * 2013tik alokairua eala erosketa aukeratu beharra dago.*

Hiru lurraldeetan egin zuen gora etxebizitza babestuak 2017an: Araban eta Gipuzkoan % 28,4ko eta % 28,8ko hazkunde-tasak izan ziren hurrenez hurren. Bizkaian, berriz, eskari horrek % 20 egin zuen gora. 2018ko lehen seihilekoan, joera berari eutsi zitzaion, baina, arestian esan bezala, hazkundea motelagoa da: Araban % 7 hazi da, % 7,3 Gipuzkoan eta batez bestekoaren azpitik % 5,3) Bizkaian % 4,3.

Eskaturiko etxebizitza motari dagokionez, 2013tik alokairua edo erosketa aukeratu behar dute inskribaturiko biztanleek, eta 2018ko ekainean (azken datu eskuragarria), alokairuko etxebizitza eskaeren % 81,3 eta erosketako % 18,7 zenbatu ziren. Bilakaeraren aldetik, azken hamarkadan gertaturikoa kontuan hartzen badugu, alokairua 2008an oso aukera urria bazen ere (% 23,4), gaur egun gehien aukeratzen dena da (% 81,3), hots, bere pisua bider 3,5 egin da.

Etxebiden izena emandako pertsonen ezaugarritzea analisiaren ardatz hartuta, 2018koak dira eskuratu ditugun azken datuak. Diru-sarrera mailari erreparatuta ikusten denez, EAEko etxebizitza babestuaren eskariaren %47,6k 9.000 eta 25.000 euro bitarteko urteko diru-sarrera haztatu ditu. Bestalde, %20,3k 9.000 eurotik beherako diru-sarrerak ditu eta %8,3k, berriz, 25.000 eurotik gorakoak. Halaber, %23,8 ez du diru-sarrerarik edo ez du horrelakorik egiaztatzen.

Inskribaturiko pertsonen adinari dagokionez, betidanik gazteak nagusi izan badira ere, gaur egun %49,4k 40 urte baino gehiago ditu. 30 urtetik beherakoak, berriz, %15 dira.

V.4.16. ETXEBIDEN INSKRIBATURIKO BIZTANLEEN EZAUGARRI SOZIODEMOGRAFIKO NAGUSIEN BILAKAERA. EHUNEKOETAN EMANA.

		2013	2015	2016	2018ko ekaina
SEXUA	EMAKUMEA	55,1	51,9	52,3	52,2
	GIZONA	44,9	48,1	47,7	47,8
	GUZTIRA	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**100,0**
SARRERAK	SARRERAK FROGATU GABE	10,5	19,2	23,6	23,8
	GEHIENEZ 9.000 €	20,1	22,2	20,6	20,3
	9.001 - 25.000 €	52,8	48,7	46,6	47,6
	25.001 - 39.000 €	14,6	8,7	8,2	7,3
	39.001 - 50.000 €	2,0	1,1	0,9	0,9
	50.000 € BAINO GEHIAGO		0,1	0,1	0,1
	GUZTIRA	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**100,0**
LAN EGOERA	BERE KONT. LAN EGITEN DU	8,0	5,3	..	..
	LANDUN FINKOA	40,8	38,4	..	..
	ALDI BAT. LANDUNA	21,6	30,0	..	..
	LANGABEA	25,5	18,3	..	..
	BESTE EGOERA BAT	3,6	8,0	..	..
	GUZTIRA	**100,0**	**100,0**	**..**	**..**

Iturria. ETXEBIDE. EUSKO JAURLARITZA.

V.4.17. GRAFIKOA. ETXEBIDEN INSKRIBATURIKO BIZTANLEEN BANAKETA ADINAREN ARABERA. 2018KO EKAINA.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. ETXEBIDE.

Bestalde, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak, 2018an, Etxebideren etxebizitzaren esleipenek 2008-2017 aldian izandako eraginkortasunari buruzko azterlana egin zuen, eta egiaztatu denez, azken hamarkadan etxebizitza babesturako 30.314 esleipen izan ziren EAEn Etxebiden inskribatuta zeuden bizikidetza-unitateen artean. Horretarako, erregistroan baja izan dutenak hartu dira aintzat, etxebizitza babestuaren esleipenagatik edo alokairua sustatzeko Bizigune eta ASAP sustapen programak eskuratu izanagatik. Kopuru horiek abiapuntu hartuta, etxebizitza babestuaren esleipenen eraginkortasun-tasa kalkulatzen da Etxebiden inskribaturiko eskaera guztiekiko.

V.4.18. GRAFIKOA. EAE-N BABESTURIKO ETXEBIZITZAREN ESLEIPENEN BILAKAERA ETA HORREN ERAGINKOTASUN TASA



Iturria: ETXEBIDE. Geuk egina.

Lehen emaitza gisa ondorioztatzen denez, kopuru absolutuetan, 2008 eta 2012 bitartean nabarmena izan zen urteko esleipenen erritmoa eta krisia gorabehera, baina 2013tik jaitsiera handia izan zuten, besteak beste, etxebizitza babestuaren sustapeneko inbertsiorako aurrekontuaren gutxipenak eraginda. Hala, 2008 eta 2012 bitartean, etxebizitza babestua urtero eskuratu zuten 4.350 bizikidetza-unitate izan ziren batez beste urtean. 2013 eta 2017 bitartean, berriz, urtean 1.7120 esleipenera murriztu zen magnitude hori, aurreko aldiko ratioaren % 39 besterik ez.

V.4.19. GRAFIKOA. BABESTUTAKO ETXEBIZITZAREN ESLEIPENEN ERAGINKORTASUN-TASAREN BILAKAERA EAE-N (ETXEBIZITZA INSKRIBATUEKIKO %)



Iturria: ETXEBIDE. Geuk egina.

Bilakaera horren ondorioz, etxebizitza babestuaren esleipenen eraginkortasun-tasak, Etxebiden inskribaturiko eskaerekiko, bilakaera positiboa izan zuen 2012ra arte, eta 2008ko % 2,5etik (2,5 esleipen inskribaturiko 100 eskaera bakoitzeko) 2011ko % 6,4ra hazi zen eta 2012ko % 5,3raino. Harrezkero, nabarmen egin du behera ratioak 2017an % 1,9an kokatzeraino.

Edukitze araubidearen arabera, eraginkortasun-tasarik handienak, betidanik, erosketa eskaeren artean izan dira, eta alde oso nabarmena ageri da alokairuko etxebizitza babestua eskatzen duten bizikidetza-unitateekiko. Soilik 2016an eta 2017an hurbildu ziren bi tasak, erosketaren eraginkortasun-tasaren beherakada handiaren ondorioz. Horrela, erosteko etxebizitza babestuaren eskaeren artean, % 20,4ko eraginkortasun-tasa lortu zen 2010ean eta % 15eko maila gainditu zen 2009 eta 2013 bitartean, aldi horretan etxebizitza babestuaren sustapenaren erritmo nabarmenak bultzatuta. 2015etik hasita, tasa horiek oso nabarmen egin zuten behera, 2017ko % 3,1eraino. Alokairuko etxebizitza babesturako eskaeren eraginkortasun-tasak, aldiz, askoz maila txikiagoetan kokatu dira aldi osoan; izan ere, ia ez da aldatu urteen poderioz. Hala, tasarik handienak 2014an erregistratu ziren (% 3,1) eta, harrezkero, % 1,8raino egin zuen behera 2017an.

4.4. HIGIEZINEN ARLOKO JARDUERA: ETXEBIZITZA SALEROSKETA

Sustapen Ministerioak Notariotza Estatistikatik jasotako datuen arabera, EAEn notarioaren aurrean 22.979 etxebizitza-salerosketa formalizatu ziren guztira 2018. urtean (behin-behineko datuak), hots, %10Eko hazkundea 2017ren aldean (+%9,3 erregistratu zen epealdi berean, Estatuan, non guztira 581,7939 transakzio erregistratu baitziren).

V.4.20. GRAFIKOA. ETXEBFIZITZEN SALEROSKETAREN BANAKETA EAE-N MOTAREN ARABERA



Iturria: SUSTAPEN MINISTERIOA.
** 2018ko datuak behin-behinekoak dira.*

Transakzio kopuruaren bilakaera desberdina da etxebizitza motaren arabera: etxebizitza libre berriaren transakzioak, guztira, 2.783 dira (guztien % 12,1), 2017an baino % 19,7 gehiago. Bigarren eskuko etxebizitzen transakzio bolumenari dagokionez (transakzioen % 81,9 dira), 2018an 18.810 transakzio gauzatu ziren, hots, 2017an baino % 8 gehiago. Hortaz, transakzio guztien +% 10aren azpitik.

Etxebizitza babestuak, etxebizitza libre berriak bezala, joera hobea du: 2018an 1.386 salerosketa gauzatu ziren, 2017an baino %18,7 gehiago. Beraz, etxebizitzaren tarte horrek pisua galdu du transakzioen guztizko kopuruan: 2017ko %5,6tik 2018ko %6ra.

V.4.21. GRAFIKOA. ETXEBIZITZEN SALEROSKETAREN BANAKETA EAE-N LURRALDEZ LURRALDE



Iturria: SUSTAPEN MINISTERIOA 2018ko datuak behin-behinekoak dira.*

Bilakaera horren lurraldez lurraldeko azterketan, agerian gelditzen da EAEn azken urtean ikusitako joera positiboa bereziki handia zela Araban eta Bizkaian (% 12,8ko eta % 12,6ko hazkundeekin, hurrenez hurren). Gipuzkoa, berriz, batezbestekoaren azpitik hazi da, % 4,5. Bilakaera horren ondorioz, Bizkaiak du salerosketa gehien (%53,7), eta ondoren Gipuzkoak (%31,7) eta Arabak (guztien %14,6).

4.5. KRISIAREN ERAGINA: HIPOTEKA-BETEARAZPENAK, JABE-BOTATZEAK ETA UTZARAZPENAK[28]

Krisiak bizi-baldintzetan duen eraginetako bat da gastuak (batik bat hipotekak) ezin ordaintzeagatik etxebizitza galtzen duten familien kopuruak gora egiten duela. Gertakari dramatiko horri buruzko informazioa biltzeko, nahikoa dugu hipoteka-betearazpenen eta jabe-botatze juridikoen kopuruaren bilakaerari begiratzea[29].

4.5.1. Hipoteka-betearazpenak

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak (BJKN) honelaxe definitzen ditu hipoteka-betearazpenak: Lehen Instantziako Epaitegietan izapideturiko prozedurak dira, bahi edo hartzekodunarentzako hipotekaren bidez bermaturiko zorrak ordaintzeko lehen instantziako epaitegietan izapideturiko prozedurak bildu dira, hartzekodunaren aldeko hipoteka eskritura dutenak eta jabetza erregistroan inskribatuak. Komeni da azpimarratzea jabeak ez direla hasten diren betearazpen guztietan botatzen eta prozedura judizialek hipoteka-betearazpenengatiko hainbat ziurtagiri egiteko aukera

V.4.22. GRAFIKOA. EAE-N AURKEZTURIKO HIPOTEKA BETEARAZPEN KOPURUAREN ETA ESTATUKO GUZTIZKOAREKIKO PISUA



Iturria: BJKO. Krisiak organo judizialetan izandako ondorioei buruzko estatistikak.

ematen duela. Gainera, hipoteka-betearazpen horiek pertsona fisiko eta juridikoen hiri-finkenak dira (etxebizitzak, orubeak eta abar barne.

Krisiak organo judizialetan izan dituen ondorioei buruzko urteko estatistika txostenean, BJKNek Euskadiko lehen instantziako epaitegietan aurkezturiko[30] hipoteka-betearazpen erregistratu ziren 2018an, eta jakinarazi zuenez 433 betearazpen erregistratu ziren, hots, % 29,7ko jaitsiera aurreko urtearen aldean. Izan ere, 2010etik era horretako

[28] *Epigrafe honen 2014ko eta 2016ko Memorietan eginiko hipoteka-betearazpenei buruzko azterketa eguneratu eta handitu egin du, baina orduko edizioetan aztertu ziren "Bizi-baldintzak" kapitulua".*

[29] *EGABek, 2014. urtean egindako "EAEko familien gehiegizko zorra: analisia" azterlanean, zehazki "Familien gehiegizko zorraren ondorioak" atalean, 2004-2012 aldiko estatuko eta EAEko hipoteka-betearazpenen bilakaera aztertu du:*
http://www.cesegab.com/Portals/0/Libros/20140327_El %20sobreendeudamiento %20familiar.pdf

30 Aurkeztutako betearazpenen bilakaera aztertu zuten, ez ebatzitako betearazpenena, ezin baita jakin zenbateko eragina duen 2012an ezarritako luzamenduak berez aldakorra den betearazpenen ebazpenen tasan.

.

prozedurek behera egin dute (2016ko igoera txikia izan ezik), 2009an bideratu baitziren betearazpen gehien, 1.255 betearazpen. 2018an aurkezturiko 433 betearazpenak estatuko 27.404 betearazpenen % 1,6 dira.

Lurraldez lurralde, Arabak 66 betearazpen ditu, 2017an baino % 45 gutxiago eta EAEko guztien % 15,2. Bizkaian, berriz, 219 hipoteka-betearazpen erregistratu ziren, aurreko urtean baino % 32,3 gutxiago eta guztizkoaren % 50,6. Bestalde, Gipuzkoak aurkezturiko 148 betearazpen zituen 2018an, aurreko urtean baino % 14,5 eta EAEko guztien % 34,2.

4.5.2. Jabe-botatzeak eta etxegabetzeak

Hipoteka-betearazpena egin eta zenbait hilabete igaro ondoren, higiezinaren desjabetzea etorriko litzateke, zeinen bidez higiezinaren jabetza kentzen zaion pertsona bati, epaileak emandako ebazpena betearazteko. Etxegabetze deritzo prozesu horri, baina termino hori ez da zuzena, zeren eta etxegabetzea soilik alokairu edo errentamendu kasuei baitagokie.

V.4.23. GRAFIKOA. EAE-N JASOTAKO JABE-BOTATZE JURIDIKOEN URTEKO KOPURUAREN BILAKAERA



Iturria: BJKO. Krisiak organo judizialetan izandako ondorioei buruzko estatistikak

EAEn, orotara, 1.801 jabe-botatze gauzatu ziren 2018an (higiezin bakoitzeko jabe-botatze bat zenbatzen da, erabakitako jabe-botatze edo edukitze-ematea duena, sorrarazten duen seinalamendua eta erabakitako prozesua edo prozesuaren fasea edozein delarik ere, betiere higiezinaren jabetza aldaketa badakar berekin, eta landa edo hiri landa den edo etxebizitza bat den ala ez kontuan hartu gabe), 2017an baino % 0,4 gehiago.

Bestalde, lehen instantziako epaitegiek betearazitako jabe-botatzeei esker (eskuragarriak 2013tik), banaketa zein den jakin daiteke: hipoteka-betearazpenak, Hiri Errentamenduen Legearen prozedurak (gehienbat ordaindu gabeko errentei dagozkienak) edo bestelako arrazoiak (arbitro laudoak, familia prozesuak, etab.).

Hala, lehen instantziako epaitegiek 1.191 jabe-botatze betearazi zituzten EAEn 2018. urtean, aurreko urtean baino % 0,4 gutxiago, eta estatuko guztien % 2. Horietatik 235 hipoteka-betearazpenei dagozkie (-%5,6 2017aren aldean), 848 etxegabetze prozedurei (+%1,6) eta 109 bestelako prozedurei (-%3,5). Guztizkorekiko portzentajean ikusten denez, jabe-botatze gehienak biltzen dituzte etxegabetzeek eskuragarri dugun serie osoan, % 71,1 2018an, serie eskuragarriko pisurik handiena. EAEn apenas murriztu da etxegabetzeen kopurua, zeren eta hipoteka-betearazpenen prozedurek behera egin bazuten ere (235 izan ziren, 2017an baino %5,6), gora egin baitzuten Hiri Errentamenduen Legearen ondoriozkoek (HEL), errentak ez ordaintzeagatik.

V.4.24. GRAFIKOA. EAE-N EGINIKO JABE-BOTATZE JURIDIKOEN BANAKETAREN BILAKAERA, ARRAZOIAREN ARABERA



Iturria: BJKO. Krisiak organo judizialetan izandako ondorioei buruzko estatistikak

Berariaz alokairua ez ordaintzearen ziozko etxegabetzeei gagozkiola, Euskadin 2018an eginiko etxegabetzeak (+% 1,6 aurreko urtearen aldean) estatu osoko % 2,3 dira. Lurraldez lurralde, zenbait alde daude bilakaeran: Araban 205 etxegabetze izan iren, 2017an baino % 3,5 gehiago, eta guztizkoaren % 24,2. Gipuzkoan 137 etxegabetze izan ziren, aurreko urtean baino % 14,2 gehiago eta guztizkoaren % 16,2. Bizkaiko bilakaera, aldiz, beheranzkoa da (aurreko urtean % 44,9 hazi zen, ordea): 505 etxegabetze izan ziren, 2017an baino % 2,1 gutxiago, eta gure erkidegoko guztien % 59,6).

V.4.25. GRAFIKOA. ALOKAIRUA EZ ORDEAINTZEAGATIKO UTZARAZPENAK EAE-N



Iturria: BJKO. Krisiak organo judizialetan izandako ondorioei buruzko estatistikak

4.6. BIZILAGUNIK GABEKO ETXEBIZITZAK ETA ETXEBIZITZA HUTSAK: 2017KO DATUAK

V.4.17. TAULA. EAE-KO ETXEBIZITZA PARKEAREN BANAKETA. 2017.

	EAE		ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
	KOP.	ET. %	KOP.	ET. %	KOP.	ET. %	KOP.	ET. %
GUZTIRA	**1.043.590**	**100,0**	**162.985**	**100,0**	**541.178**	**100,0**	**339.427**	**100,0**
OKUPATUAK	949.667	91,0	144.490	88,7	496.543	91,8	308.634	90,9
BIZIL. GABE:	93.923	9,0	18.495	11,3	44.635	8,2	30.793	9,1
- SAIOKOAK	24.693	2,4	7.804	4,8	10.521	1,9	6.368	1,9
- HUTSAK	69.231	6,6	10.691	6,6	34.114	6,3	24.426	7,2

Iturria. Etxebizitzaren Behatokia. EUSKO JAURLARITZA.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak "EAEn hutsik dagoen etxebizitza zenbatzeko eta ezaugarritzeko biurteko inkesta" egin zuen 1997 eta 2015 bitartean, eta eragiketa horren ordez, "EAEko etxebizitzaren erabilerari buruzko inkesta" ezarri zuen 2017an, gure erkidegoan hutsik dagoen etxebizitza parkearen kudeaketaren eta posibilitateen berri izateko, informazio garrantzitsua baita hutsik dagoen etxebizitza mugiarazteko politikak sortzeko.

Etxebizitzaren Euskal Behatokiak bere emaitzen txostenean erakusten duenez, 2017an milioi bat pixka bat gehiago etxebizitza zegoen EAEn, eta horietatik % 91 okupatuta zeuden (% 91,7 2015ean). Eta hutsik dauden etxebizitzen % 9 (ia

94.000 etxebizitza), % 2,4 sasoiko etxebizitzak izango lirateke eta gainerako % 6,6a bertan behera utzitako etxebizitza parkeari dagokio.

Lurraldeen arabera, Bizkaian dago etxebizitza parkearen tasarik txikiena 2017. urtean, % 6,3an kokatuta, hau da, Araban baino 3 hamarren gutxiago eta 9 hamarren Gipuzkoako tasaren azpitik (% 7,2 da). 2015eko datuen aldean, hazkunde nabarmena izan da hutsik dauden etxebizitza kopuruan (% 17,9koa kopuru absolutuetan), eta EAEko tasa orokorrak ere gora egin du: % 5,6tik % 6,6ra.

Udalen tamainari dagokionez, etxebizitza hutsen portzentajea % 12,3koa da 2.500 biztanletik beherako udalerrietan (% 9,4 2015ean). Ratioa % 9,1ekoa da 2.500 eta 10.000 biztanle arteko udalerrietan eta % 8,5ekoa 10.000 eta 20.000 biztanle arteko udalerrietan (% 6,5 2015ean). 20.000 eta 40.000 biztanle arteko udalerrietan etxebizitzen % 7,2 hutsik daude, eta 40.000 eta 100.000 biztanle artekoetan %5,3 (% 4,9 2015ean). Amaitzeko, 100.000 biztanletik gorako udalerrietan, hau da, hiru lurraldeetako hiriburuetan, etxebizitza hutsen ratioa % 4,1ekoa da (% 4,7 2015ean).

V.4.18. TAULA. EAE-N HUTSIK DAGOEN ETXEBIZITZA PARKEAREN BILAKAERA UDALERRIAREN TAMAINAREN ARABERA. 2017.

	DATU ABSOLUTUAK				RATIOA ETXEBIZITZA GUZTIEKIKO		
	2015	2017	15-17 dif.	15/17 %	2015	2017	15-17 dif.
GUZTIRA	**58.697**	**69.231**	**10.534**	**17,9**	**5,6**	**6,6**	**1,0**
< 2.500	6.908	9.093	2.185	31,6	**9,4**	12,3	2,9
2.501 – 10.000	9.773	13.675	3.902	39,9	6,5	9,1	2,6
10.001 – 20.000	10.625	14.047	3.422	32,2	6,5	8,5	2,0
20.001 – 40.000	5.684	8.410	2.726	48,0	4,9	7,2	2,3
40.001 – 100.000	8.194	8.897	703	8,6	4,9	5,3	0,4
> 100.000	17.512	15.109	-2.403	-13,7	4,7	4,1	-0,6

Iturria: Etxebizitzaren Behatokia. EUSKO JAURLARITZA.

GRAFIKOA V.4.26. LURRALDEETATIK JENDEGABETUTAKO ETXEBIZITZETAKO EHUNEKOAREN BILAKAERA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. ETXEBIZITZAREN BEHATOKIA.

Hortaz, 2015 eta 2015 bitartean behera egin zuen hutsik dauden etxebizitzen kopuruak udalerrien tamainen maila guztietan, 100.000 biztanletik gorakoetan izan ezik. Horrez gain, hutsik dauden etxebizitzen presentzia nabarmen txikiagoa da euskal hiriburuetan % 4,1 batez beste, baina lagina dela-eta ez dakigu bakoitzaren daturik. Badakigu, ordea, hiriburu horietako funtzio eremuetarako ratioa: % 5,7 Donostia eremurako, % 5,5 Erdiko Arabarako eta % 5 Bilbo Metropolirako.

Dinamika horren ondorioz, 2017an bizilagunik gabe zeuden 5 etxebizitzetatik bakarra dago euskal hiriburuetan. Herena, berriz, 10.000 biztanletik beherako udalerrietan dago. Era berean, 40.000 biztanletik gorako udalerrietan kokaturiko bizilagunik gabeko etxebizitzak behera egin du: etxebizitza guztien % 43,8tik 2015ean % 34,7ra 2017an.

EAEn bizilagunik gabe dauden etxebizitzen ezaugarri nagusiei helduta, 10etik ia 9k (% 88,3) 100 m^2 baliagarri baino gutxiago dituzte, eta gehienek (% 46,7) 75 - 99 m^2 dituzte. 50 m^2-tik beherako apartamentuen presentzia erlatiboa oso txikia da (% 5,3). Halaber, etxebizitza horien % 52,2k 5 gela dituzte (egongela eta sukaldea barne), eta % 63,4k komuna du (% 35,8k bi ditu). Bestalde, % 65,7k hodi bidezko gas instalazioa dauka, eta % 32,8k instalazio erantsiak ditu (trasteleku gisara).

Hortaz, EAEn bizilagunik gabeko etxebizitzaren bolumena eta ezaugarriak aztertuta, Etxebizitzaren Behatokiak nabarmentzen du etxebizitza horietako zenbait dagoeneko eskainita daudela salerosketako merkatuan eta, neurri txikiagoan, alokairukoan. Horrenbestez, etxebizitza horiek ez dira kudeagarriak hutsik dagoen etxebizitza mugiarazteko programaren ondorioetarako. Halaber, beste batzuk aldi baterako daude hutsik, ezinbestean, jabeen osasunarekin lotutako arrazoiengatik edo lanagatik. Horrexegatik jartzen du arreta "kudeagarriak" deritzen etxebizitza hutsetan: 2017an, guztira, erabat kudeagarriak ziren 34.466 etxebizitza zenbatu ziren, etxebizitza parkearen % 3,3 eta hutsik zeuen etxebizitzen erdia gutxi gorabehera. Horietatik, Bizkaiak 16.456 etxebizitza kudeagarri izango lituzke (parkearen % 3), Gipuzkoak 11.610 (% 3,4) eta Arabak 6,400 etxebizitza (etxebizitza parkearen % 3,9).

V.4.19. TAULA. EAE-N HUTSIK DAUDEN ETXEBIZITZEN PARKEAREN BANAKETA, MOTAREN ARABERA. 2017.

	EAE		ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
	KOP.	PARK.. %-A	KOP.	PARK. %	KOP.	PARK. %-A	KOP.	PARK. %
GUZTIRA, HUTSIK	**69.231**	**6,6**	**10.691**	**6,6**	**34.114**	**6,3**	**24.426**	**7,2**
Eskaintzan	27.563	2,6	3.346	2,1	13.136	2,4	11.080	3,3
*Kudeagarriak	41.668	4,0	7.345	4,5	20.978	3,9	13.346	3,9
** Kudeagarriak, lekuald. aparte	34.466	3,3	6.400	3,9	16.456	3,0	11.610	3,4

Iturria: Etxebizitzaren Behatokia. EUSKO JAURLARITZA.
**** Bigarren etxebizitzarako ez diren etxebizitzak, merkatuan eskaintzen ez direnak (salmenta edo alokairua).***
***** Aurrekoez gain, kanpoan gelditzen dira lanagatik, ikasketengatik, osasunagatik, mendekotasunagatik edo gizarte larrialdiagatik eginiko etxebizitza aldaketak.***

Alabaina, Etxebizitzaren Behatokiak nabarmentzen duenez, baldin eta Etxebizitzari buruzko 3/2015 Legea aplikatzen bada, hutsik dagoen etxebizitza bat etxebizitza mugiarazteko politikaren ondorioetarako kudeagarritzat hartzeko (bi urtez baino denbora luzeagoan inor bizi gabe bertan), 34.466 etxebizitza kudeagarriak 20.840ra murriztuko lirateke, EAEko etxebizitza parkearen % 2 besterik ez. Eta horietatik % 31,6k (6.581 etxebizitza) bizigarritasun baldintza ezin hobeak ditu eta % 28,1ek (5.862) berrikuntza arina behar du. % 21,8k (4.536 etxebizitza) berregokitzeko obra garrantzitsuak behar ditu merkatuan sartu ahal izateko.

4.7. ETXEBIZITZA POLITIKA

4.7.1. Eusko Jaurlaritzako etxebizitza politika

a) 2018-2020ko Etxebizitza Plana

2010. urteaz gero, Eusko Jaurlaritzako etxebizitza politika, funtsean, alokairuko etxebizitza parke publikoa handitzeko eta hiriko zaharberrikuntzako eta berrikuntzako politika berria bultzatzeko helburuetara bideratu da. Era berean, lurra kudeatzeko politika aktiboari eutsi nahi zaio, etxebizitza berriaren eraikuntza sektorea bizkortzeko eta lurralde banaketa orekatuagoa lortzeko, etxebizitza politikaren aldeko baliabideak eraginkortasun handiagoarekin erabiltzeko ingurunean, betiere etxebizitzaren merkatua errotik aldatu dela kontuan hartuta, finantzen krisiak eta higiezinen arloko burbuilak eztanda egin izanaren ondorioz.

V.4.20. TAULA. 2018-2020KO ETXEBIZITZA GIDA PLANA. MILA EUROTAN.						
	2018-2020				HITZARTUTAKO GASTUAK	GUZT.
	2018	2019	2020	GUZT.		
LURRA ESKURATZEA	4.160	7.640	10.500	22.300	11.900	34.200
ERAIKUNTZA	2.000	12.538	22.313	36.850	29.325	66.175
KAPITAL TRANSFERENTZIAK TALDEKO ENPRESENTZAT	12.425	15.040	18.250	45.715	9.630	55.345
- VISESAREN PROGRAMA KONTRATUA	425	5.040	8.250	13.715	9.630	23.345
- ALOKABIDE, ERAGIKETEN BIDEZ	12.000	10.000	10.000	32.000	-	32.000
ETXEBIZITZA ETA LUR SAILEKO DIRULAG. POLITIKAK	129.815	160.208	179.037	469.060	110.874	579.934
- EPB ETA EPO	91.190	94.500	94.500	280.190	-	280.190
- GAZTELAGUN PROGRAMA	-	5.000	11.250	16.250	34.500	50.750
- LURRA ESKURATZEA ETA URBANIZAZIOA	100	450	450	1.000	-	1.000
- ERRENTAMENDUA SUSTATZEA	500	2.699	8.309	11.508	6.205	17.713
- ALOKAIRU SUSTAPENA – SUBSIDIOAK	250	1.320	2.410	3.980	38.770	42.750
- LANDA EREMUETAKO ETXEB. ERABILIAK	100	100	100	300	-	300
- SUSTAPEN ITUNDUAK	500	750	750	2.000	-	2.000
- HUTSIK DAGOEN ETX. MUGIARAZTEA (BIZIGUNE 1 ETA 2)	26.000	29.130	31.057	86.187	-	86.187
- ERAIKUNTZEN BIRGAIKUNTZA	10.000	20.000	20.000	50.000	14.500	64.500
- ALOKAIRURAKO BITARTEKARITZA PROGRAMA	225	280	280	785	-	785
-ETXEBIZITZEN BIRGAIKUNTZA ERAGINKORRERAKO DIRUL.	550	2.577	4.342	7.469	7.076	14.545
- IRISGARRITASUNA	400	3.402	55.89	9.391	9.823	19.214
DIRULAGUNTZEN BESTE POLITIKA BATZUK	2.400	3.350	3.550	9.300	700	10.000
- ERAIKAL	100	400	600	1.100	700	1.800
- BERRIKUNTZA BULTZATZEKO DIRU-LAGUNTZAK	2.300	2.950	2.950	8.200	-	8.200
LANGILERIA ETA FUNTZIONAMENDU GASTUAK	18.488	18.507	18.525	55.520	-	55.520
BESTE GASTU BATZUK	509	1.250	1.500	3.260	2.100	5.360
EGP-REN KOSTUAK 2018-2020	**169.798**	**218.532**	**253.674**	**642.005**	**164.529**	**806.534**
2018 AURREKO KONPROMISIOENGATIKO GASTU FINKOAK	46.369	17.898	8.549	72.817	24.655	97.471
ETXEBIZITZA PROGRAMAREN GASTUEN AURREK., GUZT.	216.167	236.430	26.223	714.821	189.184	904.005

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Etxebizitza Sailburuordetza. 2018-2020 Etxebizitza Plan.

2018tik indarrean dago 2018-2020 Etxebizitza Gida Plana, 6 ardatz estrategikoren inguruan definitua (alokairuko etxebizitza parkea bultzatzea, aurrera egitea babesturiko etxebizitza parkearen kudeaketa eraginkorrean, etxebizitza babestua esleitzeko prozedurak eta eskuratzeko beharkizunak aldatzea, eraikinak mantentzea eta birgaikuntza sustatzea, aurrera egitea etxebizitzaren berrikuntzan eta lankidetza-sareak sortzea, arloko politiken kudeaketa eta integrazio hobeak lortzeko). 806,5 milioi euroko gastua aurreikusten du orotara, eta horietatik 526,3 gastuen aurrekontu bateratuari dagozkio eta gainerako 280,2 milioiak etxebizitza prestazioen zenbatekoari (EPO eta EBP).

V.4.21. TAULA. EUSKO JAURLARITZAKO ETXEBIZITZA SAILAREN GASTUAREN BILAKAERA ETA BPG-AREKIKO PISUA.					
	ETXEBIZITZA SAILAREN GASTUA		EAE-KO BPGd-a PREZIO KORRONT.		SAILAREN % BPG-arekiko
	MILIOI EURO	HAZK. %	MILIOI EURO	HAZK. %	
2011	123,0	-32,6	65.684	0,9	0,19
2012	145,0	17,9	66.776	-1,9	0,22
2013	125,6	-13,3	65.906	-1,3	0,19
2014	107,1	-14,7	66.378	0,7	0,16
2015	99,8	-6,8	68.497	3,2	0,15
2016	108,1	8,3	71.239	4,0	0,15
2017	**143,1**	**32,4**	**73.821**	**3,6**	**0,19**

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren eta EUSTATen datuekin egina.

Haren misioa da "*etxebizitzen alokairuan etxebizitzetako parke publikoaren hazkunde bultzatzea da, eskubide subjektiboa etxebizitzari bermatzeko eta taldeen beharrez zailtasun handiagoekin arduratzeko gai izateko, nahastearen bitartez kohesio soziala, arreta berezia jarriz populazio gazteen emantzipazioan eta zaharkituta dagoen gizarteko adineko pertsonen bizi-kalitatearen hobekuntzarako, eskuragarritasunaren, hobekuntzaren eta eraginkortasun energetikoaren bidez, eta guztia agenteen eta erakundeen artean, publiko eta pribatu, beharrezko kolaborazioarekin*". Ikuspegiari dagokionez, Etxebizitzari buruzko 3/2015 Legea hiru urteko epean garatu nahi da, EAEko etxebizitza politiken jarduketa-esparru orokorra baita, halako moldez non, haren arau-garapenaren, kudeaketa eredu eraginkorraren eta beharrezko baliabideak eskuratzearen bidez, epe luzerako etxebizitza politika iraunkorrerako oinarriak jarriko baitira. Politika horren betetze mailaren berri emango da Memoria honen hurrengo edizioetan.

b) Gastua etxebizitzan

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak betearazitako gasturik handiena 2009an izan zen, 207,4 milioi eurorekin, baina erdira murriztu zen 2015ean (99,8 milioi euroraino), abagune txarraren ondorioz. 2016an, gastuak berriz ere egin zuen gora, 108,1 milioi euroraino (+%8,3), eta atzera 2017an (azken datu eskuragarria), 143,1 milioi euroraino (+% 32,4), hots, EAEko BPGd-aren % 0,19, aurreko urtean baino 3 ehunen gehiago, gastuaren bilakaeraren eta ekonomiaren hazkundearen ondorioz.

Hurrengo ataletan, Eusko Jaurlaritzak 2017an (azken datu eskuragarria) alokairua eta birgaikuntza sustatzeko politiken jarduketa nagusiak azalduko dira, etxebizitza planetako jarraibideak aplikatzeko garaturikoak hain zuzen.

V.4.27. GRAFIKOA. EUSKO JAURLARITZAKO ETXEBIZITZA SAILAREN GASTUA KAPITULUKA MILIOI EUROTAN.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA.

c) Birgaikuntza

Arestian esan bezala, birgaikuntza da Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza politikaren ardatz estrategikoetako bat. 2017ko jarduketei dagokienez, Etxebizitzaren Behatokiaren zenbatespenen arabera, EAEn orotara 15.282 etxebizitza birgaitzeko (+ % 32,5 2016aren aldean) balio izan dute laguntzek, guztira 21 milioi euro (+% 32,9). Bilakaeraren aldetik, nabarmen egin izan du behera birgaitutako etxebizitzen kopuruak eta diru-laguntzen zenbatekoak 2009an inoizko daturik handien izan zenetik; orduan 20.534 etxebizitza birgaitzeko laguntzak eman ziren (22,4 milioi), 2015etik goranzko bideari ekin

V.4.28. GRAFIKOA. EAE-N BIRGAITUTAKO ETXEBIZITZEN BILAKAERA ETA DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. ETXEBIZITZAREN BEHATOKIA.

arte. 2017ko datuei helduta, batez besteko diru-laguntza 1.373 euro da etxebizitzako, aurreko ekitaldian baino % 10 gehiago.

Norbanakoak edo jabeen erkidegoak eska ditzake diru-laguntzak, eta partikularrek diru-laguntzak eska ditzakete elementu pribatuak edo komunak berritzeko. Emandako laguntza gehienak elementu komunitarioak birgaitzeko erabiliko dira 20,6 milioi euro (guztizko diru-laguntzaren %98,2); %1,8 besterik ez da etxebizitza barruko lanetarako.

V.4.29. GRAFIKOA. ETXEBIZITZA BIRGAITZEKO LAGUNTZEN BANAKETA MOTAREN ARABERA. DATUAK %-TAN.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. ETXEBIZITZAREN BEHATOKIA.

Eginiko birgaikuntza motari dagokionez, diru-laguntzen erdia gutxi gorabehera eraikinen egitura eta eraikuntza egokitzeko da (9,9 milioi euro, hain zuzen ere funtsen % 47), eta ondoren eraikinen inguratzailean eginikoak datoz, energia-eraginkortasuna hobetze aldera (5,7 milioi, % 27,2), eta besteak irisgarritasuna hobetzeko obrak (5,2 milioi euro, guztizkoaren % 24,6). Gainerako laguntzetan, askoz kopuru txikiagoak ageri dira eta akabera orokorrak hobetzeko, txosten teknikoak egiteko eta bizigarritasun baldintzak egokitzeko erabiltzen dira.

d) Alokairua

V.4.30. GRAFIKOA ALOKA LIRUA SUSTATZEKOAGUNTZEN BILAKAERA. MILIOI EUROTAN.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. ETXEBIZITZAREN BEHATOKIA.

Lehenik eta behin, Alokairuko etxebizitzen sustapena bultzatzeko xedea izanik, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak, etxebizitza babestuaren zuzeneko sustatzaile gisa jarduteaz gain, diru-laguntzen gaineko politikari eusten dio, eta beste eragile publiko eta pribatu batzuentzako laguntzak ematen ditu alokairu araubidea sustatzeko. 2013an ikusi zenez, behera egin zuten horrelako laguntzek, eta zati batez 2014an berreskuratu zen. 2015ean ez da arlo horretako diru-laguntzarik aitortu (ezta subsidiorik ere), ez delako proiekturik izan. 2017an (eskuragarri dauden azken datuak) berriz ere egin zuten behera alokairua sustatzeko laguntzek: zehazki, 4 milioi euro eman ziren (-%74,5 2016aren aldean), eta 104 etxebizitza sustatzeko modua ekarri dute. Laguntza horietatik % 97,5 diru-laguntzetarako erabili ziren, % 2,5 besterik ez subsidioetarako.

Bigarrenik, Etxebizitza Sailaren "Bizigune" programaren xedea etxebizitzen alokairua erraztea da, jabeek jasotzen dutena baino errenta txikiagoaren truke. Hala, EAEn hutsik dagoen etxebizitzari baliagarritasuna ematen zaio alokairu babestuan jarrita. 2017an, 223,3 eurokoa zen errentariek hilean batez beste ordaindutako errenta. Jabeek, berriz, 480,3 euro jaso zituzten batez beste hilean. Laguntza horien guztizko zenbatekoa 24 milioi euro da, 2016an baino % 23,1 gehiago.

V.4.22. TAULA, EUSKO JAURLARITZAKO BIZIGUNE PROGRAMAKO LAGUNTZEN BILAKAERA.

	HARTUTAKO ETXEBIZ.	DIRU-LAG. (MILIOI €)	EURO/ETXEBIZITZA	
2011	4.802	23,15	4.820,9	2,5
2012	5.102	23,02	4.511,7	-6,4
2013	5.174	20,49	3.959,6	-12,2
2014	4.590	19,27	4.199,0	+6,0
2015	4.589	19,27	4.199,9	0,0
2016	4.499	19,50	4.334,3	3,2
2017	4.639	24,00	5.173,5	19,4

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Etxebizitzaren Behatokia

V.4.31. GRAFIKOA. EUSKO JAURLARITZAKO "BIZIGUNE" PROGAMAREKIN ORDAINDUTAKO ETA JASOTAKO ALOKAIRU ERRENTEN BILAKAERA. DATUAK €/HILEKO.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. ETXEBIZITZAREN BEHATOKIA.

2017ko abenduan atzemandako eta kudeaturiko 4.639 etxebizitzak izanik, % 3,1eko igoera izan da 2016aren aldean, baina oraindik 2013ko gehienekoa baino % 10,3 gutxiago dira (5.174 etxebizitza). Jabeei ordaindu beharreko errentaren gehieneko zenbatekoetan izandako aldakuntzek eragina izan dute etxebizitzen atzematean. Hala, 2013an onartutako murrizketak joera aldaketa ekarri zuen, eta 2016an onartutako igoera, 2017an eragina izanik, badirudi egoera iraultzen hasi dela. Bilakaera horren ondorioz, batez besteko diru-laguntza 5.174,56 eurokoa da etxebizitzako, 2016an baino %19,4 gehiago.

"*Alokabidek*", kudeatzen ditu etxebizitza horiek. Izan ere, sozietate horrek kudeatzen ditu honako hauek, Sailaren beraren alokairuko etxebizitza parkeaz gain (guztizkoaren %27): berezkoak (%33) eta Biziguneren bitartez hartutakoak (%37), EAEko udalen alokairuko parkea (%1) eta ASAP egitarauko etxebizitzen beste %2 bat. 2017an, guztira 12.472 etxebizitza kudeatu ziren, aurreko urtean baino % 4,4 gehiago eta, beraz, 2015ean hasitako goranzko joerari eusten zaio.

V.4.23. TAULA "ASAP" BITARTEKARITZA PROGRAMA. ADIERAZLE NAGUSIAK

	ETXEBIZITZA INSKRIBATUAK	SINATURIKO ERRENTAMENDU KONTRATUAK
2013	54	23
2014	110	68
2015	233	145
2016	254	221
2017	260	209

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren Behatokia.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzak, partikularren arteko errentamendu araubidea bultzatu beharra zegoela-eta, alokairu libreko merkatuan bitartekaritza lana egiteko egitarau berria abiarazi zuen 2002an "ASAP egitaraua" (Alokairu Segurua Arrazoizko Prezioa); Bizigune egitarauak arrakasta izan badu ere, kostu handia dakarkio Sailari. 2017an 209 errentamendu-kontratu formalizatu ziren. Halaber, programak 2016an inskribaturiko 260 etxebizitza zituela dio Etxebizitzaren Behatokiak, aurreko urtean baino 6 gehiago, halako moldez non okupaturiko etxebizitzen tasa % 80,4 baita atzemandako etxebizitzekiko. Era berean, alokairuaren batez besteko errenta, aipaturiko urtean, 459,28 eurokoa da.

4.7.2. Foru Aldundien etxebizitza politika

Eusko Jaurlaritzak garatu duen etxebizitza politikaz gain, interesgarria da gastu fiskalen kopuru handiak ezagutzea, foru aldundiek etxebizitza gaietan esku-hartze publikoa egiteko tresna gisa erabiltzen dituztelako. Azkenik, 2019an eginiko "Euskadiko etxebizitzarekin loturiko politika fiskala: *gastu fiskalaren norainokoa eta eragina*" izeneko txostenak, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak hiru foru aldundietako 2011-2017ko ekitaldietan (azken hori behin-behineko datua da) PFEZren ziozko likidazioen datuak oinarrituta eginak, nabarmentzen du, lehenik eta behin, euskal ogasunek 2.789 milioi euro gutxiago kobratu dituztela etxebizitzarekin loturiko PFEZren kenkari fiskalengatik, bestela esanda, urtean 399,8 milioi euro batez beste.

V.4.32. GRAIKOA. ETXEBIZITZAREN ARLOKO KENKARIAREN ZIOZKO IRPF-KO GASTU FISKALA. MILA EUROTAN.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Etxebizitzaren Behatokia.
** 2017ko datuak behin-behinekoak dira.*

Gastu fiskalaren zenbateko horrek PFEZren kenkariarekin du zerikusia, etxebizitzaren erosketarengatik (eta etxebizitza kontuengatik), nahiz alokairuagatik birgaikuntzagatik, neurri desberdinean bada ere: etxebizitza erosteko pizgarrien zioz 2011-2017 aldian kobratzeari utzitako 2.261 milioi eurorekin du zerikusia gasturik handienak (guztizkoaren % 80,8). Alokairuaren ziozko kenkariarekin lotutako gastu fiskala, berriz, 367 milioi eurokoa izan da epealdi berean (etxebizitza guztien % 16,8. Azkenik, birgaikuntzaren lotutako gastu fiskala guztizkoaren % 2,4 besterik ez da izan, 67 milioi euro.

Azken ekitaldia ardatz hartuta eta datu bateratuak izanik, hauxe nabarmentzen da: etxebizitzaren ziozko kenkarien zenbatekoa, 2016an, 379,15 milioi euro izan zen, 2015ean baino % 0,7 gehiago. Kenkari horiek PFEZren ziozko zerga-bilketa guztiaren % 7,8 dira eta zerga-bilketa osoaren % 3, baita EAEren BPGd-aren % 0,6 ere urte horretan (behin-behineko datuak dira). Halaber, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak urte horretan betearazitako gastuaren (108,1 milioi euro) %516 da, aurreko atalean ikusi den legez. Bestalde, 2017ko aurreikuspenaren arabera, gora egingo lukete kenkari horiek, % 0,4, 380,79 milioi euroraino[31].

V.4.33. GRAFIKOA. ETXEBIZITZA KENKARIEN ZENBATEKOAREN BILAKAERA PFEZ-N ETA KENKARI GUZTIEKIKO PISUA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Zergak koordinatzeko organoa eta Etxebizitzaren Behatokia. Geuk egina.

Behatokiak nabarmentzen duenez, azken urteetan gastu fiskala murrizteko prozesu motela gertatu da, etxebizitzaren erosketarekin lotuta. Alokairukoa, ordez, hazi egin da, askoz pisu txikiagoa badu ere. Nolanahi ere, erosketarekin loturiko gastu fiskala oraindik ia 300 milioi eurokoa zen 2016an (guztizkoaren % 76,1, eta % 78,1 etxebizitza kontuak ere aintzat hartzen baditugu); alokairuarekin loturikoak, berriz 75 milioi dira (etxebizitza kenkarien % 19,9). Ohiko etxebizitza birgaitzeko kenkariari lotutako gastu fiskalak oraindik oso garrantzi txikia du, % 2 ekitaldi horretan.

Bestalde, nahikoa egonkor eutsi dio azken urteetan etxebizitzari lotutako PFEZn kenkari motaren bat sartzen dituzten aitorpenen kopuruak. 2016an, guztira 313.937 aitorpenek baliatu zuten ohiko etxebizitza erosteagatiko kenkaria (etxebizitzagatiko z09.196 kenkarien % 76,7k). Alokairuaren ziozko kenkarian, berriz, kopuru txikiagoa da, hain zuzen ere 77.616 aitorpen (aitorpen guztien % 19). Hortaz, kopuru horiek bat datoz EAEko etxebizitzaren merkatuaren errealitatearekin, non jabetza araubidearen pisu erlatiboa oraindik ere askoz handiagoa baita.

[31] *Komeni da gogoraraztea 2013ko ekitaldian oro har kendu zirela etxebizitzaren erosketari dagokion PFEZren kenkariak, EAEn eta Nafarroan izan ezik, eta 2015etik hasita, alokairua ordaintzeagatiko kenkari orokorrak kontratu berrietan. Nafarroako Foru Erkidegoak, berriki, kenkari horiek kendu dituenez gero, gaur egun EAE da kenkari mota horiei eusten dien autonomia erkidego bakarra (solik zenbait erkidego eusten diete zenbait kenkari autonomikori alokairua ordaintzeko eta, nolanahi ere, garrantzi txikikoak dira talde eta kasu oso zehatzetarako baitira).*

V.4.34. GRAFIKOA. ETXEBIZITZAREN ZIOZKO KENKARIA DUTEN PFEZ-REN AITORPENEN BANAKETA, MOTAREN ARABERA. 2016.



Iturria: ETXEBIZITZAREN EUSKAL BEHATOKIA, Foru Aldundien datuekin. 2016ko ekitaldiko PFEZren likidazioak.

Errenta tarteen arabera (likidazio-oinarria), diru-sarrera gutxien dituzten zergadunen artean metatzen da alokairuaren ziozko kenkaria, (18.000 euro baino gutxiago dituztenak), halako moldez non kenkarien erdia baino pixka bata gehiago, % 52,8, diru-kopuru horretatik beherako sarrera duten aitorleei dagokie, eta kontrako muturrean, % 7,9k baino ez du 42.000 eurotik gora aitortzen. Inbertsioaren ziozko kenkariari dagokionez, berriz, onuradunen taldeak urtero 18.000 eta 42.000 bitarteko kopuruak kobratzen dituztenen segmentuekin daude lotuta: 18.000 eta 30.000 euro bitarteko sarrerak dituzten zergadunen pisu erlatiboa %40,6 eta %24 bitartekoa da 30.000 eta 42.000 euro bitartean.

V.4.35. GRAFIKOA. ZERGADUNEN KOPURUAREN BANAKETA ETXEBIZITZAREN EKNKARI MOTAREN ETA SARRERA MAILEN ARABERA. PORTZENTAJEZKO DATUAK, 2016.



Iturria: ETXEBIZITZAREN EUSKAL BEHATOKIA, Foru Aldundien datuekin. 2016ko ekitaldiko PFEZren likidazioak.

ITURRIAK

1. **EUSKO JAURLARITZA**. Higiezinen Eskaintzaren Estatistika. 2018ko IV. Hiruhilekoa
2. **EIN.** Etxebizitzaren Prezioen Indizea. 2018ko IV. Hiruhilekoa. Abagunekoa.
3. **SUSTAPEN MINISTERIOA. ETXEBIZITZAREN ETA LURRAREN BEHATOKIA.** Estatistika Aldizkaria. 2018ko abuztua, Hilekoa
4. **EUSKO JAURLARITZA**. Eraikuntzaren Estatistika. 2018ko IV. Hiruhilekoa. Abagunekoa.
5. **ETXEBIZITZAREN EUSKAL BEHATOKIA.** Babes publikoko etxebizitzaren eta babestutako birgaikuntzaren azterketa historikoa autonomia erkidegoen arabera.
6. **EUSKO JAURLARITZA.** Etxebizitzaren beharrari buruzko inkesta. 2017. Biurtekoa. Estrukturala.
7. **JABETZAREN ERREGISTRATZAILEEN ELKARGOA.** Higiezinen Erregistro Estatistika. 2018ko IV. Hiruhilekoa.
8. **SUSTAPEN MINISTERIOA**. Etxebizitzen salerosketen estatistika. 2018ko IV. Hiruhilekoa. Hiruhilekoa. Abagunekoa.
9. **BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA.** Krisiak organo judizialetan izan duen eraginari buruzko estatistikak. 2017ko IV. Hiruhilekoa. Abagunekoa.
10. **EUSKO JAURLARITZA.** EAEko etxebizitzaren erabilerari buruzko inkesta. 2017ko urtea Biurtekoa. Estrukturala.
11. **EUSKO JAURLARITZA.** 2018-2020ko Etxebizitza Gida Plana.
12. **ETXEBIZITZAREN EUSKAL BEHATOKIA.** Etxebizitza politiken ebaluazio txostena 2017. Urtekoa. Abagunekoa.
13. **ETXEBIZITZAREN ESUKAL BEHATOKIA.** Etxebizitzari lotutako politika fiskala EAEn 2017. Gastu fiskalaren norainoko eta eragina. Urtekoa. Abagunekoa.
14. **EUSKO GOBIERNO VASCO. ZERGAK KOORDINATZEKO ORGANOA (2017)**. Euskal Ogasunaren urteko txosten integratua 2017. Urtekoa. Abagunekoa.

5. BIZI-KALITATEA: LABURPENA ETA ONDORIOAK

5.1. LABURPENA

5.1.1. Hezkuntza eta Kultura

Hezkuntza

EUSTATen arabera, 2017/18 ikasturtean 375.318 ikasle [32] matrikulatu ziren unibertsitatez kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzan EAEn, hots, % 0,5eko hazkundea aurreko ikasturtearen aldean.

Hezkuntza Berezia alde batera utzita dugun matrikulazioko datuei helduta eta mailen arabera bereizita, hauxe ikusten dugu: mailarik baxuenetan (haur eta lehen hezkuntza) 219.648 ikasle daude matrikulatuta: 89.023 Haur Hezkuntzan (-% 2,3, gehi aurreko aldietako jaitsierak) eta 130.625 Lehen Hezkuntzan (+% 0,9, aurreko urteko igoerari gehituta); Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan 83.225 (+% 2,3) eta 4.607 ikasle (+% 5,1) Oinarrizko Lanbide Heziketan.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoari dagokionez, batxilergoan 30.398 pertsona matrikulatu dira eta 14.520 maila ertaineko heziketa zikloetan. Gradu ertaineko LHn eta Batxilergoan hazkunde bera gertatu da (% 0,6). Goi mailako heziketa zikloetan 21.505 pertsona matrikulatu egin dira, aurreko ikasturtean baino % 2,3 gehiago.

EUSTATen 2016/17 ikasturteko datuen arabera, Lanbide Heziketan ikasle guztien ia % 65 gizonezkoak dira, baina Batxilergoan proportzio orekatuagoa da: ikasle guztien % 53,2 emakumeak dira eta % 46,8 gizonak.

Ikastetxeen titulartasunari dagokionez, Haur eta Lehen Hezkuntzetan matrikulazioen erdia baino gehiago ikastetxe publikoetan gertatzen badira ere (% 52,3 eta % 51,6, hurrenez hurren), kontrakoa gertatzen da DBHn, halako moldez non handiagoa baita sare pribatuko matrikulazioa (% 53,6 eta % 46,4). DBH ondorengo irakaskuntzari dagokionez, hauxe dugu: Batxilergoko matrikulazioa sare pribatukoa baino pixka bat handiagoa da (% 50,4 publikoan eta % 49,6 publikoan), LHn nagusi dira zentro pribatuetako matrikulak (% 62,6 gradu ertaineko LHn eta % 55,2 goi graduko LHn).

Izaera profesionaleko ikasketetan sakonduz, EUSTATen arabera, hauek dira ikasleen kopururik handiena bildu zuten erdi mailako heziketako lanbide-taldeak: Osasuna (% 15), Fabrikazio Mekanikoa (% 14,5), Elektrizitatea eta Elektronika (% 9,3), Ibilgailu autopropultsatuen mantentzea/Garraioa eta ibilgailuen mantentzea (% 7,9), Administrazioa eta kudeaketa (% 7,5), Mantentzea eta ekoizpenerako zerbitzuak/Instalazioa eta mantentzea (% 7,2) eta Gizarte-kulturako zerbitzuak eta komunitaterako zerbitzuak eta Informatika (bietan % 6,8). Goi mailako graduko titulazioen artean, hauek nabarmentzen dira: Fabrikazio mekanikoa (% 14,9), Administrazioa eta Kudeaketa (% 11,3), Elektrizitatea eta Elektronika (% 11,2), Gizarte-kulturako eta komunitaterako zerbitzuak (% 10,3), Informatika eta Komunikazioak (% 8,6), Osasuna (% 7,1) eta Mantentzea eta ekoizpenerako zerbitzuak/Instalazioa eta mantentzea (% 6,7).

Emakumeen parte-hartzea oso handia izan ohi da irudi pertsonalean (partaidetza-ratioak % 90etik gorakoak dira gradu ertainean nahiz goi graduan). Bigarren multzoa honako adar hauek osaturikoa da: Osasuna, Gizarte-kulturako zerbitzuak eta komunitaterako zerbitzuk eta Ehungintza, ebaketa eta larrugintza (% 75 - % 90 bitarteko artioak, graduaren eta adarraren arabera) eta Nekazaritza-elikagaien industriak (% 63,6ko ratioa goi graduan). Ondoren, Administrazioa eta kudeaketa, Kimika eta Merkataritza eta marketina nabarmentzen dira.

Alabaina, emakumeek lanbide ikasketetan duten partaidetzaren batez bestekoa txikiagoa da oraindik ere gizonena baino (gradu ertainean % 34,3 da eta goi graduan % 35,2, eta gizonenak, berriz, % 65,7 eta % 64,8). Halaxe gertatzen da emakumeen matrikulazioa oso txikia delako profil teknikoagoko lanbide-adarretan. Gainera, laneratze hobea duten lanbideak izaten dira. Hala, emakumeen matrikulazioa % 11 besterik ez da kasurik onenean Elektrizitatean eta elektronikan, Fabrikazio mekanikoan, Ibilgailuen garraioan eta mantentzean eta Instalazioan eta mantentzean.

[32] *Helduentzako hezkuntza eta araubide bereziko irakaskuntzak alde batera utzita*

Unibertsitateko ikasketei dagokienez, 2016-17 ikasturtean 66.286 ikasle zeuden matrikulatuta EAEko unibertsitateetan, hots, %0,8ko jaitsiera aurreko ikasturtearen aldean. Ikasleen % 72,8 unibertsitate publikora doa eta %27,2, berriz, unibertsitate pribatuan matrikulatu da. Bestalde, sexuaren araberako banaketak emakumearen aldeko diferentzia erakusten du unibertsitatean (%53,1 emakumeak dira). Alabaina, Lanbide Heziketako matrikulazioan gertatzen denez, emakumeek unibertsitateko adar teknikoetan (Ingeniaritza eta arkitektura) duten partaidetza txikiagoa da gizonena baino (% 28,3 eta % 71,7). Alabaina, matrikulek azken sei urtean izandako bilakaera ikusita, gizonen presentziak % 1,9 egin du gora. Emakumeenak, berriz, % 0,3.

Lanbide Heziketako matrikulazioan gertatzen den bezala, emakumeen parte-hartzea txikiagoa da unibertsitateko adar teknikoetan (Ingeniaritza eta arkitektura) gizonezkoek erakusten dutena baino (% 27,4 eta % 72,6).

Unibertsitate-graduazioari dagokionez, datuek erakusten dute % 5,8ko jaitsiera egon dela, 12.867 pertsonara heldu arte; horietatik % 56 emakumeak dira. Graduko ikasketei erreparatuz[33], ikaslerik gehienak Gizarte eta Zuzenbide Zientzien arloko ikasketetan graduatu ziren (% 50,4), eta ondoren Ingeniaritza eta Arkitekturakoetan (% 22,3). Neurri txikiagoan: Osasunaren Zientziak (% 14,4), Arteak eta Giza Zientziak (% 8) eta Zientziak (% 5,1). Sexu desberdintasunak ageri dira ikasketa-adarra aukeratzean: emakumeek gehienbat Osasunaren Zientziak (% 76,7), Arte eta Giza Zientziak (% 66,7), Gizarte eta Lege Zientziak (% 63,4) eta Osasunaren Zientziak (% 59,7), irakaskuntza teknikoen aldean (% 28,2).

Hezkuntza adierazleei dagokienez[34]:

- 20 urtetik gorakoen goi mailako hezkuntzako eskolatze-tasa garbia.

  2015-16 ikasturtean, Goi-mailako Hezkuntzako eskolatze-tasa garbia 20 urterekin % 40,2 izan zen 28ko EBn. Portzentajerik handienak Eslovenian (% 57), Grezian eta Irlandan (% 56), Belgikan eta Lituanian (% 54) eta Espainian (% 49,3) izan ziren, eta txikienak, berriz, Luxenburgon (% 8), Danimarkan (% 21), Suedian (% 23), Finlandian (% 27) eta Alemanian (% 28).

  Goi-mailako Hezkuntzako eskolatze-tasa Espainian adin horretan (20 urte) Europako bate bestekoa baino 9,1 puntu handiagoa zen (% 40,2), eta EAEkoak 22,6 puntutan gainditzen du (% 62,8). Autonomia erkidegoen rankinean, EAEk Goi-mailako Hezkuntzako bigarren eskolatze-tasarik handiena zuen 20 urteko adinean, Madrilen atzetik (% 68,8).

- Ikaskuntza iraunkorrean parte hartzea.

  EAEn, 2017an 25-65 urteko biztanleen % 13,2k hartu zuen parte prestakuntza iraunkorreko jardueraren batean (Europako helburua: % 15). Autonomia erkidegoen rankineko ratiorik handiena da, eta 28ko EBko ratioaren gainetik ere badago (% 10,9). Alabaina, EBko datuek erakusten dutenez, oso egoera desberdinak daude herrialdeen arabera, eta Europako iparraldeko herrialdeen ehuneko altuak nabarmentzen dira: Suedia (% 30,4), Finlandia (% 27,4) eta Danimarka (% 26,8).

- Hezkuntzako gastu publikoa administrazio motaren arabera.

  Hezkuntzako gastu publikoa, 2015ean, BPGd-aren %5,1 izan zen 28ko EBn, estatuko % 4,16koaren gainetik. Honatx ratiorik handienak dituzten herrialdeak: Suedia (% 7,05), Finlandia (% 6,75), Belgika (% 6,43), Zipre (% 6,4), Erresuma Batua (% 5,68), Frantzia (% 5,47) eta Austria (% 5,43).

---

[33] Graduko ikasketak hartzen dira erreferentziatzat, Bolognako Planeko ikasketen egitura dagoeneko finkatuta baitago.

[34] Hezkuntza-adierazleen bilakaeraren laburpena egin da ondoko erreferentziak iturri nagusitzat erabilita:
- Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren datu-basea
- Hezkuntzako adierazleen estatuko sistema, 2018ko edizioa. Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa
- EUSTAT erakundearen Irakaskuntzaren estatistika.
- Hezkuntzaren gaineko zifrak Espainian, 2018ko edizioa, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioarena.
- Eusko Jaurlaritza. Zehatzago aztertu nahi bada, irakurri dagokion atala memoria honen barruan.

Hezkuntzako gastu publikoa, 2017an, 48.980 milioi eurokoa izan zen estatuko administrazioetan [35] eta unibertsitatetan, hots, BPGd-aren % 4,2 (2016an: % 4,22).

Hezkuntzako administrazioen gastua, autonomia erkidegoetan (Hezkuntza sailak eta sailburutzak), 41.082 milioi euro izan zen 2017an (BPGd-aren % 3,52). EAEn, gastu hori 2.740 milioi eurokoa da (aurreko urtean 2.642,16 milioikoa), hots, BPGd-aren % 3,83, estatuko ratioa baino % 0,31 gehiago eta 2016koa baino % 0,31 gutxiago.

Europako eta erreferentziako herrialdeetako batez bestekoarekin konparatzeko, guztizko gastuak izan ditugu aintzat (administrazio guztiak). Horrenbestez, EAEko eta Europako batez bestekoak (lurralde gehiago izateagatik) ez dira zuzenean konparagarriak, baina nahikoa hurbilketa zuzena ematen digute, eta horiek oinarrituta esan dezakegu gure Erkidegoak gastu publiko txikiagoa duela BPGd-aren gainean arloko erreferentziako herrialdeek baino.

Unibertsitate-hezkuntza eta unibertsitatez kanpoko hezkuntza bereizita, EAEn, BPGd-aren gaineko hurrenez hurreneko ratioak % 3,07koa eta % 2,7koa izan ziren, estatuan baino handiagoak Unibertsitatetik kanpoko hezkuntzan, baina ez Unibertsitateko Hezkuntzako esfortzuan (% 0,62 eta % 0,76).

Aldi berean, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren gastua (hezkuntza-arloa) 2017an 2.788,8 milioi eurora heldu zen. Horrenbestez, % 7,7ko hazkundea zen aurreko ekitaldiarekiko. Partaidetza hori, Eusko Jaurlaritzaren guztizko gastuan, % 25,8koa izan zen, aurreko urtekoa baino handiagoa (% 25). Gastu horrek EAEko BPGd-aren % 3,78 hartzen du, 2016an erregistratutakoa baino handiagoa (% 3,63).

Bestalde, 2018ko aurrekontuetan, Hezkuntza Sailak soilik hezkuntzara bideraturiko partidan, 2.629,3 milioi euro izan ziren. Hots, % 2ko gehikuntza aurreko urteko aurrekontuko gastuaren aldean. Eusko Jaurlaritzaren gastuen aurrekontuan duen partaidetza portzentajea % 22,9 da. Hau da, EAEko BPGd-ren %3,43ko gastua. 2017an, berriz, %3,49koa zen.

- Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako gastu publikoa ikasle bakoitzeko. Estatuko erkaketa

  Hezkuntza, Lanbide Heziketako Ministerioaren arabera, unibertsitatez kanpoko hezkuntzako gastu publikoa ikasleko (publikoa eta itundua), EAEn, 6.502 euro izan zen 2016an, hots, berriz ere EAE lehen tokian dago autonomia erkidegoen rankinean. Hotsa, % 0,4ko jaitsiera 2013ko gastuaren aldean, eta estatuan, berriz, % 6,8 da. Estatuko batez bestekoa 4.879 euro zenez gero, ikasle bakoitzeko gastua % 33,3 handiagoa izan zen EAEn Estatuan baino.

  Unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoko ikasle bakoitzeko gastu publikoa, 2016an, 9.504 eurokoa zen EAEn, eta hori dela-eta, berriz ere dugu EAE ikasleko gasturik handiena duen erkidegoa. Hots, % 1,3ko jaitsiera 2013aren aldean, eta estatuan, berriz, % 7,2ko igoera izan zen. Estatuko batez bestekoa 5.607 euro zenez gero, ikasle bakoitzeko batez besteko gastua ikastetxe publikoetan % 61,5 handiagoa izan zen EAEn Estatuan baino.

- Ikasleko gastuak (PPS erabiliz bihurturiko euroak) hezkuntza erakundeetan. Nazioarteko erkaketa[36]

  2015ean, ikasleko gastua 6.517 euro izan zen estatuan, hezkuntza erakunde publikoetako eta pribatuetako gastua denean, eta 7.019 euro erakunde publikoak direnean. Bi gastu horiek hauexetakoak baino txikiagoak dira: Irlanda, Alemania, Frantzia, Herbehereak, Erresuma Batua, Finlandia, Malta, Belgika, Zipre eta Suedia eta Austrian eta Luxenburgo erregistraturikoetatik urrun.

- Hezkuntzako gastua ikasle bakoitzeko.

[35] *Finantza atalak kenduta, gorabeherak desagerrarazi eta nazioarteko erkaketa egin daiteke.*

[36] *Adierazle honek, besteak ez bezala, erakunde publiko eta pribatuetan gastu publikoa nahiz pribatua kontuan hartzen du, lanerako prestakuntza sartzeaz gain eta eurotan kalkulatuta dago. Dena den, EAPa erabilita bihurtu dira.*

Hezkuntzan ikasle bakoitzeko egindako gastuaren ratioa (ikasleak guztira, hau da, araubide orokorrekoak[37] eta berezikoak[38]), 2016 eta 2017 bitartean, berriz igo zen eta 5.328 eurotik 5.732 eurora igaro zen.

- Egokitasuna ikaslearen adinean.

  2016-17 ikasturtean, EAEko 8 urteko ikasleen % 94,1 Lehen Hezkuntzako 3. mailan zegoen matrikulatuta, adin horretako kurtso teorikoan; 10 urtekoetan, etapa horretako 5. mailako ikasleen tasa 3 puntu txikiagoa da (% 91,1). DBHko adinetan, egokitasun-tasek behera egiten dute adinean gora egin ahala. Emakumeen egokitasun-tasak gizonezkoenak baino handiagoak dira. Hala ere, eboluzio-datuak aztertuta ondorioztatzen denez (2006-07 eta 2016-17 ikasturteen artean), beheranzko joera du emakumeen eta gizonen artean, emakumeen alde betiere.

- Ikasle errepikatzaileak

  2015-16 ikasturtean, ikasle errepikatzaileen batez besteko ratiorik txikiena duen bigarren autonomia erkidegoa da, Kataluniaren atzetik, Lehen Hezkuntzan (EAEn % 2,3 eta % 0,9 Katalunian) nahiz DBHn (EAEn % 6 eta % 5,4 Katalunian). Estatuko batez besteko portzentajeak % 3 eta % 10,1 dira, hurrenez hurren. 2010-11 alditik 2015-16 aldira, murriztu egin zen derrigorrezko hezkuntzako errepikatzaileen portzentajea.

- Eskola- eta trebakuntza-uzte goiztiarra.

  Beheranzko joera du, eta 2017an 28ko EBko batez bestekoa (% 10,6) baino % 7 txikiagoa izan zen, eta estatukoaren azpitik ere bai (% 18,3). Hala, EBk 2020rako ezarritako % 10eko helburua lortu du EAEk.

- Goi-mailako ikasketetako titulua dutenen portzentajea gazteen artean

  - 25-29 urtekoak: 2017an, 28ko EBko 25-29 urtekoen % 38k goi mailako ikasketak zituen, eta Zipre (% 58,2), Irlanda (% 53,5) eta Lituania (% 52,8) ziren baliorik handienak zituztenak. Txikienak, berriz, Errumanian (% 24,8), Italian (% 26,8), Hungarian (% 28,2) eta Alemanian (% 28,6). Espainian, % 44,3koa izanik, EBko batez bestekoaren (% 38) gainetik dago, 6,3 puntu gehiago, eta EAEk, % 60,4koa izanik, EBko estatu guztien gainetik dago.

  - 30-34 urtekoak: 2017an, 28ko EBko *30 - 34* urtekoen % 39,9k goi-mailako hezkuntza titulua zuen (Europako helburua: % 40). Honatx portzentajerik handienak dituzten herrialdeak: Lituania (% 58,0), Zipre (% 55,8), Irlanda (% 53,5) eta Luxenburgo (% 52,7), eta txikienak Hungarian (% 32,1), Kroazian (% 28,7) eta Italian (% 26,9) daude. Espainiak (% 41,2) eta EAEk (% 55,1) lortu dute dagoeneko Europako helburua 2020rako: % 40 izatea.

    Berriz ere gure erkidegoek du estatuko ratiorik altuena eta EBko estatuetako altuenetako bat. Soilik Lituania (% 58) eta Zipre (% 55,9) ditu aurretik.

- Unibertsitate-adierazleak.

  <u>Errendimendu, uzte, aldatze eta egokitasun tasak 2016-2017 ikasturtean: Graduko eta masterreko ikasleak</u>

  Graduko ikasleen *errendimendu-tasa*, EAEn, % 81,2 izan zen, estatuko batez bestekoaren gainetik (% 77,7). EAE bosgarren postuan dago autonomia erkidegoen rankinean. EAEren kasuan, emakumeek gizonak gainditzen dituzte ehunekozko 10,9 puntutan (% 86,2 % 75,3ren aldean). Unibertsitate guztien batez bestekoarekin erkatuta, EAEko ratioa handiagoa da (% 93,6 eta % 89,3). Hala, EAEk laugarren tokia du autonomia erkidegoen rankinean. Euskal emakumeen ehunekoa gizonena baino 2,9 puntu handiagoa da (% 95 eta % 92,1).

---

[37] *Unibertsitarioa eta ez-unibertsitarioa.*

[38] *Arte plastikoak eta diseinua, hizkuntzak, musika, dantza, kirola eta diseinuko goi mailako ikasketak.*

Graduko ikasleen *arrakasta-tasa*, EAEn, % 89,7 izan zen, estatuko batez bestekoaren gainetik (% 87,8). Gure erkidegoak hirugarren tokia du autonomia erkidegoen rankinean. Euskal emakumeen ehunekoa gizonena baino 6,3 puntu handiagoa da (% 92m5 eta % 86,2). Masterreko ikasleena, berriz, % 98,9 izan zen, estatuko batez bestekoaren gainetik (% 98,3). Gure erkidegoak seigarren tokia du autonomia erkidegoen rankinean. Euskal emakumeen ehunekoa gizonena baino puntu bat handiagoa da (% 99,4 eta % 98,4).

Graduko ikasleen ikasketen lehen urteko *uzte-tasa* % 15,4 izan zen 2014-15 ikasturtean sartu zirenen ikasle-tartean, batez bestekoaren azpitik (% 21,5). EAEk laugarren uzte-tasarik txikiena du. Masterreko ikasleen ikasketen lehen urteko uzte-tasa % 7,2 izan zen 2014-15 ikasturtean sartu zirenen ikasle-tartean, batez bestekoaren azpitik (% 12,1). EAEk bosgarren uzte-tasarik txikiena du.

Graduko ikasleen ikasketen lehen urteko aldatze-tasa % 7,7 izan zen 2014-15 ikasturtean sartu zirenen ikasle-tartean, batez bestekoaren azpitik (% 8,2). Gure erkidegoak zazpigarren tasarik txikiena du. Masterreko ikasleena estatuko batez bestekoa baino % 1 txikiagoa da (% 1,6). EAEk laugarren aldatze-tasarik txikiena du.

Azkenik, 2014/15 ikasturtean hasi ziren lau urteko graduko ikasleen egokitasun-tasa % 44,4 da (estatuko batez bestekoa baino 10 puntu gehiago); soilik Nafarroa dago aurretik % 44,8arekin. 2016/17 ikasturtean hasi ziren masterreko ikasleen egokitasun-tasa % 88,2 da iraupen teorikoko urtebeteko masterretan (estatuko batez bestekoa baino handiagoa, % 70,4). Hala, EAEk laugarren aldatze-tasarik txikiena du.

Nazioartekotzea: Espainiako Unibertsitate Sisteman (EUS) sartzea eta irtetea.

EAEko unibertsitateetan 2016/2017 ikasturtean nazioarteko 3.101 ikaslek ikasi zuten, 2015/16 ikasturtean baino % 13,3 gehiago. Estatuko igoera % 15,3koa izan zen (94.962tik 109.522ra).% 58 emakumeak ziren eta % 42 gizonak; hala, gehienak unibertsitate publikoan matrikulatu ziren (guztizko kopuruaren % 57,4). Jatorriko herrialdeari dagokionez, 28ko EBkoak nabarmentzen dira EAEn nahiz Estatuan (guztien %50,9 EAEn eta guztien %48,5 estatuan), baita Latinoamerikakoak ere (% 34,4 EAEn eta % 30,3 estatuan).

Mugikortasun programa dela-eta euskal unibertsitatean sartzen diren atzerriko unibertsitatean matrikulaturiko ikasleen ehunekoa (doktoregoko ikasleak barne) % 3,4 izan zen (estatuko batez bestekoa % 4 da).

Bestalde, EAEko unibertsitatean matrikulaturik dauden eta mugikortasun programa dela-eta atzerriko unibertsitatera doazen ikasleen ehunekoa (doktoregoko ikasleak sartu gabe) %5,7 izan zen (estatuko batez bestekoa: % 3,1), Estatuko ratiorik handiena alegia. Sartzen diren eta ateratzen diren ikasleen kopuruaren arteko kozienteak erakusten du, Estatuan, ateratzen diren 100 ikasle bakoitzeko 140 sartzen direla; EAEn, aldiz, egoera aurkakoa da. Izan ere, ateratzen diren 100 ikasle bakoitzeko 60 sartzen dira soilik eta hori ratiorik baxuena da Extremadurakoarekin batera.

- Shangaiko Unibertsitate-rankina.

Espainiak, 2018an, 10 unibertsitate zituen TOP 500en (2017an 11 izan ziren eta 2016an 12). Rankineko lehena Bartzelonako Unibertsitatea da, mundu mailako TOP 200 delakoan kokatuta. Ondoren, TOP 200koen artean, Madrilgo Konplutensea, Pompeu Fabra eta Granadako Unibertsitatea daude.

UPV-EHU, 2018an, rankineko TOP400koen artean zegoen, eta zazpigarren tokia zuen estatuko rankinean, Bartzelonako Unibertsitatearen, Madrilgo Konplutensearen, Pompeu Fabra Unibertsitatearen, Granadako Unibertsitatearen, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoaren eta Madrilgo Autonomoaren atzetik.

Kultura

Eusko Jaurlaritzak eginiko *Eusko Soziometroaren* arabera, irakurtzeko ohitura hedatuago zegoen 2014an gaur egun baino. Bestalde, egunero musika entzutea ohikoagoa zen 2018an 2006an baino. Eta telesailak edo filmak ikustea (telebistan, on line zuzenean edo erositako edo grabatutako oinarri digitalean) da azken urtean sortu den ohituretako bat, eta 2018an astean hainbat alditan egiten zen, edo egunero.

Kultura eta Kirol Ministerioaren "*Kultur Estatistiken Urtekaria*"ren arabera, kultur enpresen kopuruak behera egin zuen EAEn 2016 eta 2017 bitartean, % 5,6 hain zuzen ere, 5.804 enpresa orotara. Enpleguak, aldiz, % egin zuen behera, 34,9 mila lagunetik 32,1 mila lagunera. Estatuan, epealdi berean, gora egin zuen enpresen kopuruak, % 2,1, eta % 4,7 enpleguak. EAEn kultur enpresetan lan egiten duten 32,1 mila lagun horiek EAEko lanpostu guztien % 3,6 dira, aurreko urtean baino ratio txikiagoa (% 3,9). Ratio hori dela-eta, kulturako lanpostu gehien dituzten lau erkidegoen artean dago EAE, Madril (% 5,7), Katalunia (% 4,7) eta U. Balearrak (% 4,2) erkidegoen atzetik.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoak kulturan 2016an likidaturiko gastuak %1,1 egin zuen behera 2015aren aldean HKKMren arabera. Gastu horiek gure Erkidegoaren BPGd-ren %0,15 da, autonomia erkidego guztietako batez bestekoaren gainetik (% 0,09). Biztanleko gastua, EAEn, 49,1€ zen 2016an, 2015ean baino % 0,5 gutxiago, eta handiagoa da Estatuko batez bestekoa baino (22,7€).

Bestalde, euskal familiek kultur ondasunetan eta zerbitzuetan eginiko gastua, 2017an, 644,7 milioi euro, hots, % 8,5eko jaitsiera. Etxeko batez besteko gastua 714,6 eurokoa izan zen (-% 8,7 aurreko urtearekiko). Pertsona bakoitzeko gastua 300,5 euro izan zen, 2016an baino % 8,8 gehiago, estatu osoko batez bestekoa baino % 4,1 handiagoa. Hala, EAE zortzigarren tokian dago gehien gastatzen duten rankinean, Madril, Nafarroa, Balearrak, Asturias, Murtzia, Katalunia eta Errioxaren atzetik.

5.1.2. Ingurune naturalaren egoera

Airearen kalitatea, Eusko Jaurlaritzak emandako informazioaren arabera, nabarmen hobetu da azken urteotan EAEn.

Ur-kontsumoa dela-eta, EINen "Uraren hornidurari eta saneamenduari buruzko estatistika"ren arabera, 167,3 Hm^3 -koa izan zen 2016an herria hornitzeko EAEn erregistraturiko eta banaturiko ur bolumen guztia, hots, % 9,5eko jaitsiera 2014aren aldean. 167,3 Hm^3 horietatik % 81,5 (136,5 Hm^3) erregistraturiko ur bolumenak izan ziren, eta gainerakoa erregistratu gabekoak.

136,5 Hm horietatik 88,6 Hm^3 (guztizkoaren % 64,9) etxeak hornitzeko erabili ziren; 38,3 Hm^3 (%28,1) sektore ekonomikoetarako (industria, zerbitzuak eta abeltzaintza) eta 9,6 Hm^3 (%7) udal kontsumoetarako (lorategiak ureztatzea, kaleak garbitzea eta bestelako erabilerak). 2014aren aldean, udal kontsumoek % 0,9 egin zuten gora. Etxeko eta sektore ekonomikoetako kontsumoak, berriz, % 3,6 eta % 15,3 jaitsi ziren, hurrenez hurren.

Erregistratu gabeko ura itxurazko galeretan (neurketako akatsak, iruzurrak eta gutxi gorabeherako kontsumoak) eta benetako galeretan (ihesak, hausturak eta matxurak saneamendu sarean) bereizten dira. Azken horiek sare horietara hornitutako ur guztiaren % 8,4 izan ziren 2016an, 2014an izandako (% 8,9) eta Estatuan balioetsitako (% 16,7) portzentajeak baino askoz txikiagoak izanda.

EAEko uraren per capita kontsumoa berriz ere da Estatuko batez bestekoa baino txikiagoa da berriz, 112 litro/biztanle/egun (136 litro Estatuan), baina %3,4ko igoera ageri da 2014 eta 2016 bitartean. Estatuan, berriz, %3ko jaitsiera gertatu da. Uraren aleko balioa 1,94 euro/m^3 izan zen, hots, beste igoera bat, kasu honetan % 10,9koa, 2014koaren aldean. Estatuan pixka bat handiagoa izan zen batez besteko prezioa (1,95 euro/m^3).

Hondakinen ***sorkuntzaren eta kudeaketaren*** arloan, "Hondakinen bilketari eta trataerari buruzko estatistika. Hiriko hondakinak: 2010-2016ko sortak", EINek eginikoak, agerian uzten duenez, 2016an, hiriko hondakinen enpresa kudeatzaileek 987.223 Tn hiri hondakin bildu zituzten 2016. urtean, aurreko urtean baino % 4,3 gehiago. Gehienak (% 67,9) nahastutako hondakinak izan ziren, baina ratio hori estatukoa baino txikiagoa da (% 82,5). 2015aren aldean, nahastutako hondakinek % 0,4 egin zuten gora, eta gaika bildutakoak % 13,8 hazi ziren. Estatuan, bestalde, nahasturikoetan % 1,7 igoera izan zen, eta gaika bildutakoetan, berriz, neurri bereko jaitsiera izan zen.

Per capita terminoetan, biztanleko 456 Kg hiri hondakin bildu ziren, 2015ean baino gehiago (437,4 Kg/biztanle) baina estatuko batez bestekoa baino gutxiago (471). Hondakin moten arabera bereizita, hauxe dugu: nahastutako 306,4 Kg

hondakin biztanleko, paper eta kartoien 58,7 Kg hondakin biztanleko, beira hondakinen 27 kg biztanleko eta ontzi mistoen eta bilgarrien 18,1 kg biztanleko.

Hiri hondakinen kudeaketa aztertzeko xedearekin, eta EINek horri buruz autonomia erkidegoen araberako informaziorik eskaintzen ez duenez, Eusko Jaurlaritzaren "*EAEko Hiri Hondakinei buruzko Estatistika*" erabiliko dugu. Horren arabera, EAEn 515 Kg hiri hondakin kudeatu ziren biztanleko (Estatuan, berriz, 437,4 zenbatetsi ziren). 515 Kg/biztanle horietatik, 111 energiaren aldetik balioztatu eta errautsi ziren, 173 birziklatu eta 24 konpostari dagozkio (ongarri organikoa). Gainerakoak, hau da, 171 kg, hondakindegira eraman ziren.

Guztizko hondakin arriskutsuak eta ez-arriskutsuak bereizita, Eusko Jaurlaritzaren arabera, 2015 eta 2016 bitartean % 6,4 egin zuen behera kudeaturiko hondakin ez-arriskutsuen kopuruak, eta arriskutsuenak, berriz % 1,9. Hala, kudeaturiko 3.307.978 Tm hondakin ez-arriskutsu izan ziren eta arriskutsuak, berriz, 321.628 Tm. Hori dela-eta, hondakin arriskutsuak hondakin guztien % 8,9 izan ziren. Ez-arriskutsuak, aldiz, % 9,1.

Hondakin horien 2016ko kudeaketari dagokionez, hondakin arriskutsu guztien % 54,3 birziklatu edo konposterako erabili zen, % 3,4ri balioa eman zitzaion energiaren aldetik eta gainerako % 42,3 desagerrarazi zen. Horrez gain, hondakin ez-arriskutsu guztien % 66 birziklatu edo konposterako erabili zen, % 1ri balioa eman zitzaion energiaren aldetik, eta gainerako % 32,2 desagerrarazi zen.

Azkenik, ***EINen industriak ingurumen-basean eginiko gastuari buruzko inkestaren*** azken datuek erakusten dutenez, gastu horrek % 2,6 egin zuen gora EAEn 2016. urtean (gastu arrunta eta inbertsioa) 2015aren aldean. Hala, hautsi egin da aurreko urteetan izandako beheranzko joera. Intentsitatearen aldetik, egonkortasuna ageri zen 2016an 2015aren aldean, % 0,26an kokatuta, estatuko batez betekoa baino handiagoa (% 0,19). Hala, EAEk berriz ere hartu zuen zazpigarren tokia 2016an gehien gastatzen duten erkidegoen rankingean, hauexek atzetik: Nafarroa (% 0,41), Asturias (% 0,37), Kantabria (% 0,34), Gaztela-Mantxa (% 0,32), Errioxa (% 0,30) eta Murtzia (% 0,28).

5.1.3. Osasuna eta Osasun Sistema

EUROSTATen eta Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera, EAEko **Bizi-itxaropena** (EI) eta EBko kideetan izandakoa alderatuz gero ondoriozta daitekeenez, gure Erkidegoak bizi-itxaropen handiagoa du Espainiako estatuarekin batera emakumezkoetan (86,5 eta 86,3 urte, hurrenez hurren), eta 19ko euroguneko batez bestekoa 84,6 urtean kokatzen da; 28ko EBkoa, berriz, 83,6 urtean. Bestalde, gizonezkoek laugarren bizi-itxaropen handiena dute (80,3 urte), hauexen atzetik: Italia (81), Malta eta Suedia (80,6) eta Zipre (80,5). 19ko eurogunearen batez bestekoa 79,3 urtekoa da.

Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizateko Ministerioaren arabera, BUO 2015ean gure Erkidegoan 68,3 urtekoa izan zen gizonezkoetan eta 68,8 urtekoa emakumezkoentzat. BI (2016ko datua) 86,5 urtekoa izan zen emakumekoetan eta 80,3 urtekoa gizonezkoetan, hots, jarduteko muga duen bizitzako 17,7 urtekoa emakumezkoetan eta 12 urtekoa gizonezkoetan. 17,7 Emakumeak gizonak baino 6,2 urte gehiago bizi ziren 2016an. Hala ere, jarduteko mugarik gabeko urteen batez bestekoa urtebete gehiagokoa izan zen soilik.

Orain, **ospitaleko hilkortasuna** aztertuko dugu. EUSTATen arabera, ospitaleratze guztietatik, ohikoenak digestio aparatuko gaixotasunak izan ziren (% 13,3), ondoren zirkulazio sistemakoak (% 12,7), arnas aparatukoak (% 11,4), tumoreak (% 9,9) eta traumatismoak eta lesioak (% 8,9).

Haurdunaldiaren eta erditzearen ziozko laguntza kontuan hartu ezean, 61 urtekoa izan zen ospitaleraturikoen batez besteko adina, eta handiagoa da (72 urte) zirkulazioaren gaixotasunetan. Tumoreetan izan ezik, bularreko minbiziak emakumeengan duen eragina dela-eta, gizonen ospitaleratzearen batez besteko adina goiztiarragoa izan zen emakumeengan, eta alderik handiena traumatismoen eta lesioen ziozko ospitaleratzeetan kokatu zen (53 urte, eta emakumeengan, berriz, 66 urte).

Hilkortasunari dagokionez, EUSTATen arabera, 2017an 80,4 urtean kokatzen da batez bestekoa (77,2 gizonezkoentzat eta 83,6 urte emakumeentzat). Urte berean, heriotzen %66,1 80 urtetik gorakoen artean gertatu zen, aurreko urteko ratioa baino handiagoa (% 65,3). Hala, 80-89 urtekoen taldeko heriotza kopurua 8.310 da; 90-99 urtekoetan, 5.633, eta 99tik gorakoetan, berriz, 345.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren arabera, hauexek dira gizonezkoen heriotza goiztiarraren hiru kausa nagusiak (2010-2017 aldiko datuak): trakeako, bronkioetako eta biriketako tumore gaiztoak; kardiopatia iskemikoak eta suizidioak eta nork bere buruari eginiko lesioak. Emakumezkoei dagokienez, hauek dira lau kausa nagusiak: bularreko tumore gaiztoak, trakeako, bronkioetako eta biriketako tumore gaiztoak, obarioetako tumore gaiztok eta suizidioak eta nork bere buruari eragindako lesioak.

Bizitzako ohiturei dagokienez, ohitura horiek osasuntsuak izatearen arabera, determinanteak dira osasunean. Jarraian, osasunean eragina duten determinante ez medikoetako zenbait azalduko ditugu. Zehazki, gorputzeko masa-indizea eta aisialdiko sedentarismoa.

2017ko Espainiako Osasunaren Inkesta Nazionalaren arabera (2017ko EOIN), gure Erkidegoan 18 urte eta gehiagoko biztanleen % 13,8 pertsonari eragiten zien obesitateak 2017an (estatuko batez bestekoa baino % 3,6 gutxiago -%17,4-). Autonomia Erkidegoen sailkapenean, bigarren obesitate-tasarik txikiena du EAEk. Gainpisua ere aintzat hartuz gero, % 49,8k obesitatea edo gainpisua du (estatuko batez bestekoa baino % 4,7 gutxiago -% 54,5). EAEk bigarren tasarik txikiena du. Bilakaeraren aldetik, 2017ko EOINen emaitzak eta aurrekoak alderatu behar ditugu, hots, 2011/12an eginikoarekin. Ikusten denez, behera egin dute obesitate eta gainpisuaren prebalentziek. Estatuan, berriz, gora egin dute. Sexuaren arabera, EAEn 2011/12an obesitatea edo gainpisua zuten emakumeen portzentajea % 42,3 zen, baina behera egin zuen 2017an: % 41,6. Gizonezkoei dagokienez, ratioek ere behera egin zuten: % 61,9tik % 58,3ra. Hots, behera egin zuten portzentajeek bi sexuetan eta gehiago gizonezkoetan.

Sedentarismoari dagokionez, 2017ko OINen datuen arabera, gizonen % 28,3k eta emakumeek % 32,5ek ez zuten nahikoa ariketa fisikoa egiten (pertsona sedentarioak), eta ratio horiek Estatutukoak baino txikiagoak dira (gizonen % 31,9 eta emakumeen % 40). 2017ko EOINen emaitzak eta 2011/12an eginikoaren emaitzak erkatuta ikusten denez, sedentarismoak behera egin du EAEn nahiz Estatuan, eta bereziki emakumeen artean, baina oraindik gizonezkoenak baino tasa txikiagoak dituzte.

Jarraian, Euskadiko laguntzako baliabideen eta jardueraren zenbait adierazle azalduko ditugu Osakidetzaren datuak erabiliz. 2017an, laguntza eskariak pixka bat gora egin zuen. Hala, sarerako batez besteko okupazio orokorraren indizea handitu egin zen 2016aren aldean, % 77tik % 79,7ra. Batez besteko egonaldia ere 5etik 6ra luzatu da.

Itxaronzerrendei dagokienez, Datu horiek Osasun Sistema Nazionaleko itxaronzerrendei buruzko Informazio Sistemak (IZIS-OSN) ematen dituenekin erkatuta ikusten denez, oinarrizko espezialitateetan, 2017ko datuekin, osasun-txartela duten pazienteen kopurua handiagoa 1.000 biztanleko estatuan baino espezialitatea hauetan: Ginekologian (1,3 eta 2,9), Oftalmologia (1,4 eta 8,1), Traumatologia (5 eta 8,2), Dermatologia (1,4 eta 6,1) eta ORL (0,8 eta 2,9); antzekoa da, berriz, hauexetan: Neurologian (1,7 eta 2,2) eta Urologia (1,2 eta 2); eta handiagoa Kirurgian Orokorrean eta Digestio Aparatuan (3,8 eta 1,9), Digestio sisteman (6 eta 2,4) eta Kardiologian (2,6 eta 1,7). Arreta jasotzeko hilabetetik gora itxaroten duten pazienteen ehunekoari dagokionez, adierazleak zuzenean konparagarriak ez badira ere, estatuan egoera ez dela hain hona ematen dute aditzera.

Kirurgiako itxaronzerrendei dagokienez, horietako pazienteen kopuruak berriz ere egin zuen behera EAEn berriz ere 2017an; jada sei urtez jarraian izan da jaitsiera. Zehazki, 2016 eta 2017 urte bitartean 17.343 pertsona izatetik 17.281 pertsona izatera, hots, 7,6 pazientetik osasun-txartela duten mila biztanleko; Estatuko 13,1eko batez bestekoaren azpitik dago ratio hori. Pixka bat behera egin du batez besteko berandutze-egunen kopuruak (50,3 egunetik 49,6 egunera), Estatuan izandakoa baino txikiagoa (106 egun). Bestalde, ebakuntza egiteko 3 hilabetetik gora itxaron behar duten pazienteen ehunekoa handitu egin da EAEn, hots, %14,3tik %13ra.

Kapitulua amaitzeko, osasun sistemaren **gastua aztertuko dugu**.

EUSTATen datuen arabera, osasunean izandako guztizko gastua 2016an, ELGAren Osasunaren Kontuen Sistemaren metodologiaren arabera kalkulatua %2,9 igo da 2015ekin alderatuta, eta guztira 6.172 milioi dira. Hots, EAEko BPGd-aren % 8,7. Zenbateko horren %70,3 (4.336,9 milioi) finantzazio publikoari dagokio eta %29,7 (1.834,6 milioi) finantzazio pribatuari.

ELGAk eskaintzen dizkigun beste adierazle batzuk nazioarteko herrialde batzuekin erkatzeak erakusten duenez, BPGd-aren ehunekoa ELGAko batez bestekoaren azpitik dago EAEko portzentajea. Izan ere, gure Erkidegoan % 8,7koa da eta ELGAn, berriz, % 9,0koa. Alabaina, BEAko per capitak osasun gastua (berdintasunez erosteko ahalmena $-tan) 4.283 da EAEn, hots, ELGAko batez bestekoaren gainetik: 4.003. Adibidez, Finlandia (4.118) eta Espainia (3.257). Taulako beste muturrean Suitza (7.824) eta Norvegia (6.175).

Eusko Jaurlaritzaren 2017ko aurrekontuko likidazioaren datuen arabera, Osasunaren atalak (ez da Kontsumoa sartzen), 3.612,5 milioi euro izanik, lehen tokian jarraitzen du baliabideen portzentajean, hots, guztizko gastuaren %33,4 da, non programa nagusia Osakidetzaren transferentziei dagokien eta BPG nominalaren % 4,89 den, aurreko urteko portzentajea baino pixka bat handiagoa. Kopuru absolutuetan, 2016 eta 2017 bitartean, likidaturiko gastua 97,6 milioi euro handiagoa da (+%2,8).

Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioaren arabera, gure Erkidegoa da osasunean biztanleko[39] gastu publikorik handiena egiten duena azterturiko aldian (2007-2018). Zehazki, 2018an, behin-behineko datuen arabera, 1.733,4 euro da. EAEren kopuruetatik hurbil daude Nafarroa (1.646,3 euro), Asturias (1.637,2), Extremadura (1.524), Aragoi (1.56,1) eta Gaztela eta Leon (1.487).

EAEko Kontu Orokorrak oinarri hartuta Osakidetzak egiten duen aurrekontu-likidazioak erakusten duenez, erakundeak eginiko gastua, 2017an, 2.870,5 milioi euro zen. Hots, berriz ere handitu da gastua, zehazkiago %4,9 2016 eta 2017 urte artean. Hau da, BPG nominalaren %3,9 da, aurreko bi urteetako ratio bera.

Azkenik, 2013-2020ko Osasun Planaren betearazpenari dagokionez, adierazleetatik 68ren gaineko informazio eguneratua dago. 68 horietatik, 2020ko helburua beteta dago edo helbururanzko joera erakusten dute 35 adierazlek, 16k hobekuntza erakusten dute oinarrizko egoeraren gainean, baina egungo joerarekin, ez da aurreikusten 2020rako helburua betetzea. 17 adierazletan egoerak okerrera egin du oinarriko egoerarekiko.

5.1.4. Etxebizitza

Lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzaren "Higiezinen Eskaintzaren Estatistikak" erakusten duenez, etxebizitzaren guztizko eskaintzak (salmenta gehi alokairua) % 10,2 egin zuen behera 2018an (-% 17,1 2017an), eta laugarren hiruhilekoan 24.954 etxebizitza zenbatetsi ziren. Azken urtean, eta aurreko hiru urtean ez bezala (etxebizitza mota guztien eskaintzak behera egin zuen, babesturiko alokairuak izan ezik), hazi egin da etxebizitza berri librearen eskaintza (+%21,7), eta aldi berean, gora egin du alokairuak, libreak (+% 21,6) nahiz babestuak (+% 68,7). Etxebizitza motaren arabera, datu hauek nabarmendu behar ditugu:

- Salgai dauden etxebizitza libre berrien eskaintza %21,7 hazi da, eta horien batez besteko prezioa 3.247,7-koa da 2018ko laugarren hiruhilekoan, 2017an baino % 0,8 gehiago. Lurraldekako azterketak erakusten duenez, batez besteko txikiagoa dago Araban (2.528,7 €/m). Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, 3.250 €/m^2 eta eta 3.408,8 €/m^2 dira hurrenez hurren.
- Saltzeko eskainitako BOEren batez besteko prezioa 1.777,7 €/m^2 zen 2018an, aurreko urtean baino %1,6 gehiago. Eskaintza 2018ko laugarren hiruhilekoan 1.056 etxebizitzakoa zen, aurreko urtean baino %12,2.

[39] *Datuek osasuneko aurreko aurrekontuak islatzen dituzte, autonomia erkidego bakoitzaren mailan bateratuak, hain zuzen autonomia erkidegoek beren aurrekontu bateratuetan sartutako erakundeei dagozkienak. Beraz, baztertuta gelditzen dira fundazioak, partzuergoak, enpresa publikoak eta osasunaren arloan jarduerak egiten dituen eta gutxi gorabeherako aurrekontua duen beste edozein erakunde publiko.*
Biztanleriaren datuak EINek argitaraturiko erroldari dagozkio.

- Eskaintzan dauden bigarren eskuko etxebizitzen stockean %15,7ko jaitsiera dago eta haien batez besteko prezioa 2018an 2.755,6 /m^2 zen, aurreko urteko batez bestekoa baino %0,1 gutxiago. Lurraldeen arabera, Bizkaian eta Gipuzkoan jaitsi egin dira salneurriak, -% 0,9 eta -% 1 hurrenez hurren. Araban, berriz, % 3,1 egin du gora. Horren ondorioz, prezioak Bizkaiko 2.839,4 €/m^2-ren eta Arabako 2.400,7€/m^2-ren artean daude, eta Gipuzkoa tartean geratzen da, batez beste 2.728,3 €/m^2-rekin.
- Alokairuan eskainitako 2.091 etxebizitzako eskaintza zenbatu da, aurreko urtean baino %39,1 gehiago. Libreei dagokienez (eskaintzaren %54,9), berriz, %21,6 handitu da: 944 etxebizitzatik 1.147 etxebizitzara, alokairuko etxebizitza babestuetan %68,7 egin du gora 2018an. Beraz, babesturiko alokairuak gora egin du: alokairuaren %37,2 2017an eta %45,1 2018an. Bestalde, EAEko alokairuko etxebizitza babestuen batez besteko errenta, 2018an, 318,9 euro zen hilean, aurreko urtean baino % 3,2 gutxiago.
- Azkenik, alokairuan eskainitako etxebizitza libreen laginak 1.043 euroko batez besteko errenta du hilero 2018an, urtebete lehenago baino % 10,5 gehiago. Lurralde historikoen artean, Gipuzkoak du preziorik altuena (1.129,5 € hilean); ondoren Bizkaia dator, 962,2 € hilean, eta azkenik Araban (860,7 € hilean). Bilakaerari buruzko azterketan ageri denez, bereziki hazkunde handia dago Gipuzkoan (+% 19,6) eta Araban (+% 21,3), eta txikiagoa Bizkaian (+% 0,7).

Memoria Sozioekonomiko honen edizioan, berritasun gisa, etxebizitzen alokairuko errenten konparazioa eman da autonomia erkidegoen arabera, Sustapen Ministerioak argitaraturiko datuekin, betiere Fotocasa eta Idealistan higiezinen atariak oinarri hartuta. Horren arabera, preziorik altuenak Katalunian eta Madrilen zeuden 2017an, hain zuzen ere 12-14 euroan etxebizitzako metro koadroa. Hirugarrenik, U. Balearrak daude Idealistaren arabera, eta EAE, Fotocasaren kopuruak hartuz gero. Hala, EAEko alokairuaren batez besteko errenta 10,7 metrokoa izango litzateke metro koadroko, eta 11,2koa bestearen arabera, bietan 8,2 eta 9 euro/m^2, batez beste, estatu osoan. Bilakaerari dagokionez, goranzko joera ageri da, bai EAEn, bai estatuko batez bestekoan, baina handiagoa estatu osorako EAErako baino. Hortaz, bien arteko diferentziak gutxituz doa.

Eraikuntzaren jarduerari dagokionez, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak agerian utzi duenez, hasitako etxebizitzen guztizko kopurua, 2008an eta 2009an nabarmen jaitsi ondoren, goranzko bidean hasi zen 2010-2011 biurtekoan, nabarmen hazita betiere. 2012 eta 2015 bitartean, ordea, behera egin izan du hasitako etxebizitzen kopuruak, neurri desberdinean, hain zuzen ere %15 aldiko azken urtean. 2016an, hasitako etxebizitzak % 89,6 hazi ziren aurreko urtearen aldean, eta 2017an % 24 egin zuen behera (azken datua). Hasitako etxebizitzetatik %68,5 libreak ziren eta %31,5 babestuak. Badakigu zein diren hasitako etxebizitza babestuei buruzko 2018ko zifrak (ez dago merkatu libreari buruzko informaziorik): guztira 1.878 hasi ziren, 2017an baino %39,7 gehiago. 2010ean izan ezik, hasitako etxebizitza babestuak behera egin zuen 2007tik 2015era, eta berriz ere gora egin zuen azken hiru urtean.

Bestalde, EAEn 2018an amaitutako etxebizitzak 4.421 dira, aurreko urtean baino %18,3 gehiago, amaitutako etxebizitza libreen igoeraren (%140,6) eta babestutakoen igoera txikiagoaren (+%5,4) baturaren emaitza gisa. Horren ondorioz, aurten murriztu egin da etxebizitza babestuak EAEko eraikuntzako jardueran duen partaidetza, zeren eta bukaturiko etxebizitzen artean gora egin baitzuen nabarmen, 2017ko %9,6tik 2018ko %19,4ra.

Ondoren, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak egin duen babesturiko etxebizitzen eraikuntzaren gaineko konparaziozko azterlanaren emaitzak aurkeztuko dira, autonomia erkidegoen arabera, 1991 eta 2017 urte bitartean. Azterlanaren ondorio gisa, honako hau ageri da: epealdi osoa aintzat hartuta, Nafarroa eta Errioxa daude babesturiko etxebizitzaren eraikuntzaren rankingeko goiko postuetan biztanleriarekiko; 71 eta 55 milakoak dira, hurrenez hurren. EAE hamargarren postuan dago eta batez bestekoaren gainetik, milako 38ko tasarekin. Batez bestekoa, berriz, milako 34 da. Beste muturrean, U. Balearrak eta Katalunia, ez dira milako 20ra iristen. Alabaina, krisialdiko urteak kontuan hartzen baditugu, 2008. urteaz gero, nabarmen egin du gora etxebizitzaren sustapenak autonomia erkidegoetan, biztanleriarekiko. Soilik Nafarroak (milako 14) eusten dio nahikoa maila handiari eta, neurri txikiagoan, EAE bigarren tokian kokatzen da, babesturiko etxebizitzako milako 8ko ratioarekin.

Etxebizitzaren eskariari dagokionez, gurasoekin eta tutoreekin bizi diren 18-44 urteko pertsonek lehen etxebizitza eskuratzeko beharren gaineko lehenbiziko ikuspegian, Eusko Jaurlaritzaren azken "Etxebizitza beharren eta eskariaren gaineko inkesta"ren arabera (EBEI), diru-sarrerak zituzten 62.100 pertsona (2017ko datuak, eskuragarri dauden azkenak) lehenengo etxebizitza eskuratu beharrean zeuden, hots, % 14,7ko jaitsiera 2015eko inkestaren aldean. Bilakaera hori ikusita berretsi egiten da lehen etxebizitza eskuratzeko eskariaren goranzko joera estrukturala dagoela Euskadin, 2009tik hain zuzen ere. Izan ere, urte horretan 125.514 lagun ziren, eta eskaria, berriz, 110.667 etxebizitzakoa da.

Bestalde, guztira 75.970 euskal familiak diote etxebizitza aldatu beharra dutela, guztizkoaren % 8,6k. Hau da, % 43ko igoera 2015aren aldean: urte horretan guztizkoaren % 6,2 ziren etxebizitzak. Hortaz, 2011n hasitako goranzko joera itzuli da, 2013-2015 aldian behera egin ostean. Halaber, etxebizitzaren beharraren inkestan zenbatetsitakoaren arabera, 2017an, guztira 76.286 euskal familiek behar zituzten etxebizitza birgaitzeko lanak, hots, EAEko familia-etxebizitza parkearen % 8,6k. Bilakaeraren aldetik ikusten denez, hazkunde nabarmena da etxebizitza birgaitzeko beharrean 2015aren aldean, bai etxeen bolumenean (% 31,5), bai behar horren intzidentzia erlatiboan (+0,9 puntu portzentual).

EAEko familiek etxebizitzak ordaintzeko egin behar duten finantza-ahaleginari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzaren Behatokiak erakutsi du, Higiezinen Erregistro Estatistikako datuak erabilita, finantza-ahalegin hori hileko batez besteko hipoteka kuotaren eta soldata kostuaren arteko harremanaren ikuspuntutik aztertuz gero, % 28,4koa izan da 2018ko laugarren hiruhilekoan, 1,7 puntu portzentual gehiago ditu. Estatu mailan ere ibilbide goranzkora da: ahalegin horiek, 2018ko amaieran, soldaten batez besteko kostuaren % 30,44 ziren (+1,20 puntu portzentual). Epe laburragoko ikuspegitik, azken hamarkadan (2008 eta 2018 bitartean) finantza-esfortzu hori 19,1 puntu txikiagoa da EAEn eta 17,26 estatuan.

Higiezinen jarduerari dagokionez, Sustapen Ministerioak Notarioen Estatistika oinarri hartuta emandako datuen arabera, 2018an EAEn etxebizitzen 22.979 salerosketa eskritura gauzatu ziren notarioaren aurrean (behin-behineko datuak dira), hots, %10eko igoera 2017koaren aldean (+%9,3 izan zen epealdi berean, Estatu osoan, non guztira 581.793 transakzio zenbatu ziren).

Krisiak bizi-baldintzetan duen eraginetako bat da gastuak (hipotekak edo errentak) ezin ordaintzeagatik etxebizitza galtzen duten familien kopuruak gora egiten duela. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak (BJKN) Euskadiko lehen instantziako epaitegietan aurkezturiko hipoteka-betearazpenen segimendua egiten du, eta adierazi duenez, 2018an 433 betearazpen erregistratu ziren, hots, % 29,7ko jaitsiera aurreko urtearen aldean. 2018an aurkezturiko 433 betearazpenak estatuko 27.404 betearazpenen % 1,6 dira. Era berean, 2018an, 876 utzarazpen egin ziren gure Erkidegoan alokairua ez ordaintzeagatik (+% 1,6 aurreko urtearen aldean), hots, estatuko utzarazpenen % 2,3.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak "EAEko etxebizitzaren erabilerari buruzko inkesta" egiten du, gure Erkidegoan hutsik dauden etxebizitzen parkearen dimentsioa eta kudeatzeko posibilitateak zein diren jakiteko, informazio garrantzitsua baita hutsik dauden etxebizitzak mugiarazteko politikak sortzeko. 2017ko bere azken emaitzen azterketan, hauxe nabarmentzen du Etxebizitzaren Euskal Behatokiak: EAEn milioi bat etxebizitza baino gehiago zenbatu ziren, eta etxebizitza horien % 9 hutsak direla uste da (ia 94.000 etxebizitza). Horietatik % 2,4 sasoiko etxebizitzak dira eta gainerako % 6,6 (69.231) hutsik dauden etxebizitzen parkeari dagokio. Lurraldeen arabera, Bizkaian dago etxebizitza parkearen tasarik txikiena, % 6,3an kokatuta, hau da, Araban baino 3 hamarren gutxiago eta Gipuzkoako tasaren azpitik (% 7,2 da). 2015eko datuen aldean, hazkunde nabarmena izan da hutsik dauden etxebizitza kopuruan (% 17,9koa kopuru absolutuetan), eta EAEko tasa orokorrak ere gora egin du: % 5,6tik % 6,6ra.

Era berean, Etxebizitzaren Behatokiak nabarmentzen duenez, etxebizitza horietako zenbait dagoeneko merkatuan daude eta, beraz, ezin kudea daitezke etxebizitza hutsak mugiarazteko programen ondorioetarako. Halaber, beste batzuk aldi baterako daude hutsik, ezinbestean, jabeen osasunarekin lotutako arrazoiengatik edo lanagatik. Horrexegatik jartzen du arreta "kudeagarriak" deritzen etxebizitza hutsetan: 2017an, guztira, erabat kudeagarriak diren 34.466 etxebizitza zenbatu ziren, etxebizitza parkearen % 3,3 eta hutsik dauden etxebizitzen erdia gutxi gorabehera. Hala ere, Etxebizitzari buruzko 3/2015 Legearen irizpidea aplikatuz gero, hots, hutsik dagoen etxebizitza kudeagarritzat hartzeko etxebizitza

mugiarazteko politikaren ondorioetarako (etxebizitza bi urtetik gora hutsik egotea), 34.466 etxebizitza horiek 20.840 baino ez lirateke, Euskadiko etxebizitza parkearen % 2 besterik ez.

Etxebizitza politikari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak betearazitako gastua nabarmen handitu zen azken urteetan, eta 2009an 207,4 milioi eurokoa zen. 2015ean, berriz, erdira murriztu zen. Informazioa dugun azken urte horretan, betearazitako gastua 99,8 milioi euroraino jaitsi zen. 2016an, berriz ere egin zuen gora, 108,1 milioi euroraino (+% 8,3), eta berriz ere 2017an (azken datu eskuragarria) 143,1 milioi euroraino (+% 32,4), hots, EAEko BPGd-aren % 0,19.

Gaur egun 2018-2020ko Etxebizitza Plan Zuzendaria indarrean dago, 6 ardatz estrategikoren inguruan zehaztua (alokairuko etxebizitza parkea bultzatzea, etxebizitza babestuen parkearen kudeaketa eraginkorrean aurrera egitea, etxebizitza esleitzeko eta eskuratzeko beharkizunetarako prozedurak berrikustea eta aldatzea, etxebizitzaren berrikuntzan aurrera egitea eta lankidetza-sareak sortzea arloko politikak hobeto kudeatzeko eta uztartzeko), eta aurreikuspenen arabera, 806,5 milioiko gastua dago, eta horietatik 526,3 gastuen aurrekontu bateratuari dagozkio; gainerako 280,2 milioi etxebizitzen prestazioen zenbatekoari (EAB eta EPB).

Azkenik, "Euskadiko etxebizitzarekin loturiko politika fiskala: gastu fiskalaren norainokoa eta eragina" izeneko txostenak, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak hiru foru aldundietako PFEZren ziozko likidazioen datuak oinarrituta eginak, nabarmentzen du, lehenik eta behin, euskal ogasunek 2.789 milioi euro gutxiago kobratu dituztela etxebizitzarekin loturiko PFEZren kenkari fiskalengatik, bestela esanda, urtean 399,8 milioi euro batez beste. Gastu fiskalaren zenbateko horrek PFEZren kenkariarekin du zerikusia, etxebizitzaren erosketarengatik (eta etxebizitza kontuengatik), nahiz alokairuagatik birgaikuntzagatik, neurri desberdinean bada ere: etxebizitza erosteko pizgarrien zioz 2011-2017 aldian kobratzeari utzitako 2.261 milioi eurorekin du zerikusia gasturik handienak (guztizkoaren % 80,8). Alokairuaren ziozko kenkariarekin lotutako gastu fiskala, berriz, 367 milioi eurokoa izan da epealdi berean (etxebizitza guztien % 16,8). Azkenik, birgaikuntzaren lotutako gastu fiskala guztizkoaren % 2,4 besterik ez da izan, 67 milioi euro.

Azken ekitaldia ardatz hartuta eta datu bateratuak izanik, hauxe nabarmentzen da: etxebizitzaren ziozko kenkarien zenbatekoa, 2016an, 379,15 milioi euro izan zen, 2015ean baino % 0,7 gehiago. Kenkari horiek PFEZren ziozko zerga-bilketa guztiaren % 7,8 dira eta zerga-bilketa osoaren % 3, baita EAEren BPGd-aren % 0,6 ere urte horretan (behin-behineko datuak dira). Era berean, Eusko Jaurlaritzak urte horretan betearazitako gastuaren % 351 dira (108,1 milioi euro).

5.2. GOGOETAK

5.2.1.Hezkuntza eta Kultura

Aurreko urteetan bezala, positibotzat jotzen dugu gure Erkidegoak emaitzak onak izatea hezkuntzako hainbat adierazletan, Europako estatuen eta autonomia erkidegoen aldean, hezkuntzako gure gastu publikoa herrialde eredugarrietakoa baino pixka bat txikiagoa bada ere.

Hala, aurreko memoriak eta edizio honetakoa aztertuta ondorioztatzen denez, EAEk emaitza onak lortu izan ditu hezkuntzako adierazle garrantzitsuetan, hauexetan adibidez: eskolatze-tasak, ikasleak lanaldi osoa du irakasle bakoitzeko, eskola uztea edo ikasleen adinaren egokitasuna.

Hezkuntzako hainbat mailatako matrikulazioari buruzko kapituluan bildu diren datu horiek ikusita, nabarmentzekoa da ezen, lanbide heziketako matrikulazioaren gorakadari kalterik egin gabe, gure ustez ahaleginak egin behar direla prestakuntza hori sustatzeko eta indartzeko izan daitezkeen maila guztietan, irakaskuntzako lehen urteetatik hasita. Horrek berekin dakar erakunde eta gizarte mailan prestakuntzako aukera gisa duen prestigioa sendotzeko bidean jarraitzea.

Nahiz eta ikaskuntza iraunkorreko programetan dugun partaidetza-tasa estatuko eta Europako batez bestekoa baino handiagoa izan, beharrezkotzat jotzen dugu arduradunek azterketa egitea, Europako iparraldeko herrialdeetako partaidetza mailetara hurbiltzeko formulak bilatze aldera. Izan ere, maila horietara iritsi beharko genuke helduen prestakuntza, gaikuntza eta jakintzen eguneratzea sustatzea da kontua.

Lanbide heziketan nahiz unibertsitateko ikasketetan generoaren aldetik dagoen segmentazio garrantzitsuaz ohartarazi behar dugu berriz ere. Prestakuntza zikloetan eta industriako graduetan oraindik ere gizonezkoak dira nagusi erabat.

Laneko estereotipoak dira erabakigarriak ikasketak aukeratzean, eta benetako berdintasuna lortzeak zerikusi handia du estereotipo horiek haustearekin. Horregatik, egokia da ikasketak aukeratzean generoen artean dagoen aldea txikitzeko berariazko programak bultzatzea eta emakumeen partaidetza handitzea industriarekiko lotutako ikasketetan, zeren eta banaketa horrek ondorio txarrak baitakarzkio emakumeari.

Azkenik, hezkuntzaren arlo osoan, alde horretako informazio maila handitu beharra dagoela ikusten da, ildo horretan antzemandako asimetria nabarmenak gutxitze aldera.

Kulturari dagokionez, gogorarazi behar dugu berez aberastasuna sortzen duela kulturak, baina, horrez gain, harago doa eta eragin erabakigarria du beste arlo batzuetan. Hala, gure turismo sektoreak hobetzeko, kultura eskaintza indartu beharra dago, baina eskaintzak, berez, gizarteratzeko eta batuagoa lortzeko ahalmena balioetsi beharra dago.

Ildo horretan, berriz agertu behar dugu kezka kulturaren gaineko inbertsioak eta gastuak behera egin izanagatik (arlo publikoan nahiz etxeetan), zeren eta horren eragina jarduera ekonomikotik harago baitoa, eta horri buruzko gogoeta eskatzen dugu.

5.2.2. Ingurune Naturalaren Egoera

Pozgarria zaigu ikustea uraren erabilpen eraginkorragoa, zeren eta behera egin baitzuten uraren kontsumoak eta hornidura-sareko ihesek, hausturek eta matxurek eragindako galerak.

Positiboa iruditzen zaigu enpresek ingurumena zaintzeko eginiko gastuak aurreko urteetan izandako beheranzko joera hautsi izana.

Hiriko hondakinen arloan, positibotzat jotzen dugu batez ere gaika bildutako hondakinen ehunekoak goranzko joera izatea eta hondakin guztiekiko pisua EAEn handiagoa izatea estatuan baino. Ildo horretan, beharrezkotzat jotzen dugu hondakinen hierarkiaren aplikazioa hobetzeko moduan aurrera egitea eta ekoizpen-sistema ekonomia zirkularra eraentzen duten printzipioetara egokitzea.

Adierazi izan dugun bezala, Euskadiko EGABek beharrezkotzat jotzen du herritarrak sentsibilizatzeko lanean jarraitzea eta ekoizpen prozesu garbiagoak martxan jartzea ahalbidetzea, hiru aldagaiak egokiago uztartzeko: ingurumena, gizartea eta ekonomia.

Horregatik guztiagatik, garrantzizkoa da ikuspegi sistemikoa duten politika publikoak sakontzea, iraunkortasunarekin bateragarriagoak diren eskaintzaren eta eskariaren eraldaketa sustatzeko eta zeharkako egintzak bultzatzeko, ekoberrikuntza esaterako.

5.2.3. Osasun Eta Osasun Sistema

Ikusten dugunez, aurreko urteetan bezala, EAEko biztanleriak osasun oneko adierazleak ditu, eta hobetuz doaz (bizi itxaropen handiak eta goranzkoak eta osasun oneko bizitzakoak.

Bestalde, berriz ere nabarmendu nahi dugu heriotza gero eta adin aurreratuagoetan gertatzen dela, eta horrek ondorioak dakartza erikortasunaren, mendekotasunaren eta, hedaduraz, gastu soziosanitarioaren aldetik.

Aldi berean, osasunean eragina duten determinante ez medikoen azterlanak agerian uzten duenez, gainpisuaren eta obesitatearen prebalentzia gutxitzen bada ere, oraindik biztanleriaren % 49,8 da oraindik. Gainera, kontuan hartu behar da ezen, 2017ko EOSIren datuen arabera, gizonen % 28,3k eta emakumeek %32,5ek ez dutela ariketa fisikorik egiten (hots, sedentarioak dira), eta, beraz, egoera bereziki kezkagarria da. Agerian gelditzen da osasun ohitura osasuntsuen eta ohitura horiek gauzatzen erraztearen garrantziaz jabearazi behar direla herritarrak, horretarako neurriak ahalbidetuz.

Batzordeak adierazi izan duenez, gizarte osoak partekaturiko balioa da EAEko osasun sistemaren geroko iraunkortasuna. Gure gizartek osasun kolektiboari eusteko duen borondate handia erakusten dute honako hauek: EUSTATen Osasunaren Kontuak duen guztizko gastuak, Eusko Jaurlaritzak Osasunean likidaturiko gastuak eta Osakidetzak likidaturiko gastuak kopuru absolutuetan goraka jarraitzeak eta per capita osasun gastu handia izateak eta gorako joerari eusteak.

Beste urte batez, beharrezkotzat jotzen dugu indarreko osasun planaren emaitzak arreta handiz jarraitzea, konpromiso sendoa baitugu eginiko ahaleginak isla egokia izan dezan eraginkortasunaren aldetik, hori guztia osasun sistemaren beraren iraunkortasuna lortze aldera.

Iraunkortasun horrek, beste faktore batzuekin batera, erlazio zuzena du gizartearen pixkanakako zahartzearekin eta lurraldean aberastasuna sortzeko lehiarako ahalmenarekin. Ildo horretan, komenigarria izango litzateke herritarrek osasun publikoarekin duten konpromiso maila handitzea, baita baliabideetan sakontzea ere, hala nola teknologia berriak sartzea (e-osasuna), besteak beste, sistemak eraginkortasunez funtzionatzeko modua izan dezan.

5.2.4. Etxebizitza

Azken urtean, doitzen jarraitzen du Euskadiko etxebizitzaren merkatuak azken krisiaren ondotik, eta badirudi salneurriek jaisteari utzi diotela. Eskaintzak ere oraindik beherantz segitzen du kopuru agregatuetan. Alabaina, EAEk bost urte daramatza jarraian etxebizitzen salerosketan gora eginez, higiezinen arloko jardueren susperraldiaren ezaugarri. Momentuz, etxebizitzak birgaitzeko dinamismo garrantzitsuari eusten zaio; ez, ordea, obra berriko eraikuntzaren aldetik.

Bestalde, alokairuko etxebizitzaren eskaintzak nabarmen egin du gora, baina nahikoa pisu txikia du orain ere. Testuinguru horretan, kezkagarria da alokairuko errenten igoera eta horrek talde handietan izan dezakeen eragina, gazteengan eta diru-baliabide gutxiago duten pertsonengan. Izan ere, BJKNren datuek agerian uzten dutenez, azken

urteetan, hipoteka-betearazpanek garrantzia galtzeko joera badute ere, bere horretan jarraitzen dute alokairuak ez ordaintzearen ziozko utzarazpenek, are gehiago, gora egin dute. Hori ez dator bat azaldutako egoerarekin.

Egoera horren aurrean, EGABek berretsi egiten du herri administrazioek oro har politika publikoetarako darabiltzaten finantza-baliabideak areagotu egin behar direla, bereziki gazteentzako eta diru-baliabide gutxiago dituzten pertsonentzako alokairuaren eskaintzarako programei dagokienez, baita etxebizitza parkea birgaitzeko programei eustea ere.

Era berean, badirudi gomendagarria dela babes ofizialeko etxebizitzen ekoizpenean aurreko urteetako maila berreskuratzea, eta bereziki babesturiko alokairuko etxebizitza eraikitzeko ahaleginak indartzea, hain zuzen ere Etxebiden erregistraturiko euskal herritarrek etxebizitzaren eskariaren aldetik oraindik beteta ez duten eskariari erantzuna emateko.

Ildo horretan, EGABen uste dugu ezen, proposamen horiek lortzeko, ezinbestekoa dela 2018-2020ko Etxebizitzaren Plan Zuzendaria garatzea eta betearaztea behinik behin.

VI. KAPITULUA

Araugintza EAEn

EAErentzako Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak azaltzen du EAEren eskumena dela gai jakin batzuetan legeria garatzea eta bere lurraldearen barruan estatuaren oinarrizko legeria betearaztea. Era berean, lege horrek adierazten du EAEko botereak Legebiltzarraren bidez, Eusko Jaurlaritzaren bidez eta lehendakariaren bidez gauzatuko direla, eta lurralde historikoek beren foru erakundeak estatutuan xedatutakoaren arabera edukiko eta antolatuko dituztela.

EAEko autogobernurako erakundeak indarrean sartzean, ezinbestekoa suertatu zen, Autonomia Estatutuan ezarritakoarekin bat etorriz, Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzaren antolaketari eta eskumenei buruzko legeak eta erakunde komunen eskumen maila eta lurralde historikoen eskumen maila arautzeko legeak onestea.

Eusko Jaurlaritzaren egitura, haren eskumenak eta Legebiltzarrarekin dituen harremanak finkatzeko helburuarekin, Gobernuari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea onetsi zen. Besteak beste, legearen arabera, Gobernuak eskumen hauek ditu: legeak egiteko ekimena, lege proiektuak onetsiz eta Legebiltzarrari bidaliz; legegintzarako eskuordetzea, legegintzako dekretuen bidez; eta araudiak egiteko ahalmena, dekretuen eta aginduen bidez

Gerora, Autonomia erkidegoko erakunde komunen eta bertako lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legea aldarrikatu zen. Lege horrek Eusko Legebiltzarra izendatzen du lege maila duten arauak onesteko gaitasuna daukan erakunde bakar autonomi erkidego osoan, baldin eta lege horien gaia Autonomia Estatutuaren arabera autonomi erkidegoari badagokio eta estatutuan lege honek edo ondorengo legeek ez badiete gaia lurralde historikoetako foru organoei esleitzen. Tradizio historikoarekin bat etorriz, lurralde historikoetako foru organoak Batzar Nagusiak eta Foru Aldundiak dira.

Era berean, lurralde historikoetako eskumenak arautzen ditu. Ezartzen duenez, beraien bakarreko eskumenekoak diren gaietan lurralde historikoei dagokie arauak egiteko ahalmena, bakoitzaren Batzar Nagusien foru arauen bidez betiere.

Legegintza Botereak eginiko araua da legea zentzu hertsian, hots, Parlamentuak eginikoa. Zenbait kasutan, oso espezifikoetan, gobernuak onetsitako lege maila arauak onartzen dira: legegintza dekretuak (EEren 82.-85. artikuluak) eta lege dekretuak (EEren 86. artikulua).

Legegintzako ekimena, hau da, prozedura legegilea martxan jartzeko gaitasuna, honako hauek proposa dezakete:

- Legebiltzarreko taldeak, edo legebiltzarkide bat, beste lauren sinadura jasoz gero.
- Gobernua.
- Lurralde historikoak ordezkatzen dituzten erakundeak.
- Legegintzako herri-ekimena, EAEko 30.000 herritarren sinadurekin.

Ekimena Eusko Jaurlaritzarena denean “lege proiektua” izena jasotzen du; gainerako kasuetan, “lege proposamena” da.

Eusko Legebiltzarrak, legeak egiteko bere eginkizuna betez, guztira 5 lege onetsi ditu 2018an:

1. *1/2018 Legea, ekainaren 7koa, Dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea aldatzekoa.*
2. *2/2018 Legea, ekainaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuena eta Itsaso Garraioarena.*
3. *3/2018 Legea, ekainaren 28koa, Euskadiko Eskola Kontseiluei buruzko urriaren 28ko 13/1988 Legea aldatu duena.*
4. *4/2018 Legea, ekainaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzkoa.*
5. *5/2018 Legea, azaroaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorra arautzen duen Legea hirugarren aldiz aldatu duena.*

Bestalde, **Eusko Jaurlaritzak,** arauak egiteko bere ahalmena erabiliz, guztira 208 dekretu onartu ditu 2018an.

VI.1. GRAFIKOA. LEGEBILTZARRAREN ETA EUSKO JAURLARITZAREN LEGEGINTZAKO JARDUERA 2013 ETA 2018 BITARTEAN



Halaber, Eusko Jaurlaritzaren XI. Legealdiko 2016-2020 urteetarako ***Legegintzako Egitaraua*** ezagutu da, hain zuzen ere Gobernu Kontseiluak 2017. urteko maiatzaren 9an onetsitakoa. Hainbat lege proiektu onetsi dira 2018. urtean (letra lodiz eta atzealde urdinarekin nabarmenduta daudenak), eta izapidetzeak aurrera jarraitzen du Eusko Legebiltzarrean (VI.1. taula).

VI.1. TAULA. XI. LEGEALDIA (2016-2020). LEGEGINTZA PROGRAMA ETA BALANTZEA 2018KO ABENDUAREN 31N.

SAILA	AURREIKUSITAKO ARAUA	EGAB-EN IRIZPENA*	GOBERNUAREN EGOERA (hala denean, onespen-data)	LEGEBILTZARRAREN EGOERA
LEHENDAKARITZA	Emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko Legea		Izapidetzen	
	EAEko Kulturako Zentroen Legea	3/2012 IRIZPENA	Izapidetzen	
GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA	Xedapen orokorrak egiteko prozeduraren legea aldatu duen legea		Izapidetzen	
	EAEko AA. PP.en zigor-ahalmenari buruzko 2/1998 Legea aldatu duen Legea		**2018/11/27 G.B.**	**Izapidetzen**
	Enplegu Publikoaren Legea	15/2018 IRIZPENA	Izapidetzen	
	ESPren gardentasunaren, herritarren partaidetzaren eta gobernu onaren legea	12/2015 IRIZPENA	2017/09/19 G.B.	Izapidetzen
	ESPren antolaketaren eta funtzionamend. Legea	13/2015 IRIZPENA	2017/10/03 G.B.	Izapidetzen
GARAPEN EKONOMIKOA ETA AZPIEGITURAK	AA. PP.en energia-eraginkortasunaren Legea	-	2017/06/27 G.B.	Izapidetzen
	Mugikortasun iraunkorraren Legea	1/2012 IRIZPENA	Izapidetzen	
	Landa Garapenari buruzko apirilaren 8ko 18/1998 Legea aldatu duen Legea		Hasi gabe	
	EAEko portuen eta itsas garraioaren Legea	**8/2015 IRIZPENA**	**2018/06/13 G.B.**	**Onartuta ekainaren 28ko 2/2018 Legea**
	Errepide Plan Orokorraren Legea 3. aldiz aldatzeko Legea		**2018/06/12 G.B.**	**Onartuta azaroaren 29ko 5/2018 Legea**
ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK	Enpleguko euskal sistemaren legea		Hasi gabe	
	Diru-sarreren eta gizarte inklusiorako legea aldatu duen legea **		**2018/04/17 G.B.**	**Izapidetzen**
	Haurrei eta nerabeei arreta eta babesa emateko 3/2005 Legea aldatu duen legea.		Hasi gabe	
INGURUMENA, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA	Klima aldaketa ***		Izapidetzen	

OGASUNA ETA EKONOMIA	2017-2021eko ekarpenen legea		Hasi gabe	
	EAEko Aurrezki Kutxen eta Banku Fundazioen Legea	5/2015 IRIZPENA	Hasi gabe	
	Diru-laguntzen araubidea arautzen duen legea		Izapidetzen	
	2018-2021eko Estatistikako Euskal Planaren Legea		2018/11/27 G.B.	
HEZKUNTZA	**Lanbide Heziketaren Legea ****	**15/2015 IRIZPENA**	**2017/05/30 G.B.**	**Onartuta ekainaren 28ko 4/2018 Legea**
	Hezkuntzaren Euskal Legea		Hasi gabe	
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA	Kultura ondarearen euskal legea	19/2015 IRIZPENA	2017/07/18 G.B.	Izapidetzen
	EAEko Kirolaren 14/98 Legea eguneratzeko Legea		Hasi gabe	
	Kiroleko dopinaren kontrako legea aldatu duen legea	**10/2011 IRIZPENA**	**2017/07/04 G.B.**	**Onartuta ekainaren 7ko 1/2018 Legea**
	Euskadiko agirien kudeaketa osoaren legea	8/2012 IRIZPENA	Izapidetzen	
	Euskadiko kirol lanbideak eskuratzeari eta erabiltzeari buruzko legea	11/2015 IRIZPENA	2017/06/26 G.B.	Izapidetzen
SEGURTASUNA	**EAEko Polizia Legea aldatu duen Legea**		**2018/06/26 G.B.**	
LANA ETA JUSTIZIA	**Euskadiko kooperatiben legea**	**13/2018 IRIZPENA**	**2018/12/18 G.B.**	Izapidetzen

Iturria: LEHENDAKARITZA Burutzapen Balantzea. Gobernu Programa. 2018ko ekitaldia
**** Oharra: EGABen irizpenak arau horien bertsio desberdinen gainekoak izan daitezke, aurreko legealdikoak baitira.***
*****Lege Proposamen gisa izapidetuak Gobernuko talde parlamentarioen ekimenaz (PNV; PSE)***
****** Ingurumenaren, Klima Aldaketaren eta Naturaren Zaintzaren Legea deritzona 3 legetan banatua da: Klima Aldaketaren Legea, Natura Ondarea Zaintzeko Legea eta Ingurumenaren Administrazioaren Legea***

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak urtero onesten du ***araugintza plan bat***, non sail bakoitzak aurreikusitako araugintzako ekimenak biltzen diren. Hala, arauak egiteko bere ahalmena baliatuz, 2018. urtean guztira 105 dekretu onetsi zituen. Horietatik 43 dekretu urtean onetsi ziren, 43 izapidetzen ari ziren 2018ko abenduan eta 32 dekretu hasi gabe zeuden artean (ikusi VI.2 taula).

VI.2. TAULA. EUSKO JAURLARITZAREN 2018KO ARAUGINTZAKO URTEKO PLANA. BETEARAZPEN MAILA.

	PROIEKTU KOP.	ONARTUAK	IZAPIDETZEA	HASI GABEAK
LEHENDAKARITZA	6	3	2	1
GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA	9	2	3	4
EKONOMIAREN GARAPENA ETA ETA AZPIEGITURAK	15	6	4	5
ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK	9	4	3	2
INGURUMENA, LURRALDE PLANG. ETA ETXEBIZITZA	7	1	4	2
OGASUNA ETA EKONOMIA	9	3	0	6
HEZKUNTZA	18	10	5	3
OSASUNA	13	7	3	3
TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA	5	2	1	2
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA	1	0	1	0
SEGURTASUNA	9	4	3	2
LANA ETA JUSTIZIA	4	1	1	2
GUZTIRA	**105**	**43**	**30**	**32**

Iturria: LEHENDAKARITZA. Betearazpen balantzea. Gobernu programa. 2018ko ekitaldia

Lurralde Historikoetako Batzar Nagusiei dagokienez, hona hemen 2018an izan duten araugintza jarduera, onetsitako Foru Arauak oinarri hartuta neurtu dena: Araban 24 foru arau onetsi dira, 2017an baino bi gehiago; Gipuzkoan 7 foru arau onetsi dira, 2017an berretsitakoak baino 4 gehiago eta Bizkaian 2017an 7 arau onetsi dira, aurreko urtean baino pixka bat gehiago.

VI.2. TAULA. LURRALDE HISTOROIKOETAKO BATZAR NAGUSIEK ONETSITAKO FORU ARAUAK. 2014-2018.



Azkenik, Euskadiko **EGABek,** erakunde aholku-emailea den aldetik, hamasei irizpen eman ditu 2018an:

- 1/18 IRIZPENA, Ama-esnearen Euskadiko Bankua sortzeko dekretu proiektuari buruzkoa.
- 2/18 IRIZPENA, Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitzen farmazia-zerbitzuei eta sendagai-biltegiei buruzko dekretu proiektuari buruzkoa.
- 3/18 IRIZPENA, Euskal Autonomia Erkidegoko esparruko adinekoentzako egoitzen dekretu proiektuari buruzkoa.
- 4/18 IRIZPENA, beren kargura seme-alabak dituzten familiei laguntzeko laguntza ekonomikoen dekretuaren aldaketa proiektuari buruzkoa.
- 5/18 IRIZPENA, erabilera turistikoko etxebizitza eta etxebizitza partikularretako gelen dekretu proiektuari buruzkoa.
- 6/18 IRIZPENA, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen azterketa teknikoa eta azterketa teknikoen erregistroa arautzen dituen dekretu proiektuari buruzkoa.
- 7/18 IRIZPENA, 202/2004 Dekretua, urriaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hileta Osasunaren Araudia aldatzen duena, aldatzeko proiektuari buruzkoa.
- 8/18 IRIZPENA, Gizarte Larrialdiko Laguntzen Dekretua bigarrenez aldatzeko proiektuari buruzkoa.
- 9/18 IRIZPENA, EAEn Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planari buruzkoa.
- 10/18 IRIZPENA, Euskal Autonomia Erkidegoen Harrera-familia arautzeko dekretu proiektuari buruzkoa.
- 11/18 IRIZPENA, Euskal Autonomia Erkidegoen ibilgailuen hornidurarako arretarik ez duten instalazioek bete behar dituzten baldintzen dekretu proiektuari buruzkoa.
- 12/18 IRIZPENA, Ikuskizun Publikoen eta Garapen Jardueren Araudia onartzeko dekretu proiektuari buruzkoa.
- 13/18 IRIZPENA, Euskadiko Kooperatiben Legearen Aurreproiektuari buruzkoa.
- 14/18 IRIZPENA, Euskal Autonomia Erkidegora adingabe atzerritarrak aldi baterako etortzeko programen dekretu proiektuari buruzkoa.
- 15/18 IRIZPENA, Euskal Enplegu Publikoaren Aurreproiektuari buruzkoa.
- 16/18 IRIZPENA, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Araudia onartzeko dekretu proiektuari buruzkoa.

DEFINIZIOEN ETA KATEGORIZAZIOEN GLOSARIOA



- **ESJNren egitura**

  Lau mailatan dago egituratuta (atalak, multzoak, taldeak eta klaseak):

	ESJN 93	ESJN 99
Atalak (kode alfabetikoa)	17 atal	21 atal
Multzoak (bi digitudun zenbakizko kodea)	60 multzo	88 multzo
Taldeak (hiru digitudun zenbakizko kodea)	222 talde	272 talde
Klaseak (lau digitudun zenbakizko kodea)	512 klase	629 klase

Ondoren, ESJN 2009 azalduko da multzoen araberako kategorizazioraino:

A **Nekazaritza, abeltzaintza, basozaintza eta arrantza**
01 Nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta horiekin lotutako zerbitzuak
02 Basogintza eta basoen ustiapena
03 Arrantza eta akuikultura

B **Erauzketa-industriak**
05 Antrazitaren, harrikaitzaren eta lignitoaren erauzketa
06 Petrolioaren eta gas naturalaren erauzketa
07 Mineral metalikoen erauzketa
08 Beste erauzketa-industria batzuk
09 Erauzketa-industrietan laguntzeko jarduerak

C **Manufaktura-industria**
10 Elikagaien industria
11 Edarien fabrikazioa
12 Tabakoaren industria
13 Ehungintza
14 Jantzien ebaketa
15 Larrugintza eta zapatagintza
16 Egurraren eta artelazkiaren industria, altzariak, saskigintza eta espartzugintza salbu
17 Papergintza
18 Arte grafikoak eta grabaturiko euskarrien erreprodukzioa
19 Kokea lortzeko eta petrolioa fintzeko fabrikak
20 Industria kimikoa
21 Produktu farmazeutikoen fabrikazioa
22 Kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa
23 Metalikoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioa
24 Metalurgia; burdingintza, altzairugintza eta burdinaren aleazioen fabrikazioa
25 Produktu metalikoen fabrikazioa, makineria eta ekipoa izan ezik
26 Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioa
27 Material eta ekipo elektrikoen fabrikazioa
28 BESG makineriaren eta ekipamenduaren fabrik.
29 Motordun ibilgailu, atoi eta erdiatoien fabrikazioa
30 Beste garraio-material baten fabrikazioa
31 Altzarien fabrikazioa
32 Beste manufaktura-industria batzuk
33 Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa

D **Argindarraren, gasaren, lurrunaren eta aire egokituaren hornidura:**
35 Argindarraren, gasaren, lurrunaren eta aire egokituaren hornidura

E **Ur hornidura, saneamendu-jarduerak, hondakinen kudeaketa eta kutsadura garbitzea**
36 Uraren bilketa, arazketa eta banaketa
37 Hondakin-ura biltzea eta tratatzea
38 Hondakinak biltzea, tratatzea eta desagerraraztea; balioestea
39 Kutsadura kentzeko jarduerak eta hondakinak kudeatzeko beste zerbitzu batzuk

F **Eraikuntza**
41 Eraikinen eraikuntza
42 Ingeniaritza zibila
43 Eraikuntza espezializatuko jarduerak

G **Handizkako merkataritza, txikizkakoa, ibilgailu motordunen eta motorren konponketa**
45 Motordun ibilgailuen eta bizikleten salmenta eta konponketa
46 Handizkako merkataritza eta merkataritza bitartekariak, motordun ibilgailuena eta motozikletena izan ezik
47 Txikizkako merkataritza, motordun ibilgailuak eta motozikletak izan ezik

H **Garraioa eta biltegiratzea**
49 Lurreko eta hodietako garraioa
50 Itsasoko eta barruko bide nabigagarrietako garraioa
51 Aireko garraioa
52 Biltegiratzea eta garraioari lotutako jarduerak
53 Posta jarduerak

I **Ostalaritza**
55 Ostatu zerbitzuak
56 Janari eta edari zerbitzuak

J **Informazioa eta komunikazioak**
58 Edizioa
59 Zinema, bide eta telebista saioetako jarduerak, soinu grabazioa eta edizio musikala
60 Programazio eta irrati eta telebistako emisioko jarduerak
61 Telekomunikazioak
62 Programazioa, aholkularitza eta informatikarekin lotutako beste jarduera batzuk
63 Informazio zerbitzuak

K **Finantza- eta aseguru-jarduerak**
64 Finantza-zerbitzuak, aseguruak eta pentsio-funtsak izan ezik
65 Aseguruak eta pentsio-funtsak, nahitaezko Gizarte Segurantza izan ezik
66 Finantza-zerbitzuetan eta aseguruen jarduera osagarriak

L **Higiezinen arloko jarduerak**
68 Higiezinen arloko jarduerak

M **Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak**
69 Lege eta kontabilitate jarduerak
70 Egoitza nagusien jarduerak; enpresak kudeatzeko aholkularitza jarduerak
71 Arkitektura eta ingeniaritza zerbitzu teknikoak; entsegu eta analisi teknikoak
72 Ikerketa eta garapena
73 Publizitatea eta merkatu azterketak
74 Beste jarduera profesional, zientifiko eta tekniko batzuk
75 Albaitaritza jarduerak

N **Administrazio jarduerak eta zerbitzu osagarriak**
77 Alokairu jarduerak
78 Enpleguarekin lotutako jarduerak
79 Bidaia-agentzien, operadore turistikoen, erreserba zerbitzuen jarduerak eta horiekin lotutako jarduerak
80 Segurtasun eta ikerketa jarduerak
81 Eraikinetarako zerbitzuak eta lorezaintza jarduerak
82 Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak

O **Administrazio publikoa eta defentsa; derrigorrezko gizarte segurantza**
84 Administrazio publikoa eta defentsa; derrigorrezko gizarte segurantza

P **Hezkuntza**
85 Hezkuntza

Q **Osasun eta gizarte zerbitzuetako jarduerak**
86 Osasun jarduerak
87 Laguntza egoitza establezimenduetan
88 Gizarte zerbitzuen jarduerak ostaturik gabe

R **Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak**
90 Sorkuntza, arte eta ikuskizunetako jarduerak
91 Liburutegi, artxibo, museo eta bestelako kultur jarduera batzuk
92 Ausazko jokoen eta apustuen jarduerak
93 Kirol, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak

S **Beste zerbitzu batzuk**
94 Elkartegintzako jarduerak
95 Ordenagailuen konponketa, norberaren gauzak eta etxean erabiltzeko produktuak
96 Beste zerbitzu pertsonal batzuk

T **Familien jarduerak etxeko pertsonalaren enplegatzaile gisa; familien jarduerak norberaren erabilerarako ondasunen eta zerbitzuen ekoizle gisa**
97 Familien jarduerak etxeko pertsonalaren enplegatzaile gisa

U **Lurraldez kanpoko erakundeen jarduerak**
99 Lurraldez kanpoko erakundeen jarduerak

- **EUSTAT-EN INKESTA INDUSTRIALA**

  EJSN 2009aren arabera, **atal** hauek biltzen ditu:
  - B: Erauzketa industriak
  - C: Manufaktura-industria
  - D: Argindarraren, gasaren, lurrunaren eta aire egokituaren hornidura
  - E: Ur hornidura, saneamendu, hondakinen kudeaketa eta kutsadura desagerrarazte jarduerak.

  Hala ere, bere sailkapena du, baina EJSNrekiko baliokidetzak ezarri dira.

SEKTORE SAILKAPENA (A3, A6, A17, A31, A60, A84)

A3	A6	A17	A31	A60	A84	IZEN LABURTUA / DENOMINACIÓN ABREVIADA	
	1					Agropesquero	Nekazaritza eta arrantza
		1	1			Agropecuario	Nekazaritza eta abeltzaintza
				1		Agricultura y ganadería	Nekazaritza eta abeltzaintza
					1	Agricultura	Nekazaritza
					2	Ganadería	Abeltzaintza
				2	3	Selvicultura	Basogintza
		2	2			Pesca y acuicultura	Arrantza eta akuikultura
1				3	4	Pesca y acuicultura	Arrantza eta akuikultura
						Industria y construcción	Industria eta eraikuntza
	2					Industria	Industria
		3				Industrias extractivas	Ateratze-industriak
			3			Extracción de petróleo y gas	Petrolioa eta gasa ateratzea
				4	5	Carbones	Ikatzak
				5	6	Extracción de petróleo y gas	Petrolioa eta gasa ateratzea
				6	7	Extracción de uranio	Uranioa ateratzea
			4			Min. metálicos y no metálicos	Metalezko eta ez-metalezko meak
				7	8	Minerales metálicos	Metalezko meak
				8	9	Minerales no metálicos	Ez-metalezko meak
		4				Industria manufacturera	Manufaktura-industria
			5			Industria de la alimentación	Elikagai-industria
				9		Industria de la alimentación	Elikagai-industria
					10	Industrias cárnicas	Okela-industriak
					11	Industrias lácteas	Esne-industriak
					12	Conservas de pescado	Arrain-kontserbak
					13	Pan y molinería	Ogia eta errotaritza
					14	Otras alimenticias	Bestelako elikagai-industriak
					15	Bebidas	Edariak
				10	16	Industria del tabaco	Tabakoaren industria
			6			Textil y confección	Ehungintza eta jantzigintza
				11	17	Industria textil	Ehunaren industria
				12	18	Confección y peletería	Jantzigintza eta larrugintza
			7			Industria del cuero y calzado	Larruaren eta oinetakoen ind.
				13	19	Industria del cuero y calzado	Larruaren eta oinetakoen ind.
			8			Industria de la madera	Zurgintza
				14	20	Industria de la madera	Zurgintza
			9			Papel, edición y gráficas	Papera, argitalpena eta grafikoak
				15	21	Industria del papel	Papergintza
				16	22	Edición y artes gráficas	Argitalpena eta arte grafikoak
			10			Refino de petróleo	Petrolioa fintzea
				17	23	Refino de petróleo	Petrolioa fintzea
			11			Industria química	Kimika-industria
				18		Industria química	Kimika-industria
					24	Química básica	Oinarrizko kimika
					25	Química industrial	Industri kimika
					26	Química final	Azken kimika
			12			Caucho y plástico	Kautxua eta plastikoak
				19		Caucho y plástico	Kautxua eta plastikoak
					27	Caucho y neumáticos	Kautxua eta pneumatikoak
					28	Artículos de plástico	Plastikozko artikuluak
			13			Industria no metálica	Ez-metalezko industria
				20		Industria no metálica	Ez-metalezko industria
					29	Industria del vidrio	Beiragintza
					30	Cemento, cal y yeso	Zementua, karea eta igeltsua
					31	Otras no metálicas	Bestelako ez-metalezkoak
			14			Metalurgia y artíc. metálicos	Metalgintza eta metalezko artik.
2				21		Metalurgia	Metalgintza

				32	Siderurgia	Altzairugintza
				33	Metalurgia no férrea	Ez-burdinazko metalgintza
				34	Fundición	Galdategiak
			22		Artículos metálicos	Metalezko artikuluak
				35	Construcción metálica	Metalezko eraikuntza
				36	Forja y estampación	Forja eta estanpazioa
				37	Ingeniería mecánica	Ingeniaritza mekanikoa
				38	Artículos metálicos	Metalezko artikuluak
		15			Maquinaria	Makineria
			23		Maquinaria	Makineria
				39	Máquina-herramienta	Makina erreminta
				40	Aparatos domésticos	Etxeko aparatuak
				41	Otra maquinaria	Bestelako makineria
		16			Material eléctrico	Material elektrikoa
			24	42	Maq. oficina y eq. informático	Bulego-mak. eta informatika-tres.
			25	43	Material eléctrico	Material elektrikoa
			26	44	Material electrónico	Material elektronikoa
			27	45	Material de precisión	Doitasun handiko materiala
		17			Material de transporte	Garraio-materiala
			28	46	Automóviles y sus piezas	Automobilak eta horien piezak
			29		Otro material de transporte	Bestelako garraio-materiala
				47	Construcción naval	Ontzigintza
				48	Otro material de transporte	Bestelako garraio-materiala
		18			Otras manufactureras	Bestelako manufaktura-ind.
			30		Fabricación de muebles	Altzarigintza
				49	Fabricación de muebles	Altzarigintza
				50	Otras manufactureras	Bestelako manufaktura-ind.
			31	51	Reciclaje	Birziklatzea
	5	19			Energía eléctrica, gas y agua	Energia elektrikoa, gasa eta ura
			32		Energía eléctrica y gas	Energia elektrikoa eta gasa
				52	Energía eléctrica	Energia elektrikoa
				53	Gas y vapor de agua	Gasa eta ur-lurruna
			33	54	Agua	Ura
3	6	20			Construcción	Eraikuntza
			34	55	Construcción	Eraikuntza
					Servicios	Zerbitzuak
4					Comercio, hostelería y transp.	Merkataritza, ostalaritza eta garra.
	7	21			Comercio y reparación	Merkataritza eta konponketa
			35	56	Venta y reparación automóviles	Automobilak saldu eta konpontzea
			36	57	Comercio al por mayor	Handizkako merkataritza
			37	58	Comercio al por menor	Txikizkako merkataritza
	8	22			Hostelería	Ostalaritza
			38	59	Hostelería	Ostalaritza
	9	23			Transporte y comunicaciones	Garraioa eta komunikazioak
			39		Transporte terrestre	Lehorreko garraioa
				60	Transporte ferroviario	Burdinbide-garraioa
				61	T. mercancías carretera	Errepidezko zama-garraioa
				62	Otro transporte terrestre	Lehorreko bestelako garraioa
			40	63	Transporte marítimo	Itsasoko garraioa
			41	64	Transporte aéreo	Aireko garraioa
			42	65	Anexos al transporte	Garraioari erantsiak
			43	66	Comunicaciones	Komunikazioak
5					Banca, seguros y ser. Empresas	Bankuak, aseguruak eta enp.-zer.
	10	24			Banca y seguros	Bankuak eta aseguruak
			44	67	Banca	Bankuak
			45	68	Seguros	Aseguruak
			46	69	Auxiliares financieros	Finantza-laguntzaileak
	11	25			Servicios a empresas	Enpresentzako zerbitzuak
			47	70	Actividades inmobiliarias	Onibar-jarduerak
			48	71	Alquiler de maquinaria	Makineria alokatzea
			49	72	Actividades informáticas	Informatika-jarduerak
			50	73	Investigación y desarrollo	Ikerketa eta garapena
			51	74	Otras actividades empresariales	Enpresen bestelako jarduerak
6					Otras actividades de servicios	Bestelako zerbitzu-jarduerak
	12	26			Administración Pública	Herri-administrazioa
			52	75	Administración Pública	Herri-administrazioa
3	13	27			Educación	Hezkuntza

		53	76	Educación	Hezkuntza
14	28			Sanidad y servicios sociales	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak
		54		Sanidad y servicios sociales	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak
			77	Sanidad	Osasuna
			78	Servicios sociales	Gizarte-zerbitzuak
15	29			Servicios personales	Gizabanakoentzako zerbitzuak
		55	79	Saneamiento público	Guztiontzako saneamendua
		56	80	Actividades asociativas	Elkarte-jarduerak
		57	81	Act. recreativas y culturales	Jolas- eta kultur jarduerak
		58	82	Servicios personales	Gizabanakoentzako zerbitzuak
16	30			Servicio doméstico	Etxeko zerbitzua
		59	83	Servicio doméstico	Etxeko zerbitzua
17	31	60		Organismos extraterritoriales	Lurraldez kanpoko erakundeak
			84	Organismos extraterritoriales	Lurraldez kanpoko erakundeak

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA

- Enpresa berritzailea izango da inkestan kontuan hartutako tartean berrikuntzaren bat sartu duen enpresa.

- Berrikuntzatzat hartuko da produktu (edo zerbitzu) berria nahiz zeharo hobetua, prozesu berria, komertzializazio-metodo berria edo antolakuntza-metodo berria sartzea enpresaren barne-praktiketan, lantokiaren antolakuntzan edo kanpoko harremanetan. Berrikuntza guztien ezaugarri komuna zera izango da, aldaketa horiek dagoeneko sartuta egon beharko direla enpresaren lanean, hau da, merkatura atera direnak. Prozesu, komertzializazio-metodo edo antolakuntza-metodo bat sartuta dagoela esan daiteke modu eraginkorrean sartzen denean enpresaren eginkizunetan.

  Definizio hori kontuan hartuta, bi berrikuntza mota bereiz daitezke: berrikuntza teknologikoak eta berrikuntza ez teknologikoak. Berrikuntza teknologikoa produktu bat (ondasun bat edo zerbitzu bat, berria edo nabarmenki hobetua denean eta merkatuan sartuta dagoenean) edo prozesu bat (establezimenduan bertan prozesu berria edo nabarmenki hobetua ezartzea) izan daiteke, eta berrikuntza ez teknologikoak antolakuntzaren edo komertzializatzeko moduaren berrikuntzek osatzen dituzte.

- Jarduera berritzaileak dituen enpresa inkestan aztertutako urteetan berrikuntza-jarduerak garatu dituen enpresa da, abian diren berrikuntzak eta bertan behera utzitako berrikuntzak dituzten enpresak barne.

LAN-MERKATUA

BJA-RI (EUSTAT), BAI-RI (EIN) ETA LFS-RI (EUROSTAT) BURUZKO DEFINIZIOAK

- L.N.B. Biztanleria aktiboa. Lanaren Nazioarteko Bulegoaren arabera (LNB), ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko lana egiten duten pertsona guztiak dira, eta une horretan lanik ez dutenak, lan bila dabiltzanak eta lanean hasteko moduan daudenak. Biztanleria Landunak (LNB) eta Biztanleria Langabeak (LNB) osatzen duten multzoa da.

- L.N.B. Biztanleria ez-aktiboa: LNBren arabera, Biztanleria Aktiboa ez den biztanleria da. Talde hauetan sailkatzen dira: etxeko lanak egiten dituztenak, ikasten ari direnak, erretiroan daudenak, pentsiodunak, errentistak eta ezinduak.

- L.N.B. Biztanleria landuna. LNBren arabera, ordaindutako lana duten edo aparteko jarduera egin eta lanean ari diren pertsona guztiak dira, edo beren lanarekin lotura formala dutenak, edo oporrengatik, gaixotasunagatik, lan-gatazkagatik, gorabehera teknikoengatik, etab. lanetik kanpora izandakoak.

- L.N.B. Langabezian dagoen biztanleria. LNBren arabera, soldatapeko lanik edo aparteko lanik ez duten pertsonak dira, egun lan bila ari direnak eta lanerako moduan daudenak.

- 2002. urteaz geroztik, langabe daude, aurreko baldintzak betetzeaz gain, aurreko lau asteetan lana bilatzeko aipaturiko erregelamendu horretan aktibotzat jotako pertsonen kudeaketaren bat egin dutenak. Ez da bilaketa aktibotzat jotzen lan eskaera berritzeko izapidea edo prestakuntza ikastaroak direla-eta enplegu bulego publikoarekin kontaktatzea.

- Jarduera-tasa. Talde jakin baten jarduera-tasa da biztanleria aktiboan eta talde horren barruan dauden pertsonen proportzioa.

- B.J.A.n, 16 urte (urteak beteta) eta gehiagokoen gainean kalkulatzen dira.

$$\textit{Jarduera-tasa} = \frac{\sum \textit{aktiboak}}{\textit{16 urte eta gehiagokoak}} \times 100$$

- L.N.B. Okupazio-tasa. Landun pertsonek adin horietako biztanleria osoarekiko proportzioa da okupazio-tasa.

  Lehenik eta behin, 16-64 urteko (adina beteta) biztanleen gainean kalkulaturiko okupazio-tasa eskaintzen ditu web guneak bere tauletan, halako moldez non bateragarria baita Eurostatek darabilen definizioarekin.

$$\textit{Okupazio-tasa} = \frac{\sum \textit{landunak}}{\textit{16 – 64 urtekoak}} \times 100$$

  Bigarrenik, 16 urtetik gorakoen (adina beteta) biztanleriarekiko kalkulaturiko okupazio-tasa eskaintzen du Datu-bankuak:

$$\textit{Okupazio-tasa} = \frac{\sum \textit{landunak}}{\textit{16 urte eta gehiagokoak}} \times 100$$

  - Alabaina, Europa 2020 helburuan, 20-64 urteko adin-tartea ezarri da.

- Langabezia-tasa. Langabezian dauden talde horretako pertsona aktiboen proportzioari deritzo talde bateko langabezia-tasa

  B.J.A.n, 16 urte eta gehiagokoen (adina beteta) biztanleekiko kalkulatzen dira.

$$\textit{Langabezia-tasa} = \frac{\sum \textit{langabeak}}{\textit{aktiboak}} \times 100$$

LAN-KOSTUEI BURUZKO HIRUHILEKO INKESTA (EIN):

a) LAN EGINDAKO ETA LAN EGIN GABEKO DENBORA

1. Lan egindako orduak

- Benetako orduak: egiaz lan egindako orduak dira, laneko ohiko aldietan nahiz aparteko lanaldian, lantokiak galdutako orduak barne; egiazko denbora da indarreko araudia dela bide. Itundutako orduen eta aparteko orduen edota ordu osagarrien batura da, ken lan egin gabeko orduak; ordu horietatik kanpo gelditzen dira lantokian galdutako orduak, benetako lantzat jotzen baitira. Laburbilduz, lan egindako orduak dira (ohiko lanaldian edo apartekoan) ken lan egin gabeko orduak.
- Lanaldi itundua: langilearen eta enpresaren artean ahozko akordioaren, banako kontratuaren edo hitzarmen kolektiboaren bidez legez ezarritako orduak dira.
- Aparteko orduak: itundutako lanalditik gorako orduak dira, nahitaez egin beharrekoak (aparteko ordu estrukturalak) edo borondatezkoak (estrukturalak ez diren aparteko orduak).
- Ordu osagarriak: lanaldi partzialeko kontratuan itundutako orduak dira ohiko orduen osagarri gisa. Ohiko ordu gisa ordaintzen eta kotizatzen dira.

2. Lan egin gabeko orduak

2.1. Lan egin gabeko orduak eta ordainduak. Arrazoi hauengatik lan egin gabeko orduak sartzen dira:

- Oporraldiak eta hilean izandako jaiegunak.
- Aldi baterako ezintasun bajako egunak.
- Amatasun, adopzio eta norberaren arrazoiengatiko baimen egunak.
- Aparteko orduengatiko konpentsazioan emandako atsedenaldiak.
- Ordezkaritza sindikaleko orduak, ezinbesteko betebeharra betetzekoak eta azterketetara eta medikuaren bisitetara joatea, besteak beste.
- Arrazoi teknikoak, antolakuntzakoak edo ekoizpenekoak direla-eta lan egin gabeko orduak edo egunak dira: langileak zerbitzua emateari edo ondasunak ekoizteari aldi batez uztea (etenaldi egunak) edo lanaldi murrizketak (murrizpen orduak), enpresen krisialdiak gainditzeko xedearekin.
- Lantokian galdutako orduak: ez langileari ez enpresaburuari ezin egotz dakizkiokeen arrazoiengatik lan egin gabeko orduak dira hala nola lanera lantzean behin ez azaltzea, makinak haustea, lehengairik eza, ezbehar atmosferikoak, mugimendu-indarra edo bestelako ezinbesteko kausak. Lan egin gabeko ordu horiek berreskuratzea ahalbidetzen du legeak, egunean ordu bat lan eginda, baina aurretik jakinarazpena egin bada eta kontrako akordiorik ez badago. Berreskuratu ez diren orduak baizik ez dira biltzen osagai honetan eta, beraz, benetan lan egin gabeko ordutzat har daitezke.

2.2. Lan egin gabeko eta ordaindu gabeko orduak. Hauexek sartzen dira:

- - Lan-gatazka: Grebengatik galdutako guztizko ordu kopurua da, greben toki, sektore edo enpresa eremukoak diren edo greba osoak edo partzialak diren aintzat hartu gabe. Ez da zenbatzen ondoren berreskuraturiko denbora.
- – Absentismoa; legezko zaintza; ugazaben itxiera….

Ugazaben itxieran, enpresaburuak lantokia ixten du talde-gatazkagatik, indarkeria edo kalte arriskuak daudenean, lantokia legez kanpo hartzen denean edo ekoizpenaren ohiko prozesua galarazten duten irregulartasunak direnean.

Legezko zaintza lanaldi murrizketa da berau eskatzen duten langileentzat, bere zaintzape zuzenean 6 urtetik beherako adingabea edo lanik egiten ez duen ezindu fisikoa edo psikikoa duelako.

b) LAN-KOSTUAK

Enplegatzaileak lan-faktorea erabiltzeagatik egiten duen kostuari deritzo lan-kostua. Bi ikuspegitatik aztertzen da:

- **Lan-kostua lan unitateko**: langile eta hile bakoitzeko lan-kostua da. Langile bati hilabetean enplegua emateak enpresarioari dakarkion kostua neurtzen du.

- **Lan-kostua denbora unitateko**: benetako lan egindako ordu bakoitzeko lan-kostua da. Benetako lan ordu batekin enpresarioari dakarkion kostua neurtzen du.

. Kopuru garbietan neurtu behar da kostua enplegatzailearentzat, hots, jasotako diru-laguntzak kenduta, eta partida-multzo zabala dakar, inkestak bi bloke nagusitan biltzen duena: lan-kostua eta beste kostu batzuk.

1. LAN-KOSTUA

Inoren konturako laneko zerbitzuen lanbide prestazioagatik langileei eskudirutan edo gauzatan eginiko diru-kopuru guztiak biltzen ditu, dela benetan lan egindako lana ordaintzekoak, ordaintzeko era edozein delarik ere, edo lan gisa zenbaturiko atsedenaldikoak.

Hauexek biltzen dituzte **soldatako diru-kopuruak**: oinarrizko soldata, soldata osagarriak, aparteko orduen edota ordu osagarrien ziozko ordainketak, aparteko dohaintzak eta gauzatako soldata.

Aparteko orduen edota ordu osagarrien ziozko ordainketak: aparteko orduen ziozko ordainketei dagozkie, bai estrukturalak (nahitaezkoak), bai ez-estrukturalak (borondatezkoak), eta ordu osagarrien ziozko ordainketei dagozkie lanaldi partzialeko langileen kasuan.

Aparteko dohaintzak: hilabetetik gorako aldizkakotasuna duten ordainsariak dira: aparteko pagak, etekinetan, primetan eta helburuetan parte hartzearen ziozko ordainketak eta ezohiko bestelako edozein ordainketa.

Ordainketa atzeratuak: erreferentziako hilean ordaindu diren baina aurreko epealdian sortu diren ordainketa guztiak dira.

2. BESTE KOSTU BATZUK

Beste kostuek barne hartzen dituzte soldatakoak ez diren diru-kopuruak eta Gizarte Segurantzarako nahitaezko kotizazioak.

Soldatakoak ez diren diru-kopuruak: langilek jasotako diru-kopuruak dira, ez bere lan jardueragatik, baizik lana betearazteak eragindako gastuak konpentsatzeko edo langileari ezin egotz dakizkiokeen betebeharrak edo egoerak estaltzeko.

Gizarte Segurantzarako nahitaezko kotizazioak: legez ezarritako ekarpenak dira, enplegatzaileak bere langileen alde Gizarte Segurantzaren Sistemari eginikoak, Sistemak ezarritako prestazioak estaltzeko, eta egoera hauen ondoriozkoak dira: gaixotasuna, amatasuna, laneko istripuak, baliaezintasuna, erretiroak, familia, bizirik irautea, langabezia, lanbide heziketa, soldata bermea edo Gizarte Segurantzaren Sistemak estalitako bestelako edozein kontingentzia.

HEZKUNTZA

- **Hezkuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatuak (HNSN 2011) eta Hezkuntzaren Sailkapen Nazionalak (HSN 2014) honako kategorizazio hau ezarri dute:**

HNSH 2011	*HSN 2014*
0 Lehen haurtzaroko hezkuntza edo lehen hezkuntzaren aurrekoa	0 Haur hezkuntza
1 Lehen hezkuntza	1 Lehen hezkuntza
2 Bigarren hezkuntza baxua	2 Bigarren hezkuntzako lehen etapa edo antzekoa
3 Bigarren hezkuntza altua	3 Bigarren hezkuntzako bigarren etapa eta antzekoa
4 DBH ondorengo hezkuntza ez tertziarioa	4 Goi-mailakoa ez den DBH ondorengo hezkuntza
Hezkuntza tertziarioa edo maila handiagokoa	
5 Ziklo laburreko hezkuntza tertziarioa	5 LHko irakaskuntzak, arte plastikoak eta diseinua eta goi graduko kiroletakoak eta baliokideak; batxilergo titulua behar duten unibertsitateko titulu propioak, 2 urtekoak edo luzeagoak
6 Hezkuntza tertziarioko edo maila baliokideko gradua	6 Gehienez 240 ECTS kredituko unibertsitate graduak, unibertsitate diplomaturak, adituaren edo espezialistaren unibertsitate titulu propioak eta antzekoak
7 Maisutzaren maila, espezializazioa edo baliokidea	7 240 ECTS kreditutik gorako unibertsitate graduak, lizentziaturak, Osasunaren Zientzietako masterrak eta espezialitateak egoitza sistemaren bidez eta antzekoak
8 Doktorego maila edo baliokidea	8 Doktorego irakaskuntzak
	9 Hezkuntza ez formala

- **Unibertsitateko graduak jakintza-adarrei atxikitzea:**

JAKINTZA-ADARRAK				
ARTEAK ETA HUMNITATEAK	**ZIENTZIAK**	**OSASUNAREN ZIENTZIAK**	**INGENIARITZA ETA ARKITEKTURA**	**GIZARTE ETA LEGE ZIENTZ.**
Arte Gradua	Biologia Gradua	Osasun Biologiako Gradua	Arkitektura Gradua	Antropologia Sozialeko eta Kulturako Gradua
Arte Eszenikoetako Gradua	Biokimika Gradua	Erizaintza Gradua	Diseinua Gradua	Jarduera Fisikoko Zientzietako Gradua
Arte Ederretako Gradua	Bioteknologia Gradua	Farmazia Gradua	Informatika Gradua	Kirolaren Zientzietako Gradua
Dantzaren Zientzietako Gradua	Elikagaien Zientziako eta Teknologiako Gradua	Fisioterapia Gradua	Ingeniaritza Aeronautikoko Gradua	Lanaren eta Giza Baliabideen Zientzietako Gradua
Antzinateko Zientzietako eta Hizkuntzetako Gradua	Ingurumen Zientzietako Gradua	Logopedia	Ingurumen Ingeniaritza Gradua	Lan Harremanetako eta Giza Baliabideetako Gradua
Diseinua Gradua	Zientzia Esperimentaleko Gradua	Medikuntza Gradua	Ingeniaritza Biomedikoko Gradua	Lan Harremanetako eta Enpleguko Gradua
Barnealdeen Diseinuko Gradua	Fisika Gradua	Giza Elikadura Dietetikako Gradua	Ingeniaritza eta Konputagailuen Gradua	Merkataritza Gradua
Moda Diseinuko Gradua	Geologia Gradua	Odontologia Gradua		Garapen, Merkataritza Kudeaketa eta Merkatuko Estrategietako Gradua
Multimedia Diseinu eta Diseinu Grafikoko Gradua	Estatistika Aplikatuko Gradua	Optika eta Optometria Gradua	Eraikuntza Ingeniaritzako Gradua	Marketin Gradua
Espainiera Gradua: hizkuntza eta literatura	Matematika Gradua	Optika, Optometria eta Audiologia Gradua	Energiaren Ingeniaritza Gradua	Marketing eta Kudeaketa Komertzialeko Gradua
Asia eta Afrika Gradua: Arabiera, Txinera eta Japoniera	Matematika eta Estatistika Gradua	Podologia Gradua	Softwarearen Ingeniaritza Gradua	Kriminologia Gradua
Ikasketa Hispanikoetako Gradua:	Kimika Gradua	Psikologia Gradua	Ingeniaritza Elektrikoko Gradua	Zuzenbide Gradua

espainiera eta bere literaturak				
Ikasketa Ingelesetako Gradua: Hizkuntza, Literatura eta Kultura		Lan-terapiako Gradua	Komunikazioetako Ingeniaritza Elektronikoko Gradua	Ekonomia Gradua
Filologia Klasikoko Gradua		Albaitaritza Gradua		Estatistika eta Enpresa Gradua
Filosofia Gradua			Komunikazio Zibiletako Ingeniaritza Gradua	Haur Hezkuntzako Gradua
Geografia eta Historia Gradua			Diseinu Industrialeko eta Produktuaren Garapeneko Ingeniaritza Gradua	Lehen Hezkuntzako Gradua
Kultur Kudeaketako Gradua			Industriala eta Produktuaren Garapena	Gizarte Hezkuntzako Gradua
Historia Gradua			Elektronika, Industria eta Automatika Ingeniaritza Gradua	Pedagogia Gradua
Artearen Historiako Gradua			Materialen Ingeniaritza Gradua	Enpresen Administrazioko eta Zuzendaritzako Gradua
Historiako eta Musikaren Zientzietako Gradua			Ikus-entzuneko Sistemen Ingeniaritza Gradua	Enpresen Zuzendaritzako eta Sorkuntzako Gradua
Humanitate Gradua			Ikus-entzuneko Sistemen Ingeniaritza eta Multimedia Gradua	Finantza Zuzendaritza eta Kontabilitateko Gradua
Hizkuntza eta Literatura Espainoleko Gradua			Komunikazio Sistemen Ingeniaritza Gradua	Finantza eta Kontabilitateko Gradua
Komunikazioan eta Marketinean Aplikaturiko Hizkuntzetako Gradua			Informazio Sistemetako Ingeniaritza Gradua	Merkataritza eta Finantza Kudeaketako Gradua
Hizkuntza Moderno eta Itzulpengintza Gradua			Soinu eta irudiaren Ingeniaritza Gradua	Geografia eta Lurraldearen Antolamenduko Gradua
Hizkuntza Modernoaren eta Bere Hizkuntzen Gradua			Teknologia Industrialeko Ingeniaritza Gradua	Hirigintza, Lurralde Antolamendu eta Iraunkortasuneko Gradua
Hizkuntza Moderno, Kultura eta Komunikazio Gradua			Telekomunikazio Teknologietako Ingeniaritza Gradua	Publizitate Komunikazioko Gradua
Paisajismo Gradua			Ingeniaritza Industrialeko Gradua	Ikus-entzunezko eta Multimedia Gradua
Itzulpengintza Gradua			Ingeniaritza Matematikako Gradua	Kazetaritza Gradua
Itzulpengintza eta Interpretazio Gradua			Ingeniaritza Mekanikoko Gradua	Publizitate Gradua
			Ingeniaritza Kimikoko Gradua	Publizitate eta Harreman Politiketako Gradua
			Telekomunikazio Sistemen Ingeniaritzako Gradua	Zientzia Politiketako Gradua
			Antolaketa Industrialeko Gradua	Zientzia Politikoko eta Administrazio Politikoko Gradua
				Zientzia Politikoko eta Merkataritza Kudeaketako Gradua
				Nazioarteko Harremanetako Gradua
				Soziologia Gradua
				Turismo eta Aisialdi Enpresen Nazioarteko Zuzendaritza Gradua
				Garraioaren eta Logistikaren Zientzietako Gradua
				Gizarte Laneko Gradua
				Informazio eta Dokumentazio Gradua

GIZARTE BABESA

- **Adinkeria**

  Adinaren ziozko diskriminazioa, ingelesezko "ageism" terminoarekin ere ezaguna (aldi berean, Europako Batzordeak «edaísmo» itzuli du gaztelaniara) adinaren zioz pertsonen edo taldeen kontra eginiko estereotipifikazioa eta diskriminazioa da. Pertsonak adinaren arabera diskriminatzen dituzten zenbait sinesmen, arau eta balio biltzen ditu adinkeriak.

- **Gizarte Babesaren Kontua**[1].

  SEEPROS Gidaliburuaren arabera, hauexek biltzen ditu Gizarte Babesaren kontzeptuak: "*ezarritako zenbait arriskuk edo beharrek familientzat eta banakoentzat dakarten karga arintzeko erakunde publikoek edo pribatuek eginiko esku-hartzeak, betiere aldibereko, elkarrekiko edo banako akordiorik ez badago*". Banako "akordiorik" ez izateak berekin dakar taldeka egitea arriskuaren, kontingentziaren edo beharraren estaldura, eta beraz, kanpoan gelditzen dira banako ekimenen, partikularren edo soilik bere alde hartutako familien ondoriozko balizko gastuak.

  Soilik Gizarte Segurantzaren Sistemetako erakundeek buruturiko ekintzak biltzen dituzten gizarte babesaren arloko beste estatistika batzuen aurrean, hala nola Lanaren Nazioarteko Bulegoa, SEEPROS metodologian, definizio orokorreko beharkizunen arabera gizarte babesteko ekintzak burutzen dituen edozein erakundetara dago irekita behatze-eremua, publikoa nahiz pribatua.

  Hona hemen Gizarte Babesaren kontzeptuaren barruko estaldura duten **kontingentziak**:

  - **Gaixotasun funtzioa / Osasun arreta:** Funtzio horretan, bi prestazio mota sartu behar dira:
    - Gaixotasunaren ziozko sarreren galera ordezteko eskudiruzko prestazioak.
    - Irizpide horrek berekin dakar baliaezintasunagatik edo amatasunagatik emandako laguntza funtzio horretan sartzea baliaezintasunaren edo familiaren/seme-alaben ordez, hurrenez hurren. Langileari enpresan emandako osasun arreta ez dago bilduta, ekoizpen prozesuko beharrezko input gisa hartzen baita; errendimendua lortzen du enpresarioak horregatik.
  - **Baliaezintasun funtzioa:** funtzio horren barruan, bi mota handitan sailka daitezkeen hainbat prestazio biltzen dira:
    - Alde batetik, lan jarduera egiteko gaitasuna osorik edo zati batez galtzearen ziozko sarrerak murrizketa konpentsatzeko onuradunari emandako prestazio ekonomikoak, legerian ezarritakoaren arabera.
    - Bestalde, errehabilitazio zerbitzuak eta beste batzuk, gaixotasun / osasun arreta funtzioan zenbatzen den osasun laguntzakoak izan ezik.

  Garrantzizkoa da zehaztea soilik zenbatzen direla funtzio honetan erretiro adinera iritsi ez diren onuradunek jasotako baliaezintasun pentsioak. Adin hori gaindituta, zahartzaro funtzioari egozten zaio prestazioa. Era berean, ez dira hemen sartzen lan ezintasuneko aldietako diru eta laguntza prestazioak (legean ezarritako irizpideekin bat etorriz), gaixotasun /osasun arreta funtzioan.

  - **Zahartzaro funtzioa**: zahartzaroaren ondorioak nolabait arintzeko sortutako prestazio multzo osoa hartzen du bere baitan, hauexek barne: sarreren galera, ohiko atazak egiteko autonomia galera edo gizarte jardueraren gutxipena.

[1] http://www.eustat.eus/estadisticas/tema_94/opt_0/tipo_5/ti_Cuenta_de_la_Proteccion_Social/temas.html

ESSPROS 2008ko Gidaliburuan ezarritakoaren arabera, erretiro eta zahartzaro pentsioak eta baliaezintasun pentsioak biltzen ditu funtzioak, baldin eta onuradunak 65 urte edo gehiago badituzte.

- **Bizirik irauten dutenen funtzioa**: funtzio honetan, diru-iturri nagusia den senidearen edo pertsonaren galera izan dutenei emandako prestazio ekonomiko guztiak daude bilduta. ESSPROS 2008ko Gidaliburuan ezarritakoaren arabera, bizirik irauteari dagozkion pentsio guztiak daude bilduta.

  Era berean, heriotzak eragindako kargak betetzeko zenbait konpentsazio biltzen dira, hala nola ehorztetxeko gastuak.

- **Familia / Seme-alabak funtzioak**: seme-alaben jaiotzak eta hazkuntzak dakartzan gastuak gutxitzeko familiei emandako diru-laguntzak sartzen ditu, baita familiako beste kide batzuen mantentzea ere. Emakume langileei erditu aurretik edo ondoren emandako errentak mantentzea ere sartzen da.

  Halaber, funtzio honetan biltzen dira familia erakundea eta bereziki seme-alabak babesteko gizarte zerbitzu guztiak hala nola zentro espezializatuetako edo etxe partikularretako ostatu-hartzea, edo haurtzaindegi zerbitzuak.

- **Langabezia funtzioa:** SEEPROS 1996ko Gidaliburuan funtzio horrek, enplegu politiketako ohiko sailkapenaren arabera, neurri pasiboak biltzen dira alde batetik, hots, ordaindutako enplegurik ez izateak dakartzan ondorioak arintzeko –bereziki sarrera-iturri nahikorik ez izatearekin lotutakoak-, eta bestetik, neurri aktiboak, langabezia egoerei aurrea hartzeko edo gutxitzeko.

Horrenbestez, langabezia subsidioek (zati batekoa edo osoa), bizirik irauteko errentak edo erretiro aurreratuko pentsioak osatzen dute funtzioa, betiere erretiroa hartzeko arrazoia lan-merkatuaren egoeran badago, baita lanbide heziketako subsidioak eta onuradunak gaur egun eta geroan enpleguaren aldetik izan ditzakeen posibilitateak hobetzeko era guztietako laguntzak eta prestazioak. Horrez gain, INEMek bere kargura dauden langabeek zenbait onura jasotzeko duten eskubidea bermatzeko Gizarte Segurantzari eginiko kotizazioak zenbatzen dira funtzio honetan.

- **Etxebizitza funtzioa**: kasu honetan, etxebizitza gastuei aurre egiteko familiei emandako laguntzak dira. Okupatzaileentzako laguntzak izan behar dute, etxebizitzaren jabeak izan zein alokairuan izan, eta ez eraikitzaileentzat edo beren etxebizitzak okupatzen ez dituzten jabeentzat. Honakoak dira, funtsean, laguntzak: alokairu kostuak edo hipoteka interesen ordainketak gutxitzeko ohiko transferentziak.
  Aurreko edizioen aldean, Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren arloko eskumenak erabiltzearen ondoriozko gastuak biltzen dira edizio honetan. Ildo horretan, aldatu egin da serie osoa, emaitzak bateratuak izan daitezen denboraren aldetik. Metodologia dela-eta, etxebizitza eskuratzen dutenen aldeko zuzeneko diru-laguntzen eta interesen subsidioen zenbatekoak zenbatu dira soilik, baita alokairuko etxebizitzaren sustatzaileentzako eta eskuratzaileentzako laguntzak ere.

- **Beste tokiren batean sailkatu gabeko Gizarte Bazterketa funtzioa**: funtzio honen garrantzia oso txikia da SEEPROS 1996ko Gidaliburuak planteatzen duen eskema funtzionalaren eraketan. Beste ezein funtziotan sartzen ez diren arriskuekin eta beharrekin lotutako prestazioak daude bertan. Funtzioak, jakina, prestazio sorta heterogenoa biltzen du, zeinen ezaugarri komuna diru-baliabide urriarekin lotutako gizarte bazterketak galarazten edo arintzen saiatzea baita, edo osasunaren, hezkuntzaren edo enpleguaren arloko arazoen presentziarekin loturikoak.

Bestalde, hona hemen **sistemak eta sistema-taldeak** Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Babeseko Kontuan:

- **Gizarte Segurantzaren Sistema.** Gizarte Segurantzako erregimenek osatzen dute. Erregimen horiek kudeatzen dituzte Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak, Itsasoko Gizarte Institutuak eta laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen mutualitateek. Gizarte segurantzaren familia-babesa dago bilduta berariazko sistema batean. Gizarte Segurantzaren Konpentsazio Fondoa fikziozko sistema da, gizarte segurantzan superabita eta defizita duten erregimenen arteko transferentzien konpentsazio-ganbera gisa diharduena eta erregimen horien artean ezin bana daitezkeen gastuak eta sarrerak egozten zaizkionak.
- **Enplegu Institutu Nazionala.** Erakunde independente bat da eta garrantzi handia du langabeen gizarte-babesean.
- **Funtzionario publikoen erregimenak**. Epigrafe honetan Funtzionario Publikoen Araubide Berezia dagokien langileen gizarte-babeserako diru-sarrerak eta gastuak daude jasota. Horren barruan sartzen dira oinarrizko prestazioak deritzenak edo klase pasiboen erregimena, eta administrazio-mutualismoari dagozkionak, aipaturiko aldian indarrean dauden funtzionarioen hiru mutualitateek ordaindutakoak: Estatuko Funtzionario Zibilen Mutualitatea (MUFACE), Indar Armatuen Gizarte Erakundeak (ISFAS) eta Mutualitate Orokor Judiziala (MUGEJU). Multzo horretan sartzen da, baita ere, herri-administrazioek haien langileek aldi baterako ezintasunen bat dutenean edo seme-alabaren bat izaten dutenean haien soldata eta ordainsariei eusteko jartzen dituzten zenbatekoen balioespena.
- **Bestelako Gizarte Babeseko Sistemak**: askotariko sistemek eta erakundeek emandako gizarte babesa biltzen duen gainerakoen multzoa da eta, beraz, taldeetako heterogeneoena da. Hona hemen taldekatzen dituen sistemarik garrantzitsuenak:
- **Osasun sistema publikoa**, osasunaren arloko beren eskumenak direla bide euskal administrazioek eginiko jarduketak biltzen ditu.
- **Gizarte zerbitzuen sistema publikoa**, EAEko administrazioren maila desberdinek gizarte zerbitzuaren arloan dauden erantzukizunak biltzen dituena. Langileen enplegatzaileengandik zuzenean jasotzen dituzten eta prestazio horien nahitaezkotasunaren arabera bi sistematan banantzen direnak.
- Gizarte aseguru pribatuaren definizioari dagozkion aseguru fenomenoak, Kontuen Europako Sistemaren (KES-95) arabera, bereziki Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen zati bat (honelakotzat har daiteke).
- Gizarte babesaren arloan berariazko helburua duten **erakunde publikoen ekintza,** hala nola Soldatak Bermatzeko Fondoa (FOGASA).
- Gizarte zerbitzuen arloan diharduten **Irabazteko Asmorik gabeko Erakunde Pribatuen jarduketa**.